

E U S K E R A

Euskaltzaindiaren lan eta agiriak
Trabajos y actas de la Real Academia de la Lengua Vasca
Travaux et actes de l'Académie de la Langue Basque



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE

2006, 2
51. liburukia (2. aldia)
BILBO

EUSKALTZAINDIA

Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
Telefonoa: 94 415 81 55
Faxa: 94 415 81 44
e.posta: info@euskaltzaindia.net
web gunea: www.euskaltzaindia.net

Argitalpen batzordea / Comisión de publicaciones:

Burua: Andres Maria Urrutia Badiola
Kideak: Beñat Oihartzabal
Xabier Kintana
Jose Luis Lizundia
Henrike Knörr
Andres Iñigo
Jose Antonio Arana Martija
Adolfo Arejita
Pello Salaburu
Eragile eta idazkaria: Ricardo Badiola Uriarte

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabetunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoz edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, apaimenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

ISSN. 0210-1564

Euskera

ISBN. 85479

Lege-gordailua BI-1.244-58

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.
Particular de Costa, 8-10 - 48010 Bilbao

Inprimategia: Emfasis
Gorbeia, 1 - 48004 Etxebarri (Bizkaia)

Aldizkari hau beste agerkariekin trukutzen da. Otoi, idatz Zuzendariari. Esta **Revista** admite el intercambio con otras publicaciones.
Rogamos dirigirse al Director.

AURKIBIDEA

ANA M.^a TOLEDO LEZETA, EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Ana Maria Toledo Lezeta, Euskaltzaindian sartzea. Ongietorri!, <i>Jose Angel Zabalo</i>	623
Ana Maria Toledo Lezeta. Agurra, <i>Andres Urrutia</i>	625
Musen arnasatik goi-arnasara, euskal letretan barrena, <i>Ana Maria Toledo Lezeta</i>	629
Ana Maria Toledo Lezeta euskaltzainaren sarrera-hitzaldia eta <i>Jean Haritschelhar</i> euskaltzainburu ohiaren erantzuna	657

PATXI SALABERRI ZARATIEGI, EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Patxi Salaberri, <i>María Jesús Zoroza</i>	667
Patxi Salaberri Zaratiegi, Euskaltzaindian sartzea. Agurra, <i>Andres Urrutia</i>	669
Uxueko izenak mintzagai, <i>Patxi Salaberri Zaratiegi</i>	673
Sobre los nombres de Ujué, <i>Patxi Salaberri Zaratiegi</i>	693
Hamahirugarrena Uxuekoa, Erriberriko Merindadekoa, <i>Andres Iñigo</i> ..	713

MENDEURREN ETA OSPAKIZUNAK

Joan Perez Lazarraga (1550-1605) idazlearen IV. mendurrena: 1605-2005. Ongietorria/Bienvenida, <i>Jose Felix Urrutia</i>	723
--	-----

NAFARROA OINEZ 2006

<i>Nafarroa Oinez 2006. Ongietorria, Jon Abril</i>	727
<i>Agurra, Andres Urrutia</i>	729
<i>Bera / Vera de Bidasoa herri izenaz, Andres Iñigo</i>	731
<i>Bortzirietako euskararen bilakaera eta egungo egoera, Patri Arburua</i> ..	737
<i>Labiagak Laruni itzala egin zionekoa, edo «gerla eder eta miragarri hura» hasi zenekoa, Joxan Oiz</i>	771

R. M. AZKUE/LAURO IKASTOLA LEGEZTATU ZENEKO 40. URTEURRENA

<i>R. M. Azkue/Lauro Ikastola 40. urteurrena. Ongi etorriak!, Andres Urrutia</i>	777
<i>Lauro Ikastola, Ignacio Etxeberria</i>	779
<i>R. M. Azkue/Lauro Ikastola 40. urtemuga, Pedro Aranburu</i>	781
<i>Euskaltzaindia eta Lauro Ikastola: euskararen aldeko 50 urteko kidetasun ibilbidea, Jaime Martinez</i>	785

JUAN SAN MARTIN, EUSKALTZAIN OSOA, EIBARKO SEME KUTUN

<i>Juan San Martin Eibarko seme kutun, Andres Urrutia</i>	813
---	-----

IKER SAILA

ONOMASTIKA

<i>Irizpenak, Mikel Gorrotxategi</i>	819
--	-----

UDAL IZENEZ

Gaubea , <i>Xabier Kintana</i>	823
Erriberagoitia , <i>Onomastika Batzordea</i>	824

KONTZEJUEEN IZENEZ

Jungitu , <i>Onomastika Batzordea</i>	829
Komunioi , <i>Onomastika Batzordea</i>	831
Gamiz , <i>Onomastika Batzordea</i>	835
Ihurre , <i>Onomastika Batzordea</i>	839
<i>Berantevilla</i> eta <i>Soportilla</i> izenen inguruan, <i>Henrike Knörr</i>	843
En torno a <i>Berantevilla</i> y <i>Soportilla</i> , <i>Henrike Knörr</i>	845
Euskal Herri inguruko exonimoak. Exonomastika azpibatzordea. <i>Euskaltzaindia</i>	847

LITERATURA

Agur hitzak (Ondarroan, Herri-hizkera Jardunaldia), <i>Andres Urrutia</i> . .	869
Agustin Zubikarai (1914-2004) & Euskalteatroa, <i>Patri Urkizu</i>	871
La noticia de <i>Nemzeti Hírlap</i> . La correspondencia del Pr. Luciano Bonaparte con un científico húngaro, <i>Karoly Morvay</i>	879

JAGON SAILA

X. JAGON JARDUNALDIAK

X. <i>Jagon</i> Jardunaldiak. Aurkezpena, <i>Andres Urrutia</i>	889
Europar Batasuneko hizkuntza aniztasuna eta euskararen hizkuntza politikak. Sarrera, <i>Erramun Osa</i>	891
Hizkuntza aniztasuna Europar Batasunean, <i>Patxi Juaristi</i>	893

Eremu urriko hizkuntzak Europa Batuan, <i>Erramun Baxok</i>	919
Eremu urriko hizkuntzak Europar Batasunean: ikuspegi juridikoa Hego Euskal Herritik, <i>Santiago Larrazabal</i>	969
Europar Batasuna eta euskararen aldeko hizkuntza politika Ipar Euskal Herrian, <i>Jean-Baptiste Battittu Coyos</i>	985
Europar Batasuna eta euskararen aldeko hizkuntza politika: Nafarroa, <i>Andres Iñigo</i>	999
Eremu urriko hizkuntzak Europan Euskal Autonomia Erkidegoko egoera jorratuz, <i>Jose Luis Lizundia</i>	1009
Europar Batasuneko hizkuntza aniztasuna eta euskararen hizkuntza politikak X. <i>Jagon</i> Jardunaldien <i>ondorioak</i>	1015
* * *	
Euskararen iraupena, atzo eta gaur (2006-2007 ikasturteko irekiera-hitzaldia). Deustuko Unibertsitatea, <i>Ana M^a Toledo Lezeta</i>	1019

SUSTAPEN BATZORDEA

Hizkuntza politika aitzinproiektua «hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun», <i>Euskaltzaindiko Sustapen Batzordea</i>	1029
Pré-projet de politique linguistique «un objectif central: des locuteurs complets. Un cœur de cible: les jeunes générations»	1035
* * *	
<i>Jagoneteko</i> 2006ko datuak, <i>Joxe Ramon Zubimendi</i>	1041

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-HISTORIA (X)

Euskaltzaindiaren Barne-Historiaz, <i>Xabier Kintana</i>	1045
Euskaltzaindiaren Barne-Historia: X. emanaldia, <i>Piarres Xarritton</i> . . .	1047

EUSKALTZAINDIAREN AGIRIAK

BATZAR-AGIRIAK

Ageriko bilkura	1053
Antzuolan, 2006ko uztailaren 20an	1057
Ageriko bilkura	1061
Uxuen, 2006ko irailaren 28an	1063
Ageriko bilkura	1067
Bilbon, 2006ko urriaren 27an	1069
Ageriko bilkura	1071
Bilbon, 2006ko azaroaren 24an	1073
Donostian, 2006ko abenduaren 22an	1075

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

32. Espainiako Erresumako autonomia-erkidegoen, probintzien eta probintzia-hiriburuen izenak. (Arau zuzendua eta eguneratua) ...	1081
149. Euskal Herri inguruko exonimoak	1095
150. Arabako Herri Izendegia	1099

AZKUE BIBLIOTEKAREN KATALOGAZIO ERREGELAK

Azkue Bibliotekaren <i>katalogazio erregelak</i>	1111
--	------

HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA IPARRALDEAN

D-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA

D-mailako hizkuntza gaitasun agiria, <i>Piarres Xarritton</i>	1263
D-mailako hizkuntza gaitasun agiria: 2006-VII-20	1265
D-mailako hizkuntza gaitasun agiria: 2006-XII-22	1267

BERRIAK

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa-Euskaltzaindia. Literatura sariak	1271
<i>Santxa Kondesa</i> antzezlan, <i>Aizpea Goenaga</i>	1273
<i>Mendebaldearen mintzo mindua</i> . Aurkezpena, <i>Joseba Azkarraga</i>	1275
Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa-Euskaltzaindia: R.M. Azkue sariak: <i>Narrazioak eta olerkiak 2005</i> . liburukiaren aurkezpena	1277
Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa-Euskaltzaindia: 2006. urteko literatu- ra sariak	1279
Txema Garcia-Viana: <i>Txomin Agirre</i> Saria. Eleberria: <i>Arkitektoa</i>	1280
Alaitz Olaizola: <i>Toribio Alzaga</i> Saria. Antzerkia: <i>Joanes. Itxaropena- ren semea</i>	1281
Aintzane Galardi Portu: <i>Felipe Arrese</i> Beitia Saria. Olerkia: <i>Zirrikituak</i> .	1283
Sebastian Gartzia Trujillo: <i>Mikel Zarate</i> Saria. Saiakera: <i>Herri maitea, Herri dorpea</i>	1284
* * *	
Euskaltzain urgazle berriei diplomak eman dizkie Euskaltzaindiak . . .	1287
Euskaltzain urgazle berriak, <i>Andres Urrutia</i>	1291
Euskaltzain urgazle berriei diplomak banatzea, <i>Andoni Egaña</i>	1295
* * *	
Euskaltzaindia <i>Saló del Llibre de Barcelona 2006</i> , <i>Jon Artza-Ricardo Badiola</i>	1297
* * *	
Pili Artzari zilarrezko domina	1299
* * *	
Durangoko 41. Euskal Liburu eta Disko Azoka, <i>Ricardo Badiola-Jon Artza</i>	1301
* * *	

Istitut d'Estudis Catalans. Euskaltzaindia: els treballs sobre la codificació lingüística de l'èuscar, *Henrike Knörr* 1303

HIL BERRIAK

Federico Barrenengoa Arberas (1916-2005), *Henrike Knörr* 1311

Gaizka Barandiaran (1916-03-03/2006-07-20), *Josemari Velez de Mendizabal* 1315

Jose Maria Etxaburu Etxaburu (1913-2006), *Gorka Aulestia Txakartegi* . 1323

* * *

Akats-zerrenda/Fe de erratas 1329

* * *

Aurkibidea / Índice / Index, **2006** 1333

**ANA M.^a TOLEDO LEZETA,
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

Antzuola, 2006-VII-21

**ANA MARIA TOLEDO LEZETA,
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA
Ongietorri!**

Jose Angel Zabalo, Antzuolako alkatea

Egun on, Jaun-Andere agintariok,
egun on, Euskaltzaindia eta Unibertsitateko Jaun-Andereok,
egun on, Antzuolako erakundeetako agintariok,
egun on, Antzuolako herriari eta etorri diren denoi.

Ongi etorri ekitaldi akademiko honetara. Ohore handia da gure herriarentzat tamaina honetako ekitaldi bat edukitzea. Hau posible izan da, bere egunean Anak hartu zuen erabakiarengatik: sarrerako hitzaldia bere jaioterrian egitea.

Anak bete behar du Juan San Martinek utzitako eserlekua. Ez da lan erraza, denak ezagutu baikenuen San Martin zein pertsona ospetsua eta langilea zen. Berak esaten zuen moduan, biharrerako ez da eduki behar lotsarik eta Ana ikusi eta gero, zer nolako ilusioarekin dagoen eta bere lanerako gogoarekin, ez dut zalantzarik, gaindituko duela.

Helburuetako bat da gure hizkuntza zahar eta eder hau hobetzea, gero guk erabiltzeko.

Besterik gabe, eskerrik asko eta zorionak.

ANA MARIA TOLEDO LEZETA

Agurra

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Gipuzkoako Foru Ahaldun Nagusia,
Antzuolako alkatea, Udaleko zinegotziak eta Udal honetako kideak,
antzuolarrak,
agintariak,
euskaltzainak,
jaun-andreok.
Egun on guztioi!

Antzuolan dago gaur Euskaltzaindia, Antzuolako herritar batek akade-
mian egingo duen sarrera-hitzaldira eta ondorengo ospakizunetara etorrita.

Ez dira deusezak eta funtsik gabekoak Antzuolaren eta Euskaltzaindia-
ren arteko harremanak. Izan ere, berrikitan ondu da Euskaltzaindiaren esku-
tik eta Antzuolako Udalaren babespean, hemengo toponimiaren azterketa eta
ikerketa.

Egun, aldiz, gaia oso bestelakoa dugu. Ana Toledo Lezeta antzuolarrak
bere sarrera-hitzaldia egingo du eta jarraian hartuko ditu euskaltzain osoaren
ezaugarriak.

Ana Toledok beti izan du gogoko literatura, euskal literatura, hain zuzen
ere. Literatura gorabehera, horrek ez du Ana Toledo desbideratu euskaltzale-
tasunetik. Aldiz, biak egoki uztartu ditu, esanaz zein ekintzaz.

UZEI erakundeak Donostiako Esterlines kalean zuen egoitza hasi, eta
Deustuko Unibertsitatearen korridore luzeetan bukatu, Anak eta biok ekimen
batzuk aldi bereko izan ditugu geure bizitzan. Gogora dezadan, bide batez,
Ondarroako hura, Ana Toledok itsasalde agirretarrean bere tesiaren liburua aur-
keztu zueneko. Oroimenean dut Ondarroako udalaren areto nagusia, bera aur-
kezle eta ni entzule. Zinez estimagarria izan zen niretzat Anaren agerraldia,
besteak beste, hantxe sumatu bainuen Ana Toledok Txomin Agirrerren nobela-
gintzari ekarri zion teoria eta kritika literarioaren modernitatea.

Bien bitartean, Ana Toledo Lezetaren ekina modu askotakoa izan da. Aipa dezadan, lehendabizi, maila instituzionalean egin duen lana, akademiatik kanpo zein barnean. Horretan ere, zalantzarik ez, Ana Toledok badiu eskarmen-tua eta jakituria, Euskaltzaindiak berak baliatu dituenak aspalditik, dela Juan Mari Lekuona zenaren ordezkio moduan, dela orain, bete-betean, Gipuzkoako ordezkari moduan.

Kudeaketa- eta administrazio-lanak, alabaina, astun eta pisutsu izaten dira gogoko ditugun beste horien aldamenean. Horretan, zer esanik ez, Ana Toledok bi-biak ondu ditu artez eta txukun. Literaturarena, zer esanik ez, ogibidea du, eta Deustuko Unibertsitatean egin duen ibilbidea eta haren argitalpenek berehala erakusten dute irakurle saiaturia, irakasle zorrotz eta trebea, eskola-

	
Euskaltzaindia	Antzualdeko Udala
ANDRES URRUTIA Euskaltzainburua	JOSE ANGEL ZABALO Antzualdeko alkatea

000

Atzeriaz handiz gogohidatzen zaituzte Ana M^o Toledo Lezeta euskaltzaindiaren 110. prentsaurrean sartze-ekitaldira. Baitzar izaki hau Antzualdeko Udalerriaren izenpean da, azarriaren 27ean, ostirala, goizko 11:00etan.

– Sarrera-itzaldia: **Museen arnasatik gori-arnasara, eskualde letratuan barrena.**

– *Ana Haritxelburuaren jaiak 110. prentsaurreko erantsango dira.*

Bilbo, 2006ko azarria

Errotaletan, adierazteko azarriaren 110. baitan lehen telefono honetara deitu: 94 - 417 81 33

	
Euskaltzaindia	Ayuntamiento de Antzuola
ANDRES URRUTIA Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca	JOSE ANGEL ZABALO Alcalde de Antzuola

7

Se complacen en invitarle al acto que, con motivo del ingreso de la académica electa Excmo. Sra. D^a. Ana M^o Toledo Lezeta, se celebrará en la Casa Consistorial de Antzuola el viernes 21 de julio, a las 11:00 de la mañana.

– *Discurso de ingreso: **Museen arnasatik gori-arnasara, eskualde letratuan barrena.***

– *Respuesta del Excmo. Sr. D. Juan Haritxelburu.*

Bilbo, julio de 2006

Se ruega que, antes del 14 de julio, confirme su asistencia, llamando al teléfono 94 - 417 81 33

-gaiak unibertsitatean behar duen maila egundo ere bazterten ez duena, eta, aldi berean, euskal belaunaldi berriak osatzen dituzten ikasleen kezka aintzat hartzen dituen.

Kezka berean dabil betidanik Euskaltzaindia, euskal literatura solasgai eta aztergai dituela. Aurki izango dugu gure artean, Literatura batzordearen eskutik, *Literatura Hiztegia*, guztiontzat lagungarri. Hortxe ere, beste batzordeki-deekin batera, Ana Toledo Lezeta jardule eta eragile.

Kezka horren erakusle nabarmena, bestalde, jarraian entzungo duguna. Bateko, Anarena, euskal literaturaren ibilbidean barrena eramango gaituena eta besteko, Jean Haritschelharrena, erantzun egokia emango diona. Literaturaren gaineko gogoetaldi esanguratsua eta goi mailakoa, beraz, gaurkoa. Are gehiago erreparatzen badiogu bi hizlariok erkide duten tabakorri zaletasun horri. Argi dago entzungo duguna, *fumus* baino, zin-zinezko *humus* izango dela, euskal literaturaren baratzerako ongarri fina eta apartekoa.

Badira Anaren biografian bestelako hariak, barru-barruko zaizkionak, irakaslea eta ikertzailea ez ezik, ama familiakoa eta emaztea ere baita.

Zorionak, hortaz, etxekoei, eta goza dezagun orain Anaren sarrera-hitzaldiarekin eta Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiaren erantzunarekin.

Mila esker, bestalde, Euskaltzaindiaren izenean zuen harrerarengatik, eta gatozen orain ekitaldiaren protokolora.

Hitza du Xabier Kintanak, Euskaltzaindiaren idazkariak.

MUSEN ARNASATIK GOI-ARNASARA, EUSKAL LETRETAN BARRENA

Ana M^a Toledo Lezeta euskaltzainaren *sarrera-hitzaldia*

Euskaltzainburua,
euskaltzainkideak,
agintariak,
antzuolarrak,
etxekoak,
lagunak,
jaun-andreak.

«Oñetaco lurrau jabilt icara» (1). Deiadar hori egin zuen Ozaetako San-txa Otxoa andreak, Debarro honetan, senarra hil ziotenean. Senarra, Artazu-biagako Martin Bañez zuen, eta oñaztarrek hil zioten, Arrasatetik Garagarza-rako bidean, 1464. urte inguruan. Andreak eresi bat egin zuen orduan, heriotzak eragindako mina adieraziz; eta, besteak beste, bertso-lerro hori era-bili zuen.

Nik ere, Debarro honetan, oinetako lur hau dabilkit ikara, Ozaetako San-txa Otxoak bezala, bost mende eta erdi geroago. Bestelakoa dut, jakina, ika-ra-sortzailea. Hark, senarraren heriotza odoltsua zuen eragile; nik, Juan San Martinen heriotzak hutsik utzitako aulkia hartzearen erantzukizuna.

Hamazazpi urteko mutil gaztea zen Juan San Martin 1939an, noizbait amaitu zenean Gerra Zibila deitu dena. Gerra horrek markatuko zuen haren gaztaroa. Aurretik, makina bat liskar eta gatazkak bitan banatua zuen gure he-rria: oñaztar eta ganboar, agramondar eta beaumontdar, kalbindar eta katoliko, karlista eta liberal, zuri eta gorri... Hala ere, aurrera egin du Euskal Herriak. Etorriko dira Iparraldera mundu-gerra, eta Hegoaldera gerraosteko gosetea, kartzelak, atzerriratu beharra... eta euskarazko adierazpenaren isilaldia. Baina etorriko da, 1950-1960ko hamarkadan, berreraikitzen hasteko aukera txiki bat ere. Eta nekagaitz helduko dio Juan San Martinek egiteko horri.

(1) MICHELENA, Luis: *Textos arcaicos vascos*, Ediciones Minotauro, Madrid, 1964, 91. or.

«Euskalduna naiz, eta nahi dut nire herriak euskaldun irauin dezan. Ta, ez da asko eskatzen dudana: gizon guztientzat eskubide berdina, ta herri guztientzat ere hori berori» (2).

Horra hor, bi esaldi labur horietan, haren ikurritz finko eta tinkoa. Egunaren ordu guztiak gutxiegi zituen lanerako. Gaur, espezializazioaren garai honetan, mirespena sortzen du ikusteak zenbat jakintza-alor landu zituen: etnografia, herri-arte, literatura... Eta, aisiaren kultura honetan, begirunea besterik ezin eragin dezake euskal adierazpenaren sustatze-lanari eman zizkion ordu kontaezinak, bertsolari-txapelketak antolatzen, alfabetatze-kanpainak eta gau-eskolak sortzen, idazle gazteei laguntzen...

Oso hamarkada zailak dira 1950-1960koa eta hurrengoa: diktadura frankistak ezarritako eskubide-murizketa, euskararen agonia-egoera... Juan San Martinek *Anaitasuna* eta *Euzko Gogoa*, *Karmel* eta *Oleriti* aldizkarietan argitaratzen ditu ideiak eta sortze-lanak. Eta 1957an, euskaltzain urgazle hautatu zutenerako, eguneroko bizitzako goiburu zuen –eta hala izango du aurrerantzean ere– Hizkuntzaren Akademiaren goiburua: «Ekin eta jarrai». Nonahi eta zernahitan erabili behar da euskara, irauingo badu. Behar horri erantzuteak egiteko franko sorrarazten zuen. Baina hamarkada horietako zailtasunak ez datoz hortik soilik. Tartean baita belaunaldien arteko haustura ere, kudeaketa-lan kopilatsua eskatuz. Lan horretan eman zituen San Martinek bere onenak. Gaur, gaintuak dira orduko hainbat auzi: dela euskaraz argitaratu ahal izatea, dela euskara batuaren ereduarena, dela euskara eguneratu beharra... Beste batzuk dira gaurko erronkak, baina San Martini eta beste zenbaiti esker: beren garai-ko erronkei erantzunez, bidegileak izan eta bideak ireki zituztelako. Beraz, nola ez sentitu oinetako lurra ikaran, horrelako bidegile batek ondo betetako aulkiaren aurrean? Jaso dugun formazioaz eta eskuratutako esperientziaz saiatu beharko gaurko geure erronkei erantzuten.

Juan San Martinek eta euskalgintzan ziharduten garaikideek ere ikaran sentitu zuten oinetako lurra. Haustura batek eragina zen lurrikara. Bertan behera baitatoz, 1950-1960ko hamarkadan, ordu arte euskal letrek izandako oinarri erlijiosoak eta ideologikoak.

* * *

Hiru indar nagusik bultzatu dituzte euskal letrak XX. mendeko bigarren erdia arte: Antzinateak, Jainkoak eta herriaren izaerak. Bestela esanda, Errenazimendua, Kontrarreforma eta Erromantizismoa izan ditu euskal idazkuntzak hauspo. Errenazimenduak Antzinatea itzultzen ditu begiak, grekolatindar Antzinatea pizteko eta norbere herriaren Antzinatea aurkitzeko. Kontrarrefor-

(2) «Euskaldun zertako?» galderarekin ari dela esana. Antton Narvaizak aipatua: *Bidegileak. Juan San Martin (1922-2005)*, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria/Gasteiz, 2005, 20. or.

mak Jainkoarengan ipintzen ditu begiak; eta Erromantizismoak, banakotua dagoen hartan, dela gizabanako mailan, dela giza komunitate mailan. Euskal letrak, Errenazimenduaren indarrak bultzaturik, grekolatindar Antzinateko musak aurkitu zituzten; eta norbere Antzinateko hizkuntza: euskara; eta historia, baina erdaraz. Kontrarreformak bultzaturik, eliz liburua ondu zuten; eta Erromantizismoaren magalean, giza taldearen izaera berezia adierazi.

Hiru indar nagusi horiek eman diete euskal letrei jarraitutasuna, XX. mendearen erdia arte. Indar horietakoren batek eraginik, musa profanoa, musa dibinoa edo euskal komunitatearen berezitasuna izan du inspiratzaile euskal idazleak. Dena den, musa profanoaren argipean idatzi duenean ere, ez du berau izan obra osorako argi bakarra; ez baitu amaitu musa dibinoaren argipean neurtitzen batzuk egin gabe. Euskal letrak, beraz, uste sendo baten gainean eraiki dira: Jainkoak deabrua garaitu zuela jakiteak emandako ziurtasunaren gainean. Ziurtasun horren gainean idazten da –ezbairik gabeko uste sendo horren gainean–, harik eta XX. mendearen bigarren erdian auzitan jartzen den arte. Abagune egokia izan daiteke gaurkoa, mugarri horretarainoko euskal letren habeak eta zutabeak azaltzeko eta printzipioen haustura zedarritzeko.

* * *

O heuskara, lauda ezak Garaziko herria,
zeren hantik ukhen baituk behar duian thornua (3).

Bernard Etxeparek ez die musei deitzen. Ez du horien beharrik euskarari behar duen tornua emateko. Hurbilago eta eskuragarriago du Garaziko herria. Garaziko herriak eragindako etorriarekin iragaziko du euskara idazketaren iragazitik, musen zainetatik elikatu gabe eta Errenazimenduko poetek gogoz zerbitzatutako Andreen laguntzarik gabe. Bete-bete helduko dio, hala ere, Errenazimenduak oinarritzkoen artean kokatutako zereginari: hizkuntza idatziz emateari. Herri-hizkuntzek ezinbesteko baldintza zuten hori, hizkuntza landu bihurtuko baziren.

* * *

Nafarroatik Arabara

Baina XVI. mendean bertan, Etxepare behe-nafarraren lana ez ezik, aipatu beharrekoak dira Nafarroa Garaiko hiru euskal idazlerenak ere. Izan ere, Nafarroa Garaikoa izan daitekeen egile ezezagun batek paratzen du «Gure Principe don Henrrique Iaunari» (4); Juan de Amendux goi-nafarrak ontzen du

(3) ETXEPARE, Bernard: *Linguae Vasconum Primitiae*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1995, 118. or.

(4) HARITSCHELHAR, Jean: «Une poésie basque du milieu du XVIème siècle (1554) célébrant la naissance de Henri III de Navarre (le futur Henri IV)» in *Piarres Lafitte-ri omenaldia*, Iker-2, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 259-267. orr.

«Hemen naça orçiric» eresia (5); eta Juan de Undianorena da kantutegi bat (6) eta, agian, «Miserere» salmoaren itzulpena bertsoz emana ere (7).

Undianoren kantutegiak baino suerte hobea izan du Juan Pérez de Lazarraga arabarraren eskuizkribuak; 1567. urte inguruan izan zen idatzia eta 2004an aurkitua. Artzain-eleberri bat eta hainbat kopia jasotzen ditu, nahiz eta tamalez osorik egon ez. Hala ere, argi dago Errenazimenduko idealak jarraitzen dituela. Artzain-eleberriko pertsonaiak –Sirena, Silbero, Silbia, Doristeo...– edo Cupido eta Marte jainkoak, Lazarragak ez ditu aurkitu ez Arabako ipar-ekialdean, ez Araban, ez Euskal Herrian. Ez horiek, eta ez koplaren bateko Medea edo Jason ere. Baina euskal kulturaren osagai dira; horien bidez hartzen baitu euskarak parte, Europako beste hizkuntza batzuekin batera, Antzinateko kulturaren pizkundean. Ideal berberak eta eredu klasiko berberak inspiraziotzat izateak halako europeismo bat sorrarazi zuen, ezaugarri nazionalen adierazpena eragotzi gabe. Errenazimenduko poetikek Aristotelesen poetika dute gidari; eta, jakina denez, Aristotelesek imitazioa jotzen du artearen oinarritzat. Aristotelesek emandako aginduak jarraitzeaz gainera, Horazioren prezeptibaren esanetara daude. Errenazimenduko poetikek uste sendo bat dute euskarri: Antzinakoek lortu zutela arteen ulerkuntza egokia, arteen lantze eta interpretazio behin betikoa. Eta humanistek hartu dute Antzinateko kultur ondarearen oinordetza. Errenazimenduko gizakiak eskura ditu grekolatindar munduak bere idealak adierazteko erabilitako ereduak; eta uste du ez dagoela idazlan artistikorik burutzerik maisu zaharren ildoetatik kanpo. Grekolatindar Antzinateko egileak dira ezbairik gabeko ereduak; eta, hauekin batera, italiar literatoak eta guztion imitazioz beste hizkuntzetara hedatuz joan dena. Lazarragaren eskuizkribuak erakusten duenez, XVI. mendeko euskarak ere parte hartu zuen orduko europeismoan, ideal eta eredu bereberei jarraituz.

(5) Ik. SATRUSTEGUI, José M^a: «Hallazgo de una elegía vasca del año 1564», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, 19, 1963, 63-85.orr.

(6) Honela diote Estornes Lasa anaiek, 1600 urteko urtarillaren lauan datatutako berriei buruz: «Pues bien: este Juan de Undiano fue, además, un gran lector de autores antiguos y modernos. En la lista de libros, que figura en el inventario de bienes que se levantó con motivo de uno de esos pleitos figuran, (...), y... dos “Cancioneros”».

Uno de los cancioneros lo completa con la explicación “libro de mano”, y más adelante figura en la lista “un libro Cancionero, de mano, en vascuence”. ESTORNES LASA, Bernardo y Mariano: «Un cancionero vasco del s. XVI en Obanos», *Fontes Linguae Vasconum*, 5, 1970, 231. or. Aurreraxeago, 1789ko testamentuak jasotakoa eransten dute; hau, Undianok 1633an egindako jatorrizkoaren kopia da: «Item dijo que ha compuesto muchos versos en bascuenz y algunos en romance en materia moral y espiritual» (232. or.).

(7) Aurreko oharrak dioenez, bertso ugari egin zituen. Eta hauetako bakar bat ere ez ezagutzeak darama Antonio Unzueta, hain zuzen, Undiano jotzera «Miserere» salmoaren itzultzailetzat. Itzulpen hau, Madrileko Liburutegi Nazionalean aurkitu zuen Unzuetak, *Ms. 2.058* katalogo-zenbakidunean, 246-247 folioetan, XVI. eta XVII. mendeetako beste zenbait dokumenturen artean. UNZUETA ECHEBARRIA, Antonio: «Nuevos datos sobre el reformador de eremitanos y poeta vasco Juan de Undiano», *Fontes Linguae Vasconum*, 39, 1982, 329-337. orr.

Euskal Herriko Errenazimenduak garaiko pentsamendutik ernetako fruituak eman zituen. Uste hori sendotzen du Lazarragaren eskuizkribuaren aurkikuntzak. Fruitu gutxi eman zuela euskarak? Kopurua bezain esanahitsua da, ordea, euskara idatziak bereganatutako esparruen nolakotasuna.

Beraz, Errenazimenduan herri bakoitza bere Antzinatea begira jarri zen. Antzinate horretan aurkituko zuen izateko arrazoia eta hala erakutsiko zien gainontzeko herriei herri-duintasuna. Euskaldunak, orduan, euskara aurkitu eta plazaratzen du. Hala utziko du agerian

«mundo guzietara berze lengoajiak bezala hain eskribatzeko hon dela».

Hala erantzungo dio Etxeparek, 1545ean,

«Eta berze nazione orok uste dute ezin deus ere eskriba daiteiela» (79. or.) hari.

Hitzaurrean ez ezik, kopletan ere adierazi zuen euskara idatziz emateko arrazoia. «Sautrela»n dio nola egin duten «Prinze eta jaun handiek orok haren galdia», azalduz «eskribatuz hal balute ikhasteko desira» (118. or.).

Hiperbolea da, noski, *orok* hori. Baina lizentzia literarioetara jo gabe idatz zezakeen gainerakoa. Izan ere, printzeek egina zuten euskararen galdea. Hala, Carlos V.a enperadoreak (Gante 1500–Yuste 1558). XVI-XVII. mendeetako historialariek diotenez, euskarazko hitz batzuk ikasi zituen. Eta gogoko ere ba omen zuen euskaraz egitea (8). Etxeparek, agian, beste printzeren batzuk izango zituen gogoan; baina Carlos V.a ere izan zezakeen; 1530. urtea arte eduki baitzuen honek Behe Nafarroa okupatua.

Baina, printzeek gain, jaun handi edo jaun ikasiek ere egina dute euskararen galdea. Etxeparek bere obra argitaratu aurretik, esaterako, Arnold von Harff alemanak, Torres Naharro gaztelarrak (9), François Rabelais frantsesak, Lucio Marineo Siculo sitziliarrak edo Gaspar Gómez de Toledo gaztelarrak.

Hala, Arnold von Harff alemaniar zalduna, 1496-1499 urteen artean egingadako erromesaldietan, Euskal Herrian ere izan zen; eta, erromesaldi horien be-

(8) Halaxe dio Lope de Isasti doktoreak, 1625ean idatzitako historian. Jakin-minaz ikasiko omen zuen, edo kapilaua, aitor-entzulea eta sendagilea euskaldunak zituelako. Ik. *Compendio historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipuzcoa*, Ignacio Ramon Baroja, S. Sebastian, 1850, 168. or. 1588. urte aldera idatzitako Ibarguen-Cachopinen *Crónica general Española y Sumaria de la Casa Vizcaynan* Sorabilako bi kaparek Carlos V.ari euskaraz egingako agurra eta eskaera jasotzen da. Ik. MICHELENA, Luis: *Textos arcaicos vascos*, 106-107. orr.

(9) LEGARDA, P. Anselmo de: «Primera frase vasca impresa conocida en Torres Naharro, 1513», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos del País*, año 7, 1951. «La he hallado en la comedia de Torres Naharro titulada *Tinelaria* y reza así: “¡Bay, fedea!”», 41. or. Handik zortzi urtera eranstu du: «Las primicias del vascuence impreso no están ya en Torres Naharro: nos las brinda el Marqués de Santillana en sus *Refranes*». Ik. «Primicias del vascuence impreso en el Marqués de Santillana», *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, año 15, 1959, 239. or.

rri eman zuenean, euskarazko hiztegitxo bat jaso zuen (10). Rabelais-ek 1532an argitaratu zuen *Pantagruel*; lehenago egina zuen egonaldiren bat, Nafarroako Erregina ezkontideak, Angulemako Margaritak (1492-1549), Pabe eta Nérac-eko Gortean eraturako ingurune intelektualean; eta Panurge pertsonaiaren ahotsera hainbat hizkuntza eramanean zuen; besteak beste, euskara (11). Lucio Marineo Siculo Errege Katolikoen siziliar kronistak, berriz, 1533an argitaratu zuen hiztegitxo bat, *De rebus hispaniae memorabilibus modo castigatum atque Caesar e maiestatis iussu in lucem aeditum* obran (12); latin-euskara da hiztegia, hoguei eta hamazortzi hitzez, lehen hamar zenbakiez eta ehun arteko hamarrekoez osatua. Gaspar Gómez de Toledo gaztelarrak, bere alde-etik, Peruchoren kanta eta euskaraz esandako hitzen bat jaso zuen, 1536an argitaratutako *Tercera parte de la tragicomedia de Celestina* (13).

Zinez, euskararen galdea egitea ez da amaitzen Etxeparek euskaraz idaztean. Landucci italiarrak *Dictionarium Linguae Cantabrigiae* hiztegia biltzen du 1562 aldera (14); eta Bonaventura Vulcanius flandestar jakintsuak, 1597an (15), Joanes Leizarragarren itzulpenetik hartutako erakuskari bat jasotzen du. Baina, apurka-apurka, urrituz doaz euskararen galdea egiten dutenen testigantzak.

XVII. mendean, bakanen batek galdetzen du oraindik ere, eta bere obran txertatzen du erakuskaria. Mendearen hasieran, kanta bat eta zenbait hitz eramanean zituen Lope de Vega gaztelarrak *Los ramilletes de Madrid* komedia (16). Mendearen lehen erdian, Aita Santu Urbano VIII.ak idatzi bat eskaintzen dio bere lagun Nicolas-Claude Fabri de Peyresc kontseilariari, hau hil ondoren; eta bertako «Panglossian», berrogei hizkuntzatan datoz gorazarreak;

(10) GAVEL, H.: «Un pèlerin de Saint-Jacques au Pays Basque a la fin du XV siècle», *Gure Herria*, 2, 1922, 453-456. orr.

(11) RABELAIS, François. *Pantagruel*, Juan Borja de Quiroga-ren edizioa, Ediciones Akal, Madrid, 1989, 77. or.

(12) Michaellem de Eguia, *Impressum compluti*, Fol. xxi, Cv. Gero, gaztelaniara itzulita argitaratu zuen: *De las cosas memorables de España*, Casa de Juan de Brocar, Alcalá de Henares, 1539. Edizio honetako euskarazko hiztegitxoarentzat, ik. Fol. xxix, dv.

(13) XVI. autoan dago. Perucho pertsonaia ez dabil oso gustura bere lanean; baina euskaraz kantatzen hasten da, beste lanen bat aurkitu bitartean. GOMEZ DE TOLEDO, Gaspar: *Tercera parte de la tragicomedia de Celestina*, Critical edition, introduction and notes by Mac E. Barrick, University of Pennsylvania Press, Philadelphia, 1973, 184-185. orr.

(14) Manuel Agudek eta Luis Michelenak argitaratu zuten: *Dictionarium Linguae Cantabrigiae* (1562), San Sebastián, 1958.

(15) *De literis et lingua Getarum siue Gothorum*, Leiden, 1597.

(16) España eta Frantziako infanten ezkontza-hitzarmenak zirela eta, 1615eko udazkenean Irunen izan zen Lope de Vega. Bisita honetan oinarrituz, *Los ramilletes de Madrid* komedia idazten du urte horretan bertan. Ik. *Obras de Lope de Vega publicadas por la Real Academia Española*, Imprenta de Galo Saez, Madrid, 1930, XXVIII-XXIX. orr. Bertan, adierazte eszeniko batean egileak dio: «la música saldrá de vizcaínos, y el baile, de tres vizcaínas, con panderos, y un vizcaíno que los guíe»; eta ondoren, bizkaitar kanta bat jasotzen du eta zenbait euskal hitz esanez jartzen ditu bizkaitarrok (495. orr.).

bat, euskaraz (17). Sor Juana Inés de la Cruz mexikarrak, euskaldun jatorrikoa izaki, 1683ko Gabonetan Mexikoko katedralean kantatu bide zen Gabonkantan, bizkaitar baten ahotsean ipintzen ditu zenbait euskal hitz (18). Aita bergarra zuenez, hurbil samar sentituko zuen mojak euskara.

Beraz, Errenazimendu bete-betean, XVI. mendean, jaun handiek, ikasiek behintzat, euskararen galdea egiten dute; eta laginen bat daramate beste hizkuntza batean (frantsesez, latinez, gaztelaniaz) egindako testura. Baina, galdegileen kopuruak adierazten duenez, lehen interes eta jakin-min hura itzaliz doa poliki-poliki, bai XVII. mendean zehar eta, zer esanik ez, XVIII.en. Hala ere, indarberritu egingo da, berriz ere. XVIII. mendearen bigarren erdian iragaritzen da erromantizismo-aurrea; eta berehala dator erromantizismoa bera. Hain zuzen, mugimendu honetan oin hartuko du jakin-min berriak. Laster azalduko dira beste galdegile batzuk: XVIII-XIX. mendeen arteko mugan bertan.

* * *

Jaun handiek euskaraz idazten dute. Lazarraga noblea zen. Etxepareren estatutu sozialaz gutxi dakigu. Eihalarreko erretore izan zela; datu hori da dokumentu bidez iritsi zaigun bakanenetakoa. Nolanahi ere, Etxepare ez zen izango Euskal Herriko edozein herrixkatakako edozein erretoreren mailakoa. Batetik, bere buruan konfiantza handia behar du izan batek, beste hizkuntzetakoek bur-laz hartzen zuten hizkuntzan idazteko. Nor izan behar horretarako. Bestetik, gutxiren esku egongo zen, noski, moldiztegia sortu eta mende batera babesle bat aurkitzea eta liburu argitaratzeko ahalmena. Esaterako, gaztelar literaturako *Poema de Mío Cid* ospetsua bera ezezaguna izan zen 1779 arte (19).

Etxepare eta Lazarraga ez dira, ordea, beren burua euskaraz idazteko gai ikusten duten jaun ikasi bakarrak. Ezagunen artean, hor ditugu Juan de Améndice, Juan de Undiano, Santxo de Elso (20), Betolaza doktorea (21) eta Joanes Leizarraga; eta baita, beren erdarazko historien osagai izan zitezten, kantak eta errefrauek bildu zituzten historiagileak ere. Ezagun hauei, bestalde, ezezagun batzuk gehitu behar: *Refranes y Sentencias comunes en Bascuenceren* (1596) (22) biltzailea, Nafarroako Errege izango zen Enrike III.aren jaiotza os-

(17) *Monumentum romanum Nicolao Fabricio Perescio, senatori aquensi, doctrina virtutisque causa factum* (1638). Idazlan honetako «Panglossia» atalean biltzen diren gorazarreen artean dago «Elogium Cantabricum». Ik. VINSON, Julien: «Quelques anciens textes basques et sur le Pays Basque» in HOVELACQUE, Abel; PICOT, Émile; VINSON, Julien: *Mélanges de linguistique et d'anthropologie*, Ernest Leroux éditeur, Paris, 1880, 196-197. orr.

(18) J. Vinsonen artikulua horretan bertan jasoa. Ik. 197-200. orr.

(19) Tomás Antonio Sánchez-ek eman zuen argitara *Colección de poesías castellanas anteriores al siglo XV*eko lehen liburukian.

(20) Heldu diren berrien arabera, Santxo de Elso ematen du argitara lehen dotrina. Izenburuaren arabera, elebiduna zen (gaztelania - euskara); eta 1561ean argitaratu zen, Amberesko Adrianen etxean, Lizarran.

(21) *Doctrina Christiana en Romance y Bascuence*, Bilbao, 1596.

(22) Amberesko Pedro Porralsen etxean, Iruñean, argitaratu zen.

patzen duen poesiaren egilea, Aresoko otoitzak idatzi zituena (23)... Eta ezin ahaztu, halaber, euskararen galdea egiten duten erdaldunei –Arnold von Harff, Torres Naharro, François Rabelais, Lucio Marineo Siculo, Gaspar Gómez de Toledo, Landucci, Lope de Vegari-eta– euskaraz idatzitako testuak eskuratzen dizkietenak... Izan ere, beren burua euskaraz idazteko gai ikusten zuten ikasiren batzuek emango zizkieten erdaldun horiei euskal testuak.

Euskarazko idazkuntza honetan, bere tartearen izan zuen idazlan profanoak eta garaiko pentsamendua adierazi zuen. Etxeparek, *Linguae Vasconum Primitiae*ko hitzaurrean eta azken bi kopletan, euskara idatzi eta argitaratu eman izana azpimarratzen du. Garai hartako joeraren baitan mamitu zituen Lazarragak ere bere eskuizkribuko artzain-eleberria eta koplak. Produktu urriak dira, baina garaikoak.

* * *

Garaiko pentsamenduaren erakuskari dira, halaber, Juan Martinez de Zaldivia batxillerrak, Esteban de Garibaik, Iburguen-Cachopinek edo Andres de Poza lizentziatuak XVI. mendean egindako idazlanak. Zaldibiak Gipuzkoako historia eman zuen (24). Oinarri historiko handiago edo txikiagoaz egindako gertaera-kronika da, euskarari buruzko azalpenekin eta jasotako zenbait euskal kantekin-eta osatua. Garibairen lan historikoak ere euskarari buruzko azalpenak ematen ditu, zenbait euskal testu eta kantarekin batera. Garibaik, gainera, bi errefrauz-bilduma ere egin zituen. Iburguen-Cachopinek Bizkaiko kronika egiten dute, eta hiztegi batez eta zenbait euskal testu eta kantaz osatzen. Poza lizentziatuarena da euskararen lehen apologia (25).

Inguruko herriak ere lantegi bertsuetan ari dira: herria osatzen duen giza taldearen Antzinatea aztertu, giza talde horren hizkuntza eta historia azaldu eta goraitu... Hori partekatzen dute giza talde bateko gizabanako guztiek; hor dago giza taldearen zigilu berezia. Norbere herriaren zigilu berezia erakutsi nahi da; izan ere, herri bakoitzak bere nortasunaren jabe, ahalik eta nortasunik duinenaren jabe azaldu behar du gainontzeko herrien aurrean. Agerikoa denez, XVI. mendeko apologista eta historialariak erdaraz baliatu ziren euskararen eta euskaldunen berri emateko eta laudatzeko. Zer gertatzen zen eus-

(23) Aresoko eliz agiritegiko *Constituciones Sinodales del Obispado de Pamplonaea* delakoan (1591) daude otoitzok, eskuz idatzitako orrialde batean; Jose Maria Satrustegik XVI. mendekotzat jotzen ditu. Ik. SATRUSTEGUI, José M^{te}: «Texto vasco del Padrenuestro en versión del s. XVI», *Fontes Linguae Vasconum*, 55, 1990, 37-47. orr. Hurrengo zenbakian, «El Credo en versión vasca del s. XVI» eman zuen (205-228. orr.); eta hurrengoan, beriz, «El Avemaría y la Salve en un documento vasco del s. XVI» (107-129. orr.).

(24) 1564. urte aldera idatzia, 1945ean argitaratu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak *Suma de las cosas cántabras y guipuzcoanas*. Sarrera eta oharrak Fausto Arocenarenak dira.

(25) *De la Antigua Lengua, Poblaciones y Comarcas de las Españas...*, Imprenta de Matias Marés, Bilbao, 1587.

kararekin? Ez zutela gai ikusten kultur edukiak emateko? Erdara zutela kultur hizkuntza? Sumatzen hasia zela errege-dekretuen indarra?

Estatuek emanak zituzten lehen errege-dekretuak. Hasiak ziren hizkuntza ofizialak arautzen, hizkuntza landua –latina– herri-hizkuntzez ordezkatzuz. Herri-hizkuntzaren defentsari helduleku desberdinetatik heltzen diote. Xedapen horien indarrari, bestalde, idazkuntza bidez egindako defentsa gehitzen zaio: herri-hizkuntzetan egindako letrak bultzatzen dira, herri-hizkuntzaren duintasunaren alde idazten da, bere erabileraren egokitasunaren oinarri teorikoak jarzen dira...

Berebiziko bultzada politikoak babesten ditu euskararen inguruko hizkuntzak. Babes horren magalean, badute euskarri intelektual indartsurik ere. Frantziako Errege Frantzisko I.ak emandako Villiers-Cotterets-eko Agindua 1539koa da. Jakintsuz inguraturik, gogo biziz ari da sustatzen Isabel Erregina ere letren barrutia. Erregina Katoliko honen aginduz egingo da gaztelaniazko lehen hiztegia (26). XVI. mendearen amaieran, Felipe II.aren bi xedapen datoz: 1583an, hizkuntza arruntean ematea xedatzen du zientzia guztietako heziketa –jakina denez, latina zen goi-mailako irakaskuntza-zentroetako hizkuntza ofiziala–. Handik gutxira, 1588an, beste xedapen bat dator. Honen arabera, eskola-maisu guztiek azterketa eta onarpena gainditu behar zuten irakaskuntza lantegi izan aurretik eta, gainditu ostean, Errege Kontseiluaren baimenaz inprimatutako kartilan bakarrik irakats zezaketen gazteleraz irakurtzen eta idazten (27). Euskara, ordea, bultzada politiko orotatik kanpo gelditzen da. Albreteko Juanak, Nafarroako Erreginak, 1556ko Aginduaren bidez berretsi zuen biarnesaren erabilera ofiziala, baina ez zion ofizialtasunik eman euskarari.

«Parisek ondo merezi du meza bat». Esaldi ospetsu hau egotzi ohi zaio Albreteko Juanaren seme Enrike III.ari. Baina besterik ere merezi bide zuen Parisek edo Frantziako erresumako koroa janzteak: meza ez ezik, amak babestutako biarnesa. Izan ere, erregeak honela esan omen zion Saboiako Carlos Manueli, 1601ean, honekin izenpetutako itun batez Bugeyko hiria bereganatu ondoren:

Il etait raisonnable que, puisque vous parlez naturellement le français, vous faissiez sujets au roi de France. Je veux bien que la langue espagnole demeure a l'Espagne, l'allemande a l'Allemagne, mais la française doit estre a moi (28).

Honenbestez, aldi berean Nafarroako Enrike III.a eta Frantziako Enrike IV.a zenak argi zuen bere hizkuntza egitasmoa. Horiek izaki euskal esparruan

(26) Alonso Fernández de Palencia-ren *Universal vocabulario en latín y romance* (1490).

(27) ROMERA-NAVARRO, M.: «La defensa de la lengua española en el siglo XVI», *Bulletin Hispanique*, 31, 1929, 234. or.

(28) Manuel Alvarek aipatua: «La lengua y la creación de las nacionalidades modernas», *Revista de Filología Española*, 63, 1984, 214. or.

eraturako erresuma bakarreko erregearen hitzak, Aro Modernoan zehar ofizial bihurtuko diren herri-hizkuntzen estatututik at geldituko da euskara.

Hala ere, babes politiko, intelektual eta guzti, herri-hizkuntzek ez zuten berehalakoan lortu, lehenik, latinaren parean jartzea eta, gero, barruti landuetan beroni nagusitzea. Gaztelaniari dagokionez, XVI. mende osoa igaroko du prestigioa eskuratzeko lehian, harik eta XVII. mendearen hasiera aldera sendotasunez finkatzen hasten den arte. Dena den, sendotasunez finkatzeak ez dakar oraindik latina barruti landutako erabilera orotatik baztertzea.

Herri-hizkuntza babestuek borroka hori irabazi ahala, herri-hizkuntzok latinari nagusitu eta sendotu ahala, atzera egiten hasten da euskara; eta ez soilik horiek eskuraturiko erabilera-esparruak lortzeko aukerarik ez izateagatik, baita ere nekez eutsiko dielako ordu arteko erabilera-esparruei, ez bada eliz liburutetan. Soilik, eliz liburua ugalduko da. Gainerakoan, antzeko samar jarraituko du errefrau-bildumen alorrak; auturen baten itzulpena gehituko da eta murritzuko da testu literarioa. Are gehiago: desagertuz doaz euskararen galdea egiten duten jaun handi eta ikasiak. Haize erromantikoak ekarriko ditu berriro.

* * *

Arabatik Zuberoara

*Ezkontidearen hil-kexua
museen kontra*

ANDREAK, luzez zerbitzatu
zaituztet, eta nik hospatu
dut herri hautan zuen izena,
lehen guti ezaguna zena (29).

Hamazazpigarren poema hastera doala, musak ukatzen ditu Arnaud Oihenartek, ezkontidearen hil-kexuan barneratzen hasi aurretik, 1657an idatzitako *Oten gastaroa neurthizetan* idazlan poetikoan. Emaztearen heriotzak eragindako ondorioa da: musek bakarrik utzi dute, noiz eta haien laguntza behar zuten. Luzaroan Andreok zerbitzatu ondoren, espero izandako ordainik gabe gelditzen da. Orduan, zerbitzua amaitu eta beste zerbitzu berri bati ematen dio hasiera. Horrela, koherentzia osoz igarotzen da neurtitz profanoetatik erlijiozkoetara, idazlanari barne-lotura emanez, idazlana ordenatuz eta egituratuz. Museen kontra idatzi aurretik, ordea, hamasei poema ondu ditu haien zerbitzue-

(29) OIHENART, Arnaud: *Euskal atsotitzak eta neurtitzak. Proverbes et poesies basques. Proverbios y poesías vascas*, Patxi Altuna eta Jose Antonio Mujikaren edizioa, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2003, 434. or.

an, eta zerbitzari bakanenetako bezala aurkeztu du bere burua. Oihenartek dio poesia gutxi erne dela lehenaldian musen inspirazioz. Agian, berak paratutako hamalauko bakarrean laudatzen duen Zalgize poeta ezkutatuko da «guti» horretan. Ez zaigu heldu Zalgizen idazlan poetikorik; ezta beroni buruzko berrikerik ere. Baina Oihenartek horren gorespenez idatzitako hamalaukoan mundu mitologiko klasikoari egindako erreferentziek bide ematen dute Zalgize musen zerbitzari izan zela pentsatzeko:

Halakotz hik, Zalgiz, Euskaldun Poeta,
Burura behar duk erramu-boneta,
Zeren nola baihaiz Parnason gainean
Bederatzi ahizpez maiteki hazia (514. or.).

* * *

Zuberoatik Lapurdira

Urrun adi, Parnaseko
Musa zahar profanoa,
Eta zato, zeruko
Musa berri dibinoa (30).

Horrela hasten du Bernard Gasteluzarrek 1686an argitaratutako *Eguiac Catholicacen* bigarren partea: musa berri dibinoari dei eginez. Ordurako, lapurtar letrek ez ezik, euskal letrek bazeramatzaten hamarkada batzuk argi horren laguntzaz idazten (31). Gainera, bizi-iraupen luze samarra eskuratuko du etorri dibinoak euskal letretan. Izan ere, behar erlijiosoak asetzera bideratutako letrak nagusituko dira hiru mendez. XVII-XVIII. mendeetan, ezer gutxi gelditzen da erlijio-barrutitik kanpo. Eta, nahiz XIX.ean ordu arte landu gabeko generoak lantzen hasi, orduan ere hezkuntza erlijiosoak xede duen liburua izango da ugariena eta erabiliena. Dena den, hala gertatzen da inguruko letretan ere: eliz liburua da argitaratuena; gainontzeko guztiena baino handiagoa da fedeak eragindako argitalpenen kopurua. Alderik nabarmenena ez dago hor, baizik eta gainontzeko hori guztia ia letra ederretara mugatzean eta letra ederrok oso gutxi lantzean.

(30) GASTELUÇAR, Bernard: *Eguiac Catholicac salvamendu eternalaren eguiteco necesario direnac*, Lino Akosoloren edizioa, Euskaltzaindia, Bilbao, 1983, 63. or.

(31) Zinez, prosaz nahiz bertsoz, lapurteraz egindako eliz liburua da nagusi. Baina, Bida-soaz honantz erabili ziren dotrinen ondoan, merezi luke aipamenen bat lehiaketatik ernetako poesia erlijiosoak. XVII. mendearen hasieran, 1609 eta 1610 urteetan, Gorpuzti eguna ospatzeko eratu zituen lehiaketa horiek Iruñeko apezpiku Venegas de Figueroak. Data horietatik hurbil, Huar-te kalonjearen *Historia de Roncesvalles* eskuizkribuak jasotzen du Orreagako Ama Birjinari eskainitako poesia bat. Ik. DARANATZ, J.-B: «Une poésie basque de 1619», *RIEV*, 6, 1912, 197-199. orr.

XV. mendearen erdialdean sortu zen moldiztegia, eta Biblien inprimaketak emango dio lanik handiena. Laster areagotuko zaio lana, Erreformak bulztaturiko Bibliaren itzulpenak direla-eta. Gero, literatura aszetiko-mistikoak-eta (32) etorriko dira, hainbestearaino non, adibidez, gaztelar barrutian argitaratutako guztiaren %52a zen idazlan erlijiosoena, 1730. urtean (33). Errenazimenduak, nahiz eta Erdi Aroko ikuspegi teozentrikoa ikuspegi antropozentrikoz ordezkatu, iraganbide horretan ez du alboratzen kezka erlijiosoak. Ikusi besterik ez dago zenbat eliz liburu argitaratu zen Erreforma-Kontraerreformen esanetara. Dirudienez, gizakiak oso barneraturik zeraman kezka erlijiosoak, eta liburu erlijiosoak behar zituen kezka horri erantzuteko. Liburu argitalpen-kopuruek adierazten dutenez, behar literarioak baino aurreragoak ziren behar erlijiosoak, baita gizarte-eremu zabalagoetara hedatuak ere. Gainera, klero ugaria zegoen behar horiek sustatu eta asetzeko.

Dena den, nahiz eta eliz liburua izan argitaratuena, bestelakoa ere hor zegoen; eta, tartean, adierazpen literarioa jasotzen zuena. Euskal argitalpenen eta inguruko hizkuntzetako argitalpenen arteko aldea ez da eliz liburu mailakoa –denetan gailentzen baita hau–, baizik eta adierazpen literarioa jasotzen duen testu mailakoa. XVII-XVIII. mendeetan, euskaraz ez da argitaratzen obra epikorik, ez dramatikorik, nahiz eta obra dramatikoren baten eskuizkribua –*Gabonetako ikuskizuna*– utzi XVIII.aren lehen erdiak (34). Lirika, berriz, oso-oso urri lantzen da. Hala erakusten du ezagutzen den testu-multzoak.

Bai euskaraz eta bai inguruko hizkuntzetan, ezagutzen dena baino gehiago idatzi zen, zalantzarik gabe. Esaterako, adierazpen literarioan kokatuz, eza-guna da nola orduan egiten zen poesia orok ez zuen argitalpena xede, eta iraupen ahuleko euskarria da egilearen koadernoak. Espekulatzeko bide ematen du, horregatik, galdutako zenbait eskuizkriburen berri izateak edo Lazarragaren eskuizkribua aurkitu izanak edo suerte handiaz guganaino iritsitako zenbait testu argitaratutak. Testu asko galdu da, moldiztegitik igaroak izan edo ez. Galduta da Undianoren kantutegia; ez da Oihenartek irakurri ahal izandako zenbait poesia-eskuizkriburen berririk (35); ez da ezagutzen Zalgize euskal poetaren lanik; ez zaigu iritsi Rafael Micoletak 1653an aipatutako konposiziorik –«*Tambien algunos modernos del Parnasso Cantabrico han escrito dezimas, lyras y*

(32) Hiru mila obretaraino heltzen da gaztelar literatura aszetiko-mistikoa. Ik. SAINZ RODRIGUEZ, Pedro: *Introducción a la historia de la literatura mística en España*, Editorial Voluntad, Madrid, 1927, 13. or.

(33) GLENDINNING, Nigel: *Historia de la literatura española. El siglo XVIII*, Editorial Ariel, Barcelona, 5. argitalpena, 1986, 39-40. orr.

(34) 1711-1752 urteen artean Arrasateko eskribau izan zen Pedro Ignazio Barrutiaren izenpean dator. Juan Carlos Gerrak aurkitu eta, Resurrekzion Maria Azkuek berak zuzentzen zuen *Euskalzale* aldizkarian, argitaratu zuen.

(35) Oihenartek ikusitako Jean d'Etchegarayren XVI. mendeko eskuizkribua edo Arnaud de Lograsena, kasu. Ik. *L'Art Poétique Basque d'Arnaud d'Oyhénart (1665)*, Pierre Lafitteren hitzurrearekin, *Gure Herria*, 1967, 38.or.

sonetos en vasquenze» (36)–; ez zaigu ailegatu Etxepareren idazlanaren berinprimaldiaren alerik (37). Eskerrak suerte hobea izan dugun beste zenbaitean: eskueran baititugu Etxepareren idazlanaren lehen argitalpenetik eta *Refranes y Sentencias*en argitalpenetik gelditutako ale bakarrak (38).

Horrelako ezbeharrak ez dituzte euskal letrek bakarrik jasan, noski. Hainbat gorabehera historikok ez dio inolako mesederik egin liburuaren iraupenari; are gutxiago, eskuizkribuarenari. Inkisizioak liburuak ere erre zituen; gerrek ondarea ere suntsitu dute, maiz ondare idatziaren gordailu zen ondarea bera ere bai. Galera horiek nabarmenagoak dira, ordea, babes politikorik gabeko hizkuntzaren jabe den herri txiki batean. Izan ere, berez mugatuagoa izanik sortutako ondarea, are urriagoa da galeren ondotik gelditua. Gehi diezaiogun horri, gainera, euskaldunok geure ondarea gordetzeko eta zaintzeko ahalegin handiegirik ez egin izana –erraz eman daiteke adibide bat baino gehiago–. Uste izatekoa da, beraz, ondutakoa baino nabarmen gutxiago eskuratu dugula.

Espekulazioak espekulazio eta hipotesiak hipotesi, une historiko bakoitzean ezaguna den ondare idatzia da benetako bakarra. Gaur ezaguna dugunak erakusten duenez, letra ederren barrutia ez da sendotzen XVII. mendean. Lazarragaren adierazpen epikoak ez du jarraipenik izango XVII.ean. Adierazpen lirikoak ematen dio jarraipena euskal gertaera literario idatziari, han-hemenka egindako konposizio solteak eta Oihenarten idazlan poetikoa bide.

Han-hemenka sakabanaturiko konposizio solte horietako batzuek (39), ezaugarri berezi eta bertsuak izaki, multzo bateratu bat osatzen dute: XVI-XVII. mendeetako «poesia galante vizcaína» deitu dena, hain zuzen (40). Mul-

(36) MICOLETA, Rafael: *Modo breue de aprender la lengua Vizcanna*, Establecimiento Tipográfico de Francisco de P. Díaz, Sevilla, Seconde edition, 1897, 34. or. Dogson-ek prestatutako edizio honen aurretik Geronan argitaratu zen: *Modo breve para aprender la lengua Vizcanna*, Imp. y Librería de V. Dorca, 1880.

(37) Berrinprimatu zela Oihenartek emandako berriari esker dakigu. Ik. *L'Art Poétique Basque d'Arnaud d'Oyhénart (1665)*, 37. or.

(38) Etxepareren idazlanaren argitalpenetik gelditutako ale bakarra, Francisque Michelek aurkitu zuen Pariseko Liburutegi Nazionalean XIX. mendean. *Refranes y Sentencias*ena, berriz, Willen Jan van Eys-ek aurkitu zuen Darmstadt-en, Hesse-ko Artxidude Handien Liburutegian, XIX. mendearen bukaera aldera eta argitara eman zuen. Bigarren Mundu Gerran galdu zen ale bakar hori.

(39) Gaspar Gómez de Toledok *Tercera parte de la tragicomedia de Celestina* jasotakoa; Arantzubiak Elorrioko Andre Mari Sortzez Garbiaren elizan aurkitu zuena: 1609an argitara emandako latinezko idazlan baten azken orrialdean eskuz idatzitako maitasun-kanta (*Euzko-Gogoa*, 5-6, 1958, 703. or.); Lope de Vegak *Los Ramilletes de Madriden* jasotakoa; Rafael Micoletak *Modo breue de aprender la lengua Vizcanna* eman zituen biak (33-34. orr.); Oihenartek *L'Art Poétique Basquen* eman zituen bi kantuetako bigarrena, «Atseyn andia da amore Eutea» hasten dena (*Gure Herria*, 37. or.) eta Jose M^a Satrustegik Eskaltzaindiaren liburutegian 1558ko latin-hiztegi baten azken orrian eskuz idatzita aurkitu zuen poesia. [SATRUSTEGUI, Jose M^a: «Poesía sentimental en dialecto vizcaíno (s. XVII)», *Fontes Linguae Vasconum*, 28, 1978, 63-65. orr.].

(40) Hala dio Sarasolak. SARASOLA, Ibon: «Contribución al estudio y edición de textos antiguos», *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio Urquijo»*, 17, 1983, 87-90. orr. Gerora,

tzo honetatik kanpo kokatzen diren gehienak oroitzapenen batek eragindakoak dira, eta mandaturen bati erantzun diezaioke (41), salbuespenen batean izan ezik (42). Apenas gelditzen den konposiziorik oroitzapenaren barrutitik kanpo (43).

Idazlan poetiko bakarraren egileak, Oihenartek, ale-kopuru txikia inprimarazi zuen, lagunen artean banatzeko (44).

Laburra da XVII. mendeko poesigintzaren corpora. Eta horrek, argitalpen-baldintzekin batera, ezin zezakeen askorik bermatu euskara idatziaren iraupena. Hala ere, argi erakusten du bizirik dagoela zentzu ludikoaren adierazpen idatzia.

XVI.ean erdaraz landutako testu-tipoek jarraipena izango dute XVII.ean. Baltasar de Echavek gaztelaniaz egingo du euskararen apologia (45). Eta Lope de Isastik eta Arnaud Oihenartek historia landuko dute; hark gaztelaniaz, honek latinez (46). Lope de Isastik, Gipuzkoako historia idazten du, euskal testu eta errefraua jasotzen ditu, euskara gaitzat hartzen du... Oihenartek, Euskal Herriko historia idazten du, bi kapitulu eskainiz euskarari buruzko azalpeni (47).

Jabier Kalzakortak beste bat erantsi du, «poesía galante vizcaína» honen multzora, Jaime Kereketak Elorrioko liburutegi batean aurkitutako eta Adolfo Arejitak ezagutzera emandako «XVII. mendeko Bizkaiko amodio-kantu ezezagun bat: Enojaduric», *Litterae Vasconicae*, 5, 9-20. orr. Ik. KALZAKORTA, Jabier: «Una colección antigua de coplas vizcaínas», *Litterae Vasconicae*, 9, 2004, 21. or.

(41) «Elogium Cantabricum», Nicolás Fabri de Peyrasc-i hil ondoan, euskaraz egindako gorraipamena, beste hogeitaz hamar hizkuntzetan egindakoekin batera, eta 1638an argitaratua. Martin de Iturberen «Quartetac gvre principe iavnearen D. Phelipe Prospero gaiocce dichosoan» [CLARE, Lucien: «Una poesía vasca compuesta con ocasión del nacimiento del principe Felipe Próspero (1657) y publicada por la Universidad de Salamanca en 1658», *Fontes Linguae Vasconum*, 18, 1974, 397-449. orr. Aita Francisco Alesonek egindako «Gure Erregue Philippe andiaren Heriotzean. Euscarazco coplac», *Honores funebres que hizo el real consexo de Navarra á la piadosa memoria del Rey N. S. Philipo IV el Grande*. En Pamplona per Gaspar Martinez impresor del Reyno, año 1666. Ik. VINSON, Julien: «Quelques anciens textes basques et sur le Pays Basque», 200-203. orr.

(42) AREJITA, Adolfo: «“Canción vyzcayna”... Domingo Egikori gorazarre kantua. XVII. mendeko oda-kantua», *Euskararen iker atalak*, 2, 1983, 139-181. orr. Egileak bere idazkuntzaren helburua adierazten du: «Zertarako ondu zituan ere badinosku egileak: Domingo Egikoren gorespenez ez eze, Ondarriabiako jazokunok jendearen gogoan irauñ egien: atsoek su bazterrean negutuan kontatu egiezan, eta gazteria poztu eta arrotu zeitean», 143-144. orr.

(43) Oihenartek *L'Art Poétique Basquen* jasotzen duen kantetako bat, lehena, «Andr' Emili 'andre gora» hasten dena, (*Gure Herria*, 30. or.). Luis Murugarrenek Donostiako Udal Artxibategian aurkitu zuen «una canción bascongada que ha sacado un clérigo de Viscaya contra Guipúzcoa»; 1681az gero idatzia da. MURUGARREN, Luis: «Un texto arcaico más», *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País*, año 36, 1980, 411-423. orr.

(44) VINSON, Julien: *Essai d'une Bibliographie de la Langue Basque*, Caja de Ahorros Vizcaína, Bilbao, 1983, 100. or.

(45) *Discursos de la antigüedad de la lengua cántabra Bascongada*, México, 1607.

(46) *Notitia utriusque Vasconiae, tum ibericae, tum aquitanicae...*, Paris, 1638.

(47) Parisen bertan 1656an ateratako bigarren argitalpenean badira aldatetako. Kapitullurik aldatuetakoa euskarari buruz diharduten bietako bat da; zehazki, 14.a.

XVI. mendeko errefrau-bildumen ondotik datoz XVII.ekoak (48). Horien artean daude Oihenartek, lan historikoan ez baina, idazlan poetikoaren argitalpenean emanikoak (49) eta argitalpen honetatik bereizirik emanikoak (50) eta argitaratu gabe utzitakoak (51).

Horiek bat datoz XVI. mendeko apologista eta historialarien espiritu errenazentistarekin, eta herria osatzen duen giza taldearen Antzinatea azertzen ari dira eta talde horren hizkuntza eta historia azaltzen; baina, haiek bezala, erdaraz. Erdara baliatzeak zerbitu adierazten du. Batetik, edo euskara ez dutela gauza ikusten gai horietaz jarduteko edo beraiek ez direla gauza erronka horri erantzuteko edo erdaldun hartzailea dutela gogoan; hala ere, gaztelania erabili izanak ez dio lezoar historialariari eragozten euskaraz zernahi idatz daitekeela aldarrikatzea (52). Bestetik, ordea, euskararekin ez dutela etsi uste izateko adina zantzu ere bada. Oihenartek errefrau-bildumaren hitzaurrean dioenez, Aberriari zerbitzu egiten ziolakoan jo zuen lantegi horretara. Errefrauak biltzen ari tuak ziren frantsesak, italiarrak eta, zaletasun handiz, gaztelarrak, XVII. mendearen lehen laurdena arte. Badute horretarako arrazoirik. Uste dute, izan ere, ongi hitz egiten eta idazten duen komunitateak –letradunek– aristokratikoki bereganatzen badu herria sorleku duen errefraua, hau noble bihurtuko dela. Hala, errefrau-bilduma hizkuntza-eredutzat proposatzera heltzen dira gaztelar barrutian (53).

Zergatik ez ulertu, bada, artean hizkuntza prestatzen ari zirela, oraindik prestatu beharrean ikusten zutela eta beren jardunaz ekarriren bat egiten ari zirela? Oihenartek, errefrauak biltzean edo gramatika-gaiak lantzean, ez ote du hizkuntza prestatzea xede, etorkizuneko euskara landuagoa izan dadin? Zer

(48) Lope de Isastik bildutakoez gain, Bertrand Zalgize eta Jacques de Belaren *Tablettes*en jasotzen direnak.

(49) *Les proverbes basques recueillis par le S^r d'Oihenart, plus les poesies Basques du mesme Auteur*, Paris, 1657.

(50) *Atsotitzen Urhenquina. Supplement des proverbes basques*. A Pau, par Jean Desbaratz, Marchand Libraire & imprimeur du Roy, 1665. Ik. URKIZU, Patri: «Oihenarten *atsotitzak* eta *poetika* berriakurriz» in *Oihenarten laugarren mendeurrena*, Iker-8, Euskaltzaindia, Bilbo, 1994, 295-328. orr.

(51) Julio de Urquijok eta Luis Michelenak argitaratu zituzten. Hil ondokoa da Urquijoren artikulua. Oihenarten errefrau batzuk jasotzen zituen koadernoaren orrialde batzuen argazkiekin batera zegoen Urquijo liburutegian: «De paremiología vasca. Oihenart conoció los "Refranes y Sentencias en vascuence" de 1596», *Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo»* I, 1967, 4-10. orr. Ondoren, Michelenak «Los Refranes del cuaderno de Oihenart»en Urquijoren oharrak osatzen ditu (11-44. orr.).

(52) «La salve Regina, una octava muy sentida, y proverbios de Bascuence pongo aqui, porque se entienda, que cualquier cosa se puede escribir, y leer en esta lengua, sin mudar caracteres, con facilidad». ISASTI, Lope de: *Compendio historial de la M.N. y M.L. provincia de Guipuzcoa*, 171. or.

(53) Hala zioen Juan de Valdés-ek 1535 aldera idatzitako *Diálogo de la lengua*. Ik. VALDES, Juan: *Diálogo de la lengua*, Cristina Barbolaniren edizioa, Ediciones Cátedra, Madrid, 1982, 86. or.

esan, bestela, lehen euskal arte poetikoaz (54), euskal jarduera poetikoa arauzko frantsesaz baliatzen den *L'Art Poétique Basqueri* buruz?

Oihenarten hizkuntza-aukera hori, noski, bre kultur hizkuntza bakarrak latina eta frantsesa izateak gomendatua da edo idazlan historikorako eta prezeptistarako aurreikusitako hartzaileak bideratua. Haatik, aldi berean, *L'Art Poétique Basquen* bide-erakusle da euskaraz neurtitz landuak egin daitezen etorkizunean, nahiz eta ezin ondoriozta daitekeen eskola sortzen saiatu zenik. Izan ere, 1665eko data darama gutun horrek. Oihenartek hirurogei eta hamahiru urte ditu orduan; eta, gainera, argitaratu gabe uzten du (55). Baliabide literario bat erabil zezakeen *L'Art Poétique Basquen*, 1657an plazaratutako *O.^{ten} gastaroa neurthizetan* idazlanean erabilitako bideez galdetzen dion Lapurdiko apaizari gutun batez erantzungo balio bezala. Hala balitz, ez legoke Lapurdiko apaiz galdegilerik, jakina; eta *L'Art Poétique Basque*, besterik gabe, zortzi urte lehenago argitaratuko idazlan poetikoaren euskarri teorikoak argitzeko eta justifikatzeko bidea baino ez litzateke izango (56). Gutun-forma baliabide literario baten ondorio bada, galde daiteke zergatik hautatu zuen lapurtar apaiz bat gutun-hartzaitzat. Dena den, baliabide literarioa izan nahiz benetako erantzun-gutuna izan, eduki zezakeen arte poetikoa Lapurdiko apaiz bati zuzentzeko motiborik.

Idazlan poetikoari frantses hutsean egindako hitzaurrean, xedean bereizten ditu musen zerbitzuepean ondutako neurtitzak eta erlijiozkoak. Lehenik, neurtitz profanoak ematen ditu, asmo jakin batekin: erakusteko euskaraz egindako neurtitzek jarraitu beharko lituzketen erregelak «gure hizkuntzan betetzea ez dela zenbaitek uste izan bezain zaila». Erlijiozkoei buruz, berriz, dio:

Azkenean erlijiozko neurtitz batzuk ezarrazazi ditut, olerkaritzarako nik baino grina eta antze gehiago dutenak hobeak eta gehiago egitera akuilatzeko (302. or.).

Zergatik ez dute neurtitz guztiek jomuga bera? Oihenartek zergatik bereizi zituen batzuen eta besteen helburuak? Zergatik ipini zituen erlijiozkoak, berea baino etorri handiagokoen jarduera sustatzeko? Zergatik ez die hedatzen neurtitz guztiei helburu hori? Erlijiozkoetan bakarrik espero al du jarraitzailearik? Emandako jakintza doktrinala gutxitu nahi al du eta erlijiozko neurtitzei garrantzia kendu? Baliteke (57). Dena den, beste alderdi bati ere errepara da-

(54) Hamabi urte lehenagokoa da «Modo de la vizcayna poesia y sus versos», Micoletak *Modo breue de aprender la lengua Vizcannan* emana (33-34. orr.). Ataltxo xumea da, ordea.

(55) Aita Lafittek eman zuen argitara *Gure Herrian*, 1967an, Oihenarten paperen artean aurkitutako «L'art Poétique basque, indiquee dans Une lettre Escrite a un cure du Pays de Labourt au mois de mai 1665».

(56) Ik. LASAGABASTER, Jesus M^{te}: «Razón y sinrazón de una renovación poética. En torno a *L'Art Poétique Basque*, de A. D'Oihenart» in *P. Lafitteren sortzearen mendemuga Euskaltzaindiaren XV. Biltzarra. Euskal Gramatikari eta Literaturari buruzko ikerketak XXI. mendean atarian*, Iker 14 Euskaltzaindia, Bilbo, 2003, 179-189. orr.

(57) ORPUSTAN, Jean Baptiste: «Bernat Etxepare 'ta Arnalde Oihenart: ondoriotasunetik harat» in *Oihenarten laugarren mendeurrena*, 455-456. orr.

kioke. Handik zortzi urtera, baliabide literario bat erabiltzen ari baldin bada *L'Art Poétique Basque* Lapurdiko apaiz batek galdetutakoari erantzun bezala emanek, ez ote du sinesgarritasunean irabazten juxtu Lapurdi eta, Lapurdin, juxtu apaiz bat hautatzean? Zergatik, hain zuzen, Lapurdi eta apaiza? Hor, eta hor soilik, ikusten duelako jarraitzaile-harrobi bakarra? Bere erlijiozko poesiak besteenak sustatzeko egin eta, zortzi urtera, Lapurdira zuzentzen du arte poetikoa. Lapurdira: *L'Art Poétique Basque* idazten ari denean eta lehenago, poesia erlijiosoa garatzen ari den gunera. Han ari dira elizgizonak, hezkuntza erlijiosoa xede, eliz liburua lantzen eta, hainbatetan, bertsoz mamitua ematen. Bai: baliteke neurtitzak paratzeko moduz galdetu dion Lapurdiko apaizaren gutuna jaso izana Oihenartek. Halakorik jaso ez bazuen, berriz, sinesgarritasunean irabazten du, baliabidetzat hautatuko hartzailea dela-eta.

Erdara baldin bada historiaz, hizkuntzaz, arte poetikoaz-eta jarduteko hizkuntza, eta errefrau-bilduma eta adierazpen liriko urri batera mugatzen baldin badira letra profanoak, Eliza besterik ez zaie gelditzen euskal letrei.

XVII. mendea aurreratu ahala, indartuz doaz babes politikodun herri-hizkuntzak, beren erabilera-esparruak sendotuz eta zabalduz. Euskal letrei, bitartean, Eliza gelditzen zaie. Elizak, berriz, bere beharrianetarako erabiltzen zituen letrak. Are gehiago: beharrian horiek oso garrantzizkoak izan behar zuten, edo euskal elizgizon letradunek jantziak edo, behintzat, baimenak lortzeko ahalmena zutenak. Izan ere, idatziz gutxi landutako hizkuntzan idazten zuten; eta, gainera, gramatikaren iragazitik iragazi gabea zen. Egoera horretan zegoen hizkuntza, noski, ezin izan oso hizkuntza segurua, zehatza, betea eta perfektua; ezin berma zezakeen fedez eta moralaz zuzentasun eta zehaztasun osoz hitz egitea (58).

Errenazimenduaren fruituen artean daude errefrau-bildumak eta hiztegiaren bat; ez dago, ordea, gramatikarik, ez XVI. mendean, ez XVII.ean. Gaia ez da hutsala. Villalón lizentziatuak bere *Gramática castellanaren* (1558) hitzaurrean dioenez, guztien iritzia da hizkuntza baten perfektzioa arauetara bildu ahal izatean azaltzen dela eta, horrexegatik, perfektzio handiagokotzat jotzen direla hebraiera, grekoa edo latina. Garibaik berak deitoratu egiten du euskara gramatikarik gabea izatea; eta eransten du zeinen erraza izango litzatekeen gramatika hori egitea, euskara erregeladun hizkuntza izaki. Gramatika, ordea, ez zen heldu XVIII. mendea arte. Aita Larramendik ere, bai egiteko hori hartzean, bai hiztegia mamitzean, euskara prestatzen jarraitzen zuen, euskara duina erabiltzeko bitarteko egokiak lantzen. Halaxe dio berak ere, nahiz eta deigarri samarra egiten den zenbateraino azpimarratzen duen idazlan linguistikoa

(58) Gai honen inguruan, ikus «Lapurtar idazleen euskaragatikako gataskak (1627-1635)» atala. OYHARÇABAL, Beñat: «Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilakera», *Litterae Vasconicae*, 8, 2001, 20-28. orr. Edo «Un conflit linguistique autour des textes labourdins (1627-1635)» atala. OYHARÇABAL, Beñat: «Statut et évolution des lettres basques durant les XVIIème et XVIIIème siècles», *Lapurdum*, VI, 2001, 233-242. orr.

horien helburu pastoralara. Hau da, euskara duindu, arautu, azaldu, argitu eta gorapatu beharrak bultzatu du idazlan horiek egitera; baina, horretaz gain eta batik bat, elizgizonak bere egitekoak euskara duinagoa erabiliz bete ditzan (59). Burmuinean barne-barneratua du zeharo traketsa dela elizgizonak bere egitekoetan darabilen euskara; hain traketsa, non euskal eliztarrak isekatzat har dezakeen. Behin eta berriro salatzen du hori, han eta hemen (60). Hala ere, atentzioa ematen du nola helburu pastoralara errepikatzen duen eta ez duen aipatu ere egiten heziketazko helbururik edo literariorik...

Nahiz eta gramatikaren iragazitik iragazi ez eta arautu gabe egon, nahiz eta Joanes Leizarraga itzultzailearen esanetan hizkuntza «sterilenetarik» izan, XVI. mendean bertan erabili zen euskara Jainkoaren hitza itzultzeko. Erabakia, ordea, Nafarroako Erreginak eta kalbinisten Sinodoak hartu zuten. Erreformak, irautekotan, ezinbestekoa zuen zabaltzea. Horrek eta, zergatik ez, Leizarraga itzultzailearen emandako konfiantzak saihests ezakeen hizkuntzaren egoerak sortutako mesfidantza. Trentoko Kontzilioaz geroztik, ezinbestekoa izango du Kontrarreformak ere zabaltzea; eta areagotu egingo zaio premia, kalbinismoak eta sorginkeriak hainbat euskaldun elebakar ere erakartzean. Baina Kontrarreformak, bai Trentoko Kontzilioan eta bai Kontzilioaren ostean, zuhurtzia handiz zaintzen du zein hizkuntza erabiltzen den elizgaiak jorrazteko, latina gordez goi-mailako gaietarako.

Dagoeneko, Trentoko Kontzilioaren urteetan (1545-1563) hasten dira de-bioziozko zenbait obra kondentatzen eta herri-hizkuntzetan erabil daitezkeen elizgaiak zedarrizten; gaztelar eremuan, behintzat (61). Hala ere, Trentoko Kontzilioak aldarrikatu zuen ez zegoela arrazoirik debekatzeko herri-hizkuntzetan idaztea moralaz, kontenplazioaz, aitortzaz eta antzeko gaiez. Dena den, nolabaiteko beldurra islatzen da garaiko hainbat idazlanetan. Izan ere, herriak, gai erlijiosoak bere hizkuntzan izanik, gai horiek iruzkintzeko eta sakontzeko nahia suma zezakeen. Hain zuzen, askoren ustez, Bibliaren itzulpenek eragin

(59) Ik. gramatikari egin hitzaurrea. LARRAMENDI, Manuel de: *El imposible vencido. Arte de la Lengua Bascongada* (1729), (edizio faksimila), Hordago Publikapenak, Donostia, 1979, hitzaurrea orrialdeak zenbatu gabe.

(60) Adibidez, hiztegiari eginiko hitzaurrearen XXII. kapituluak. LARRAMENDI, Manuel de: *Diccionario Trilingüe del Castellano, Bascuence y Latín* (1745), (edizio faksimila), Editorial Txertoa, San Sebastián, 1984, I liburukia, XXIX-XLI. orr. Baita *Corografía* ere. TELLECHEA IDIGORAS, J. Ignacio: *Manuel de Larramendi, S. J. Corografía o Descripción general de la muy noble y muy leal provincia de Guipúzcoa*, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, San Sebastián, 1969, 283. orr. eta hurrengoak. Baita argitaratu eman duen lehen liburuagatik zoriortzeko 1747an Mendibururi bidaltzen dion eskutitzean ere. Ik. «Aita Manuel de Larramendiren carta liburu onen egilleari bidaldua» in LARRAMENDI, Manuel: *Euskal testuak*, Patxi Altuna eta Joseba Andoni Lakarraren edizioa, Andoingo Udala, Donostia, 1990, 33-37. orr.

(61) Valdés inkisidoreak baliogabetu egin zuen herri-hizkuntzetan azaltzea kontenplaziozko maitasunaren misterioak edo herria gradu mistikoetara igotzeko saioak. Fray Luis de León-ek kartzela jasan zuen, bere *Cantar de los Cantares*eko (1561) atal bat salatu zutelako.

zuten Erreforma; hau da, Jainkoaren hitza behar besteko ezagutzarik gabeko jendearen esku uzteak ekarri zituen heresiak.

Behar gorriagatik izango zen, baina euskal eliz liburua babestu egin zuen Kontrarreformak, nahiz eta heresiaren mamuak estututa bizi. Bermatu egin zuen euskal letren jarraipena. Besterik da XVII. mendeko poesigintzaren ekarria. Hobari bila dabilta euskal letren jarraipena bermatu zutenak. Debalde ari dira neurtitz profanoak ondu zituztenak. Haien hobaria, euskaldunak dotrina jakin baterako irabaztea da; hauena, euskaldunak neurtitzaz gozatzen ikustea. Irabazirik gabeko lan honetan, norbere sorkariak eta izenak irautea zuten errentarik handiena; eta hau lortzen ere ez ziren gehiegi tematu; ez baitzituzten sorkariak plazaratu betikotasuna erdiesteko erarik onenean. Hala ere, debalde ari tu eta bizirik eutsi zioten euskal adierazpen literarioari. Ez edonola, gainera: Oihenarten idazlan poetikoa, lekuko. Honek, izan ere, indarrean jarraitzen zuten kanonen barnean paratu zituen musa profanoaren zerbitzupuan mamitutako maitasun-poemak. Horri esker, ez da eteten euskal literatura Mendebaldeko korronteekin lotzen duen zilbor-hestea. Honenbestez, ondare preziatua osatzen du adierazpen literarioak, nahiz eta honen urritasunak eta argitalpenbaldintzek ez dioten euskara idatziari berme sendorik ematen. Berme sendoagoa emango diote musa berri dibinoaren argipean garatutako letrek. Hauek dira ugarienak XVII. mendetik XX. mendea arte. Ugaritasuna nabarmena izango da XIX. mende bitartean; hain da bakana testu profanoa.

XIX.aren hasieran iragartzen da Erromantizismoa. Honen bultzadak zabaldu eta ugalduko du euskal letren barrutia, gero eta tarte handiagoa eskainiz testu profanoari. Agian, larregi da testu profanoaren hazkundea Erromantizismoari soilik atxikitzea. Beste eragile batzuk ere izango zituen; esaterako, ikasketak jende gehiagoren eskura egotea. Baina Erromantizismoak zekarren espiritua, banakoa azpimarratuz, funtsezko zutabea dute estatuaren babesik gabe iraun duten hizkuntzek. Izan ere, berriro balioztatuko dira hauek, eta Europan barrena hedatuko da horiek piztu, indartu eta lantzeko gogoia.

XIX. mendearen hasiera-hasieran, artean landu gabeko generoek egingo dute agerrera: autuak (62) eta alegiak. XVIII. mendeko mugimendu neoklasikoan ditu alegiak oinarriak; literatura erabilgarria aldarrikatzen baitu mugimendu horrek. Dena den, Erromantizismoa hasia zegoen, alegiak euskaraz egiten direnerako. Bizenta Antonia Mogel dator lehenbizi. *Ipui onak* (1804) argitaratzen du, Esoporen alegi batzuk itzuliz eta osaba Juan Antonio Mogelen multzotik beste zenbait hartuz. Liburuak erabilgarria izan behar duenez, bizitzarako irakaspenak dakartza Mogelenak. Bi helburu uztartzen zituen eliz liburua gazteleraz edo frantsesez idazten zuen elizgizonak: erlijioa irakatsi eta, aldi berean, liburu hutsalek –esaterako, zalduntza-eleberriek– sortutako eragin

(62) Berez, bada aurretiko itzulpen bat: Rafael Micoletak 1653an idatzita zeukan *Modo breue de aprender la lengua Vizcainaren* amaierako platikak, «Diálogos» (22-31. orr.).

gaiztoari aurre egin, irakurketa moralez hornituz mundu idatzia. Antzeko jomuga du Bizenta Antonia Mogelek:

Aitu diot ondo dakian bati, ipui oek izango dirala guziz onak aztuerazotzeko nekazarien etxeetatik ipui oker, ta zatarrak (63).

Euskal liburuetan ez zen kontatzen «ipui oker ta zatarrik». Horrelakoak, ahozkotasanaren mundukoak dira, eta horiek ordezkatzea du, hain zuzen, Mogelek helburu.

Bizenta Antonia Mogelen ondotik alegiagile ugari ezagutuko du XIX. mendeak (64). Alegiak garatzen ari zirela argitaratu zen *Peru Abarka* (1881), Juan Antonio Mogelek 1802rako idatzia zuen liburua. Mogelek, Errenazimenduko tradizio humanistan kokatuz, ereduekiko begirunea erakusten du. Hitzaurrean aitortzen du: Juan Luis Vivesengan aurkitu zuen jarraibidea. Euskara ereduzko bat erakustea du xede; ez zen, ordea, helburu linguistikora mugatu. Izan ere, marko narratibo txiki batean, bizimolde eta balore jakin batzuk atxiki zizkion euskara ereduzkoari.

Izenburu aski adierazgarria du: «El doctor Peru Abarca Catedrático de la Lengua Bascongada en la Universidad de Basarte o Diálogos entre un rústico solitario bascongado, y un barbero callejero, llamado Maisu Juan». Era egokian laburbiltzen eta iragartzen du liburuko elkarrizketen muina. Unibertsitateko katedraduna izateak zientzia irakasteko lizentzia ematen dio Peruri. Eta hala egiten du honek kokaleku bereziko unibertsitatean, Basarten. Euskal baserritar bakarti bat da Peru katedraduna. Oso hitz markatuak darabiltza Mogelek izenburuan. Erromantizismo-aurre eta Erromantizismoaren hiztegiokoak dira «basarte» eta «bakarti». Intelektualismo ilustratutik urrutiratu eta Naturara itzultzea aldarrikatzen dute: masen zibilizazioari aurre egitea, hain juxtu. Euskaldunak ez zeukan ez Naturara itzuli behar handirik, ez masen zibilizazioari aurre egiteko premiarik. Naturan bizi baitzen. Baina, besterik ezagutu dutenak horra itzultzea aldarrikatzen ari diren garaian, Naturan jarraitzeko gonbita da *Peru Abarka*. Baserritar bakartiaren eredia hobesten du, kaletar bizarginaren aurrean.

Itxura batean behintzat, aurkako bi indar batzera dator *Peru Abarka*. Bi sentiberatasun desberdin uztartzen ditu. Batetik, klasikoa eta neoklasikoa. Mogelek Errenazimenduan –ereduetan oinarritzen den Errenazimenduan– aurkitzen du elkarrizketak mamitzeko jarraibidea, eta liburu erabilgarria egiten du: jakintza linguistikoa ematen duen liburua. Bestetik, sentiberatasun erromantikoa. Sinbiosi horretatik ez dator arau-urraketarik, iragarpen bat baino: haizea

(63) MOGEL, Bizenta A.: *Ipui onak*, Auspoa Liburutegia, 28.zka., Tolosa, 3. argitalpena, 1963, 39-40. orr.

(64) Juan Mateo Zabala, Leonce Goyetche, Jean Baptiste Archu, Jose Antonio Uriarte, Ramon Etxezarreta, Augoustin Etcheberry, Agustín Pascual Iturriaga, G. Adema «Zalduby», Ramon Artola, Jose Artola eta abar dira alegia-zaletasun horren erakuskari.

ematen hasia da, ja, erabilera-eremu murrizteko hizkuntzak garapen zabalago-
ra eraman ditzakeen hauspoa.

Ez dago arau-urraketarik, nahiz eta zenbait alderditatik testu irekia izan daitekeen. Agian, Peru eredua ez da izango garai orotako hartzailentzat oso eredugarri edo erakargarri. Zabalik egon daiteke garai desberdinetako irakurleen irakurketa desberdinetara. Hala, Peruren jokabide edo jarrera batzuk ez dira, beharbada, ereduzkoak izango; auzitan ere jar lezake estamenturen bat. Baina bada zerbait zirrikiturik gabe uzten duena: artesirik gabe babesten du Eliza; begirune osoz zaintzen du kristau fedea eta errespetu osoa dio apaizari. Mogelek hitzaurrera eta autuetara darama apaiza: bietara. Hitzaurrean, definituak ditu idazlanaren hartzailak: «muy literatos». Hartzaille horiek – «clérigos, frailes, caballeros y demás» (65)– deitzen ditu Peru baserritarraren eskolara. Gero, autuetan, irudikatu egiten du abadea eta euskara-gaietan Peruren ikasle egin. Errealitate soziolinguistikoaren eskakizuna izango zen, noski. Mende erdi bat lehenago, Aita Larramendik salatua zuen, zorrotz eta setati, zeinen ezagutza urria zuten apaizek euskarari buruz eta zenbat oztopatzen ziren horrek euskaldun hutsak ziren eliztarrengana heltzea. Mogelek baserritarraren ikasle bihurtu du apaiza autuetan, baina babestu egin du Peruren zirikadetatik. Eredua ez den Maisu Juanen ahotsean ipintzen du zirikada.

Erromantizismoak, bai gizabanako mailan bai giza komunitate mailan, berezitasuna, singularitasuna, azpimarratzen du. Mogelek, komunitate berezitu baten ordezkari ereduzko bezala itxuratzen du Peru. Hizkuntza, bizimolde eta balore jakin batzuek definitzen dute hau.

Errenazimendua buru-belarri murgildu zen herri-hizkuntzak kultur hizkuntza bihurtzeko lantegian. Orain, Erromantizismoaren etorrerarekin, nor bere hizkuntza lantzeko deia dator bigarren aldiz: hizkuntza da giza komunitatearen izaera berezia definitzen duen elementuetariko bat.

Euskal letren historia kate baten antzera irudikatuko balitz, kate horren begi bat izango litzateke *Peru Abarka*: lehenaldian oin hartuz proiektatzen da geroaldira.

Zordun da Errenazimenduarekiko eta Erromantizismoarekiko. Eta, gainera, euskarak eta euskal letrik bien artean egindako ibilbidearen herentzia jaso du. Lehenaldian ditu sustraiak; baina, Errenazimenduan ez ezik, baita Kontrarreforman ere, honen itzal luzeak harrapatuta. Bestela esanda, euskal letrik eta euskarak aurreko mendeetan egindako historian jartzen ditu oinak Peruk. Batetik, babes politikodun herri-hizkuntzek Errenazimenduan lortu zuten hizkuntza landuaren estatutua. Horren harian, euskara hizkuntza ezin hobea, bete-betea eta perfektua dela frogatu nahi die Mogelek eskolatuei, ikasiei, Erromantizismoak agerrera egin eta gero. Bestetik, Kontrarreformak eragindako liburua da

(65) MOGEL, Juan Antonio: *Peru Abarka*, Adolfo Arejitaren edizioa, Kriselu, Donostia, 1990, 26. or.

nagusi euskal letretan. Peruk menderatzen du euskarak bizileku sendo izandako barrutietako ezagutza: basartean garatutako corpus linguistikoa eta kristau fedea erakutsitakoa. Bi zutabe tinko horien gainean eratzen du bere bizimoldea. Honenbestez, euskaraz jasotako zutabeak ditu euskarri. Euskaraz eraikitako munduan, ahula izan da musa profanoagandik heldutako etorria; indartsuagoa, musa berri dibinoagandik iritsitakoa. Orain, berriz, musa berri dibinoaren eragina bete-betea dator eremu profanora. Peruk irudikatutako giza komunitatearen ordezkarian islatzen da, hain zuzen, euskara larreakoa noranahikoa bihurtzera iritsi ez izana, euskal argitalpen-lana batik bat eliz liburua izana, euskaraz idatzi duten ikasien erretratuan elizgizona nagusi izana...

Hor ditu oinak irudikatutako euskal komunitatearen ordezkariak. Baina geroaldira proiektatzen da, erromantizismoaz ere elikatuz. *Peru Abarkak* Erromantizismoa iragartzen du, denbora berri bat: norbere hizkuntza aldarrikatzeko beste aukera bat, hizkuntza horretako hiztunek osatutako giza komunitatearen izaera berezia adierazteko beste egokiera bat. Erromantizismoaren zutabe zen «banakotasuna» euskarri hartuz garatuko da XIX. mendeko euskalgintza eta, XIX.aren muga gaindituz, XX. mendean barneratuko da.

XVIII. eta XIX. mendeen arteko mugan dator iragarpena. Eleberriak bereganatuko du iragarpen horrekin nahasirik hezurramitzen den Peruren mundu-ikuskera, eta XX. mendearen bigarren erdi arterainoko iraupen eskusiboa emango dio. Aldi berean, denbora berri honek bultzaturik, euskara eta euskarari buruzko azterketak indartzen dira.



Espiritu erromantikoa Europan hedatu ahalean, berriro hasiko dira erdal-dun ikasiak euskararen galdea egiten. Bete-beteen biziberrituko da, bi mende eta erdi geroago, Etxeparek 1545ean idatzitako «Prinze eta jaun handiek orok haren galdia». *Orok* hiperboleak soilik jarraitzen du figura erretorikoa izaten. Euskararen galdea egiten du Louis Lucien Bonaparte Printzeak. Lehentxeago egina dute beste jaun handi eta ikasi batzuek, XVIII-XIX. mendeen arteko mugan hasita, Karl Wilhem von Humboldt-en jakin-minak erakusten duenez. Humboldt-ek eta erromantikoek modan jarria dute Euskal Herria: hizkuntza misteriotsua duen herri misteriotsua. Eta moda horrek hainbat jatorritako jakintsuak erakarriko ditu XIX. mendean zehar: frantses, aleman, holandes, ingeles edo irlandar. Besteak beste, Fleury Léccluse, Francisque Michel, Antoine d'Abbadie – Dublinen jaioa, euskalduna zuen aita, irlandarra ama–, Willem Jan van Eys, Julien Vinson, Victor Hugo, Abel Hovelacque, Gustave Brunet, Wentworth Webster, Edward Spencer Dodgson, Victor Stempf, Hugo Schuchardt, Theodor Linschmann, Meyer Lübke, Ernest Lewi eta Christian Cornelius Uhlenbeck. Guztiek egingo dute euskararen galdea; guztiek aztertu eta argitaratuko dute.

* * *

Lapurditik Bizkaira

Apolo eta Musak
Apolo

Argiaren Aita, eta
berrtsolariena,
Apolo zan Olimpon
Iaunik galantena:
Jupiter eban Aita
eta Ama Latona
Junok zeloakaiti
estuak emona (66).

Honela hasten du Eusebio Maria Azkuek «Apolo eta Musak» poema mitologikoa. Hori ez da izango, noski, XIX. mendeko euskal bertso gintzaren erakuskaririk adierazgarriena. Egoki adierazten du, ordea, mitologiaren eta musa profanoen itzulera. Bada bertso adierazgarriagorik *Parnasorako Bidean* (1896), Eusebio Maria Azkuek 1861ean eskuz kopiatu (67) eta Resurreccion

(66) AZKUETAR, Eusebio Maria: *Parnasorako Bidea*, Astuitar J.-n moldagintzan, Bilbon, 1896, 293. or.

(67) *Euskarazko versoac neurri ascotan apaindubak. Imini dituzana da Eusebio M. Dolores Azcuecoa, 1861garren urtian.*

Maria Azkue semeak argitaratutako bilduman. Hemen jasotako satira, epigrama, alegia, bertso erlijioso eta abarren artean, euskal ohituren deskripzioari eskainitakoak izango dira esanguratsuenak.

XIX. mendeko euskal bertso gintzan bada Neoklasizismoan oin hartzen duen bertso-rik. Adierazgarrienei, hala ere, ez darie kutsu neoklasikoa, «Apolo eta Musak» honi darion bezala. Data hauetan ia inork ez du sinesten Antzinako mitologian, eta mitologia desagertu egiten da poesia erromantikotik. «Benetan» esperimentatzen denak ordezkatzeko du.

Hala egin zuen Piarres Topet «Etxahun»ek, bertso autobiografikoetan azaldu zuenean bere bizitza tragiko eta grinatsua. Edo Indalezio Bizkarrondo «Bilintx»ek; adieraztean: «una queja tan personal y desnuda que resulta casi impúdica» (68). Edo Jean Baptiste Elizanburuk, sentimenduen isuri bihozbera dakarrenean, gai bakoitzari adierazpen-modua egokituz.

Gizaki mailako berezitasuna ez ezik, gizatalde mailakoa ere azpimarratu zuen Erromantizismoak. Hortxe dute oinarri Eusebio Maria Azkueren ohiturazko koadroak, edo Hiribarrenen *Eskaldunac* (1853) konposizioak, edo Grazien Adema «Zalduby»ren «Pilotariak» sailak (69). Euskarri erromantikoa dute, halaber, Grazien Adema «Zalduby»ren kanta aberkoiek (70) edo Felipe Arrese Beñiak, Euskal Herriaren lehena eta oraina kontrajarriz, joandako denborez azaleratutako nostalgiak.

Hauspo erromantikoak haize emanda eratu ziren Lore-Joko eta euskal festa eta hauetan antolatutako sariketa literarioak.

Bertso soltea egiten da XIX. mendean. Bost bat mila bertso-lerrok osatzen dute Hiribarrenen *Eskaldunac*, konposiziorik luzeena. Ez dago batasun bat osatuz egindako beste poesia-multzorik. Ez dago poemategirik, ez barne-lotura duen poema-sailik. Hori baino errazagoa da bertsoak egiteko modua, bertso solte guztien lantze-maila berdina ez bada ere. Antonio Arzak-ek, adibidez, ematen du urratsen bat poesia espazialean (71). Baina, oro har, bide herritarrak jarraituz garatutakoa da XIX. mendeko bertso gintza.

Peru Abarka idatzi eta ia mende batera dator Txomin Agirrerren *Auñemendiko Lorea* (1898), lehen euskal eleberrizat har daitekeena. Eleberri historikoa da, mugimendu erromantikoak Walter Scott-ekin hasi eta bultzatutako eleberri motakoa. Kristautasunak Auñemendi mendietan izandako garaipena du gai. Auñemendiren erabilera sinekdotikoa bide, Euskal Herrira hedatutako garaipena da. Euskal izaera goraiatzeko bat, herri desberdinen arteko lokarri

(68) MICHELENA, Luis: *Historia de la literatura vasca*, 132. or.

(69) *RIEV*, II, 1908, 90-94. orr.

(70) «Chants patriotiques», *RIEV*, III, 1909, 396-400. orr.

(71) «Baga» izenburupean argitaratzen du. Ik. *Euskal-Erria*, XXIII, 1890, 202. or.

gisa aurkezten du kristau fedea. Lokarri honek lotzen ditu frankoak eta euskaldunak, luzaroan elkarren etsai izanak.

Erraz samar azal daiteke non duen zilbor-hestea mende Erdiko eleberrigintzak; hain zuzen, XIX-XX. mendeen arteko mugan azaleratzen hasi eta XX.aren lehen erdian garatu denak: *Peru Abarkan* mamitutako mundu-ikuskerari eusten dio. Mundu-ikuskerari honen eraketak, Erromantizismoaren zainetarik iragaziz, euskarak eta euskal letrek egindako ibilbidearen herentzia jasotzen du. Berdin eleberrigintzak. Herentzia berezi samarra da, hizkuntza arautu eta normalizatuena ez bezalakoa. Hala ere, ez ditu eragiten Europako Mendebaldean zeharo isolatuta dauden eleberritxuek, euskararen eta euskal letren ibilbide berezia dela medio. Ikuskerari horren igoerak ez dira soilik euskal eleberriak. Ez dira eta ezin daitezke izan; aire erromantikoa bera arnastu baitzuten beste batzuek ere. Oso konplexua da mugimendu erromantikoa; plurala eta kontraesanak dituena. Osagai desberdinez osatutako airea. Baina osagai berak arnastu zituzten batzuek. Hala, Txomin Agirrek *Auñemendiko Lorean* baino urte batzuk lehenago, mundu-ikuskerari bera azaldu zuen gaztelaniaz Francisco Navarro Villoslada, *Amaya o los vascos en el siglo VIII* (1879) eleberrian, nahiz eta gaztelaniaren eta gaztelar letren ibilbidea ez izan euskararena eta euskal letrena bezalakoa. Oinarri ideologiko berak dituzte Antonio Trueba, Oscar Rochelt edo Jose Maria Peredaren idazlanek eta Txomin Agirrerenek. Haien gaztelaniaz idazten dute; Agirrek euskaraz. Baina alde ideologikorik ez dago horien langintza literarioan, nahiz eta idazlan batzuk landuagoak izan eta hobeto eraturako istorioa aurkeztu. Testu-azterketa literario batek atzemango lituzkeen aldeak ezin heda daitezke euskarri ideologikoetara.

Berezitasuna ez dago hor, baizik aire erromantikoa horren iraupen oso luzea eta, batez ere, geroztikako aire-berritzeak baztertzearan. Bizi-iraupen luzea du hauspo erromantikoa, baina deigarriagoa da nola hauspo horrek gainontzeko etorriei bidea ixten dien. Euskal eleberritxuek mundu-ikuskerari bakar azaleratzen dute. Badirudi talde soziologiko bakar batekoak direla euskal hiztun guztiak eta mundu-ikuskerari bera dutela. Hori da gertaerarik azpimarragarriena. Eta ez, horrenbeste, gaztelar eleberrigintza eta, batik bat, frantses eleberrigintza ez bezalako bideetan ibiltzea, hain zuzen, hauen garaikide den euskal eleberritxuek jaio berria. Izan ere, homogeneotasuna baino errazago esplikatu daiteke berankortasuna. Mugimendu literarioak ez dira une berean sortzen herrialde desberdinetan, edo une berean iristen sorlekutik alderdi guztietara. Aldi jakin batean, elkarrekin ikusten dira lehenago eta beranduago jaioak. Mugimendu literario desberdinak aldi berean gertatzen dira herrialde batean. Ondorioz, arrunta da heterogeneotasuna. Horregatik egiten da nabarmena euskal eleberrigintzak oinarri ideologiko bakar bat izatea euskarri. Eta, adibidez, lekurik ez izatea errealismoarentzat edo naturalismoarentzat. Bitartean, mundu-ikuskerari desberdinak elkarrekin bizitzen ikusten ditugu hizkuntza normalizatuak darabiltzaten eleberrietan.

Mende erdi luze batean ez da berrituko euskal eleberrigintza. Ez da horrela gertatzen, ordea, XIX. mendean garatutako bertso-gintzarekin. Dagoeneko, poesia-liburuak idazten dira XX. mendearen lehen hamarkadetan. Batasun baten baitan egindako poesia da. Eta 1930aren inguruan kokatzen da poesiarren eraberritzea; Lauaxetaren eta Lizardiren eskutik, batik bat. Baina:

 Ezta zalantzarik Lizardi'gan. Pozik dago biziak eskeintzen dionaz eta fedek agintzen dionaz. Alferrik bilatuko duzute beragan Europa eta mundu guztia dardarazten asia zen lur-ikararen berririk. Dardarak ezkinduen artean ukitu edo, ukitu baginduen ere, begi belarri erneak eta arima urduria bear ziren zirrara sumatzeko. Bizi-leku sendoan bizi zen. Zimenduetan ez-ezik, etzen paretetan arte-siturik ageri. Axalean zertxobait aldaturik ere, bizimodua, uste, iritzi ta sinesteak oiturazkoak ziren, gurasoengandik zetozenak, eta gizaldi berriek aztertu gabe berreginatzen zituzten, beste edozein ondasun bezala (72).

Oinarri bat eta bera dute eraberritzeaile guztiek.

* * *

Bizkaitik Gipuzkoara

Zatozkida, Goi-arnas
eizu nerekin lan,
erri baten arnasa
mamitu dezadan (73).

Goi-arnasaren laguntza eskatzen du Orixek, Euskalzaleak bazkunaren mandatua betetzeko, honek Lönnrot-en *Kalevala* (1835) finlandiar epopeiaren antzeko obra bat mami zezala eskatu zionean (74). Orixek bere ulerkuntza eta jarraibideen arabera bete zuen eskaria; 1935erako bete ere. Hitzaurrean ikasiei esaten dienez, «epopeiari urbilenik» ikusten du emaitza. Ez zebilen oker Orixe, idazlana literatur genero horren barrutian kokatzerakoan. Dirudienez, «reconstitución total y cabal de la vida vasca» (75) baitzuen lanak asmo. Epopeiak, izan ere, bere baitan hasia eta bukatua eratzen du bizitzaren osotasuna (76).

(72) MITXELENA, Luis : «Sarrera-itx batzu» in TXILLARDEGI, (J. L. Alvarez): *Leturiaren egunkari ezkutua*, Leopoldo Zugaza editor, Durango, 2. argitarapena, 1977, 12. or.

(73) ORMAETXEA, Nikolas, «Orixe» : *Euskaldunak*, Itxaropena argitaldaria, Zarautz, 1950, 13. or.

(74) Hala dio Euskalzaleak bazkuneko kide Antonio Maria Labayenek, nahiz eta gero beste norabide bat hartu zuen Orixek. Ik. LABAYEN, A. M.: «Introduccion» in ORMAECHEA, Nicolás, (Orixe): *Compendio del poema vasco «Euskaldunak» con glosario romance*, Editorial Icharopena, Zarautz, 1951, XVII. or.

(75) IBAR: *Genio y lengua*, Librería de Mocoroa Hermanos, Tolosa, 1935, 214. or.

(76) «La epopeya forma una totalidad de vida acabada en sí misma». LUKACS, Georg: *Teoría de la novela*, Edhasa, Barcelona, 1971, 63-64. orr.

Berandu samar zetorren. Berandu, idatzi zuenerako; are beranduago, argitaratu ahal izan zuenerako, 1950ean.

Homerok landutako generoak izan zuen jarraitzailerik XIX. mendean ere. Herder-ek adierazia zuen, 1767rako, bere izaera berezia duela herri bakoitzak. Zeinahi nazioaren izaera berezia bere herriaren espirituan azaltzen da. Izaera berezi hori herri horren ohitura, erakunde, arte eta literatur lanetan adierazten da, eta bere baitan du balioa. Alemaniatik etorritako ideia horren magalean idatzi zuen Elias Lönnrotek *Kalevala* edo Frédéric Mistralek *Mireio* (1859). Baina aldi erromantikoa ondo igarota da, Orixek *Euskaldunak* idazten hasten deanean. Aitortu behar da, dena den, euskal eleberrigintzak espiritu erromantikoz elikatzen jarraitzen duela, Orixek egiteko horretan ari zela; eta baita geroago ere. Euskal adierazpen epikoak oinarri jakina du: ustez euskal izaera dena adierazten ari da, aingura Erromantizismoan botata.

Lazarragaren eskuizkribuak erakutsi duenez, XVI. mendean bertan hasi zen euskal narratiba. Baina eskuizkribua azaldu arte, XIX. mendearen azken alderaino luzatzen zen narratibaren jaiotza. Inprimatu gabe eta jarraipenik gabe gelditu zen, ordea, Lazarragaren lekukotasuna. Hala, XIX-XX. mendeen arteko mugan argitaratuko dira lehen eleberririk. Hauek erromantizismo berantiarra dute euskarri, eta ez erreialismo garaikidea.

Ez zen eleberririk erromantiko honen garaia; ezta epopeiarena ere. Ziurtasunen mundu baten gainean eraikitzen baitira bata eta bestea.

Ez zen eleberririk erromantiko honen garaia: pertsonaia nagusiek ez baitute inoiz huts eginen. Bide zuzenari jarraitzen diote beti, Kristoren legea argi eta gidari. Horregatik, protagonistatutako istorioan barrena, arrisku-uneak igarotzen beharrean izanda ere, ez dago benetako arriskurik. Zoriona, bakea eta atsedena izango dituzte zain istorioaren amaieran, inolako zalantzarik gabe. Frakaso guztietatik salbatzen ditu Kristoren argi gidariak. Pertsonaia eredugarriek ezin dute frakasatu. Bai baitakite zein den jokabide zuzena; zalantza-izpirik gabe jakin ere. Eta frakaso guztiak saihesten baititu zuzen jokatzeak.

Ez zen epopeiaren garaia ere. Barne-ziurtasunen gain eraikitzen baita epopeia; eta barne-ziurtasun honek, zentzu hertsian behintzat, abentura bazterten baitu. Epopeietako heroiak, nahiz eta abentura sail nabarra igarotzen, garaile aterako dira, zalantzarik gabe. Ezinezkoa da, izan ere, deabruetarako abantailarik ez izatea jainkoek gobernatutako munduan. Horrexegatik ez dago dudarik. Garaile aterako dira heroiak.

Orixek *Euskaldunak* «epopeiari urbilnik»- argitaratzen duenerako, atez-joka zen Hegelek epopeia burgesa deitutako testu-generoa. Agertzeaz zegoen lehen euskal epopeia burgesa. Jainkorik gabeko mundua zekarren. Heroiak deabruzkoa zuen psikologia: demoniozkoa.

Bai: epopeia burgesa. Izan ere, zentzu hertsian bederen, epopeietako heroia ez da behin ere gizabanakoa. Epopeiak, pertsona ez baina, komuni-

tatea du xede. Hauxe jo izan da, garai guztietan, epopeiaren ezaugarri funtsezkotzat.

Komunitatea, preseski euskal komunitatea, adieraztea zuen helburu *Euskaldunak* poemak. «Euskalerrri osoa dut kanta-gai, ez biko bat edo beste, gure gauzeri lokarri bat ezartzeko asmatu ba dut ere» (8. or.) zioen Orixek berak hitzaurrean. Jomuga pertsonal bat besterik ez du 1950eko hamarkadan ate-joka zen Txillardegiren *Leturiaren egunkari ezkutuko* (1957) Leturiak. Erantzunak dituen mundua da *Euskaldunak* poemakoa —erantzun ukaezinak izan behar nahitaez, Jaungoikoaren aurrean eta Honen graziaz sortuak (77)—; etengabeko bilaketan murgildurik dabil Leturia. Goi-arnasari deitu ondoren, barne-ziurtasunen mundu bat eraikitzen zuen *Euskaldunak* poemak. Euskaldunek osatzen zuten heroia: pertsonaien erretaula oso zabal batek. Eta, gainera, abentura sail nabarra igaro beharrik ere ez zeukan. Ez baitzegoen deabrurik. Bere bizitza kontatzen ari zen, dela lanean, dela festan, beti senidetatsun-giroan. Ziurtasun-izpirik gabeko mundua eraikitzen du *Leturiaren egunkari ezkutuko*. Deabruzkoa, demoniozkoa da Leturia heroiaeren psikologia. Eta bere xedea aurkitu uste bakoitzaren ondotik, frakaso dator. Bilaketek frakasoaramate beti, harik eta bere buruaz beste egiten duen arte. Barnean darama etengabe frakasoaren kondanatzen duen deabrua. Eta ez du Jainkoen laguntzarik deabrua menderatzeko. Aprobematikoa zen *Euskaldunak* poemako heroia. Gizabanako probematikoa da Leturia.

1957: Juan San Martin euskaltzain urgazle hautatutako urtea. Urte horretan sartzen da Leturia euskal literaturan. Berri ezin kezkarriagoa eta larriagoa dakar sarrerak: demoniozko heroia jaio da, non eta Jainkoak deabrua garaitua zuela ondo zekiten letretan. Bazekiten Trentoko Kontzilioa heldu aurretik, eta bazekiten honen ostean. Hala ikasia zuten musa profanoen argitan, eta ugariagoa eta emankorrago izandako musa berri dibinoaren argitan. Galderek, zalantzek, bilatu beharrak egin dute agerrera, non eta, erantzunak eta ziurtasunak izanik, ezer bilatu beharrik ez zuen literatura batean. Birrinduta gelditzen ziren ordu arteko euskal adierazpen literarioaren oinarri ideologikoak eta erlijiosoak. Lurrikarak harrapatu zuen ordu arteko mundu irmoa. Eta, aurretiaz, pitzatuta dagoen mundu batetik idatzi beharko da. Hain sakona izanik lurrikararen astinaldia, derrigorrean sumatuko zuen, Debarro honetan, ia bost mende lehenago hilobiratutako Ozaetako Santxa Otxoa andreak. Hezurmuinetan sumatu ere. Berrero balia zitzakeen, senarra hilotz ikustean bezala, barne-barneko sentimenduek eragindako hitzak. Eta berrero, aldarrikatu:

«Oñetaco lurrau jabilt icara»

(77) Hala dio Ibarrek. Ik. IBAR: *Genio y lengua*, 230. or.

ANA MARIA TOLEDO LEZETA
euskaltzainaren sarrera-hitzaldia
eta *Jean Haritschelhar* euskaltzainburu ohiaren erantzuna

Antzuolako alkate jauna, agintari jaun-andereak, euskaltzainkideak, jaun-andereak, egun on!

Egun ere, konpainia on batean, euskaldunik baizen ez den lekuan nagoela... oraingotzen ditut Axular-en hitzak Gero liburuan irakurtzaileari eskainiak. Alde batetik egun ederra baita euskaltzain berri batek egiten duelarik bere sarrera-mintzaldia eta bestetik hemen bildua den jendea, konpainia on bat dela, euskaldun eta euskaltzaleez hornitua.

Esaldi horrek igortzen nau 1974ko irailaren 14era, Euskaltzaindia Urdaubini Axular-en sorterrian bildurik, Juan San Martin euskaltzainak irakurtzen zuela bere sarrera-mintzaldia. Lehen aldikotz nintzen aitabitxi, hala hautatu baininduen San Martin adiskideak. Egia da bazuela hamar urte sartua zela Euskaltzaindian eta, azkenean, ohartu zela egunetik egunera, biharretik biharrera, egitekoa geroko utziz, geroak bego aitortzen zuela.

Erantzun nion, umore pixka batekin:

Hamar urteren buruan pentsatu dukezu laster iragan zela denbora eta ordu zitekeela eginbidearen betetzea. Hautatu duzu Axular-en sort-herria, behar bada erakusteko gero dionak ez duela beti bego erraiten.

Egia erran, berrogei bat urtez harremanetan egona bainaiz Juan San Martin-ekin «bego» hitza ez diot entzun, hain zen langilea, beti prest zerbaiten egiteko, laguntza baten eskaintzeko, geroari buruz idekia, «gero» delako hori zela etorkizuna eta ez denbora iragaiten uztea, deus trenkatu gabe.

Alderantziz, bere bizi guzian euskararen zerbitzari leiala izana da gure adiskide zena. Bai etxean hainbeste artikulu eta liburu idazten zituelarik, euskararen eta euskaldunaren alde jokatzuz, bai kanpoan, kalean, Euskal Herriko mendietan, gerra zibilaren ondoko belaunaldiak euskalduntasuna eta denbora berean abertzaletasuna erakusten zuela gau ilunetik jaigitzeko nahian.

Lekuko naiz erraiteko zer eta nor izan den Euskaltzaindian Juan San Martin. Osoki murgildua zen gure Institutioan. Gipuzkoako ordezkari izendatua izan zen sortu zelarik Donostiako ordezkari, lehena Euskaltzaindiaren garapenean. Jagon sailburu izana da ere txapelketetan, Rikardo Arregi eta Patxi

Altunarekin sortuz eta bultzatuz alfabetatze kanpañak, horiek guziak 60ko hamarkadan, frankismo garaian. Euskaltzaindiko idazkari zen 1968an azpimaratu nahi dudala zer parte handia hartu zuen Arantzazuko kongresuaren apailatze lanetan eta hango eztabaidetan, ahantzi gabe lau urte lehenago bildu zela Baionan beste idazle batzuekin eta han hartu zituzten xedeak kontutan hartu zituela Mitxelenak euskara batuaren oinarrien finkatzeko.

Izendatu nindutelarik euskaltzainburu 1988ko abenduaren 30ean, izendatua izan zen buruorde, ene ondoan naukalarik aspaldiko adiskidea, aholku emaile fina, baina ez zuen luzaz iraun. Alabaina bazakien zer egiten zuen Eusko Legebiltzarrak hautatu zuelarik San Martin berrikitan sortua zen ararteko enpleguaren betetzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko lehenbiziko arartekoa izanez, bide urratzaile izana da, erakutsiz zituen dohainak beharrezkoa den administrazioaren sortzeko. Europako arartekoen artean euskaldunek ukan dute fama ona Juan San Martin-i esker.

Ana, zure mintzaldian aipatu duzun bezala, nik ere aipatu nahi ukan dut adiskide zena, oroitaraziz nor izan den ez bakarrik Euskaltzaindian baita ere euskaldunen artean, gogoan atxikitzen dudala zeukan helburua, oixtion azaldu duzuna:

Euskalduna naiz eta nahi dut nire herriak euskaldun iraun dezan. Ta ez da asko eskatzen dudana: gizon guztientzat eskubide berdina ta herri guztientzat ere hori berori.

* * *

Ana, San Martin-ek hutsik utzi duen alkiari zaude orain eta San Martin-ek aitabitxizat hartu ninduen bezala zuk ere nahi ukan duzu aitabitxi izan nadin berriz ere. Benetan, aitortzen dizut zure eskaintza onartu dudalarik sentitu dudala bihotzean holako ximiko bat eta bozkariotu naizela, ez bainuen pentsatzen holakorik izan zitekeela hogeita hamabi urteren buruan. Zaharrena naizelakotz Iratzeder-ekin, hain zuzen berrogeita lau urte iraganik Euskaltzaindian, gogoan dauzkat ene ondotik izendatuak eta jadanik zenduak diren zortziak: Jose Mari Satrustegi, Piarres Larzabal, Alfonso Irigoyen, Andolin Eguzkitza, Juan San Martin, Patxi Ondarra, Juan Mari Lekuona eta Patxi Altuna. Haien ordaintzeko belaunaldi berri bat sartzen ari da Euskaltzaindian, horietako bat zara, Ana, Miren Azkarate-ren ondotik bigarren emakumeari ongi etorri amultsua egiten diodala.

Zutaz mintzatu baino lehen nahi nituzke agurtu lehenik zure aitamak. Segur naiz pozik daudela ikusiz nola gobernatu duzun bizia apirilaren 3 batez hasi zena hemen Antzuolan. Gero, ezkontuta (nola ez agurtu zure senarra Gipuzkoako diputatu nagusia) Joanes eta Leire haurrak eta jendaki guzia, zure aldekoa edo zure senarraren aldekoa. Ez dezaket ahantz Antzuolako herria, gaur zure inguruan bildua eta erraiten diot alkate jaunari:

Antzuolako herria
 Benedika dadila
 Euskaltzaindiari eman baitio
 Behar zuen andere jatorra.

Lehen eta bigarren mailako estudioak eginik sartu zara Deustuko Unibertsitateak duen Donostiako campusean eta han lortu dituzu bi lizentziatura, lehena Filología hispánica deritzana (1979), bigarrena Euskal Filologiakoa bi urteren buruan. Badakit zure irakasleen artean bazirela biga maitatu dituzunak bereziki, biak euskaltzainak Juan Mari Lekuona eta Patxi Altuna. Aski da irakurtzea «Bidegileak» deitzen den sortan bakoitzari eskaini diozun omenaldia, Elisabet Perez Gaztelu eta Esther Zulaika-rekin. Tesia aurkeztu duzu 1989an Donostiako campusean Domingo Agirre-ri buruz, aztertuz denbora berean euskal eleberriaren sorrera. Epai mahaikideek eman dizute doktore titulua «apto cum laude» aho batez, ikusiz zer lan baliosa egin zenuen, nola agertzen zenituen ikerle onaren kalitate guziak, bai bildu zenituen dokumentuetan, bai tesuen azterketetan. Hau da nire lekukotasuna, epai mahaikide bainintzen.

Unibertsitateko irakasle zara, lehenik Donostiako campusean Filosofia eta Letren fakultatean eta orain Bilboko campuseko Filosofia eta Letren fakultatean. Irakaskuntzaz gain izana zara ere Euskal Literaturako departamentuburua, bai eta ere Euskal filologiakoa, erran nahi baita ez zarela bakarrik irakasle eta ikerle, baina parte hartzen duzula kudeatzaile gisa Unibertsitateko egunerokoetan, ikasle eta irakasleen fagoretan.

Euskaltzaindian LIB batzordeko kidea zara batzordearen sorreratik 1989an, gaur arte. Juan Mari Lekuonaren ardurapean ari izan gara lanean eta kide guziek badakite lanari ez diozula sekula uko egiten, zein zorrotzak diren zure iritziak, zer parte handia hartzen duzun sortzen diren eztabaidetan. Berrikitan, 2005ean, sartu zara Sustapen batzordean eta beraz *Iker* sailean eta *Jagon* sailean egiten duzu lan.

Gehiago dena, ikusi genuelarik osasunez gaizki zihoala Juan Mari Lekuona, galdegin genizun ea onartuko zenuenez Gipuzkoako ordezkariorde izatea. Hala izan zen bi urtez eta iaz Gipuzkoako ordezkari izendatua izana zara. Euskaltzain urgazle 1996an eta, ikusirik orain berean aipatu ditudan merituak, euskaltzainek hautatu zaituzte euskaltzain oso Juan San Martin zenaren aulkian jartzeko. Denbora berean bigarren emakume bat sartu da Euskaltzaindian. Segur naiz, hemendik goiti, bertze batzu ere sartuko direla, Euskaltzaindia izan dadin euskal gizartearen mirail edo ispilu.

Zure sarrera-mintzaldian «Musen arnasatik Goi-arnasera euskal letretan barrena» deitu ibilaldia eskaini diguzu, ibildaldi linguistikoa euskalki guziak aipatzen baititu, ibilaldi historikoa XVI. mendetik XX. mendera doana, zazpi euskal herriak bilduz beren kultura batasunean.

Hasten da Nafarroan eta XVI. mendean kokatzen duzularik, Italiako «Cuatrocento» delakoa hedatzen ari da uholdea bezala estaliz mendebaleko Europa. Etxepare, baliatzen duen metrika bertsolariena izanagatik XVI. mendekoa da, bereziki goraiatzen duelarik euskara «Kontrapas» eta «Sautrela»-n. Sartzen da orduko eztabaida nagusian hizkuntza herrikoien eta latinaren artean. Euskara bertze hizkuntza arrunten heinean da eta, inprimatuz gero, sortzen du egiazko literatura. Ez dezagun ahantz protestanteek nahi dutela hizkuntza horiek erabiliak izan ditezen tenpluetan eta Bibliaren itzulpenetan sartzen dira herri guzietan, Euskal Herria barne Albreteko Juana erreginak manaturik. Nafarroatik Arabara doa ibilaldia berrikitan ezagutzen den Juan de Lazarraga-rekin. Gipuzkoako Foru Aldundiari esker, erosirik eskuizkribua, diputatu nagusiari esker behar den hedapena eginik jende ikasien artean, agertzen da Lazarraga XVI. mendeko idazle, orduko ideiak ezagutzen dituenak eta obratzen bai artzain-eleberri ttipi batean, bai ere olerkietan.

Arabatik eramaiten gaituzu Zuberoara sartuz XVII. mendean Oihenart jakintsuna, legelaria, historiagilea eta olerkariarekin. Hala nola Lazarraga-k jasotzen dituen Espainiako haizeak, halaber Oihenart-ek Frantziakoak. Musa profanoak zerbitzatzen ditu erakutsiz zer zor dion Antzinateari, hala nola metrika berri bat proposatzen duen eta berak erabiltzen idazten dituen olerkietan. Kultura zabaleko jakintsunak ezagutzen ditu Frantzia, Espainia eta Italiako literaturak. Orpustan-ek dioen bezala:

utzi dauku euskal olerki bilduma bakarra osoki aro klasikoko zuzentasun formalaren arabera.

Erran dezakegu bera zela ere

Bederatzi ahizpez maiteki hazia.

Zuberoatik Lapurdira joanez XVII. mende horretan Trentoko kontzilioko ondorioak agertzen dira euskal literaturan, Erreforma katolikoaren (ez dut maite kontraerreforma hitza) babespean. Musa profanoak ez dira gehiago deitzen eta Gasteluzarrek dioen bezala: «*Zato zeruko Musa berri dibinoa*». Lapurdi agertzen da XVII. mendean Erreforma katolikoaren lemaizain. Joanes Etxeberri-k bere *Noelac eta berce canta spiritual berriac* argitaratzearekin kantarazten du euskaldun jendea elizetan. Liburu horrek ukan duen arrakasta nabaria da bere bederatzi argitalpenekin XVII eta XVIII. mendeetan. Giristinoak jakin behar dituen eguneroko otoitzak neurtitzetan doaz bere *Manual devotioenezcoan*. Olerkietan hedatzen da Harambouren *Debocino escuarra, mirailla eta oracinotegua* (1635), bai ta ere Harizmendi-ren *Virginaren officioa* (1659), halaber d'Argainarats-en *Devoten breviariora* (1665). Asma daiteke olerkari horiek bildu zirela «*konpainia on batean eta keinuz eta aieruz eta gero, azkenean klarki eta agerriz*» Axular-i galdegin ziotela Gero liburuaren idaztea, hori ere euskaldun giristinoen onerako.

xviii. mendean pizten da Hegoaldea, bereziki Bizkaia eta Gipuzkoa Larramendi-ri esker. Hizkuntza batek nahi balin badu irauñ eta garatu beharrezkoak ditu hiztegi eta gramatikak. Emanen dizkio Larramendi-k, berant beharbada, beste hizkuntzekin konparatuz. Argien mendean Sarako Etxeberri-k erakusten du gazteen alderako grina, haien hezteko beharra. Azkoitian hiltzen delarik 1749an, nork uka dezake ez dituela bere ideiak barreiatu jendeen artean, zenbait urteren buruan sortuko delarik Azkoitiko zaldunen elkarte, geroari buruz irekia. Ildo beretik doa alegia, Mogel-ekin hasiz, lehenik Juan Antonio, adibidez *Peru Abarka*-n eta gero Bizenta haren iloba, segituz Iturriaga, Mateo Zabala eta Uriarte-rekin. Olerkiaren bidez gogobihotzak zabaltzen dira. Opera ere sartzen da Euskal Herrian Peñafloida kondeari esker.

Erromantikoek emanen diote beste hats bat euskal literaturari. Ahozko literatura, kantuaren bitartez, jalgitzen da plazara, hala nola Euskal Herria eta euskaldun jendea jalgitzen diren kanpora Humbolt jakintsu alemanaren liburuekin. Bertso paperen garaia da; d'Abbadie-ren Lore-jokoek eragin berezia ukanen dute Hegoaldean bigarren karlistadaren ondotik. xviii. mendeko Hirurak bat bilakatuko da Laurak bat xix. mendearen erditsutan, Zazpiak bat 90eko hamarkadan eta kultura batasun baten bidean gaude.

xx. mendean zabalduko da abertzaletasuna bere gorabeherekin. Olerkia joanen da gailurretara, lekuko hartzen ditudala Bizkaian Lauaxeta eta Gipuzkoan Lizardi. Poesia landua, kanpoari irekia, haize berri bat iragaiten ari da Euskal Herrian eta frankismoak badaki non jo behar duen, hain zuzen Bizkaian eta Gipuzkoan. Alabainan bi herrialde horietan datza euskararen maitasuna, egiazko berritzea euskal kulturari eta euskal literaturari. Jasan eta irauñ! Jasan lehenik frankismoaren abrekeriak, hizkuntza baztertua, zangopilatua, arbiatua, jendea mututua, baina irauñ, gogobihotzetan atxikiz euskarari zor zaion amodioa, euskara baita Victor Hugo frantses olerkariaren printzeak ziona, egiazko aberria.

* * *

Gerra aurreko berpizte horretan sortuko da Euskaltzaindia, mugaz gainetik doana bere Hegoaldeko bederatzi euskaltzainekin eta hiru Iparraldetik. Lehenbiziko xedeetan agertzen dira hizkuntz Atlasa eta Campion, Broussain jauneri galdegina: euskara literario bati buruz bide baten urratzea. Hain zuzen, lan horietan sartuko da Euskaltzaindia baina laster dator 1936. urtea. Berritzen da, hamabi euskaltzainetik hemezortzira doalarik gerra ostean eta 60ko hamarkadan hogeita laura. Belaunaldi berri bat sartzen da Euskaltzaindian. Denek sentitzen dute euskara batuaren beharra eta jadanik aipatu dudan bezala San Martin adiskideari zor zaiona emanez, Mitxelena izan delarik belaunaldi gazte horren lemaizina, 1968an Arantzazuko kongresuan eta hamar urte berantago Bergarako biltzar nagusian.

Badu orain hogeita hemezortzi urte hasia dela zinezko hizkuntz iraultza. Ez da alferrik egon Euskaltzaindia eta ageri dira euskaldun jendeari eskaintzen dizkion opariak: Orotariko Euskal Hiztegia bere hamasei liburukiekin; Euskal Gramatikaren Lehen urratsak dituen sei liburukiekin, zazpigarrena lan-tzen ari delarik gramatika batzordea; Hizkuntz Atlasaren inkestak, lehenbiziko bi liburukiak prest direla agertzeko; Onomastika batzordearen lanak, exo-nomastikakoak barne, euskara baturantzeko bidea urratuz; Literatura batzordea, aurtan agertuko duen estilistikako liburuaz aparte, sakontzen eta ospatzen dituela euskal idazleak izan ditezten Oihenart edo Elizanburu, Carda-beraz edo Lizardi.

Zer poza euskaltzain guztientzat duela urte bat eta erdi, ene eta Andres Urrutia euskaltzainburu berriaren artean egin delarik kargu-aldaketa, entzun di-tuztelarik Juan Jose Ibarretxe lehendakari jaunaren hitzak:

Denok badakigu euskararen batasuneranzko bidea oso luzea izan dela. Hasieran, eginkizunaren zailtasunak jendea atzera botatzen zuen. Ez zen ados-tasunik ikusten. Baina azkenean, 1968. urtean, Arantzazun, ezarri ziren hiz-kuntza idatzi batuak behar zituen oinarriak eta ordutik hona Euskaltzaindiak oso urrats handiak egin ditu bide horretan. Euskara batua izugarritzko lorpena izan da eta lorpen horren gauzatzailea Euskaltzaindia izan da. Euskal Herriak eta euskalgintzak Euskaltzaindiarekiko zor izugarria du eta hori aitortu beha-rra dago.

Gainera, Euskaltzaindiak halako autoritate bat (edo itzala esango genuke euskaraz) irabazi du euskaldunon artean. Eta hori inportantea da. Are gehiago gu-rea bezalako Herri batean, non ez ditugun erraz onartzen batasun bideak, diren motakoak direla. Euskaltzaindiak Euskal Herri osora zabaldu du bere itzal hori. Euskal Herri osoan onartua den erakunde gutxietakoa dugu, hain zuzen Euskal-tzaindia. Horregatik, eskerrak bene-benetan, Akademiari euskalgintzan lortu duen rol hori lortu ahal izan duelako.

Hitz horiek entzutean euskaltzainburu ohi nintzenak gogoratu ditu bere aitzinekoak: Azkue, Etxaide, Lojendio, Lekuona, Villasante eta euskaltzain guztiak, gerra aurrekoak hala nola gerokoak, haien artean 60ko hamarka-dako belaunaldia, buru eta belarri sartu dena hizkuntz batasuneranzko bi-dean.

Baina egiari zor zaio Eusko Jaurlaritzari esker eta bereziki Hezkuntza eta Kultura sailei esker Euskaltzaindiak eskaintzen zituen arauak hedatu di-rela eskoletan, ikastoletan, lehen eta bigarren mailekoetan eta Unibertsitate-tan sortu direlarik. Egiari zor zaio ere erraitea beharrezko diru-laguntzak hartu dituela Euskaltzaindiak Eusko Jaurlaritza eta hiru Foru aldundietarik bereziki. Aitortu behar da ez zuela Euskaltzaindiak egin duen lana eginen ez balu ukan agintarienganik, ez bakarrik diru-laguntza bainan, denbora bere-an, konfiantzazko aitormena. Segi dezagun beraz, eskuz-esku, hasia dugun bidetik.

Belaunaldi berri bat sartzen ari da Euskaltzaindian: 1990etik hona hama-bi euskaltzain berri sartu dira, erran nahi baita erdia. Hasi den lana aurrera eramaiteko bada lan ugari, baina badakit Euskaltzaindiak bere batzordeetan dituen langileekin izan ditezten euskaltzain oso, urgazle edo laguntzaile, gehienak Unibertsitateko irakasle-ikerleak (hori baita Euskaltzaindiaren indarra), behar den bezala garaituko dituela erronka guztiak. Laguntzaile lehenik, euskaltzain urgazle gero, euskaltzain oso orain, belaunaldi berri horretakoa zara, Ana. Zuhaurek aitabitxi hautatu duzuna, 60ko belaunaldiko batek ongi etorri bero batekin hartzen zaitu egun ospetsu honetan.

Bai, bihotzez, ongi etorri.

**PATXI SALABERRI ZARATIEGI,
EUSKALTZAINDIAN SARTZEA**

Uxue, 2006-IX-29

PATXI SALABERRI

*María Jesús Zoroza,
alcaldesa de Ujué*

Jaun-andreok, agur guztioi, eta bihotzez ongi etorri Uxuera.

Distinguidos autoridades políticas y académicas,
queridos habitantes de Ujué,
señoras y señores,
amigos todos:

Me siento muy honrada al tomar la palabra en este solemne acto. No es para menos. Un hijo de esta villa, Patxi Salaberri, entra hoy oficialmente en la Real Academia de la Lengua Vasca.

A nadie se le escapa la importancia de este hecho. Se han reconocido antes los méritos de Patxi Salaberri. Era antes académico correspondiente, y ahora lo es numerario. Ha venido participando en los trabajos de la Academia desde hace tiempo. Y es doctor en Filología Vasca y Director de la revista *Fontes Linguae Vasconum*, que edita la Diputación desde 1969. Una trayectoria de trabajo y dedicación, que nos llena de orgullo y de alegría.

Felicidades a Patxi.

PATXI SALABERRI ZARATIEGI, EUSKALTZAINDIAN SARTZEA

Agurra

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Agintariok!
Euskaltzainkideok!
Uxuetarrok!

Euskaltzaindiak bat egiten du gaur Uxue herriarekin eta Nafarroako herrialdearekin, Uxueko seme den Patxi Salaberri euskaltzain oso aitortzeko asmoarekin.

Oraingoa delako gutxi arte, Nafarroako bost merindadeetatik hirutan bakarrik izan da Euskaltzaindia (Iruñekoan, Lizarrakoan eta Zangozakoan). Azken urteotan, ordea, bisitatu ditu Foru Komunitateko beste bi merindadeak: 2002. urtean, Tuterako merindadea, *Nafarroa Oinez* zela eta; eta, 2003. urtean, Erriberriko merindadean, Miranda-Arga herrian izan zen, Bartolome Karrantzaren V. mendeurrena zela eta.

Oraingoan, berriro ere, Euskaltzaindia Nafarroako bosgarren merindadera dator, ekitaldi pozgarri batera, alegia, Patxi Salaberri egingo duen sarrera-hitzaldiaren partaide eta lekuko izatera.

Hartara, Nafarroako herrialdeak, beste behin ere, bere ekarria egingo die euskarari eta Euskaltzaindiari, euskaltzain osoen soka luzea berriztatuz eta luzatuz.

Nor da Patxi Salaberri? Ausardia handia izango litzateke nirea, zuei esango banizue zein eta zer-nolakoa den zuen herrikidea. Apalagoa da, aldiz, nire gaurko mezua, azpimarratu nahi dudalako, hitz laburretan, zer ikusi izan duen Euskaltzaindiak Patxi Salaberriarengan, bere euskaltzain osotasun horretan sartzeko.

Goraipa dezadan, lehendabizi, haren euskaltzaletasuna, hain zuzen ere, aspalditik euskara galdu zuen herrialde bateko nafarra izanik.

Aitor dezadan, hurrenik, haren maila eta prestigio zientifikoa euskalgintzan, urte luzeetan ondu duena, pausoz pauso eta lanez lan, onomastika cor-

pus baten jabe izan arte. Hor dago, besteak beste, Nafarroako Gobernuak eman dion *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren zuzendaritza.

Gogora dezadan, bestalde, bere unibertsitate-irakasletza, Nafarroako Unibertsitate Publikoan bera baita euskararen erreferente sendo eta irmoa.

Ez ditzadan ahantzi, orobat, etorkizunerako proiektzioa, gaztetasuna eta heldutasuna, halakoak biltzen baititu Patxi Salaberrik bere baitara.

Zer esanik ez, Nafarroan bizi eta lan egiten duen Patxi Salaberrik gertu-gertutik ezagutzen du Nafarroako euskalgintza, eta hori ere aintzat hartzekoa eta estimagarria da.

Halakoak behar ditu Euskaltzaindiak, eta horretara dator gaur Uxuera, nafar guztiei agurra egin eta nafar baten euskaltzaintasuna aitortzera.

 Euskaltzaindia ANDRES URRUTIA Euskaltzainburua	 Uxueko Udala MARIA JESÚS ZOROZA Uxueko alkatea
<p><i>Asteigis berriak gonbidatzen dituzte Patxi Salaberri Zarategi euskaltzain jain txiki prestuaren sarberrakidaltzira. Batez iraili hasi Uxueko pilatolekuan izango da, irailaren 29an, ostirala, gutxiak 11:00etan.</i></p> <p><i>- Sarberrakidaltzira: Uxueko lehenak asteigisak</i></p> <p><i>- Andrés Díego euskaltzain jain txiki prestuak asteigisaren ostirala.</i></p>	
Bilbo, 2006ko iraila	
<i>Eventuakoa adieraz ezazu irailaren 22a baino lehen telefono honetara deituz: 94 - 415 81 53</i>	

 Euskaltzaindia ANDRES URRUTIA Presidente de la Real Academia de la Lengua Vasca	 Ayuntamiento de Ujál MARIA JESÚS ZOROZA Alcaldesa de Ujál
<p><i>Se complacen en invitarle al acto que, con motivo del ingreso del académico electo Excmo. Sr. D. Patxi Salaberri Zarategi, se celebrará en el frontón de Ujál, el viernes 29 de septiembre, a las 11:30 de la mañana.</i></p> <p><i>- Discurso de ingreso: Sobre los nombres de Ujál</i></p> <p><i>- Respuesta del Excmo. Sr. D. Andrés Díego.</i></p>	
Bilbao, septiembre de 2006	
<i>Se ruega que, antes del 22 de septiembre, confirme su asistencia, llamando al teléfono: 94 - 415 81 53</i>	

Behinola izan zuen Uxuek asmoa eta gogoa Nafarroako Unibertsitatea bertan izateko. Oinarriak eta zimenduak ere hementxe omen, guztion bistan eta begiradapean. Orduko hartan ezin izan zena, gaur, beste modu batera, gauzatu eta gorpuztuko dugu, alegia, Euskaltzaindia ararteko, Uxueko semeak euskara eta unibertsitatea bere herrira itzultzea.

Bejondeizula, Patxi. Ongi etorri gure artera, eta bidaia luzea izan ezazu gure artean!

* * *

Euskaltzaindia llega hoy a Uxue, a ser testigo de la ceremonia de recepción de un hijo suyo, Patxi Salaberri, universitario y euskaldún, que renueva y actualiza la decisiva aportación de Navarra al acervo común de la lengua vasca.

En Uxue están los cimientos de aquella universidad de Navarra que jamás llegó a construirse. Hoy un hijo de Uxue, de la mano de la Real Academia de la Lengua Vasca, vuelve a renovar la vocación universitaria de Uxue, y a imbricar la quinta merindad de Navarra con el esfuerzo de toda Navarra en pro de la lengua vasca, parte imprescindible de la personalidad de esta Comunidad Foral.

No me queda sino felicitar al nuevo académico de número, y agradecer, en nombre de Euskaltzaindia/Real Academia de la Lengua Vasca, a la alcaldesa de Uxue, a las autoridades de Navarra y a todos los que hoy nos acompañáis en este día de júbilo, vuestra presencia en este acto.

Esan dut,

He dicho

UXUEKO IZENAK MINTZAGAI

Patxi Salaberri Zaratiegi

Alkate andrea, euskaltzainburu jauna, euskaltzainok, agintariok, jaun-andreak, egun on.

Egia erran behar badizuet beti beldurra izan diot noizbait irits zitekeen eta hondarrean iritsi den une honi. Beti beldurra eman dit sarrera hitzaldia nire sorterrian, Uxuen eta uxuetarren aitzinean, egin behar izateak. Oroitzen naiz orain urte batzuk, laurogeita hamabostean edo, hitzaldia egin genuela, hemengo elkarteak (bakarra zen garai hartan) hala eskaturik, Jimeno Juriok eta biok Uxueko gauzen gainean: Jose Marik historia gaiak ukitu zituen eta nik hizkuntza kontuak. Ez dakizue nolako estualdia izan zen hura niretako! Goriak ikusi nituen, ez gaia ezagutzen ez nuelako, nire herritarren aitzinean mintzatu behar nuelako baizik, eta beharrik hitzaldiak ematen aski ohitua zegoen Jose Mari Jimeno nirekin zen, bestenez ez baitakit zer egingen nuen!

Honetan, nik uste, Euskaltzaindian ordezkatu dudan Patxi Ondarra baikaikurraren antzetsukoa naiz, hura, nire modura, ez baitzen batere plazagizona. Bien arteko eitea menturaz hemen bukatzen da, euskararen alderako bion zaletasuna alde bat uzten badugu bederen, hura, ni ez bezala, hizkuntza klasiakoetan hagitz jantzirik zegoelako: latina eta grekoa bazekizkien, eta hebreeraz idatzitako eliza liburuak ere hiztegirik gabe irakurtzen zituen, berak egindako gutun batean ikusten den bezala (Iñigo, 2006). Hauetaz landara, alemana ere franko ongi zekien eta ingelesa Txilen ikasi zuen. Segur naiz, bestalde, frantsesez ere moldatzen zela.

Patxi, edo *Frantzisko*, idazlanetan ibiltzen zuen izena ibiliz, gizon benetan euskaltzalea zen, eta honelakoa izatea zenbait lekutan oraindik zaila eta gogorra bada, pentsa ezazue Frankismoaren hastapeneko sasoi hartan zer izan zen! Ordenako agintariak Txilera igorri zuten, Patxik hara joan nahi ez bazuen ere, bere burua gaienik eta ongienik hemen ikusten baitzuen, Euskal Herrian, ez urruneko eremu haietan. Deserrian hamahiru urte igaro ondoren, 1964an azkenean hona oporretan etortzeko aukera izan zuenean, ez zuen «Mundu berri-*ra*» gehiago itzuli nahi izan, eta hemen gelditu zen, ez dakit bere agintarien baimen osoarekin edo hori gabe, baina, nolana ere den, hemen gelditu zen.

Nik Euskaltzaindian egin nituen haren ezagutzak, eta kaputxinoek Lekarozko komentua saldu eta Patxi Iruñera bizitzera joan zelarik, maiz ikusten ge-

nuen elkar, nahi gabe ere, ia auzoak ginelako, ni Txantrean baina Antsoaingo alderdian, bera bizi zen Errotazar karrikako komentutik hagitz hurbil, bizi nintzenez gero. Behin baino gehiagotan Iruñetik atera, Ezkaba mendia gainditu, Ezkabarte igaro, Odietara iritsi eta gibelerat, bide beretik antza, komentura sartzean kausitu nuen hura, ni auzoan semeekin paseiotan eta promenatzen nabilelarik. Mendizale edo mendian ibilzale porrokatua zen eta ez da, beraz, miresteke Nafarroako mendiak hain ongi ezagutzea. Aurkikunde balios bat baino gehiago ere egin zituen ibilaldi luze haietan; erraterako, Baztango *Soalar* mendian orain izen hau berau duen menhirra topatu zuen.

Gizon apala iruditu zitzaidan beti, langina eta lehen aipatu dudana bezala, arunt euskaltzalea. Haren lan gehiena, argitaratua dagoena, testu zaharren saillekoa dela erran daiteke, hemen Bonapartek bildutako materialak sartzen badiugu behintzat. Sail honetan Goñerriko eta bestetako testuak nabarmendu ditzakegu, eta, halaber, berak bakarrik edo lankidetzan argitara eman zituen Joakin Lizarraga Elkanokoaren izkribuak. Hauek guztiak biziki garrantzizko gertatu dira azken urteotako dialektologia lanetarako, batez ere *hego nafarrena* azpieuskalkiaren inguruan mintzo direnetarako. Bestelako lana, Akademiaren barnean burutu zuena, ez dut ongi ezagutzen; horretaz osoko bilkuretan parte hartzen zuten euskaltzainek eta batzordekide izan zituen gramatikalariei eta dialektologialariek mintzatu beharko dute.

Patxi Ondarrak ordenakide (eta bizikide, Lekarozen) Damaso Intzako eta Mitxelenaren arabera (1972: 384) «euskara gutik bezala» zerabilen Polikarpo Iraizozko euskaltzain osoak izan zituen, eta baita Arrigarai, Eusebio Etxalarako eta Jurgi Errezuko euskaltzain urgazleak ere. Nik ez dakit harremanik estuenak zeinekin izan zituen, baina bistan da Polikarpo Iraizozkoaren lana bi-ziro gogoko zuela, 1981eko bere sarrera hitzaldia Euskaltzaindian ordezkatu zuen haren lanen gainean moldatu zuelako («Polikarpo aitak zituen esku-idatzi zaharren aurkezpena»). Gero ere, Aita Polikarporen mendeurrenaren karrerara 1997an Nafarroako Gobernuak kaleratu zituen ultzamarraren hiru libururak Patxi Ondarrak apailatuak ziren.

Gorago erran dudana bezala, Patxi, Aita Polikarporen bidetik, Joakin Lizarragaren lan franko argitaratu zituen, eta ez da harritzeko, Elkanokoaren idazkietan Nafarroako, Iruñerriko euskaran ibiltzen ziren izen, aditz, atzizki, erranairu eta bestelako aberastasun anitz baitaude irakurlearen, edo hobeki erran dezadan, ikertzailearen esperoan eta begira, irakurtzaile arruntak ez duelako, damurik, Lizarragaren irakurtzen. Damurik diot altxor horiek anitzetan oso erabilgarriak direlako eta, norbaitek bere euskarari nafar kutsua eman nahi badio, datuak eskura eta irispidean dituelako. Egia da euskara batuaren garaian harrigarri gerta daitekeela euskalkian mintzatzen hastea, edo are harrigarriago, euskalkian idazten hastea, batez ere euskalki edo hizkera hori Lizarragarena bada, egun ia inork ibiltzen ez duena, eta *ia* diot Erroibarko eta Aezkoako mintzoak, Iñaki Caminok ikusi duen bezala (1997, 2004), Elkanokotik hagitz urruti ez daudelako.

Kontua, nire ustez, ez da orain Lizarragak bezala idaztea, honek duen altxorra baliatu eta, bide horretatik, euskara batua aberastea, osatzea, Nafarroak ere, edo hego nafarrera mintzatu den alderdiak zehazkiago erran, izan behar baitu zer errana eta zer emana *Hiztegi Batua*-n eta bestelakoetan. Erran izan da nafarrok ez dugula euskaraz idatzi, eta egia da, neurri batean, Nafarroan ez dugula izan ospe eta izen handiko idazle entzutetsurik, erreinu zaharrean hainbesteko hedadura izandako hego nafarreran izkiriatu duenik, Axular urdazubiarrak lapurteraz idatzi zuelako eta Orixe giputz uitziartuak erdialdeko hizkeran batez ere, nahiz ez bakarrik. Gure-guretzat har ditzakegunen artean Beriain Utergakoa, Elizalde Muzkikoa eta Lizarraga Elkanokoa ditugu klasiakoetan; beranduago, XX. mendean gehienbat, Larreko, Polikarpo Iraizozkoa eta Mariano Izeta ditugu, baina hauek oinarriztat Baztango hizkera dute, hein batean edo bestean, eta lehenak Iparralderanzko joera. Manezaundi ere nafarra zen, Luzaidekoa ordea, hizkeraz garaztarra.

Lizarraga izan da Nafarroako Erdialdeko euskara, erdialde-ekialdekoa, nolakoa zen erakutsi diguna, Bonapartek Elkano, Oltza, Itza eta Garesen XIX. mendean bildutako materialak ere izanagatik, Utergako Beriainen lanez gainera, baina hauek 1621 eta 1626koak dira, zahar kutsu nabarmenekoak. Muzkiko Elizalderen dotrina eta herri bereko Morentindarren testuak ere baliagarriak dira arras; Gesalatz, ordea, egun garen herritik urrun da. Nik Ibargoitiko edo Orbaibarko libururen bat, edo gutxienez izkribu luze edo laburren bat izan nahi nuke, baina zorigaitzez oraino ez dugu holakorik, eta gure eskualdeko euskara ezagutzeko, neurri batean bederen, toponimiara jotzea beste biderik ez dago. Hau da nik garai batean egin nuen gogoeta eta nire doktore tesi potzoloaren ernamuina izan zena: Uxueko eta inguruko euskararen berri zerbait izateko zer egin dezaket, nora jo dezaket? Arrapostua egina da: toponimiara.

Hau izan zen, hortaz, nire lanaren erroa eta arrazoia, eta emaitzak, toponimia lanetan aritu denak espero zezakeenez, ez ziren izugarriak izan, euskararen ezagutzari dagokionean, dialektologialari aditu eta aritu batek idatzi zuen bezala. Hemen gogoan izan behar da toponimia lana egiten denean, bilketa hutsan gelditzen ez bagara behinik behin, toki izenen etimologia azaltzea edo azaltzen saiatzea hagitz garrantzitsua dela eta, honekin batean, toponimoak behar bezala arautzea eta mapetan egokiro kokatzea ez dela hutsaren hurrengoa. Hau da nik doktorego tesian egin nahi izan nuena; helburuak, beraz, hauek izan ziren: a) hemengo euskararen gainean berri zerbait erdieste, b) toponimoen azalpen etimologikoa ematea, eta c) leku izen biziak mapetan ezarri eta galduak, dokumentazioa oinarriztat harturik, nontsu kokatu behar ziren argitzea. Lehen helburua toki izenak diren lan tresnak berak mugatua eta murriztua da, besteak beste *satzenamen* deitu diren horiek, Burundako *Abade Alsasua erori zaneko zuloa*, Ergoienerriko (*Ganaduari*) *gatza ematen dakion iturria*, Urnieta aldeko *Haurra galdu zan harria*, Iruñerriko *Urdeak etziten direnekoan* edo Orbaibarko *Elorria baita* «elorria dagoen alderdia», *Orrea dena* «ipuru den tokia» toponimoen modukoak urriak direnez geroztik, zenbaitek uste

duten baino aise ugariagoak izanagatik ere, eta are urriagoak bestelako «joseradun» leku izenak.

Aipatu hiru helburuekin batean bazen, aitortu behar dut, laugarren bat ere: herriaren euskalduntasun galdua nabarmen utzi nahi genuen, alegia, herria berandu arte euskalduna izan zela garbi adierazi nahi genuen. Erdaldunek pilotaleku hau dagoen lekuaren izena, *Andremucho* edo *Andrebuch*o, bitxi kausitzen dute, *Aldabea* ere franko hitz drolea zaie, eta are gehiago *Aldabea*-ren barnekotzat ematen diren *Anzandieta* eta *Turtunbera*, gure etxearen aurkez aurke dagoen *Rincón de Zonbolozoko* arraro hori ez aipatzeagatik. Arraro diot sekula aditu ez duten erdaldunendako, hemengoendako ohikoak baitira eta normalak, eta euskaldunendako holako ezagun aire bat baitute, euskaratikakoak izanik. Paper zaharrak arakatu eta bestetako leku izenak ikertzen dituzularik ikusten duzu *Andrebuch*o aldaera jatorrizkotik hurbilago dagoela *Andremucho* baino, oinarrian *Andrebutzu* dugulako, hots, «andreen butzua», zenbaitetan *andre* hedatu horren azpian *Andre Dona Maria* ez ote dagoen galdegin badaiteke ere. *Aldabea*, berriz, *aldapa* hitzaren lehengusu propioa da, lehen kusia, Orbaibarko *Aldapea* dermio izenaren haurride, *alde*, *aldai* eta «malda» adiera duten beste hitz eta toponimo frankoren ahaide, Uxueko bereko *aldazkia* edo *aldazkia* generiko galduarena, adibidez.

Anzandieta-ren erranahia ikustea erraza da, dokumentazioa aztertuta: oinarrian *haitz*, *handi* eta *-eta* daude, hots, jatorrizko forma *Aitzandieta* dugu,



«aldabe» horretara ematen duen etxe baten azpiko harri handiari egiten baitio erreferentzia toponimoak. *Turtunbera*, espero bezala inoiz *Durtunbera* idatzirik ageri dena, han-hemen errepikatzen da, Altzua, Antxoritz, Iratxeta eta Muzkin adibidez, *Turtunbera* edo *Tutunbera* gisa, eta nik onomatopeia itxura hartzen diot. Irudi du Iribarenek biltzen duen *turrunbero*, *turrunpero* «arrisku gutxiko amildegia» hitzarekin lotua dagoela.

Pilarraña-z den bezainbatean, lehen *Pirolarraña* aldaera osoagoa ibiltzen zela erran behar eta, orobat, dokumentazioan *Otsalarraña* ere azaltzen dela, menturaz behialako *Lopera*-ren (*Lupera* orain) ordainetan. *Pirolarraña* edo *Pilarraña*-n *larraina* «eultzia egiten zen zelaigune biribila» hitz gardena dugu, *Otsalarraña*-n bezala, eta, bestalde, *otsa*- hori *otso*-ren elkarketako aldaera da, *Pirolarraña*-ren azpian *piro* «ahatea» ikusarazten diguna. Alabaina, nik *piro* hitza Baztanen ikasi nuen, eta ez da, dakidanez, handik honako alderdi zaballean ibili, ez behintzat Iruñerrian eta hortik behehikoetan. Beste alde batetik, pentsa dezakegu *Lopera*, itxuraz gaztelaniako *lobera* (< *luparia*) «otsazuloa, otsobia»-ren aldaera dena, *Lope* antroponimoaz eta erdarazko *era* «larraina» izen arruntaz osaturik dagoela, euskararen ordena atxiki dela onesten bada, eta, beraz, ondoriozta dezakegu *Otsalarraña Lopera*-ren itzulpena besterik ez dela, edo alderantziz, *Lopera Otsalarraña*-rena dela. Honek guztiak, analogiaz bai-zik ez bada ere, *Pirolarraña*-n *Peru*, *Pero* antroponimoa ikustera eramán gaitzake, baina dugun dokumentazioa honen kontra mintzo da, lekukorik zaharrenek *Piro*- dutelako eta bizirik dagoen aldaerak bokal sabaikaria.

Natorren orain Uxueko toponimoen artean argitzen gaitzena ez bada bai behintzat zailnetako bat dena aztertzerá. Zein uste duzue dela hori? Bistan da: *Uxue* herri izena bera. Ez ditut hemen errepikatuko tesian erran nituenak, ez eta *Uxuezaleak* elkartearen triptikoan azaldu nituenak ere, baina zenbait iruzkin labur, edo ez sobera luze behinik behin, egin nahi nituzke.

Egun erdaraz *Ujué* erraten diogu herriari eta euskaraz, ez bairik gabe, *Uxue* deitu izan da, *x*-rekin, frantseseko *cheval* «zaldia» edo ingelesko *fish* «arraina» hitzek duten soinuarekin. Ez dakit xuxen nolako azentua zuen, baina logikoena *Uxié* erraten zela pentsatzea da, eta, izan ere, horixe da azken hamarkada hauetan uxuetarrek, euskaraz mintzatzen garenean, ibiltzen duguna, bai eta, berebat, emakume izentzat nagusitu dena ere, lehengo *Ujué* edo *María Ujué*-ren kaltetan. Nago herriko alaben eta haien ondorengoan artean badirela jatorrizko *Ujué* edo *María Ujué* bat baino gehiago gero *Uxue* edo *Miren Uxue* bihurtu direnak. Halaber, eta honek toponimoaren azalpenarekin du zerikusia, badira *Uxue* bilakatu diren jatorrizko *Paloma* batzuk, eta erroa gure herriaren izenaren aldaera batean (1102an ageri da lehenbizikoz) duten zenbait *Uxua* ere bai.

Aurtengo uztailean aldizkari arrosa horietako batean (*Hola*-n oker ez babil) berria heldu zen, baizik eta Espainiako telebista kate ezagun bateko programa arrosa baten aurkezleak alaba izan zuela eta izentzat *Uxue* ezarri

ziola. Euskal izenak paratzea, jakina den bezala, gero eta ohikoagoa da euskara mintzatzen den edo mintzatu den alderditik kanpora ere, eta, adibidez, anitz dira *Ainhua* deitzen diren Madrilgo neskak, eta hor dago, bestalde, *Iker Casillas* jokalaria, Real Madrid futbol talde ezaguneko eta Espainiako selekzioko atezaina. Dena dela, aipatutako aurkezlea sortzez gipuzkoarra da eta senarra ere, *Aitor Senar* delako bat, Probintziakoa, eta aitetamak nafarrak, Ergoienerrikoak. Irudi duenez aurkezlea, telebistan azaldu zuenaren arabera, hemen izan zen bisitan eta, nonbait, herriaz gustatu eta horregatik ezarri zion *Uxue* bere alabari.

Itzul nadin etimologiara. José Moret iruindar idazlea eta euskalduna da XVII. mendean bere *Anales del Reino de Navarra* ospetsuan (163-164. orr.) hain ezaguna den artzainaren eta usoaren pasadizoa kontatzen duena: «...Y para memoria de la maravilla y de la paloma, que trajo o descubrió el ramo de oliva, anunciadora de bonanza en aquella inundación de mahometanos, (la villa) tomó el nombre de *Usua*, que en el idioma vascongado vale lo mismo que paloma, y se llama Santa María de Usua, aunque con el tiempo se ha alterado algún tanto, y se llama *Ujué*. Los privilegios antiguos Usua le llaman». *Privilegio* edo dokumentu zaharrek ez dute beti *Usua* deitzen; egia erran, antzeko formak aurkitzen ditugu (*Huxua*, *Uxua*, *Ussua*...), baina ez *Usua*. Badaiteke, ordea, dokumentazioko lekukoren bat itzuri izana. Nolanahi ere, *uso* izen arruntaren eta *Uxue* toponimoaren arteko lotura aspaldikoa da, aipu hotetan ikusten den bezala.

Bada Japoniako ikertzaile bat, Masu Nitta izenekoa, lan batean baino gehiagotan gure alderdiko toponimoez arduratu dena. Jaun honek hemengo egunkari ezagun batean idatzi zuen *Ujué* edo *Uxue* latineko *puteum* izenetik (*pozo* eman du gaztelanian) atera zela, oinarritzat Uxueko putzu ugaritasuna hartuz. Azkeneko hau egia da; Uxuen, beste leku berdeago batzuetan adina euri egiten ez badu ere, iturri eta iturburu franko daude: guk badugu bat etxean eta gure aitaren arabera (kisuskilea zen eta ongi ezagutu zituen herriko etxeak) bada beste holako asko beste etxe frankotan. Halarik ere, putzu ugaritasuna gorabehera, hagitz zaila da *Uxue* (*Ujué* bihurtua beranduago) *puteum*-etik atera zela onartzea, fonetika historikoak, soinuen bilakaerak, eragozten duelako.

Gainera, Goñi Gaztanbideren lanean (251. agiria) 1146ko *Urssua* aldea aurkitzen dugu: «Martin de Lehet (regnante, tenente...) in Galipenzo et in Vnse, Arremir Garceitz I in Urssua, episcopo Lupo in Pampilona». *Urssua* hau 1147an *Ussua* gisa eta lehenago eta beranduago *Uxue* moduan, era batera baino gehiagotara idatzia, agertzen den bera da, agezarrak Uxuera beilari etortzen ziren (eta ustez oraino etortzen diren) 1547ko *Uxue bidea* odonimoko bera, *Txutxu*-ko eremu bat adierazten zuen Lergako 1592ko *Usueco Oyanondo*-n ere opatzen duguna. Agezan 1588rako *Ussobidea*, *Uso* *bidea* dokumentatzen da eta ez da dudarik hemen *folk etymology* baten aitzinean garella, hots, *Uxuebidea*-ren *Uxubidea* aldaeratik abiatuta jendeak egindako berrinterpretazioaren aitzinean.

Mitxelenaren iritzian (1956: 338) daitekeena da *Uxue* toponimoa *urzo*, *uso*-tik aterea izatea, eta aipatu dugun *-r*-dun aldaerak azalpen etimologiko honen alde egiten du, *-rz-* > *-x-* bilakaera onartzeko arazo fonetikoak badaude ere. Aukera bat oinarrian hipokoristikoa dugula onestea da, dokumentazioko *Uso* (gizona), *Usoa* (emakumea) pertsona izenaren maitasunezko forma, Bilbon XV. mendean ageri den *Usoxe (de Urrexti)*-ren antzeko zerbait. Bukaera Orbaibarko *Etxague* eta *Untzue* herri izenetan dugun *-(g)ue* leku atzizkia izan daiteke, baina arazoa da atzizki hori ez dela oinarri antroponimikoekin inoiz agertzen, guk dakigula. Beste azalbide bat toponimoaren osagaitzat *uso* izen arrunta eta *-(g)ue* «uso lekua» ditugula pentsatzea da, baina orduan *-x-* sabaiako hori azalpenik gabe gelditzen da. Ikusten duzue, beraz, *Uxue* izenaren etorkiaz mintza daitekeela baina, aldi berean, gauzak ez daudela erabat garbi.

Orain zer errana eta zer mintzatua eman duen gure herriko beste izen batez, edo xuxen erran dezadan, beste izen multxo batez ihardukiko dut, ahal dudan laburkienik. Multxo hori oinarrian *laku* izen arrunta duena da, hemendik hurbil dagoen *Lakubeli*-k, erreka beste aldeko *Lakumulatu*-k eta honen barnekotzat jotzen den *Laku*-k osatzen dutena. Toponimo hauei hainbeste orri idatzarazi dituen *Lacubegi* teonimoa gehitu behar genieke, hain zuzen ere *Laku* eta *Lakumulatu*-tik hurbil dagoen ermitaren inguruetan agertu bide zena. Idazkun osoa hau da, Castillo, Gómez-Pantoja eta Mauleonen arabera (1981: 59):

Coelii Tesphoros et Festa et Telesinus, Lacubegi. Ex voto

Bada Uxueko beste idazkun bat, honen biziki iruditsua, «*Lacubegi. Ex voto*»-ren ordez «*Iovi sacrum*» duena. Oroitu beharra dago *Lacubegi* agertzen den harrian, gibelesko aldean, zezena dagoela marraztua, edo beharbada behia, buru hutsa izanik bereizterik ez denez geroztik. Juan Carlos Elortzak (1972: 363), María Lourdes Albertosek jakinarazitako iritzia irraikiz, erraten du indoeuropar hizkuntza anitzetan ageri den *lacu* dela lehen osagaia, eta *bheg* «hautsi» bigarrena, lituanieran «uhina», «zaparrada» adiera hartu duena. Jose María Iraburuk, pixka bat beranduago (1975: 83-85), arrazoirekin ene irudiz, Albertosek iradokitako indoeuropearen bidezko azalpena gaitzetsi ondoan, teonimoaren hasierako *Lacu*- hori Uxueko harria agertutako tokitik hurbil dauden *Laku* eta *Lakumulatu* toponimoekin lotzen du, baita (*Barranco de*) *Lakubeli*-rekin ere, eta gehitzen bigarren osagaia *begi* euskal hitza izan daitekeela, edo beste gisan, eta harriaren ginberrean behi edo zezen burua dagoela ikusirik, *behi*. Lehen kasuan «*Laku aurkintzaren zaintzailea*» litzateke teonimoaren adiera.

Uxue ongi ezagutzen duen J. J. Uranga jaunak (1984: 39-42), berriz, eta Elortza-Albertosen tesiei kontra eginez, uste du *Lakubegi* ezin dela, inola ere, inongo ur edo iturri jainkorekin lotu, hark aipatzen dituen Aragoa ugaldea eta Lezkairuko erreka urrun daudelako. Honela dio: «Frente a las tesis de Elorza hay que señalar que el río Aragón pasa a 6 km. del lugar en que se encontra»

ron las aras y el torrente Ezcairu (sic) es un riachuelo muchas veces seco. Mal clima para divinidades acuáticas».

Javier Velaza (1995: 213) nafar ikertzaile bikainarendako, berriz, *Lacubegi* iberiar itxurako teonimoa da; honen arabera *laku* ongi ezaguna (iberiar antroponimian, irudi duenez) da lehen osagaia, eta bigarrena adiera zehazten ez duen *biki*-ren aldaera izan daiteke. Joakin Gorrotxategiren irudiko ere (1995: 223-225) *Lacubegi*, hein batez bederen, iberiar izena da; autore honen arabera lehen osagaiak paraleloak ditu Palamósko *laku-arkis*-en eta Sagunto-ko *biu(r)-lakos*-en. Bigarren osagaia, aldiz, euskarako *begi*-rekin lot daiteke, edo *behi*-rekin, harrian burua ageri dela kontuan hartzen bada. Ikertzaile honek berak erraten du (1984: 300) izenak zenbait aldiz, Akitaniako idazkuntan, deklinatu gabe agertzen direla, hemen bezala jainkoenak, teonimoak direnean beregainki. Egia da idazkun bikian *Iovi* ageri dela eta *Lacubegi*-k datiboan egon behar lukeela, baina erran dugunaz landara, badaiteke teonimoak berezko zuen bukaerako *-i* hori datiboaren hondarkitako hartua izatea. Segur aski Velazak eta Gorrotxategik diotenean oinarriturik, Luis Nuñezek (2004: 174), dibulgazio lan interesgarri batean, iberiera Uxue inguruan mintzatu zela erraten du, gehiago zehaztu gabe, ordea.

Orain hamabi urte argitara emandako tesian (1994: 826 eta hurr.) argi utzi nuen, edo argi utzi nahi izan nuen behintzat, pentsatzen nuena: nire irudiz, eta honetan Irabururen oinatzei jarraikitzen natzaie, *Lacubegi* jainko izenaren lehen osagaia *Laku* eta *Lakumulatu*-n dugun *Laku(-)* bera da, Urangak ez baitu arrazoi osoa klima aipatzen duenean. Uxue idorra da, baina euria egiten du, eta elurra ere bai, eta *Laku* dermio urtsua da, hainbeste non, ongi ezagutzen zuen gure osaba Esteban Berraderen arabera, hemen «puntido» deitzen direnak egin behar izan baitira ura atera eta lurra landu ahal izateko. *Laku* hitzak, gainera, nahiz euskara batuan gaztelaniako *lago*-ren ordaintzat ibiltzen den, toponimian «leku urtsua» adiera izaten du, ez «lakua», eta hamaika aldiz aurkitzen dugu han-hemenkako toki izenetan, Uxuetik Gasteizeraino, *Lakua*-raino gutxienez, bide erditan dagoen *Lakuntza* bitarteko dela. Egia da gure leku izendegian ohikoagoa dela *Laku* artikularekin aurkitzea, Gasteizen bezala (*Lakua*), eta atzizki edo postposizio zenbaitekin, Agezako *Lakuaga*-n (*Lakuagabarrena*, *Lakuagagoiena* ere baziren) edo Galipentzuko *Lakuarana*, *Lakuko harana*-n bezala, baina artetan toponimoak mugatzailerik gabe kausitzen ditugu, baita espezifikoki eta generikoz osaturik daudelarik ere. *Lacubegi*-ren bigarren osagaia J. M. Iraburuk eta J. Gorrotxategik aipatzen duten *begi* edo *behi* izan liteke, hondarrekoa agian, zezen edo behi burua ageri dela aintzat hartzen bada, ezaguna den bezala aspirazio (zahar) batek batzuetan aztarnatzen *-g-* utzi duenez gero.

Ez dut oraindik ukitu teonimoaren arras antzekoa den *Lakubeli* toponimoa. Hemen, 1994an nioen moduan, *Laku* dukegu berriz ere lehen osagaitako; bigarrena *Beli* antroponimoa izan daiteke, Irigoienen arabera (1995: 54-55) *Bellus*, *Bellius*, *Belli*-tik atera dena, Ezkarozeko 1046ko *Azubeli*-n dugun

bera (Martín Duque, 1983, 36), bestela *-bel*, *-bele* (*Azubel*, *Azubele*) gisa azaltzen dena. Nolanahi ere, bitxia da, gutxieneko kontuan, *toponimo* (edo *apelatiboa*) + *antroponimoa* segida, nahiz ez alderantzizkoa (*Garziarana*, *Petiriberro*). Gainera, ez dut uste *Lakubeli* deitzen den hori leku urtsua denik; bada erreka (erdaraz *barranco* deitzen duguna), baina ez dakit hau aski den *laku* ager dadin, ez dirudi. Toponimoa zaharra da, bestalde, lehen aldiz 1598ko hilburuko batean agertzen denez geroztik: «*Anssi bien dejo dos pieças en Lacubeli y que me perdone de lo poco*». Azaltzeko beste bi bide dakuskit, baina ez lehenak ez bigarrenak ez naute asebetetzen: a) *-beli* bigarren osagaia antroponimikoa izan daitekeela aintzat harturik, pentsa daiteke lehen ere hala dela, hots, *Laku* toponimoan oinarritutako izengoitia-edo dela, b) jatorrizko forma *Lakubeli* gabe teonimoarekin bat heldu den *Lakubegi* zela kontu egin daiteke, eta hemendik asimilazio-disimilazior *Lakubeli* sortu zela, alegia, alboko asimilazior eta belare disimilazior, baina, ikusi bezala, XVI. mendez geroztik *Lakubeli* dugu, egun ibiltzen den forma berbera.

Orain, laburzki, Santa Maria la Blanca ermitako Andre Mariaren irudian dagoen *Abeaga* idazkuna iruzkindu nahi dut. Urangak (1984: 34) erraten du gaurdaino ez dela gogobeteko azalpenik eman, eta bera ez da entseaten -ez da miresteke bestalde- zer erran nahi duen argitzera. Nik 1994ko lanean (884-885) izenaren oinarria *habe* «zutabea», «zurkaitza», «gapirioa», «gurutzea» zela nioen, baita beste leku batzuetan *ezpara*, *espare* edo *ezpata* erraten dena ere, erdarazko *tábano* alegia. Atzizkia, bistan da, *-aga* ezaguna da, Uxueko *Aliaga*, *Andiaga*, *Aristuziaga* (*Astuziaga*, *Estuziaga*) edo *Dorrondiaga* (*Redondiaga*) toponimoetan ageri dena. Orain, *Orotariko Euskal Hiztegia*-k dakartzan «euskarria» eta «babesa» adierak gehi daitezke, eta orobat «zuhaitza» erranahia, azken hau, aipatu hiztegian biltzen diren lekukotasunak ikusirik, mendebaldekotzat eman beharko badugu ere.

Tesian Iturmendiko *Abeaga*, Unanuko *Fruteko Abeta* eta Zarauztik Getariara doan bideko seinale batean ikusitako *Abeta* aipatu nituen. *Abeta*, bestalde, Araizko aurkintza da 1720az geroztik gutxienez, eta baserri baten izena ere bai. Unanun *Abetaburu*, *Abetako arrasoa* eta *Abetako harpea* ere baditugu, eta segur naiz sakonki bilatuz gero *Abe*-dun leku izen gehiago agertuko direla. Honek erran nahi du Uxueko *Abeaga* hori ez dagoela bakarrik eta sistema osoago baten zati dela. Idazkunaren adierarik egokiena «zuhaitz lekua» dateke, gero ukituko ditudan *Arbolaga* eta *Zuizkieta* toponimoek dutenaren parekoa, baina, erran moduan, «zuhaitza» adiera mendebaldekotzat eman beharra da. Beraz, egokiagoa litzateke, alderdi honetatik, «habe, ezpara tokia» ulertzea. Honek, alabaina, eta gauza gehienek bezala, badu gibela ere, aitzina ez ezik: *-aga* atzizkia eskuarki ez ohi da animalia izenekin agertu. Guztiaz ere, Uxuen berean, eta Eslaban, badugu etsenplu bat: *Zaldunaga* (Uxue) / *Zaldinaga* (Eslaba), biak aurreko *Zaldinuaga* (< **Zaldinoaga*) batetik atereak, hots, osagaitako *zaldi*-ren *zaldino* txikigarria eta *-aga* atzizkia dituzkeen toponimotik (atzizki txikigarriaren erabilera dela eta, cf. *Mendinueta* leku izen eta deitura).

Bukatzeko, Uxueko antzinako leku izen batzuk aipatuko ditut, erabilera zaharraren oroigarri. Tamalez, lehenik euskara galdu zen eta orain, bizimodu aldaketaren ondorioz, hark utzitako azken aztarnak ere suntsitzeko arrisku handitan daude. Gaugerero, gure hizkuntza ezeztatzearen bortxaz beregainki, baina baita leku izendegiak duen barne dinamikagatik ere, toponimo franko desagertu dira. Hona hemen horietarik garrantzizkoenak:

- *Aizkieta* edo *Ezketa*. *Lakumulatu* aldean zegoen; osagaiak *haitz* izena eta *-eta*, *-keta* leku-ugaritasunezko atzizkiaren *-kieta* aldaera dirateke.
- *Aizpeaga*. *Turtunbera* eta *Galaputzu* artean zegoen; osagaiak *haitz* + *-pe* + *-aga* dira, hots, «haitzaren azpiko alderdia» erran nahi zuen.
- *Aldaidarrea*. **Aldailarrea* «aldapako larrea»-ren itxuratxartzea izan daiteke, baina ez da segurua.
- *Altxunbidea*. Generikoa da berez, izen arrunta, «ardibidea» adiera duena.
- *Arbolaga*. *Aitzandieta*-ko eguzkiagerrian zegoen. Osagaiak *arbole* edo *arbola* «zuhaitza» eta *-aga* leku-ugaritasunezko atzizkia dira; cf. *Zuazikieta*.
- *Arduibarrena*. Dokumentuetan aurkitzen ere dugun *Ardui bajo*-ren euskarazko bete-beteko baliokidea da; osagaiak *Ardui* «harri lekua» toponimoa eta *barrena* «aldapan kokatutako aurkintza baten beheko aldea» dira.
- *Areatzeta*. *Otrollos*-ko errekan zegoen, *Beiremuga*-n; *harea* eta *-tzea* «harea tokia» dira osagaiak.
- *Arraskutzea*. Gurutze baten izena zen; jatorriz **Harrizko gurutzea* zatekeen.
- *Arributzua*. *Otrollos*-ko errekan zen, Pitillasko bidearen aldamenean. Osagaiak *harri* eta *butzua* dira.
- *Arriluzea*. Errotako errekan zegoen, denboraz *Villantigua* zeritzan aurkintzan. Osagai argiak *harri* eta *luzea* dira.
- *Arritzea*. *Sierra*-n zen; *harri* + *-tzea* «harri lekua», «harridia» dugu hemen.
- *Artabakoitz*. *Urteaga*-ren eta *Zaubio*-ko iparragerriaren artean zegoen. Osagai argiak *arte* zuhaitz izenaren elkarketako *arta*- aldaera eta *bakoitz* «bakarra» dira. Honelakoak ugariak dira euskal toponimian: *Arizbakoitza* (Jaurieta, Hiriberri Deierri), *Bagabakoitz* (Sabaitza eta Ibargoiti), *Etxabakoitz* (Iruñea)...
- *Artaxabal*. 1534ko zerrendan ageri diren Uxueko herri hustuetako bat da. *Arte* eta *zabal*-en *xabal* aldaera, elkartuaren bigarren osagaien azal-

tzen dena, ditugu hemen. Adiera «arte zabala» izan daiteke, baina baita ere «arteak dauden zabaldia».

- *Arteandia*. *Andiaga*-n zegoen, Lergako bidean. *Arte* dendronimoa eta *handia* dira osagaiak.
- *Artisar*. *Sierra*-n zen. Segur aski *arte* dukegu oinarrian.
- *Astabidea*. *Carasolalto*, *Cuartochiguito* eta *Mugazuria* artean zegoen. «Astoen bidea» dugu hemen, jakina.
- *Astrakastillu*. *Sierra*-n zegoen, ermitatik hurbil, baina ez dakit *Castillo* edo *Kastillu* bera zenez. Hastapeneko *Astra*- hori iluna da.
- *Aunzkoerte*. Erreka baten ondoan zegoela besterik ez dakit. *Aunzkoerte* «ahunztegia», «ahuntz korralea» izan daiteke, baina *arte* «tarte», «bitarte» izenaren *erte* aldaera duen toponimoa ere bai, aldaera hori Iruñetik Uxeraino hagitz ongi dokumentatua dagoenez gero.
- *Azpieta*. *Sierra*-ko bidea igarotzen zen *Aitzandieta*-ko zoko baten izena zen. Osagaiak, segur aski, *haitz* + *-pe* + *-eta* «haitzaren azpiko alderdia» izanen dira (cf. *Aitzandia*, *Aitzandieta*, *Aizpeaga*), baina *haitz* + *bi* + *-eta* «bi haitzak dauden aieka» ere izan daitezke. Hizkuntzaren aldetik ez dago arazorik *bi* zenbakia izenaren gibelean joan zitekeela onartzeko.
- *Bagaran*, *Balgaran*, *Balgarandega* edo *Valgrande*. Ez da leku izen argia, aldaera desberdin mordoxka baitu. *Txorria*-n zegoen.
- *Barriozar*. *Andrebutzu*-rekin mugatzen zuen, eta, beraz, hemengo etxe hauek, plaza txikitik eta *Calle del Cuerno*-tik frontoi aldera dauden etxe hauek zirela pentsatu beharko dugu. «Auzo zaharra» erran nahi du, bistan da. Garbi dago, izena ikusirik, bazirela beste auzo berriago batzuk Uxuen.
- *Beiremuga*. Beireko muga da, argi eta garbi.
- *Berage*. Egun *Los Berros* deitzen den alderdia da, lehen *Los Berros de Berage* erraten zitzaiona. *Berro* hori «luberria», «labakia»-edo da, lurra lantzeko, alor edo sorotako ibiltzeko botatzen den baso puxka adierazten duen hitza. *Berau* aldaera ere agertzen da eta ez dakigu erdal dokumentuetako *Berage* hori euskal erara ez ote den irakurri behar. Kasu honetan *-gue* atzizki tokizkoa duen toponimoa izanen litzateke; oinarria *berro*-ren *berra*- aldaera izan liteke, baina dardarkari bakuna ez da azalpen honen alde mintzo. *Beragu* Eslaba eta Galipentzuren artean dagoen mendi baten izena da, eta Aezkoako aurkintza batena ere bai.
- *Berageondoa*. Aurreko *Berage* (edo *Berage*) bera eta *ondoa* «aldame-na» dira osagaiak.

- *Beraiz*. Uxueko zubietako bat zen. Azalpen etimologiko bat baino gehiago eman daitezke, baina gaurkoz bere horretan utziko dut. *Beraitz* Olaibarren, Iruñetik hurbil samar dagoen herri baten izena ere bada.
- *Berroandia*. *Los Berros* edo *Berage*-n zegoela dirudi; *Berro grande de la Villa* gisa ere ageri da dokumentazioan. Osagaiak *berro* «luberria», «labakia» eta *handia* dira.
- *Bidemakurra*. *Tejería*-ko bidea eta honen inguruak izendatzen zituen. Agerian denez, osagaiak *bide* eta *makurra* «okerra», «ogena» dira. Cf. Uxueko *Retuerta* «erreka ogena, okerra».
- *Bidezabala*. Ez dakigu zer bide edo eremu zen. Osagai argiak *bide* eta *zabala* dira.
- *Bikuaga*. *Txorria*-n zegoela dirudi. *Biku* «pikuondoa» eta *-aga* leku-ugaritasunezko atzizkia ditugu hemen. Etorkizko adiera «pikuondoa dagoen lekua», «pikuondo tokia» da.
- *Bizkarra* (*Carrera de la Bizkarra*). Behin bakarrik aurkitu dugu, 1691n. Eliza aldera zihozen bideetako bat dela irudi du, herri barnekoa.
- *Boxagarea*. *Sierra*-n zegoen, *Bigas*-tik ez urrun. Erromantzeko *bojagar* «ezpel tokia» izenaren *boxagar* aldaera euskaratua besterik ez da, beste leku anitzetako *Ezpelaga*, *Ezpelduia*, *Ezpeleta*-ren baliokidea.
- *Burgaloki*. *Sierra*-n zegoen, 1800 arte Uxueko auzoa izandako *Pitillas* herritik *Berage*-ra (*Los Berros*-a), egur bila segur aski, igaten ziren bidearen aldakan. Itxuraz, Arabako *burgari* «herri txikietan dohainik igurain lanak egiten dituen auzoa» dukegu hemen eta *-oki* «tokia» atzizkia. *Burgari*-ren osagaiak, bestalde, *burgu* «burgua», «herria» eta *-ari* egile atzizkia dirateke. Osotasuna Lergako *Iguraimendia*, *Iguraimendikoa* (*Altico de la guarda* egun) toponimoaren baliokidea-edo izanen zen.
- *Burnizirieta*. *Sierra*-n zegoen; 1746ko agiri baten arabera *Astrakastillu*-k ordezkatu zuen. Aldaera franko ditu; lehen osagaia *burni*- (*burruna*- ere bai) «burdina» dela irudi du eta bukaera *-eta* atzizki ezaguna da, baina ez dago garbi tarteko osagaia zein den.
- *Busazarra*. 1534ko zerrendan ageri den *Busa* herri utzia izan liteke. Lehen osagaia, *Busa*, ez da gardena, baina bai *zaharra* izenondoa.
- *Butzubidea*. Ez dakigu zein bide zen hau. Agerian denez, osagaiak *butzu* «putzua» eta *bidea* dira, «putzuko bidea», «putzuetako bidea».
- *Butzumear*. *Aitzandieta*-ko *Aldabea*-n zegoen, *Sierra*-ko bidezidorraren ondoan, bi erreka artean. Garbi dago «putzu estua, hertsia» dela.
- *Dorreberria*. Herrian zegoen, larrain batzuen eta errege bidearen aldamenear. Uste dut dorretxea eta ondoko lurak izendatzen zituela. Osa-

gaiak *dorre* eta *berria* dira; adjektiboak garbi uzten du aurkitu ez dugun **Dorrezarra* ere bazela (cf. *Barriozar*).

- *Drinda*. *Turtunbera*-ko *Aldabea*-n zegoen, *San Miguel* ondoan, eta badirudi oraingo *Camino de las cruces* bera zela. Beste alderdi batzuetako *inda*, *dinda* «bidexka», «kalexka» izenarekin berdindu behar da.
- *Drindabe*. *Drinda*-ren azpiko eremua zen.
- *Errekazarra*. *Aitzandieta*-ko *Aldabea*-n zegoen, erreka edo errekastoren baten ondoan. Osagaiak *erreka* eta *zarra* «zaharra» dira.
- *Erripazarreta*. *Lakubeli*-ren aldamenean zegoen, *Vedado*-ra eta *Muri-llora* doazen bideen aldakan. Bigarren osagaitako *-zurieta*, *-zubieta* duela ere azaltzen da. Lehena Odietako herri baten izena den *erripa* «(ubide baten ondoko) aldapa», «malda» dugu; atzizkia *-eta* da, eta tarteko osagaia, dokumentazioko lekukotasunak ikusirik, *zar* «zaharra», *zuri* edo *zubi* izan daiteke.
- *Eskobarea*. *Vedado* eta *Zapaiz* artean zegoen, *Apeztegiatorra* (*Pistalorra* orain) pausutik hurbil. Gaztelaniako *escobar* mailegua dugu jatorrian, euskarara pixka bat egokitua, Zareko *Utsaskieta* (*utsasa* «isatsa») eta *El Escopizar*-en baliokidea.
- *Etxeandieta*. Herriko etxe edo auzoa zen, *San Miguel* aldean zegoena. Osagai argiak *etxe*, *handi* eta *-eta* dira, eta adiera «etxe handia dagoen lekua» edo.
- *Ezkabiazuloa*. *Aitzandieta*-ko *Aldabea*-n zegoen; osagaiak *ezkabia* «larruazaleko eritasun kutsuzkoa», «hatza» eta *zuloa* dira. «Ezkabiaren zuloa» da beraz, Murilleteko 1652ko *La Tiña* toponimoaren parekoa.
- *Gazteluondoa*. *Gaztelondoa* ere erraten zitzaion; *gaztelu* eta *ondoa* «gazteluaren ondoko alderdia» ditugu hemen, erdaraz *El Castillazo* deitzen duguna. *Gaztelu* toponimoa behin ageri da.
- *Gesal* (*pieza del*). *Gesal*, *gezal* euskarazko hitz arrunta da, *gatz*-rekin, adierari dagokionean segurik, zerikusia duena. Arruntean *gatz* franko duen lurrari deitzen zaio honela. Adibidez, Nafarroako *Gesalatz* ibarrean *Salinas de Oro* izeneko herria dago (*Jaitz* euskaraz), dituen *gatz* gatzkuntze edo *gatz* larrainengatik ezaguna dena.
- *Gortederreta*. *Mostrakas*-en zegoen. Osagaiak *gorte* «korralea», *eder* eta *-eta* atzizkia dira, eta lehen adiera «gorte ederren lekua», «korrale ederra dagoen tokia».
- *Gurutzegibela*. Uxuen orain *La Cruz* deitzen dugun *gurutzearen* atzeko aldea zen hau. Osagaiak, bistan da, *gurutze* eta *gibela* dira.

- *Gurutzezabala*. Herri ondoan zegoen, *Aitzandieta*-ko iturriko eta *Sierra*-ko bideen artean, *Tejería de abajo* zeritzanaren aldakan. Osagaiak *gurutze* eta *zabala* dira.
- *Idoitxiki (balsa)*. Herritik hurbil zegoen, eta ez dakit *Balsa de Muelas* delakoarekin identifikatu behar ez ote den. Osagaiak *idoi* «urgune txikia» eta *txiki* dira.
- *Iribarren*. Auzo baten izena zen; osagaiak *hiri* «herria» eta *barren* «aldapan dagoen eremu baten beheko alderdia» dira. «Beheko auzoa», «beheitiko barridea» da. Honek, bestalde, euskal modura aurkitu ez dugun **Irigoien* «goiko auzoa», «goitiko barridea» ere bazela adierazten du.
- *Iturria, Iturrialdea, Iturriberri, Iturriزار* eta *Iturrondoa* ageri dira dokumentazioan, egun *Fuente de Turruciales* izen itxuratxartuarekin eza gutzen den *Basandia*-ko *Fuente de Iturriزارra*-z landa. *Iturrondoa* 1534ko zerrendako herri hustuetako bat da.
- *Jaun Done Martia*. Dokumentazioan *Juan de Martia* azaltzen da, derekin, Elkanoko Lizarragak darabilen *Juan de Salvatore* eguna-ren eta *de* (< *dene* < *done*) duten hagiotoponimo ugarien antzera. Erdarazko *Barrio de San Martín* bera da, *Ermita de San Martín* zegoena, *Pirolarraña*-koa.
- *Juangarziarana*. *Otrollos*-en zegoen; «*Juan Garzia* izeneko baten harana» da berez.
- *Kaltxista*. *Akirazabal (Lakilazaba)* aldean zegoen, *Otrollos*-ko eta *Erriberri*-ko bideen aldamenean. Ez da argia.
- *Korbarana*. Ez dakit non zegoen. Hiru aldiz aurkitu dut agiritan, hiru erataria. Bukaera *harana* bide da; lehen osagaitzat *Korboran* antroponimo ongi dokumentatua proposa daiteke, baina ez da inola ere segurua.
- *Korralandia*. Behin aurkitu dut, 1727an. Data honetan diru kopuru bat eskatzen zaio *Joseph de Salaverri* izeneko bati, *Korralandia*-ko alorraren alokairuagatik. Osagaiak *korrale* eta *handia* dira, eta adiera garbia «gorte handia», «korrale handia».
- *Lauzatea, Lauzatzea, Lezkatzea*. *Akirazabal* ondoan zegoen, *Busa*-ko muga. Lehen aldaeraren osagaiak *lauza* «harri aski handia, mehea eta laua» eta *atea* «portilua» dira, bigarrenarenak *lauza* + *-tzea* «lauza ugari dagoen lekua», eta hirugarrenarenak *lezka* landare izena eta *-tzea* atzizkia, «lezka tokia». Cf. Uxueko eta Iruñeko *Lezkairu*.
- *Lerbeztxiki*. *Lerbez* toponimoa eta *txiki* adjektiboa ditugu hemen. *Lerbez* «ler beltza» dela dirudi, «pinu beltza» alegia, artikulurik eta atzizkirik ez izateak beharbada beste azalpenen bat bilatu behar zaiola erran nahi badu ere. *Lerbeztxiki*, *Lerbez* bera bezala, Uxueko herri utzia zen 1534an.

- *Lizarduia*. *Fuente de San Nicolás*-tik hurbil zegoen. Osagaiak *lizar* zuhaitz izena eta *-dui* atzizki multzokaria dira.
- *Madonalorra* edo *Pieza de Madonao*. *Otrollos*-en zegoen. Oinarrian *Madonao* dago, antroponimoa apika, baina ez dugu inoiz inon aurkitu, hemendik kanpo; bigarren izena *alorra* ezaguna da.
- *Mendigorria*. *Aldabea*-ko gain baten izena zen, *Aitzandieta*-ko batena segur aski, baina ez dakit zeinena. Adiera «mendi gorria» izan daiteke, hots, kolorez gorria den mendia, edo, egiantzekoagoa dena, «mendi soila», «zuhaitzik ez duen mendia».
- *Mikelen zabal*. *Zaubio*, *Otrollos* eta *Busa* artean zegoen. Lehen lekukotasunean *Mikelazabal* dugu, eta, beraz, oinarria *Mikela* emazteki izena ere izan daiteke, *Mikel* edo *Mikele* gizonarena ez ezik. *Zabal* mendia zabaltzen den alderdia da, *Aguilar* menditsua zabaltzen, lautzen den *Akirazabal* aurkintzan ikusten den bezala. Azken honen *Akira*- osagaia aipatutako *Aguilar*-en jatorrikide eta baliokidea da.
- *Miravalles*. Hau ezaguna da beste leku anitzetan ere, Iruñetik hurbil dauden Bidaurretan eta Uhartan erraterako, antzinako *Mirabueno(s)* eta gaurko *Vistabella* bezala. *Aitzandieta*-ko *Aldabea*-n zegoen, *Lakubeli* ondoan, goiko aldean segur aski, toponimoak iradokitzen duenaren arabera.
- *Munos*. 1534ko zerrendako herri utzi edo despoblaturako bat da, gero dermio izen bihurtu zena. Ermitatik gertu zegoen, erreka batetik hurbilko.
- *Muñukukulua*. Daitekeena da *Muñu(s)ko zuloa* irakurri behar izatea eta, ondorioz, *Munos*-ekin lotu behar izatea, hau dokumentazioan *Muñoz* gisa ere aurkitzen dugunez geroztik. Beste aukera bigarren zatia *kukulua* «gaina», «gailurra», «punta» dela ulertzea da. *Sierra*-n zegoen, *Sule* edo *Sule*-ko bidearen aldakan.
- *Mutxurromendi*. Ez dakit non zen. Antza denez «mendi zorrotza» erran nahi du, hots, Gasteizko eta bestetako *Mendizorrotza*-ren parekoa da, Lergako *Munikotxorrotx*-en iruditsua. *Muturromendi* Ziraukin azaltzen da 1283an, eta *Mutxurru* (Etxaleku) edo *Mutxurro* (Oskotz) 640 metroko gaina da orain Imotzen. Ibar honetatik atera gabe, Goldaritzen, *Ollondo* deritzan eremuko gainari *Ttuturru* erraten zaio.
- *Nobeleta*. *Lezkatzea*, *Busa*, *Otrollos* eta *Mikelen zabal*-en artean zegoen. Osagaiak *nobela* «ardantze landatu berria» eta *-eta* atzizkia dira.
- *Odia*. *Sierra*-n zen, ermitatik hurrantzen. Hemen *hodi* «errekastoa» dugu, *Odieta* nafar ibarraren izenean bezala.

- *Opelamendi*. *Aldabea*-n zegoen, baina ez dakit zeinetan. Lehen osagaia ez da argia; bigarrena *mendi* orokorra da. Beraz, *Aldabea*-ko gain baten izena zen.
- *Ormaizkieta*. Gaur egun *Carasolalto* deitzen denaren beheko eremua izan zen, errota aldean dagoena. Toponimoa ez da txoil argia: atzizkia, *-kieta*, *-eta*-ren txistukari ondoko *-keta* aldaeraren aldaera zela dirudi; oinarria, *Ormaiz-*, *horma* hizarekin lot daiteke, edo Longidako herri baten izena den *Orbaitz*-ekin.
- *Osinaga* (*Camino de la Osinaga*). Osagaiak *osin* «erreka edo ugaldeko putzua» izena eta *-aga* atzizkia izan daitezke, baina balio horrekin **usuin*, *osuin* dugu Eslabako *Lixuñeta*, Etxagueko *Lisuñeta* eta Zareko *Ligusuñeta* «lihaputzua dagoen lekua», «lihaputzuak dauden lekua» toponimoetan, ez *osin*. Cf., gainera, Oibar haraneko Bizkaiko despoblatur baten izena den *Usunbeltz*. «Asun lekua» ere uler daiteke, menturaz, baina Uxuen *asuin*-en moduko zerbait espero genuen, ez *osin*.
- *Otrollosandi*, *Otrollostxiki*. Hauekin *Otrollos* dermioaren bi alderdi bereizten eta izendatzen ziren, 1534ko herri hustuen zerrendan *Otrollos el grande* eta *Otrollos el chico* itzulirik ageri diren horien ingurukoak.
- *Otroperitzu*. Beireko bidearen aldamenean zegoen, *Otrollos(txiki)*-ren ondoan, edo honen barnean. Irudi luke ustezko lehen osagaia *Otrollos*-en dugun bera dela, baina ez bata ez bestea ez dira argiak, etimologiarri doakionez.
- *Petringesala*. *Otrollos*-ko egungo *El Salobrar* izan daiteke. Osagaiak *Petri* pertsona izena, jabego genitiboaren hondarkia eta gorago ikusirikako *gesala* «gatza duen lurra», «gatza» dira, hots, «Petriren gesala» erran nahi du.
- *Puendelazapata*. *Beskos*-en zegoen, errekan segur aski, *puente*-tik atera den *puen-* baitu oinarrian. *Zapata* herrian bizirik dagoen deitura izan liteke, baina ez du irudi hala dela, aurrean duen artikuluaगतik.
- *Sandimas*. 1534ko zerrendako herri utzietako bat da. Ez da argia, baina lehen osagaia latineko *sancti*-tik atera den euskarako *sandi* «santua» toponimian ezaguna izan daiteke, Galipentzuko *Sanditisi*, *Santitisi* «San Tirso»-n dugun bera.
- *Sanmartinmuga*. San Martin herriko muga alderdia zen, Txutxukoa.
- *Sanmigelaldea*. *San Miguel*-en ingurua zen, bistan denez.
- *Santodomingogibela*. *Santo Domingo*-ren atzeko aldea izan zen, herriitik hara doan bidetik begiraturik betiere.

- *Soroandia*. *Basandia*-ko alor baten izena zen. Osagaiak *soro* «alorra» eta *handia* dira. Ikusi den bezala, *alorra* ere ibiltzen zen Uxuen, irudiz gauza beraren adierazteko.
- *Sulueburu* edo *Suluburu*. *Sulue*-ko (oraingo *Sule*-ko) burua zen, gaina. Atzizkia *-ue* lekuzkoa izan daiteke *Sulue*-n, baina oinarria ez da argia. Ez dakigu *Sulu(e)buru* dokumentazioan ageri ere den *Sulumendi* bera ote zen.
- *Txindilotxaga*. *Urteaga*-n zegoen, *Otrollor*-tik ez urruti.**Txindilatzeaga* «txindilerria», «txindila landa» toponimoaren itxuratxartze arinaren emaitza izan daiteke.
- *Udareaga*. *Beskos*-en zegoen, goitixeago ikusi dugun *Puendelazapata*-ren barnean. Adiera «udareondoa dagoen alderdia», «udareondoak dau den alderdia» da.
- *Villantigua*. 1534ko zerrendako herri hustuetako bat da, gero, beste gehienak bezala, aurkintza izen bihurtu zena. *Turtunbera*-n zegoen, *Aizkanbela* (*Eskanbela* orain) eta *Aliaga*-ren artean, Aragoa ugaldeko erro-tara zihoan bidearen inguruetan.
- *Zabala*. *Villantigua*-ko lihatze baten izena zen, hola deitua zabala zela-ko segur aski, besteen aldean betiere.
- *Zabalburua*. Honen osagaiak *zabal* «zabalgunea» eta *buru* «gaina» dira. Ez dakigu *Zabala* izeneko lihatzearekin lotu behar den, *Zabalondoa* (*Zarabandoa* orain) dermioarekin edo beste zerbaitekin.
- *Zabartu*. Partizipio itxura duen euskal toponimoa da hau, ez erabat argia, *zabar* «utzia», «ezaxola» ezaguna bada ere. 1534ko zerrenda en-goitik hamaika aldiz aipatuan ageri da, Uxueko herri utzietako bat baitzen.
- *Zautelu* (*Aldabea*). *Aliaga* ondoan zegoen, errekan. Latineko *saltus*-en eratorria da, zehazkiago erran, herskari horzkari aitzinean albokoa (*I*) bokaldu duen **Sautellu*-ren euskarazko aldaera. Hortaz, «zaldu txikia» da, erdaraz jatorrikide duen *sotillo*-ren parekoa.
- *Zazu*. *Zaubio* aldean zegoen; erdarazko *saso* «lautada gora eta kaskailutsua» izenaren euskarazko baliokidea da, Uxuen eta bestetan.
- *Zuaizkieta*. Ez dakit non zegoen, baina garbi dago *zuhaitz* izen arruntaren eratorria dela (cf. *Arbolaga*). Atzizkia lehen ikusi dugun *-keta*-ren *-kieta* aldaera ustekoa dateke. Hortaz, «zuhaitz lekua» da.
- *Zubia*. *Sierra*-ko bidean zegoen, *Aitzandieta*-ko errekan. Zubia bera eta aldameneko lurak izendatuko zituen.

Aise gauza gehiago erran daitezke Uxueko toponimoen inguruan, baina aipatutakoak aski dira, nik uste, euskara herriko leku izenetan jaun eta jabe zela

frogatzeko, seinale antzina uxuetarren ahotan nagusi zebilen hizkuntza zela. Badakigu, Jimeno Juriori esker (1997: 174), XVIII. mendean Uxuen euskara bizirik zegoela, Eslaban eta Lergan bezala erraterako, baina ez dakigu zein zen jendearen elebitasun maila, ez eta herritarrek hizkuntza noiz arte atxiki zuten ere. Zernahi dela, ez litzateke miresteke mendea igarotzearekin iraungi izana, XIX.aren hasieran, Artaxoan agitu zen bezala. Mixel Xurio Donibane Loizuneko erretorearen *Jesukristoren imitazionea*, lehen aldiz 1720an karrikaratu zen liburua egun Uxueko elizan egoteak, bestalde, erran nahiko du data honetatik aitzina hemengo apezten batek erabili zuela, bere predikuak ontzeko segur aski. Esker mila denei etortzeagatik eta erakutsi duzuen interesagatik.

Bibliografia

- CAMINO, I. (1997): *Aezkoako Euskararen Azterketa Dialektologikoa*, Nafarroako Gobernua, Lasarte-Oria.
- (2004): *Hego-Nafarrera*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- CASTILLO, C., GÓMEZ-PANTOJA, J., MAULEÓN, M^a D. (1981): *Inscripciones Romanas del Museo de Navarra*, Nafarroako Foru Aldundia, Príncipe de Viana Erakundea, Iruñea.
- ELORTZA, C. (1972): «Religiones del País Vasco-Navarro en época romana», *La Romanización del País Vasco (Segunda Semana Internacional de Antropología Vasca)*. Universidad de Deusto. 24 de abril de 1971, Estudios de Deusto 20, 357-366.
- GOÑI GAZTANBIDE, J. (1997): *Colección Diplomática de la Catedral de Pamplona. 829-1243*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- GORROTXATEGI, J. (1984): *Onomástica Indígena de Aquitania*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- (1995): «Los Pirineos entre Galia e Hispania: las lenguas», *Veleia* 12, 181-234.
- IÑIGO, A. (2006): «Patxi Ondarra Erdozia: bizitza eta lanak (1925-2005)», Donostian, Gipuzkoako Foru Aldundiaren jauregian irakurritako hilerria. *Euskera* aldizkarian argitaratuko da.
- IRABURU, J. M. (1975): «Notas sobre varias piedras de Navarra», *CEEN* 19, 83-91.
- IRIBARREN, J. M. (1984): *Vocabulario navarro*, Nafarroako Foru Aldundia, Príncipe de Viana Erakundea, Iruñea.
- IRIGOIEN, A. (1995): «El nombre de persona medieval *Herramelli / Ferramelli*, etc.», *De Re Philologica Linguae Uasconicae V*, Bilbo, 45-58.

- JIMENO JURIO, J. M. (1997): *Navarra. Historia del Euskera*, Txalaparta, Lizarrarra.
- MARTÍN DUQUE, A. (1983): *Documentación Medieval de Leire (siglos IX a XII)*, Nafarroako Foru Aldundia, Iruñea.
- MITXELENA, K. (1956): «Introducción fonética a la onomástica vasca», *Emerita* XXIV, 167-186 eta 331-352.
- (1972): *Mitxelenaren Idazlan Hautatuak*, P. Altuna arg., Mensajero, Bilbo.
- (1987-2005): *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- MORET, J. (1890-92): *Anales del Reino de Navarra*, Tolosa. Bada Iruñean 1988-1990ean Susana Herrerosen zuzendaritzapean egindako beste argitalpen bat gutxienez.
- NUÑEZ, L. (2004): *El Euskera Arcáico. Extensión y Parentescos*, Txalaparta, Lizarra.
- SALABERRI, P. (1994): *Eslaba Aldeko Euskararen Azterketa Toponimiaren Bidez*. Lan hau *Onomasticon Vasconiae* bildumako 11. zenbakian argitaratu zen, Euskaltzaindia, Bilbo.
- URANGA, J. J. (1984): *Ujué medieval*, Ediciones y Libros, Iruñea. 2006an egindako argitalpen berria ere bada.
- VELAZA, J. (1995): «Epigrafía y dominios lingüísticos en territorio de los vascos», *Roma y el Nacimiento*, 209-218.

SOBRE LOS NOMBRES DE UJUÉ

Patxi Salaberri Zaratiegi

Señora alcaldesa, señor presidente de Euskaltzaindia, académicos, autoridades, señores y señoras, buenos días.

Tengo que confesar que siempre le he tenido miedo a este momento que alguna vez podía llegar y al final lo ha hecho. Siempre he tenido miedo de tener que pronunciar el discurso de entrada en la Academia en Ujué y delante de los ujuetarras. Recuerdo que hace ahora unos años, en 1995 creo, Jimeno Jurío y yo dimos una pequeña conferencia aquí a petición de la sociedad de Ujué (de la única que había en aquel entonces) sobre cosas del pueblo: Jose Mari disertó sobre temas históricos y yo me ocupé de la cuestión lingüística. No os podéis imaginar lo mal que lo pasé aquel día, no porque no conocía el tema, sino porque tenía que hablar delante de la gente de mi pueblo, ¡y más vale que Jose Mari tenía muchas tablas y me ayudó en aquel trance!

En esto creo que me parezco bastante a Patxi Ondarra, el académico navarro que me precedió en el puesto del que hoy voy a tomar posesión, que no era nada dado, lo mismo que yo, a hablar en público. El parecido entre los dos se limita a ésto y al amor por el euskera, ya que Ondarra, al contrario que yo, dominaba las lenguas clásicas: sabía latín y griego y era capaz de leer los libros sagrados en hebreo sin necesidad de diccionario, tal como explica en una de sus cartas (Iñigo, 2006). Además, sabía alemán bastante bien y el inglés lo aprendió en Chile. Estoy convencido, por otro lado, de que también dominaba el francés.

Patxi, o *Frantzisko*, por utilizar el nombre que solía emplear en sus trabajos, era un verdadero amante del euskera y si en la actualidad todavía cuesta serlo en ciertos lugares, podemos imaginar cómo estaría la cosa en los primeros años del Franquismo. Sus superiores en la orden lo enviaron a Chile, a pesar de que él nunca quiso ir allí, porque veía que su sitio estaba en su tierra natal. Tuvo que pasar en aquel país trece años, y cuando al final se le presentó la oportunidad de venir a casa de vacaciones, en 1964, ya no quiso regresar a Chile y se quedó aquí, no sé si con el consentimiento de sus superiores o sin él, pero la cuestión es que no volvió.

Conocí a Ondarra en Euskaltzaindia y después de que los capuchinos vendieran el convento de Lekaroz y Patxi fuera a vivir a Pamplona, nos solíamos

encontrar en la calle más de una vez, cuando él regresaba de su caminata por los montes cercanos a Pamplona y yo iba con mis hijos de paseo. Su ruta solía ser la siguiente: salía del convento, cruzaba el monte Ezkaba, pasaba a Ezkabarte y llegaba hasta el valle de Odieta, de donde, por el mismo camino al parecer pero en dirección contraria, regresaba a su lugar de residencia. Le gustaba mucho ir al monte y no es de extrañar, por lo tanto, que conociera los de Navarra tan bien, y tampoco que hiciera más de algún hallazgo feliz. Por ejemplo, el menhir llamado *Soalar* lo descubrió en el monte baztanés del mismo nombre.

Era un hombre humilde y trabajador, además de muy *euskaltzale* (amante del euskera). La mayor parte de su trabajo puede ser encuadrado en el estudio de textos euskéricos antiguos. Destacamos aquí los de Valdegoñi y los de Joaquín Lizarraga de Elcano, que publicó sólo o en colaboración, y que han resultado de gran importancia para los estudios de dialectología realizados durante estos últimos años, especialmente para aquellos que tratan del llamado *navarro meridional*. Desconozco el trabajo que realizó en el pleno de la Academia y también el desarrollado en sus Comisiones de Gramática y de Dialectología, y tendrán que ser los miembros de éstas y los académicos que lo conocieron bien los que expliquen en qué consistió el quehacer del de Baikaiku.

Patxi Ondarra tuvo como compañero de orden y de convento, en Lekaroz, al académico de número Damaso Intza, y también a Policarpo de Iraizotz, quien, según Mitxelena (1972: 384), dominaba la lengua vasca como pocos. Eran capuchinos, además, los académicos correspondientes Arrigarai, Eusebio de Etxalar y Jorge de Riezu, a los que Patxi trató durante años. No sé con quién tuvo más relación, pero está claro que admiraba la obra del ultzamarra Policarpo de Iraizotz, como lo demuestra el hecho de que en 1981 su discurso de entrada en la Academia versara sobre el trabajo de dicho autor (“Presentación de los manuscritos que tenía el padre Policarpo”). Posteriormente, preparó los tres volúmenes publicados por el Gobierno de Navarra con motivo del centenario del nacimiento del académico de Ultzama, en 1997.

Como he dicho más arriba Patxi, siguiendo en esto al padre Policarpo, publicó una buena parte de la obra de Joaquín Lizarraga, y no es de extrañar, dado que en los escritos de este autor aparece un sinfín de nombres, verbos, sufijos, expresiones...etc. usados en el euskera de la Cuenca de Pamplona o Iruñerria, que constituyen sin duda un tesoro que está a la espera de que el investigador (el lector corriente y moliente pasa de estas cosas) los descubra. Es una pena que las obras de Lizarraga no sean más utilizadas, porque hay ahí un filón muy rico para aquellos que quieran darle ese toque navarro a su euskera. Es verdad que en la época del euskera unificado, del *euskara batua*, puede parecer raro en Pamplona ponerse a hablar en el euskera de Joakin Lizarraga, y más todavía ponerse a escribirlo, especialmente si tenemos en cuenta que esta habla ha desaparecido, aunque, como ha señalado Iñaki Camino

en más de una ocasión (1997, 2004), las variedades de Erroibar (Valle de Erro) y de Aezkoa todavía vivas no están muy lejos de la utilizada antaño por Lizarraga.

La cuestión, creo yo, no es empezar ahora a escribir como lo hacía el de Elkano, sino aprovechar el caudal léxico que utiliza este escritor para enriquecer y completar el euskera unificado, ya que la amplia zona en la que se ha hablado el navarro meridional tiene mucho que aportar a la elaboración del llamado *Hiztegi Batua* («vocabulario unificado»). Se ha dicho que los navarros no hemos escrito en euskera, y es verdad que no ha habido escritores de envergadura que hayan empleado el navarro meridional, ya que el urdazubiarra Axular utilizó el labortano y el guipuzcoano Orixe criado en Uitzí escribió, sobre todo, pero no exclusivamente, en euskera central. Entre los clásicos que podemos considerar más nuestros tenemos a Beriain de Uterga, Elizalde de Muzki y al mismo Lizarraga de Elkano; más tarde, en el siglo XX destacan Larreko, Policarpo de Iraizotz y Mariano Izeta, pero su lengua tiene como base el habla de Baztan, en mayor o menor medida, y el primero de ellos utiliza con frecuencia recursos lingüísticos ultrapiresnaicos. Manezaundi era navarro, pero de Luzaide (Valcarlos), y su euskera pertenece claramente al habla de Garazi.

Ha sido Lizarraga el que nos ha enseñado cómo era el euskera de la Navarra central, o mejor dicho, centro-oriental, aunque conocemos también los materiales de Elkano, Oltza, Itza y Puente la Reina / Gares recogidos por Bonaparte en el XIX y publicados por Ondarra, además de las dos obras de Juan de Beriain, pero estas son de 1621 y 1626, y presentan un aire ciertamente arcaico. La doctrina de Elizalde de Muzki y los textos de los Morentin del mismo pueblo son también de gran valor lingüístico; Gesalatz, sin embargo, está lejos de la localidad en la que hoy nos encontramos. A mí, a decir verdad, me gustaría mucho tener algún libro o por lo menos algún texto redactado en el euskera de Ibargoiti o de la Valdorba, pero, por desgracia, hasta ahora no se ha encontrado ninguno, y por lo tanto, para conocer el euskera de nuestra zona, aunque no sea más que parcialmente, sólo hay un camino, recurrir al estudio de los topónimos, de los nombres de lugar. Esto es lo que yo pensé hace unos años, la reflexión que se encuentra en la base de mi hermosa (por lo crecido del número de páginas) tesis doctoral: ¿Qué puedo hacer, adónde puedo recurrir para tener alguna noticia del euskera de Ujué y de sus alrededores? La respuesta es obvia: a la toponimia.

Así pues, fue ésta la razón primera de mi tesis, y los resultados, como podía esperar cualquier persona versada en trabajos de toponimia, no fueron excesivamente pródigos, en lo que concierne al conocimiento del euskera local, tal como señaló un conocido dialectólogo. En este punto hay que considerar que, cuando se realiza un trabajo de toponimia, si no nos quedamos en la mera recopilación de datos, es muy importante dar una explicación etimológica de los nombres, o al menos intentarlo, e igualmente debe ser tenido en

cuenta que normativizarlos y situarlos en el mapa, a menudo, tampoco es tarea fácil. Es lo que yo traté de hacer en la tesis doctoral, que tuvo tres objetivos principales: a) lograr algún conocimiento del euskera local, b) dar una explicación etimológica de cada topónimo y, c) colocar los nombres todavía en uso en el mapa e intentar localizar los ya perdidos, tomando como base la documentación.

El primer objetivo se ve limitado por el carácter mismo del campo de trabajo elegido, ya que, entre otras cosas, los topónimos que se han dado en denominar *satznamen* son muy pocos, a pesar de ser más numerosos de lo que algún investigador ha afirmado. Estoy hablando de topónimos del tipo de *Abade Alasua erori zaneke zuloa* «el agujero en el que se cayó el cura Alasua» de Burunda, (*Ganaduari*) *gatz ematen dakion iturria* «la fuente en la que se le da sal (al ganado)» de Ergoiena, *Haurra galdu zan harria* «la peña en la que desapareció el niño / la niña» de cerca de Urnieta (Gipuzkoa), *Urdeak etziten direnekoan* «en (el campo, prado...) en el que suelen estar echados los cutos» de la Cuenca de Pamplona o *Elorria baita* «donde el espino», *Orredena* «donde el ginebro» de la Valdorba. También son muy limitados los topónimos que reflejan algún otro rasgo de carácter sintáctico.

Junto a los tres objetivos mencionados había, debo confesarlo, un cuarto: quería dejar claro que Ujué había sido un pueblo de habla vasca hasta fecha tardía. Cuando una persona de habla castellana oye por primera vez el nombre *Andremucho* o *Andrebuch* que designa el lugar en el que nos encontramos no puede más que extrañarse, lo mismo que cuando oye *Aldabea*, *Anzandieta* o *Turtunbera*, por no hablar del *Rincón de Zonbolozoko* que está enfrente de nuestra casa.

Estos nombres son raros, claro está, para la gente que habla castellano y que no es del pueblo, porque los de aquí están habituados a ellos y para los vascoparlantes tienen un aire de familia, pues proceden del euskera. Cuando te pones a leer documentos antiguos e investigas sobre los topónimos de otras localidades, te das cuenta de que la variante *Andrebuch* mencionada está más cerca de la forma original que *Andremucho*, porque la base es *Andrebutzu* «el pozo de las mujeres», aunque uno se pregunta si detrás de ese *andre* tan habitual no se esconde el nombre de la Virgen (*Andre Dona Maria*), alguna vez al menos. *Aldabea*, por su parte, es primo carnal del extendido *aldapa*, con el que se une a través del más próximo *Aldapea*, término de la Valdorba, y está relacionado con *alde*, *aldai* y con otra serie de términos que significan «cuesta», como el genérico perdido *aldazkia* o *aldaizkia* de Ujué.

Aclarar el significado de *Anzandieta* es sencillo, en vista de las variantes documentales: se trata de *haitz* «peña», *handi* «grande» y el sufijo locativo-abundancial *-eta*, es decir, de *Aitzandieta*, que hace referencia, creo, a la peña que hay debajo de una de las casas que dan a esa *Aldabea*. *Turtunbera*, documentada alguna vez como *Durtunbera*, es un topónimo que se repite en más

de un lugar, en Altzuza, Antxoritz, Iratxeta y Muzki, por ejemplo (*Turtunbera*, *Tutunbera*), y tiene un aire de onomatopeya. Considero probable que esté relacionado con *turrunbero*, *turrunpero* «precipicio de poco peligro» según Iribarren.

En cuanto a *Pilarraña* debo señalar que la forma antigua, más completa, era *Pirolarraña* y que existía igualmente el topónimo *Otsalarraña*, que tal vez tendríamos que identificar con el antiguo *Lopera* y moderno *Lupera*. La cuestión es que en *Pirolarraña* o *Pilarraña* el segundo elemento es el conocido *larrain* «era» (con el artículo *-a* se pronuncia *larraña*), lo mismo que en *Otsalarraña*, y por otro lado, que *otsa-* es variante en composición de *otso* «lobo», lo cual nos lleva a ver otro zoónimo, *piro* «pato» en este caso, en *Pirolarraña*. Sin embargo, *piro* es palabra baztanesa y, que yo sepa, no se ha utilizado en la amplia zona comprendida entre dicho valle y Ujué, al menos no en la Cuenca de Pamplona y en los valles más meridionales. Por otra parte, *Lopera*, que parece que hay que identificar con el castellano *lobera* (latín *luparia*) «guarda de lobos», podría igualmente ser un compuesto del antropónimo *Lope* y del nombre común castellano *era*, si se acepta la idea de que ha sido utilizado el orden de palabras habitual en lengua vasca. De ser así habría que considerar *Otsalarraña* como traducción de *Lopera*, o al contrario, pensar que *Lopera* es la versión romance del vasco *Otsalarraña*. Esto nos puede llevar, aunque no sea más que por analogía, a ver el antropónimo *Peru*, *Pero* «Pedro» en la base de *Pirolarraña*, pero la documentación habla en contra de esta suposición, ya que los testimonios más antiguos tienen *Piro-* y la variante actual también presenta una vocal palatal.

Voy a pasar ahora a tratar del topónimo más importante de Ujué y uno de los más difíciles de dilucidar, dicho sea de paso; me refiero al nombre mismo del pueblo, a *Ujué*. No voy a repetir aquí lo dicho en mi tesis doctoral, ni tampoco lo escrito en uno de los folletos publicados por la sociedad *Uxueza-leak / Amigos de Ujué*, pero sí que me gustaría hablar del topónimo, aunque sea sólo de manera breve.

El actual *Ujué* era conocido en euskera, no hay ninguna duda de ello, como *Uxue*, con una *x* que se pronuncia como en francés *cheval* «caballo» o en inglés *fish* «pez, pescado». No sabemos exactamente cómo se acentuaba, pero lo más lógico es pensar que se decía *Uxié*, con acento en la segunda <u> y, efectivamente, es esa pronunciación la que se emplea desde hace ya años cuando hablamos en euskera, y también la que se utiliza como nombre de mujer, en detrimento del anterior *Ujué* o *María Ujué*. Creo que hay entre las hijas del pueblo, y entre sus descendientes, más de una *Ujué* o *María Ujué* que se ha convertido luego en *Uxue* o *Miren Uxue*, y también, y ésto está relacionado con la explicación etimológica del topónimo, más de una *Paloma* que ahora es *Uxue*, por no mencionar la forma *Uxua* también conocida, que hace referencia a una variante del nombre de nuestro pueblo que se documenta –la variante quiero decir– en 1102 por primera vez.

En julio de este año aparecía en una revista del corazón (en *Hola* si no recuerdo mal) la noticia de que una conocida presentadora de televisión había tenido una hija a la que le había puesto de nombre *Uxue*. El empleo de nombres vascos es cada vez más corriente fuera también del ámbito en el que el euskera se habla o se ha hablado, y, por ejemplo, son muchas las *Ainhoa*-s naturales de Madrid, y ahí tenemos a *Iker Casillas*, portero del Real Madrid y de la Selección Española, con conocido nombre vasco. La cuestión es que la susodicha presentadora es guipuzcoana de nacimiento, lo mismo que su marido *Aitor Senar*, y los padres de éste navarros, de Ergoiena. Según explicó la presentadora en su programa, estubo de visita aquí en el pueblo, le gustó y por eso le puso a su hija *Uxue*.

Vuelvo a la etimología. Es el escritor pamplonés vasco-hablante José Morret quien en el siglo XVII, en sus *Anales del Reino de Navarra* (pp. 163-164) nos cuenta la historia del pastor y la paloma tan conocida. Dice así el cronista pamplonés: «Y para memoria de la maravilla y de la paloma, que trajo o descubrió el ramo de oliva, anunciadora de bonanza en aquella inundación de mahometanos, (la villa) tomó el nombre de *Usua*, que en el idioma vascongado vale lo mismo que paloma, y se llama Santa María de Usua, aunque con el tiempo se ha alterado algún tanto, y se llama *Ujué*. Los privilegios antiguos



Usua le llaman». Los privilegios o documentos antiguos no le llaman siempre *Usua*; a decir verdad encontramos formas muy parecidas (*Huxua*, *Uxua*, *Usua*...), pero no *Usua*, aunque es posible que se me haya escapado algún testimonio documental. De todos modos, el nexa entre *uso* «paloma» y *Uxue* es ya antiguo, como se ha visto en esta cita.

Hay un japonés, un tal Masu Nitta, que se ha ocupado en más de una ocasión de los topónimos de nuestra tierra. Este investigador escribió en un conocido periódico local que *Ujué* o *Uxue* procedía de *puteum*, forma que ha dado en castellano *pozo*, basándose en el hecho de que en Ujué hay muchos pozos. Esto es cierto, en Ujué, aunque no llueve tanto como en otros lugares más verdes, hay muchos manantíos; sin ir más lejos nosotros tenemos uno en casa, y según mi padre, que por su oficio de albañil ha conocido bien las casas del pueblo, los hay en muchas otras. Sin embargo, y a pesar de la abundancia de pozos, el topónimo *Uxue* no puede proceder de *puteum*, dado que, desde el punto de vista de la fonética histórica, de la evolución de los sonidos, es muy difícil, prácticamente imposible, que el nombre del pueblo haya salido de ese término latino.

Además, encontramos en la obra publicada por Goñi Gaztanbide (doc. 251), la variante *Urssua* en 1146: «Martin de Lehet (regnante, tenente...) in Galipenzo et in Vnse, Arremir Garceitz I in Urssua, episcopo Lupo in Pampilona». Este *Urssua* es el mismo que en 1147 se documenta como *Ussua* y también el mismo que antes y después aparece como *Uxue*, escrito de diversas maneras, el mismo que encontramos en Ayesa en 1547 en el topónimo *Uxue bidea* «el camino de Ujué» por donde venían y vienen todavía, creo, los de ese pueblo a Ujué en romería, y el mismo que tenemos en el topónimo de Lerga *Usueco Oyanondoa* «lo de al lado del monte de Ujué» de 1592, que designaba un paraje del término de Txutxu. En Ayesa ya para 1588 se documenta el topónimo como *Ussobidea*, *Usobidea*, variantes que delatan una etimología popular, una reinterpretación hecha por la gente del lugar sobre *Uxubidea*, variante de *Uxuebidea*.

Mitxelena no descartaba (1956: 338) que *Uxue* hubiera salido de *urzo*, *uso* «paloma», y la variante documentada con *-r-* apoya esta etimología, aunque existen problemas fonéticos para explicar el paso *-rz-* > *-x-*. Una posibilidad es pensar en que en la base hay un hipocorístico, una forma afectiva del nombre de persona *Uso* (masculino), *Usoa* (femenino) que encontramos en la documentación, algo parecido a *Usoxe* (*de Urrexti*) nombre de mujer en el Bilbao del siglo XV. El final podría ser el sufijo locativo *-(g)ue*, que tenemos en *Etxague* o *Untzue*, ambos pueblos de la Valdorba; el problema es que el sufijo con base antroponímica es, por lo menos, raro, si es que en realidad se encuentra alguna vez. Otra posibilidad sería considerar que los componentes son *uso* «paloma» y *-(g)ue* «sitio», es decir, «sitio de palomas», pero entonces la palatal, la *-x-* de marras, se quedaría sin explicación. Veis, pues, que se pue-

den hacer elucubraciones sobre el origen del nombre *Uxue / Ujué*, pero que las cosas no están del todo claras.

Ahora hablaré, lo más brevemente que pueda, de otro nombre o, más exactamente, de otro grupo de nombres. Me refiero al pequeño grupo de topónimos que tienen como base *laku*, es decir, *Lakubeli* situado no lejos del pueblo, *Lakumulatu*, al otro lado del barranco, en La Sierra, y *Laku*, que se suele considerar como parte del anterior. A estos topónimos habría que añadir el teónimo *Lacubegi* que se encontró, al parecer, cerca de la ermita, y por lo tanto, cerca también de *Laku* y *Lakumulatu*, y que ha hecho correr tanta tinta. La inscripción en la que aparece es la siguiente, según Castillo, Gómez-Pantoja y Mauleón (1981: 59):

Coelii Tesphoros et Festa et Telesinus, Lacubegi. Ex voto

Existe otra inscripción, también de Ujué, gemela de la anterior, en la que en lugar de «*Lacubegi. Ex voto*» se lee «*Iovi sacrum*». Es necesario recordar que en el ara en la que aparece *Lacubegi*, en la parte posterior, hay dibujada una cabeza de toro o quizás, ya que siendo sólo la cabeza no es fácil distinguirlos, una cabeza de vaca. C. Elortza (1972: 363) da la opinión de Albertos, investigadora según la cual el primer elemento del teónimo es *lacu*, común en muchas lenguas indoeuropeas, y el segundo *bheg* «romper», que en lituano ha tomado la acepción de «ola», «chaparrón». Jose María Iraburu, unos pocos años más tarde (1975: 83-85), y con razón creo yo, rechaza la etimología propuesta por Albertos y relaciona *Lacubegi* con los términos *Laku* y *Lakumulatu* cerca de los que se encontró, y también con *Lakubeli*, y añade que el segundo elemento del teónimo podría ser *begi* «ojo», con el sentido de «guardián de *Laku*», pero también *behi* «vaca», dado que en la parte posterior del ara hay una cabeza de vaca o de toro.

José Javier Uranga (1984: 39-42), buen conocedor de nuestro pueblo, rechaza las tesis de Elortza-Albertos, y considera que *Lakubegi* no puede ser relacionado, de ningún modo, con divinidades acuáticas. Dice así: «Frente a las tesis de Elorza hay que señalar que el río Aragón pasa a 6 km. del lugar en que se encontraron las aras y el torrente Ezcairu (sic) es un riachuelo muchas veces seco. Mal clima para divinidades acuáticas».

En opinión del investigador navarro Javier Velaza (1995: 213) *Lacubegi* es un teónimo de aspecto ibérico, con un primer elemento *laku* bien conocido (en la antroponimia ibérica, al parecer) y con un segundo elemento que podría tal vez ser *biki*, aunque no explica su significado. También en opinión de Joaquín Gorrotxategi (1995: 223-225) *Lacubegi* es, en parte al menos, un nombre ibérico; según este autor el primer elemento tiene paralelos en *laku-arkis* de Palamós y en *biu(r)-lakos* de Sagunto. El segundo miembro, en cambio, se puede relacionar en opinión del profesor de Eibar con el euskera *begi* «ojo» o con *behi* «vaca», por la cabeza que aparece en el ara. Este mismo investigador (1984: 300) dice que algunas veces, en las inscripciones aquitanas, los

nombres aparecen sin declinar, especialmente cuando son como aquí teónimos, nombres de divinidades.

Es cierto que en la inscripción gemela aparece *Iovi* y que *Lacubegi* tendría que estar en dativo, pero además de lo que se ha dicho, pudo suceder que la *-i* final del teónimo fuera considerada de alguna manera como desinencia de dicho caso. Basándose seguramente en los trabajos de Velaza y Gorrotxategi, Luis Nuñez (2004: 174), en un interesante trabajo de divulgación, dice que el ibérico se habló en los alrededores de Ujué, pero no explica exactamente en qué lugar ni da las razones que tiene para realizar tal afirmación.

En la tesis publicada hace ahora doce años (1994: 826 y ss.) dejé clara mi opinión al respecto, o al menos éso es lo que pretendía: creía entonces y creo todavía ahora, siguiendo en ésto los pasos de Iraburu, que el primer elemento del nombre de deidad *Lacubegi* no es otro que *Laku*, presente en los topónimos *Laku* y *Lakumulatu* ya citados. No tiene toda la razón Uranga cuando habla del clima de Ujué; es seco, sí, pero también llueve y nieva, y *Laku* es un término acuoso en el que, de acuerdo con mi tío Esteban Berrade que lo conocía bien, se han tenido que hacer “puntidos”, es decir, se ha tenido que drenar para que pudiera ser trabajado. La palabra *laku*, además, aunque en euskera unificado se traduzca por «lago», en toponimia designa siempre lugares abundantes en agua, en las numerosas ocasiones en que lo encontramos, desde Ujué hasta Vitoria, hasta *Lakua* por lo menos, pasando por *Lakuntza* situado a medio camino. Es cierto que en nuestra toponimia es más habitual encontrar *Laku* con artículo, como en Vitoria (*Lakua*), o con algún sufijo o posposición, como en *Lakuaga* de Ayesa (también había *Lakuagabarrena* y *Lakuagagoiena*) o en *Lakuarana*, *Lakuko harana* de Gallipienzo, pero a veces los topónimos no llevan artículo, ni siquiera cuando están compuestos de específico más genérico. El segundo elemento de *Lacubegi* podría ser la palabra *begi* «ojo» o *behi* «vaca» que mencionan J. M. Iraburu y J. Gorrotxategi, la segunda tal vez, por la cabeza de toro o vaca que hay en el ara y también porque en euskera una aspiración (antigua o no tan antigua) ha dejado como huella, algunas veces, una *-g-*.

No hemos tocado todavía el topónimo *Lakubeli*, muy parecido al nombre de deidad que nos ocupa. Aquí, como decíamos en 1994, tenemos de nuevo *Laku* como primer elemento; el segundo, *-beli*, puede ser el antropónimo *Beli*, que ha salido según Irigoien (1995: 54-55) de *Bellus*, *Bellius*, *Belli*, el mismo que encontramos en *Azubeli* de Ezkaroze de 1046 (Martín Duque, 1983, 36) que otras veces se documenta como *-bel*, *-bele* (*Azubel*, *Azubele*). De todos modos, es por lo menos extraña la secuencia *topónimo* (o *apelativo*) + *antropónimo*, aunque no la inversa (*Garziarana*, *Petiriberro*). Además, no creo que *Lakubeli* sea notablemente aguanoso; hay un barranco, pero no sé si esto es suficiente para que se le designe con la palabra *laku*, parece que no. Sea como sea, el nombre es antiguo y lo encontramos ya en un testamento de 1598: «Anssi bien dejo dos pieças en Lacubeli y que me perdone de lo poco».

Veo otras dos posibles explicaciones para el topónimo, pero no me convence del todo ninguna de las dos: a) Teniendo en cuenta que el segundo elemento *-beli* puede ser antroponímico, una posibilidad es considerar que el primero también lo es, que se trata de un apodo basado en el topónimo *Laku*, b) podemos pensar que la forma original del topónimo es *Lakubegi*, que coincidiría así con el teónimo, y que luego por un proceso de asimilación-disimilación surgió *Lakubeli*, es decir por asimilación de laterales y disimilación de velares, pero, como hemos dicho, la forma documentada desde los primeros testimonios del XVI es *Lakubeli*.

Voy a pasar a tratar, brevemente, de la inscripción *Abeaga* que se puede leer en la imagen de la Virgen de la ermita, en la de Santa María la Blanca. Uranga (1984: 34) considera que hasta el presente no se ha dado ninguna explicación satisfactoria, y él mismo no intenta hacerlo, cosa que no es de extrañar. Yo en el trabajo de 1994 (pp. 884-885) decía que la base del nombre es *habe* «columna», «rodrigón», «viga», «cruz», y también lo que en otros lugares se llama *ezpara*, *espare* o *ezpata*, es decir, «tábano». El sufijo, claro está, es el conocido *-aga*, el mismo que encontramos en los topónimos *Aliaga*, *Andiaga*, *Aristuziaga* (*Astuziaga*, *Estuziaga*) y *Dorrondiaga* (*Redondiaga*) de Ujué. Ahora se pueden añadir las acepciones «sostén», «apoyo», «protección» que recoge el *Diccionario General Vasco*, y también la de «árbol», a pesar de que, vistos los testimonios recogidos en el mencionado diccionario, habrá que considerar este significado occidental.

En mi tesis mencionaba *Abeaga* de 1776, nombre de una calzada de Iturmendi, en Burunda, *Fruteko Abeta*, topónimo de Unanu, y *Abeta*, nombre que se puede leer en una señal de carretera situada entre Zarautz y Getaria. *Abeta* es además un término de Araitz desde 1720, e igualmente el nombre de un caserío de dicho valle. En Unanu (Ergoiena) se utilizan, además, los topónimos *Abetaburu* («el cabezo de Abeta», «el alto de Abeta»), *Abetako arrasoa* («el raso de Abeta») y *Abetako harpea* («el abrigo de Abeta»), y no me cabe la menor duda de que si hiciéramos una búsqueda detallada encontraríamos más términos con el elemento *Abe-*. El significado más apropiado sería «lugar de árboles», similar al de *Arbolaga* y *Zuazkieta* de los que luego hablaré, pero, como he dicho, la acepción «árbol» debe ser considerada occidental. Por eso, parece que habrá que interpretarlo como «lugar de tábanos». Existe, sin embargo, un obstáculo para dar por buena esta explicación, y es que el sufijo *-aga* no lleva normalmente como base un zoónimo o nombre de animal, aunque sí en alguna ocasión, como en *Zaldunaga* (Ujué) / *Zaldinaga* (Eslava), ambos procedentes de un anterior *Zaldinuaga* (< **Zaldinoaga*), es decir, compuestos al parecer de *zaldino* «caballo pequeño» y el sufijo *-aga* (compárese, para el uso del diminutivo, el topónimo y apellido *Mendinueta*).

Para terminar voy a hacer un listado de los topónimos de Ujué que han desaparecido (no están todos los que son, pero sí son todos los que están),

principalmente como consecuencia de la pérdida del euskera que los creó, pero también por la propia dinámica toponímica y, en última instancia, por el cambio de modo de vida experimentado. Son los siguientes:

- *Aizkieta* o *Ezketa*. Estaba hacia *Lakumulatu*; los componentes son *haitz* «peña» + *-kieta* posible variante del locativo-abundancial *-keta*, *-eta*.
- *Aizpeaga*. Entre *Turtunbera* y *Galaputzu*; de *haitz* + *-pe* + *-aga* «lo de debajo de la peña».
- *Aldaidarrea*. Posible deformación de **Aldailarrea* «el prado de la cuesta», pero no es seguro.
- *Altxunbidea*. Es un genérico, un nombre común, «la cañada».
- *Arbolaga*. Estaba en el carasol de *Aitzandieta*; la base es *arbola* o *arbole* «árbol» (cf. *Zuaizkieta*) y el sufijo el citado *-aga*, de valor locativo-abundancial.
- *Arduibarrena*. Equivale al documentado *Ardui bajo*; de *Ardui* nombre de término, «pedregal», «sitio con mucha piedra» y *barrena* «la parte baja de un terreno situado en cuesta».
- *Areatzeta*. Estaba en el barranco de *Otrollos*, en *Beiremuga*; de *harea* + *-tzea* «el arenal».
- *Arraskutzea*. Era el nombre de una cruz, seguramente de **Harrizko gurutzea* «la cruz de piedra».
- *Arributza*. Según la documentación se encontraba en el barranco de *Otrollos*, al lado del camino de Pitillas; de *harri* + *butza* «el pozo de las piedras», «el pozo de piedra».
- *Arriluzea*. Estaba en el barranco del molino, en lo que era antes *Villantigua*. De *harri* + *luzea* «la piedra larga».
- *Arritzea*. Término de *La Sierra*; de *harri* + *-tzea* «pedregal», «sitio de mucha piedra».
- *Artabakoitz*. Entre *Urteaga* y el caracierz de *Zaubio*. De *arta-* variante de *arte* «carrasco» en composición y *bakoitz* «único»; quiere decir «el carrasco que está solo». Construcciones de este tipo son muy habituales en toponimia vasca: *Arizbakoitza* (Jaurrieta, Villanueva de Yerri), *Bagabakoitz* (en Sabaitza y en Ibargoiti, por ejemplo), *Etخابakoitz* (en Pamplona)...
- *Artaxabal*. Era un de los despoblados que se enumeran en la lista de 1534, de *arte* «carrasco» y *-xabal*, variante de *zabal* «ancho», «espacio amplio» en segundo miembro de compuesto. Era, así pues, «el carrasco ancho» o «el terreno amplio, ancho donde hay carrascos».

- *Arteandia*. Estaba en *Andiaga*, en el camino de Lerga. De *arte* «carrasco» y *handia* «grande», «el carrasco grande».
- *Artisar*. En *La Sierra*. Probablemente otro derivado de *arte* «carrasco».
- *Astabidea*. Situado entre *Carasolalto*, *Cuartochiguito* y *Mugazuria*. Es «el camino de los burros».
- *Astrakastillu*. Estaba cerca de la ermita, en *La Sierra*, pero no sabemos si equivalía a *Castillo* o *Kastillu*. El primer elemento *Astra-* es opaco.
- *Aunzkoerte*. Sólo sabemos que estaba al lado de un barranco. Puede tratarse de *Aunzkortea* «la cabrería», «el corral de las cabras», pero puede ser también un compuesto de *erte*, variante de *arte* «espacio intermedio», bien documentado desde la Cuenca de Pamplona o Iruñerria hasta Ujué.
- *Azpieta*. Era el nombre de un rincón de la *Aldabea de Aitzandieta* por donde pasaba el camino de *La Sierra*. Seguramente de *haitz* + *-pe* + *-eta* «lo de debajo de la peña» (cf. *Aitzandia*, *Aitzandieta*), pero también podría derivarse de *haitz* + *bi* + *-eta* «lo de las dos peñas», aunque, en este caso, la referencia no sería clara. Lingüísticamente no hay ningún problema para aceptar que el numeral *bi* «dos» iba pospuesto.
- *Bagaran*, *Balgaran*, *Balgarandega* o *Valgrande*. No es un topónimo transparente, por la cantidad de variantes diferentes que presenta. Estaba en *Txorria*.
- *Barriozar*. Daba al *Andrebutzu*; por lo tanto hay que pensar que eran estas casas de aquí, desde la plaza pequeña y la *Calle del Cuerno* hacia el frontón, a la derecha. Se traduce por «el barrio viejo», lo que quiere decir que había otros barrios más nuevos.
- *Beiremuga*. Es claramente «la muga de Beire».
- *Berage*. Es el término que en la actualidad se llama *Los Berros*, anteriormente denominado *Los Berros de Berage*, de *berro* «roza», «rotura». Se documenta también como *Berau*, y no sabemos si no habrá que leer el *Berague* de la documentación como *Beragüe*. *Beragu* es el nombre de un monte situado entre Eslava y Gallipienzo, y también un término de Aezkoa.
- *Berageondoa*. Derivado del anterior, con *ondoa* «junto a», «al lado de».
- *Beraiz*. Era el nombre de un puente. *Beraitz* es una localidad de Olabar, que no está lejos de la capital. Se pueden dar varias explicaciones etimológicas del topónimo pero no voy a entrar en ello.

- *Berroandia*. Parece que estaba en *Los Berros* o *Berage*; se documenta también como *Berro grande de la Villa*. Es un compuesto de *berro* «roza», «rotura» y *handia* «grande».
- *Bidemakurra*. Se le llamaba así al camino de *La Tejería* y a los alrededores. Sus componentes son *bide* «camino» y *makurra* «torcido», «el camino torcido». Compárese con *Retuerta* «el barranco torcido, tuerto».
- *Bidezabala*. No sabemos de qué término o camino se trata. Es un compuesto de *bide* «camino» + *zabala* «ancho»; es, por lo tanto, «el camino ancho».
- *Bikuaga*. Parece que estaba en *Txorria*. La base es *biku* «higuera» y el sufijo *-aga*; se puede traducir por «el sitio de la higuera», «las higueras».
- *Bizkarra* (*Carrera de la Bizkarra*). Se documenta una vez, en 1691, dentro del pueblo. Parece que es uno de los caminos, carreteras ahora, que iban hacia la iglesia.
- *Boxagarea*. Estaba en *La Sierra*, no lejos de *Bigas*. Es un préstamo romance, y se puede traducir por «el bojagal», «sitio donde hay bojes», lo que en otros lugares, en euskera, se ha dicho *Ezpelaga*, *Ezpeleuia*, *Ezpeleta*...
- *Burgaloki*. Estaba en *La Sierra*, al lado del camino que subían de Pitiillas, barrio de Ujué hasta 1800, a *Berage* (*Los Berros*). Parece un derivado de *burgari* «vecino que gratuitamente turna como guarda de campo en los lugares pequeños» (en Álava), derivado a su vez de *burgu* «burgo» más el sufijo de agente *-ari*, y el locativo *-oki* «lugar de», similar al *Iguraimendia*, *Iguraimendikoa* (*Altico de la guarda* actualmente) de Lerga.
- *Burnizirieta*. Estaba en *La Sierra*; según un documento de 1746 fue sustituido por *Astrakastillu*. Tiene muchas variantes; el primer elemento parece que es *burni* (también *burruna*-) «burdina», «hierro». El final es el sufijo locativo-abundancial *-eta*, pero el elemento intermedio no es claro.
- *Busazarra*. Podría indicar el despoblado de *Busa* de la lista de 1534. *Busa* no es transparente y *zarra* es «zaharra», «viejo»; equivale pues a «Busa viejo».
- *Butzubidea*. No sabemos de qué camino se trata; es un compuesto de *butzu* «pozo» y *bidea* «camino», «el camino del pozo», «el camino de los pozos».
- *Butzumear*. Estaba en la *Aldabea de Aitzandieta*, al lado de la senda de *La Sierra*, entre dos barrancos. Se trata de «el pozo estrecho».

- *Dorreberria*. Estaba en el pueblo, junto a unas eras y al camino real, y sería seguramente una casa torre y el terreno contiguo. Sus componentes son *dorre* «torre» y *berria* «nueva», lo que quiere decir que habría también alguna **Dorrezarra* «torre vieja» que no hemos documentado.
- *Drinda*. Estaba en la *Aldabea de Turtunbera*, al lado de San Miguel, y parece que hay que identificarlo con *El Camino de las Cruces*. Es, creo, una variante de *inda*, *dinda* de otras zonas, y significa «camino» o «calleja».
- *Drindabe*. Era la parte situada debajo (-be) de *Drinda*.
- *Errekazarra*. Estaba en la *Aldabea de Aitzandieta*, al lado del barranco (o de alguna barranquilla). Es un compuesto del hidrónimo *erreka* «regacho», «barranco»...etc., y *zarra* «viejo»; se traduce por «el barranco viejo».
- *Erripazarreta*. Estaba junto a *Lakubeli*, al lado de los caminos que van a *El Vedado* y Murillo. Se documenta también con segundo elemento -*zurieta*, *zubieta*; el primero es *erripa*, nombre de una localidad de Odieta y término que significa «cuesta (al lado de un curso de agua)», «declive». El sufijo es -*eta* y el elemento intermedio, teniendo en cuenta los testimonios documentales encontrados, puede ser *zar* «vieja», *zuri* «blanca» o *zubi* «puente».
- *Eskobarea*. Estaba entre *El Vedado* y *Zapaiz*, cerca del paso de *Apeztegiatorra* «la pieza de la abadía» (*Pistalorra* ahora). Se trata de un préstamo, de «el escobar», porque habría mucho escobizo, equivalente a *Utsaskieta* y *El Escopizar* de Sada.
- *Etxeandieta*. Era una casa o barrio del pueblo, en la parte de San Miguel. Se trata de «el sitio de la casa grande», de *etxe* «casa», *handi* «grande», y -*eta*, sufijo seguramente locativo en este caso.
- *Ezkabiazuloa*. Estaba en la *Aldabea de Aitzandieta*; es un compuesto de *ezkabia* «tiña», «sarna» y *zuloa* «agujero», «hoyo», «el hoyo de la tiña», «el agujero de la sarna». Es parecido a *La Tiña*, topónimo de Murillite en 1652.
- *Gazteluondoa*. También *Gaztelondoa*. Es «lo de junto al castillo», es decir *El Castellazo*, de *gaztelu* «castillo» y *ondoa* «junto a». Una vez se documenta *Gaztelu* «(El) Castillo» como término.
- *Gesal* (*pieza del*). *Gesal*, *gezal* es «salitre» en castellano, «tierra que tiene mucha sal», de donde *Gesalatz*, valle navarro en el que está situada la localidad de *Salinas de Oro*, *Jaitz* en euskera, conocida por sus saleras.

- *Gortederreta*. Estaba en *Mostrakas*. Es un compuesto de *gorte* «corral», *eder* «bonito», «hermoso» y el sufijo *-eta* «el sitio del corral hermoso», «los corrales hermosos».
- *Gurutzegibela*. Era la parte de detrás de la cruz, de *gurutze* «cruz» y *gibela* «parte trasera».
- *Gurutzezabala*. Estaba junto al pueblo, entre los caminos de la fuente de *Aitzandiet*a y el camino de *La Sierra*, junto al camino de la llamada *Tejería de abajo*. De *gurutze* y *zabala* «la cruz ancha».
- *Idoitxiki (balsa)*. Se encontraba cerca del pueblo (*Balsa de Muelas?*); se trata de *idoi* «balsa» y *txiki* «pequeña».
- *Iribarren*. Era el nombre de un barrio; de *hiri* «localidad», «villa» y *barren* «parte baja de un terreno situado en cuesta». Se traduce por «(el) barrio bajo». Esto supone que había además, al menos, un **Irigoi*en «barrio alto» no documentado en euskera en el pueblo.
- *Iturria, Iturrialdea, Iturriberri, Iturrizar, Iturrondoa*, además de *La Fuente de Iturrizarra*, llamada hoy *La Fuente Turruciales*, en unos de los barrancos de *Basandía*. *Iturrondoa* «lo de junto a la fuente» era uno de los despoblados de Ujué en la lista de 1534.
- *Jaun Done Martia*, documentado *Juan de Martia*, similar al *Juan de Salvatore eguna* «día de San Salvador» que emplea Lizarraga el de Elcano y a los numerosos hagiopónimos que tienen *de*, de un anterior *dene* y éste de *done* «san». Es el mismo que en castellano se documenta como *Barrio de San Martín*, en el que se encontraba la *Ermita de San Martín*. Estaba en *Pirolarraña*, en *La Pilarraña*.
- *Juangarziarana*. Estaba en *Otrollos*; es «el valle, el barranco, la barrancada de Juan García».
- *Kaltxista*. Estaba hacia *Akirazabal (Lakilazaba)*, al lado de los caminos de *Otrollos* y *Olite*. No es transparente.
- *Korbarana*. No sé dónde estaba. Lo he documentado tres veces, en cada ocasión de manera diferente. El final parece que es *haran* «valle», «barrancada», «barranco» y el primer elemento podría ser el antropónimo *Korboran, Corborán*, pero esto no pasa de ser una suposición.
- *Korralandia*. Se documenta una vez, en 1727, fecha en la que se cobra a un tal *Joseph de Salaverri* por la arrendación de la pieza de *Corralandia*. Quiere decir «el corral grande».
- *Lauzatea, Lauzatzea, Lezkatzea*. Estaba al lado de *Akirazabal*, en la muga de *Busa*. El primero y el segundo son derivados de *lauza* «losa», con *atea* «portillo» y *-tzea* sufijo colectivo, «el portillo de las losas»,

«el losal», y el tercero es un derivado del fitónimo *lezka* «el lezcal» con el mismo sufijo, equivalente a *Lezkairu*.

- *Lerbeztxiki*. Es un compuesto del topónimo *Lerbez* y de *txiki* o *txipi* «pequeño». *Lerbez*, por su parte, parece que está formado de *ler* «pino» y *beltz* «negro», es decir, sería «el pino negro», pero el hecho de que no tenga ni artículo ni sufijo de ningún tipo nos tendría que hacer buscar, tal vez, una explicación diferente. Tanto *Lerbez* como *Lerbeztxiki* son dos de los despoblados de la lista de 1534.
- *Lizarduia*. Estaba cerca de la *Fuente de San Nicolás*. Es un compuesto de *lizar* «fresno» y el sufijo colectivo *-dui*, «la fresneda».
- *Madonalorra* o *Pieza de Madonao*. Estaba en *Otrollos*; parece un compuesto de *Madonao*, que podría ser un antropónimo no documentado, y *alorra* «pieza».
- *Mendigorria*. Era un alto de la *Aldabea*, de la de *Aitzandieta* seguramente, pero no sé cuál. Es «el monte rojo» o más probablemente «el monte calvo», «el monte pelado, el monte sin árboles».
- *Mikelen zabal*. Estaba situado entre *Zaubio*, *Otrollos* y *Busa*. En el primer testimonio tenemos *Mikelazabal*, con lo que la base podría ser el femenino *Mikela* «Micaela», además de *Mikel* o *Mikele* «Miguel». *Zabal* es una zona donde el monte se ensancha, como en *Akirazabal*, topónimo con base euskérica (*Akira-*) del mismo origen que *Aguilar*.
- *Miravalles*. Es este un topónimo bien conocido en otras localidades, similar al antiguo *Mirabueno(s)* y al moderno *Vistabella*. Estaba en la *Aldabea de Aitzandieta*, al lado de *Lakubeli*, en la parte de arriba seguramente, como sugiere el nombre.
- *Munos*. Es uno de los despoblados de la lista de 1534 que se convirtió luego en nombre de término. Estaba cerca de la ermita, próximo a un barranco.
- *Muñukukulua*. Es posible que haya que leerlo *Muñu(s)ko zuloa* y relacionarlo con *Munos*, que también se documenta como *Muñoz*, pero puede pensarse, igualmente, que el segundo elemento es *kukulua* «cogollo», «cima», «cumbre», «punta». Estaba en *La Sierra* y afrontaba con el camino de *Sulue* (*Sule* ahora).
- *Mutxurromendi*. No sabemos dónde estaba; parece querer decir «monte afilado», algo parecido al conocido *Mendizorrotza* de Gasteiz o *Munikotxorrotx* de Lerga. *Mutxurromendi* se documenta en Zirauki en 1283 y *Mutxurru* (Etxaleku) o *Mutxurro* (Oskotz) es un alto de 640 metros. En Goldaratz *Ttuturru* es el alto del término llamado *Ollondo*.

- *Nobeleta*. Estaba entre *Lezkatzea*, *Busa*, *Otrollos* y *Mikelen zabal*. Es un compuesto de *nobela* «viña nueva», «plantado» y el sufijo *-eta*.
- *Odia*. Estaba en *La Sierra*, cerca de la ermita. Se trata de *hodi* «regacho», «barranquilla»..., que está en la base de *Odieta*, nombre de un valle navarro.
- *Opelamendi*. Estaba en una de las Aldabeas, pero no sé en cuál. El primer elemento no es claro, pero sí el segundo, *mendi* «monte».
- *Ormaizkieta*. Parece que designaba la parte baja de lo que hoy se llama *Carasolalto*, lo del molino. No es transparente; el sufijo es posiblemente *-kieta*, variante de *-keta*, a su vez variante de *-eta* tras sibilante. La base, *Ormaiz-*, se puede relacionar con *horma* «pared», «muro», y también con *Orbaiz*, nombre de una localidad de Longida.
- *Osinaga (Camino de la Osinaga)*. Los componentes del topónimo pueden ser *osin* «pozo de barranco, río» y el sufijo *-aga*, pero con ese valor tenemos **usuin*, *osuin*, no *osin*, en los topónimos *Lixuñeta* de Es-lava, *Lisuñeta* de Etxague y *Ligusuñeta* de Sada, los tres con el significado original de «el pozo donde se lava el lino», «los pozos de lavar el lino». Cf., además, *Usunbeltz*, nombre de un despoblado de la Bizkaia. También se puede interpretar como «lugar de ortigas», «ortigal», pero en Ujué esperaríamos *asuin* u otra variante parecida, no *osin*.
- *Otrollosandi*, *Otrollostxiki*. Mediante *handi* «grande» y *txiki* «pequeño» eran designadas dos zonas distintas del actual *Otrollos*, correspondientes al emplazamiento de los despoblados que en 1534 se documentan como *Otrollos el grande* y *Otrollos el chico*.
- *Otroperitzu*. Estaba junto al camino de Beire, al lado de *Otrollos(txiki)* o dentro de él. Parece que el primer elemento es el mismo que tenemos en *Otrollos*, pero ni uno ni otro son transparentes.
- *Petringesala*. Quizás haya que identificarlo con *El Salobrar* actual, en *Otrollos*. Es un compuesto de *Petri* «Pedro», el morfema de genitivo y *gesala* «salitre». Se puede traducir por «el salobrar de Pedro».
- *Puendelazapata*. Estaba en *Beskos*, en el barranco seguramente, dado que es un compuesto de *puen-*, de un anterior *puente*. *Zapata* podría ser el apellido *Zapata* del pueblo, pero no es seguro, por el artículo que le precede.
- *Sandimas*. Es uno de los despoblados de 1534. No es claro, pero el primer elemento podría ser *sandi-* «santo», del latín *sancti*, presente por ejemplo en *Sanditisi*, *Santitisi* «San Tirso» de Gallipienzo.
- *Sanmartinmuga*. Era la muga de San Martín, en Txutxu.

- *Sanmigelaldea*. Era lo de junto (*aldea*) a San Miguel, lo tocante a *San Miguel*.
- *Santodomingogibela*. La parte de atrás (*gibela*) de Santo Domingo, mirando el término desde el camino que va del pueblo.
- *Soroandia*. Era el nombre de una pieza situada en *Basandia*. De *soro* «pieza», lo mismo que *alorra*, y *handia* «grande», «la pieza grande».
- *Sulueburu* o *Suluburu*. Es el cabezo (*buru*) de *Sulue*, de lo que ahora se llama *Sule*, con posible sufijo locativo *-ue*, pero la base no es clara. No sé si es lo mismo que *Sulumendi* «el monte de Sulue».
- *Txindilotxaga*. Estaba en *Urteaga*, no lejos de *Otrollo*s. Podría ser fruto de una pequeña deformación de **Txindilatzeaga* «el lentejar».
- *Udareaga*. Estaba en *Beskos*, en *Puendelazapata*. Se trata de «el sitio del peral» o «los perales».
- *Villantigua*. Es uno de los despoblados de 1534 que se convirtió en nombre de término. Estaba en la *Aldabea de Turtunbera*, entre *Aizkanbela* (*Eskanbela*) y *Aliaga*, en el camino del molino (del Aragón) o camino de Gallipienzo.
- *Zabala*. Era el nombre de un linar de *Villantigua*, llamado así porque era ancho, seguramente al contrario que otros contiguos.
- *Zabalburua*. De *zabal* «ancho», «espacio amplio» y *buru* «cabezo», «alto». No se ve claro si tiene que ver con el linar de *Zabala*, con el término de *Zabalondoa* (*Zarabandoa*) o con algún otro.
- *Zabartu*. Nombre euskérico, con aspecto de participio, pero no del todo claro, aunque *zabar* «dejado», «descuidado» es conocido. Era un despoblado de la lista de 1534 tantas veces mencionada.
- *Zautelu* (*Aldabea*). Estaba al lado de *Aliaga*, en el barranco. Es un diminutivo de *saltus*, y procede, exactamente, de **Sautellu*, forma que presenta vocalización de la lateral *l* ante oclusiva dental sorda. Es «(el) sotillo».
- *Zazu*. Estaba junto a *Zaubio*. Se trata del equivalente euskérico de *saso* «llano elevado y cascajoso» empleado en Ujué y en otras localidades, un genérico sin ningún lugar a dudas.
- *Zuaizkieta*. No sé dónde estaba; es un derivado de *zuhaitz* «árbol» (cf. *Arbolaga*) más *-kieta*. Se puede traducir por «el sitio del árbol», «el lugar de los árboles».
- *Zubia*. Era un puente que debía de estar en el camino de la Sierra, en el barranco de *Aitzandieta*. También designaría, como es habitual, las tierras de alrededor.

Habría muchas cosas más para comentar, pero valga lo dicho como muestra de la omnipresencia del euskera en los nombres de los términos de la villa, señal de que antaño era la lengua cotidiana de los ujetarras. Sabemos, gracias a Jimeno Jurío (1997: 174), que en el siglo XVIII aquí se hablaba euskera, lo mismo que en Lerga y Eslava por ejemplo, aunque no conocemos el grado de bilingüismo de la población, ni tampoco, de manera exacta, hasta cuándo sobrevivió la lengua, pero no sería de extrañar que se hubiera extinguido con el cambio de siglo, a principios del XIX, como en Artajona. El hecho de que en la iglesia de la villa haya un ejemplar de *Jesukristoren imitazionea* del párroco de San Juan de Luz Mixel Xurio, obra publicada por primera vez en 1720, nos lleva a pensar que fue utilizada a partir de esta fecha por algún cura de aquí, seguramente para preparar sus sermones.

Gracias a todos por vuestra asistencia e interés.

HAMAHIRUGARRENA UXUEKOA, ERRIBERRIKO MERINDADEKOA

(Patxi Salaberri Zaratiegi euskaltzainaren sarrera hitzaldiari erantzuna)

Andres Iñigo

Uxueko alkate andrea,
euskaltzainburu jauna,
agintari jaun-andreak,
euskaltzainkideak,
euskaltzain berriaren familia,
uxuetarrak,
jaun-andreak.

Pozgarri zait sarrera hitzaldi honi erantzuna ematea, Patxi Salaberri adis-kideak berak eskatu didalako eta bere sorterrian delako, hemen Uxuen, puntu kardinalen arabera Pirinioak eta Moncayo, Aragoiko eta Errioxako mugak begien bistan dituen begiratoki paregabe honetan. Erdi Aroko aztarnak eta egitura ederki gordetzen dituen hiribildu honen kaxkoan dagoen gaztelua –aspaldi eliza bihurtua– Iruñeko Erresumak lehenik eta Nafarroakoak ondotik zaintzailtzarako eraiki zuten.

Nafarroako Erresumak hasiera batean defentsarako soilik erabili zuen leku erakargarri hau, ikasketa, ikerketa eta kulturaren zaintza eta zabalkunderako ikur bihurtzeko asmoa ere izan zuen. Jakina da XIV. mendean Evreux Etxeko Karlos II.ak unibertsitatea eraiki nahi izan zuela hemen, oraindik ere agerian dauden zimenduek erakusten duten bezala. Asmo eder hura gauzatzetik izan ez bazuen ere, Uxueko Andre Mariari zion maitasunaren seinale, hildakoan bere bihotza eliza honetan uzteko agindu zuen.

Goi Erdi Aroan Nafarroako Erresuma sortu berriaren defentsarako gaztelu, Behe Erdi Aroan Erresumaren kultura-gunerako egitasmo, eta mendez mende gaurdaino bere inguru zabalean dauden Erriberri eta Zangoza Merindadeetako eta Erriberako herri anitzen ikur erlijiosoa da.

Euskal Herrian eta Euskal Herritik kanpo hainbat eta hainbat neskari ponte izena eman dion hiribildu hau euskaraz mintzo zela egiaztatu zuen euskaltzain berriak orain dela hamalau urte burutu zuen doktore-tesian, eta gaurko hitzaldi zehatz eta mamitsuan ere ezin argiago berretsi digu.

Erranahi berezikoa da gaur Nafarroan ospatzen ari garen Euskaltzaindiaren ekitaldi hau eta, aldi berean, adierazgarria. Sortu zeneko mendeurrena betetzeko hamabi urte falta zaizkion euskararen Akademiak Nafarroa Garaia ordezkatu duten hamabi euskaltzain izan ditu: Arturo Campi3n eta Jose Agerre Iruñekoak, Aita Damaso Intzakoa, Aingeru Irigarai Berakoa (tartean «ordezko» izendatuak izan ziren Eladio Espartza Lesakakoa eta Juan Miguel Seminario de Rojas Berakoa), eta gero Jose Mari Satrustegi Arruazukoa, Aita Polikarpo Iraizozkoa, Patxi Ondarra Bakaikukoa, Pello Salaburu Arizkungoa, Patxi Zabaleta Leitzakoa eta Andres Iñigo Iturengoa. Hamabiak Iruñeko Merindadekoak eta hamabi horien sorterriak Nafarroako lerro paralelo irudikatuen arabera kokatzen baldin baditugu, ikusten ahal dugu denak Iruñeko lerro paralelotik goitiagokoak direla, hiriburutik iparralderakoak. Horregatik, hamahirugarrenaren izendapenak erranahi berezia du, aldaketa kualitatibo adierazgarria baitakarkio Nafarroari, bere hiriburuko lerro paralelotik 53 kilometro beheago dagoen herri honetakoa izateaz gain, Erriberriko Merindadeko lehendabiziko euskaltzaina delako.

Hona aintzat hartzeko datua: nafar agintariak 1986an Foru Komunitatea hiru hizkuntza eremutan zatitu eta, handik hogeituro, euskaltzain berria nongoa izanen eta «eremu ez euskalduneko», Nafarroako Erresumak Erriberako mugan bertan zuen behatoki historiko honetakoa, alegia. Hori aski ez dela, sarrera hitzaldian zer egiaztatuko eta bere sorterri historiko honetako izenen jatorri euskalduna eta herriaren berandu arteko euskalduntasuna. Adierazgarria ala paradoxikoa? Urratsez urrats Europa baturantz goazen urte hauetan, mugak ezabatzen eta desagertzen ari diren garaian, eta, bereziki, komunikazioaren munduak muga guztiak urratu dituenean, gure Erkidegoak hiru hizkuntza eremu horietan zatitua izaten segitzen du, gero eta paradoxa nabariagoa sortuz. Ez da, bada, paradoxikoa, erraterako, Nafarroako eremu ez euskaldunean dagoen hiribildu honetako edozein biztanlek Foru Komunitateko administrazioaren zerbitzu publikoekin ez bezala, Strasburgon dagoen Europako Legebiltzarrekin harremanak euskaraz izateko eskubideak bermatuak izatea? Espero dezagun Europako Erakunde gorenean begiztatzen hasi berri den jarrera itxaropentsu hori argi berri baten urrezko printza izatea, gure lurralde honetako egoera hertsia epe laburrean askatzen lagunduko diguna.

Sarrera hitzaldiko aitabitxiari euskaltzain berriaz mintzatzea eskatzen zaio. Hasiko naiz, bada, gehiago luzatu gabe, zeregin hori betetzen.

* * *

Patxi Salaberri Zaratiegi Uxuen jaio zen 1959ko apirilaren 24an. Gildok eta Solek izandako hiru seme-alaben artean gazteena da, Marisarekin ezkondua eta Haritz eta Iker (edo Iker eta Haritz) bikien aita. Eta etxeok aipatu ditudanez gero, ezin oroitzapen berezi bat egin gabe utzi, orain dela 22 egun gure artetik joan zitzaigun Gildo, Patxiren aita. Lehenengo lerroan berari ze-

gokion aulkian esertzerik ez izan arren, ziur gaude pozik eta harro ariko dela ospatzen, gurekin batera, beretzat ere hain erranahi bereziko ekitaldi hau.

Familia Iruñera joan zen bizitzera Patxik bospasei urte zituenean eta han egin zituen batxilergoa eta unibertsitateko ikasketak. Mutikotan bere sorterrian hainbertze euskal izen ikasi eta erabiltzeaz gain, Salaberri eta Zaratiegi deiturak zituen gazteak barne-barnean zeraman nonbait sorlekuan ikasterik izan ez zuen hizkuntzarekiko jakin-mina eta ikasten hasteko motibazioa eta gogo bizia.

Kontua da hamabortz urtetan, batxilergoa egiten ari zelarik, Arturo Campión euskaltegira jo, hiru urtez hizkuntza ongi ikastea lortu, eta handik gutxira Euskaltzaindiaren D titulua eskuratu zuela. Zalantzarik gabe, orduz geroztik euskara Patxiren lehen hizkuntza izan da. Bidenabar erran nahi dut Nafarroako Arturo Campión lehendabiziko euskaltzainaren izena daraman helduen euskaltegiak, azkeneko 34 urteotan Iruñerrian egiten ari den euskalduntze eta alfabetatze lanagatik, aitormen berezia merezi duela. Eta ez dut aipatu gabe utzi nahi bere hasierako zazpi urteetako zuzendaria geroago euskaltzain izendatutako Patxi Zabaleta izan zela, eta azkeneko hogeita lau urteotan ardua horretan ari dena Sagrario Aleman, urgazle izendatu berria dela.

Ez naiz ongi oroitzen noiz ezagutu nuen Patxi Salaberri, baina uste dut 1981ean izan zela, Euskaltzaindiak Deban antolatutako I. Dialektologia jardunaldietan. Ederki oroitzen naiz, ordea, hamarren bat minutuz aurrez aurre egon ginen lehendabiziko aldiaz. 1983an, orduko Hezkuntza Ministerioaren Nafarroako Ordezkarria (Román Felones jauna) Iruñeko Hizkuntza Eskolara etorri zitzaidan Nafarroako eskoletan euskara eta euskaraz irakasteko hautagai zirenei hizkuntza gaitasunaren proba egiteko eskatzera. Hizkuntza Eskolako hiru irakaslek osatu genuen epaimahaia. Espero baino hautagai gehiago aurkeztu zirenez gero, proba idatzia amaitu ondotik, ikusirik ezinezko zitzaigula hiruko epaimahai batek egun bakarrean ikasle bakoitzari hamar minutuko ahozko proba egitea, ikasleak alfabetoaren arabera hiru zerrendatan banatu eta irakasle bakoitzari zegokiguna eman zitzaigun. Niri hirugarren zerrendakoak tokatu zitzaizkidan, *M* eta *Z* letra bitarteko hautagaiak hain zuzen. Baziren euskaldun zaharrak eta egoki hitz egiten zutenak, baina aitortu behar dut haietako bat hamar minutu baino gehiago edukitzeaz gain, gogor zirikatu nuela ea akatsen bat egiten ote zuten, baina alferrik, euskaldun berri hari notarik altuena jarri behar izan nion.

Patxik bi lizentziatura ditu, bata Filologia Hispanikoan, Nafarroako Unibertsitatean 1982an lortua, eta bertzea, hiru urte geroago eta lanean ari zen bitartean, Euskal Filologian Euskal Herriko Unibertsitatean eskuratua. Azken Unibertsitate honetan aurkeztu zuen 1992an *Nafarroako Ekierdialdeko Euskararen Azterketa Toponimiaren bidez* izenburuko doktore-tesia eta ikasturte horretako humanitate arloko «Doktoregoaren sari ohi ez bezalakoa» jaso zuen.

Lanbidez irakaslea da. D titulua eskuratu berri hartan urte batzuez behatu zen ofizio horretan euskara ikasi zuen euskaltegian berean. Lehendabiziko lizentziatura lortu ondotik, hiruzpalau hilabetez Erratzuko eskolan maisu ari-

tu bazen ere, 1984ko urtarrilaz geroztik gaurdaino unibertsitatean ari da irakasten. Hasiera batean Nafarroako maisu-maistren Irakasle Eskolan, eta 1990etik aitzina Nafarroako Unibertsitate Publikoan. 1995az geroztik Euskal Filologia arloko irakasle titularra da. Irakaskuntzaz gain, bertze ardura batzuk ere izan ditu unibertsitate berean, hala nola, Giza eta Gizarte Zientzien Fakultateko idazkari, Filologia eta Hizkuntzaren Didaktika Saileko zuzendari, Ikerketa Batzordeko kide, Hizkuntza Normalizaziorako Batzordeko kide, Hizkuntza Plangintzarako Errektoreari Atxikia eta Euskararen Plangintzarako Batzordeko buru.

Baina Patxi, nire ustez, guztien gainera, ikertzailea da, afizioz eta ofizioz. Afizioa Euskal Filologian lizentziatu ondotik hasi eta etengabeko jarduerak erakusten du, eta ofizioa egin dituen lanen kalitateak.

Ikus dezagun, bada, zein diren lan horiek. Onomastika da Patxik gehien ikertu duen arloa. Gai horretan Nafarroan aitzindari, gidari eta maisu izan zen Jose Mari Jimeno Jurio euskaltzain ohorezkoak ez zuen huts egin, Euskaltzaindiaren eskariz, *Nafarroako Herri Izendegia* lanaren zuzendaritza ardurari ekiteko Patxi Salaberri bere hurbileneko laguntzaile hautatu zuenean. Laguntzaile hasierako lan hartan, hizkuntza aholkulari eta bidaide 59 liburukik osatzen duten Nafarroako Gobernuaren *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* proiektuan, eta ondotik elkarrekin egin zituztenetan, erraterako, *Estudio topográfico de Burlada*, *Toponimia de la Cuenca de Pamplona/Iruña* eta *Artaxoa*. *Euskal Toponimia* liburuetan eta bertze hainbat lanetan. Bi egile hauek mai-suki bateratu zituzten ikerkuntzaren bi arlo desberdin eta osagarriak: historia-koa eta linguistikoa. Gainera, orain bertan, argitaratzen ari diren Jimeno Jurioren lan guztien bildumaren toponimiari buruzko liburukien prestaketa Patxi Saberrirren esku utzi dute artaxoarraren familiak eta argitaratzaileek.

Hasierako urte haietan egin zuen Patxik bere doktore-tesia, eta anitz dira orduz geroztik onomastikaren atal gehienak azertzen egin dituen lan garrantzitsu eta mamitsuak. Toponimia, antroponimia, hagianimia, oikonimia eta onomastikaren bertze alderdi osagarri batzuk ukitzen dituzten artikulua ugari eman ditu argitara *Fontes Linguae Vasconum* eta *Euskera* aldizkarietan batik bat. Halaber, hala Euskal Herriko, nola Euskal Herritik kanpoko unibertsitate eta nazioarteko zenbait erakundetako biltzar, jardunaldi, omenaldi liburu eta abarretan argitara eman dituenak.

Joan den hemezortzi urte hauetan Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordean ari da lanean. Hasiera batean, *Nafarroako Herri Izendegia* lanaren materialak prestatu ahala, bileretara Jimeno Jurioren laguntzaile edo aholkulari gisa joaten hasi bazen ere, berehala jabetu ziren bai Henrike Knörr eta Jose Luis Lizundia orduko batzordeburu eta idazkaria, bai Alfontso Irigoien, Jose Mari Satrustegi, Juanito San Martin eta gainerako batzordekideak noizbehinkako aholkulari hura kide izendatu beharraz. 1989az geroztik, buru-belarri ari da Batzordearen lanetan eta ardura nagusiak izan ditu beti. Berak prestatu zi-

tuen toponimia nagusia arautzeko irizpideak eta ondotik, Mikel Gorrotxategi-ekin batera, bai toponimia txikia eta hiri-izendegia arautzeko irizpideak, bai 2001ean argitara emandako *Ponte Izendegia*. Onomastika Batzordean Patxik behin eta berriz hartu du bere gain ikerketa sakona eskatzen duten gai korapilatsuen txostenen ardura. Horien lekuko ditugu, bertze lan anitzen artean, *Ainhize, Altsasu, Deio, Uharte, Urdaitz, Ziortza* izenei buruzkoak, *Santu, san, done eta inguruko*en txostena, *Nafarroa Behereko herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia* izenburuko liburua, Euskaltzaindiak baliatu zuen proposamena herrialde horretako herri izenak arautzeko. Batzordeak Henrike Knörreren zuzendaritzapean sortutako *Onomasticon Vasconiae* bildumaren 11. eta 12. liburukien egile da Patxi eta, gainera, 8., 13., 15., eta 18. liburukien hizkuntza aholkulari eta gainbegirale izan da.

Baina Patxi Salaberriren ikerketa lana ez da onomastikara soilik mugatu. Dialektologia, hiztegegintza, joserka eta hizkuntzaren bertze zenbait ezaugarri ere aztergai izan ditu. Horren lekuko dira plazaratu duen artikulu sail ederra, hala nola, Iruñerriko eta bere inguruetako ibarretako euskara, Arabako mugako nafar hizkerak, toponimia eta dialektologiaren arteko harremanak, Muzkiko F. Elizalderen *Apezendaco doctrina christiana uscaras*, etab. aztertzen dituztenak, bai eta Peio Kamino luzaidarrarekin batera argitara ematen ari den Luzaideko zenbait testuren azterketa eta bertako euskararen ezaugarriak, edota Patxi Iñigo eta Juan Joxe Zubirirekin *-ki* aditz-atzizkiaren gainean egindako lan interesgarria.

Aspaldixko ikusten nion bertze kezka bat ere gaur ezin argiago azaldu digu: euskara batuaren mesedetan nafarreraren puzzlea osatu beharra, eta zeregin horretarako, batez ere, Lizarraga Elkanokoaren altxorra sakonki aztertu beharra. Gainera, kontuan hartu beharrekoa da Salaberri Nafarroako Unibertsitate Publikoan eta Euskal Herriko Unibertsitatean bortz ikerketa proiektutan parte hartu duela eta bortzak dialektologiaren ingurukoak izan direla, horien artean bere ardurapean NUPen amaitu berri duen «Nafarroako hizkera adierazkorraz» izenburuko lana.

Eta ikerketa lan eta proiektuez ari garela, ezin aipatu gabe utzi jaso dituen hiru sari nagusiak. Lehentxeago aipatu dudan bezala, 1992-93 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitatean humanitate arloko «Doktoregoaren sari ohi ez bezalakoa» ikasturte horretan aurkeztu zuen *Nafarroako Ekiardialdeko Euskararen Azterketa Toponimiaren bidez* izenburuko doktore-tesiagatik, 1994an Nafarroako Unibertsitate Publikoan «Ikerketa sari ohi ez bezalakoa» Jose Mari Jimeno Juriorekin batera prestatutako *Toponimia de la Cuenca de Pamplona/Iruña* lanagatik, eta 2002an Eibarko Udalak sortu zuen *Juan San Martin* ikerketa beka bere lehendabiziko deian, urte bat geroago Udako Euskal Unibertsitatearen bidez argitara eman zen *Euskal Deiturategia: Patronimikoak* lanagatik.

2003an Jose Mari Satrustegi zendu zenean, Príncipe de Viana Erakundearen *Fontes Linguae Vasconum, studia et documenta* aldizkariaren zuzendari

izendatzean, Nafarroako Gobernuak Patxi Salaberriri lan zama berriaren ardua baino gehiago aitorten saria eman nahi izan ziolakoan nago.

Nire eginbeharra betetzearren, laburbilduz izan bada ere, Euskaltzaindiak orain dela hamazazpi urte Onomastika batzordekide, handik zazpita urgazle eta joan den abenduan euskaltzain oso izendatu zuen Patxi Salaberriren *curriculum*a azaltzen saiatu naiz.

Lehen aipatu dut noiz eta nola ezagutu nuen Patxi. Orduz geroztik, hala-beharrez edo kasualitatez, elkarrekin aritu gara zenbait lanetan, lehenik Jose Mari Jimeno Jurioren zuzendaritzapean egin zen *Nafarroako Herri Izendegia*-n, ondoren *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza* proiekturako artaxoarraren eskariari erantzunez, Euskaltzaindiak hizkuntza aholkulari proposatu gintuelako, eta horrela bertze hainbat ekitaldi eta lanetan. Azkenetako bat iazko Nafarroa Oinezarako, Altsasuko Ikastolak eskatuta, elkarrekin prestatu genuen *Jose Mari Satrutegi Nafarroako euskararen ikurra* liburua. Bateratsu izendatu gintuzten Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko kide eta bateratsu hasi ginen onomastikaz doktore-tesia egiten, baina aitzindu zitzaidan eta nik baino urte pare bat lehenago amaitu zuen. Hori dela eta, nirea aurkeztu nuenean epaimahaia osatu zutene-tako bat izan zen. 1983ko azterketa hartan bezala, biak aurrez aurre, baina orain-goan lekuz aldatuak, bera nire ikerketa lanaren iruzkingile eta zirikatzaile.

Adin kontuagatik, segur aski, bera baino urte batzuk lehenago izendatu ninduten euskaltzain eta, beharbada, horrek aukera eman dit gure Erakundeak hurbiltxeagotik edo barrenagotik ezagutzeko. Egia bada bizitza honetan adinak eta esperientziak nolabaiteko abantaila dakarrela, aukera hori aprobetxatuko dut eskatu didan erantzun honetako azken hitzak errateko.

Orain dela bi hilabete, Antzuolan, gaur bezalako ekitaldian Jean Haritschelhar euskaltzainburu ohiak, Ana Toledori erantzuna eman zionean, gogora ekarri zigun 1990. urtetik hona euskaltzainen kopuru erdia berritu dela, belaunaldi berri bat sartu dela Akademian. Andres Urrutia euskaltzainburuak joan den uztailean, Euskaltzaindiaren egoitzan urgazle berriak hartzeko ekitaldian, azpimarratu zuen garai berriek aterabide berriak eskatzen dituztela euskararen aitzindaritzeta eta zabalkunderako eta Euskaltzaindiak hortxe egon behar duela euskara eguneratuaren eskakizun eta premiei erantzun egokia ematen, proiektu zehatzen bidez eta batzordeetako lana ahalik eta hobekien eginez.

Patxi Salaberri dugu belaunaldi berri honetako euskaltzainik gazteena, baina jaun-andreok, ikusi ahal izan duzuen bezala, ez dator esku hutsik, me-rezimenduz jantzia baizik, Euskaltzaindian bertze nafar batek, Patxi Ondarrak, utzitako aulkia hartzera eta, Akademiaren proiektu eta batzordeetako lana aha-lik eta hobekien eginez, euskararen egungo eskakizun eta premiei erantzun egokia ematera.

* * *

Patxi, hemezortzi urte hauetan langile nekaezina haizela erakutsi diguk, laguntzeko beti prest hagoela, eskatzen zaizkian lanetan eta egiten zaizkian argibide eskaeretan beti garaiz erantzuten duana, zehatza eta zorrotza (*exijentea* erranen likek J. L. Lizundia batzordekideak) –heure buruarekin lehenik eta, ondorioz, gainerako guztiakin, ikasleekin (fama hori duala entzuna baitut kanpoan), lankide eta batzordekideekin (hau ez diat kanpoan entzun beharririk izan)–, gauzak ongi aztertu eta egiaztatu arte nekez amore ematen duana.

Euskaltzaindiak plazaratzen dituen emaitzak prozesu baten ondorio izaten dituk, aldez aurretik proiektu, lantalde eta batzordeetan egiten den lana osoko bilkuretako galbahetik pasatu eta ateratzen den fruitua. Prozesu horrek ongi bilbatutako talde lana eskatzen dik, abesbatza edo orkestra baten modura, lehenik ahots edo instrumentu bakoitzak, edo horietako talde bakoitzak, berari dagokion pentagrama edo *partitxela* ahalik eta hobekien aztertu, ikasi eta interpretatu behar dik, ondoren gainerako guztiakin elkartu eta, pentagrama bakoitzaren interpretazio zehatza partituran ageri diren gainerakoekin bat etortzeak eskatzen duen malgutasunarekin konbinatu eta denen artean helburu berbera lortzeko.

Bazakiagu Euskaltzaindian banan-banan sartzen garela, baina ez soilik banakako lana egitera, baizik eta Erakundearen konpromisoekin bat egin eta dagozkion erantzun egokiak ematera eta Euskararen Akademiak Euskal Herrian dituen helburuak betetzera.

Hemezortzi urtez egokitu zaizkian pentagramak zehatz eta zorrotz ikertu, prestatu eta interpretatu dituan hori, hator Erakunde honetan hiritako dugun aulkian esertzera, denekin batera euskarak bere etorkizunerako behar dituen partiturarik ederrenak egoki konposatu eta ematera. Ziur nagok, Patxi, hortxe izanen haugula eta hainbertze maite duan euskararen alde eginahal guztiak, eta bihotza ere jarritz, heure onena urte anitzez emanen duala Euskaltzaindian. Ongi etorri gure artera!

**MENDEURREN
ETA OSPAKIZUNAK**

JOAN PEREZ LAZARRAGA (1550-1605)
IDAZLEAREN IV. MENDEURRENA: 1605-2005

Ongietorria/Bienvenida

*Jose Felix Urrutia,
Barrundiako alkatea/Alcalde de Barrundia (*)*

Eguerdi on, jaun-andreok.

Ongi etorri udalerrri honetara.

Como alcalde de Barrundia es un honor participar en este acto en el que además de homenajear a un hijo del pueblo, la Real Academia de la Lengua Vasca celebra su primer acto institucional en la Cuadrilla de Agurain.

El segundo libro escrito en euskera que ha llegado hasta nosotros y el primero de tema no religioso fue hecho por un hijo de esta tierra, un alavés de Larrea. Además, por si esto fuera poco era de tema profano, hay que recordar que pasarían siglos hasta que se escribiera otro en euskera de tema no religioso. A nadie se le escapa que los libros necesitan lectores por lo que es de pensar que no fue un trabajo hecho para el solaz del autor, sino que estamos ante una realidad soterrada.

Está escrito en euskera de Álava, el euskera que se habló en Barrundia hasta mediados del siglo XX cuando murieron los últimos euskaldunes de Elgea. Las personas de mi edad recordarán que: vecinos de *Elgea*, como Apolonia Goitia o Andrés Uriarte hablaban en euskera. Hace unos días comentando con Luisa Sasigain, una mujer que en la actualidad tiene 84 años, entonces vivía en Elgea, me decía que sus padres María y Andrés se expresaban en euskera. El euskera en el que durante siglos hablaron nuestro ancestros. El euskera que llevó a América en 1511 otro vecino de *Elgea* llamado Lope al que llamaban *Gógor*.

Conviene recordar, aunque es un tema que los siguientes oradores, más versados que yo en estos temas, lo harán con mayor lujo de detalles, que cuan-

(*) 2005eko maiatzaren 28an, Barrundiako Udaletxean, Ozeta herrian (Araba) egin zen ekitaldiko *Ongietorria*. Ikus *Euskera* 2005,1 (50. liburukia) 119-170. orr.

do Bonaparte realizó su conocido mapa en el siglo XIX (1863) *Elgea*, *Marieta* y *Larrinzar* aparecían como monolingües vascos y *Ozeta*, *Larrea*, *Hermua*, *Otaza* y *Zuaza* también eran vasco hablantes aunque en regresión.

Aunque hoy en día las nuevas generaciones han recuperado nuestra lengua en el uso hablado, hay que recordar que este prácticamente desapareció. Pero nunca lo hizo del todo, se ha mantenido vivo en muchas de las palabras que usamos a diario, palabras como *aska*, *ametxa* o *tokolondoko* que nos recuerdan cual fue la lengua de nuestros abuelos.

Pero si alguien ha sido fiel al euskera, ha sido la toponimia. Conviene recordar y remarcar que los lugares de Barrundia se mantuvieron fieles a su pasado y han seguido y siguen «hablando» euskera. Nuestra toponimia no ha podido ser vencida y en muchos casos ha sido el único reducto que ha hecho frente a la romanización del valle.

De esta forma, en muchos casos estamos seguros que el propio Lazárraga no tendría ningún problema en identificar los lugares de *Kanpanpe* como su nombre indica, debajo de la torre de la iglesia, o el alto de Lakarra ambos en *Larrea*, o *Mugarriluce*, *Ospitalebaso*, *Karelabea*, *Erromesbidea* y tantos otros en el resto de los pueblos.

Creo que no debo extender más mi intervención, por lo que cedo la palabra a Andrés Urrutia, presidente de Euskaltzaindia.

Eskerrik asko.

NAFARROA OINEZ 2006

Bera, 2006-X-06

NAFARROA OINEZ 2006

Ongietorria

*Jon Abril,
Berako alkateordea*

Jaunak eta andreak, arratsalde on,

Berako Udalaren izenean eskerrik beroena agertu nahi diot Euskaltzaindiari gaur Beran izateagatik. Azken arauak, oraindik ez ditut ikasi, eta hortaz, akatsak zuzentzeko tenorean erruki pixka bat izanen duzuela espero dut. Beharrezkoa da, nire irudikoz, Euskaltzaindia bezalako erakunde batek tarteka bere batzarrak herrietara hurbiltzea, herritarrekin harremanetan egotea. Ez dadila bakarrik polemikaren aldea ikusi: solasteari utzi, solastatzeko; bat-batean hizkuntza jatorrerako arau berriak sortu; orain arte modu batera idatzi behar ziren hitz horiek, hainbertze kostata ikasi genituenak berriz ere molde zaharrera itzuli direlako...

Gaur, zuen lanaren zati ttiki bat agerian paratzeagatik, mila esker. Izan ere, Euskaltzaindiak euskararen normalizazioan egin duen eta egiten ari den lana eskertu nahi dut, eta bide horretan segi dezazuen animatu.

Euskaltzaindia ez ezik, administrazioa eta ikastolen mugimendua batu gara gaurko bilkura honetan. Euskalgintzako bertze sektore anitzekin elkarlanean jardundakoak, etorkizunean ere euskara izanen bada, elkarren eskutik lan eginez izanen baita. Baina baditugu erronka handiak, bereziki, oraindik euskararen mundura hurbildu ez direnak hurbilarazten.

Bere egunean ikastolen mugimenduak egin zuen bide bera dugu egiteko hainbat esparrutan, eta zer erranik ez Euskal Herriko ekialde parte honetan. Aisa atzentzen baitira gauzak. Orain 30-40 urte hainbat gurasok egin zuten apustua ausarta izan baitzen. Gutiegi errekonozitu zaie gazte ilusionatu eta maiz gaizki ulertu haiei, frankismoaren garaietan, giroa kontra zutela, euren seme-alabentzat bertze hezkuntza eredu bat nahi izateagatik egin zuten lana. Pedagogikoki berritzailea, zabala, integratzailea, eta gure kulturaren eta hizkuntzan guztiz txertatutakoa. Guraso haiek ireki zuten bidea, eta gibeletik etorri dira bertze aunitz. Guztien lana da eskertzekoa, ezbairik gabe, baina Nafarroa Oinezaren atarian, guraso horiek ekarri nahi ditut nik gogora.

Izan ere, nire gurasoek, Berako zein Euskal Herri osoko bertze guraso aunitzek bezala, euskararen aldeko apustua egin zuten, ikastolaren aldekoa. Une hartan hartutako erabaki hari esker dut nik euskara eguneroko hizkuntza, mundua ikusteko molde. Bihotzez, esker mila, nire gurasoek bezala bide hura ireki zigutenei, eta bidea zabaltzen segitzen dutenei, belaunaldi osoak euskarara ekartzea lortu baita.

Haien lekukoa hartu behar dugu, oraindik bidean lan anitz dugulako, eta zer erranik ez Nafarroan. Aunitz aitzinatu dugu hamarkada hauetan. Bertze horrenbertze egin behar dugu egunerokotasunean, karrikako erabileran, enpresa munduan, administrazioan, osasun arloan, komunikabideetan... Ezin dugu lorik hartu.

Giro politiko berriak ere horretan lagun diezagukeela ez dut zalantzarik. Euskararen normalizazioan ere indarrak batu, eta euskarari herri bat, herri honi bere hizkuntza emateko gauza izanen garenaren esperantza badut. Baietz oraingoan!

AGURRA

Andres Urrutia, euskaltzainburua

Beratar guztiok, arratsalde on!

Zinez garrantzitsua da Euskaltzaindiarentzat gaur zuen artean egotea, *Nafarroa Oinez 2006* dela eta. Ondo dakizuen bezala, Euskaltzaindiaren egitekoetan sartzen da euskara aitzinatzea eta sustatzea, Euskal Herriaren herrialde guztietan, inolako politika alderdikieririk gabe. Askoren ustez, alabaina, Euskaltzaindia akademikotasunaren ikuspegitik bakarrik ikus daiteke, egunerokotasunik ez duen esparru gogoetatsu horretan. Hala dela ere, neurri batean bederen, ezin uka.

Baina horrekin batera, Euskaltzaindiak egunerokotasun euskalduna ezagutu ez ezik, partekatu ere egin nahi du, euskara bera egunerokotasun horretan bizi baita eta bizi behar baitu, bizi nahi du behinik behin. Euskalgintzaren lanean jarraitzera eta aurrekoak aldarrikatzen etorri da Euskaltzaindia Berara. Zuen ahaleginak sustatu eta goratu nahi ditugu, Bera herri euskaldunean esanahi handiko den *Labiaga* Ikastolaren oinarriak baitira horiek.

Hitz batez esateko, euskararen ibilbidean, zuekin eta euskaldun guztiekin batera, bidegile eta bidaide izan nahi dugu, euskararen onerako eta mesederako.

Mila esker

BERA / VERA DE BIDASOA HERRI IZENAZ (1)

*Andres Iñigo,
Onomastika batzordeburua
eta Nafarroako ordezkaria*

Euskaltzaindiak, 1979an hartutako erabakiaren ondorioz, herriaren euskal izena **Bera** zela eta herritarrena **beratar** plazaratu zuen (Euskaltzaindia, 1979: 95).

Geroztik, 18/1986 Euskararen Foru Legearen agindua betetzearren, Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiari hala eskatuta, Akademiak, aurreko erabakia berretsi eta Gobernuari jakinarazi zion herriaren euskal izena **Bera** zela eta herritarrena **beratar** (Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernuak, 1990: 60, 228, 265).

Erabaki horiek hartzeko, Euskaltzaindia, ohi den bezala, agiri eta herri ebakeran oinarritu zen. Hona hemen orduan erabilitako datuak eta geroztik ere aurkitu direnak:

1. AGIRIAK

XIV. eta XX. mende bitarteko agiriak **Bera** izen soilaren alde mintzo dira. Hona agirietako zenbait lekuko:

- *Bera*, 1366 (Carrasco Pérez, 1973: 529, 536, 567).
- La villa de *vera*, 1543 (9. sorta); tierra de *bera*, 1550 (7. s.); la tierra de *bera*, 1565 (24. s.); *bera*, 1557 (17. s.); *bera*, 1581 (42. s.); la villa de *Bera* de la montaña de Navarra, 1622 (53. s.); la villa de *Bera* del Reino de Navarra, 1622 (53. s.); *Bera*, 1770 (118bis s.). (Iturria: Notarri Protokoloen artxiboa. Doneztebeko Notaritzak).

(1) *Bera* herri izena dela eta, bertako Euskara Batzordeak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen bitartez, Euskaltzaindiaren iritzia jakin nahian, Nafarroako ordezkariari *Bera* herri izenari buruzko txostena eskatu dio.

- Florencio Idoatek, Nafarroako historiaren hainbat zertzelada ematen dituenean, *Vera* aipatzen du, bertzeak bertze, honako urte hauetan: 1360, 1366, 1430, 1556, 1573, 1662, 1676, 1716, 1757, 1784, 1822, 1830... (Idoate, 1979).
- Pascual Madozek XIX. mendean idatzi zuen hiztegian honela definitzen du: *Vera*. «Villa y una de las cinco que llaman de la montaña» (Madoz, 1986: 383).
- *Larreko* idazleak ere *Bera* erabiltzen zuen. Erraterako 1936an idatzitako artikulu batean honela dio: «Eldu den illeko amargarrenean aberzale bilkurak izango dire Baztanen, Itunen eta Beran; Monzon euskal-izlari aoederrekoa mintzalari, eta lau bertsolari, Dargaitz, Iriarte, Txapel eta Basarri; ots, oberenetarik: ongi dago!» (Irigarai *Larreko*, 1992: 180).
- Bertako euskal testuetan ere *Bera* edo *Vera* formak aurkitzen dira:
 - a) Berako Juan Bautista de Yturria olagizonak XVII. mendean euskaraz idatzitako hiru gutunetan aipu hauek ageri dira: «cergatiq bihar çazpi orenetaco ediren bear dute *Beran*», «*Beran* eguiña junioren 14 de 1676», «*Beran* eguiña junioren 23 de 1676. Zure servitzaria Juan Bautista de Yturria» (Urrizola, 2006: 265).
 - b) Ustez XIX. mendekoak diren euskaraz idatzitako Berako Ordenantzen atal batean honela dator: «Eztadiyela ñior pasatu *Veraco* auzotiq Alzatara, ta ez Alzatatiq *Verara* erronda eguin ezquero, bada arrapatzen badire eben auzotiq campuan yzanen direla castigatubac rigore guciyarequin, ta valiyoco escusariq batere» (Idoate Ezquieta & Villanueva Equiza, 1990: 276).
 - c) Ignacio Larramendi (1874-1960), P. Román de Vera *Dornaku* (1878-1959) eta Joaquin Aldave (1893-1973) Berako euskal idazleek beti *Bera* erabili zuten (Goya, 1980).

2. HERRI EBAKERA

- Eusebio de Echalar (Etxalar 1874 - Lekaroz 1956) kaputxino eta euskaltzain urgazleak honela dio: «*Berá* dicen los instruídos y el pueblo sigue pronunciando *Berá* [...] Se dice *Berá*, *Barákoa*, *Berára*, *Berátik*» (1980: 1059).
- **Bera** [berá] eta **beratar** [berátar] (Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua, 1990: 99).

OHAR ARGIGARRIAK

1. Vera de Bidasoa izen ofiziala (1916-1989)

XX. mendearen hasieran Espainian hartutako erabaki administratiboa eta bere ondorioak: *Real Decreto 27 de Junio aprobando la reforma propuesta al efecto por la Real Sociedad Geográfica* (Cambio de denominación de algunos Ayuntamientos) delakoa. 1916ko ekainaren 27ko Errege Dekretu horren bitartez Espainian 573 udal izen aldatu ziren. Horrela dio Dekretuak bere sarreran:

«Para que desaparezca la extraordinaria y lamentable confusión que origina el hecho de existir 1.020 Ayuntamientos con nombres idénticos, la Real Sociedad Geográfica ha realizado un meditado estudio encaminado a reformar la nomenclatura geográfica de España, y al acometer labor tan meritoria, háse atendido a bases generales que imprimieran a la obra unidad de criterio, limitándola todo lo posible a poblaciones de menor categoría y procurando que el nuevo calificativo que se las (sic) asigne no sea arbitrario, sino el que la tradición, el uso o los afectos de cada localidad vienen consagrando, consiguiendo de este modo la casi inmutabilidad de su nueva designación (...)».

Nafarroan honako aldaketa hauek inposatu ziren: *Aguilar* → *Aguilar de Codés*, *Maya* → *Maya de Baztán*, *Sada* → *Sada de Sangüesa*, *Torralba* → *Torralba del Río*, *Torres* → *Torres del Río*, *Urroz* → *Urroz de Santesteban*, *Vera* → *Vera de Bidasoa*, *Villamayor* → *Villamayor de Monjardín*. Erabaki horren ondorioz, erdal grafian *Vera* izen soila zuten herriak elkarrengandik bereiztea lortu zen, *Vera* izena Almerian dagoen herriarentzat utziz eta *Vera de Bidasoa* eta *Vera de Moncayo* sortuz.

Horrenbertzez, mendeetan zehar *Bera* soilik izan zen Nafarroako herriaren izena. Aldaketa 1916ko erabakiarekin etorri zen. Orduz geroztik, 1989 arte, herriaren izen ofiziala *Vera de Bidasoa* izan da. Eta jakina, izen ofizialak, agiri eta xafletan azaltzen denean gertatzen den bezala, eragin zuzena izan du eta bere bidea egin du, gaztelaniazko erabileran batik bat.

2. Bera / Vera de Bidasoa izen ofiziala (1989tik aitzina)

1989tik aitzina izen ofiziala *Bera / Vera de Bidasoa* da. Euskaltzaindiak *Bera* soilik proposatu zuen (Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernua, 1990: 60, 228, 265), baina Nafarroako Gobernuak *Bera / Vera de Bidasoa* onetsi zuen (ikus Nafarroako Gobernuak euskal eremuko herri izendegia onartu zuen 16/1989 Foru Dekretua).

1916ko Errege Dekretu horren ondorioz, Nafarroan bezala, gure inguru hurbilean ere zenbait aldaketa ofizial egin zen, erraterako Gipuzkoako *Alegría* → *Alegría de Oria* eta *Villarreal* → *Villarreal de Urrechu*. Baina, jakina den beza-

la, demokrazia garaian, Gipuzkoako Batzar Nagusiak, Euskaltzaindiaren proposamena onartuz, aldatu zituen eta herri horien egungo izen ofizialak *Alegia* eta *Urretxu* dira. Nafarroan ere, 1916an *Sada de Sangüesa* eta *Urroz de Santesteban* izendatu zirenak, *Sada* eta *Urrotz* dira 1980 eta 1989az geroztik hurrenez hurren.

Azkenik, argitu behar da gauza bat dela euskal izena proposatzea edo aholkatzea eta bertzea izen ofiziala zein den erabakitzea. Euskaltzaindia Nafarroan euskara gaietarako aholkulari ofiziala denez gero, proposamenak egiteko erakunde ofiziala da (ikus 18/1986 Euskararen Foru Legearen 8. artikulua). Proposatzen dituen izenak ofizial bihurtzea, ordea, ez dago, zoritxarrez, Euskaltzaindiaren esku, horretarako ahalmenik ez duelako. Ofizialtasuna erakunde administratiboen esku dago eta horretarako dagokion udalak erabaki behar du eta Gobernuak berretsi.

Bibliografia

- CARRASCO PÉREZ, J. (1973), *La población navarra en el siglo XIV*, Universidad de Navarra, Pamplona.
- ECHALAR, FR. EUSEBIO DE, (1980), «Disertación sobre el análisis e interpretación de los nombres toponímicos vascos», *Geografía General del País Vasco*, La Gran Enciclopedia Vasca, VIII, 1049-1099, Bilbao.
- EUSKALTZAINDIA, (1979), *Euskal Herriko Udalen Izendegia*, Bilbo.
- EUSKALTZAINDIA & NAFARROAKO GOBERNUA, (1990), *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra*, (zuz. J. M. Jimeno Jurio), Iruñea.
- GOYA, J. (1980), *Iru beratarren euskal bertsoak*, (I. Larramendi – J. Aldave – P. Roman de Vera), Bera.
- IDOATE, F. (1979), *Rincones de la historia de Navarra* (3 ale), Diputación Foral de Navarra.
- IDOATE EZQUIETA C. & VILLANUEVA EQUIZA, J.J. (1981), «Unas ordenanzas de Vera en vascuence», *Fontes Linguae Vasconum* 37, 275-281.
- IRIGARAI, P.F. *Larreko* (1992), *Nafarroatik*, Euskal Editoreen Elkarte & Eusko Ikaskuntza, Klasikoak 61, (Iñaki Caminoren edizioa), Donostia.
- MADOZ, P. (1986 [1845-1850]), *Diccionario geográfico-estadístico-histórico*, Madrid. *Navarra*, Faksimile erako argitalpena.
- NAFARROAKO GOBERNUA. Nafarroako Artxibo Nagusia:
- Notari Protokoloen artxiboa. Doneztebeko Notaritzia. (A. Iñigok jasotako lekukoak).

– «Inventarios del Reino» artxiboa, Estatistika Atala. *Apeos de Navarra de 1726 y 1727* agiria.

URRIZOLA, R. (2006), «Tres cartas en euskara escritas por un ferrón de Bera», *Fontes Linguae Vasconum* 102, 255-269.

Andres Iñigok aurkeztu eta Onomastika Batzordeak Ziordian, 2006ko irailaren 22an onartua.

BORTZIRIETAKO EUSKARAREN BILAKAERA ETA EGUNGO EGOERA

*Patri Arburua Etxeberria,
Bortzirietako Euskara
Mankomunitateko teknikaria*

SARRERA

Eskerrak emanez hasi nahi dut, Euskaltzaindiari nahiz *Nafarroa Oinez*-en antolatzaileei, jardunaldi honetan parte hartzeko gonbita egiteagatik; eta, bertetik, solasaldia aditzera etorritako guztiei.

Euskarak Bortzirietan izan duen bilakaera soziolinguistikoa aztertzeko honako eskema hau erabiliko dut:

1. Egoera demolinguistikoa
 - a) Euskararen ezagutza
 - b) Euskararen erabilera
 - c) Euskararekiko jarrerak
2. Egoera funtzionala: zenbait esparru eta jende talde
 - a) Administrazioa
 - b) Irakaskuntza
 - c) Komunikabideak
 - d) Gazteak
 - e) Etorkinak
3. Euskaingintza Bortzirietan
4. Erronkak

Ez da, inondik ere, eskema osoa. Azterketa hagitzez sakonagoa egin behar nuke egoeraren berri behar bezala emateko. Baina, hala beharrez, eta hiru ordu laurdenero solasalditxo izanik, nire ustez egoeraren berri hobekien emanen duten atalak hautatu ditut.

Hasteko, eta, batez ere, kanpotik etorri zaretenontzat, eskualdeari buruzko oinarrizko informazioa emanen dizuet. Bortzirietako eskualdea Arantza,

Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakako herriek osatzen dute. Nafarroako iparraldean dago, Gipuzkoa eta Lapurdirekin mugan. Zentsuko (1) datuen arabera, 2001ean Bortzirietan 8.204 lagun bizi ziren:

Arantza	658
Bera	3.527
Etxalar	779
Igantzi	597
Lesaka	2.643

Ezberdintasunik aipagarrienak aipatzeagatik, erranen dugu bi herririk handienetan zerbitzu gehienak daudela: ostalaritza eta merkataritzakoak, industria, osasun zentroa, institutua... Eta hiru herri txikietan zerbitzurik oinarritzkoenak baizik ez daudela.

1. EGOERA DEMOLINGUISTIKOA

1.1. Euskararen ezagutza

Atal honetan emanen ditudan datu guztiak 2001eko zentsutik hartutakoak dira. Zentsuetan eta erroldetan, datu demografikoez gain, herritarrei buruzko hainbat datu biltzen dira, etxebizitzari, lan egoerari nahiz hizkuntzari buruzkoak. Informazio baliagarria ematen digute, populazio osoari buruzko datuak biltzen direlako. Baina, bertaldera, datu subjektiboak direla kontuan hartu behar dugu; hau da, normalean familiako kide batek erantzuten die, gainerako kide guztien izenean, errolda eta zentsuetako galderei.

Zentsuetan hizkuntzaren ezagutza neurtzeko lau gaitasun bereizten dira: ulermena, mintzamena, irakurmena eta idazmena. Hitzaldi honen helburua eta denboraren muga kontuan harturik, soilik mintzamenaren atalean bildutako datuei erreparatuko diegu (2):

(1) 2001eko Nafarroako Biztanleen eta Etxebizitzen Zentsua: biztanle kopuruei buruzko datu eguneratuagoak ere eskuan ditut, baina horiek erabili nahi izan ditut, euskarari buruz zentsuek eman dizkiguten azken datuak urte horretakoak direlako, eta horiekin alderatu ahal izateko. Datuak Nafarroako Gobernuaren Estatistika Institutuarenak dira, eta www.cfnavarra.es begiratzen ahal dira.


(2) Bi urtetik goitiko populazioaren ezagutzaz ari gara.

%	Arantza	Bera	Etxalar	Igantzi	Lesaka	Bortziriak
Euskaraz ongi	98,76	72,79	92,38	91,92	83,34	81,57
Euskaraz nekez	1,08	13,69	4,06	5,15	9,90	9,90
Ez dakite	0,15	13,51	3,54	2,92	6,74	8,52

Herri txiki eta handien artean arestian egin dugun bereizketa datu horietan ere nabarmen ikusten da. Herri txikietan euskararen ezagutza % 90etik goitiko da, eta Bera eta Lesakan hizkuntza hori ez dakitenak gehiago dira; kon-tuan hartu behar da bi herri horietan industrializazioaren eragina handiagoa izan dela, eta, Berako kasuan, muga bertan izatearen ondorioak ere nabarmenak izan direla.

Zentsuak mintzamenaren inguruan ematen dizkigun datuetatik bada bat bereziki interesatzen zaiguna. Hain zuzen ere, gaitasun hori adin multzo ezberdinetan zenbatekoa den erakusten diguna:

Bortziriak	Mintzamina		
	Ez dakite	Nekez	Ongi
2-15 urte	2,06	3,58	94,35
16-24 urte	5,02	6,31	88,65
25-34 urte	8,14	14,52	77,32
35-49 urte	9,02	14,11	76,86
50-64 urte	13,95	10,98	75,05
64 < urte	9,38	6,09	84,51
Guztira	8,52	9,90	81,57



Hizkuntza berreskuratzen edo galtzen ari den jakiteko piramidearen irudia erabil dezakegu. Hizkuntza bat galtzen ari delarik, piramide batekin irudikatzen ahal dugu egoera hori: oinarria zabala du, eta, goiti doala, erpineraino estutuz joanen da. Oinarri zabalean adinekoen multzoa izanen dugu, eta goiko erpinean haurrena; adinekoen artean izanen dugu ezagutzarik altuena eta belaunaldi gazteagoetara joan ahala, ezagutza hori murriztagoa izanen da, hizkuntza galtzen ari den seinale.

Aldiz, hizkuntza berreskuratzen ari dela irudikatzeke piramide iraulia erabil daiteke. Goian izanen du alderik zabalena, haurren ezagutza irudikatuz, eta adinean goiti joan ahala, oinarri horren ertzak estutzen joanen dira, beheko erpineraino. Kasu honetan adinekoen artean izanen da ezagutza tasarik baxuena.

Goiko irudian ikus daitekeenez, Bortzirietan iraultzen ari den piramidea ageri zaigu. Horrek adierazten digu urte batzuetan hizkuntza galtzeko prozesu batean egon dela, eta belaunaldi gazteenen artean ezagutza baxuagoa zela heldu eta adinekoen artean baino. Aldiz, azken urteotan egoera iraultzen ari da, eta hizkuntza berreskuratzen: haur eta gazteen artean ezagutzaren porzentajeak altuagoak dira adinekoen multzoan baino.

Ikus dezagun orain errolda eta zentsuetan hizkuntzei buruzko datuak biltzen direnetik euskaraz ongi mintzatzen direnek izan duten bilakaera. Ondoko grafiko honek erakusten digun bezala, ezagutzaren datuak zertxobait hobetu dira azken urteotan:

<i>Euskaraz ongi mintzatu</i>	1986	1991	1996	2001
Arantza	95,7	99,3	99,0	98,8
Bera	63,4	70,5	66,7	72,8
Etxalar	90,0	90,4	90,0	92,4
Igantzi	93,3	95,1	92,5	91,9
Lesaka	74,7	80,1	78,8	83,3
Bortziriak	74,7	79,9	77,6	81,6

Zentsuek eta erroldek ama hizkuntzari buruzko datuak ere ematen dizkigute. 2001eko zentsuak hiru urte bitartean herritarren ama hizkuntza zein izan zen galdetu zuen. Horren arabera Bortzirietan ama hizkuntza euskara edota euskara eta gaztelania izan dutenak % 80,4 dira. Honatx datu zehatzagoak:

<i>%</i>	Arantza	Bera	Etxalar	Igantzi	Lesaka	Bortziriak
Euskara	96,5	62,6	89,9	85,2	75,2	73,5
Gaztelania	1,7	26,9	7,6	9,6	17,4	18,7
Biak	1,5	9,2	2,4	5,2	6,9	6,9
Bertzerik	0	1,4	0	0	0,5	0,9

Egoera demolinguistikoa hobeki ulertu ahal izateko indize batzuk erabili ohi dira, euskararen garapena eta galtzeko edo berreskuratze indarren intentsitatea azaltzen dizkigutenak. Guk horietako bati, KENK indizeari, erreparatuko diogu; hain zuzen, une konkretu batean bizi diren guztien hizkuntzaren garapen pertsonala adierazten du, biztanleriaren ama hizkuntza eta biztanle horiek zentsua egiteko unean duten hizkuntza gaitasuna kontuan hartzen baititu:

Euskaraz ongi mintzatu	% 81,6
Ama hizkuntza euskara eta biak	% 80,4
Emaidza	+1,2

Kasu honetan KENK indize positiboa dugu, hagitz altua ez bada ere. Hau da, Bortzirietan gehiago dira euskaraz ongi mintzaten direnak etxetik euskara ikasi dutenak baino. Horrek adierazten digu euskara ez dela etxean bakarrik ikasten den hizkuntza, eta hezkuntza sistemaren bitartez nahiz helduen euskalduntze-alfabetatzearen bitartez euskaldundutakoak ere badirela.

1.2. Euskararen erabilera

Bortzirietan euskara zenbatean erabiltzen den ikusteko bi ikuspegi erabiliko ditugu. Lehenik, karriketan bi urtean behin egiten diren neurketetan bildutako datuak ikusiko ditugu; ondotik, inkesta baten emaitza ikusiko dugu.

Euskal Herrian lau urtetik behin egiten dira euskararen kale erabilerari buruzko neurketak. Lehenbizikoak EKBk (Euskal Kulturaren Batzarreak) egin zituen, eta hori desegin zenean SEI elkarteak egin zuen; azkenekoak Sozio-linguistika Klusterrak egin ditu. Hasieratik metodologia berarekin egin izan dira, eta horrek balio handia ematen die datuei, batez ere datuak alderatu eta horien bilakaera aztertzeiko orduan.


Bortzirietan, lau urtetik behin Euskal Herriko neurketarekin batera egiteaz gainera, bertako euskara zerbitzuak bi urtetik behin neurtzen du hizkuntzen karriketako erabilera.

Metodologia hau (3) zuzeneko behaketan oinarritzen da. Neurtzaileek karriketan doazen herritarrek zein hizkuntza erabiltzen duten neurtzen dute, inori deus galdetu gabe. Horretarako, antolatzaileek aitzinetik zehazten dituzte herri bakoitzean egin beharreko ibilbideak eta ordutegiak, eta neurtu nahi diren aldagaien fitxa.

Hortaz, metodologia honek duen abantaila nagusia objektibotasuna da. Baina, bertzalde, erran behar da metodologia egokiagoa dela hiri edota herri handietarako, gureak bezalako herri txikietarako baino. Izan ere, herri txikietan neurketak egiterakoan karriketan biltzen diren elkarrizketa kopuruak anitzetan ez dira nahikoak izaten horietatik ondorio orokorrak atera ahal izateko. Hortaz, beti azpimarratzen dugu karrika neurketetatik ateratzen ditugun datuak joera modura ulertu behar ditugula, eta egun, ordu eta ibilbide zehatz batzuetan ibiliko zen jendeak erabilitako hizkuntzak zein izan ziren adierazten ditutela.


(3) Neurketen metodologiari buruzko informazio gehiago SEI Elkarteak argitaratutako *Bat Soziolinguistika Aldizkariaren* 43.zkian, 2002ko ekainekoan.

Esku artean dugun azken neurketa 2003koa (4) da, eta erabilerari buruz datu orokor hauek utzi zizkigun:



Itxura batean datu ona dela erran liteke: Bortzirietan karrika neurketa hori egin denean % 60 aritu dira euskaraz. Ondoren emanen ditugun bertze datu batzuekin ehuneko horren gibeletik dagoena xehatuko dugu, eta datu hori bertze modu batean irakurriko dugu.

Herriz herrikoari begiratuta, Beran izan ezik, herri guztietan gailentzen da euskararen erabilera. Adinaren aldagaiari errepara diezaiogun orain, eta talde bakoitzak izan duen bilakaerari:



Haurren adin multzoan hasieratik gaur arte euskararen erabilera, apal samar bada ere, goiti doa. Hala ere, kontuan izan behar dugu adin multzo horretan euskaraz dakitenak % 94,35 direla.

Igoerarik argiena gazteen adin multzoan ikusten da; neurketa egin zen lehen aldi hartan erdiek ere ez zuten euskara erabili, eta azken neurketan 20 puntuko aldea izan du. Baina adin horretan euskararen ezagutza % 88,65ekoa da. Datu hauek argi erakusten digute haurtzarotik nerabezarora pasatzerakoan hizkuntza ohiturak aldatu egiten direla, euskararen kaltetan. Geroago ere solastatuko gara horri buruz.

Heldu eta adinekoek euskara gero eta gutxiago erabiltzen dute, karriketan bederen. Helduen multzoan ditugu daturik ezkorrenak, eta, gainera, neurketak egiten hasi ginenez geroztik datuak okerragotzen joan dira. Azken urte-

(4) Ez da Euskal Herriko neurketa, baizik eta Bortzirietako Euskara Mankomunitateak bortz herrietan egin zuena. Hala ere, metodologia berbera erabili genuen. Datuak mankomunitatearen txosten argitaragabe batean bilduak daude.


otan helduen erdiek ere ez dute euskara erabili karriketako elkarrizketetan. Multzo honetan % 75etik goiti dira euskaraz dakitenak.

Adinekoen kasuan erran behar da neurketak egiten direnean oro har adineko gutxi ibiltzen dela karriketan. Hortaz, hemen agertzen diren ehunekoen gibeletik horrelako ondorioak atera ahal izateko adina jenderik izan den kolokan jartzen dut.

Honaraino emandako datuekin Bortzirietan euskararen ezagutza nahiz erabilera haur eta gazteen esku dagoela erran genezake. Izan ere, belaunaldi berrietan euskaraz dakitenak eta euskara erabiltzen dutenak gehiago dira, eta pentsa genezake ondoko urteetan horien eragina helduen multzoan ere nozitu litekeela.

Uste dut ez genukeela hori pentsatu behar. Are gehiago, dauzkagun datuekin helduen multzo horri bereziki erreparatuko beharko geniokeela uste dut. Batetik, helduen multzoa da adin tarterik zabalena (25-64 urte) hartzen duena, eta demografikoki pisu gehien duena. Bertzetik, multzo horretan daude gizartean gehien eragiten dutenak: gurasoak, irakasleak, ostalari eta merkatariak, enpresariak, zerbitzuak ematen dituztenak, alkate-zinegotziak... Eta multzo horretan datuek hoberantz egiten ez duten bitartean, geure burua engainatu bertzerik ez dugu eginen haur eta gazteek beren kabuz joerak alda ditzaketela pentsatuz.

Eta urrutixeago ere joan gintezke. Lehen neurketak egin zirenean karriketako elkarrizketetan haurrak egoteak edo ez egoteak hizkuntza bat edo bertzea hautatzerakoan eragin zezakeela sumatzen zen. Hortaz, aldagai hori kontuan hartzen duen fitxa diseinatu zuten, eta azken neurketetan ongi bereziki ahal izan da zein elkarrizketetan parte hartzen zuten haurrek, eta zeinetan ez. Horren arabera, Bortzirietan 2003an egindako neurketan emaitza hauek bildu genituen:



Ezkerreko aldean ikusten ahal dugun bezala, karriketako elkarrizketetan haurrik izan ez den kasuetan eta elkarrizketa gazte, heldu nahiz adinekoen artekoa izan denean, gaztelaniaren erabilera gailendu da. Aldiz, eskuineko aldeari begiratzen badiogu, elkarrizketa horietan haurrak egon direnean (5) euskara hagitzez gehiago erabili izan da.

(5) Atal honetan bi egoera ezberdin batera eman ditut: bat, elkarrizketa horietan haurrak egon direnean, baina parte hartu gabe, eta, bertzea, haurrak solaskide izan direnean. Pentsatzekoa den bezala, bigarren egoera horretan euskara gehiago erabili da lehenbizikoan baino.

Hortaz, har dezadan hasieran emandako datua berriz: Bortzirietako karriketan % 60 aritu zen euskaraz, eta % 40 gaztelaniaz. Azalpen hauen guztien ondotik datu hori bertze modu batera irakurtzen dela uste dut. Izan ere, euskararen erabilera hagitz lotua dago inguruan haurrak egotearekin, eta, gainera, gizartean eragin gehien duen adin multzoak, helduenak, gero eta gutxiago darabil euskara.

Atal honen sarreran erran dugun bezala, euskararen erabilera aztertzeko bertze ikuspegi bat ere erakutsiko dugu: inkestek ematen digutena. Kasu honetan, beraz, erabilera aitortuari buruz arituko gara. Hau da, herritarrei zuzenean galdetzen zaie euskara noiz eta norekin erabiltzen duten. Hortaz, datuak subjektiboak dira erabat.

Erabilerari buruz esku artean dugun azken inkesta 1999koa da. Taller de Sociología-k egin zuen, Baztan, Bortziriak eta Malerrekako Euskara Zerbitzuek eskatuta (6). Enpresa horrek 400 inkesta egin zituen, telefonoz, 17 urtetik goitiko populazioaren artean. Inkestatutakoei euskaraz norekin egiten zuten galdetuta, honako emaitza hauek bildu zituzten (7):

	Bai	Ez	Ez daki euskaraz
Aitarekin	74,5	6,8	18,6
Amarekin	75,5	11,3	13,2
Aitatxi-amatxiekin	83,1	10,8	6,1
Seme-alabekin	91,2	6,9	1,9
Bikotekidearekin	62,6	26,3	11,1
Anai-arrebeekin	76,8	19,9	3,3
Lagunekin	83,8	15	1,3
Mediku-erizainekin	49,7	26	24,4
Alkate-zinegotziekin	87,8	11,7	0,4
Dendari-tabernariekin	83	17	–
Banketxeetako langileekin	62,8	35,1	2
Herriko etxeetako langileekin	86,1	13,9	–
Nafarroako Gobernuako langileekin	47,8	43,5	8,7

(6) Taller de Sociología S.L., *Euskararen unibertsoa Baztan, Malerreka eta Bortzirietan 1999*, txosten argitaragabea.

(7) Taulan harreman gehiago ere agertzen dira, baina espresuki hautatu ditut honako hauek.

Marra beltz lodi horrekin banatu ditut hurbileko harremanak edo harreman afektiboagoak direnak (marratik goitikoak), eta eguneroko bizitzan izaten ditugun bertze harreman batzuk, hain hurbilekoak ez direnak (marratik beheitikoak).

Hasieratik erran behar dut datuak harrigarri samarrak direla, eta karriketako neurketetako emaitzekin alderatuta, hauek hagitzez ere positiboagoak direla. Baina gogoratu behar dugu erabilera aitortuaz ari garela, norberak erantzuten diela inkesta hauei, eta, dirudienez, euskararekiko izan dezakegun lotura edo sentsibilizazioagatik, errealitatea puzteko joera izaten dugula.

Normalean hurbileko harremanetan euskara gehiago erabiltzen dugu. Alabaina, familiako kide ezberdinekin erabilera hagitzez altuagoa da bikotekideen artekoa baino. Harrigarria da, gainera, lagunen artean erabilera % 80tik goitiko izatea, eta bikotekideen artean ia 20 puntu baxuagoa.

Ikerketa hartan antzeko joera ikusi genuen bai Baztanen, bai Malerrekan. Badirudi harreman bertikaletan euskara gehiago erabiltzen dela harreman horizontaletan baino. Kontuan hartzeko datua da, azken finean bikoteetan erabiltzen den hizkuntza izanen baita gerora familian edo etxean erabiliko dena.

Marratik beheitiko harremanetan ateratzen diren ehunekoak ere positiboak baino positiboegiak direla erranen nuke. Errate baterako, mediku-erizainekin nahiz Nafarroako Gobernuo langileekin erditsuek erran zuten euskaraz aritzen zirela, nahiz eta horietan langileen erdiak euskaldunak izanen direla pentsatze hutsa zientzia fikziora hurbil litekeen.

Datu horiek atal honen hasieran errandakora garamatzate berriz ere. Karriketako neurketek eskaintzen diguten objektibotasun horren ondoan, inkestak erabat subjektiboak dira. Hortaz, batean eta bertzean ateratzen diren datuetan alde handi samarra dago.

1.3. Euskararekiko jarrerak

Bortzirietako herritarrek euskararekiko dituzten jarrerak azaltzeko berriz ere Taller de Sociología-k 1999an egindako ikerketa horretara joko dut. Jarrerak neurtzeko metodologia kuantitatiboa (inkesten bidez) eta kualitatiboa (eztabaida taldeen bidez) erabili zituzten. Labur, herritarren jarrerak definitzen dituzten hainbat ideia emanen ditugu, kuantitatibotik eta kualitatibotik hartutakoak:

Aldeko jarrerak:

- Herritarrak jabetzen dira seme-alabei euskara transmititzearen eta euskarazko eruedetan eskolatzearen garrantziaz.
- Euskaldunberriek, hizkuntza ikasitakoan, jarrera aktiboa dute euskararekin.

- Euskaraz ez dakitenen % 92ari gustatuko litzaioke euskaraz jakitea.
- Herritarren % 90ek euskara bertze hizkuntzen pare ikusi nahi du, eta euskara kultura eta zientzia munduan erabilgarri dela uste du.

Jarrera epelak eta kontrakoak:

- Euskaraz dakitenen artean alfabetatzeko interes gutxi ageri da.
- Euskaraz dakitenen erdiek testu elebidunetan gaztelaniakoa bakarrik irakurtzen dute.
- Euskaraz dakitenen laurden batek bakarrik egiten du euskaraz horretarako aukera duelarik (8).
- Euskaraz ez dakitenen % 40 euskaraz ikasten saiatu da, baina ez du lortu.

2. EGOERA FUNTZIONALA: EGOERA ZENBAIT JARDUERA ESPARRUTAN ETA TALDETAN

Azterketa sakon bat egin beharko bagenu, atal honetan gizarte bizitzaren atal guztien berri eman beharko genuke, eta jende talde guztiena. Solasaldi honetarako nire ustez egoeraren berri izateko adierazgarrienak diren esparruak azalduko ditugu.

Administrazioa

- *Tokiko administrazioa*

Bortzirietan bortz udal daude, eta hiru mankomunitate (gizarte zerbitzue-na, euskararena eta hondakinak biltzeaz arduratzen dena). Arantzako Udala UEMAKo (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko) kide da.

Gezurra badirudi ere, eta anitzek Bortzirietako eskualdea hizkuntza normalizazioko kontuetan Nafarroan aitzindaritzat izaten ahal badu ere, tokiko administrazioaren alorrean defizit larria dugula uste dut. Gaur egun Bortzirietako tokiko erakundeetan euskararen erabilera arautu eta planifikatu gabe dago, saiakerarik egin bada ere.

Euskarari buruzko Foru Legea 1986koa da, eta mankomunitatea 1990ean eratu zen. Euskara batzordeek hasieratik lehentasuntzat jo zuten udal admi-

(8) Datu hau kontraeranean dago arestian erabilerari buruz eman ditugunekin. Alegia, ikerketa berean ageri zaigu harreman gehienetan erdiek baino gehiagok erabiltzen dutela euskara, eta hemen berriz laurden batek baizik ez du erabiltzen, horretarako aukera izanda, gainera.

nistrazioetan euskararen erabilera arautzea; hortaz, berehala ekin zioten euskara batzordeek euskararen ordenantzei. Handik eta hemendik ere, batzordeak hartuta, oinarritzko zirriborro bat prestatu eta herri guztietan, batzordez batzorde eta udal ordezkariak bertan zirela, bi urte luzez eztabaidatu zen gaia. Oinarritzko testua adostu ondotik, mankomunitateak hasierako onespena eman zion Bortzirietako euskararen udal ordenantzari. Bigarren urratsa zen udalek horri onespena ematea, baina ez zen hala izan. Oztopoak Berako Udalean gertatu ziren, hiru udal taldetatik bik ez baitzuten ordenantza ontzat eman. Hainbat gaizki ulerturen ondotik, eztabaida udaletik herrira pasa zen, eta ordenantzaren aurkako sinadura bilketa ere egin zen. Giro txar horren ondorioz gaia bere horretan gelditu zen, blokeaturik, eta geroztik tabua izan dela ere erraten ahal da.

Horrek ez du erran nahi, inondik ere, Bortzirietako udal administrazioetan euskararen erabileran aitzinera pausorik eman ez denik. Pausoak eman dira, baina unean uneko borondatearen arabera, eta arautu eta planifikatu gabe.

Hori guztia kontuan harturik azalduko dugu atal honi dagokiona. Udal administrazioetan aritzen diren bi multzoen ezagutzarekin hasiko gara.

Bortz udaletan guztira 42 hautetsi daude, eta, goiti-beheiti, % 90ek badakite euskaraz mintzatzen. Langileen kasuan, plantilletan 60 bat langile daude, eta hortik kanpo bertze 20 bat ari direla lanean estimatzen dugu. Hortaz, guztira 80 bat udal langile gara Bortzirietako udal administrazioetan. Bortzirietako Euskara Mankomunitateak 2004an «Bortzirietako toki entitateen plantilla organikoetan lanpostuei ezarri beharreko hizkuntza eskakizunak» deituriko txostena onartu zuen; bertan zehazten da lanpostu bakoitzari dagokion euskara maila. Oro har, Bortzirietako udal administrazioetan gaur egun lanean ari diren langileek beren lanpostuetarako behar duten euskara maila badute.

Deialdi berriak egiten direnean ere, udalek gehien-gehienetan eskakizun horiek kontuan hartzen dituzte, eta horren arabera euskara maila eskatzen diete lanpostuetara aurkezten diren hautagaiei. Tarteka salbuespen mingarri batzuk ere gertatzen dira. Errate baterako, Lesakako Udalak, 2004an, idazkari eta kontu-hartzaileen lanpostuetarako hasiera batean ezarria zuen euskara maila jaitsi egin zuen, eta, mankomunitatearen gomendioei muzin eginez, baina eskasagoa ezarri zuen, jakinda modu horretan lanpostu horietan arituko zirenek ez zutela euskaraz lan egiteko behar zuten mailarik izanen. Aipatu behar da udalak hartutako erabakia legezkoa izan zela –ez baita zaila Nafarroako Gobernuak gaur egun euskarari buruz eginak dituen legeak betetzea–, baina azken urteotan udal administrazioetan euskara normalizatzeko hartutako hainbat erabakiren kontrakoa.

Honaraino ezagutzari dagokiona. Erabilerari buruz, eta, neurri handi batean, arestian ordenantzei buruz azaldukoarekin lotuta, erraten ahal dugu Bortzirietako udal administrazioetan euskara zerbitzu hizkuntza dela; hau da,

udal eta mankomunitateetatik kanpora ematen den zerbitzua (batez ere herri-tarrei zuzendutakoa) gehienetan, euskaraz nahiz gaztelaniaz, bi hizkuntza ofizialetan, izaten da. Salbuespen ohoragarriak ere badira; alegia, hainbat dokumentazio euskara hutsez egiten dutenak. Eta, nola ez, tarteka gaztelania hutsez egiten direnak ere bai.

Alabaina, ezin erran euskara lan hizkuntza denik. Idatzizko jardunean berderen, kasurik gehienetan, gaztelaniaz egiten da lan, eta gero behar dena euskarara itzuli. Are gehiago, zenbait kasutan funtzionamendu xebreak izaten dira: osoko bilkurak euskaraz eginda ere, aktak gaztelaniaz erredaktatzen dira, gero euskarara itzultzeko.

Euskaraz lan egiteko, ordea, tresna egokiak behar dira. Erraterako, gaur egun oztopo handia da udalen kudeaketarako programa eta aplikazio informatiko gehienak euskaraz ez izatea; edota azpikontratatzeko baldintzen artean hizkuntza irizpideak ezartzearena, zerbitzu horiek beren lana euskaraz egin dezaten.

Baina horren guztiaren gainera, euskaraz lan egiteko borondate politiko sendoa falta da; nire iritziz, hori gaingiduz gero, Bortzirietan aitzinera jotzeko behar diren gainerako baldintza guztiak badaude.

- *Foru administrazioa*

Ez naiz atal honetan sobera luzatuko, Nafarroako Gobernuak euskararekin duen jarrera eta azken urteotan hartu dituen neurriak aski ezagunak baitira. Bertzerik gabe, datu batzuk emanen ditut ikusteko erakunde horrek hartutako erabakiek zein ondorio izan duten Bortzirietako hainbat alorretan. Bi adibide emanen ditut:

Osasun zentroa

203/2001 Foru Dekretuak (9) Lesakako (10) Osasun Zentroan zenbat lan-gile izanen diren eta horietako zenbatetan izanen den beharrezkoa euskaraz jakitea zehazten du. Hona datuak:

(9) 203/2001 Foru Dekretua, uztailaren 30ekoa. Agertzen du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantillako zein lanpostu diren euskara jakin beharrekoak (Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakasleenak kanpo direla) eta zer jakite maila behar duten, eta zehazten du zein lanpostutan hartu behar den euskara jakitea beste batzuen arteko merezimendutzat, NAO, 110 zkia, 2001/09/10.

(10) Bortzirietarako zerbitzuak biltzen dituen.

Lanpostua	Zenbat	Euskaraz
Administrariak	3	1
Fisioterapeuta	1	0
Gizarte langilea	1	1
Erizainak	6	2
Medikuak	6	2
Pediatra	1	1
Zaindaria	1	0

Hortaz, Euskarari buruzko Foru Legeak euskalduna deitzen duen eremu horretan bizi bagara ere, eta legeak administrazioarekin euskaraz aritzeko eskubidea aitortzen badigu ere, lege hori garatzen duen bertze dekretu honek herritarren eskubideen gainetik jarri ditu norbanakoen eskubideak; hau da, erdaldunek lanpostu horietan aritzeko duten eskubidea. Ondorioz, Igantzin edo Arantzan bizi bazara medikuarekin euskaraz aritzeko aukera izan dezakezu, baina ez Etxalarren bizi bazara, pediatra euskalduna izateko aukera izan dezakezu, baina ez fisioterapeuta, etab.

Gainera, dekretu honek lanpostuetarako deialdi berriak egiten direnean du eragina. Errate baterako, har dezagun pediatarren kasua. Pediatra bakarra dago, eta, dekretuaren arabera, euskaraz jakin behar du. Hala ere, dekretuak ez ditu lanpostua eskuratua duten langileak ezarritako hizkuntza eskakizuna betetzera behartzen. Hortaz, gaur egun dagoen langileak lanpostua uzten ez duen bitartean jai dute zerbitzu hori erabiliko duten erabiltzaileek beren hizkuntza eskubideak betetzea nahi badute. Gehienez ere langileak euskara ikasteko izan dezakeen borondatearen baitan gelditzen ahalko gara. Errate baterako, pediatarren kasu zehatz honetan, langilea ahaleginak egiten ari da euskalduntzeko, foru administrazioetik horretarako liberazioak lortzeko..., baina horretarako borondatea duten langileei jartzen zaizkien trabak (ordezkapenekin, liberazioekin, finantzazioarekin, ikastaroei eman beharreko jarraipenarekin...) sekulakoak dira, eta, ondorioz, euskalduntze prozesuak mantsoak eta jarraipen txikikoak izaten dira.

Dekretu honek, gainera, euskaraz jakin behar den kasuetan zein euskara maila eskatuko den ere zehazten du. Osasun zentroko lanpostu horien kasuan, adibidez, nahikotzat jo dute haiek 1. jakite maila (Hizkuntza Eskola Ofizial bateko 4. maila mintzamenerako, eta 3. maila idazmenerako) deitzen duten hori izatearekin. Maila hori duen mediku batekin euskaraz aritzen banaiz, elkar ulertuko dugu? Ongi azalduko dit azaldu beharrekoa? Gaztelaniaren kasuan onartuko litzateke maila hori duen profesional bat lanpostu bat betetzeko? Galdera anitzez gehiago ere egin litezke.

Liburutegiak

Eta bertze adibide bat paratzeagatik, dekretu beraren ondorioz, Bera eta Lesakako liburutegietan lanean aritzeko ez da beharrezkoa euskaraz jakitea (11).

Irakaskuntza

- *Unibertsitatera bitarteko irakaskuntza arautua*

Bortzirietan hezkuntzaren eskaintza aski zabala da. Unibertsitatera bitarteko maila guztiak ematen dira: haur eskola bat dago, Beran; herri guztietan ematen da Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; DBH Arantzan (1. zikloa) eta Beran ematen da; eta batxilerrak eta heziketa zikloak Beran ematen dira.


Horrez gain, mota guztietako ikastetxeak daude, bederatzi guztira: herri guztietan dago Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoa (Arantzakoan DBHko lehen zikloa ere ematen dute); Lesaka eta Beran ikastola bana dago, Haur eta Lehen Hezkuntza ematen dutena (Berakoan DBHko lehen zikloa ere ematen dute); Beran ikastetxe erlijiosoa ere badago, Haur eta Lehen Hezkuntza eskaintzen duena; eta Beran institutu bat dago, DBH, Heziketa Zikloak eta Batxilergoak eskaintzen dituena.

Hizkuntza ereduak lau dira. Batetik A, B eta D ereduak daude, eta, bertzetik, guk X ereduak deitzen duguna. Eredu hori Heziketa Zikloetan ematen da; izan ere, ziklo horietan legez ez dago hizkuntza eredurik aukeran. Pentsatzekoa den bezala, hori euskararen kaltetan izaten da, eskolak gehienbat gaztelaniaz emanen direla erran nahi baitu. Hala ere, Berako institutuaren kasuan, jakin badakigu eskolak euskaraz emateko ahaleginak egiten direla. Irakasle batzuek badute horretarako behar duten euskara maila, eta, gainera, kasu batzuetan ikasleak euskaldunak izaten dira (anitzetan heziketa osoa D ereduaren izan dutenak). Hala ere, eta ofizialki bederen, ezin dugu erran heziketa zikloetan euskaraz ikas litekeenik.


Hizkuntza ereduak gehixeago erreparatuko diegu. 2005-2006 ikasturtean (12) honako hau zen ereduaren banaketa hezkuntzaren maila bakoitzean:

(11) Arestian aipatutako 203/2001 Foru Dekretuaz ari gara.

(12) Bortzirietako Euskara Mankomunitateak urtero-urtero biltzen ditu matrikulazio datuak.



Eta eredu en azken urteotako bilakaerari erreparatuko diogu ondoko grafiko honen bitartez:



Beraz, 2002ra arte D eredu hazten joan zen, baina geroztik bere horretan dago. B ereduak ere bere bezeroak dituela erraten ahal dugu. Eta A eredu, gainbeheran egon ondotik, azken bizpahiru ikasturte hauetan suspertzen ari dela dirudi. Horren arrazoia behar bezala egiaztatze daturik ez dugu esku artean, baina uste dugu azken urteotan kanpotik Bortzirieta etorritako seme-alaben matrikulazioak eragina izan dezakeela.

- *Helduen euskalduntze-alfabetatzea*

Atal honetan Bortzirieta Euskaltegiari (IKA) buruzko datu batzuk ematen ditugu. Euskaltegiak Lesakan du egoitza nagusia, Matxinbeltzanean. Hala ere, gaur egun eskola gehienak Beran ematen ditu, Rikardo Baroja ikastetxe publikoan, udalak utzitako ikasgeletan.

Bortzirieta Euskaltegian ibili diren ikasle kopuruen bilakaera aztertut, eta honako taula hau osatu:

Ikasturtea	Euskalduntzen	Alfabetatzen	EGA	Guztira
1990-1991	44	73	20	137
1993-1994	72	28	27	127
1996-1997	67	22	5	94
1999-2000	45	7	10	62
2001-2002	45	24	7	76
2003-2004	57	12	16	85
2005-2006	52	20	11	83

Euskaltegia sortu eta ondoko urteetan ikasle kopuruak handi samarrak ziren, oraingoekin alderatuz gero. Are gehiago, alfabetatzera joaten zirenak gehiago ziren euskalduntzera joaten zirenak baino. Geroztik, ikasleen kopuruak murriztu egin dira, nahiz eta azken urteotan matrikulazioa goiti doan. Edozein kasutan, azken urteotan gehiago dira euskalduntzera doazenak, alfabetatzera joaten direnak baino (13). Eta euskalduntzen ari direnak gehiago izanik ere, zentsuek diotenez herritarren % 20 dira euskaraz nekez aritzen direnak eta ez dakitenak; hau da, 1.600 bat herritar. Kopuru horretatik urruti samar gelditzen zaigu gaur egun euskaltegian euskalduntzen ari direnena.

Komunikabideak

Tokiko komunikabideen eskaintza zabala dugu Bortzirietan. Gainera, euskaraz ari diren hedabideak dira, eta, are gehiago, euskara normalizatzeko helburuarekin sortutakoak. Hirurek hartzen dute Bortziriak baino eremu zabalagoa:


- Ttipi-ttapa hamaboskaria: Bortziriak, Malerreka, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi, Leitzaldea, Senpere eta Sara. Aldizkari hau 80. hamarkadan sortu zen, eta batik bat eduki literarioak zituen; 90. hamarkadan hasi zen hamaboskari gisa argitaratzen, eta bertako informazioari lehenentasuna ematen.
- Xorroxin Irratia: Bortziriak, Malerreka, Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdi. Irrati hau Baztanen sortu zen, duela 25 urte, baina duela 20 urte ari da Bortzirietan emititzen.
- Ttipi-ttapa Telebista: Bortziriak eta Malerrekako herri batzuk. Telebista 1997an sortu zen.

(13) Arestian, euskarakiko jarrerei buruzko ataletan erran dugunez, alfabetatzeko interes gutxi dute herritarrek.

Hala ere, tokiko komunikabideen eskaintza oparoa izanik ere, txanponaren alde bakarra erakutsiko genuke horretan geldituz gero. Izan ere, komunikabide horiek gaztelaniazko komunikabideen eskaintza are oparagoarekin lehiatzen dira.

CIEsek sei hilabetero audientziari buruzko ikerketak egiten ditu, eta horietan oinarrituko gara komunikabide bakoitzak duen ikus-entzule-irakurle kopurua ikusteko (14). Hala ere, kontuan hartu behar da ondoren emanen ditugun datuetan Nafarroako mendialdea hartzen dela aintzat, eta eremu hori aski zabala dela (arestian aipatutako eskualdeez gainera, Sakana eta Pirinioak ere hartzen ditu bere baitan; 111 udalerri, guztira):


- Prentsa:



Ikerketa honen arabera, 2006ko lehen sei hilabeteetan irakurle gehien izan duen prentsa Ttipi-ttapa hamaboskaria izan da; eskualdeko aldizkariak Diario de Navarra halako bi irakurle izan zituen. Gainerakoan, gaztelaniazko prentsa euskarazkoari gailentzen zaio.


(14) CIES, *Estudio de audiencia de medios de Navarra*, 2006ko 1. neurketa aldia.

- Irratia:



Gehien aditzen diren hiru irrati emisoretatik bat euskaraz da (Euskadi Irratia). Euskadi Gaztea eta Xorroxin gibelerago gelditzen dira entzule kopuruetan. Hala ere, ez dugu aiantzi behar datu hauek Xorroxin Irratia aditzen ez den eremu zabalago bati buruzkoak ere badirela.

- Telebista



«Bertzeak» atalean daude tokiko telebistak (Xaloa, Ttipi-ttapa...). Bistanenez, telebisten atalean du euskarak panoramarik beltzena. Gaztelaniazko telebista kateak dira nagusi, ezbairek gabe, eta ikusle gutxien dutenak dira euskarazkoak.

Gazteak

Andres eta Patxi Iñigo anaiek solasaldi hau prestatzeko eskatu zidatenean, Patxik orain 25 urte Bortzirietako gaztetxoei buruz egina zuen ikerketaren berri eman zidan (15). Ikerketa soziolinguistiko osoa iruditu zitzaidan, eta datu aski baliaerriak eskaintzen zituela. Hortaz, solasaldi honetarako orduko datuak gaur egun ditugunekin –ahal zen neurrian– alderatu behar nituela erabaki nuen. Hala ere, lan polita izan daiteke orduko galdetegi hura bera eta adin multzo berean gaur egun errepikatzea, datu guztiak alderatu ahal izateko. Erroka nire gain hartzen dut.

Patxik hizkuntzarekin lotura estua duten hainbat gai hartu zituen: ezagutza, erabilera, transmisioa, irakurketa ohiturak, komunikabideen kontsumoa... Oraingo honetan ez dut ikerketa osoaren berri emanen, soilik gaur egun ditugun hainbat datuekin konparagarriak direnak hartuko baititut.

Patxi Iñigok orduko OHOk 6., 7. eta 8. mailetan zeuden Bortzirietako ikasle guztiei (16) egin zien galdetegiak; goiti-beheiti 11, 12 eta 13 urteko gaztetxoak izanen ziren. Guztira 417 galdetegi bildu zituen.

Iñigo ezkor ageri zen lan hartan. Egia erran, euskara galtzen ari zen, eta euskarazko irakaskuntza (ikastoletan) hasi bertzerik ez zen egina.

Iñigok egin zien lehen galdera euskararen ezagutzari buruzkoa izan zen, hain zuzen ere: *badakizu euskaraz?* Eta hogeitau urte beranduago, 2001eko biztanleen zentsuaren arabera mintzamenari buruz 12-15 urte bitarteko gaztetxok duten gaitasunarekin alderatu dut:

Patxi Iñigo, 1981 <i>Badakizu euskaraz?</i>		Biztanleen Zentsua, 2001 <i>Mintzarena</i>	
EZ	% 27,33	EZ DAKITE	% 1,7
ULERTU BAKARRIK	% 10,31	NEKEZ	% 2,49
BAI	% 62,35	ONGI	% 95,9

Ez dira bere horretan ondoan jartzen ahal diren datuak, baina adin tarte horretan gertatu den aldaketa islatzen dute. Iñigok ikerketa egin zuen garaian galera prozesuaren azken urratsak ematen ari ziren; belauenez belaueneko transmisioan etenak gertatzen ari ziren, eta hezkuntza sisteman eta, oro har, gizartean euskarak ez zuen presentziarik.

(15) Patxi Iñigo Ariztegi, *Bortzirietako neska-mutikoen azterketa sozio-linguistikoa*, 1981 (argitaragabea).

(16) Galdetegiak egin zituen egunetan eskoletan ziren guztiei, jakina.

Hasieran aipatu dugun piramide irauliaren irudi horretara itzuliz, 80. markadan egoera hori aldatzen hasi zen, eta 20 urte beranduago adin tarte horretako gaztetxo gehienek dakite euskaraz.

Iñigok gurasoen ezagutzari buruz ere galdegin zien. Eta gaur egun esku artean ditugun daturik berrienekin alderatzeko Taller de Sociología-k 1999an egindako ikerketa erabiliko dut (17). Hasieratik erran behar dut galdera ez dagoela modu berean formulatua, eta datuak ezin direla bere horretan alderatu:

Patxi Iñigo, 1981		Taller de Sociología, 1999	
BIEK DAKITE	% 69	AITEN	% 69
AITAK BAKARRIK	% 7,6	AMEN	% 72,7
AMAK BAKARRIK	% 6,43		
EZ DAKITE	% 16,95		

1981eko ikerketa hartan kasurik gehienetan gurasoek euskaraz zekiten (% 69k; horrez gain bertze kasu batzuetan gurasoetako batek bakarrik zekien), eta, hala ere, seme-alaben % 62,35ek zekien euskaraz. Belaunaldi batetik bertzera hizkuntza galtzen ari zen. 1999ko datuen arabera, amen % 72,7k zekien euskaraz, eta ikasleen % 95,9k aitortu zuen euskaraz ongi mintzatzen zela; kasu honetan, etxeko transmisioa berreskuratua dagoela erran daiteke, eta, gainera, kopuru handi batek hizkuntza etxetik kanpora ikasi du, gehienek eskolan.

Eta transmisioaren gai horretan gehixeago sakonduko dugu. Iñigok aita eta ama, biak, euskaldunak ziren kasuetan, seme-alabek euskaraz ote zekiten aztertu zuen. Datuak generoen arabera eman zituen, eta nik ere halaxe emanen ditut. Alabaina, ez dut aurkitu horiekin alderatzeko gaur egungo daturik, eta ondoan Taller de Sociología-k ama hizkuntzaz egindako galderaren emaitzak paratu ditut:

Patxi Iñigo, 1981				Taller de Sociología, 1999	
BORTZIRIAK	Mutik.	Neskak	Denera	EUSKARA	% 58,6
EZ	3,95	11,81	7,23	BIAK	% 29,6
ULERTU	11,29	11,81	11,51	GAZTELANIA	% 11,4
BAI	84,74	76,37	81,25	BERTZE	% 1,1

} % 88,2

(17) Inkesta DBHko ikasle guztiei egin zieten.

Belaunaldi hartan hizkuntzaren galera zenbatekoa zen ikusten ahal da taula horretan. Nesken kasuan galera are handiagoa da. Herriz herriko datuak emateak luze joko luke, baina, kasurik larriena aipatuko dut: Beran gurasoak euskaldunak zituzten nesken erdiek ere ez zekiten euskaraz.

Gaur egungo datuetara etorritz, euskara edo euskara eta gaztelania dira etxeko hizkuntzak % 88,2rentzat.

Erabileraren atalean ere aski datu adierazgarriak aurkitu ditut. Iñigoren lehen galdera lagun arteko erabileraz izan zen. Gaur egungo datuekin alderatzeko berriz ere Taller de Sociología-ren ikerketan oinarrituko naiz (18):

Patxi Iñigo, 1981		Taller de Sociología, 1999	
EUSKARAZ	% 19,04	EUSKARAZ	% 68,2
ERDARAZ	% 82,19	EZ DAKITE/ERDARAZ	% 13,5
		BIETARA	% 17,9

Aldaketa edo iraultzarik handiena erabileran gertatu da. Gaztetxoan adin tartean ezagutzaren ehunekoak hobetzeaz gainera, erabileran ere aldaketa handia gertatu da. Herriz herriko datuak aztertzerik ez dugu, baina harrigarria egin zaigu Etxalarko kasua: neska-mutikoen erantzunen arabera, % 100 gaztelaniaz aritzen ziren. Igantziko kasuan ere, neskek beti gaztelaniaz aritzen zirela erantzun zuten.

Gurasoen arteko erabileraren kasuan, berriz, bi hamarkada beranduago egoerak okerrera egin duela ikusiko dugu:

Patxi Iñigo, 1981		Taller de Sociología, 1999	
EUSKARAZ	% 81,16	EUSKARAZ	% 62,6
ERDARAZ	% 18,84	EZ DAKITE/ERDARAZ	% 37,4

Orduko hartan euskaraz zekiten gurasoek euskaraz aritzen zirela erraten ahal da; gaur egungo gurasoengan defizita dago ezagutza eta erabileraren artean. Eta pentsa liteke guraso horien hizkuntza ohiturak neurri handi batean aitzineko hamarkadetakoko egoeraren ondorio direla.

Laburtze aldera, Iñigok ateratako zenbait ondorio eta gaur egun ditugun datuak alderatuta, galera prozesu hura garai hartan eten zela erraten ahal da; are gehiago, berreskuratze prozesua ere garai hartan hasi zen.

(18) Erabilera aitortua, beraz; subjektibotasunaren mugak kontuan hartu behar dira.

Iñigok ikertutako adin tarteko neska-mutiko guziak, euskaraz jakinda ere, hizkuntza horretan analfabetoak ziren. Gaur egun adin horretako neska-mutiko gehienak, euskaraz jakiteaz gainera, euskaraz eskolatu dira.

Gurasoen artean ere gertatu da aldaketarik. Orduko gurasoen artean ziren euskaraz zekitenak, eta elkarren artean erabiltzen zutenak, baina seme-alabekiko transmisioan eten batzuk gertatzen ziren. Gaur egun euskaraz dakiten gurasoek hizkuntza hori transmititzen diete seme-alabei, eta euskarazko ereduetan eskolatzen dituzte, baina elkarren artean anitzez gutxiago dira euskara erabiltzen dutenak.

Iñigok euskararen galeraren urratsak identifikatu zituen: lehenik, neskak elkarren artean gaztelaniaz mintzatzen hasi ziren; gero, mutikoak ere gaztelaniaz hasi ziren; azkenik, neskak beren amekin ere gaztelaniaz hasi ziren. Eta guk gaur egun berreskurapenaren urratsak zein izan diren ere zehazten ahal dugu: lehenik, euskarazko irakaskuntza ezarri zen, eta maila guztietara zabaldu; eta, horrekin batera, familia bidezko transmisioa berreskuratu zen.

Etorkinak

Zalantzarik gabe, azken urteotan euskararen normalizazioan ari garen erakunde, talde edota elkarteek gure plangintzetan, diagnosietan edota lan ildoean fenomeno berri bat aintzat hartzen hasi behar izan dugu: etorkinena.

Egia erran, ez da fenomeno berria. Industrializazioa hasi zenetik milaka lagun etorri dira Espainiatik Euskal Herrira. Azken urteotan, ordea, urrutiagoak zaizkigun jendeak etortzen hasi dira.

Batek baino gehiagok definitu izan du immigrazioa arazo gisa. Alegia, euskaraz nahikoa lan bazuela bertzela ere, orain gainera bertze arazo horri aurre egin behar izateko.

Uste dut ikuspegi hori okerra dela. Batetik, ez delakoz fenomeno berria, hala erakutsi nahi bazaigu ere. Eta, bertzetik, arazo baino erronka gisa ulerzea egokiagoa ez ezik, jarrera eraikitzaileagoa iruditzen zaidalako.

Bortzirietan immigrazioaren gaia eragile anitzen agendetan dago azken bortz-sei urteotan. Aitortu behar dut gaiari heltzeko zailtasun handiekin pasa ditugula urte horiek. Izan ere, kontuan hartu behar dugu euskara eta hizkuntza normalizazioa ez direla, inondik ere, lehentasunezko gaiak egoera zailean eta maiz eskubidez gabetuta datozen horientzat. Gainera, lehen urte horietan daturik gabe aritu ginen lanean; immigrazioaz solastatzen ginen, baina ez genuen informazio eta erreferentzia zehatzik.

Hortaz, 2005ean ikerketatxo bat egitea proposatu genuen. Ikerketa Bortzirietako Euskara Mankomunitateak eta Gizarte Zerbitzuen Mankomunitate-

ak elkarlanean egin zuten (19). Helburua zen Bortziritara etorritakoen egoera soziodemografikoa ezagutzeko oinarritzko datu batzuk izatea, eta horiek euskararekiko zuten ezagutza eta jarrerak biltzea.

Helburu horiek oinarri, ikerketak bi atal ditu. Lehenbizikoan erroldako hainbat datu biltzen dira; solasaldi honetan horien berri emanen dugu. Bigarrenean etorkin batzuei egindako inkestaren emaitzak ematen dira; inkesta euskararen ingurukoa zen, helburua etorri berriek euskararekin lotutako hainbat gairen inguruan zuten ezagutza eta jarrera neurtzea baitzen.

Ikerketaren abiapuntu gisa etorkinaren definizioa egin genuen: etorkina da Euskal Herri kanpotik etorritako oro. Hala ere, erroldako datuak ustiatzerakoan berehala topo egin genuen arazo batzuekin: erroldak, gaur egun egiten den moduan, Extremaduratik etorritakoa bertakotzat jotzen du, eta, aldiz, Saratik Berara etorritakoa atzeritartzat (20). Hortaz, egindako definizio horri eutsi ahal izateko, herritarren jatorrii erreparatu behar izan genien.

Emaitzen arabera, Euskal Herri kanpotik Bortziritara etorritakoak 873 lagun ziren; goiti-beheiti populazio osoaren % 10. Eta horietako gehienak, % 65, Europar Batasunetik etorritakoak dira (21).

Hala ere, ikerketa egiterakoan interes berezia genuen azken urteotan etorriak zirenei buruzko datuak jakiteko. Hortaz, estatutik kanpoko immigrazionario gehixeago erreparatu genion. Hasteko, azken urteotan etorritako horien adina begiratu genuen; nahikoa gazteak, ikusiko duzuen bezala:

0-6 urte	20
7-12 urte	18
13-18	13
19-25	62
26-40	155
41-64	81
65 <	4
GUZTIRA	353


Gehien-gehienak (% 60) Beran erroldatuak ziren, % 19 Lesakan eta % 18 Etxalarren.

(19) Igor Portu, *Bortziritako etorkinak eta euskara*, 2005 (argitaragabea).

(20) Erroldaren arabera estatu espainiarretik kanpoko guztiak atzeritarrak dira.

(21) Estatu espainiarrekoak barne.

Estatutik kanpoko etorkinen jatorria honako grafiko honen bitartez ikusiko dugu:



Gehienak Ekuadorretik etorritakoak dira, eta ondoren agertzen diren estatutuak hauek dira: Bulgaria, Argentina, Errumania, Portugal eta Ukraina.

Eta estatu espainiarretik etorritakoen jatorria honako hau da:

JATORRIA	ZENBAT
ANDALUZIA	69
ARAGOI	24
ASTURIAS	18
ERRIOXA	21
EXTREMADURA	63
GALIZIA	42
GAZTELA LEON	180
GAZTELA -MANTXA	11
HERRIALDE KATALANAK	25
KANARIAR UHARTEAK	5
KANTABRIA	17
MADRIL	34
MELILLA	1
MURTZIA	9
ZEUTA	1
GUZTIRA	520

3. BORTZIRIETAKO EUSKALGINTZA

Gaur egun Bortzirietako euskalgintzaren egoera nolakoa den deskribatzen hasi aitzinetik, historia pixka bat eginez hasi nahiko nuke.

3.1. Historia pixka bat

Bortzirietako euskalgintza, modu antolatuan, 70. hamarkadan sortu zela erraten ahal dugu, ikastolen sorrerarekin. Beran Labiaga ikastola sortu zuten hainbat gurasok, eta Lesakan Tantirumairu (22). Horiek biek gerora hezkuntza proiektu oso bat garatu dute.

Baina ez dugu ahanzi behar garai hartan Arantza, Etxalar eta Igantzin ere ikastolak martxan jarri zirela. Hiru herri txikien kasuan ikastolen eskaintza murriztagoa zen, 3-6 urte bitarteko zikloa bertzerik ez baitzuten eskaintzen. Hortaz, 3-6 urte bitartean herri txikietako neska-mutikoak euskaraz eskolatzen ginen, eta hortik aitzinera orduko eskola nazionaletara, gaztelaniaz eta euskararen arrastorik gabe, igarotzen ginen. Gerora herri txikietako ikastola horiek sare publikoak bereganatu zituen.

80. hamarkada oparoa izan zen euskalgintzarentzat. Batetik, euskara irakaskuntza publikoan sartu zen. Hamarkada horren bukaera aldera argitaratu zen ikastereduei buruzko dekretua (23), baina ordurako hainbat urrats emanak ziren Bortzirietako ikastetxe publikoetan, eta eskolak euskaraz ematen hasiak ziren.

Arestian aipatu ditugun euskarazko tokiko komunikabide batzuk ere orduantxe sortu ziren. Ttipi-ttapa aldizkaria, batetik; hiru hilabetekaria izan zen hasieran, eduki literarioagoa zuen eta saldu egiten zen. Horrela funtzionatu zuen 1981etik 1989ra. Hortik aitzinera hamaboskari gisa argitaratzen hasi zen, tokiko informazioari lehentasuna emanez, eta etxe guztietara doan zabaltzen hasi ziren.

Bertzetik, 1982an irratia sortu ziren: Lesakan *Koxkonta* Irratia eta Beran *Segapoto* Irratia. Ordurako sortua zen *Xorroxin* Irratia Baztanen, baina 1987an hasi zen emititzen Bortzirietan.

Helduen euskalduntze-alfabetatzea ere garai hartan hasi zen. Hasiera batean gau-eskolak ziren, gazte batzuen ekimenez martxan jarritakoak. Ondotik


(22) Solasaldia bukatu bezain laster jakin ahal izan dut ikastolak sortzeko ekimena Berako gazte batzuk izan zutela, eta haiek aritu zirela hainbat guraso horretara bultzatzen. Hortaz, gurasoei inolako meriturik kendu gabe, gazte haien aipamena egitea zilegi bekit. Izenik ez dugu erranen, inor aipatu gabe ez uzteko.

(23) 159/1988 Foru Dekretua, maiatzaren 19koa, Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskararen sartzea eta erabiltzea arautzen dituen, NAO 67. zkia, 1988-06-01.

AEK euskaltea aritu zen, Alhondigako egoitzan, 1983-1984 ikasturtetik aitzinera. Eta hamarkadaren bukaera aldera euskalduntze-alfabetatzearen proiektu handi bat gauzatzen hasi zen: Matxinbeltzenea egoitzarena. Geroztik IKA euskaltea aritzen da lan horretan.

Eta horrekin guziarekin batera, 80. hamarkadan hasi zen antolatzen herri eta kultur mugimendua. Horren guztiaren ondorio gisa ulertu behar dugu Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen sorrera, 1990ean. Ezbairik gabe erran behar da herritarren lanari esker sortutako ekimena dela. Udalez osatutako erakundea izanik ere, hasiera-hasieratik izan du herritarren parte hartzea, eta horregatik erraten dugu erakunde mistoa dela.

Sortuz geroztik funtzionatzeko organigrama hauxe da:



Herrietako euskara batzordeak dira mankomunitatearen oinarri. Horietan parte hartzen (ahal) dute herri bakoitzeko talde, elkarte, erakunde eta udaletako ordezkariak, eta norbanako euskaltzaleak.

Horiez gainera, 2000. urtean Lan Munduko Batzordea sortu zen. Euskararen normalizazioa lan mundura eramateko batzorde berariazkoa sortzeko beharra ikusi zen, eta hainbat sindikatu eta eragileren ordezkariarekin, batzordea osatu zen.

Aholkularitza Batzordea herrietako euskara batzordeetako hainbat ordezkariak osatzen dute (udal ordezkariak ez direnak). Batzorde horren egitekoa da mankomunitatearen lan ildoak proposatzea, eta, gainera, Batzorde Erabakitzailean ere parte hartzen du.

Batzorde Erabakitzailea, izenak dioen bezala, mankomunitatearen gaineko erabakiak hartzen dituen organoa da; organo gorena. Bertan biltzen dira bortz udaletako ordezkariak (bina Lesaka eta Beratik, eta bana Arantza, Etxalar eta Igantzitik). Lehendakaria Arantzako Udalak hautatzen duen ordezkaria da.

3.2. Euskalgintza gaur egun zertan den

Aurten bertan, apirilean, eta Aholkularitza Batzordearen ekimenez, Bortzirietako euskalgintzak gogoeta saio bat egin du. Bortzirietako euskalgintza-ren definizioa eman genuen bertan: euskara normalizatzea helburu espezifiko-tzat duen talde oro da euskalgintza-ren parte. Eta euskalgintza-ren barrenean, mankomunitateak betetzen duen tokia ere definitu genuen: mankomunitatea Bortzirietako euskalgintza-ren bilgunea da, euskalgintza-rentzat euskara norma-lizatzeke tresna bat.

Apirileko saioan egindako gogoetatik hiru ideia atera nahi izan ditut:

- Euskalgintza-n parte hartzea handitu behar da. Batetik, batzordeetan jen-de gehiago behar da, eta, batez ere, gazteak. Eta, bertetik, batzordeki-deen jarrerak aktiboagoa izan behar du, teknikariaren jardunari hain lo-tua egon gabe.
- Lana behetik goiti egitea lortu behar dugu, mankomunitatea sortu aitzini-etik egiten zen bezala. Oinarria batzordeetan dago, eta hortik abiatu be-har dira ekimenak. Maiz, gehienetan, bidea alderantzizkoa izaten da.
- Bortzirietan egitasmo zehatzetarako gaitasuna bada. Arrakastaz buru-tzen dira hainbat eta hainbat ekimen zehatz, eta anitzetan parte hartze handiarekin. Gaitasun hori eguneroko lanera ekartzen asmatu behar dugu.

Eta gogoeta hauei nire uztakoak diren batzuk erantsi nahi dizkiot. Izan ere, uste dut gaur egun Bortzirietako euskalgintzak bere jardunerako traba di-ren gai batzuk badituela.

Batetik, gai tabuak daude. Arestian azaldu dugu euskararen udal orde-nantzekin gertatutakoa. Geroztik aipatzen ez den gaia da udal administrazioe-tan euskara normalizatzearena. Eta bertze alorretan hainbertze urrats eman di-tuen eta aitzindarizat jotzen den eskualde baterako onartezina da gai hori normaltasunez ezin jorratzea.

Bertze gai bat ere bada, nik tabu gisa definitzen dudana: ikastetxeen ar-teko gatazkarena. Batez ere Beran gertatzen da. Oztopo handia da hori eus-kalgintza-rentzat, ikastetxeak normalizazio prozesuan eragile garrantzitsuak di-relakoz; haien artean harreman normalizatu bat ez izateak egoera xebreak eta traketsak sortzen ditu.

Bertetik, ezin utzi aipatu gabe apartheid politikoarena. Izan ere, euskal-gintza beti aski aktiboa izan den sektore politiko bat, ezker abertzalearena, azken urteotan ilegalizaturik dago, eta, ondorioz, erabakiak hartzeko guneeta-tik kanpo. Euskalgintza-n ere nabariak dira horren ondorioak.

4. ETORKIZUNeko ERRONKAK

Ez nuke hitzaldi hau diagnosi hutsean utzi nahi. Orain arte egin dena abiapuntuzat hartuta, eta *botila erdi betearen* ikuspegitik, nire ustez Bortziritako euskalgintzak epe labur eta ertainera dituen erronkak aipatuko ditut:

Administrazioa:

Zerbitzu hizkuntza izatetik, lan hizkuntza izatera

Bortziritako udal administrazioetan baldintza egokiak daude euskaraz lan egiteko: herritarren % 80 inguruk badaki euskaraz, eta udal langileek badute horretarako adina gaitasun. Borondate politiko sendoa falta da; hori izandakoan erabilera arautu eta planifikatzea guri legokiguke.

Gainerakoan, etengabeko kontraerranean egonen dira toki entitateak, horien sinesgarritasuna kolokan jartzeko moduan: nola liteke gizarteko gainerako alorretan euskararen erabilera bultzatzea, Bai Euskarari Ziurtagiria sustatzea, foru administrazioari erabil dezan eskatzea... etxeko lanak egin gabe?

Irakaskuntza

Ikasleei egoera komunikatibo guztietarako baliagarri izanen zaien tresna ematea

Hizkuntzak egoera normalizatuan daudenean ikasleek eskoletan hizkuntzen erregistro formalak ikasten dituzte, eta hortik kanpo bereganatzen dituzte erregistro informalak, arian, edo modu natural batez.

Ez da hori euskararen kasua. Bizi duen egoera minorizatuagatik eta haren erabilera soziala murriztagoa izanik, erregistro informal horiek sortzea eta hedatzea zaila egiten ari zaio.

Hortaz, hezkuntza sistemak (eta bertze eragile batzuk ere bai!) ikasleei erregistro edo hizkera informal horiek sortzeko tresnak eskura jarri behar dizkie.

Horrez gain, gaur egungo gizartean hizketak edo ahozko jardunak gero eta garrantzia gehiago du, batik bat hedabide berrien eraginez. Alabaina, irakaskuntza sistemak hein handi batean jardun idatziari begira funtzionatzen jarraitzen du, eta ahozkoari ez dio behar bezain bertzeko garrantzirik ematen.

Joserra Garzia, Andoni Egaña eta Kike Amonarrizek (24) gai hori landu dute, eta hezkuntza sisteman ahozketasunak ardatza izan behar duela proposatzen dute; gramatikaltasunetik komunikaziorako bidea egitea da proposatzen dutena.

Azken finean, euskara erabiliko duten belaunaldiak nahi baditugu, eskolatik hasita (baina ez eskolatik bakarrik) neska-mutikoei egoera komunikatibo guztietarako baliagarri izanen zaien tresna eman beharko diegu. Hortaz, erregistro informalak eta ahozketasuna lantzeaz ari garelarik, gibeletik helburu bera dago.

Hizkuntzarekiko jarrerak eta motibazioak lantzea

Hezkuntzan, eta gainerako gizarte esparruetan, euskararen ezagutza eta erabilera areagotzea izan da helburu azken hamarkada hauetan. Zorionez, gero eta gehiago dira euskaraz dakiten gaztetxoak; erabilera, berriz, ez da espero zitekeen moduan areagotu, eta kezkatzekoa da ezagutza eta erabileraren artean dagoen tartea.

Azken hamarkadetako esperientziak garbi erakusten digu euskararen ezagutzak ez duela bere horretan erabilera bermatzen. Eta horren gibeletik dau den arrazoiak edota faktoreak ez ditugu behar bezain bertze aztertu.

Eskola gune aproposa da horretarako. Are gehiago, uste dut lehen baino lehen hasi beharko luketela eskoletan modu sistematikoan hizkuntzaren estatua jorratzen, ikasleek eta gizarteak hizkuntza ezberdinekiko zein jarrera dituzten aztertzen, hizkuntza bat edo bertze hautatzerakoan eragiten diguten faktoreak zein diren lantzen...

Laburbilduz, azken bi puntuetan erran dudan guziaz loturik dago. Helburua da ikasleei behar diren tresnak ematea euskara bere egin dezaten, haien izateko eta gozatzeko hizkuntza izan dadin, eta egoera komunikatibo guztietarako baliagarria izan dakien.

Jakin badakit eskolak bakarrik ezin izanen duela helburu hori erdietsi, baina zalantzarik ez dut eragile garrantzitsua dela (garrantzitsuena ez bada).

Lan mundua eta zerbitzuak

Kanpainetatik konpromisoetara

Bortzirietan, batez ere euskara mankomunitateak bultzatuta, anitzetan egin dira alor horietan euskarari sarbidea emateko ahaleginak. Alor pribatuak

(24) Garzia, J.; Amonarriz, K.; Egaña, A.: *Euskararen kalitatea. Zertaz ari garen, zergatik eta zertarako. La calidad en el euskera. Razones y objetivos de una definición necesaria*, Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordea, 2004.

dira, eta ekonomiak agintzen du horietan. Hortaz, orain arte azalean gelditzen diren kanpainetatik haratago joatea zaila egin zaigu.

Azken bi urteotan, eta Kontseiluarekin elkarlanean, Bai Euskarari Akordioa lantzen ari gara Bortzirietan. Hasiera-hasieratik onarpen handia izan du egitasmo honek gure eskualdean. Bai Euskarari Ziurtagiria sustatzen hasi eta 124 eragilek lortu zuten ziurtagiria, eta euskararekiko hainbat konpromiso hartu zituzten. Bigarren urtean eragile gehiago bildu ziren egitasmora, eta gaur egun 136 ziurtagiridun daude Bortzirietan.

Egitasmo honen bitartez, euskararekiko azaleko atxikimendu batetik haratago joatea lortu nahi dugu. Eragileek euskararekiko konpromiso zehatzak hartzen dituzte urtero, eta horien ebaluazioa egiten zaie urtean behin. Uste dut modu honetan esparru ekonomikoko eragileek euskararen normalizazioan bide bat egin dezaketela.

Gainera, ez dugu ahortzi behar Bai Euskarari Akordioa Euskal Herrian lantzen den egitasmoa dela, eta prospekzio nazional hori ere aintzat hartu beharrekoa da. Uste dut garrantzitsua dela Abadiñoko landetxe bat, Azkaineko elkarte bat edota Berako denda bat ildo berean eta «marka» berarekin lanean aritzea.

Bortzirietan egitasmoak izan duen arrakasta ikusirik, konpromisoen bide horretatik jarraitzea lehentasunztat jotzen dut.

Familia

Transmisio hizkuntza izatetik familia hizkuntza izatera

Euskara normalizatzeko lehen plangintzak egiten genituenean gure lehenetasunen artean egoten zen transmisioa lantzearena. Izan ere, arestian aipatu dudak bezala, zenbait urtetan belaunez belauneko transmisioan eten batzuk gertatu dira, eta kasu anitzetan gurasoek ez diete seme-alabei euskara transmititu. Hortaz, lehentasunezkoa izan da euskara ikasteko biderik naturalena den hori berreskuratzea.

Gaur egun, ordea, euskaraz dakiten gurasoek seme-alabei hizkuntza transmititu ohi diete, eta azken urteotan familiaren esparruan bertzelako kezkek sortu zaizkigu. Izan ere, ohikoa izaten da gurasoek seme-alabei euskaraz egitea baina haien artean (oro har, helduen artean eta harreman horizontaletan) gaztelania erabiltzea, karriketako neurketetan ikusi dugun bezala.

Eta horrela inplizituki seme-alabei euskara umeen gauza eta eskolako kontua dela adierazten zaie. Hortaz, ez da harritzekoa adinean goiti joan ahalaztelania gero eta gehiago erabiltzea.

Uste dut familietan eta gurasoekin kontzientziazio eta sentsibilizazio lan handia egin behar dela. Euskararen geroa umeengan eta eskolarengan uzteko joera aldatzeko ahaleginak egin behar ditugu. Eta euskara, etxean transmititzen den hizkuntza ez ezik, etxeko hizkuntza izatea dugu lortu behar dugu.

Lagunartea

Lagunartean erabiltzeko erregistro informala lantzeko tresnak ematea

Gazteen artean, lagunartean, beti erabili ohi da informalagoa den erregistro bat, lagunarteko argota deitzen duguna. Euskarak bizi duen egoeragatik, gaur egun gazteei zaila egiten zaie lagunarterako hizkera informal hori sortzea; erran daiteke horretarako behar diren mekanismoak eta tresnak nahikoa ahulak direla. Horren ondorioz maiz jotzen dute gazteek gaztelaniara, behar duten hizkera berezi horren bila.

Azken finean, euskal hiztun gehienek, baita gazteek (horietako anitz euskaraz eskolatu badira ere), ez dute behar adina baliabiderik erregistro informal horiek sortzeko.

Irakaskuntzaren atalean aipatutakoak errepikatzen ari naiz. Kasu honetan, ordea, ez dut uste bakarrik eskolaren eginkizuna denik. Gainera, kontraerrana ere izan liteke eskola bezalako eremu formal batean zer eta hizkera informala lantzea.

Uste dut kasu honetan eraginkorragoa izan litekeela talde naturaletara jotzea, lagun taldeetara. Eta kontua ez da izanen norbaitek aurrefabrikatutako erregistro informala gazteei irakastea, baizik eta gazteei eskura jartzea horrelako hizkera bat sortzeko ereduak, tresnak eta baliabideak. Azken helburua da gazteek haserretzeko, gozatzeko, liluratzeko edota maitemintzeko balio izanen dien hizkera izatea; hortik etor liteke euskararekiko egiazko atxikimendua.

Hizkuntzarekiko jarrerak eta motibazioak lantzea

Eskoletan euskararekiko jarrerak eta motibazioak lantzeko egin daitekeen lanaz gainera (irakaskuntzaren atalean aipatu dudana), gazteen lagun taldeetan ere gai horiek landu egin behar dira. Erran bezala, euskaraz jakin eta gutxitan erabiltzen duten gazteak anitz dira, eta haiekin hizkuntzarekiko dituzten jarrerak eta motibazioak lantzea klabea izan liteke hizkuntza ohitura horiek aldatzeko.

Etorkinak

Elkar ezagutu

Gure herrietara datozen horiei guztiei harrera egitea guri, bertakooi, dagokigu; lehen urratsa guk egin behar dugu.

Lehenik eta behin haien egoera ezagutu behar dugu: zergatik utzi duten haien herria, zertara etorri diren, zein diren haien helburuak, zein haien egoera... Horrekin batera, nondik datozen, zein kulturatatik, zein hizkuntzatan aritzen diren, zein diren beren ohiturak eta sinismenak... ikasi behar ditugu.

Eta gurearen berri ematea ere guri dagokigu. Guk azaldu beharko diegu Euskal Herrira etorri direla, hemen geure hizkuntza eta kultura ditugula, egoera minorizatuan daudela, baina berreskurapen prozesuan, etab.

Hurbilpen horren bitartez ezagutuko dugu elkar, eta elkarbizitza erraztuko dugu. Hemengo herritarrei ez zaigu zaila egin behar etorri berrien egoera ulertzea. Izan ere, oraindik oroitzen gara hemendik zenbatek alde egin behar izan zuten gerra zibilaren ondotik bertze tokietara (Amerikara artzain, Alpeetara edo Pirinioetara mendi-mutil, neskato estatu frantsesera...) lan eta ongi izate bila; alegia, orain datozenek migratzeko dituzten arrazoi berberengatik.

Etorkinen seme-alabak euskaraz eskolatzea

Hizkuntzari dagokionez, eta etorkinek normalean lehen urteak egoera zail samarretan igarotzen dituztela kontuan hartuta, lehenasunezko helburua helduengan baino haien seme-alabengan jarria dugu.

Gaur egun Bortzirietan (25) haurrek euskaraz ez jakitea oztopo latza da. Oztopo da, batez ere, haurarentzat berarentzat, integratzeko aski baliagarria izanen zaion elementu bat, euskara, falta zaiolako, eta, gainera, aisialdian eta bizitza sozialean parte hartzeko aukerak murriztuko zaizkiolako. Eta, jakina, oztopo da euskalduntze prozesuarentzat berarentzat.

Eta euskalgintzaren erronkak

Euskalgintzaren barne funtzionamenduari begira, ekimen eta egitasmo zehatzetarako erakusten dugun gaitasuna eguneroko lanera ekartzea lortu behar dugu. Izan ere, lehen erran dudan moduan, Bortzirietan arrakastaz burutzen

(25) Ez da ahantzi behar 2001eko zentsuaren arabera 2-15 urte bitarteko neska-mutikoen % 94,35ek zekiela euskaraz ongi mintzatzen.

dira, gehien-gehienetan, helburu zehatza eta denbora muga laburra duten ekimenak, normalean herritarren parte hartze handiarekin; aldiz, eguneroko lanean eta epe ertain-luzeko helburua duten egitasmoetan parte hartzea apalagoa izaten da.

Eta euskalgintzak herritarrei begira bideratu behar dituen estrategiei buruz, ezagutza eta erabilerari begirako egitasmoetan oinarritu gara orain arte, eta uste dut hizkuntzekiko jarrerei eta motibazioei gehiago erreparatu beharko geniekeela. Batetik, hizkuntza ohiturak eta jarrerak gehiago ikertu beharko genituzke, hizkuntza hautu bat edo bertzearen gibelatik dauden portaerak eta arrazoiak zein diren ikasi, eta, bertzetik, horietan eragiteko estrategiak diseinatu.

Hortaz, uste dut erronka azkarki badituela Bortzirietako euskalgintzak datoen urteotarako; zaku bete lan.

Bertzerik gabe, eskerrik asko hau guztia aditzeagatik, eta zortzerik hobereana *Nafarroa Oinez*-eko antolatzaileei.

**LABIAGAK LARUNI ITZALA EGIN ZIONEKO,
EDO «GERLA EDER ETA MIRAGARRI HURA»
HASI ZENEKO**

*Joxan Oiz, Labiaga Ikastolako irakasle
eta zuzendari ohia*

Ederra marka, bai horixe!

Oraingo honetan ere galdetutako mesedea-edo saihesten ez jakinki eta ataka mehar honetatik pasa behar! Izan ere, zer demontre aipatu behar ote dut nik Ikastolari buruz berau sortu zuten gurasoen aitzinean. Zer ekarpen egin nezake euskararen inguruan euskaltzain jaun-andreak bertan ditugula; edota, konparazio batera, bertako euskararen inguruan zer datu bitxi edo azterketa sakon azalaraz nezake Iñigo anaiak adi-adi ditudalarik. Marka ederra, alajaina! Gaur gero etsita, hasi gabetarik.

Horrelakoetan, egin ohi dena egingen dut, hortaz.

Arratsalde on, jaun-andreok:

Aski eskasa fortunatuko den ene ekarpenaren sarrera gisa, ekar dezadan gizon jakintsu baten hitza makulu gisa. Beratik pasea, bertan laketu zuen aspaldi. Ikasketaz mediku, idazketa maite zuen. Nola zuen izena... Apezak nagusi ziren garai horietakoa zen..., baina berak letretan egin zuen prelatuz bez-titu gabe. Nola zuen izena... Bai idazlea... hemen Beran aritua,... gero alde egin zuena... Nola zuen grazia... Nola? Baroja? Ez, ez, honek euskaraz idaz-ten zuen. Ezetz bada, Baroja ez ezik bertze idazlerik pasa dela bertatik... Ho-rixe! Sarako Etxeberri. Beran mediku aritutakoa XVIII. mendean. Joannes Etxeberri Sarakoa eta mediku Berakoa!

Zera zioen, bada, saratarrak «Eskual Herriko Gazteriari» egingako deian:

...zeren jende gazteak, eta bereziki Eskualdunak bere baitharik emanak bai-tira gudura, eta gathazkara; eta nola gaztei eman behar baitzaie hekien disposizi-noari dagokan emplegua; hargatik bada nik ere hautatu dut hei hemen aiphatze-ko gerla

...eta gerlarako deia egin zuen. Baina ez Marteko zelaian gudukatzeko-, dei-tzen tut Minervaren dosteta ezti, eta kanta-alosien bidez enorantziaren kontra egi-ten den gerla ohorezkora, eta bat-bederak batere arriskurik gabe hainitz abantail eder ardiets detzakenera. Hau da gerla eder, eta miragarri hura, zeinetan jakinta-

sunak nahi baitu gizona altxatu, eta abantaillatu: hala nola enorantziak nahi baitu aurthiki, eta ostikatu. Hautxe da bada nik aipatzeko dudan gerla.

«Enorantziaren» kontrako gerrarat deitu zituen Sarako Etxeberrik, hortaz, Euskal Herriko gazteak 1718. urtean. Handik 250 urte inguru zenbait gaztek eta ez hain gaztek onetsi zuten lozorroan zegoen deiadarra. Beran 1974. urtean izan zen ernaldia. Aurten bete dira 40 urte Nafarroako bazterrotan egundaino egin den enorantziaren aldeko aldarririk handiena ozenki nagusitu zela. Bortxaz hasieran, eztiki akaberan, alde bateranzko kultura baizik onetsi ez zuen zibilizazioa plazako nagusi bihurtu zen, harik eta «gerla eder eta miragari hari» hasiera eman zitzaion arte.

Saratarrak garai hartan gazteriak zuen formakuntza eskasia agerrarazi nahi izan zuen. Orduko gizartearen gaitzetako bat omen zen hura. Jakinmina eta jakintza beharra txertatu nahi zuen beraiengan. 74ko guraso eta laguntzaille horiei harrotu zitzaion harrak, ordea, ordurako jakintsuen kontua baino segapotoen jakinduria iduri zuen hizkuntza eta kultura inarrosi zituen. Bortxazko zibilizazio *enoranteari* mozorroa kendu eta baserritarren bitxikeria etnolingüistikotzat baizik onesten ez zen hura «altxatu eta abantaillatu».

Orain, arestian Arburua andreak aipatuko zuen gisan, nahi adina ez, baina euskara karrikan da. Gerra eder hura irabazi dugu. Euskarak, euskal irakaskuntzak eta oro har euskal kulturak gazte, heldu eta zaharren arreta bereganatu dute. Ez era normalizatuan baina bai aski era naturalean (1). Emaitza ikusita gerla ederra izan da, «ohorezkoa».

Prozesuari erreparatzen badiogu, ordea, Etxeberrik ziria sartu zigun. Labiaga Ikastolak egin behar izan duen bidea ez baita «ezti» eta «arriskurik gabea» izan. Hasierako urteotan espero zitezkeen trabak, haundiagotu baizik ez baitira egin azken hamarkadan, Bigarren Hezkuntza eskaintzeko hautua egin genuen egun bertatik, alegia. Milurteko berriaren atarian «ostikatua» Ikastola izan baita. Enorantziaren aldarrikatzaileen seme-alabek ostikatua eta euskarak karrika irabazteko Ikastolak egindako aintzindari lana sobera agudo atzendu duten itsuen begiradapean.

Larun adinako ospea lortutako Labiagaren proiektuak egundaino bizi izandako irudi antzaldaketak erreparatzea aski genuke gerla eder honek izaniko joera begitantzeko: izokina uretan goiti 94ean, ahari setosoa 99an eta ur bizieta pozik igerian dabilen etxetxo orain, 2006ean.

Ez ditut entzuleak aspertuko aunitzetan biziakoa eta hamaika aldiz entzundakoa errepikatzen. Gisa berean, ez nuke Eskaltzaindiko gure gonbidatu ohoragarriak izutu nahi, alabaina, sinetsiezadazue «Gerla Eder Honek» luze jo digu. Sobera luze. Eta gerratan gertatu ohi den bezala espero ez genituen gudu batzuk galdu ditugu, uste baino eri gehiago artatu behar izan dugu sa-

(1) 250 urte eta gero badugu bertze mediku euskaldun bat Beran.

pairik ez zuen gure ospitale malapartatuan eta, hau ere topikoa baita, etxekal-teren bat edo beste aritu da nahasitako bazkak egiten. Hala eta guztiz ere, bertan da Labiaga Ikastola. Murelez beterik baina osaturik. Gogotsu. Izan ere, gustura hartu baititugu enorante berrien kolpeak eta gurasoek, langileek eta laguntzaileek eraman handia erakutsi baitute. Eta eraman hori iragazi egin da ikastolako paretetan barrena eta gure ikasleek ez dute kolperik jaso. Hartara, Euskal Herriko ikastolen elkartasunak eta makina bat euskaltzaleren babesak eraso eta prekarietatearekiko idorpe sendoa osatu baitute. Kanpoan euria ari zuela bazekiten arren Labiagako ikasleak Sarako Etxeberrik nahi zituen moduan irten baitira ikastolatik: «batere arriskurik gabe» eta «hainitz abantail eder ardietsirik».

Intsumitua den honek, hondarrean, Berako mediku saratar handiak arrazoirik bazuela onartu behar baitu: gerla ederra izan baita.

**R. M. AZKUE/LAURO IKASTOLA
LEGEZTATU ZENEKO 40. URTEURRENA**

*Bilbo, Euskaltzaindiaren egoitza,
2006-X-27*

R. M. AZKUE/LAURO IKASTOLA 40. URTEURRENA

Ongi etorriak!

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko presidentea,
Lauro Ikastolako presidentea,
Lauroko Ikastolako zuzendaria,
euskaltzainok,
jaun-andreok,
arratsalde on,

Haste-hastetik adierazi behar dut arratsalde honetan zein pozgarri den niretzat zuek Euskaltzaindiaren egoitzan hartzea. Badut horretarako arrazoi franco. Horien artean ez da laburrena ni neu ere *Lauro* Ikastolako guraso eta kontseilu-errektoreko kide izana, hemen gure artean diren batzuekin batera. Hurrena ere ez da alboratzekoa, aurrekoak eman didalako berebiziko ikuspegi, *Lauro* proiektuak gizartean duen eragin euskaltzalea ezagutzeko eta horretan partaide izateko. Azkena ere azpimarratzekoa da, ikastolek eurek ere, euren konfederazioaren bitartez, euskalgintzaren sektore bizi-bizia ordezkatzaren baitute.

Ongi etorriak, beraz, Euskaltzaindiaren etxera, zeuen etxera.

Joanak dira berrogeita urte *Resurrección María de Azkue* Ikastola Euskaltzaindiaren babesarekin legeztatu zenetik. Ia mende erdi geroago, Euskaltzaindiaren egoitzak berriro hartzen du bere teiltupean orduko *Resurrección María de Azkue* Ikastola, gaur *Lauro* Ikastola dena.

Bistan da, ikastola hura legez, Erribera kaleko lehen Euskaltzaindia eta gaurkoa desberdinak direla. Pertsonak eta aldiak aldatu dira, eta, horiekin batera, euskalgintzaren premiak eta ezaugarriak ere bai.

Aldi latzak izan ziren gerra ostekoak euskararentzat eta euskal kulturarentzat, zirrikiturik txikienak itxiak zituela, biziraupena bera ukatu arte. Aldi-kada gogor hartan, eta gerora ere, Euskaltzaindiak berea betetzen jakin zuen, ikastolekin batera, bera ere osterantzeko ekimenen bultzatzaile eta eragile izan baitzen. Abiapuntuan jarri zituen gure Akademiak, besteak beste, *AEK*, *EGA*,

UEU, Bai Euskarari, Itzultzaile Eskola eta abarrekoak, egun euskalgintzaren habe sendo direnak. Noizbait ere, luze eta zabal jardun beharko du akademiak horri buruz, nork zer bultzatu eta zer bideratu zuen egoki azaltzeko.

Gaurkoa, beraz, ospakizunerako eguna da, orduko gertaerak gogoan hartu eta aurrera begira jarraitzeko eguna. Izan ere, etorkizuna dugu eginkizun, eta egiteko moduak ere, duela mende erdikoekin konparatuz, zeharo desberdinak. Legezatzeko garaia aspalditik iragana da gure artetik, lantzean behin horretarako premiak agertzen badira ere. Zorionez, gure gizartean badira baliabide berriak euskararentzat eta euskal kulturarentzat. Horien artean, lehen-lehenak, ikastolak, horiek bermatzen baitute belaunaldiz belaunaldi euskararen eta euskal kulturaren transmisioa.

Inoiz esan dudan legez, elkarrekiko lana da hor erabakigarri, eta, Euskaltzaindiarentzat ere, hor dago bidea, behinola hainbat ekimenen sortzea eta legezatzzea izan zen moduan. Horra datoz erakundeen arteko hitzarmenak, gure arteko adostasuna eta auzolana nagusi izan dadin gure harremanetan, baikoitzak bere nortasunetik eta zereginetatik abiatuta.

Hala ulertuta, ikastolek eta Euskaltzaindiak egina dute euren hitzarmena, hain justu ere, euskal irakaskuntzaren alorrean proiektu erkideak bultzatzeko. Horrela, berriztatu eta eguneratu egin dituzte, beste behin ere, sortze-sortzetik izandako harremanak eta loturak.

Aipa ditzadan, hainbatez, hitzarmen horien xehetasunak, 2004ko urriaren 21ean sinatu baikenuen geure arteko hitzarmena, Euskaltzaindiaren eta Ikastolen Konfederazioaren artekoa.

Oroi ditzagun, hortaz, orain dela 40 urte asmoz eta gogoz jardun zuten gerra osteko lehen ikastolaren suspertzaileak eta euskaltzain osoak. Haien ekina goratu dezagun, eta zinez aitortu, gaur ere, beraiek ondu zuten ahalegina. Apustu gogorra egin eta guri euskararen aukera eman ziguten haiei gaurko aitortza zor diegu. Ea gu geu ere gauza garen, gure ondorengoei aukera bera eskaintzeko.

Horretara, zalantzarik ez, prest gaituzue euskararen bidea batera egiteko.

Mila esker.

Esan dut.

LAURO IKASTOLA

*Ignacio Etxeberria,
Lauro Ikastolako presidentea*

Arratsalde on.

Laburra izateko eskatu didate, eta oso laburra izango naiz, ondoren gure Zuzendariak nik baino hobeto azalduko baititu gogoratzen ari garen urteurrenaren zehaztasunak.

Edozelan ere, ez dut ahaztu gura, gaur hemen gu egotea posible egin duten pertsona eta instituzioei behar den moduan eskerrak ematea.

Horregatik, nire izenean eta *Lauro* Ikastolaren izenean, eskertu gura dut bihotz-bihotzez, Euskaltzainditik irakasle eta guraso haiei heldu zitzaien laguntza, ideia berri baterako: euskaraz bizi, euskara kaleratu.

Ez zen lan erraza, ez zegoen inongo laguntzarik, bai, ordea, trabak, beldurra, eztabaida asko...

Lauro –R.M. Azkue– Ikastola sortzea ez zen lan erraza. Frankismoa bizi-bizirik zegoen, euskararen aldeko joerak ez zeuden ondo ikusita, edo, hobeto esanda, zapaldu egiten ziren. Gurasoek semeak Azkuera bidaltzea, irakasleek umeei irakastea, langileak Ikastolara eramatea lortzea, gai ia ezinezkoak ziren.

Horregatik, orduko lanak, irakasleenak, Euskaltzaindiarenak, gurasoenak, Aldundiko Ibarra jaunarenak, gaur begiratuta, erraza dirudi. Baina orduko egonera ikusita, hitz batekin bakarrik deskribatu dezakegu: ausartak.

Gaur egun, esan dut, erraza dirudi; baina nahiko nuke emakume eta gizon haiek beren arazoak, beren istorioak, beren eguneroko beldurra, gure aurrean kontatzea. Batzuk ez dira dagoeneko gurekin, eta horregatik aurkezpen txiki hau emakume eta gizon ausart haientzako gogorapen bero batekin amaitzea nahiko nuke.

Eskerrik asko.

R. M. AZKUE/LAURO IKASTOLA 40. URTEMUGA

*Pedro Aranburu,
Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko lehendakaria*

Andres Urrutia euskaltzainburua,
Ignazio Etxeberria Lauro ikastolako presidentea,
Jaime Martinez Lauro ikastolako zuzendaria,
Euskaltzaindiko zuzendaritzako kideak,
hona hurreratutako euskaltzain osoak eta urgazleak,
ikastolen Federazioetako presidentek eta erkideak,
lagunok!

Sasoi bateko Resurrección Maria de Azkue Ikastola, gero *Lauro* Ikastola izena hartuko zuena, legeztatu zela berrogeigarren urteurrena ospatzen delarik, Euskaltzaindiak ageriko bilkura honetan esku hartzeko egindako gonbita eskertu nahi nuke lehenbizi. Halaber, gure herrian hainbatetan desiratutako bakea eta normalizazio politikoa gertatzeko urrats itxaropentsuak ugaritzen ari diren une hau, iraganari begiratu azkarra egiteko ez eze, etorkizunari beha zenbait gogoeta lau haizeetara barreiatzeko ere baliatu nahiko nuke.

Hainbatetan uste edo esaten denaren kontra, eskola elebidunaren aldeko aldarria ez da oraingoa, ez eta aurreko mendeko 80ko hamarkadan gorpuztu zen eskakizuna ere. Alta, XIX. mendean indarra hartu zuen eskaria izan zen, bada, Frantzian eta Espainian eskola berriaren oinarriak zehaztu ziren garaitik dator, gutxienez. Izan ere, Frantziak eta Espainiak barnebiltzen zituzten herri-sentimenduak urtu eta estatu zein nazio sentimendu bateratuak sortzeko bidean, besteren artean, hezkuntzaz baliatu izan ziren. Sasoi hartan gorpuztutako hezkuntza sistema horietan ez zegoen hizkuntza-aniztasunerako tarterik; beraz, bestelako hizkuntzen artean, euskararentzat ere, apenas. Testuinguru horretan, euskarari egiten zitzaion hutsunea gogoan, Campioneek nola baita Azkuek berak garai bateko eskola kritikatu zuten. Hain zuzen, aurten ehun eta hamar urte betetzen dira Instituzio honen buru izan zen Azkuek, gabezia horri erantzun egokia eman nahian, bere eskola sortu zuela. Gure artean nabarmena denez, Azkueren itzala, ostera, ez da horretan gelditu, are luzeagoa da, besteak beste, kaleei, plazei, Lekeitioko ikastolari, euskaltegi bakarren bati eta abar bati utzi baitie izena.

Geroztik, euskararen irakaskuntza lehenik eta euskarazko irakaskuntza ere aldarrikatu ez ezik, gauzatzeko askotariko ahaleginak egin dira, dela Diputazioen eskutik dela gizartearen esku-hartzearekin zein bestelakoekin. Ahalegin horien artean errotuena eta hezkuntzan eraginik zabalena izan duenak Ikastolen sorrerarekin eta garapenarekin zerikusia du ezbairik gabe.

Espanian, II. Errepublikaren kontrako altxamendu militarrek ezarri zuen diktadurak hankaz gora jarriko zituen, aldi baterako, ikastolen mugimendua ez ezik, administrazioaren baitako bestelako eskoletan euskararen eta euskarazko irakaskuntza bideratzeko ordura arte egindako urratsak ere. Baina, nahia, beharra, gure hizkuntzari eta herri-izaerari eusteko gogoak hor zirauten. Beraz, berrogeita hamarreko hamarkadan, beraien ongizatea arriskuan jarritz, bidegile suertatu diren guraso askori esker, han-hemenka ikastolak sortzen hasi ziren berriro, diktaduraren jazarpenetik ihesi, Euskaltzaindiaren, elizaren zein bestelako erakundeen atzerpea bilatu zutelarik, bidenabar.

Argi esan dezadan, Euskaltzaindiak ez ditu egin soil-soilik gure hizkuntza garai berrietara egokitzeko urratsak. Horrezaz gainera, euskararen zabal-kundea nola baita haren garapena ahalbidetzeko, gutxieneko lege aitormena bilatuz egin dituen askotariko urratsetan ere erabakigarriak suertatu dira haren ekarpenak: dela aurreko mendean, hirurogeiko hamarkadatik aurrera, pertsona helduen alfabetatze eta euskalduntze mugimenduaren sorreran eta garapenean izan zuen erantzukizunaren bitartez, dela ikastolen zabalkundea laguntzeko egin dituen ekarpenen bidez, dela *Jagon* Sailaren bitartez burutzen dituen askotariko jardueren bitartez eta abar. Nafarroan nola baita Euskal Herri kontinentalean jarri zaizkigun askotariko behaztopak arintzen ere hur eduki dugu Euskaltzaindia. Honegatik guztiagatik, ikastolen mugimenduko goreneko ordezkaria naizen aldetik, etxean eta aldi berean etxeko sentitzen naizela aitortu behar dizut, Andres Urrutia adiskidea.

Hirurogeiko hamarkadan, lehenagotik ereindakoak fruituak ematen hasi ziren, horra hor Euskaltzaindiaren eskutik euskararen batasunean egindako urrats erabakigarriak. Inguruabar horretan, gure hizkuntza indarbertitzeko ahaleginean mugarri gertatu den une horretan, beste batzuekin batera, ikastolak ondoan izan zituen Euskaltzaindiak. Izan ere, garai hartan, batzuek eredu bateratuaren aldeko apustua euskalkien kontrako joera edota euskarak irauteko mehatxua ikusten zuten lekuan, ikastola gehienok euskararen biziberritzea ahalbidetzeko aukera historikoa antzeman genuen. Horra hor, bakoitzak deza-keenetik eskuz esku lankidetzan aritzeko adibide paregabea.

Euskararen normalizazioa lortzeko bidean, lanean jardunez, arian-arian euskara garai berrietarako egokitzea ezinbestekoa da, eta horretan, erakunde aholku-emaile ofiziala Euskaltzaindia da, duda izpirik gabe. Baina, aldi berean, nire uste apalean, Euskaltzaindiak gure premia ere badu, besteren artean, gure bitartez hedatzen baitira batasunaren bidean egindako urratsak, hiztunek noiznahi eta nonahi euskaraz jardun dezaten modua eginez, bidenabar. Orobat

hiztunek erabilera eremuak behar dituzte, hori lortzeko xedez, Euskaltzaindiak nola ikastolok beste batzuekin jardutea ere garrantzi handikoa da.

Badira iraupen gutxiko elkarte zein erakundeak beren jardunaren arrastorik utzi izan ez dutenak. Badira, ostera, unean uneko zailtasunak gorabehera, hamarkadetan, mendez mende lanean segitzen dutenak, horiek dira ezinbestekoak, behar-beharrezkoak gure hizkuntzak irautea eta garatzea nahi badugu egunean zein etorkizunean. Gaur eta hemen, hizkuntza eta hezkuntza gaietan Euskal Herrian hedatuta gauden erakunde nagusietako ordezkariak elkartu garelarik, gure arteko harremanak estutuz eta bizkortuz, euskara gure herrietako plazetara eta mundura eramateko dugun intentzioa, eginbeharra aldarrikatu nahi dut Ikastolen izenean.

Eskerrik asko guztioi!

**EUSKALTZAINDIA ETA LAURO IKASTOLA:
EUSKARAREN ALDEKO 50 URTEKO KIDETASUN
IBILBIDEA**

*Jaime Martinez,
Lauro Ikastolako zuzendaria*

Eskerrik asko Andres Urrutia, euskaltzainburu jauna, Euskaltzaindiak eman digun aukeragatik, zuekin batera, zuen etxe honetan, egungo *Lauro* Ikastola proiektua eta Bizkaiko Ikastolenak posible egin dutenen laguntza isila eta ahalegin eskergaitzak aitortu eta ezagutarazteko, laster beteko den 50 urteko ibilbide luzean.

Ikastolaren hastapenetan eta ondorengo urteetan ere, Euskaltzaindia, euskaltzain eta euren inguruan batzen ziren euskaltzale askorengandik hartuz joan zen arnasa eta laguntza, funtsezkoak izan ziren. Eta inoiz, erabakiorrak ere, ikusi ahal izango dugunez.

Oztopo eta zalantza beteriko urte ilun haietan, jatorriz, lanbidez edo pentsakeraz ezberdinak ziren pertsona ugari jardun zen Ikastolaren alde, beti ere, GOI ASMO nagusi bardin batek eraginda: Euskara eta Euskal Herriaren iraupenari laguntzea. Nikolas Ormaetxea euskaltzainak, «Orixe»k, *Euskaldunak* poemaren atarian agertu zuen berdina zen, eta orain *Lauro*ko lehen DBH-ko ikasle talde batek kantuz agertuko digu:

*ZATOZKIDA, GOI-ARNAS.
EIZU NEREKIN LAN,
ERRI BATEN ARNASA.
MAMITU DEZADAN.
GEROAK ESAN BEZA:
ERRI BAT IZAN ZAN;
EDO-TA ATS EMAIOGUN.
ONTAN IRAUN DEZAN.*

Gerra osteko ikastolaren berpiztuera bizkaian eta lehen itxierak

1957.eko urria – 1959.eko azaroa

Resurrección M^a de Azkue jaunak Colegio Ikastetxea sortu zuen Bilboko Jardines kalean, 1897. urtean. Lehen ekimen honek bi urtez baino iraun ez bazuen ere, agerian uzten du Euskaltzaindiaren lehen burua izango zenak eskolari ematen zion garrantzia euskara jagoteko eta beronen iraupena bermatzeko.

Ondorengo hamarkadetan, euskaltzale taldeek euskarari eskoletan lekua egiteari ekin zioten. Baina gudu zibilak ahalegin horiek guztiak eten egin zituen.

50. hamarkadan, berriro ere euskaltzale talde txiki batzuk euskara ikasi edo euskaraz alfabetatzeko talde txikitik elkartzen ausartu ziren.

Bilboko Euskaltzaindiaren egoitzan, Erribera kalean, Xabier Peña Albizu jauna, maisua, atzerritik etorri berria eta euskaltzain ohorezkoa, euskarazko klaseak ematen hasi zen 1952-53. urteetan. Ikasleen artean, zenbait guraso gazte aurkitu zituen, bai eta Magisterio Tituludun andereñoak ere.

Donostian Elvira Zipritiak hasitako etxeko ikastola esperientzia ezagutzen zuen Xabierrek eta laster bultzatu zituen guraso taldetxo bat eta M^a Angeles Garai andereñoa ere, Bilbon gerra osteko lehen Ikastolari hasiera emateko.

Geroago *Lauro* Ikastola bilakatuko dena, hamalau ikaslerekin hasi zen San Nikolas parrokiari, 1957.eko urriaren 9an, José Irraragorri osagilearen bidez, Jesús Gonzalez parrokoak utzitako egoitzan. Beronek utzitako kotxe batean etortzen ziren ikasleak Ikastolara. Geroago Gandarasbeitia gurasoak «*Aiga*» zahar bat lortu zuen, ikasleek «kotxe amerikane» deitzen zutena. Txoferra ere euskalduna zen, Alzola deitura zuen markinarra.

En febrero se sumó un grupo más de trece hijos de familias castellano parlantes, a instancia, entre otros, de Bernardo Mesanza, interesadas en suplir la carencia del euskara que ellos habían heredado.

Entzun ditzagun hasiera honetaz María Ángeles Garai, lehen andereñoaren zehaztasunak:

Hemen, San Nikolaseko Parrokian, hor, 4. pisuan dagoen areto eder baten hasi ginan 1957an, urriari. Hori zelan sortu zan? Ba, horretarako gizon berezi eta kementsu bat izan genduan inguruan, Xabier Peña, eta berak lortu eban, ez dakit, gurasoak, irakasleak, eta tokia bilatzea.

Xabier Peñak 1949an Bilboko lehenengo euskaltegia zabaldu eban, Kontxa kalean, eta milaka euskaldundu eta alfabetatu ziran. Berak beti agertu eustan asmo hori: Bilbon ikastola bat sortzea. Berak ezagutzen eban Donostiako ikastola, ezagutzen ebazan Donostiako ikastolak, batez ere Elvira Zipitriaren adiskide mina zan. Lehenengo, Xabierren eskutik beti, Elvira Zipitriaren ikastola ezagutzera joan nintzan. Eta han emon neban denboraldi bat, eta guztiz...bueno,

gelditu nintzan txundituta ikastolarekin, ze... hain toki, gela ilun baten eta txiki baten, eta ikustea andereño harek zelako pedagogia erabilten eban, zelako abestiak, eta umeen, ez dakit, bere goxotasuna ikustean,... nik dana, blok guztia benga idatzi eta idatzi ibiltzen nintzan. Berak esaten eban guztia, abestiak eta dana.

Azkenean, bueno, ba, hasi ginan, eta ikasturtea oso ondo egin genduan, oso ondo. Azkenean ikasturtea amaitzerakoan antzerki eta guzti egin genduan,... Eta Xabier Peña aipatu gura dot barrero ere, ze bera izan zan, batez ere, ikastoleen sortzaileen ardatza. Orduan, Xabierrek, ikastola eta gero alfabetatzen ebazan andereñoak.

Ikasturte amaieran baina, Gurpide Bilboko Gotzainak Ikastolari lekua ikatzeko agindua eman zion Jesús González parrokoari.

Iralabarriko Frantziskotarren komentuan hartu behar izan zuen babesa handik hilabete batzuetara, 1959.eko urtarrilaren 8an, alegia, Aita Eugenio Agirretxeren laguntzarekin.

Hurrengo ikasturtearen hasieran, jadanik 48 ume zeuden, Ikastolara autobus arrosa nabarmen batean Bilbotik zehar abiatzen zirenak, eta 4 andereño, Gobernadore Zibilak itxi zuen arte, azaroan, orduko hezkuntza ikuskariaren Pablo Sánchez Azpuru jaunaren salaketaren ondorioz:

Siendo la situación que aquí se produce totalmente ilegal y tratándose además de un centro en el que claramente se atenta contra los sagrados intereses de la formación patriótica, entiende esta Inspección que debe procederse a la clausura inmediata del mismo y a exigir las responsabilidades que de las situaciones señaladas en el presente informe pudieran derivarse.

Ikuskariak ama euskalduna zuen, Zornotzakoa, eta berak ere bazekien euskaraz. Patrik Markoartu ikasleari gerra aurreko Euskal Herriko mapa bat aurkitu zion, zazpi lurraldeak hartzen zituen.

Ikuskariak polizia deitu eta Ikastolara heldu zen. Besterik gabe, lau eta sei urte bitarteko ikasle guztiak etxetara bidali zituen, negarrez eta izututa.

Gobernadorearen erabakia gogorra izan zen guraso, andereño eta Ikastolaren bultzatzaileentzat. Jarritako zigorrak eta isunak samurtzeko, katekesia zela adierazi zuten gurasoek errekurtsioan. Gotzainak, oster, idatzi bat igorri zion epaileari, bertan egiten zena katekesia ez zela adieraziz, katekesia ordu beteko saioetan irakasten zelako, astean hiru aldiz, eta ez egunero eta jardue-ra osoz.

Jon Bilbao, Ikastolako gurasoa eta euskaltzain ohorezkoa, Estatu Batuetako pasaportearen zuten eta gertatutakoaren lekukoa izan zen. Amerikar Kontsulatuan eginiko salaketaren ondorioz zazpi urtez Euskal Herriatik kanpo bizi behar izan zuen. Urte batzuk beranduago, bere bitartez hasi ziren Lauro Ikastolara etortzen euskal amerikarrak, ingeles lektore lanetan, 90. hamarkadan.

Entzun dezagun, lekukoen azalpen zuzena: Jasone Irarragorri eta Isabel Andia, lehen ikasle taldekoak:

Jasone Irarragorri:

*zer egiten genuen? Jolastu, abestu, antzerkia egin, eta holako gauzak...; baina ere bai, gaiak eta bere... matematikak, kenduketak... Ni gogoratzen naz hamen... gauza bat buruan geratu zen betiko: egun baten, egon ginen klasean, eta bat-batean zabaldu zan atea eta ikusi gendun,... holan bibotedun gizon bat, sartu zala, eta holan ipini eban besoa, gorantza, eta guk danok ikaratuta, Andereño Maria Angeles han begiratzen, ipini zan seria seria eta han,... eta gure geografía, zen..., liburua zen, Euskal Herriko geografía eta mendiak eta bueno holan..., eta nik momentu hartan pentse nuen, hau txarra da eta hartu nuen liburu hori, geografía, eta ipini nuen hamen eperdi behean, hamen, eta han geldi-geldi. Eta gero, bueno,... gizon hori zan inspektorea, klaro, eta orduen esan zigun abestuteko **cara al sol**, eta klaro guk ideiarik ez zer zen **cara al sol** ez ezer. Ordun serratu zan ikastola, eta bai gogoratzen naz zelan ni joan nintzen etxera, liburuarekin eta batarekin, negarrez, negarrez... ama, ama serratu dabe ikastola ama...*

Isabel Andia:

Iralabarrin, nik uste, ume gehiago egon ginela. Apurtxu bet seriotxoa zen, idazti gehiago be egin genduan,... irakasle gehiago,... Ikastola itxura gehiago zeukan. Be bai bilbotarrak, Bilbo erdikoak ganera,...

Jasone Irarragorri:

*han problema bat egon zan, jada gu 8-9 urtekoak, eta ez zan, orain esaten dana, **enseñanza reglada**, ez, ez... eta orduan, ni gogoratzen naiz Ikastola eta gero, bostetan edo seietan,... Nik neukan andereño bat erderaz,... ikasteko eta gero joateko esamina egiten institutura.*

* * *

Bigarren hasiera: ikastola, etxerik etxe

1960.eko maiatza – 1966.eko maiatza

Honen guztiaren ondorioz, Ikastolaren proiektua zapuztuta geratu zen, eta sortutako zorrak, ordaintzeke. Xabin Zubirik 25.000 pezetako isuna hartu zuen. Julitak berak, 12.000 pezeta ipini behar izan zituen. Guraso gehienak beldurtu egin ziren eta inguruko arau barruko ikastetxeetan matrikulatu zituzten sei urtetik gorako seme-alabak.

Baina ez ziren denak otzandu. Hilabete batzuen ondoren, 4-6 urte bitarteko umeen guraso gutxi batzuk Ikastolaren sua berpizten hasi ziren, era apa-lagoz eta isilagoz, halabeharrez, Julita Berrojalbizen ekimen eta ardura nagusiz. Euskaltzaindiak 1967an euskaltzain urgazlea izendatu zuen eta euskaltzain ohorezko 1989.ean.

Ikasturtea amaitzeko, JEL (Jainkoa eta Legezarra) Iriondok utzitako etxe-bizitzan bildu zituzten seme-alabak, 1959.eko maiatza aldean, egungo Juan Ajuriagerra kalean.

Ikasturte berria hastean, 1960.eko urrian, ume gehiago batu zen eta Estibaliz Gereño andereñoak bere etxean hartu zuen osoturiko taldea. Baina goizetik gabera Agirretxek sortutako moja-taldean sartu zen eta Agurtzane Olazabal andereñoak hartu zituen, erbestetik etorri berria, Julitak Xabier Peñaren bitartez ezagutu zuena.

Ume kopurua gehituz joan zen eta etxe-bizitza gehiago aurkituz joan behar izan zuten, kontu handiz beti ere, 1966. urtean Ikastolak behin-behineko baimena lortu eta Elkanoko egoitzan ikasle guztiak batu arte. Etxeak 100etik gora izan ziren Abando, Zabalburu eta Indautxu aldean kokatuak, batez ere.

Gehienetan, egonaldi laburrak egiten zituzten etxe berdinean, eta umeak etxez-etxe aldatzen ziren, ezbeharrak konpartitzeko eta auzokoen susmoak edo eragozpenak larregi ez pizteko. Julitak esan bezala, guztiz aipagarria eta eskertzekoa da gehienon jarrera irekia eta pazientzia.

Baldintza hauetan ikasleek 8 urte bete arte hartzen zuten irakaskuntzak ona behar izan zuten, ondorengo ikasketak inguruko lege barruko ikastetxeetan egoiki jarraitu ahal izateko, eta Ikastolarekiko gurasoen gogo onak ez ahultzeko.

Bi eginkizun nagusi zuten honetarako Julita Berrojalbiz andereak eta ikastolako emakume talde bultzatzaileak:

– Bata, **andereñoak aurkitu eta prestatu:**

Denak izan behar ziren tituludunak. Eta ume talde baten ardura hartu aurretik, Julitaren etxe-bizitzako ikastolan egonaldi bat egin behar zuen andereño orok metodologi berrian eta irakas-baliabideetan trebatzeko. Andereñoak aurkitzea zaila bazen, mantentzea zailagoa gertatzen zitzaien. Sarritan aldatzen ziren. Bulego edo denda baten erraz gehiago irabazten zuten. Aseguro sozialik ez xuten izaten, Lauroko proiektua hasi arte 1973.urtean.

Euskaraz alfabetatzeko, Julitak, Euskaltzaindira bidaltzen zituen andereñoak.

Ikasleentzat eskola-fitxak prestatzeko Iñaki Goikoetxea jesuitarengandik laguntza handia hartu zuen. Sarri abiatu behar zuten elkar Bilboko kaleetan zehar. Eta garaiko gizartean susmo gaiztorik ez eragiteko, emakumea eta klerigoa bata bestearengandik metro batzuk urrunduta joan behar izaten zuten.

Ikastola legezatu ondoren, Catalunyako berrikuntza pedagogikoko taldeengandik hartutako formazio-laguntza garrantzitsua izan zen, bai eta irakaskuntza esperientzien elkar-trukaketa ere.

– Eta bigarrena, **ageriko ekintza osagarriak eta udalekuak:**

Ikastolaren lan-onaren islada izan behar zuten. Antzerki, musika eta kantu emanaldi ugariak egiten zituzten Gabonetan, ikasturte amaieran, bai eta Euskaltzaindiaren inguruan eraturiko literatur lehiaketen sariak hartzeko saioak ere.

Aparteko garrantzia eta oihartzuna izan zuten geroago, Ikastolako umeen Lehen Jaunartzeek, San Vicente parrokian. Ikastolako umeak ez zuten gutxiago izan behar beste ikastetxeetakoak baino. Tunika zuri dotorez janzten zituzten eta dena zehaztasunez prestatzen zuten. Euskaraz egiten zituzten eta euskararen aldeko agerraldiak ere baziren. Guztiz hunkigarria gertatzen zitzairen askori garai hartan kantak eta sermoiak euskaraz entzutea, eta abertzale asko hurbiltzen omen zen ospakizun horietara.

Lehen udalekua Arrazolako *Kiputxena* baserrian eratu zuten 1960. urteko udan, etxe-bizitzetan ikasleek hartzen zuten hezkuntza saioen osagarri. Ondorengoetan Nafarroako Deikaztelun, FUNCOR enpresaren laguntzarekin, Bermeoko Mañu auzoan, etab. Hona, behintzat, Xabier Kintana euskaltzain osoa ere noizbehinka azaltzen zela komentatzen zuen Julitak. Azkenetan Bizkaia osoko ikastoletako umeak parte hartzen joan ziren.

Ekimen hauen oihartzuna Bilboko Deustu, Matiko, Santutxu eta beste auzoetara zabalduz joan zen, bai eta herri askotara ere. Parrokia edo komentuen laguntzarekin gehienetan Ikastolen haziak Bizkaitik zehar zabalduz joan ziren, Julitaren aholku eta gidapean, beti ere. Bermeora, esate baterako, Anton Ormazak deitu zituen. Julita, M^a Angeles Garairekin joan zen eta bere zazpi urteko alaba Isabel ere eraman zuten, bertoko guraso taldeari zelan euskaraz gain gaztelaniaz ere ederto hitz egiten zuela erakusteko. Eta ingelesean ere moldatzen hasten zela.

Garai honetako Ikastolaren zehaztasunak Begoña Zaratek, orduko ikasle batek, emango dizkigu:

Begoña Zarate naiz eta nire etxe aurrean nago, Maria Diaz de Haro 16, portala da, hemen jaio nintzen eta... oraindik hemen ni ez naiz bizi orain, baina nire ama oraindik hemen bizi da, 4. pisuan, eta hau zan nire lehenengo, nire etxea, eta nire lehenengo ikastola...

*Hona etortzen ginen, 15-18 ume, ibiltzen ginen etxerik etxe... holan ibili ginen etxerik etxe, bada, 8-9 urte izan arte. Jada, klaro, ikastolak ez zeukan ofizialtasunik, orduan, orduan hasten zan batxilerra 10 urterekin, 10-11 urterekin, eta joan behar ginen kolegiotara. Han egin nuen batxiler osoa, Veracruz, COU egin nuen Bilboko instituto zentratean eta handik pasatu nintzen Deustuko Unibertsitatara, ingeles filologia ikastera. Han amaitu, eta **Lauron** hasi nintzen lanean, ingelesezko klaseak ematen eta han jarraitzen dot, jada, 27. urtea, han nagoela.*

Kolegio hasiera ez zan erraza izan, dana hain ezberdina, eta gogoratzen dot, lehenengo egunean, kolegiotik bueltan, etxera etorri nintzenean, gurasoek

galdetu zidaten: zelan kolegioan lehenengo egunean,... eta zer egin duzue, eta kontatzen nien... dana erderaz, pupitrea geneukan, eta dana zan oso ezberdin. Eta han danak ilaran jarrita, lehenengo otoitza egin, eta otoitza amaitu eta hasten ginen abesten, eta etxera joan eta kontatu,... otoitz egin dugu eta gero abestu dugu, eta zer abestu duzue?, eta hasi nintzan abestuten abestu genuena eta klaro, zan Espainiako himnoa.

Sasoi hartatik badituz hemen liburu batzuk oso... bihotzez gordetzen ditudanak, eta hau bereziki maite dot, gainera,... daukalako andereñoaren dedikatoria niretzat eta hemen jartzen du... «Zaratetar Begoñak, ikastolako lehenengo saria 1961.-62. ekitaldian», eta irakasleak eta andereñoaren izenpena: Intxaustitar Alazne. Andereño hau nik ez dot oso ondo gogoratzen, andereñoak aldatzen ziren, eta bai, nik uste dot, gehien denbora gehien egon zana gurekin zan, andereño Zeberi, nik izen hori buruan daukat, andereño Zeberi..., uste dot Zeberi Mardalas zala.

Eskolaz aparte, nik gogoratzen dot, urtean behin, uste dot, kurtso amaieran joaten ginela Euskaltzaindiara, orduan Erribera kalean zegoen. Eta aparte, eskolatik aparte, baita gogoratzen dot udan joaten ginela udalekuetara, joaten ginen Arrazolarra, euskara praktikatzera, eta han euskaraz bizitzera, bi aste, hiru aste. Joaten ginen klasekideak eta neba-arrebak ere. Nik uste dot izango zela hostal bat edo, beheko pisuan taberna bat eta goiko gelan egongelak. Eta logela bakoitzean lo egiten gendun lau-bost umek, ohe bakoitzean bi-hiru, depende zelako ohea. Ez zen bereziki horretarako prestatua izan, baina oso pasatzen genuen eta oso oroimen onak ditut egonaldi haietaz.

Nire gurasoak beti egon dira oso eskertuta euren auzokideekin, esanez, inoiz ez dutela inolako oztoporik jarri, hainbeste ume gora behera, eguenero lau aldiz, gora behera, eta bueltan arratsaldean, eta etxeko zaratak. Gurasoek esaten dute inoiz ez zutela inolako kejarik jaso, ezta? Gogoratzen dot etxeko atezaina, zan Guardia Zibil jubilatua bat, eta berak bazekien nire etxean zer gertatzen zan, eta inoiz ez zuen ez kejarik jarri, ez..., beti oso ondo tratatzen zigun.

Bosgarren pisuan,... Garellanon lan egiten zuen militar bat zan, nahiko, bueno, kargoduna, uste dot koronela zala edo,... eta noski berak,... etxe azpian zeukan hori dana... ume pilo hori, zaratak egiten, eta berak bazekian nire etxean egiten zana, eta behin etorri zan gure etxera, agur esatera, Euskal Herria itzi behar zuela. Eta aipatu zuen, bada, bizitzaren kontradikzioak, ezta,... berak zenbat urtetan,... jakinda zer gertatzen zan nire etxean eta inoiz ez zuela ez protestatu, ez ... oztoporik jarri, ez salatu ez ezebez. Eta hori dana bera bizi ondoren, eta berak hemengo izanda, alde egin behar zuela hemendik.

*Baita ere gogoratzen dot, hemen pasteleria bat dago, eta lehen ere pasteleria bat zegoen,... beste jabe batzuk ziren lehengoak, eta ni jada, **Lauron** nengola lanean, behin, pasteleriako alabak, hara bidaltzen zituen umeak, eta behin kontatu zidan txikitan berak, ikusten zuela nire etxera zenbat jende, zenbat ume joaten zan, mugimendua ikusten zuen hemen, eta behin bere amari galdetu ziola: zer gertatzen da Zaratetarren etxean? Amak erantzun zion, bueno badakizu... lau nebarreba dira eta beti dago urtebetetzeak eta ospakizunak eta han beti dagoelako saltza... eta berak esaten zidan, jo zelako enbidia pasatzen nuen nik.*

* * *

**Behin-behineko baimena eta legeztatzea:
Resurrección M^a de Azkue Ikastetxea**

1966.eko maiatza - 1968.eko maiatza - 1973

Eskola-liburuak, derrigorrezkoak

Julitak 1965.eko abenduaren 21eko hezkuntza legearen berri izan zuen: orduz gero, eskola-liburuak derrigorrezkoak ziren ikasleen Lehen Hezkuntzako ikasketak ziurtatu eta ondorengo lehen Batxiler ikasketak hasi ahal izateko.

Eskola-liburu horiek baimendutako ikastetxeek baino ez zituzten eman-go. Baimen gabeko ikastetxeetako 9-10 urteko ikasleek Eskola Publikoan egin behar izango zituzten horretarako azterketak.

Ordura arte, Batxiler aurreko «Ingreso»rako arazorik gabe hartzen zituzten inguruko ikastetxeek Ikastoletako umeak, egoki prestatuta ikusten zituztelako.

Egoera berriaren aurrean, derrigorrezkoa iruditu zitzaion Julitari Bilboko ethez-etxeko Ikastolako ikasle eta familientzat ofizialtasuna lortzea.

Ikastolak horretarako egoitza behar zuen, ikasgelak kokatzeko. Tere Roetaxe euskaltzalea eta Ikastolako kolaboratzaile apartekoak, Elkano kaleko 6. zenbakiko 1. solairuko ezkerria eskaini zuen, hutsik zegoena, errenta sinboliko batez. Bertan kokatu zen ikastola. Hurrengo urtean, eskumaldekoea ere hartu zuten. Eta geroago, ikasle kopurua urtez urte gehitu ahala, Gran Vía 33.eko lehen hiru solairuak.

Baina ikastetxe bat legeztatu ahal izateko, funtsezkoago zen oraindik lege barruko entitate baten arauzko titularitatea eta babesa lortzea.

Xabier Peñarengana zuzendu zen berriro ere Julita, eta honen bidez, Alfontso Irigoienengana jo zuen, Euskaltzaindiko orduko idazkaria.

Legeztatze prozedura, Bilbon eta Madrilen

Alfontso Irigoien berehala konturatu zen arazoaren garrantziaz eta Ikastola legeztatzearen aldeko lanari gogor eutsi zion, bere indar eta eragin guztiekin, Julitarekin batera.

Ikastolari babesa ematearen aldeko proposamena Euskaltzaindiaren batzarrean aurkeztu zuen Alfontso Irigoienek 1966.eko urtarrilaren 28an. Alde onak eta txarrak eztabaidatu ondoren, onartu egin zen. Hemendik aurrera, Euskaltzaindiak Ikastolen ibilbidea hurbilagotik jarraituko zuen eta elebitasunaren aldeko ekintza ugari sustatuko zituen.

Otsailean egin zion baita Foru Aldundiko Buruari Ikastolaren aldeko idatzi baten eskabidea, hurbilekoa zuen Fernando de Ibarra Diputatuaren bitartekaritzaz, hezkuntzako Ikuskariak esan baitzien:

Si ustedes consiguen esa comunicación de la Diputación todo podría ser mucho más fácil.

Erantzuna maiatzaren 23an sinatu zuen Foru Aldundiko Buruak:

... dispongo se haga llegar a la Academia de la Lengua Vasca la complacencia con que la corporación ve la creación de dicho colegio de Primera Enseñanza, donde ha de cultivarse el vascuence, juntamente con el idioma oficial.

Maiatzaren 25ean idatzi zion Madrileko Hezkuntza Ministerioko Lehen Hezkuntza Zuzendari Nagusiari Ikastola legeztatzeko arauzko eskabidea:

Que teniendo el proyecto de abrir un colegio de primera enseñanza denominado Resurrección Maria de Azkue, en memoria de tan ilustre vascofílo, en el piso primero izquierda de la calle Elcano número seis de la Villa de Bilbao, que constará de seis unidades de enseñanza para niños de ambos sexos, párvulos y hasta ocho años, en el cual se enseñará, además de el idioma oficial, en lengua vasca, para cuya apertura se presenta toda la documentación exigida por la ley, así como la comunicación de un decreto de la Exma. Diputación de Vizcaya apoyando la iniciativa,

Solicito de V.I. sea concedida la autorización para su normal funcionamiento.

Ikastolaren inaugurazioa eta behin-behineko hasiera

Inguruan irudi ona agertzeko eta orduko autoritateen eragozpenak gutxitzeko, ekainean inauguratu eta bedeinkatu zen Ikastola. Espainiako bandera ipini zen, bai eta Francoren irudia ere, Sortzez Garbiarena eta Gurutzea. Gotzaina, Gobernadore Zibila eta Inspektore Burua gonbidatu zituzten. Honek atsegina handia hartu omen zuen, arauzko Espainiako bandera ikustean, eta ordura arteko ikastolarekiko bere jarrera ezezkorra aldatzen hasi zen. Elizbarrutiko gotzaina ere, Gurgide jauna, lehenago Ikastolari trabak ipintzen ibilia, gaztelaniaz eta euskaraz mintzatu zen, eta elebitasunaren laudorio biziak egin zituen.

Miguel Angel Astiz nafar kazetariak, Euskaltzaindiko kidea eta Ikastolaren bultzatzaile bizia, hurrengo egunean, *La Gaceta del Norte* egunkarian inaugurazioaren berri zehatza eman zuen, euskara gorai patuz, eta euskararen iraupenerako Azkuerena bezalako ikastetxe elebidunen beharrezana nabarmenduz.

Eta honen guztiaren ondorioz, eta ohi zenez irakasleen arauzko agiriak aurkeztu ondoren, Hezkuntza Ikuskariak behin-behineko hasierarako baimena eman zion Ikastolari.



Legezko baimena, berriz, ez zen heltzen. Eta kezkatzen hasi ziren ikastolako gurasoak 1.968. urtean. Are gehiago, Bizkaiko Hezkuntza Ikuskari berriak, Jose Maria Zapater jaunak, trabak ipintzen hasi zitzaientean eta eskola liburuak ukatuko zizkiela esan zientean, Ikastetxeak legezko baimenik ez zuelako:

ustedes tendrán que llevar a examinar a los niños a la escuela pública más cercana.

Julita Berrojalbizek, Sanchez Aizpuru aurreko ikuskariarengana jo zuen, azalpen baten bila. Eta honek Bilbon arazoak izango zituztela eta zuzenean Madrilera jotzeko esan zion, Lehen Irakaskintzako Zuzendariarekin zuzenean hitz egiteko.

Julita Berrojalbiz, Alfonso Irigoien eta Tere Rotaetxe, Madrilera joan ziren. Madrilen ziren ere, Fernando Ibarra, ordurako jadanik Bizkaiko Foru Aldundiko presidentea zena, eta Antonio Arrue, euskaltzain osoa eta Gorteetan Gipuzkoako prokuradorea. Prozedurari bultza egiteko laguntza eskatu zieten eta, Julitak komentatu bezala, Antonio Arruek zabaldu zizkien Ministerioko atek, edonontzat irikigaitzak garai hartan, are gehiago ikastola batentzat.

Apirilak 17ko goizean hartu zituen Tena Artigas jaunak Lehen Hezkuntzako zuzendariak. Sanchez Azpuru lehenagoko ikuskariaren aldeko informea eskuetan zuen, zeinetan beste batzuen artean esaten zuen:

que era una vía mejor para atraerse a los vascos.

Hala ere, legeztatzea ez zela posible esaten zien behin eta berriro.

Halako batean esan omen zien:

esto mismo me lo ha solicitado un colegio inglés y ...

eta orduan Julitak, aurrera egiten utzi gabe:

pero no nos va a comparar con el colegio inglés, que es una lengua extranjera...

esan omen zion.

Bat-bateko ateraldi honek txundituta utzi omen zuen eta pixka bat eba-kita bezala. Baina ez zuen amore eman. Alfontso Irigoien ere saiatu zen eus-kaldunak ez dugula zertan bigarren mailako hiritarrak izan behar eta garen be-zalakoak aitortzea sor zaigula eta antzeko argudioekin saiatu zen. Baina elkarrizketatik esperantzarik gabe atera ziren.

Horrela agertu ziren Abandoko geltokian, Madriletik bueltan, goibel eta nahiko etsituta, itxaroten zeuzkaten guraso eta lagunuen aurrean.

Handik eta bost egunera, ordea, Lehen Irakaskuntzako Zuzendariaren te-legrama heldu zitzaizen esanez:

Fecha hoy firmóse orden autorizando funcionamiento colegio no estatal en-señanza primaria Resurrección María Azcúe, (sic) esa capital.

Jarrera aldaketa honetarako, agian lagungarri gertatu zen ere, apirilaren 16an izandako Hezkuntza Ministerioan aldaketa, elkarrizketa egunaren bezpe-ran, izan ere. Ministeritza arduradun berria Villar Palasí zen, Frankismoaren azken aldian hezkuntza sistemaren erreforma nagusia burutu zuena, oina-rrizko hezkuntza orokorra ekarri zuena.

Erabakia 1968ko maiatzaren 7an argitaratu zen boletin ofizialean.

Hizkuntza bietan irakasteko legeztatutako lehen ikastetxea izan zen Eus-kal Herri osoan, euskara hezkuntza legean oraindik onartu gabe jarraitzen ba-zuen ere.

Legezapena bultzatu eta lagundu zuten guztiak garaipen honetaz arro egon dira beti eta geroagoko aurrerapenen aitzindari bezala ikusi izan dute.

Helburutan sendo, bideetan malgu: ikastolari kritikak eta legeztatzearen aurkako iritziak

Ikastolako gurasoek eta bultzatzaileek aurkitzen zituzten oztopoak eta zailtasunak ez ziren izan bakarrik orain arte aipatutakoak.

Hezkuntza-ikuskari berriek legezapena indargabetzeko Ikastolari trabak ipintzen jarraitu zuten. Eta *Lauroko* proiektua hasi zutenean tramite guztiak ezerezetik hasi behar izan zituzten eta aurretiaz lortutako baimen guztiak kontutan izan gabe.

Bestalde, sarri askotan entzun behar izaten zituzten inguruko lagun edo senitartekoengandik honelako esaldiak:

estais jugando con la educación de vuestros hijos. No tenéis derecho a hacer lo que hacéis. El euskara está muerto. ¿Euskara? ¿Por qué no inglés?

Julitak eta..., erantzuten omen zieten:

ya lo veréis, nuestros hijos mejor que los vuestros.

Eta horrela gertatu zela komentatzen zuen geroago, ikastolako ikasle gehienek unibertsitate ikasketak egin zituztelako. Irakaskintza elebiduna ikasleen ikasketa prozedurak aberasten dituela sinesten zuten. Andereñoen prestakuntza eta lan-onaren konfidantza osoa zuten. Ikastolako ikasleek ondorengo ikastetxeetan jarraitzen zuten ibilbide onaren jakinean zeuden eta hezkuntza Ikuskariak berak Ikastolaren hezkuntza kalitatea sarri goraiatzen zuen. Ipin-tzen zizkien trabak azpiegitura akatsenak ziren edota administrazio arauenak.

Gizatalde batzuentzat, berriz, ikastola burges-txiki abertzaleen proiektu individualista zen, iraganaren nostalgiaz kutsaturikoa, etorkizun gabea, arbuigarria.

Abertzale asko, bestalde, legeztatzearen aurkakoak ziren. Ez zuten inondik inora onartzen Ikastoletan Espainiako bandera eta gainontzeko sinbolorik ipintzerik, itxura emateko bazen ere. Bilbotar euskaltzale epelen jokaera «kolaborazionista» arriskugarritzat hartzen zuten, Ikastolen benetako euskal sena ezabatu egiten zuena. Elvira Zipritia bera biziki hasarretu zen legeztatzearen berri izan zuenean, eta urteetan garatutako Bilbo eta Donostia aldeko ikastolen bultzatzaileen arteko harremanak, aldi luze batean, etenda geratu ziren.

Eragozpen eta kritika guztiak ez ziren nahikoak izan ikastolako talde arduradun eta gurasoen gogo bizia eta ahaleginak gutxitzeko. Seme-alabak euskaraz ikasten aurrera egiten ikusteak era guztietako kritikak eta zailtasunak indargabetzen zituen.

Ikus ditzagun Elkano Ikastolako lekukoen testigantza: Begoña Insunza, gurasoa eta emakume talde-arduradun kidea; Mertxe Sagarna idazkaria; Olatz Larrauri eta Koldo Zabala ikasle-ohiak:

Begoña Insunza:

oinarrie, Ikastola honen oinarrie izen zen... hainbat ume egoten zirean han etxerik etxe eta emon ein bihar jakon urtekera bat, eta emon jakon urtekera, etorri hemen [Elkano kalea], ipini gendun hemen, 6en ezkerreko pisuen, ezkerrealdeko pisuen, izen zala Tere Rotaetxerena,... eta gero hanibeste ume, ez gendun

euki lekurik, ta orduen bildu zan dirue, bueno ipini gendun, beste... alde biek, eta legalizaziñoa dala ta, bada, ez gendun beste erremediorik euki, espainiako ikurrina ipintea.

Legalizaziñoa oso garrantzitsua izen zala, ze ezpabe umeak urteten eurien ikastolatik kartila barik eta kartilak direz beharrezkoak beste ikasketa batera joateko, ta orduen, Julia Sanchez de Aizpurua inspektoreagaz..., bueno, geratu zirean Madrilera joateko. Baimena etorri zen ez zala ikastola bat euskaraz ikasteko, baizik euskeran ikasteko, erderaz esanda: «no era para el aprendizaje del euskera, sino para aprender en euskera.

Mertxe Sagarna:

hemengo ikastolako gobernua guraso batzuk sortuta egoan. Guraso horrek bertako ikastolako antolaketa eroaten eban, eta esate baterako, Julita Berrojalbiz izaten zan Pedagogia arloko arduraduna, zuzendari pedagogikoa eta irakasle eta pedagogi arloko gauzak berak eroaten zituen.

Begoña Insunza:

Tere Rotaetxe izaten zan, diru bila eta ibilten zana, eta gero ikastolaren konponketa eta horren ardura guztie berak eroaten eban. Euskaldunek izan zirean andereñoak, baie behar bada, diru asko ez gendunez euki, seguru barik egon zirean eta hori izen zen inportantea. Gero Lauron izen zen beste gauze bat.

Mertxe Sagarna:

Ikastola, hemen Elkano 6ko lehenengoko pisuan, hemen agertzen diren zuriz dagozen leihoetan egoten zan, atzeko erdialderaino; 8 edo 10 gela, ez dot gogoratzen ondo, 8 edo 10 gela izaten ziren. Egoten zan idazkaritza bat, eta gero... komunak eta gero, gelatxo bat umeak jolasteko, atzeko alderdien. Ze... hemengo ikasleak ezin izaten ziren Plaza Eliptikara joan jolastera txikiak ziren ta.

Behar egiteko andereñoak bilatzea guztiz gatzatza izaten zan, ze orduko denboretan seguru barik gengoan eta Seguridad... ze dirurik ez egoan, Seguridad social barik behar egitea, ba jendeak. Eta gero tituluak..., tituludun irakasleak ziren danak, danak, eta irakasle batzuk ganera Errepublikako denboran irakasle izandakoak eta oposiziñoak galdutako irakasleak ziren, eta horregatik, adibidez, Trini Torrontegi, Pilar Muñategi eta horrek ziren, Julia Egia,...

Begoña Insunza:

umeak ikastolara eroaten genduzen gurasoak, ez ginen guraso normalak, ze normalak izengo baginen, ez gendun ipiniko gure semeak arrisku horretan, ze arrisku handie izen zan. Baia euskarari euki gendun maitasuna izen zen oztopo guztien gainetik bultzatu egiten gendune.

Koldo Zabala:

guretzako hemen klaseak ematea nahiko gauza ona zen, bertan genuelako etxea, oinez etortzen ginen, giroa nahiko ona zen, eta bueno..., batzartu egiten ginen gela batzuetan, hasiera batean nahastuta geunden, klase batzuek eta beste batzuekin, eta maila desberdinetan...

Olatz Larrauri:

Elkanoko ikaslea izan nintzen 3-4 urtetik, 7 edo 8 urtetara, bertan egon ginen eta gogoratzen dodan gauza bitxi bat zan, orduko abestien artean, Espainako erreserki edo himnoa irakasten zigutela, bada ez bada, inspektorea hamendik agertzen zen. Ni ikastolako abestiekaz etxera joaten nintzen, nire amari abesten nion Espainiako himno hori, ta konturatzen nintzen ez zitzaiola batere gustatzen, eta ez nuen ulertzen zergatik.

* * *

Centro de estudios Oñate

Azkue Ikastolaren jarraipena

1.968ko urria

Azkue Ikastolako ikasleak Lehen Hezkuntza amaitu eta inguruko ikasteetara aldatu behar izaten ziren, 10 urterekin, garaiko oinarritzko Batxiler ikasketak burutzeko.

Ikastola proiektuari jarraipena eman gurean guraso taldeak Centro de Estudio Oñate delakoa sortu zuen. Eta titular bezala, Centro de Estudios Oñate Sociedad Mercantil Anónima eta mugagabea, 50.000 pezetako kapitalarekin.

1968.eko otsailean Azkueko guraso eta ikastolako laguntzaileen artean honako idatzi hau zabaldu zen:

Euskera –gaztelerazko lehenengo ikastola sortzeaz, Euskaltzaindiaren babespean, Bizkaiko seme guztientzat, bertan jaio diren guztientzat eta baita kanpotik etorri direnentzat azken urteotan, geurea dan hezkuntza erabiliz ikasteko aukera eta bidea zabaldu zaie. Baina bide zabaltze horri jarraipenik ematen ez bazaio, ikastolek egindako lanari jarraituz, bigarren irakaskintzako ikastetxe bat sortuz, bertan ume euskaldunek batxilergoa elebitasun barruan egin dezaten, lan hori osagabea izango litzateke.

Donostiako Santo Tomas Liceoak arrakasta handia lortu du batxilergoa elebitasunaren barruan sei urtez irakatsiz. Bizkaitarrok ezin dugu atzera egin, ba gure kulturaren berbiskundearen aurrekuntza honetan, eta, nahiz eta mundu osoaren ondasuna izan, eta mundu guztiko Unibertsitate guztietan izan euskal katedrak, geuri eta Euskal Herrian bizi garen guztioi, edo bertan jaio garenoi, nahiz eta ez bizi bertan, dagokigu zaintze, babes eta zabalkunde zeregina. Hau da, ba, «Centro de Estudios Olañeta»ren jaiotzaren zioa, inor baztertu gabe, ahaleginak bateratuz hain helburu zintzoa lortzeko, hau da, euskal kultura zabaldu eta sendotu bere oinarrietatik hasirik.

Gran Vía 33ko laugarren solairuan kokatu zen, Azkueren egoitzaren gainean, izan ere. 1.968.eko urrian izan zuen hasiera eta 1.973ra arte iraun zuen, Lauroko proiektua indarrean ipini zen arte. Akademia moduko bat zen eta azken azterketak institutoan egin behar izaten zituzten ikasleek.

Entzun ditzagun lekukoak: Karmele Goñi, Miren Goitia eta Txaro Mujika, emakume arduradun taldekoak; Ines Albizua, andereñoa; eta Gorka Estebez, Itziar Mujika eta Olatz Larrauri ikasle-ohiak:

Karmele Goñi:

Oñate sortu zan, eskola... Azkue bukatzen zutenian umiak, 8 urtetan, ez zeukalako jarraipenik eta ordun joaten ziran monja edo fraileen eskoletara... ta gure lana ematen zun bukatzen zala han. Ordun, ausardi askokin pentsatu zan egitea zerbait hori jarraitzeko. Eta egin zan, sortu zan, Sociedad Anonima Merkantil bat, Sociedad Limitada, Sociedad Anonima, eta jarri ziran bost persona, lau guraso eta beste... gure lagun bat abokatua, eta haiekin egin zan, 6 de julio de 1967, egin zan dokumento hau. Dokumento hortan, nola zan merkantil, edozein lana egiteko ez genduen eskatu behar gehiago, ez baimenik eta ez ezer ez.

Hortarako hartu gendun etxe hortan [Bilboko Gran Vía, 33], zan Banco Vizcayana, alokatu gendun 3. pisua, 3. pisu hortan, jarri zan lehen urtea. Gero politikari, etxe guztiak, pisu guztiak hustutzen joan ziran, eta guk hartu ginduzen. Batzuk, Resurreccion de Azkue ikastola pasatzeko gerora, zergatik pisu hartan ez ginan sartzen, eta bestea goikoa beti batxilerrerako, ta dirua lortzea, eta paper guztiak egitea... izan ziran gizonak egiten zutena lana, horietan, bateko bat izan zan nere senarra, Joxe Maria Mujika, eta gero diru biltzaileek ere izan ziran, baita ere Tere Rotaetxe. Hor jarri zenean Batxilerra, hiru urte besterik ez gintuzten euki, zergatik ordurako, ikusi gendunian hainbeste ume genduzela Azkuen eta hemen ere, urtetik urtera igotzen ari zirela batxilerra nahi zutenak egin, pentsatu zan kolegio bat egitea, baina ikastola bat handia. Hemengo arduraduna izan zan, Miren Goitia.

Miren Goitia:

gure lana? Material berria sortuteko, material jolas sortuteko, eta garbitasuna adibidez,... eta umeak,... eta... apurtxu bet... Gauza bat, horra Plaza Elipitikara erooten genduzan umeak jolastuteko, etorri egin jakun polizia munitzial... Baita ere administraziñoa mantentzen nun, administraziñoa ordaintzeko,...

Txaro Mujika:

bueno, pues empezamos a venir, nos poníamos un día cada una, pero como muchas veces, pues había madres que no podían venir, pues te decían: hoy puedes venir?... Yo solía venir dos días a la semana, el teléfono si llamaban, si venía algún padre alguna cosa, o algún recibo, o cualquier cosa... Y luego abrir las puertas a todos, y luego tener cuidado en el pasillo,... salían de las clases y armaban unos,... en los pasillos,...

Karmele Goñi:

erosteko gauza guztiak behar ziranak, bai ikastola baterako eta besterako izan zan Tere Rotaetxe. Tere Rotaetxe izan zan benetako ardatza. Tere izan zan ardatza.

Inés Albizua:

danetik falta gendun, material gauza dana falta gendun, dana, baina hori guzti hori konpontzen zan, gure borondateagaz, lan onaz eta gure, ez dakit, ondo egin gureagaz,... liburu falta, itzela eta materiala era guztietako material falta...; orria, ingurrestia edo papela ez zan ikasleana, dana zan danena, eta ez dakit, nik

pentsetan dot, hori be... heziketa guztiz pedagogikoa, alde batetik, eta beste ale batetik soziala be bai badala. Esaterako fitxak egin behar genduzanean, esate baterako, andereñoak prestatzen eban,... fitxa hau landu behar dogu edo bestea. Eta gero hainbeste fitxa behar ziran lez, hainbeste umeentzat, gero... zuk 10 beste guraso batek beste 10, besteak 10, eta holan egiten zan.

Umeak joaten zirenean institutora joaten zirean ondo, ondo, ondo prepa-raute, ezta? Eta baten baina sarriago emon doskue, zuzendariari emoten eutsien zorionak, hain ondo, eta zelango... erantzun oso onak ateratzen ebezalako, esaten eurien guztiz ondo prepa-raute joaten zirala.

Gorka Estévez:

ni Gorka Estebez naz, eta etorri nintzan hoan 11 urterekin, Azkuetik nentorren, eta hemen egin nuen batxiler elementala. Oroimenak edo nik daukadan gorantzak oso bitxiak dira. Adibidez, jolastokiaren asuntua: gure jolas lekua Moyua enparantza zen, hori euria ez denean, orduan, hemengo pisuko sukaldean, han sartzen ginen jolasteko. Hemen, pisu baten ez zegoen aukerarik gimnasia egiteko, orduan, Escolapios ikastetxera joaten ginen. Hemendik, 10:00etan polisa hartu, eta han gela baten sartu eta imajina, ezta? Azkenengo bi urtetan jarri zen hemen holango harri bat, eta beti andereñoak eta... hemen daukazue Lauroseko lehenengo harria, eta nik... azkenean lortuko dot ikastetxe arrunt batera joan, ezta? Nik ez nuen ezagutu hori.

Itziar Mujika:

hemen egon ginan hiru kurtso. 1. batxiler, 2. batxiler ta 3. batxiler. Zu zinan bigarrenekoa, neu nengoanean 1. mailan, zu 2. mailan. Ginan hiru kurtso, gu gehienak ginan, eta gure gela zan etxeko saloia, handiena, gu etxeko saloian. Gu 10 ginen. Bai eta gu..., buruz ez naz akordaten, egia esateko. Guretzat bai trauma handiena izan zan joan behar ginala examina atera libretik institutora, orduan instrituto zentralera joaten ginan, neskak alde batetik eta mutilak bestetik, hori be bai aluzinantea zan guretzako, gu gelan geunden danak batera.

Gorka Estévez:

ba beste gauza bat, hemen urte osoa euskeraz ikasten eta gero, ekainean institutora azterketa erderaz, eta hori, be bai... hori ez zen erreza.

Itziar Mujika:

andereñoa, ni 1. batxilerren eukin neban horrela garrantzitsuena da Agurtzane Alberidirekin akordaten naz; 2. mailan batxilerren Ines, Ines...

Olatz Larrauri:

garai hartan errezagoa zan beste ikastetxe baten umeak sartzea, hona sartzea baino, eta gure gurasoek apostu gogor bat egin zuten, arriskutsua,... eta guzti horrek merezi izan duela, eta gure seme-alabek jarraitzen dutela ikastoletan, kasu honetan Lauron.

Gorka Estévez:

ni gutxienez, ez naiz egon Lauron, baina nire seme biak han daude.

* * *

Ikastolaren proiektu berria:
Cooperativa de enseñanza *Lauro*
1973.eko iraila – 2007

Azkie Ikastolako ikasleen kopuruak etengabe handituz jarraitzen zuen, bai eta Centro de Estudios Oñatekoak ere. 630 ikasle izatera heldu ziren, 72-73 azken ikasturtean.

Ikasgela egokietarako leku falta izugarria zen, bai eta jolas orduetarako, irakasleentzako, etab. Elkano eta Gran Víako eskola egoitzek ez zuten gehiagorako ematen.

Arazo horiei hoberen erantzuteko eta bere seme-alabei beste inon baino hezkuntza hobea eskaintzeko, eta euskaraz, ikastetxe berri bat egin behar zela pentsatzen hasi ziren ikastolako gurasoak 1.969. urtean.

Hezkuntza erreforma garaiak ziren, bestalde. Espainiako Gorteek, 1970eko abuztuan onartuko zuten Luis Villar Palasí Ministroaren «Ley General de Educación» delakoa, 71-72ean indarrean ipintzen hasi zena. Eskola eta unibertsitate aurreko ikasketen egituraren diseinua erabat aldatuko zen: ikasle guztien oinarriko hezkuntza hamalau urtera arte luzatzen da (OHO - E.G.B), eta 10-14 urte bitarteko orduko oinarrizko Batxilerra desagertu egin zen. 1971eko Ministerioko aginduak zehazten ditu O.H.O.ko eskola berrietarako gutxieneko bete beharreko baldintzak: ikasgelako metro karratuak; zientzia-laborategi, preteknologia eta biblioteka ikasgela bereziak; talde handietan aritzeko gela polibaliadunak; jolas ordu eta kirol ekintzetarako espazio estali eta ireki handiak, etab.

Erronka hauei egoki erantzuteko, Ikastolak eraketa eta azpiegitura beste eredu bat behar zuen.

Gran Víako egoitzan egin zen bileran 16 pertsonako Batzordea osatu zen ikastola berriaren proiektua aurrera ateratzeko eginkizunaz.

Horretarako guraso bilera, elkarrizketak eta galdekizun zehatzak ere egin zituzten, zerbitzu motak erabakitzeko, diru-ekarpenak, prezioak, etab.

Batzorde burua Josu Beldarrain konstruktorea ipintzen zuten, erraz ulertzeko moduko arrazoiengatik. Hemendik aurrera, gizonaekoak ardua gehiago hartzen hasi ziren.

Batzordea, ondoko lanak betetzen joan zen proiektu berria aurrera ateratzeko:

- **Ikastetxearen kokapena:** Bilbon ezin, proiektuak eskatzen zuen lur azalergatik, eta Bilboko Udalaren gomendioz, Loiu aldera abiatu ziren. Bertako *Lauroeta* auzoan *Lauro Txikerra* izeneko baserria aurkitu

zuten, 46.730 metro karratuko lur zoruak zituena. Saltzaileak, Ikastola bat egiteko zela jakinda, merkatuko prezioaren azpitik eman zuen, 3.912.239 milioietan.

- **Lauro Hezkuntza Kooperatiba Elkarteak:** proiektu berriari eusteko beharrezkoa zen gurasoak erakartzea eta gutxieneko kopurua lortzea. Izan zuten honetan lan nahikorik. Gurasoen Kooperatiba eraketa juridikoa iruditu zitzaien errazena eta proiektuari hoberen egokitzen zitzaiona, 1970.eko otsailean eginiko guraso bileran. Formula hau hartu zuen lehen Ikastola izan zen. Behin-behineko Errektore Batzordea izendatu zen aurreko batzorde kideekin osatua. Ekainaren 1ean inskribatu zuten Madrileko arauzko erregistroan:

Ikastola ireki zenean 422 bazkide ziren. Bilboko gehiengoari, Getxoko Algorta, Loiu, eta Sarriena eta Unbe urbanizazioetako familiak ere gehitu zitzaizkien.

- **Eraikin berriaren proiektua:** Landar Gallastegi eta Nikola Madariagak garatu zuten, ikastolaren senean eta gogoan oinarrituta eta inguruko ikastetxe eta eskola instalazio hoberenak aztertu eta gero. Aparejadorea, Anton Etxebarrieta bazkidea izan zen. Eta ikasle ia guztien bizi-lekua kontuan izanik, jantoki zerbitzua eta bus parkina ere bazituen.
- **Proiektuaren finantziaketa:** familia bakoitzak 30.000 pezetako diru ekarpena egin zuen, 3 zatitan, ikasleak ikastolan hasi zirenerako bikoiztu egin zena.

«Banco de Crédito a la Construcción» delakoarengandik 10 milioiko mailegua lortu zuten Madrilan eta 5 milioiko beste bat lortu zuen Josu Beldarrainek, interesik gabe gainera, «Banco de Bilbao»gandik, Sanchez Asiain jaunaren bitartekaritza, bazkideen artean Bankuaren bezero ugari zirela argudiatuz.

Bazkideentzako lehen memoria ekonomikoa Alberto Elorriagak prestatu zuen eta, harrez gero, urtero hartu dute.

Entzun ditzagun orduko arduradunen azalpenak: Josu Beldarrain, lehen Presidentea, Jon Aldazabal, bigarren Presidentea eta Alberto Elorriaga, hirugarren presidenteordea.

Jon Aldazabal:

al principio de la década de los 70, se presentaba un problema de capacidad de las ikastolas entonces existentes, eso dio lugar a que hubo que hacer un proyecto de cooperativa de enseñanza, que transformaba un poco el problema hasta ahora existente, educacional, en un problema fundamentalmente financiero y de riesgo. Hubo que aportar dinero, hubo que hacer aportaciones personales, hubo que hacer tramitación de permisos, y hubo que acometer unas obras

de envergadura; los riesgos eran importantes... En esas condiciones lo que había que hacer era, dos cosas fundamentales: unas obras, y una captación de dinero. Para ello, el primer presidente nombrado de la Junta Rectora de la cooperativa de enseñanza Lauro, que fue Josu Beldarrain, acometió estas dos tareas con un espíritu de sacrificio increíble.

Josu Beldarrain:

*me acuerdo que en una reunión, estaba yo sentado aquí y delante de mi estaba Santi Brouard, y me interrumpió y me dijo: Josu, pero no dices nada de que vamos a hacer... la enseñanza y la cosa de estudios,... y le dije a Santi: Santi yo soy encargado de hacer la ikastola, la obra... **Lauro**.*

Nos dieron un préstamo... la cuantía no te puedo decir; sé que nos dieron, y que quedo semi hipotecado, no hipotecado, pero había... con garantías personales, precisamente yo era garante personal de aquel préstamo.

Alberto Elorriaga:

es cuando empezasteis la labor de proxenetismo, porque había que coger cientos de personas, dispuestos a aportar su cuota de cooperativistas, lo más difícil en aquella época, que las ikastolas eran todavía una aventura, casi.

Jon Aldazabal:

la Ikastola, tenía que responder a la enseñanza de un número de alumnos cada vez mayor, y eso significaba tener una estructura de profesorado, una estructura de medios, comidas, etcétera, que no fue fácil de realizar, pero que permitió seguir adelante e ir incrementando el número de cooperativistas, y por la tanto, el número de aportaciones de socios.

Alberto Elorriaga:

hay un cambio de dimensión gigantesco, porque de ser pequeños núcleos se pasa a ser una gran empresa, con todo lo que supone de transporte de 622 alumnos aquí, de comedores, etcétera, se cambia de... la palabra empresa parece que suena un poco mal, pero... realmente la dimensión de tener pequeños centros, a hacer, un centro con seiscientos y pico alumnos, con todo lo que supone de servicios, autobuses, andereños de autobús, alimentación,...

Lauro Ikastolaren hasiera

Klaseak hasi aurreko egunak larriak izan ziren, ikasgelak, sukaldea, eta dena egoki prestatzen. Bestelako trabak ere baziren: hezkuntza Ikuskariak dena zehatz begiratzen jarraitzen zuen eta «Guerrilleros de Cristo Rey» delako taldearen idatzia ere hartu zuen Errektore Kontseiluko Presidenteak bere etxeko buzoian, Ikastolan egin behar zuten bilerarako lehergailu bat iragarritz: *era Presidente, entonces, Jon Aldazabal.*

Eskola altzariekin Lleidatik etorri behar zuen kamioiak klaseak hasi aurreko goizaldeko 4etan heldu zen.

Lehentsuago guraso talde batek, isilean, ikurriñaren jasoketa egin zuen, lehena izateko, hurrengo goizean derrigorrez ipini behar baitzen Espainiakoa alegia. Alberto Galarzak, Errektore Kontseiluko kideak, egin behar izan zuen lan hau, beti ere, ikurriña era ofizialez jasotzeko eguna heltzen zenean, berak egingo zuela denon konpromezua hartu eta gero. Eta handik urte batzuetara, konpromezua bete egin zen.

Kamioia hustu eta altzari guztiak ikas geletan ipini zituzten gurasoek, goizeko 8etarako. Ordu horretan ateratzen ziren lehenengoz Bilbotik *Lauro* Ikastola proiektu berrira, 14 autobusetan, 600 ikasleak, 1973.eko irailean. Bai eta ordura arte *Resurrección M^a de Azkue* edo *Centro de Estudios Oñaten* ari ziren irakasle gehienak, ere. Ikasle nagusienak OHOkO zazpigarren maila egitera.

Resurrección M^a de Azkue Ikastetxea, bestalde, bere aldetik funtzionatzen jarraitu zuen Eskolaurre bezala, 1983.urtean itxi zen arte.

*Lauro*ko proiektu berriztatzaileak oihartzun baikorra hartu zuen eta Bilboko euskaltzale eta hiritar askoren laguntza eta babes eskergaitza jaso zuen.

Oso garrantzitsuak izan ziren Bilbon edo Madrileko administrazioan egin beharreko negoziaketetan hartutako pertsona askoren argibide eta laguntzak, euskaltzale biziak ez baziren ere.

Pertsona askok egin zituzten proiektu berrirako ekarpen esanguratsuak, *Lauro*ko proiektu berria eta kultura definituz joan zirenak:

- Bilboko margolari ospetsuek arte-lan ekarpen bikainak egin zituzten, *Lauro*ko hormak apaintzen jarraitzen dutenak.
- Euskal historia eta kulturaren irakasleen informazio iturrirako eta ikasleen ikasketarako ekarpen bibliografiko ugariarekin osoturiko biblioteka.
- Aipatzekoak dira hiru zientzia laborategiak, arkitektoek obragatik ko-bratutako itzulitako honorario-diruez egin eta hornituak, ikasleen zientzien ikasketa esperientzien bidez ahalbidetzeko, *Lauro*ko proiektuan jarraibide sendoa izateko.
- Lorategien landare bilduma hautatu eta ekarri zituen Isidro Rementriak, Errektore Kontseiluko kideak, inguruko berezko espezie ugarietz gain, ikasleak ezagutu eta ingurugiroarekiko sentsibilitatea garatuz joateko.
- Eskolaz kanpoko kirol ekintzetan Angel Zulueta lana nabarmendu zen: *Lauro*ko futbol taldeari hasiera eman zion eta jokalarien jantziei gerra aurreko euskal selekzioaren kolore berdinak jarri zien.
- Ikasleen eskola-menuak, Santi Brouard bazkideak prestatu zituen. Eta barazkijaleentzat menua hasiera-hasieratik eskaini izan du *Lauro*ko Joseba Bidaurrezaga bazkideak eratuta.

Eta era bereziz aipatu behar ditugu hemen, **Euskaltzaindiaren ekarpenak**. Hona hemen, gogoratzeko moduko batzuk:

- Euskara batua edo euskalkien arteko eztabaidan, *Lauro* Ikastolako arduradunek, Euskaltzaindiaren arauak jarraitzea erabaki zuten.
- Euskaltzaindiko kideek euskaratzen zituzten Errektore Kontseiluaren lehen idatziak.
- Ikastolaren proiektua sendotzeko, Alfontso Irigoien, Juan Jose Zearreta eta Ricardo Badiolak lagunduta, 1979.eko ekainean etorri zen *Laurora*, *Laurorik* Unibertsitatera ateratzen zen lehen promozioari orduko D mailako euskara agiria lortzeko azterketa egitera, egungo EGaren baliokidea.
- 1974-75 urteetan, Jose Miguel de Barandiaran, aita Lafitte eta Jean Haritschelhar euskaltzain osoak eta ospe handiko adituak *Laurora* etorri ziren ikastolako guraso, irakasle eta partaide guztiei euskal kultura eta senaz mintzatzera:

estas conferencias las gestionó Juan Mari Covian, miembro del Consejo Rector, ya fallecido, sumamente activo y relacionado con las personas de Euskaltzaindia para éstas y otras cuestiones de interés, junto con los socios Xabier Elorriaga, Antón Cuadra e Iñaki Juaristi.

Lauroko proiektu berri hau zuzentzeko eta Unibertsitate aurreko orduko BBB-UBI etapara zabaltzeko, Errektore Kontseiluak Juan Luis Goikoetxea izendatu zuen Zuzendari Pedagogiko, euskaltzain urgazle dena.

Juan Luisek prestatu zituen aipaturiko Euskaltzaindiko «D» ereduko euskara tituluak lortzeko ikasleentzat ikastaro eta saio bereziak Ikastolan. Eta Baxilergoko irakasleak Udako Euskal Unibertsitateko ikastaroetan parte hartzea bideratu zituen jakintzagaietako programak euskal erreferentziaz osatzeko eta euskaratuz joan ahal izateko.

Gurasoek eta inguruko denek zerbait berezi eta garrantzitsuari hasiera ematen ari zirela konbentziturak zeuden. Sentipen honek ikututa, euretariko batek, aipaturiko hitzaldiaren amaieran, emaztea zegoen klinikara eramane zituen, honek ezer ez zekiela, aita Lafitte eta Haritschelhar, jaio berria zuten semea bataiatzera. Aita Lafittek bataiatu zuen, Jean Haritschelharrek ondoan kandela zuela.

Entzun ditzagun azalpen zuzenak eta zenbait lekukoen testigantza: Jon Aldazabal, bigarren presidentea; Aitzol Cuadra, ikasle ohia, aita Lafittek bataiatutakoa; Itziar Mujika eta Koldo Zabala, ikasle ohiak; Angel Zelaieta *Lauroko* irakaslea.

Jon Andazabal:

para acometer este proyecto educacional, teníamos una preocupación doble, en el sentido de no permitir que dos conceptos como son política y religión, interfirieran en la educación de los alumnos. Eso no era sencillo, porque desde

el punto de vista religioso, había conciencias muy avanzadas, y exigentes, y desde el punto de vista político, la clandestinidad que imperaba en aquel momento, llevaba a los partidos a pretender a hacer la acción sobre el centro, que más o menos se podía tener con la enseñanza.

Si nos ceñimos un poco al tema de Euskaltzaindia, hubo unas aportaciones en los primeros tiempos que dejaron un nivel cultural, plasmado en forma clara. Concretamente, en la primera conferencia que dio José Miguel de Barandiaran fue todo un éxito, hablando de la etnia, definiendo lo que era etnia, y aclarando que no es exactamente raza, sino una convivencia de personas con un medio cultural común. Firmó en el libro de honor y fue la primera firma del libro de honor de la ikastola. También nos dio una conferencia Haristchelar con toda su capacidad de expresión, y el Padre Lafitte que aprovechó la circunstancia para bautizar a un niño, Aitzol, hijo de un cooperativista. También nos ayudó mucho en los primeros tiempos, en la traducción de las circulares que preparaba la junta rectora. Eran circulares largas, porque los temas exigían mucho texto.

En aquellos tiempos el fervor patriótico, tenía que tener algún soporte, y vivíamos de detalles, como por ejemplo el izar la ikurriña a las tres de la madrugada, el primer día de la ikastola en Lauro, porque a las nueve iba a venir el Delegado del Gobierno para izar la española. Eso nos dejó una sensación de que por lo menos habíamos izado la nuestra antes.

*Otro detalle fue la visita clandestina del Lehendakari desde su exilio en Paris a la víspera del **Aberrri Eguna** del 74, que también nos dejó una sensación de que alrededor de Lauro había, existía un alo patriótico vivo.*

Aitzol Cuadra:

kaixo, nik Aitzol dut izena, eta ni jaio nintzan egun berean, Euskaltzaindiak hizketaldi bat eman zuen Lauro Ikastolan, eta hizketaldi hori eta gero, afari bat egon zan, eta afari horretan nire aita zegoen. Komentatu zuten nire jaiotzari buruz, eta nola izenez Aitzol ipiniko zidatela. Eta momentu horretan Euskaltzaindiaren buru zen pertsona, Aita Laffite zan, berak bere gaztaroan Aitzol idazlea ezagutu zuen, Jose Ariztimuño Olaso, eta orduan, poztu egin zen, edo ez dakit zer gertatu zen, baina erabaki zuten ni bataiatzea. Eta orduan, hurrengo egunean, agertu zitzaizkion nire amari, bere gelan, ospitalean, bera, Haristchelar, eta beste batzuk ni bataiatzeko asmoarekin. Eta holan izan zan, kasualitatez, azkenean izan nuen ohorezko bataio bat.

Koldo Zabala:

zeintzuk izan ziran aldaketak? Lehendabizi klasetara oinez joaten ginela, eta hemen etortzen ginenean, irakaskuntzaren aldetik, bertan genituen aukerak, lan egiteko tresneria, oso murriztua zen. Hemen, ordea, gauza gehiago genituen, laborategiak... handiagoak ziren, eta jokatzeko askoz leku handiagoak, eta gero futbol zelaia baita ere izan genuen, eta abar eta abar...

Itziar Mujika:

*Gran Vian maketa bat zegoen, zelan izango zen **Lauro**, ezta? Eta ordun, akordatzen naiz maketa begiratzen genuela, eta han izango da nire gela, eta han izango da bestea, eta hori dana, ezta? Eta gero, hona etortzen ginenean, joaten ginan,*

ez dakit gogoratzen zaren, errota bat ikustera joan ginala eta inguru guztiak ezagutzera joan ginan eta orduan errota bat zegoen hango ibaian eta errota zelan funtzionatzen zan ezagutzera joan ginan. Gero etorri ginan, lehenengo urtea uste dut izan zala, abeslari talde bat zegoen. Etorri zan Julita Berrojalbiz, orduko zuzendaria, eta Begoña Cortina, zala musikako irakaslea, etorri zan eta hartu zitun batzuk eta batu gintuzten toki baten, eta azaldu zuen zelan joango ginela Belgikara kantatzera. Guretzako Belgikara zan, ez dakit, oso urruti, poz pozik ipini ginan.

Koldo Zabala:

1973. urtean Bilbotik Lauroraino etorri ginen. Hasi ginen EGBn 7. urrartsean hasi ginen, 8.a baita ere bertan eman genuen, eta handik BUPra pasa egin gindun; BUPEan azkenego azterketak egiteko hemen aukerarik oraingoz ez genuenez, Mungira joan ginen, Mungiko institutora. Ez nago oso zihur, baina uste dut notarik hoberenak, Laurok atera zituela. Bueno, gero, 2. BUPn lortu genuen baimena bertan egiten genduzan examinak.

Itziar Mujika:

eta gero COUn euskeraz, eta euskera ikasten gendun. Ikasten gendun, eta nolabait agiri bat euki behar gendun, gure ikasketak euskaraz zirela eta, munduari agertzeko zozter eginda geneukala. Eta orduan etorri ziren Euskaltzaindiako gizon batzuk hona. Akordetan nai, bat Alfonso Irigoien zala, eta hemen jarrita, han jarri ginan jantokian, eta egin genduzan azterketak, eta hortik lortu gendun agiria. D maila deitzen zan orduan eta sinatzen eban Fray Luis Villasantek, orduko euskaltzainburuak.

Hamabost urterekin euskarazko klaseak ematen genituen eskolatik irten eta gero. General Conchako eskoletan klasean ematen genduzan. Eta ere bai, Imanol Berriatua «Hitz egin» metodo atera aurretik, «Hitz egin» metodoa atera zuen Alexander metodotik itzulita, eta orduan gogoratzen naiz, zapatutan eta joaten ginen berarekin, itzultzera, euskarara pasatzera Alexander metodoa, eta orduan prestatu ginen, prestatu gintuzten euskarazko klaseak emateko. Irakasleak ginen klaseko gazteenak, ikasleak ziren gu baino askoz ere nagusiagoak. Orduan premia handia zegoen irakasleena. Gainera agiria lortu gendun hemen, eta agiria-rekin eta dena, aurrera.

Angel Zelaiaeta:

egun eguzkitsuak ziren 1973 haren iraileko lehenak. Ez zegoen orduantxe, OHoko egoitza besterik, beronen etxe azpiko jardintxo izango ziren lur sailtxoak taket txiki batzuek batzen zuten kableak, hersten eta babesten zituen. Historia General de Bizkia y epitome de las Encartaciones liburuan, irakurria nuen, Laurotako Axpolueta deritzon errota inguruan bazela harrobi bat, zeinaren gainean Pecunienses hoc munierunt omen zegoen idatzia, esan nahi baitu: Pecunienseek hauxe eraiki zuten. Por pecunienses, entiendo yo begoñeses, zionskun Iturritzek. Horixe ikus zezaten, igorri nahi nituen ikasle batzuek, aipaturiko lorategiko bi taketei heldu eta atera egin nituen taketoi zapi gorriak ipini, ta batek aurrean eramane zezan, eta beste ikasle batek atzean, kotxe eta arriskuetatik libratzeko. Josu Beldarrain erretore batzordeko lehen presidentek eta eskola egoitzak jaso zituen etxaginak bota ei zuen: zer irakatsiko ote die eskola neskatokoei euren tokitik taketak ateratzen dituen maisu batek?

Lauro Ikastolako DBH-ko neska taldeak abesten du:

Euskara putzu sakon
eta ilun bat zen,
eta zuek denok
ur gazi bati
atera zenuten
handik nekez.

Guk euskaraz,
zuk, zergatik ez?
Orain zuen birtutez
zuen indarrez,
euskara itsaso urdin eta zabal
bat izanen da,
eta guria da.

Ezin hobeto adierazi zuen Gabriel Aresti bilbotar poetak eta Euskaltzaindiko kideak, zuek eta zuek bezalako taldeek, agerturiko ibilbidean, egin zenuten euskararen aldeko lana, gehienok Urkoren bidez ezagutu genuen poeman.

Zuek eragiten zintuzten GOI-ASMO berberari eusten jarraitu diote *Lauro* roko guraso, arduradun eta talde-profesionalek, ikasle eta seme-alabei euskarazko hezkuntza zerbitzu gaurkotu eta hoberena eskaintzeko.

Euskaltzaindiaren ikurraren irakurgarriak dioenez, «EKINean eta JARRAlean» aritu dira urtez-urte eta aldiro-aldiroko beharizan eta erronka berriei erantzun egokienak ematen, inguruko baldintzak, zorionez, zuek bizi izan zenituztenekin zerikusirik ez badute ere, autogobernua eskuratu eta gero, batez ere.

Horretarako baldintzak, orain, zorionez, ez dute zuek bizi izan zenituztenekin zerikusirik, autogobernua eskuratu eta gero, batez ere. Lehendakariak hiru biderrez izan dira Ikastolan, eta ez era klandestinoz, J.M. Leizaolak erbestetik etorrita 1974.eko Aberri Egunaren bezperan egin behar izan zuen bezala.

*Lauro*tik atera zen laugarren promozioak Unibertitate aurreko frogak euskaraz egin ahal izan zituen eta egun Euskadiko gazteen erdiek jadanik horrela egiten dute. Zenbait jakintzagaien azterketak ingelesez ere egin ahal izateko oinarriak ipintzen ari gara ikastoletan.

Eta guzti honen adierazgarri, gaur egungo *Lauro* Ikastola dugu.

Euskara ikasi eta jakin bai, euskara egitea baina, kostatzen zaie gure ikasle eta seme-alabei. Eta ez beraiei bakarrik.

Euskararen aldeko euskaldunen eta ikastolen erronkek hor diraute.

Horiei era gaurkotuan erantzuten jarraitzeko, Euskaltzaindiaren gida eta zuok denok agertu dituzuen gogo eta lan-onaren argiak laguntza eskergaitza izaten jarraituko dute.

Eskerrik asko, guztioi, eta bereziki, Ikastolaren memoria mantendu eta ezagutarazteko gaurko saio honetarako zuen ahotsa eta lekukotasuna eskaini diguzuenoi.

* * *

ITURRIAK:

ARRIEN, GREGORIO: *Bizkaiko ikastolak 1957-1972*, BBK, cuadernos de sección de Educación, 1993.

Bizkaiko ikastolen elkarte: *25 urte*, 2003.

MARTINEZ, JAIME: *Lauro Ikastolaren aurrekariak / antecedentes de Lauro Ikastola*, Julita Berrojalbiz, Begoña Insunza, Jon Aldazabal eta Josu Beldarrrain jaun-andreei 1987an eginiko elkarrizketen txosten mekanografiatuak.

ZELAIETA, ANJEL: Bidegileak: 40. zenbakiduna, *Julita Berrojalbiz*, Eusko Jaur-laritzza, Kultura Saila, 2006.

* * *

Transkripzioan agertzen diren pertsonen ahozko elkarrizketak bideoan hartuak, urria, 2006.

Manu Bilbao jaunari grabaturiko elkarrizketak *Lauro Txikerra* baserria eta ja-begoaren inguruan, martxoa, 2001.

**JUAN SAN MARTIN, EUSKALTZAIN OSOA,
EIBARKO *SEME KUTUN***

Eibar, 2006-XI-17

JUAN SAN MARTIN EIBARKO SEME KUTUN

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Eibar hiriko alkate jauna eta zinegotziak,
Juan San Martin euskaltzain zenaren senideak,
agintariak,
euskaltzainak,
jaun-andreok,

Hitz laburretan eman beharko banitu Juan San Martini buruzko xehetasunak, zalantzarik gabe aukeratuko nuke berak Euskaltzaindian, eta, oro har, euskalgintzaren barruan ondu zituen lan eta ahaleginak

Eragile izan zela inork ez du ukatuko. Eragiletza horren fruituak ugariak izan zirela ere, dudabakoa. Hamaikatxo liburu, artikulu, hitzaldi eta abar dira horren lekuko, artezki bilduak Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian, Juan San Martinen oroimenez egindako hilberri txostenean. Bibliografia oparo baten egile genuen, hortaz, gure San Martin, bizitzan zehar egindakoaren erakusle egokia.

Juan San Martin, alabaina, besterik ere izan zen. Gerra ondoko belaunaldietakoa genuen, euskararentzat urte latzak bizi behar izan zituena. Laguntza eta baliabide urriak zituen orduan euskarak, ia-ia ezerezak. Giro horren barruan hartu zuen San Martinek aurreko belaunaldi euskaltzaleen ardura. Norbaitek uste dezake, euskarak aldeko haizeak dituen herrialdeetan, aurreko gutzia berez eta nekerik gabe egin dela. Horrexegatik da goraiatzeko modukoa Juan San Martinek eta haren garaikideek kostatzen ahala kostatzen moldatu zuten esparrua, euskarak gutxieneko lekua izan zezan gizarte itxi hartan.

Argi zegoen Juan San Martinentzat maila instituzional hori beharrezkoa zitzaiola euskarari, ezinbestekoa. Hor ikusi zuen, beti-beti Euskaltzaindiaren erreferentzia. Euskaltzaindiari ere eskaini zizkion hainbat neke eta ahalegin, erakundearen alde egiten zuena euskararen alde egiten zuela sinetsita. Aitorra eta ohorea zor dizkiogu euskaltzainok Juan San Martini, gaur eguneko Euskaltzaindia esanguratsu eta eragile horren oinarriak jarzeten partaide izan zelako. Euskaltzaindiarenak eta argi esan dezadan, eus-

kalgintzaren barruan ari diren eta gaur gurekin diren beste erakunde batzuen ere.

Jakitun zen Juan San Martin, amaigabeko jakingura baten jabe. Jakitun eta zaldun, egoki jakin zuelako bere burua Euskaltzainditik bereizten kargu publikoetan aritu zen bitartean. Horretan ere, eredugarri.

Ezin egokiagoa, beraz, gaur Eibar hiriko Udalak egiten dion merezimenduzko omena, Eibar hiriko seme kutuntzat hartzen duela.

Goresmenak eta zorionak familiakoei (Mari Paz, Oier, Lourdes, Unai, Cecilia) eta eibartarroi. Lehen-lehenez, etxekoei, bidezko dena, alegia, Juan San Martinek merezi zuena, bere herriak ematen diolako. Bigarrenez, eibartarroi, jakin izan dutelako euren herritarra goratzen eta txalotzen.

Amaitzeko, mila esker gaur Euskaltzaindiari zuen artean egoteko gonbita luzatzearen, eta jakin ezazue, gaur ere, Euskaltzaindiak Juan San Martini bere omenaldi xumea eskaini diola. Horretara jarrita, Juan San Martinen Burutza eta kidetza izan zuten Onomastika Batzordea eta *Jagon* Sailaren Corpus Batzordea eta euskalkien lantaldea bildurik egon dira Markesko jauregian, lehena goiz eta arratsaldez eta bestea arratsaldez, hain zuzen ere, ekitaldi honetara etorri aurretik.

Hori da, izan ere, Juan San Martinek utzi zigun ondarea, itxurakeriena baino, lan sendoarena, guk ere aurrera eraman eta hurrengoan eskuetan jarri behar duguna.

Mila esker.

IKER SAILA

ONOMASTIKA

IRIZPENAK

Atal honetan udalek eta bestelako administrazio zerbitzuek Onomastika Batzordeari, herri eta kontzejuen izenez batik bat, egingako eskaeren erantzunak biltzen dira.

Mikel Gorratxategi,
Onomastika Batzordeko idazkaria

UDAL IZENEZ

Xabier Kintanak, euskaltzain oso eta Euskaltzaindiaren idazkariak, ondokoa

ZIURTATZEN DU:

Eusko Jaurlaritzaren eskariz *Gaubea* herri izenari buruz heldu zen eskaera luzatu zitzaiola Onomastika Batzordeari eta honek aurreko irizpena berretsi zuela, hots, gaztelaniaz *Valdegovía* izen ofiziala duen herriaren euskal izena *Gaubea* dela.

Aipatutako batzorde akademikoak erabaki hau Euskaltzaindiaren hilero-ko bilkuran aurkeztu duela, berraztertzen ari den Arabako Herri Izendegiaren lanen barruan eta Akademiak aho batez berretsi duela erabakia eta horrela ageriko da laster argitara emango den arauan.

Izen horretan argi ageri denez, *-au-* diptongoa, euskarazko *gauza*, *laus*, *Laurendi* edo *Laudio* moduko beste hitzetan bezala, ongi mantentzen da, erromantzez, eskuarki *-o-* bihurtu arren (Cfr. *cosa*, *losa*, *Lorenzo*, *Llodio*), bai eta *-ea* bukaera ere, bokal elkartze hori gaztelaniaz askotan *-ia* bilakatzen bada ere, adibidez *mía* < lat. *mea*, *había* < *habea* < lat. *habebat*, *haya* < *haia* < lat. *fa(g)ea*, edo *real* eta *canturrear* bezalako hitzen ebakera arruntean, maiz *rial* eta *canturriar* gisa esanak. Hortaz, garbi dago *Valdegovía* izena -azken buruan *Val(le) de Govía* dena- jatorrizko GAUBEA euskal hitzetik sortua dela, dokumentu zaharretan ongi ageri denez.

Era berean adierazi behar da, Juan Carlos Erregeak otsailaren 26an sinatutako 573/1976 Errege Dekretuan eta Gernikako Estatutuaren seigarren artikulua laugarren atalean zehazten denez, euskara alorreko erakunde aholku emailea Euskaltzaindia izanik, berari dagokiola Euskal Autonomia Erkidego-ko euskal izenei buruzko irizpenak ematea.

Aurreko guztia ikusita, Akademia honek ondoko erabakia hartu du:

Gaztelaniaz eta era ofizialean *Valdegovía* izenaz ezagutzen den Udalaren euskal izena **GAUBEA** dela.

Eta hala adieraziz izenpetzen du Bilbon bi mila eta seiko urriaren hiruan.

Xabier Kintana Urriaga,
Erakundeko idazkaria.

Mikel Gorrotxategi Nieto, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko idazkariak,

ZIURTATZEN DU:

Euskaltzaindiak 1979an argitara emandako *Nomenclátor de los Municipios del País Vasco / Euskal Herriko Udalen Izendegia*-ren 518. zenbakia duen udalaren euskal izena **Erriberagoitia** dela, erdal era ofizialean Ribera Alta izenez ezagutzen dena.


Euskaltzaindiak aipatutako 1979ko izendegian eta 1986ko Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Herrien Izenak argitalpenean *Erribera Gotia* proposatu zuela. Geroago, toponimia arautzeko irizpide akademiakoak kontuan izanik, egokiago ikusi zuen *Erriberagoitia* aldaera, Bizkaian *Errigoiti* eta Nafarroan *Ibargoiti* onartu ziren bezala.

Erriberagoitia izenaren amaierako bokala artikulua dela, eta horregatik deklinatzean honela erabili behar dela: *Erriberagoitian* baina *Erriberagoitiko*, *Erriberagoititik*, *Erriberagoitira*...

Era berean, euskararen usadioari jarraituz, herritar izena *erriberagoitiar* datekeela. Antzinako *Erribera*-ren herritar izena *erriberar* izango litzateke.

Eta hala adierazteko, eta bertako Udalbatzari bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon bi mila eta seiko abenduaren hogeian.

ONIRITZIA

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', written over a horizontal line.

Andres Iñigo,
Batzordeburua

Mikel Gorrotxategi Nieto, académico correspondiente y secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que el nombre eusquérico del municipio que figura con el número 518 en el *Nomenclátor de los Municipios del País Vasco / Euskal Herriko Udalen Izendegia*, editado en 1979 por esta Real Academia, y conocido en su forma oficial romance como *Ribera Alta*, es **Erriberagoitia**.


Que la Academia de la Lengua Vasca propuso en su citado Nomenclátor de 1979, así como en la *Relación de las Poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco* de 1986 la forma *Erribera Goitia*. Posteriormente, y teniendo en cuenta la normativa académica para la estandarización de topónimos, Euskaltzaindia entendió que es más correcta la forma *Erriberagoitia*, al igual que *Errigoiti* en Bizkaia e *Ibargoiti* en Navarra.

Que la vocal final de *Erriberagoitia* es el artículo, por lo que al declinarlo en euskera se debe usar de la siguiente forma: *Erriberagoitian* ‘en Ribera Alta’; pero *Erriberagoitiko*, ‘de Ribera Alta’; *Erriberagoititik*, ‘desde Ribera Alta’; *Erriberagoitira*, ‘hacia Ribera Alta’...

Asimismo, que de acuerdo con los usos de la lengua, el gentilicio sería *erriberagoitiar*. El gentilicio común de la antigua hermandad de *Ribera* sería *erriberar*.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao a veinte de diciembre de dos mil seis.

Vº Bº

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', written over a horizontal line.

Andres Iñigo,
Presidente de la Comisión de Onomástica

KONTZEJUEEN IZENEZ

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia en su última reunión, celebrada en Ziordia el pasado 22 de septiembre, examinó, entre otros asuntos, el de la adaptación de la grafía correspondiente al pueblo de *Jungitu*, a la vista de la petición de su Junta Administrativa.

El nombre, como es sabido, se documenta primeramente en 1025 en la lista de pueblos alaveses conocida como *Reja de Álava* o *Cartulario de San Millán*, tal como se recoge en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia. Aunque la grafía común ha sido *Junguitu* también se ha documentado como *Zinguitu*, e incluso se ha castellanizado como *Junguito* en apellidos.

La forma usada por los vascoparlantes era *Jungitu*. Así se observa en la toponimia menor, en la que entre los siglos XVII-XX se recogen, entre otros, los siguientes testimonios (1): *Jungitubidea* (1546, Lubiano «Camino de Jungitu»), *Jungitugaña* (1764, Urizarri Arratzua «El alto de Jungitu»), *Jungitukobaso* (1776, Matauku «Bosque de Jungitu»), *Jungiturabidea* (1693, Zurbao «El camino hacia Jungitu»), *Jungitusoloa* (1599, Berroztegieta «La pieza de Jungitu»)...

El artículo décimo de la Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara, señala que se ha de respetar la grafía eusquérica, salvo cuando ambas formas sean sensiblemente diferentes, en cuyo caso las dos tendrán consideración oficial. Ello no es aplicable en este caso, ya que se trata de un topónimo de origen eusquérico y la diferencia con la forma actual es meramente gráfica.

Considerando lo cual, la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, teniendo en cuenta el artículo seis, punto cuatro, del Estatuto de Autonomía del País Vasco y el artículo décimo de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera.

(1) Los testimonios documentales se dan en su grafía normalizada.


RESUELVE:

Que el nombre de la Junta Administrativa de *Junguitu*, del municipio de Gasteiz, en su forma eusquérica académica actual es **Jungitu**.

Por lo que toca al gentilicio o nombre del habitante, hasta ahora no se ha hallado constancia. Sin embargo, la Comisión cree que sería *jungituar*.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a treinta de septiembre de dos mil seis.

Vº Bº

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', is written over a horizontal line.

Andres Iñigo,
Presidente de la Comisión de Onomástica

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, en su reunión celebrada el cinco de octubre de dos mil seis en la localidad de Donostia / San Sebastián, estudió la petición de la Junta Administrativa de *Comunión* del municipio de *Lantarón*.

Visto el contenido de dicho petición, esta Comisión académica ha estimado necesario realizar las siguientes aclaraciones:

1. La Real Academia de la Lengua Vasca es por Real Decreto 573/1976 de 26 de febrero y por el artículo 6.4 de la Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre del Estatuto de Autonomía del País Vasco, la institución consultiva oficial en lo referente al euskera y, por lo tanto, es su competencia, entre otras cuestiones, dictaminar cuál es la forma eusquérica de los nombres de lugar.
2. En cumplimiento de la citada competencia en materia de lengua vasca, esta Real Academia, a través de su Comisión de Onomástica, publicó en 1986 junto con el Gobierno Vasco el libro titulado *Relación de las poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco* y en 2001 en coedición con EUDEL, el libro *Entidades de Población de la Comunidad Autónoma Vasca*, recogándose en ambos **Komunioi** como equivalente eusquérico de *Comunión*.
3. La forma *Komunioi* fue creada por analogía con otras prestamos romances en los que la terminación *-ión* adopta frecuentemente la forma *-ioi* en euskera.


La Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, con base a lo anteriormente considerado y en conformidad con el Artículo 6.4, del Estatuto de Autonomía del País Vasco y el Artículo 10 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, ratifica el acuerdo tomado anteriormente, haciendo constar que tal decisión pertenece sólo al ámbito normativo-lingüístico y no al político-administrativo. Por lo cual, nuevamente,

HA ADOPTADO LA SIGUIENTE RESOLUCIÓN:

Que el nombre de la Junta Administrativa de *Comunión*, del municipio de *Lantarón*, en su forma eusquérica académica actual, es **KOMUNIOI**.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a 23 de octubre de 2006.

Vº Bº

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', is written over a horizontal line.

Andres Iñigo,
Presidente de la Comisión de Onomástica

Mikel Gorrotxategi Nieto Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko idazkari denak,

EGIAZTATZEN DU:

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak Donostian bi mila eta seiko urriaren bostean eginiko bilkuran, Lantarón udalerriko *Comuni3n* kontzejuko Administrazio batzordeak eginiko eskaera aztertu zuela.

Aurreko eskaera ikusita Batzordeak hurrengo azalpen argigarriak egitea erabaki du:

1. Euskaltzaindia, otsailaren 23ko 573/1976 errege dekretu eta abenduaren 18ko 3/1979 Euskadiko Autonomia Estatutuaren Lege Organikoaren 6.4 artikulua araberara, erakunde aholkularia da euskarari dagokionez eta, ondorioz bere eskumena da, besteak beste, lekuen euskal izen egokia zein den ebaztea.
2. Euskara alorreko eginkizun hori betzeko, Errege Akademia honek, bere Onomastika batzordearen bidez, 1986an Eusko Jaurlaritzarekin batera *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak* deritzon liburua eta 2001ean EUDELekin batera *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateak* izeneko argitaratu zituen, bietan *Comuni3n* herri-izenaren euskal ordain gisa **Komunioi** ematen zela.
3. *Komunioi* izena, *-i3n* amaierak euskaraz *-ioi* bihurtu ohi duten beste mailegu erromantze askorekiko analogiaz sortu zen.


Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak, gorago egindako kontsiderazioak oinarri eta Euskadiko Autonomia Estatutuaren 6.4 artikulua eta azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen erabilera arauzkotzeko oinarritzko legearen 10. artikuluaekin adostasunean, lehenago hartutako ebazpena berresten du bere hartan, erabaki hori eremu politiko-administratiboari ez, baina hizkuntza-araudiarrenari dagokiola jakinaraziz. Eta honegatik, berriz ere,

HARTU DU HONAKO EBAZPEN HAU:

Lantarón udalerriko *Comuni6n* Administrazio batzarreko euskal izena **KOMUNIOI** dela.

Eta hala adierazteko eta bertako kontzejuari bidaltzeko, izenpetzen du, Bilbon bi mila seigarreneko urriaren hogeita bostean.

Ontzat emana

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', is written over a horizontal line.

Andres Iñigo Ariztegi,
Onomastika Batzordeburua

Mikel Gorrotxategi Nieto Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko idazkariak,

EGIAZTATZEN DU:

Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak Eibarren, 2006ko irailaren 22an, izandako bilkuran, Gasteiz udalerrian dagoen *Gámiz* kontzejuko Administrazio batzordeak eginiko eskaera aztertu zuela.

Eskaera hori ikusita, Batzordeak hurrengo azalpen argigarriak egitea erabaki du:

1. Euskaltzaindia, bai otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuaren, bai abenduaren 18ko 3/1979 Euskadiko Autonomia Estatutuaren Lege Organikoaren 6.4 artikulua araberak, euskarari dagozkion gaietan erakunde aholkulari ofiziala da eta, ondorioz bere eskumena da, besteak beste, lekuen euskal izen egokiak ebaztea.
2. Euskara alorreko eginkizun hori betetzeko, Akademia honek, bere Onomastika Batzordearen bidez, 1986an Eusko Jaurlaritzarekin batera *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak* liburua eta 2001ean EUDELekin batera *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateak* izenekoa argitaratu zituen. Bietan *Gámiz* herri-izenaren euskal ordaina **Gamiz** zela ebatzi zuen.
3. Araban ez ezik, Bizkaian ere baden herri izen honek jatorri euskalduna du. 1025. urtean dokumentatzen da lehendabiziko aldiz *Arabako Goldea* edo *Donemiliagako Kartularioa* izenaz ezagutzen den Arabako herri izenen zerrendan, Akademia honek argitara emandako Gerardo Lopez de Gereñuren *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses* liburuan ageri den bezala. Izenak daraman tilde edo azentu grafikoa nahiko berria da, hots, gaztelaniaren 1884ko arau baten ondorioa, eta gauza jakina da euskarak ez duela halako azenturik erabiltzen.
4. Ikusten denez, euskaldunek erabilitako aldaera **Gamiz** zen. Hala ageri da bai aztertutako XVII-XX. mendeen bitarteko toponimia txikian, esaterako: *Gamizsarria* (1609 eta 1763 Otazu eta Gamiz herrietan), bai ahoz bildu diren lekukotasunetan: *Gamizbidea* eta *Gamizarrate* Aberasturin eta Gasteizko mendietan.

Euskaltzaindiaren Onomastika Batzardeak, gorago aipatu bezala, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 6.4 artikulua eta azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen erabilera arautzeko oinarrizko legearen 10. artikulua kontuan izanik, lehendik hartutako ebazpena berretsi du, jakinaraziz erabaki hori hizkuntzaren araudi arlokoa dela eta ez arlo politiko-administratiboari dagokiona. Hori guztia kontuan izanik,


HONAKO HAU EBATZI DU:

Gasteiz udalerriko *Gámiz* Administrazio Batzarraren euskal izena **GA-MIZ** dela.

Herritar izenari dagokionez, ez da orain arte lekukorik aurkitu. Dena dela, Onomastika batzardeak uste du *gamiztar* izanen litzatekeela.

Eta hala adierazteko eta bertako kontzejuari bidaltzeko, izenpetzen du, Bilbon bi mila eta seigarreneko urriaren hogeita bostean.

Ontzat emana



Andres Iñigo Ariztegi,
Onomastika Batzardeburua

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca-Euskaltzaindia, en su reunión celebrada el día 22 de septiembre en la localidad de Eibar, estudió la petición de la Junta Administrativa de *Gámiz* del municipio de Vitoria.

Visto el contenido de dicha petición, esta Comisión académica ha estimado necesario realizar las siguientes aclaraciones:

1. La Real Academia de la Lengua Vasca es por Real Decreto 573/1976 de 26 de febrero y por el artículo 6.4 de la Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre del Estatuto de Autonomía del País Vasco, la institución consultiva oficial en lo referente al euskera y, por lo tanto, es su competencia, entre otras cuestiones, dictaminar cuál es la forma eusquérica de los nombres de lugar.
2. En cumplimiento de la citada competencia en materia de lengua vasca, esta Real Academia, a través de su Comisión de Onomástica, publicó en 1986 junto con el Gobierno Vasco el libro titulado *Relación de las poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco* y en 2001 en coedición con EUDEL, el libro *Entidades de Población de la Comunidad Autónoma Vasca*, recogándose en ambos **Gamiz** como equivalente eusquérico de *Gámiz*.
3. El nombre, de claro origen lingüístico vasco, que también existe en Bizkaia, se documenta como *Gamiz* desde su primera cita en 1025 en la lista de pueblos alaveses, conocida como *Reja de Álava* o *Cartulario de San Millán*, tal como se recoge en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia. La aparición de la tilde o acento gráfico es moderna y consecuencia de la norma de acentuación castellana de 1884, ya que en euskera no existe dicho símbolo gráfico.
4. Que la forma usada por los vascoparlantes era **Gamiz**. Así se observa en la toponimia menor. En los testimonios escritos entre los siglos XVII-

-XX se recoge, entre otros, el siguiente: *Gamizsarria* (1609 y 1763 en Otazu y Gamiz). En los testimonios vivos se han recogido los topónimos *Gamizbidea* en Aberasturi y *Gamizarrate* en los Montes de Vitoria.

La Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, con base a lo anteriormente considerado y en conformidad con el Artículo 6.4, del Estatuto de Autonomía del País Vasco y el Artículo 10 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, ratifica el acuerdo tomado anteriormente, haciendo constar que tal decisión pertenece sólo al ámbito normativo-lingüístico y no al político-administrativo. Por lo cual, nuevamente,


HA ADOPTADO LA SIGUIENTE RESOLUCIÓN:

Que el nombre de la Junta Administrativa de *Comunión*, del municipio de *Vitoria*, en su forma eusquérica académica actual, es **GAMIZ**.

Por lo que toca al gentilicio o nombre del habitante, hasta ahora no se ha hallado constancia. Sin embargo, la Comisión cree que sería *gamiztar*.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a uno de diciembre de dos mil seis.

Vº Bº

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', is written over a horizontal line.

Andres Iñigo,
Presidente de la Comisión de Onomástica

Mikel Gorrotxategi Nieto Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeko idazkariak,

EGIAZTATZEN DU:

Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak Laudion, 2006ko abenduaren 11an, izandako bilkuran, Gasteiz udalerrian dagoen *Yurre* kontzejuko Administrazio Batzordeak eginiko eskaera aztertu zuela.

Eskaera hori ikusita, Batzordeak hurrengo azalpen argigarriak egitea erabaki du:

1. Euskaltzaindia, bai otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretuaren, bai abenduaren 18ko 3/1979 Euskadiko Autonomia Estatutuaren Lege Organikoaren 6.4 artikulua araberako, euskarari dagozkion gaitan erakunde aholkulari ofiziala da eta, ondorioz bere eskumena da, besteak beste, lekuen euskal izen egokiak ebaztea.
2. Euskara alorreko eginkizun hori betetzeko, Akademia honek, bere Onomastika batzordearen bidez, 1986an Eusko Jaurlaritzarekin batera *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko herrien izenak* liburua eta 2001ean EUDELekin batera *Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle-entitateak* izenekoa argitaratu zituen. Bietan *Yurre* herri-izenaren euskal ordaina ***Ihurre*** zela ebatzi zuen.
3. Araban ez ezik, Bizkaian eta Gipuzkoan ere baden herri izen honek jatorri euskalduna du. 1025. urtean dokumentatzen da lehendabiziko aldiz *Ihurre* moduan *Arabako Goldea* edo *Donemiliagako Kartularioa* izenez ezagutzen den Arabako herri izenen zerrendan, eta 1294an *Yhurre*, Akademia honek argitaratu emandako Gerardo Lopez de Gereñuren *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses* liburuan ageri den bezala.
4. Ikusten denez, euskaldunek erabilitako aldaera ***Ihurre*** zen, hiru silabatan ahoskatua eta erromantzez bi silabatara laburtu zen, gaur egun *Igorre* ofiziala den Bizkaiko herrian bezala. Gertaera hau ohikoa da Euskal Herrian, *Ihabar* izenean ere ikus daitekeen moduan.

Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeak, gorago aipatu bezala, Euskadiko Autonomia Estatutuaren 6.4 artikulua eta azaroaren 24ko 10/1982 Euskararen erabilera arautzeko oinarrizko legearen 10. artikulua kontuan izanik, lehendik hartutako ebazpena berretsi du, jakinaraziz erabaki hori hizkuntzaren araudi arlokoa dela eta ez arlo politiko-administratiboari dagokiona. Hori guztia kontuan izanik,


HONAKO HAU EBATZI DU:

Gasteiz udalerriko *Yurre* Administrazio Batzarraren euskal izena **IHURRE** dela.

Herritar izenari dagokionez, ez da orain arte lekukorik aurkitu. Dena dela, Onomastika Batzordeak uste du *ihurretar* izanen litzatekeela.

Eta hala adierazteko eta bertako kontzejuari bidaltzeko, izenpetzen du, Bilbon bi mila eta seigarreneko abenduaren hamabostean.

Ontzat emana



Andres Iñigo Ariztegi,
Onomastika Batzordeburua

Mikel Gorrotxategi Nieto, secretario de la Comisión de Onomástica de esta Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia,

CERTIFICA:

Que la Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, en su reunión celebrada en la localidad de Laudio el 11 de diciembre de 2006, estudió la petición de la Junta Administrativa de *Yurre* del municipio de Vitoria.

Visto el contenido de dicha petición, esta Comisión académica ha estimado necesario realizar las siguientes aclaraciones:

1. La Real Academia de la Lengua Vasca es por Real Decreto 573/1976 de 26 de febrero y por el artículo 6.4 de la Ley Orgánica 3/1979 de 18 de diciembre del Estatuto de Autonomía del País Vasco, la institución consultiva oficial en lo referente al euskera y, por lo tanto, es su competencia, entre otras cuestiones, dictaminar cuál es la forma eusquerica de los nombres de lugar.
2. En cumplimiento de la citada competencia en materia de lengua vasca, esta Real Academia, a través de su Comisión de Onomástica, publicó en 1986, junto con el Gobierno Vasco, el libro titulado *Relación de las poblaciones de la Comunidad Autónoma del País Vasco* y en 2001, en coedición con EUDEL, el libro *Entidades de Población de la Comunidad Autónoma Vasca*, recogándose en ambos ***Ihurre*** como equivalente eusquerico de *Yurre*.
3. El nombre, de claro origen lingüístico vasco, que también existe en Bizkaia y Gipuzkoa, se documenta como *Ihurre* en su primera cita en 1025 en la lista de pueblos alaveses, conocida como *Reja de Álava* o *Cartulario de San Millán*, y como *Yhurre* en 1294, tal como se recoge en la obra de Gerardo López de Guereñu *Toponimia Alavesa seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses*, editada por esta Real Academia.

4. Que la forma usada por los vasco-parlantes era *Ihurre*, pronunciándose en tres sílabas, y en romance se redujo a dos, tal como ocurrió también en la localidad de Bizkaia, conocida en euskera bajo la forma *Igorre*. Este es un fenómeno común en el País como se ve, igualmente en *Ihabar*, castellanizado como *Yabar*.

La Comisión de Onomástica de la Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia, con base a lo anteriormente considerado y en conformidad con el Artículo 6.4, del Estatuto de Autonomía del País Vasco y el Artículo 10 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, ratifica el acuerdo tomado anteriormente, haciendo constar que tal decisión pertenece sólo al ámbito normativo-lingüístico y no al político-administrativo. Por lo cual, nuevamente,


HA ADOPTADO LA SIGUIENTE RESOLUCIÓN:

Que el nombre de la Junta Administrativa de *Yurre*, del municipio de *Victoria*, en su forma eusquérica académica actual, es **IHURRE**.

Por lo que toca al gentilicio o nombre del habitante, hasta ahora no se ha hallado constancia. Sin embargo, la Comisión cree que sería *ihurretar*.

Y para que conste y surta efectos, expide la presente en Bilbao, a quince de diciembre de dos mil seis.

Vº Bº



Andres Iñigo,
Presidente de la Comisión de Onomástica.

BERANTEVILLA ETA SOPORTILLA IZENEN INGURUAN

Henrike Knörr,
Onomastika Batzorkidea, *Iker* Sailburua
eta Arabako ordezkaria

1. Atzekoz aurrera has gintezke: zer da *Soportilla*? Bada, gauzak garbi daude: eskualde bat, eskualde zahar bat, zeinen izena gero eta gutxiagotan ageri baita. Erreferentzia, jakina, Portillari egiten dio, iragan dis-tiratsudun herriari. Horrela, *Santa Cruz de Soportilla* esan izan da, besteak beste (egun: *Santa Cruz del Fierro*). *Santa Cruz de Soportilla* irakurtzen da, demagun, Tomás Lópezen mapa batean (1769).
2. *Berantevilla*. Ildefonso Rodríguez de Lamak, *Colección diplomática de la Rioja*, IV, 222, Aznar apezpikuaren zerrenda ezagunaz (1257) ari denean, dio, Argantzunek zituen herrixkei buruz: «[...] Verantevilla (próximo a La Puebla de Arganzón, desaparecido)». Egia ote? Nik zail-tantzan ipiniko nuke, ezen gero, dokumentu berean, ez da ageri Berantevilla. Argantzunetik Berantevillara ez dira hainbeste kilometro, eta esango nuke hori dela, egungo bera. J.L. Lizundiak ohartarazi di-danez, artzapez-barruti berekoak lirateke, eta horrela da dokumentu horretan: «In archipresbyteratu de Trevenno» dio, eta biak ala biak, *Argantzun* eta *Berantevilla*, sail horretan dira.
3. *Berantevilla* izenaren jatorria ilun zait. *Beranti villa* dakusagu Donemi-liagako kartularioan, 1080an (hala M. Luisa Ledesmaren edizioan, Za-ragoza 1989). Izenak badu halako eite klasikoa: izen bereziaren geniti-bo dirudiena + *uilla*. Zein da, ordea, izen berezi hori? Corominesek, Kataluniako herri izen batzuen gainean diharduela, *Brando* germaniarra aipatzen du, bai eta genitibo latinoa *Brandi* (*Onom. Cat.*, II, 112). Hori dugu iturburua? Horrela balitz, *Brandi* > (anaptixiaz) **Berandi*? > *Beranti* genuke bilakaera agian. Patxi Salaberrik bere iruzkin batean dios-tanez, *-nd-* > *-nt-* bilakaera ohikoa ez izanik ere euskaraz, salbu Erron-kari bezalako bazter eremuan, Pielek, *Os nomes germánicos na toponimia portuguesa*-n, 33, erakutsi zuen izen gotikoetan *-nth-* eta *-lth-* > *-nd-* eta *-ld-* gertatzen dela. Nolanahi ere, lur irristakorrean gara; *Beranti-* horren jatorri germaniarra ez da segurua, eta, bestalde, herri horren leku izen gehienak erromantzeak dira. Erromantzearen eraginez, hain zuzen ere, azal liteke *-i* > *-e* bilakaera, hots, *Beranti-* > *Berante-*.

4. Hiri-gutuna ez, baina badugu Fernando IV.ak 1299an emandako forua; hor *Berantevilla* ageri da garbi (ikus César González Mínguez, «La fundación de Berantevilla», *Symbolae L. Mitxelena...*, II, 1183).
5. Mende horretan, deituretan *Verantevilla* aurkitzen dut. Ikus, besteak beste, *Lop Lopez de Verantevilla*, 1235ean, Saturnino Ruiz de Loizagaren *El libro becerro de Santa María de Bujedo de Candepajares*, Miranda 2000, 174. dokumentua, eta *don Vela de Verantevilla*, ca. 1238, ibidem, 178. dokumentua.
6. Geroztik *Berantevilla* eta *Brantevilla* formak ditugu (azken hau, jakina, sinkopagatik). Tomás Lópezen berriemaile ezezagun zorrotzak *Brantevilla* soilik idazten du (ikus Antonio Altarribaren ardurapeko *Doscientos años de geografía en Álava. Del cuestionario de Tomás López a la actualidad*, Gasteiz 2000, 235 eta darr.).
7. Ofizialtzeari begira, nik eutsiko nioke *Berantevilla* formari. *Beranturi* ez da ofiziala, eta ez du arrakasta handirik izan, eta hobe dugu inork ez leporatzea asmakerietan gabiltzala. Herri zaharra gara, batetik, eta, bestetik, Akademia da gure erakundea, ez bihotz berotasunak eraginik izenetan jolasean ari garen elkartea edo taldea.

(Onomastika Batzordeak, Ziordian, 2006ko irailaren 22an, egin zuen bilkuran, aurkeztu zen txosten hau, eta Euskaltzaindiaren hileko batzarrean gero, Uxuen, irailaren 29an irakurri.)

EN TORNO A BERANTEVILLA Y SOPORTILLA

Henrike Knörr,
Miembro de la Comisión de Onomástica,
Director de la **Sección de Investigación** de Euskaltzaindia
y delegado de la Institución en Álava

1. Podríamos empezar al revés: ¿qué es *Soportilla*? Parece que las cosas están claras: una comarca, una comarca antigua, cuyo nombre ha tenido un uso cada vez menor. La referencia, desde luego, es a Portilla, esa población de gran abolengo y antigüedad. Así, se ha dicho *Santa Cruz de Soportilla* (hoy: *Santa Cruz del Fierro*). Se lee *Santa Cruz de Soportilla*, por ejemplo, en el conocido mapa de Tomás López (1769).
2. *Berantevilla*. Escribe Ildefonso Rodríguez de Lama, *Colección diplomática de la Rioja*, IV, 222, hablando de la conocida lista del obispo Aznar (1257), y concretamente acerca de La Puebla de Arganzón (en el documento *La Población*) y sus aldeas: «[...] Verantevilla (próximo a La Puebla de Arganzón, desaparecido)». No creo que esto sea así. Tengamos en cuenta que después, en el mismo documento, no aparece Berantevilla. De Berantevilla a La Puebla de Arganzón no hay tantos kilómetros, por lo que hay que pensar que ese *Berantevilla* es el actual. Ambos pueblos están, pues, en el mismo arciprestazgo, «In archipresbyteratu de Trevenno», como leemos en el documento.
3. Me resulta oscuro el origen del nombre *Berantevilla*. Vemos *Berantivilla* en el cartulario de San Millán, año 1080 (edición de M. Luisa Ledesma, Zaragoza 1989). Ese nombre tiene la estructura clásica: un antropónimo en genitivo + *uilla*. Pero ¿cuál es ese antropónimo? Corromines, hablando de algunos topónimos catalanes, cita el *Brando* germánico, con su genitivo latinizado *Brandi* (*Onom. Cat.*, II, 112). ¿Es ésa la fuente del nombre? Si así fuera, la evolución podría ser *Brandi* > (por anaptixis) **Berandi*? > *Beranti*. Mi colega y amigo Patxi Salaberri Zaratiegi, en un comentario a la primera redacción de estas líneas, me dice que, aunque el cambio *-nd-* > *-nt-* no es normal en euskera, salvo en zonas marginales como Roncal, Josef Piel, en su trabajo *Os nomes germánicos na toponimia portuguesa*, 33, mostró que en los nombres góticos se conoce el cambio *-nth-* y *-lth-* > *-nd-* y *-ld-*. De todos modos, pisamos terreno resbaladizo: no sabemos si ese

Beranti- es germánico y, por otra parte, la mayoría de los nombres de Berantevilla son romances. Por influencia del romance, precisamente, tenemos el cambio *-i > -e*, es decir, *Beranti-* > *Berante-*.

4. No disponemos de la carta puebla de Berantevilla, pero sí del fuero de villazgo, otorgado por Fernando IV en 1299; en ese documento se lee claramente *Berantevilla* (ver César González Mínguez, «La fundación de Berantevilla», *Symbolae L. Mitxelena...*, II, 1183).
5. En ese siglo encuentro en los apellidos *Verantevilla*. Ver, por ejemplo, *Lop Lopez de Verantevilla*, 1235, Saturnino Ruiz de Loizaga, *El libro becerro de Santa María de Bujedo de Candepajares*, Miranda 2000, documento 174, y *don Vela de Verantevilla*, ca. 1238, ibidem, documento 178.
6. Después se han empleado *Berantevilla* y *Brantevilla*. En esta segunda forma, usual en los listados oficiales de la Diputación en el siglo XVIII, hay que ver una síncope, a no ser que sea el eco tardío de *Brandi-*. El culto y agudo informador anónimo de Tomás López escribe siempre *Brantevilla* (ver Antonio Altarriba, coord., *Doscientos años de geografía en Álava. Del cuestionario de Tomás López a la actualidad*, Gasteiz 2000, 235 ss.).
7. *Beranturi* es un invento que, amén de no ser oficial, no ha tenido éxito alguno, y sería mejor olvidar.

(Traducción del Informe cuya primera redacción fue leída en la reunión de la Comisión de Onomástica de Euskaltzaindia, celebrada en Ziordia el 22 de septiembre de 2006, y leído en el pleno celebrado por la Institución en Ujué, el 29 del mismo mes).

EUSKAL HERRI INGURUKO EXONIMOAK (1)

Exonomastika azpibatzerdea. Euskaltzaindia

Euskaltzaindiak Elantxoben eta Uxuen (2) Euskal Herriaren inguruko zenbait izenen euskal formak finkatu zituen izen hau duen arauaren barruan. Batzordeak proposamena gauzatzeko hainbat testu eta egungo testigantza bildu zituen eta egoki iritzi dio esanguratsuenak irakurleen esku uztea. Beraz, jarraian dagoen testuan onartutako arauaz gain erabaki horiek hartzeko bildutako hainbat testigantza aurki dezake irakurleak.

Euskaldunek kanpoko lekuak izendatzeko inoiz erabili eta beren hizkuntzara egokitu dituzten toponimoak baino ez dira ematen zerrenda hauetan. Ez dira, beraz, gure inguruan dauden tokien izenen zerrenda osatuak eta bertan aipatzen ez diren izenak hizkuntza ofizial propioaren arabera erabili ohi dira euskaraz ere (*Laruns, Tarazona, Haro, Santoña...*).

Zerrendak ikuste hutsarekin ohartzen gara, Euskal Herriaren inguruko eskualde bakoitzean diren leku izenen kopuruak ez direla inondik inora antzekoak. Badaude, hala ere, horretarako arrazoiak. Batetik, sistema fonetikoaren ikuspegitik, euskara eta gaztelaniaren arteko aldea baino nabarmen handiagoa da euskara eta frantsesaren artekoa, eta, ondorioz, askoz ere normalagoa izaten da Iparraldeko euskaldunek beren inguruko lekuen izen frantses ofizialak egokitu behar izatea. Gainera, eremu horretako euskaldunek badute ondo-ondoan beren lege fonetikoetatik hurbilago dagoen gaskoinera; hango euskal hiztunentzat, hizkuntza horretako toponimoak frantsestutako erak baino erabilgarriagoak direnez, ohikoa izaten da lekuen izen gaskoina euskaraz ere erabiltzea. Kontrara, Hegoaldeko euskaldunek ez dute –zenbait hots gora behera– oztopo askorik izango beren inguruko lekuen izen gaztelaniazkoak nahiz beste erromantze batekoak ahoskatu, deklinatu edo idazteko. Beste aldetik, euskararen gaur eguneko muga, Iparraldean ia-ia Euskal Herriko mugarekin bat dator eta, hortaz, herrialde horietako euskaldunek maiz erabili ohi dituzte beren ohiko solasetan mugez harandiko lekuen izenak. Hegoaldean, ordea, euskararen gaurko muga euskal he-

(1) Testu honetan, **149**. Arauaz gain, ikerketaren materialaren zati argigarri bat eskaini nahi izan du Batzordeak. Oharrak eta aipuak Patxi Galé batzordekideak prestatu zituen eta Azpibatzerdeak hobetsi.

(2) Iparraldekoak (Elantxoben, 2006ko maiatzaren 26an onartuak).
Hegoaldekoak (Uxuen, 2006ko irailaren 28an onartuak).

rrialdeen mugak baino nabarmen barrurago dago. Ondorioz, herrialde horietako euskaldunentzat kanpoko lekuak ez dira hain auzokideak eta beren ohiko elkarizketetan ez dira hain sarri agertzen.

Beste alde batetik, Euskal Herritik kanpoko zenbait eskualdetan euskal etimo argia duten leku izenak aurki ditzakegu. Horiek ez dira, ezinbestez, exonimoak eta euskaraz erabili nahi izanez gero, grafia ofiziala nahiz etimologikoa erabiltzeko aukera egon daiteke. Hala egin ohi dute kazetariak eta idazleak eta ez dirudi bide hori ixteko gomendioa eman behar denik. Arrazoi horrengatik, izen hauek ez dira exonimoekin batera zerrendetan ematen.

Hortaz, hiru lerrokadatan ematen dira izenak:

Euskal exonimoak, euskara jasoan erabili beharrekoak

1. Landak/Landes

- Landes: Landak/Landes

Bere bikoiztasunean Euskaltzaindiak 36. arauan (3) onarturiko izena da.

- Dax: Akize

36. arauko *Bestelakoak* atalean aipaturiko izena. Hala dakarte Dassancek (1966, 11. or.) (4), Etxaidek (5) (1961, 224. or.) eta Txillardegik (6) (1974, 169. or. 1. zutab.). Okzitanieraz *Dacs* omen da izena. Boyrie-Féniéren hiztegiak (7), ordea, amaierako *-e* paragogikoaren derrigorrezkotasuna zalantzan jartzen du, euskararako *Akiz(e)* proposaturik. Halaber, okzitanieraz agian etimologikoagoa izango litzatekeen *D'Ac*s proposatzen du. Era bien jatorrian, hiztegi berak zehazten duenez, *Aquis Tarbellicis* eta beronetatik eratorritako *Sancta Maria de Ax* erak egongo lirarteke.

- Hastings: Hastinga

Jean Haritschelhar euskaltzaina ere *Hastinga* eraren aldeko agertu da. Hala ere, Boyrie-Fénié hiztegiak okzitanierarako *Hastings* dakar, euskararako proposatu denetik urrun samar.

(3) «Frantziako Errepublikako eskualdeen izenak» titulua darama 36. Arau honek.

(4) DASSANCE, Michel: «Eskual-herriz kanpoko [sic] zenbeit herri edo hirien izenak», *Herrien eta herritarren izenak euskaraz*, Gure Herria, Baiona, 1966, 11-12. or.

(5) ETXAIDE ITARTE, Jon: «Uri eta toki-izen batzuen euskal-izendegia, orain arte bildutakoen osagarri», *Egan*, 4-6 (1961), 217-229.

(6) ALVAREZ ENPARANTZA, Jose Luis «Larresoro»: *Euskara batua zertan den*, Jakin, Arantzazu, Oñati, 1974, 164-179.

(7) BOYRIE-FÉNIÉ, Bénédicte: *Dictionnaire toponymique des communes. Landes et Bas-Aquitaine*, Institut Occitan, Éditions Cairn, Pau, 2005.

- Peyrehorade: Peirahorada
Okzitanierazko *Pèirahorada* izena erabili bada ere, Boyrie-Féniék bereiz idatzirik dakar, *Pèira Horada* alegia. Jean Haritschelhar euskaltzainak hasperenketarik gabeko *Peiraorada* era proposatu du euskararako. Azkenik, Jon Mirandek eta Txomin Peillenek (Etxaide, 1961, 224. or.) (8) *Peiorrada* era jaso zuten eta Txillardegik ere halaxe dakar (1974, 176. or. 1. zutab.).
- Saint-Vincent-de-Tyrosse: San Bisentse
Boyrie-Féniéren arabera, okzitanierazko izena *Sent Vincenç de Tiròssa* da. Michel Dassancek euskal izen gisara *San Bisentse* dakar (1966, 11. or.).
- Tarnos: Tarnose
Boyrie-Féniéren hiztegiak dioenez, okzitanierazko izena *Tarnòs* da. Azken honek *Tarinus* balizko antroponimo galiar baten eratorria dela gaineratzen du. Dassancek *Ternose* era proposatu zuen euskararako (1966, 11. or.) eta, Xarles Bidegainek ere orobat iritzi arren, Jean Haritschelharrek *Tarnose* era hobetsi du.

2. Bearno/Biarno

Herritar izena *bearnes* den arren, erregularragoa den *bearnotar* era hobesten da, bestea herri mailarako utziz.

- Abitain: Abitaine
Grosclauderen arabera (9), okzitanieraz *Avitenh* erabili behar da. Etxaidek dakarrenez (1961, 225. or.), Jon Mirandek eta Txomin Peillenek *Abitain*, *Abitañe* eta *Mithiñe* erak jaso bazituzten ere, Jean-Louis Davant euskaltzainarekin ados, hedatuena *Abitañe* dela onartu da, nahiz eta grafia bustirik gabe onartu.
- Ance: Arhantze
Grosclaudek *Ansa* ematen du okzitanierazko era bezala. Euskarazko era *An(t)so* dela adierazten du eta *Antso* jaso omen zuten Mirandek eta Peillenek ere (Etxaide, 1961, 226. or.). Dassancek, ordea *Arhantze* era proposatzen du (1966, 11. or.), Agud-Mitxelenak bildurikoarekin batera (1958, 8. or.) (10).

(8) Jon Etxaidek jakinarazten duenez (219. or.), Jon Mirande Aiphasoro eta Txomin Peillen Karrikaburu euskaltzainek Zuberoan eginiko datu bilketan jaso ziren lan honetan aipatzen diren leku izen asko.

(9) GROSCLAUDE, Michel: *Dictionnaire toponymique des communes du Béarn*, Escòla Gaston Febus, Paue, 1991.

(10) AGUD QUEROL, Manuel; MITXELENA ELISSALT, Koldo: «Formas populares de topónimos del País Vasco anteriores a 1900», *Acta Salmanticensia*, XI (1958), 39-59.

- Angous: Angastue

Okzitanierazko izena *Angós* dela dio Grosclaudek eta euskararako *Angoze* ematen du. Kontrara, Dassancek *Angastue* era ematen du euskaraz erabiltzeko (1966, 11. or.). Etxaideren informatzaileen artean ere era bat baino gehiago jaso da (1961, 226. or.): *Angastue* edo *Angastua* (Pierre Lhande (11)) eta *Angose* (Iratzeder (12)).

- Aramits: Aramitze

Okzitanierazko izena *Aràmits* dela dio Grosclaudek eta euskararako *Aramitze* dakar. Orobat diote Dassancek (1966, 11. or.), Mirandek eta Peillenek (Etxaide, 1961, 226. or.) eta Jean Haritschelharrek.

- Arette: Ereta

Okzitanierazko izena *Areta* den arren, bai Grosclaudek eta bai Dassancek (1966, 11. or.) *Ereta* dakarte euskal izen gisara. Etxahun koblakari zuberotarrak *Ereta* darabil (13) (Etxaide, 1961, 226.or.) eta horrekin bat datoz Txillardegi (1974, 165. or. 2. zutab.), Txomin Peillen eta Jean Haritschelhar. Iratzederrek *Eta* era laburtua eman du (Etxaide, 1961, 226. or.).

- Arrive: Arriba

Grosclaudek *Arriba* dakar okzitanierazko izen bezala eta Dassancek hori bera jasotzen du euskararako (1966, 11. or.). Jon Mirandek eta Txomin Peillenek *Arriba* eta *Arribe* jaso zituzten (Etxaide, 1961, 225. or.).

- Aspe, Valle de (Valle d'Aspe): Aspe

Grosclaudek dioenez, ibarraren okzitanierazko izena *Aspa* da. Txomin Peillenek Zuberoan *Aspe* era erabiltzen dela informatu du eta halaxe onartu da.

- Autevielle (14): Autile

Okzitanieraz *Autivièla* esaten zaiola dio Grosclaudek. Dassancek euskararako *Autile* era proposatzen du (1966, 11. or.), Pierre Lhandek *Autiile* (Etxaide, 1961, 225. or.) eta Txillardegik *Autille* (1974, 166. or. 2. zutab.).

- Baretous (Vallée de): Baretos

Okzitanieraz *Varetons* esaten zaio Grosclaudek dakarrenez. Jon Mirandek eta Txomin Peillenek *Baretos* jaso zuten (Etxaide, 1961, 226. or.)

(11) LHANDE, Pierre, *Dictionnaire Basque-Français*, Gabriel Beauchesne, Paris, 1926.

(12) DIHARCE, Xabier «Iratzeder», Belokeko beneditarra ere Jon Etxaideren informatzailetarik izan zen.

(13) Etxaidek aipatua (226. or.). «Etxahun», Pierre TOPET: «Gaztalondoko prima» olerkia, LHANDE, Pierre & LARRASQUET, Jean: *Le Poète Pierre Topet dit Etchaun et ses oeuvres*, Baiona, 1946, 74.

(14) 1842an beste herri birekin elkartu zen *Autevielle-Saint Martin-Bidéren* Udala sortzeko.

eta halaxe dakar Txillardegik ere (1974, 167. or. 1. zutab.). Dena dela, Txomin Peillenek gaur egun *Baretus* ere erabiltzen dela informatu du.

- Barlanes: Barlanes, Sarraltzune

Dassancek euskal izen gisara *Sarraltzune* dakar (1966, 11. or.). Jon Mirandek eta Txomin Peillenek *Barlanes* era jaso bazuten ere (Etxaide, 1961, 226.or.), ohar hau gaineratu zuten: *XVI. mendean SARRALTZU-NE euskal-izen garbia zeraman eta legez Zuberoa'ko zen Landa'ren iri-barrutian.*

- Castetnau-Camblong: Gazteluberri Bearno

Okzitanierazko izena *Castètnau (-Camblong)* da Grosclaudearen arabera. Hala ere, Bénédicte Boyrie-Féniék bere Landetako toponimoen hiztegian, izen bereko beste herri bat aipatzen du, Castelnau-Tursan eta okzitanieraz *Castèthnau de Tursan* ematen du. Dassancek euskararako itzulpena ematen du, *Gazteluberri* alegia (1966, 11. or.). Etxaidek dakarrenez (1961, 227. or.), Pierre Lhandek ere *Gazteluberri* eta Agud-Mitxelenak *Gaztelubirri* jaso zuten (1958, 15. or.).

- Charre: Xarra

Okzitanierazko grafia *Sharra* da Grosclaudek dioenez eta autore honek berak euskararako *Xarra* era ematen du. Jon Mirandek eta Txomin Peillenek (Etxaide, 1961, 226or.) *Xarra* jaso zuten eta orobat aurkitzen dugu Txillardegiren zerrendan (1974, 168. or. 2. zutab.). Dassancek, ordea, euskal izena *Xarre* dela zioen (1966, 11. or.).

- Escos: Ezkoze

Grosclaudek *Escòs* dakar okzitanierarako. Dassancek *Ezkoze* era ematen zuen euskararako (1966, 11. or.) eta halaxe hobesten dute gaur egun Txomin Peillenek eta Jean Haritschelharrek. Hala ere, Mirandek eta Peillenek berak *Ezkoitze* era ere jaso zuten aspaldi (Etxaide, 1961, 224. or.).

- Espiute: Azpilda

Okzitanierazko izena *Espiuta* da Grosclaudearen arabera. Dassancek *Azpilda* era ematen du euskararako (1966, 11. or.). Pierre Lhandek *Azpilda* eta *Aixpilde* erak jasotzen ditu eta Iratzederrek *Espilda* (Etxaide, 1961, 225. or.). Txomin Peillenek *Aspilda* ematen du.

- Eysus: Isuazi

Grosclaudek *Eisús* ematen du okzitanierazko izen bezala eta Dassancek euskarazkotzat *Isuazi* (1966, 11. or.).

- Féas: Inhasi

Grosclaudek okzitanierarako *Hiars* era dakar eta euskararako *Einazi*. Dassancek, ordea, *Inhasi* eta *Ihasi* erabiltzen direla iradokitzen du [zehazki *In(h)asi* da dakarrena (1966, 11. or.)]. Jon Mirandek eta Txomin

Peillenek aspaldian *Iñhazi* jaso zuten arren (Etxaide, 1961, 226.or.), Txomin Peillenek *Inhazi* proposatzen du gaur egun. Jean Haritschelharrek *Ihasi* eraren berri ere ematen du eta Xarles Bidegainek argitzen digu *-a-* sudurkaria dela hor ahoskatzen dena, */ihâsi/* alegia.

- Géronce: Jeruntze

Okzitanieraz *Geronce* idatzi behar dela dio Grosclaudek. Dassancek *Jeruntze* dakar euskararako (1966, 11. or.) eta bat datoz horretan informatazile guztiak, Mirande-Peillen (15) (Etxaide, 1961, 226. or.) eta Txillardegi (1974, 170. or. 2. zutab.). Jean Haritschelhar euskaltzainak ere *Jeruntze* proposatu du.

- Geüs (d'Oloron): Ustasu

Okzitanierazko izena *Gèus (d'Auloron)* da Grosclauderen arabera. Dassancek euskararako *Ustasu* dakar (1966, 11. or.) eta orobat jaso zuten Mirandek eta Peillenek (Etxaide, 1961, 226. or.). Txillardegik ere halaxe dakar bere lerrokadan (1974, 170. or. 2. zutab.).

- Guinarthe (16): Ginarte

Grosclaudek *Guinarthe* ematen du okzitanierazko izen bezala. Dassancek *Ginarthe* proposatzen zuen euskararako (1966, 11. or.).

- Issor: Izorra

Okzitanierazko *Issòr* era dakar Grosclaudek eta euskararako *Izorra*.

- Labastide-Villefranche: Bastidaxarre

Grosclaudek *La Bastide (Vièlafranca)* dakar okzitanierarako eta Dassancek *Bastida-xarre* euskararako (1966, 11. or.).

- Lanne-en-Barétous: Landa

Grosclaudek *Lana* dakar okzitanierazko izen gisa eta *Landa* euskararako. Dassancek ere *Landa* jasotzen du euskal izen bezala (1966, 11. or.). Orobat erabili omen zuten Etxahun Barkoxekoak «bertsotan zenbait aldiz» (Etxaide, 1961, 226. or.) eta hala jasotzen du Lhandek ere (id.). Era horrekin bat datoz gaur egun Txomin Peillen eta Jean Haritschelhar.

- Lescar: Leskarre

Okzitanierazko era *Lescar* dela dio Grosclaudek. Jean-Louis Davantek euskaraz *Leskarre* erabiltzen dela dio.

(15) Interesgarria da gogoratzea hasierako *J-* horren ahoskeraz, Etxaidek gaineraturiko oharra: «*J*=frantses *j* guti gora-behera, ez lapurtarren *j=dd* edo euskera klasikoarena», dio Jon Mirande'k. «*J*» au, zuberotarra, frantsesaren antzekoa da, baiñan ez berdiña.

(16) 1842an elkartu zen Parenties herriarekin eta 1845ean *Guinarthe-Parenties* izena eman zioten.

- Lescun: Laskun
Okzitanierazko era bezala, Grosclaudek *Lascun* dakar. Dassancek euskararako *Laskun* jasotzen du (1966, 11. or.).
- Lichos: Lixoze
Grosclaudek *Lishòs* jasotzen du okzitanierazko izen bezala eta euskararako *Lexose* ematen du. Dassancek, ordea, *Lixoze* ematen du euskal era bezala (1966, 11. or.). Jon Etxaidek *Lixoze* eta *Lexoze* biak jaso omen zituen *Gazte* aldizkaritik (17) (Etxaide, 1961, 226. or.).
- Meritein: Meritiñe
Okzitanieraz *Meritenh* idatzi behar dela dio Grosclaudek. Dassancek *Meritiñe* ematen du euskal era bezala (1966, 11. or.). Jon Mirandek eta Txomin Peillenek *Meritiñe* jaso zuten aspaldian (Etxaide, 1961, 226. or.), baina Peillenek *Meritaine* ere erabiltzen dela informatu du.
- Monein: Muneñe
Izen okzitanierazkoa *Monenh* dela dio Grosclaudek eta Dassancek *Muneñe* jasotzen du euskararako (1966, 11.or.).
- Nabas: Nabarzi
Okzitanieraz *Navars* izena dakar Grosclaudek eta euskaraz *Nabarzi*. Dassancek ere *Nabarzi* dakar euskararako (1966, 11. or.) eta orobat erabiltzen dela diote Pierre Lhandek (Etxaide, 1961, 226. or.) eta Txillardegik (1974, 174.or. 2. zutab.).
- Navarrenx: Nabarregose
Grosclaudek arabera, okzitanierazko izena *Navarrencs* da. Dassancek euskararako *Nabarregose* eta *Nabarrenkose* dakartza (1966, 11. or.). *Gure Almanaka* urtekarian *Nabarregosen* (1926) eta *Navarregosen* (1946) erabili dira alde batetik, eta *Nabarrenkosen* (1950). *Nabarregose* eraren berri ematen du Iratzederrek ere (Etxaide, 1961, 226. or.). Jean Haritschelhar euskaltzainak orobat, *Nabarregose* era proposatu du. Aingeru Irigaraik, ordea, *Nabarrenkoxe* era jaso omen zuen (Etxaide, 1961, 226. or.) eta ahoskabetze horrekin proposatu du halaber Jean-Louis Davant euskaltzainak, sabaikaririk gabe, ordea, hots, *Nabarrenkose*.
- Oloron-Sainte-Marie: Oloroe-Donamaria
Grosclaudek *Auloron* eta *Oloron* erak ematen ditu okzitanieraz. Dassancek *Olorone* eta *Olorue* eman zituen euskal era bezala (1966, 11. or.). Mirandek eta Peillenek Oloru era jaso zuten (Etxaide, 1961, 227.or.).

(17) *Gazte*, eskualdun gazteriaren hilabeteakaria, Le Courrier, Baiona, 1947-1963.

- Orthez: Ortheze
Okzitanierazko izena *Ortès* da, Grosclauderen arabera. Dassancek *Orthese* eta *Ortheze* ematen ditu euskararako (1966, 11. or.). *Gure Almanaka* delakoan *Orthesen* (1926, 1946) eta *Ortezen* (1926, 1946) irakur daitezke. Jean Haritschelhar euskaltzainak *Ortese* proposatu du eta Jean-Louis Davantek, berriz, *Orteze*.
- Préchacq-Josbaigt: Josibaia
Grosclaudek ematen duen okzitanierazko era *Preishac de Geusvath* da. Dassancek *Josibaia* dakar euskararako (1966, 11.or.).
- Saint-Goin: Sangoine
Sent Güenh da Grosclaudek dakarren era okzitanierazkoa eta *Sangueniñe* Dassancek euskararako ematen duena (1966, 11. or. Frantsesez, ordea, *Saint-Goein* [sic] dakar). Jon Mirandek eta Txomin Peillenek aspaldian *San Gueñe* jaso zuten arren (Etxaide, 1961, 226. or.), Peillenek *Sengoine* eraren berri ere eman du. Txillardegik *Sangueniñe* era dakar (1974, 176.or. 2. zutab.).
- Salies-de-Béarn: Saliese
Okzitanieraz *Salias* dakar Grosclaudek. Dassancek euskaraz *Salise* eta *Saliése* [sic] (1966, 11.or.). Jean-Louis Davant euskaltzainak *Saliese* eraren berri eman du eta Jean Haritschelharrek, ordea, *Salise* laburtua-goarena.
- Sauvaterre-de-Béarn: Salbaterra Bearno
Grosclaudek *Sauvatèrra* izena dakar okzitanierarako. Dassancek *Salbaterre* eta *Salbaterra* ematen ditu euskararako (1966, 11. or.). Mirandek eta Peillenek, Aingeru Irigarairekin batera, Salbaterra bildu zuten (Etxaide, 1961, 226. or.). Jean Haritschelhar euskaltzainak *Salbaterra* proposatu du.
- Sus: Xütxe
Okzitanierazko izen bezala *Sus* ematen du Grosclaudek. Dassancek euskararako dakarren *Xütxe* era (1966, 11. or.) Txomin Peillenek ere berretsi du.

3. Aragoi

- Biniés: Bintze
Julio Caro Barojari erreferentzia eginik, Jon Etxaidek aipatzen du *Bintze* euskal era (1961, 221. or.). Hau da Caro Barojaren aipu zehatza: *[...] aunque los pocos que hablan vasco en la región, como lo hacían*

en el siglo XIX, pronuncien Arbontze, Bintze, Sartze y Uscartze (18) (1945, 139. or.).

- Jaca: Jaka

Euskaraz erabili du, behinik behin Jose Migel Barandiaranek: *Berena zan Jaka ere, Ptolomeok dionez* (1934, 97) (19). Ohiko -c- grafiaz ageri da deitura baten osagarri, Jusef Egiategiren *Filosofo huskaldunaren ekheia* idazlanean: *Galtho egin nereioan ene herritar baten berri Dn Pedro de Jaka* (1785, 180. or.) (20). Jose Bizente Etxegaraik ere (1773-1855) hala idatzi zuen: *Jacatik Huescara, handik Barbastrora* (Etxegaraik, 1773-1855, 163) (21). Euskal Herrian deitura legez ere aspalditik ezaguna denez gero, euskal deiturgian ageri da, idazkera hori ematen zaiola (Gorrotxategi, 1998, 183. or.) (22). Lopez-Mugartzak, bere Erronkari eta Anso ibarretako toponimiari buruzko doktore tesian (23), *Iakka* forma historikoa aipatu eta *Jaka* era hobesten du euskararako.

- Ruesta: Arrosta

Santa Cruz de la Serósko kartularioan (24) dokumentatzen dira *Sancti Iacobi de Arrosta* (992, 1. zkia., 10. or.), *senior Lope Garcez in Arrosta* (1083, 10. zkia., 27. or.), *Fortunio Guerra in Arosta* [sic] (1135, 28. zkia., 53. or.), *don Gomez in Arrosta* (1149, 30. zkia., 56. or.), *senior in Osca et in Arrosta* (1170, 37. zkia., 64. or.) eta *don Berthalomeo de Rada senior in Arrosta* (1190, 46. zkia., 77. or.). *Ruesta* era erromantzea beranduago sortua dela pentsa daiteke, kartulario horretan ez baita behin ere jasotzen. Kontrara, *Arrosta* eraren *a-* protetikoak eta diphongaziorik ezak euskal hitzunek erabilitakoa izan zela salatzen dutelakoan gaude.

- Salvatierra de Esca: Salbaterra Ezka

Gaur Zaragozako probintziakoa den arren, Erronkariko ibar geografikoan dago herri hau, Ezka ibaiaren erriberan, beraz. Bienvenido Mas-

(18) CARO BAROJA, Julio: *Materiales para un estudio de la lengua vasca en su relación con la latina*, Txertoa, Donostia, 1990 [Lehen argitaraldia, Salamanca, 1945].

(19) BARANDIARAN AIERBE, Jose Migel: *Euskalerriko lehen gizona*, Benat idaztiak, Donostia, 1934.

(20) EGIATEGI, Jusef: *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia* 1785, Txomin Peillenek paratua, Euskararen lekukoak 6, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983.

(21) ETXEGARAI, Jose Bizente: *Festara* [bere bertso guztien bilduma, 1773-1855] Auspoa, Donostia, 1964.

(22) GORROTXATEGI NIETO, Mikel: *Euskal deituren izendegia*, Justizia Ministerioa & Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila & Euskaltzaindia, Madril, 1998.

(23) LOPEZ-MUGARTZA IRIARTE, Juan Karlos: *Erronkari eta Ansoko toponimiaz*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2006ko ekainaren 21ean Gasteizko kanpusean irakurritako doktorego tesia.

(24) UBIETO ARTETA, Antonio: *Cartulario de Santa Cruz de la Serós*, Anubar, Valencia, 1966.

caray Sinek aipatzen duenez (2002, 146. or.) (25), 1838an oraindik herri euskalduna zen, dokumentatuta omen baitago urte horretan apaiz erdaldun baten parrokia eskaera errefusatu zutela, bakarrik euskaldun batak bete zitzaizkela konfesatu, predikatu eta era honetako funtzioak. XVIII. mendera arte Iruñeko elizbarrutikoa izan zen eskualde hau guztia. Lopez-Mugartzak aipatzen duenez, Erdi Aroan *Obelba*, *Obelua* erak erabili ziren. Berak, ordea, *Ezkako Salvatierra* darabil.

- Sigüés: Zigoze

Salbaterra Ezka herritik baino kilometro batzuk hegoalderago dago herri hau, Zaragozako probintzian baina Ezka ibaiaren bazterrean, Erronkari ibar geografikoan bertan, alegia. Lopez-Mugartzarentzat argi dago *Zigoze* era erabili zela euskaldunen artean.

- Sos del Rey Católico: Sause

Etxaidek jaso omen zuen era hau Zaraitzuko euskaldunengandik (1961, 222. or.) eta ondoren, Txillardegik ere agertu zuen bere zerrendan (1974, 177.or. 2. zutab.). Santa Cruz de la Serósko kartularioan beti ageri da bere oraingo itxurarekin, Sos, alegia, diptongaziorik gabe. Hala ere, Estornes Lasa familiak Erronkari ibarrarekin lotura sendoak izan ditu eta haien eskutik heldu zaigun *Auñamendi* entziklopedian (26), honako hau aipatzen da:

*En Euskalerrria solamente la pequeña provincia vasconizada de los suesetanos, en las cercanías de la actual Sangüesa (Navarra), se alió a Roma para evitar mayores males al país dando paso a la conquista e invasión. Estos suesetanos eran, al parecer, un resto de una tribu céltica, la de los suesiones, ya absorbida en la Vasconia prerromana. Queda un vestigio y es el nombre del pueblo Sos que, los roncaleses, hablando euskara decían **Sause**, posible recuerdo de los Sausetanos (Suesetanos sarrera).*

- Tauste: Deustia

Jon Etxaidek bere artikulua ezagunean jaso zuen *Deustia* era, Aingeru Irigarai iturri bezala aipaturik (1961, 222. or.). Ondoren, Txillardegik ere agertu zuen bere zerrendan (1974, 178.or. 1. zutab.). Santa Cruz de la Serósko kartularioan (1135, 27. zkia., 52. or.) *Petro Taresa in Borga et in Toguste* jasotzen da.

- Undués de Lerda: Undoze Lerda

Lopez-Mugartzak *Lerdako Undoze* proposatzen du, baina Euskaltzaindiak emandako 141. Arauan (27) iradokitzen den ordena hobetsi da.

(25) MASCARAY SIN, Bienvenido: *De Ribagorza a Tartesos; toponimos, toponimia y lengua iberovasca*, Bienvenido Mascaray Sin, Iruñea, 2002.

(26) ESTORNES ZUBIZARRETA, Idoia & Garikoitz (zuz.): *Auñamendi entziklopedia* [Bernardo Estornes Lasa fondoak], Auñamendi, Iruñea, Interneten 2001etik.

(27) «Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoaren erabilera» titulua darama 141. Arau honek.

- Undués Pintano: Undoze Pintano

Lopez-Mugartzak bi aukera eskaintzen ditu. Alde batetik *Pintaiko Undoze*, Izabakoen modura, hiri ezagun honen iparrekialdera, Belabarze-ko atea izeneko zintzuraren inguruan *Gaztelupintai* izeneko aurkintza bat baitago, 1828an *Gaztulupintay* dokumentatzen dena (NA.TM, XIV, 1993, 113. or.) (28). Bestetik, *Pintanoko Undoze*, Burgikoen modura, herri honen iparrekialdean, *Kukula de Pintano* izeneko tontorra baitago (NA.TM, XIV, 1993, 47. or.), 1427an dokumentaturik, *Pintano* izeneko gaztelu bat izan zuena. Hala ere, ez dirudi Pintano hauek Aragoiko Pintano eta Undués Pintano herrien izenekin erlazio zuzena izan dutenik, jatorri etimologiko bera izan dezaketen arren (pertsonek izen bat gehi jabetza adierazten duen *-anu(m)* atzizki latinoa).

- Urdués: Urdoze

Lopez-Mugartzak ontzat eman du proposamena, baina ez du dokumentaziorik gaineratu. Cf. *Urdoze* Baigorri ibarrean, grafia frantsestuaz *Urdoz*. Siresako kartularioan (29), hala ere, *Orduessi* (933, 7. zkia., 25-26. orr.) eta *Orduesi* (867, 4. zkia., 18. or.) erak dokumentatzen dira.

- Valle de Ansó: Anso Ibarra (30)

Lopez-Mugartzak *Berari* forma historikoa onartzen duen arren, ibararren izenerako *Ansoibar* proposatzen du. Ez du, ordea, *Antso* era onartzen, pertsona izenerako ez bada. Bere oharretan gaineratzen du bertakoak *ansoarrak* direla. Ikus beherago *Berari* izenaz esaten dena (*Testu berezietan, historia lanetan...*).

- Valle de Echo: Echo Ibarra

Lopez-Mugartzak ez da ausartzen *Etxo* grafia euskaratua proposatzen eta ibararren izenerako *Echoibar* proposatzen du, modu honetan Consello d'a Fablaren *-ch-* grafia errespetaturik. Hala ere, Erdi Aroko dokumentazioan *-tx-* grafia jaso duela diosku. Bertakoak **echoarrak* ez, baina *txesoak* direla gogoratzen digu.

4. Errioxa

- Casalarreina: Nafarruri

Merino Urrutiak honako datu hauek ematen ditu (31):

(28) JIMENO JURÍO, José María (zuz.): *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza*, 59 liburuki, Nafarroako Gobernua & Trabajos Catastrales S.A., Iruñea, 1992-1999.

(29) UBIETO ARTETA, Antonio: *Cartulario de Siresa*, Anubar, Valencia, 1960.

(30) Ikus, hala ere, balio historikoa izan dezakeen *Berari* izenari buruz hurrengo atalean esaten dena.

(31) MERINO URRUTIA, José Juan Bautista: *La lengua vasca en la Rioja y Burgos*, Consejo Superior de Investigaciones Científicas & Logroño Probinziako Diputazioa, Logroño, 1978.

Primitivamente se llamó Naharruri (967), Naharruli y Nafarruri. Este antiguo topónimo que aparece escrito con las distintas grafías que transcribo designó a un antiguo poblado a las orillas del Oja, que debió ser fundado por un «navarro» en la época de la repoblación de esas tierras, a juzgar por el nombre [...] Manuel Lecuona comentó el topónimo Naharruri, y lo hace derivar de la radical árabe Nahar, río, que no me satisface [...] El moderno nombre de Casalarreina, se debe según la tradición a una gracia de la Reina Católica con motivo de la petición que le hicieron los vecinos del poblado en una de las visitas que hizo a los Condestables de Castilla que tenían un Palacio en el lugar, del que aún quedan ruinas. La petición fue motivada porque a los oídos suyos no les sonaba bien el antiguo nombre, que pudo vivir mientras el vascuence fue lengua hablada, pero no después (1978, 58. or).

Dokumentazioan *Naharruri* edo *Nafarruri* ageri den arren («Nafarroako hiria», «nafarren hiria» edo «Nafar izeneko norbaiten jabegoa»), beranduago *Ojoculo* izenaz ezagutzen omen zen, kontatzen denez, harik eta 1511an Gaztelako Juana I.ak («Eroa») bertako Kondestableen jauregian ostatu hartu eta, izena ez gustaturik, *Casalarreina* bataiatzea erabaki zuen arte. Santo Domingo de la Calzadako kartularioan (32) 18 aldiz dokumentatu dugu jatorrizko izena 1156 eta 1251ko urteen artean aldaera hauekin: *Naharrori*, *Naarruri*, *Navarruri*, *Naharruri*, *Nafarruri*. Hauez gainera, Francisco Cantera y Burgosek *Naharruli* aldaera ere aipatzen du (1980, 76 eta 174. zkiak.) (33). Txillardegiren zerrendan *Naharruri* era proposatzen da euskararako (1974, 168. or. 1. zutab.).

- Nájera: Naiara

Izen honi buruz oso dokumentazio ugaria aurki daiteke. Santo Domingo de la Calzadako kartularioan, adibidez, 32 aldiz jaso dugu 1120 eta 1257. urte bitartean, honako aldaera hauekin: *Naiara*, *Naiaram*, *Naiarensis*, *Naiare*, *Naiera*, *Naieram*, *Nazara*, *Nazaram*, *Nazarensis*, *Nazarensis*, *Nagera*, *Nageram*, *Najera*. Euskaltzaindiak argitaraturiko ponte-izendegian (34), neska izen bezala ageri da *Naiara* eta euskaraz hiri hau izendatzeko era egokia izan daitekeela dirudi.

- San Millán de la Cogolla: Donemiliaga Kukula

Orixek erdal era hutsa erabili zuen: *Riojan San Millan* (1934, 211. or.) (35). Alfontso Irigoien euskaltzainak 1974an irakurri zuen bere sarre hitzaldiari *Donemiliaga Kukulla eta euskera* izenburua eman zion.

(32) UBIETO ARTETA, Agustín: *Cartularios (I, II y III) de Santo Domingo de la Calzada*, Anubar, Zaragoza, 1978.

(33) CANTERA BURGOS, Francisco: *Fuero de Miranda de Ebro*, Diputación Provincial, Burgos, 1980.

(34) GORROTXATEGI NIETO, Mikel & SALABERRI ZARATIEGI, Patxi: *Euskal izendegia (Ponte izendegia)*, Eusko Jaurlaritza & Euskaltzaindia, Gasteiz, 2001.

(35) «Orixe» Nikolas ORMAETXEA: *Euskaldunak*, Itxaropena, Zarautz, 1950 [1934].

Gainera, horretarako batzar irekia han bertan bildu zen urte hartako ekainaren hamabostean eta aktaren hasierak honela dio: *Kukullako Donemiliagan (San Millán de la Cogolla)*, «*Monasterio de Yuso*»n eguerdiko hamabietan bildu dira [...] [*Euskera* (36), XX (1975), 494]. Euskaltzaindiak tradizio honi eutsi zion ondoko aktetan ere eta 1977ko azaroaren 25ekoan honako hau irakur daiteke: *A. Irigoyen jaunak Donemiliaga Kukullan gazteleraren omenez egin den batzarraren berri eman du* [*Euskera*, XXII (1977), 884]. Hala ere, aipatu beharra dago batzar honen gertalekua, Xabier Kintanaren proposamenez hautatu zela eta **Anaitasuna** aldizkarian (37) era honetan iragarri zela haren eskutik: *Euskaltzaindiaren batzarrea Errioxan. Ekainaren 23an, Kukulako Donemilia herrian eginen du Euskaltzaindiak bere hilabeteroko biltzarrea [...] Donemiliako biltzarre hau, Glosas Emilianenses delakoaren mila urteurrena dela eta (Anaitasuna, 1974.eko maiatzaren 31koa)*. Halaber, aldizkari honek emandako batzarraren albistean modu honetan ageri da: *Ekainaren 15ean, Euskaltzaindiaren hilabeteroko bilera ohi ez bezalako toki batetan egin izan da: Donemiliaga Kukulan, Errioxako lurrian (Anaitasuna, 1974.eko ekainaren 30ekoa); Donemiliaga Kukulara bildu zen Euskaltzaindia ekainaren 15ean (Anaitasuna, 1974.eko uztailaren 15ekoa)*. Mitxelena berak *Donemiliaga* erabiltzen du: *Donemiliagakoetan, jakina denez, bitatik bat ezekoan baitago: guek ajutu ez dugu (Hizkuntzalaritaz-I, 1988, 155)* (38), *Donemiliagako dokumentu ezagun baino ezagunago batean (Hizkuntzalaritaz-II, 1988, 109)*. Bigarren atalari dagokionaz, interesgarria izan daiteke Santo Domingo de la Calzadako kartularioan jasotako datu hau: *domnus Martinus de Cocola* (1221, 2. zkia.).

5. Burgos

- Miranda de Ebro: Miranda Ebro

Miranda izen hutsak ez du eragozpenik euskal erabiltzailearentzat eta bere horretan ageri da idazleen lanetan: *Mirandan bere Txinarako lagunekin juntatu zan* (Goñi (39), 1908, 11. or.); *Ebro ibaiaren ertzean nago nere mastian etzanda esker-aldean Haro ospetsua eskuira berriz, Miranda* (Jaurtakol (40), 1929, 23. or.); *Gazteiz, Miranda, Tudela eta Baiona ingurukoak* (Barandiaran, 1934, 13. or.); *Mirandaren iparral-*

(36) *Euskera*, *Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1920tik aurrera.

(37) *Anaitasuna*, boletín de la T.O.F. de Cantabria [5. aroa, 15. urtea, 240-241 zenbakitik aurrerakoak], Aita Frantziskotarrak, Bilbo, 1964-1973.

(38) MITXELENA ELISSALT, Koldo: *Euskal idazlan guztiak* (9 liburuki), Euskal Editoreen Elkarte, Erein, 1988.

(39) GOÑI, Francisco: *Ama Birjiñaren agertziak eta gañerako Lurdes-ko gertaera gouangarriyak*, Florentino Elosu, Durango, 1908 [Antonio Zavala (arg.), Zarautz, 1962]

(40) «Jaurtakol» Luis JAUREGI: *Biozkadak*, Nekatako Ama-Birjiñaren irarkolan, Iruñea, 1929.

detik Trebiñora zijoazela uste degu (op. cit., 98. or.), *Mirandako konde españarrak [...]* *Mirandako konde gaizto orrek* (Lauaxeta (41), 1935, 99 eta 100. or., *Amaiurko gaztelu baltza* olerki ezagunean), *Miranda aldetik Ameriketara joana zan* (Etxaniz (42), 1967, 30. or.), *Bilbon lurra jo zuteneko, Miranda aldera jo zuten* (op. cit., 48. or.). *Ebro* deitura gehitzean euskal sistema ohikoa proposatzen da, gaztelaniazko *de* preposizioz gabea, eta Euskaltzaindiaren 141. Arauko 2-c atalean ezarri zen bezala (43): Cf. *Donibane Garazi, Uharte Arakil, Getaria Gipuzkoa, Arteaga Arratia, Iruña Oka...*

- Valle de Losa: Lausa Harana

Ezaguna da izen hau *Lausa* dokumentatzen dela garai zaharretan, Valpuestako kartularioan adibidez (44): *exinde in alio loco que uocitant Lausa* (804, 1. zkia., 8. or.). Dena dela, diptongorik gabe oso garai zaharretan ageri zaigu jadanik, adibidez, 1177koa den Mirandako foruan: *Et si aliquis homo de alaua, aut de losa aut de ual de gouia de surnitate lose usque ad ffinem de asnaie* (33. paragr.) (45). Izena euskal testuetan erabili duten apurrek ere gaztelaniazko aldaera hobetsi dute: *ain laster Tobalina, Losa, Cabuerniga, eta beste leku askotan* (Astarloa, 1818, II, 909) (46).

- Valle de Mena: Mena Harana

Bere horretan dokumentatzen da Santo Domingo de la Calzadako kartularioan: *Sanzio Lopez de Mena* (1204, 88. zkia.). Toponimo hutsa euskaraz erabilia izateko ez du inolako eragozpenik eta hala egin dute gure zenbait idazlek: *Mena, Losa eta Gobi aranetan* (Barandiaran, 1934, 98. or.), *Mena ibarrean* (Mitxelena, *Hizkuntzalaritzaz-II*, 1988, 110. or.). Handik hurbil baina Aiarako lurretan, *Menagarai* izeneko kontzejua dago, izena Burgosko toponimo haren eratorri argia izanik.

Testu berezietan, historia lanetan edo eleberrietan, euskaraz eman daitezkeenak

- Ansó: Berari

Euskaraz erabiltzeko Txillardegik baino ez du proposatzen (1974, 165. or., 1. zutab.). Guk *Berari* era «historikoa» dokumentaturik aurkitu ez

(41) «Lauaxeta» Estepan URKIAGA: *Arrats beran*, Verdes etxean, Bilbo, 1935.

(42) ETXANIZ, Nemesio: *Lur berri billa*, Izarra irarkola, Donostia, 1967.

(43) «Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera» tituluaren darama 141. Arauko 2. puntuko c atalean «Herri izenak bereizteko bide tradizionala» zehazten da.

(44) PÉREZ SOLER, María Desamparados: *Cartulario de Valpuesta*, Anubar, Valentzia, 1970.

(45) LLORENTE, Juan Antonio: «Fuero de Miranda» [Mirandako Udal Artxibategian], *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas. Álava, Guipúzcoa y Vizcaya*, Amigo del libro vasco, Bilbao, 1984 [Madrid, 1800-1807], III, 472-485.

(46) ASTARLOA, Pedro: *Urteko domeka gustijetarako berbaldi ikasbidekuak*, Pedro Apraiz, Bilbo, 1818.

dugun arren, badirudi erromantzeko *-al* eta euskarazko *-ari* amaieren konkurrentziaren maiztasuna ezin uka daitekeela. Hala gertatzen da Ansoetik hurbil dauden Nafarroako toponimo nagusi batzuetan (*Igari-Igal*, *Erronkari-Roncal*, *Biotzari-Bigüezal*...). Erraz ondoriozta daiteke, beraz, *Berari* eraren baliokide erromantzea, Anso ibarra goitik behera ibiltzen duen *Veral* ibaiaren izena dela.

- Ejea de los Caballeros: Exea

Inoiz izenari euskal kutsua aurkitu nahi izan zaion arren, Lopez-Murgartzaren ustez, latinezko *axis*-en eratorria da –garrantzi handiko bidegurutzeara omen zen herri hau– eta ez euskal *etxe*-rena. Nolanahi ere, guk Santa Cruz de la Serósko kartularioan era hauek dokumentatzen ditugu: *Bertran in Exeia* (1135, 27. zkia., 52. or.), *Petro Taresa in Hosca et in Borga sive in Exea* (1135, 28. zkia., 53. or.), *Exeia* (1166, 36. zkia., 62. or.) eta *Petro Cornel in Exeia* (1188, 44. zkia., 74. or.).

- Gijón: Kixoi

Euskaraz idatzi dutenen artean era hauek kausitu ditugu: *Kijonen (Gijonen)* (...) *Kijon* (Agirre, 1906, 54. or.) (47), *Gijongo* (Goñi, 1908, 11. or.), *Jijon*, *Abiles*, *Prabia*, *Ribadeo*, *Ferrol*, *Koruña ta beste ainbat lekutan* (Agirre, 1912, 219. or.) (48), *Kixoierra* (Berriatua, 1981, 165. or.) (49); *Kixoi*en (op. cit., 166. or.); *Kixoietik* (op. cit., 168. or.).

- Huesca: Oska

Euskaltzaindiaren 32. arauak *Oska* dakar izen «historikoen» artean (E/ atala) (50).

- Santander: Sanandere

Euskaltzaindiaren 32. arauak *Sanandere* dakar izen «historikoen» artean (E/ atala) (51).

Euskal jatorriko inguruko herri izenak, euskal grafiaz erabil daitezkeenak:

- Arza (Burgos): Artza

Bizkaiko eta Arabako muga ondo-ondoan dagoen herririk honen izenak etimo argia du, hots, *har-* «harria» eta *-tza* ugaritasunezko atziz-

(47) AGIRRE, Domingo: *Kresala*, Klasikoen gordailua, Getxo, argitalpen digitala [1906].

(48) AGIRRE, Domingo: *Garoa*, Florentino Elosu, Durango, 1912.

(49) BERRIATUA, Imanol: *Itsasoa eta ni*, Oinarrizko euskarazko argitalpenak, 3. maila, Euskal kultur mintegia (Iberduerok babestua), Euskaltzaindia, Bilbo, 1981.

(50) «Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak» titulua du 32. Arau honek eta E atalean «Izen historikoak» gehitzen dira.

(51) Id.

kia, ekialdeko zenbait toponimotan *-za* ere agertzen dena. Handik hurbil Urdanegi jauregia eta Lantzagortabekoa etxea daude, euskal toponimo argiak hauek ere.

- Cihuri (Errioxa): Zihuri

La Calzadako kartularioan dokumentatzen ditugun erek *Zufi-* euskal errorekin erlazioan jartzeko aukera erraza ematen digute: *Lop de Zophiuri* (1199, 78. zkia.), *domnus Lupus de Zufiori* (1181-1199, 84. zkia.) eta *Nicholay de Zufiori* (1156ko kopia, 27. zkia.). Merino Urrutiak Tiron ibaia-aren gaineko zubia izendatzen zuela dio: *Este nombre localiza un puente sobre el río Tirón [oharra: Odón Apraiz, en RIEV comenta el nombre de este pueblo en su artículo «De toponimia histórica» - Tomo XV - 1924] al que al castellanizarse debe su nombre por traducción del vasco Zubi. Se llamo Zufiuri (947) y Sotihuri (1121) (1978, 59. or.)*.

- Ezcaray (Errioxa): Ezkarai

Euskal jatorri argiko toponimo aipatua *haitz-* eta *-garai* osagaiez eratu da eta bere kokaera geografikoari oso modu egokian jarritako ize-na du, Demanda mendilerroko mendirik altuenaren azpian baitago. Merino Urrutiak datu hauek ematen ditu: *Lo encuentro escrito Izcarai (1110), Ezcarahi o Hezcarahiz (1290) y Ezcarai (1565) (1978, 24. or.)*.

- Herrera (Burgos): Olaerrea

Miranda Ebro udalpeko herria da. Donemiliagako Reja ezagunean (1025) *Olhaerrea* dokumentatzen den arren, Llorentek argitaraturiko Mirandako foruko testuan (1177) *Fferreruela* da irakur daitekeen aldaera bakarra (Llorente, 4. paragr.).

- Javierregay (Huesca): Xabierregai

Lopez-Mugartzak ontzat ematen du euskal grafia duen aukera hori, ez ordea *Xabierregarai* berreraikuntza. Siresako kartularioan *Isxaverre gayo* (867, 4. zkia., 18. or.) eta *Scaberri gayo* (922 ?, 5. zkia., 21. or.) ageri dira, eta Santa Cruz de la Seróskoan *Essavir agai* (1100, 20. zkia., 42. or.). Jatorrian *Javierre de Martes* herria edota Echo ibarreko *Escabués* herri itzalia egon daitezke, hurrenez hurren *Scaberri* (922, op. cit. 6. zkia., 23. or.) nahiz *Szaberri* (971, op. cit. 9. zkia., 30. or.), eta *Iskavelli* (867, op. cit. 4. zkia., 18. or.) nahiz *Eskavessi* (933, op. cit. 7. zkia., 25. or.) edo *Escaverri* (992, 1. zkia., 10. or.) dokumentatzen direnak.

- Miraveche (Burgos): Mirabetxe

Oñako kartularioan (52) dokumentatzen da lehenengoz *Miarauæg* grafiaz (1122) eta geroago *Mirauit* (1169). Gure ustez, hala ere, honek ez

(52) ÁLAMO, Juan del: *Colección diplomática de San Salvador de Oña*, Centro Superior de Investigaciones Científicas, Madril, 1950.

du errazten izenaren euskal ustezko etimoarekin (-*etxe*) izan lezakeen lotura.

- Ochánduri (Errioxa): Otxanduri

Merino Urrutiak honako hau diosku: *Se llamó también Oggando, Ogganduri* (1978, 61. or.). *Otxanda-uri* etimologia garden samarra dela dirudi, hala ere.

Bestalde, badaude aldaketa grafikorik ia behar ez duten beste herri izen batzuk:

- Artieta (Burgos)

Cf. *Artieda* Urraulbeitikoa, Nafarroan.

- Badaran (Errioxa)

Santo Domingo de la Calzadako kartularioan *locum qui vocatur Barharanburu* jasotzen da, Naiara ondoko leku honetaz ari omen dela (1211, 100. zkia.).

- Bardauri (Burgos)

Bai *Reja* delakoan (1025) eta bai 1177ko Mirandako foruan (Llorente, 4. paragr.) *Bardahuri* grafia ageri da.

- Galbarruli (Errioxa)

Izenaren etimoa Galba herrikoek IX. mendean eginiko birpopulamentuarekin lotu ohi da. Merino Urrutiak dioenez, *Se llamó Galbarruli (1146) en el Fuero de Cerezo* (1978, 59. or.).

- Herramelluri (Errioxa)

Santo Domingo de la Calzadako kartularioan *De Herrameluri* (1211, 100 zkia.), *Garci Diaz de Ferrameleri* (1212, 101. zkia.), *Gonzalvo Diaz de Ferramelluri* (1182, 50. zkia. eta 1230, 136. zkia.), *Lupus Garciez de Herrameluri* (1208, 93. zkia.), *Peidro Garcez de Herrameluri* (1185, 66. zkia.) jasotzen dira. Normalean ondo dokumentaturiko *Herramel*, *Erremel* pertsona izenarekin lotu ohi da. Hala egiten du Merino Urrutiak: *Fundado este poblado por el Conde alavés Herramel [...] Ferramellor se llama en 1413* (1978, 60 .or.).

- Murita (Burgos)

Cf. *Murieta*, Egaibarreko herria, Nafarroan.

- Ollauri (Errioxa)

Santo Domingo de la Calzadako kartularioan *Gonzalvo de Olauri* (1185, 66. zkia.) eta *Petro Garciez de Olhauri* (1182, 54. zkia.) dokumentatzen ditugu. Merino Urrutiak dioenez, *Antes se llamó Ullaire, y se le cita en 1343* (1978, 61. or.).

- Orrantia (Burgos)

Artza ondoko herria, Burgosko lurretan, baina Aiara ondoan eta Bizkaiko mugatik ere oso hurbil. Valpuestako kartularioan, Alfonso II.a erregearen dokumentazioan aldaera zaharra aurkitzen den arren, ez dugu uste euskararako era zaharkitu horretara hurbiltzea komeni denik: *propios terminos de Orrundia usque ad fontem Sauanaria* (804, 12. or.).

- Sajazarra (Errioxa)

Badirudi euskal toponimotzat har daitekeela. Bigarren osagaiarekin adostasuna dago, baina lehenengoa eztabaidatua izan da. Aipu argigarri gisa, Cerezo de Río Tirón herriko foruan bereiz idatzirik ageri da hasperenketa eta guzti, hots, *Saja-Zaharra* (1151, 2. paragr.) (53).

- Udalla (Kantabria)

Ampuero udalerriko auzunea da. Cf. *Udala* Arrasateko elizatea. *Udala* (Bustamante, 1987, 245. or.) (54), *Ulad Abdi* (id., 62. or.).

- Zaballa (Burgos)

Lausa Haraneko herria da, Urduñaren hegoaldean. Cf. *Zaballa* mendia, Aiara eta Artziniegako mugan.

- Zilbarrena (Errioxa)

Gaztelaniaz *Cilbarrena* idatzi ohi da, noski. Hala ere, dokumentazio zaharrean *unum solarem in Semelio Barrena* aurkitzen dugu Santo Domingo de la Calzadako kartularioan (1182, 54. zkia.). Hortaz, *Semelio* (gaur *Gimileo*) herriari egingo lioke erreferentzia. Azken honen gainean, Merino Urrutiak honako hau dio: *Semeglio* (1806), *tiene forma de ser un arabismo* (1978, 59. or.).

Beste izen batzuk zerrendara ez gehitzea erabaki da:

- Calahorra: Kalagorria (Errioxa)

Euskaraz erabili izan da, aldaerak aldaera: *Kalahorrak* (Hiribarren, 1853, 84. or.) (55), *Calahorrako Apezpikoa* (Iturzaeta, 1899, 54. or.) (56), *Kalahorran* (Orixe, 1929, 129. or.) (57), *Kalahorra* (Baran-

(53) LLORENTE, Juan Antonio: «Fuero de Cerezo de Río Tirón» [Colección Diplomática de Martínez Marina], *Noticias históricas de las tres provincias vascongadas, Álava, Guipúzcoa y Vizcaya*, Amigo del libro vasco, Bilbao, 1984 [Madril, 1800-1807], IV, 108-110.

(54) BUSTAMANTE BRICIO, José: *La tierra y los valles de Mena, cosas de antaño y hoy*, José Bustamante Bricio, Madril, 1987.

(55) HIRIBARREN, Jean Martin: *Eskaldunak*, Foré eta Lasserre, Baiona, 1853 [Añamendi, Donostia, 1971].

(56) ITURZAETA EGIA, Andres: *Aita Gaspar [Astete] icasbide cristinaucorraren azalduera laburrac*, Durango, 1899.

(57) «Orixe» Nikolas ORMAETXEA: *Santa Cruz apaiza*, Donostia, 1929.

diaran, 1934, 97. or.), *Kalaguriko apezpiku* (Orixe, 1950-1954, 90. or.) (58), *Kalagorrako Obispoak* (Akesolo, 1958, 19. or.) (59).

- Santo Domingo de la Calzada: Ozkabarte (Errioxa)

Merino Urrutiak (1978, 58. or.), Casalarreinan aipatzen ditu *Arteaga y Ajubart* (1199), *Jubarte* (1210), *que Alfonso el Batallador donó a Domengoa* (1125). Segur aski, leku honekin nahasturik esan izan da *Ozkabarte* dela Santo Domingo de la Calzadaren euskal izena (Txillardeggi, 1974, 177. or. 1. zutab.). Bertako kartularioan era hauek guztiak jasotzen dira, besteak beste, Balpardak aipatzen dituenak, nahiz eta berak *Oggobarte* transkribatu (1125, II, 127. or. oharra) (60):

Olgobarte vocantur, Sancto Dominico qui (Jubarte)	(1125/06/17, 7. zkia.)
Olgobarte vocatur, unam villam qui	(1133/07/17, 8. zkia.)
Iovart, Domingo Ortiz de	(1156, 26. zkia.)
Oiubart, altera pieza in termino de	(1156, 26. zkia.)
Oiubart, Semen Semenez de	(1156, 26. zkia.)
Oiubart, Fortun de	(1156, 26. zkia.)
Oiubart, Lop de	(1156, 27. zkia.)
Oiubart, Sancio Ortiz de	(1156, 27. zkia.)
Oiubart, Gonzalvo Munioz de	(1156, 27. zkia.)
Oiubart, in termino de	(1156, 27. zkia.)
Oiubart, Fortun de	(1156, 27. zkia.)
Oiovert, Domingo de	(1199, 78. zkia.)
Oiovert, el moleo [molino] de	(1199, 78. zkia.)
Aiuvart, Mateo de	(1199, 78. zkia.)
Aiuvart, don Garcia de	(1199, 78. zkia.)
Aiuvart, e todo conceio de	(1209, 97. zkia.)
Aiuvart, don domingo de	(1209, 97. zkia.)
Oiubart, Fortun de	(1209, 97. zkia.)
Aiuvart, et [in termino] de	(1210/12/05, 99. zkia.)
Oiuvarth, son testes de	(1212, 103. zkia.)
Oivart, D[omingo] de	(1251, 143. zkia.)
Oivart, P[etro] Lopez, clérigo de	(1251, 143. zkia.)
Oviart, a la defesa de	(1251, 143. zkia.)

(58) «Orixe» Nikolas ORMAETXEA: *Quiton arrebarekin*, 1950-1954 [Itzaropena, Zarautz, 1988].

(59) AKESOLO OLIBARES, Lino: *Ipiña ta ipiñatarren barri*, Bilbo, 1958.

(60) BALPARDA Y DE LAS HERRERÍAS, Gregorio: (2 liburuki), Caja de Ahorros Municipal de Bilbao, Bilbo, 1974 [1922-1945].

LITERATURA

AGUR HITZAK

(Ondarroan, Herri-hizkera Jardunaldia)

Ondarroa, 2006-X-20

Andres Urrutia

Azken hitza, apezak bere. Horrela esan ohi da euskaraz, eta horrela esan beharko nuke nik neuk ere, zuen aurrean. Egun osoa eman duzue lanean, herri-hizkera dela eta ez dela, eta etorri da ekitaldiari azkena emateko aldia eta tenorea.

Gaur, ostera, azkena baino, lehen-lehena nahiko nuke neure berba, Ondarroan hasi duzuen honek bizi luzea izan dezan.

Ondarroak berezko dau euskera. Administrazioan, kalean, hartu-emonetan... edonon dabil, indartsu eta erakusle, Ondarroako euskera gozo eta bizia. *Non fida, han gal.* Horra hor aspaldiko esamoldea. Horrek be gogoratu behar deusku, lotan baino, erne eta adi egon behar dogula, berezko dogun horrek bizitasun osoz jarraitu dagian. Ahaleginak eskatzen ditu horrek. Guztion ahaleginak, duda barik.

Ahalegin horretan jardun duzue zuek, herri hizkera aztertzeko unean. Hortxe dago, besteak beste, euskara batuaren ardatz nagusietako bat, berberatik hartu behar duelako horrek bere hezur eta mamia (gatza eta piperra ere alboratu gabe), guztiona den euskara batu hori moldatzeko eta gauzatzeko.

Hala egiten da egiazko batua, euskaldun guztientzat baliagarria dena, hain zuzen ere, inor azpiratu eta beheratu gabe, jakinik bakoitzarena dena guztiona dela, eta guztiona dena, batu delako hori, bakoitzarentzat ere onuragarri eta aberasgarri dela.

Badakit Ondarroan horretarako koaxi eta kemena sobera duzuela. Hala erakutsi eta erakusten duzue, Augustin Zubikarai zenaren inguruan antolatatu dituzuen *Lore jokoak* direla eta. Herria jarri duzue, beste behin ere, ondarroar euskaltzale eta eragile haren itzalpean.

Euskaltzaindian ere halako indarrak behar ditugu. Horrexegatik etorri da Euskararen Akademia Ondarroara, literatura eta herri-hizkera zuekin batera jorratzera, zuengandik espero dugulako, aurrerantzean ere, aurten elkarrekin zertu dugun lankidetzara bera edo oraindik zabalagoa.

Mila esker zuen gonbitarengatik, eta laster arte.

AUGUSTIN ZUBIKARAI (1914-2004) & EUSKALTEATROA

Euskaltzaindiko Literatura Ikerketa Batzordearen bilera

Ondarroa, 200-X-20

*Patri Urkizu,
Literatura Ikerketa batzordekidea*

Egunon denoi.

Augustin Zubikarai Ondarroan jaio zen 1914ko azaroaren 3an eta Galdakaon zendu 2004ko uztailaren 12an. Bi data hauen artean lanari eta euskal literaturari eskainitiko bizitza luze eta oparoa. Hamabost mila orrialde gutxienez idatzi omen zituen Julen Urkizak dioskunez (1). Zail izango da, beraz, ondarroar honek burutu lan erraldoi guzti honetaz hitzegitea eman didaten astiaz eta beraz, labur-labur aipatu beharko ditut hamaika kontu.

Haren gurasoak Salvador Zubikarai eta Ana Bedialauneta. Aita arotza zen ofizioz. Haurtzaroan Gurutzeko Alabak mojen eskolan ikasi zuen lehenik eta hamar urterekin Saturrarango seminarioan sartu. Bosgarren urtean gaixotu egin zen eta etxetik ikasten jarraitu zuen, baina garai haietan apezpikuak ez zirenez etxetik ikasten jarraitze-zale Filosofiako lehen urtean laga egin behar izan zuen seminarioa.

Gazte zelarrik hasi zen idazten bai euskaraz bai eta gaztelaniaz euskal gaietaz eta haren lehen antzerki eta olerkiak jada *Euzkadi*-n argitaratu zituen 1933-1936 urteetan. Titulu hauek zituzten: *Aberrijagaz bizi* (antzerkia), eta *Edurne*, *Itsuleku*, *Matalle-otoya*, *Siaskakuak*, *Txirrita*, *Usua banitz* (poemak).

* * *

Aberrijagaz bizi, Mungian antzeztu zen lehenengoz, eta mungiarrek zirikatuta nonbait, hasi zen besterik idazten, hala nola *Illobaren indarra*, zein beste antzerkitxo bezala *Euzkadi*-n argitaratu zen zatika 1934ean. Eta Ondarroan jokatu zuten lehen aldiz. Ondoren *Itxas Lapurrak* 1935ean, XII. mendeko itsas-lapurren eginkizunez, gora-beherez eta abenturez

(1) Julen Urkiza & Luis Baraiazarra, *Augustin Zubikarai (1914)*. *Bidegileak*, Eusko Jaurilaritza, 1999.

Hiru antzerki hauek, Lauaxetak *Euzkadi*-n zuzentzen zuen *Euskal Orria*-n plazaratu ziren. Laugarren antzerkitxo bat ere idatzi zuen Zubikarai eta 1935ean Bilboko Euzko Gaztediak eratu antzerki-lehiaketara aurkeztu zuen. *Ixas ertzeko itsu mutilla*.

Ikusten dugunez, itsasoa izan zen gazte garai haietan, eta geroago ere bai, ezinbestekoa zena ondarrotar batentzat, noski, gairik jorratuena.

Ondarroako antzerki taldeak parte hartu zuen 1934ean Lehen Eusko Antzerti eguna ospatu aurretik Donostian antolatatu zen antzerki lehiaketan, *Euskeltzale Bazkuna* taldearekin martxoaren 11ean, baina nola nahitanahiez Karraskedoren *Etxe aldaketa* antzeztu behar zuten hau jokatzeko lekeitiarrak ondarrotarrekin batu ziren, zumaiarrak debarrekin, ea.

1935ean ez zuen parte hartu, baina 1936an berriro urtarrilaren 6an, antzeztu zuten Donostian ondarrotar antzezleek.

Hona Antonio Labaienek zuzentzen zuen eta garaiko ikuskizunei buruz idazten zuen *Antzerti* aldizkarian gure Zubikarairi egin zitzaion omenaldiaz zioena:

ARTETA'ri omenaldia

Azaroaren 30'ean omenaldi ta gorasarre ondo merezia egin zioten Ondarru'n Zubikarai'tar Agustin, izen ordez ARTETA idazleari.

Gazte azkar au beste gauzaz gañera antzerkigille degu. Emen, bere antzerki-lanak aitatu izan ditugu: «Aberriagaz bizi, Illobaren indarra, eta abar.

Ondarru bere jaioterriko adiskideak omenaldi ori eskeñi nai izan diote, aren antzerkiak antzezturik, eta opariz jai eder bat eratuaz,

Au dala-ta ANTZERTI'k idazle ta antzerkigileai nundik lagunduko dabilen aldizkingi onek zorion-agurrik sutsuena Zubikarai jaunari, ARTETA idazle gazte-ari bidaltzen dio, gero ere euskal Teatroaren alde ekiten jarrai dezan (2).

Gerraurreko teatro-giroa benetan bizia zen, honela 1936ko Aberri Egunean hogeit hertirik gora izan ziren ospatu zutenak jaia euskal antzerki bat ikusiz. Mutrikun, adibidez, *Iru Gudari* ikusi zuten. Baina gerrak hautsi zuen Errepublika garaiko pizkunde hura eta gerrak suntsitu zuen ia dena. Halere obra hau gerra hasita gero ere antzezten jarraitu zuten, eta honela Bilboko Euzko Gaztedijak 1937ko otsailaren 11an antzeztu zituen, alde batetik *Ezer ez ta festa*, Soroa-Alzagarena, eta *Iru Gudari*, Pearse-ren obra, Manu Sotak eta Lauaxetak moldatua.

Padraia Pearse (Dublin, 1879-1916), *An Claidheamh Soluis*, liga gaelikoaren egunkariaren editorea zen, poeta eta antzerkigilea. Irlandako Independentzia Komandante gisa zinatuz zuten zazpietarik bat. Honen *Buruzagijak* antzerkia, adibidez, Manu Sotak gaztelaniara itzuli eta Joseba Altunak euskeratu zuen, eta *Euzkerea*-n argitaratu zen (Verdes 1935). Sota eta Lauaxeta izan zi-

(2) *Antzerti*, 47-48. zenb., 1935, azaroa-abendoa.

ren bereziki saiatu zirenak batez ere teatro irlandesa eredu gisa hartuta (Yeats, Pearse, Maeterlinck...) kostunbrismotik euskal teatro ateratzen eta antzerti politiko sinbolista bat lantzen eta irudikatzen.

1937ko urtearen hasieran agertu zen *Eguna* eta bertan parte hartu zuen zuzenki Zubikarai, Manu Ziarsolo eta Eusebio Erkiaga besteen artean lankide zituela. Hemen erabili zituen pseudonimoak ARTETA, AKILLA, GURUTZ, KRESALA, KURTZULU izan ziren, eta Joseba Agirreazkuenagak fak-similaren hitzaurrean ongi azpimarratzen duenez hauek izan ziren kazeta haren diskurtsuaren ardatz nagusiak:

- a) Antifaxismoa eta askatasuna;
- b) Euskal abertzaletasunaren alde;
- c) Euskara abertzaletasunaren muina;
- d) Kritautasuna,
- e) Euskal Gobernuaren defentsa eta
- f) Baserritarren alde.

Lana benetan eskerga izan zen, kontutan harturik gerra garaia zela, bai parte hartu zuten guztiena, bai eta Bilbo erori ondoren parte hartu zutenena *Euzko Deya- La Voz de Euzkadi- La voix des Basques*-en (Paris 1936-1940).

Gerrateko ibilerak argitaratu zituen Augustinek 1983an *Makilen egunak. Guda-baten kerizpe eta autsetan* titulutzat zeukan kontakizuna. Santofiako erbestean zelarik hona nola ikusten zuen sorterria:

Lur gorri
 Burdin lur.
 Au ez da
 Nire ama-lur.
 [...]
 Zabal ikusten dot aurrean itsasoa.
 Keizpean, urrunetan, Bizkai lurra.
 Zetan zagoz, matzaku,
 –Moko arru–
 Itxasoari musu ta musu?
 Zure atzean igartzen dot
 –Nire kezka kezketan–
 Ondarru,
 Nire sorleku.
 Agur Bizkai,
 –Mendi ta ibai–
 Nire ametsen kai!

Asturias, Laredo, Dueroko Aranda, Ebroko Miranda, Nafarroako Oteitza, Guadalajarako Mirabueno, Katalunia... eta azkenez Donostiara. Libre kazeta-

ri-kanjeo batean gelditu, eta Frantziara ihesi. Lehenik Landetan, (–**Basarri** eta nire aita bezalaxe–), gero Lannemezan eta Tarbes. Gibraltarretik pasa ondoren 1941ean etxera. Ondarroan ogibidea aurkitu eta familia sortu. Lana Mutriku Arruti kontserba-lantegiko bulegoan 40 urtez lan egin zuen, baina baita ere Ondarroan janari-dendako ardura berak eraman zuen.

1942an ezkondu zen Eako Maria Jesus Erkiaga Aldamizekin eta sei seme-alaben guraso izan ziren. Urte gogorak gerraondoko urte haiek. Eskerrak arrantzari, zeren honek gosea etxe askotarik urrundu baitzuen. Katakunbetako urteak deituak izan dira ere, errepresio faszista gogorra izan baitzen estatu osoan, eta bereziki Euskal Herrian.

Euskal kultura zapaldua zegoen eta soilik Iparraldean eta Ameriketara argitaratzen ahal zen zertxobait. Telesforo Monzon, Jon Andoni Irazusta, Jokin Zaitegi...

Honela 1949. urtean Miarritzen Euskal Lore Jokoak iragarri ziren eta antzerki arloan, zortzi lan aurkeztu ziren. Lehen saria Piarres Larzabali eman zitzaion, *Urchilotar horiek* antzerkiagatik. Bigarrena Jean Lousteau-ri eta Antonio Labaien, *Amaren heriotzea* eta *Amayur* lanengatik. Bakarrizketenan lehen saria Zubikaraik irabazi zuen *Itsasora* lanarekin. Bigarrena Minaberri & Charritonek *Izariko zapeta* lanarekin eta hirugarrena Mayi Elissagaray-k *Maite-txoren ezkontza*-rekin.

Donostian eta *Egan*-en inguruan, hau da, 1949an sortutako errebista eta Koldo Mitxelena, Aingeru Irigarai eta Antonio Arrueren inguruan hasi ziren euskararekiko gauzak poliki-poliki aldatzen eta 1956an Agorak antolatuta lehiaketan Zubikarairen *Seaska inguruan*, antzerkiak irabazi zuen bigarren saria. Hona albistea emanez Mitxelenak berak Augustini igorri zion gutuna:

AGUSTIN ZUBIKARAiri

Ondarroara,

Donostian, 1956-XII-28

Euskaltzale eta adiskide ori,

Zorionik beroenak eman nai genizkizute. Eguerrietarako eratu genduen sarietan, zure antzerki batek, «Bata maitasuna» ezaugarriarekin bidali zendun *Seaska* inguruan-ek, eraman du bigarren saria, 1.000 pezetakoa.

Zure gogoaren berri jakin nai genduke, ea saria nola artuko duzun, edo nola bidaltzea nai zendukean. Adieraz ezaguzu, mesedez, erabaki duzuna. Antzerkia argitaratzeko bidea ere izango dugu, noski.

Ar itzazu berriz ere gure zorionak eta gure goraintzirik biotzekoenak (3).

(3) Patri Urkizu, *Koldo Mitxelenaren euskal gutunak (1951-1984)*. Bilduma 18, 2004, Errenteria, 102.

Sari honetan, jakina den bezala, Imanol Ziarsolok ziri galanta sartu zien epaimahaikoei, lehen saria irabazi baitzuen Antonio Barrutiak XVIII. mendean idatzitako *Gabonetako Ikuskizuna* antzerkiarekin *Eguberri-aizeak* bezala titulatzuz eta «Arrasaten ditu sustraiak» ikurra erabiliz. Ez zuen gainera sariaren hiru mila pezeta jasotzeko inongo kupidarik izan.

Sei iruditan banatua eta ekitaldi bakarra zeukan *Seaska inguruan* (*Egan 1957*) antzerkitxoak saritu izanak pentsarazi zion Augustini antzerkia bide egokia zitekeela ordurarte urte askotan irakurri ere egiten ez zuen jendea zaletzeko. Obra Ondarroan antzeztu zen, hala nola Eibar, Elgoibar, Lekeitio eta Marinnan. Zentsurak ezartzen zituen trabak eta oztopoak, halere, handiak ziren.

Zubikaraik prestatu zuen beste antzerki bat *Jaunaren Bidetan* deitu eta Kresal antzeztaldeak Ondarroan 1958ko Aste Santuan eman zuen. Gasteizen Raimundo Olabideren omenaldirako gertu ziren jaietan ere antzeztu zen Euskaltzaindiaren eskutik. Gero Markina, Lekeitio, Eibar, Urretxu, Arrasate, Deba, Soraluze eta Ermua izan ziren antzezlekuak. Azpeitiko OARGUI taldeak zer bait aldatu eta Altunaren musikaz antzeztu zuen obra hau, Donostiako Victoria Eugenia, martxoaren 31an, ostiral santuz, goizeko hamaiketan arratsaldeko zazpi t'erdietan.

Hona obra honekin gertatutakoa Santi Onaindiari igorri gutun baten arabera:

RPS. Onaindia, Larrea

Ondarroa, 1964-IV-1

Adizkide on:

Irakurri neban zure «kritika». Beti laban ta bitsa atara nairik. Praillekeria. Noiz ikasiko dogu euskaldunok sits eta bits kritikak egiten, beti zuri-zuri agertu barik?

Oraingoan, ixil-ixilik, Jaunaren Bidetan emoten ibili gara. Deba, Lekeitio, Markiña, Soraluze ta Ermu'n. Txalorik biozkorrenak Deba'n jo euskuezan. Luze ta ugarienak Ermu'n. Ala ta be enabil pozik. Gaurako ikusle on ta beso-zabalekoekin, ez dogu aurrerapide andirik egingo.

Euskal teatroan eta euskal literaturan zelan gabiltzan gogoratzeko... egunotan egon da agerpeide bat.

Orain urte bi edo iru, azpeitiarrak antzeztu eben Donosti'n Jaunaren Bidetan, izen orregaz eta egillearen izena aitaturik. Aurten aldakuntza txiki batzuk eginda, lan bardiña emon dabe, baña beste izen bategaz eta beste egille batena ba'litiz lez. (Odol eskeintza, Altzu'k egiña). Kuadro txiki bi geitu dautsez ta zoritxarrez gertu be. Ni Azpeiti'n izan nitzan ikusten, erderaz esaten den lez, **de riguroso incógnito**, ta igarrita nekan plagioa gordin gordin iruntsi neban. Idatzi be egin neban kritika bat Zeruko Argia'n idazteko asmotan, baña gero bertan bera laga dot, bialdu barik. Musika barria ipiñi dautse, azpeitiar batek egiña, baña ortik kanpora... Orrelaxe bizi gara gure artean. Onetan be culpa asko praillioak daukazue, beti seigarrenari tengadaka ibilli zarielako, zazpigarrenari akulurik sartu barik.

Dana dala, gaur enator onetan.

Bake deungarri egun onetan, lanari lotu naz. Ta ara nire guraria.

Aurren, Domingo Agirre'ren eun-urtegarrena dala-ta, emen argitaratzen dogun Boga-Bogan, datorren illean, berari omenezko lan batzuk agertu nai gendubez. Praillien antzera eskale nabil oraingotan. Egingo al zenduke ainbat ariñen lanen bat? Milla esker beintzat ez jatzuz faltako.

Biotz biotzez.

Zubikarai (4).

Txomin Agirrek idatzi *Kresala* eleberriarren inguruan hasi zen, beraz, prestatzen beste antzerki bat Gregorio Solabarrieta musikariarekin batera eta 1961ean *Kresaletan* eman zen Ondarroan. Gero Donostiako Victoria Eugenia «Representación de la obra teatral de estampas de la vida marinera, titulada *Kresaletan* (Entre salitre)», halaxe zioen kartelak 1962ko martxoaren 4ean antzeztu zen obraz.

Herriz-herri ibili zen Zubikarai *Kresala* taldearekin 1957-67 urteetan. Eta Julen Urkizak dioskunez, urte horietan eman zuen bere onenetik eta jo zuen gailurra. Harreman oso onak izan zituen bai Aita Santi Onaindiarekin, zeinek bazirudien ea nork gehiago idazlan argitaratu deman zebilela, bai eta Antonio Labaienekin, zeinek 1965ean plazaratu zuen lehen euskal antzerki historia bi liburukitan eta gaztelaniaz: *Teatro éuskaro. Notas para una historia del arte dramático vasco*. (Donostia, Auñamendi, 1965).

1963an Toribio Alzaga saria irabazi zuen *Iru alaba* antzerkiaz, zein Errenteriako taldeak antzeztu zuen.

1964ean Txomin Agirrerren jaiotzaren ehunurte betetzen zirela eta antolatatu ziren zenbait festa eta lore-joko. Eta mendeurren honetarako prestatu zuen bereziki Mariñelak antzerkia, Jose Mari Altuna azpeitiarrak musika antolatatu zuelarik. Berak dioenez, *Kresaletan* antzeztu zuten baino toki gehiagotan antzeztu zuten obra hau, 1968an Ondarroatik hasi eta. Hona nola amaitzen den bukaera zoriontsua daukan antzerki kristau honek:

ERRITARRAK – DANAK

Itxasoari musuka

Jaio giñan Ondarrun,

Gogo bat erabilliaz

Lior eta itxasun.

Estropadetan txapeldun,

Oiturretan fededun,

Itxasoetan indartsu,

(4) Aita Onaindia, *Eskutitzak* Euskal Literaturari buruz. Bilbao, 1974, 191-192.

Ekanduetan gartsu.
 Euskalerriko eredu
 Izanik munduz mundu.
 Gure asabei jarraituz
 Danok gaitezen batu,
 Danon artean ein daigun
 Zorioneko Ondarru (5).

Antzeztaldean beste askotan bezalaxe giroaren isla, hasi ziren eztabaidak. Folklore gehiegi zerabiltela, bestelako gai gordinago eta bortitzago, errealista-goak erabili behar zirela, herriari gogai eta buruhauste berriak eraman behar zitzaizkiela, eta, horrela gertatu zen banaketa.

Halere, taldea mututu bazen Zubikaraik ez zion utzi idazteari eta, langile amorratua izaki, irabazi zituen beste zenbait sari, hala nola, 1967an *Gizon on eta andre erre* (Toribio Alzaga) eta aipamen berezia *Bizi garratza*-rentzat. 1968an *Lurrunpean* (Donostiako Gipuzkoa saria), eta 1969n sari berdina *Errekonduan... txabolei tiroka*, obragatik. Urte berean Toribio Alzaga saria *Mendu zarrak*, obrarentzat. 1983an Markiñako Euskal Lore jokoetan *Mendi eta itxaso*. 1984ean antzerki laburrentzat Santurtziko kontzejuko prestatu hirugarren literatur lehiaketan, eta neroni epai-mahaiko nintzelarik, *Don Peru (Jolas eta irri antzerkia)*-ri eman genion saria. Azkenik, Bizkaiko Aldundi saria ere irabazi zuen 1986an *Artea'ko itsua* lanarekin.

Orotara, berrogei antzerki inguru burutu zituen Zubikaraik. Pierre Larzabal eta Antonio Labaienekin batera gerraondoko teatrogizon hirukote nagusia osatzen duelarik, Lapurdi, Gipuzkoa eta Bizkaia errepresentatuz. Laburbiltzeko haren Antzerkiaren Poetika hona Xabier Letek *Bizi garratza* eta *Mendu zaharrak* obrei ipinitako hitzaurrean zioena Zubikarairen antzertiaz:

Izan ere, Agustín Zubikarai aipaturiko gerla osteko giroan bere teatro lana osatu duen idazlea da. Eztut honekin garai hartara bakarrik lotu nahi. Gaur ere idazten du, eta nere ustez inoiz baiño hobeto; bainan, hala ta guztiz bere pentsakeraz, izakeraz, edadez, eta idazkietako giro berezi horrek adierazten digunez, garai hartako egile klasikoa da, [...] Bere teatroa, ia beti, kezkadun eta prolemadun teatroa da, drama edo komedia eran osatua eta erabilia, klasikoki soluzionatua bai ideietan eta bai eszenerako eraketan. Teatro burjes klasikoa beraz. [...] Zubikaraik ba du halako erreztasun berezi bat bere obren pertsonaiak eszenan ezartzeko, definitzeko eta mugitzeko. Era klasikoan planteatzen du bakoitzaren zer-esana eta zer-ikusia, bainan errez erabiltzen du gaia eta pulsu sendoarekin eramaten ditu aurrera, berak ezarri nahi dien papera ondo beteaz. Dialogoak, elkar-hizketak, guztiz trebeak eta pizkorrak dira; abildade haundiarekin mintza arazten ditu bere pertsonaiak, era herrikoiean gaiñera, herrikoikerietan erori gabe; naiz eta batzuetan, noizik behin, dialogoaren bizkortasun eta bizitasun horrek berak hizkuntzaren aldetikako «barrokotasun» pittin bat enbazogarria sortzen badu ere. [...]

(5) Agustín Zubikarai, *Mariñelak*. Mekanografiatua. Koldo Mitxelena ondarea. C-381 F.10, 32-33.

Zubikarai bere alde on eta txarrekin, osotasun eta hutsegiteekin, teatroa serioски hartu duen gizona izan da. Hortik dator bere ekintzearen baliotasuna eta horregatik da bere lana estimagarria. Publikorik gabe eta girorik gabe hainbeste urteetan lana serio eta segian egin duen gizonak gure estimazio osoa eta esker ona merezi du (6).

Leteren hitzekin erabat ados nagoela, zer esanik, ez. Bai eta Julen Urkizarekin, zeinek ondarratarrari eskainitako biografiatxoaren amaieran dioen, eskain dakioken omenaldirik onena liburu bakar batean (edo bitan) haren antzerki-lan guztien argitalpen eder bat egitea litzatekeela, bere obraren eta euskal teatroaren historian daukan lekua ongi aztertuko lukeen ikerketaz horniturik, noski.

Eta besterik ez. Milesker zuen arretagatik.

(6) Xabier Lete, «Sarrera». *Augustin Zubikarai, Bizi garratza, Mendu zaharrak*. Irakur sail, Donostia, 1970.

LA NOTICIA DE *NEMZETI HÍRLAP*
LA CORRESPONDENCIA DEL PR. LUCIANO BONAPARTE
CON UN CIENTÍFICO HÚNGARO (1)

Budapest, 7 de junio [de 1877]

Karoly Morvay

El príncipe Luciano Bonaparte, quien ocupa un lugar destacado bien merecido entre los lingüistas vascos, hace poco se manifestó en este campo con un nuevo trabajo que tiene un carácter más bien polémico, y *está dedicado a la defensa de un lingüista húngaro* frente un lingüista vasco nacido en Francia.

El señor Ferenc Ribáry ya en 1856 se ocupaba de la lingüística y en las «Tanodai Lapok» (Hojas escolares) aparecieron varios ensayos suyos sobre las lenguas uralo-altaicas. En 1859, en el IV. tomo de «Magyar Nyelvészet» publicó un ensayo sobre el pueblo y la lengua mordvinos. En 1862 apareció el trabajo del príncipe que despertó en él tal interés que decidió convencerse personalmente de la relación entre el vasco y las lenguas finesas. Ribáry pensaba informarse con la ayuda de esta lengua sobre las relaciones etnográficas de los habitantes prehistóricos de Europa. Después de dos años de estudios se leyó en la Akadémia la primera parte del ensayo escrito sobre el pueblo y la lengua vascos. Y mientras en casa nostra casi pasó desaparcido, llamó la atención del príncipe Bonaparte en Londres, quien ante el señor Jácint Rónay (2), que entre tanto regresó al país, declaró que esperaba con gran interés la segunda parte, porque hay que saber que el príncipe, aunque no perfectamente, comprende el húngaro.

Luís-Luciano Bonaparte, príncipe de Canino, primo menor de Napoleón I, nació el 4 de enero de 1813 en Thorngrove, en el condado de Worcesters-

(1) Desgraciadamente no se han conservado los originales de las cartas reproducidas en húngaro en el artículo. Me he visto obligado traducirlas del húngaro al español y si se hiciera una versión francesa esta seguramente no correspondiera cien por cien con el original.

(2) Jácint Rónay (Leitzinger), beneditino húngaro, científico de gran renombre. Nació en Székesfehérvár en 1814 y murió en Pozsony en 1889. Después de 1849 se vio obligado emigrarse por su participación en la revolución. Entre 1850 y 1866 residió en Londres donde estableció relación con el príncipe Bonaparte para quien tradujo obras Reguly relacionadas con el vogul (cf. Szinyei: 1980-81, Tomo XI, 1151,1155. Cf. también *Encicl. Univ.* Tomo: 52 Ronay (Jacinto). N. B. la Enciclopedia menciona en francés el nombre latino de la ciudad nativa de Rónay (Alba Regia) y la forma española del nombre alemán de Pozsony (hoy Bratislava).

hire. Jamás se ocupó de la política, sino que se lanzó con gran entusiasmo al cultivo de las ciencias y en este terreno destacó desde diferentes puntos de vista. Sus especialidades principales fueron la química, la mineralogía y la lingüística. En este último campo aparecieron varios trabajos suyos. Así, entre otros, en 1847 el «Specimen lexicum comparativum omnium linguarum europaearum», en 1857 en 72 lenguas europeas la parábola sobre el sembrador; en 1862 «La langue basque et les langues finnoises»; en 1869 «Sur le verbe basque»; en 1877 «Remarques sur certaines notes, certaines observations et certaines corrections dont M. J. Vinson a accompagné l'essai sur la langue basque par F. Ribáry». En 1849 se hizo miembro de la Asamblea Nacional francesa y en 1852 llegó a ser senador. En 1855 fue condecorado con la gran cruz del Legión de Honor francesa. El príncipe le escribió al señor Ribáry una carta muy halagadora. Esta carta interesante también por su contenido científico dice:

Londres, 22 mayo de 1867.

Señor! Recibí con placer su trabajo sobre la lengua vasca. Desgraciadamente está escrito en húngaro, o sea en una lengua que admiro, pero que entiendo menos de lo que me gustaría. Sin embargo con la ayuda de un diccionario he comprendido las partes más importantes del trabajo. Yo no soy completamente de la opinión de usted en cuanto a la cuestión de si la lengua vasca y las lenguas del Ural pertenecen al mismo grupo lingüístico. Considero que las lenguas de Ural y las lenguas samoyedo, tunguso, tártaro y mongol a pesar de divergir mucho entre ellos forman un grupo, que tiene por nombre «altaico». Según mi opinión la lengua vasca no es «altaica», pero al mismo tiempo pienso que con todo y ser independiente del grupo de las lenguas altaicas, pertenece a una clase mayor de lenguas de la cual forman parte también las lenguas altaicas.

De esta manera la lengua vasca no es hermana del húngaro, como lo son el permio y el votíaco, tampoco es su hermana como lo son entre ellas las lenguas del Ural y el tartar, pero junto con el húngaro y los demás idiomas altaicos forman dos grupos lingüísticos como se ve en el cuadro siguiente:

Grupo lingüístico	Familia lingüística	Cada una de las lenguas
I. Vasco	Vasca	Vasco
II. Altaico	1. del Ural...	a) — Finés Estonio Livonio
		— Lapón

- b) | Permio-zirieno
| Votiaco
- c) | Cheremis
Mordvino
- d) | Húngaro
Vogul
Ostiaco
2. Samoyedo
3. Tartar
4. Tunguso
5. Mongol

De este cuadro usted puede ver claramente cual es mi opinión. Tal vez usted diga que según esto niego todo el parentezo entre el vasco y las lenguas del Ural. Ni mucho menos. Pienso que también constituye un tipo de parentesco si estos idiomas formando grupos independientes pertenecen a una misma clase de lenguas. En efecto, usted también lo sabe muy bien que las lenguas indogermánicas y las semíticas no forman parte de la misma clase que engloba el vasco y los idiomas altaicos. También las lenguas del Cáucaso (exceptuando las indogermánicas) forman grupos independientes, pero que pertenecen a la misma clase de lenguas que comprende el vasco y los grupos altaicos. Yo en mi trabajo solo intentaba demostrar el parentesco de los grupos lingüísticos. Aprovecho la oportunidad para comunicarle a usted –a quien le considero un filólogo, y muy especialmente, un finólogo excelente–, que no estoy contento de la denominación *familiar* con que se designa las lenguas del Ural, un nombre que en la conversación yo mismo empleo. ¿No piensa usted que entre el finés y lapón hay tal diferencia como entre el griego y el latín, el gaélico y el irlandés, el ruso y el litvano? ¿No piensa que entre el húngaro, el vogul y el ostiaco existe la misma diferencia? No tengo nada en contra de que muchos consideren lenguas hermanas de un lado el finés, el estonio y el livonio, y del otro el permiano y el votiaco, pero creo que las demás lenguas urálicas se puede clasificar de la siguiente manera:

*Grupo lingüístico
del Ural*

1. | 1. Finés, Estonio, Livonio
2. | Lapón
3. | Permio-zirieno, Votiaco
4. | Cheremis
5. | Mordvino
6. | Húngaro
7. | Vogul
8. | Ostiaco

Las lenguas del Ural forman más bien un grupo y no una familia.

En cuanto a su trabajo solo lamento una cosa y eso es que a veces ha cometido errores en la transcripción de los sonidos. Es igual que sistema aceptemos, pero una vez escogido tenemos que aplicarlo consecuentemente.* Le comunico pues los signos que en la lengua húngara señalan los sonidos vascos.

En el vasco

s

z, ce, ci, za, zo, zu un solo sonido

ca, co, cu, que, qui un solo sonido

ts, tce, tci, tza, tzo, tzu un solo sonido

x

ll

ñ

tt, ty

y

Acepte, etc.

En el húngaro:

falta, porque es un sonido entre la *s* y la *sz* húngaras.

= *sz*

= *k*

= *cz*, o sea *c*

= *s*, jamás *ks*

= *ly*

= *ny*

= *ty*

= en la mayoría de los casos *gy*.

Bonaparte L. L

Con esto se interrumpió la correspondencia entre el príncipe y nuestro científico, pero el príncipe interesado por la causa de la lengua vasca le llamó la atención sobre el trabajo del autor húngaro al científico vasco Abbadie. Este le comunicó la noticia a Vinson quien pidió conseguirle la obra a un amigo suyo que pasó por Budapest. Y de esta forma el ex vicecónsul francés de Temesvár, Émile Picot le visitó [a R.] en 1872 y según sus indicaciones logró encontrar el ensayo entre las publicaciones de la academia. El señor Vinson, que como lingüista se ocupaba del vasco, del tamul y de las lenguas altaicas, en un año aprendió el húngaro de tal manera que a finales del 1873 pudo comenzar la traducción del ensayo. La traducción cuya revisión hecha por el autor y la impresión ocuparon dos años, apareció en 1876 en París con las observaciones del traductor. Estas a veces son precisiones, otras veces rectificaciones. En las columnas del «N. H.» [Nemzeti Hírlap] ya hablamos de la traducción presentándola según el «Avenir» (3).

Contra las observaciones de Vinson, sobre todo contra sus refutaciones, tomó posición el príncipe Bonaparte en su reciente trabajo, en las «Remarques», publicadas primero en las actas de la sociedad filológica de París, y

* El señor Ribáry sirvió del sistema de transcripción que la academia húngara utiliza para la transcripción de idiomas extranjeros, pero no siempre escogió para los sonidos signos que existen en el alfabeto húngaro, sino que dejó también otros tales como: *n'*, *l'*, etc. y así el error es de la Academia y no del autor.

El autor de la reseña.

(3) Se trata de la breve noticia mencionada más arriba, publicada el 29 de diciembre de 1876 en el *Nemzeti Hírlap* bajo el título: «Reconocimiento al nombre húngaro en un campo nuevo».

editadas individualmente hace poco por segunda vez. El príncipe Bonaparte informó de este trabajo dos veces en sus cartas escritas al científico húngaro y en cuanto a las cuestiones discutibles y criticadas en la mayoría de los casos, toma parte por Ribáry, estimulado por el amor a la ciencia y sobre todo por el amor a la verdad. Nos pareció interesante hacer conocer las dos cartas a los lectores. La primera dice así:

Londres, Norfolk-Terrace Bayswater, 14. de junio de 1877.

Querido señor Ribáry, acaba de aparecer una reseña crítica mía sobre las observaciones que el señor Vinson añadió a la traducción francesa de la gramática vasca de usted. A veces el señor Vinson tiene razón frente a usted, pero frecuentemente es él quien se equivoca y es usted quien tiene razón. El amor a la ciencia y sobre todo el amor a la verdad me han obligado rectificar los errores del señor Vinson en relación de la lengua vasca. Le defiendo a usted, haciendo ver al traductor sus errores cuando rectificando supuestos errores de usted se equivoca. Le reservé a usted seis ejemplares de este trabajo pequeño y le pido aceptarlos como señal de reconocimiento a su talento lingüístico. Se los enviaré por correo, pero le ruego que me informe si he escrito bien su dirección. Atentamente *Luciano Bonaparte*. – Y la segunda dice lo que sigue:

Londres, Norfolk-Terrace Bayswater, 22. de junio de 1877.

Querido señor Ribáry, lamento muchísimo que un lingüista tan excelente como usted, haya dicho adiós a la lingüística. Es una pena que usted haya hecho con esta hermosa ciencia lo que yo hice con la química cuyo estudio me hizo feliz durante 25 años. Es verdad que la gente es ingrata, pero espero que usted también tenga remordimientos y que un día vuelva a los temas de este amor suyo abandonado. Le adjunto los seis ejemplares mencionados de mi trabajo. Espero de todo corazón que usted los reciba sin ningún daño. Acepte la expresión de mi gran respeto. *Luciano Bonaparte*.

Las cuestiones discutibles de la lengua vasca no interesarán demasiado al público no especialista, pero sí el reconocimiento tributado al científico húngaro en el extranjero. Las revistas especialistas francesas, inglesas y alemanas (*L'Avenir*, *Nature*, *Ausland*, etc.) observaron que Ribáry logró descifrar como nadie hasta ahora la admirable conjugación del verbo vasco. Porque hay decir que el verbo en este idioma tiene alrededor de ciento veinte formas y es capaz de englobar no solo el acusativo de los pronombres personales, sino también el dativo – la explicación del cual ya antes de Ribáry los mismos lingüistas vascos consideraban como un enigma irresoluble de una esfinge. – *K. K.*

(Publicado en «*Nemzeti Hírlap*», 8 de junio de 1877.).

JAGON SAILA

X. JAGON JARDUNALDIAK

*Bilbo, Euskaltzaindiko egoitza,
2006-XI-24*

X. JAGON JARDUNALDIAK

Aurkezpena

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Hona hemen, beste behin ere, Euskaltzaindiaren Sustapen Batzordeak jendaurrean jartzen dituen X. JAGON Jardunaldien testuak.

Izan ere, Jardunaldion gaia garrantzi eta pisu handikoa da, euskarak Europari begira izan dezakeen esparrua arakatu duelako Sustapen Batzordeak. Ikuspegi franko izan daitezke arakatzeko lan horretan; nolana ere, ikuspegiok egoki estekatzeko, ezinbestekoa da, nire ustez, batzorde honek aspalditik daraman jokabideari eustea.

Hartara, Euskal Herriaren lurralde desberdinetako araubideak azaldu dituzte batzordekideok, kolore askotako mosaikoa osatuz, euskarak berak bizi dituen egoera desberdinen erakusle. Horretan nabarmendu da, hur-hurreko eta begien bistako egiturez landara ere, badirela osterantzeko baldintzak, Europan, Espainian edota Frantzian, euskararen bizimodua sakon baldintzatzen dutenak.

Ezin ukatu, bestalde, euskararen parean diren hamaikatxo hizkuntza europarren egoera, behin betiko aurreratze- edo gibelatze-prozesu erabakigarrian sarturik daudenak. Esan gabe doa, berebat, baliabide berriak datozela horientzat (euskararentzat barne), oraingo estatuen gaineko Europar Batasun horretatik.

Horretan aritu dira Jardunaldiotan, zabal eta sakon, hainbat aditu. Hortxe izan dira irakasleak, legelariak, soziolinguistak, politikoak... Sustapen batzordekide sutsu eta gogotsuak. Horiekin batera, asmo sendoa dauka Euskaltzaindiak, datozen urteetan ere, gogoeta-mota horri ekiteko. Konbentzimendu osoa dauka, orobat, horrela jokatu, sortze-sortzetik dituen egitasmoetatik bat, hain zuzen ere, euskara sustatzea eta babestea, artez eta egoki betetzen duela.

EUROPAR BATASUNeko HIZKUNTZA ANIZTASUNA ETA EUSKARAREN HIZKUNTZA POLITIKAK

Sarrera

*Erramun Osa,
Sustapen Batzordeko idazkaria*

VI, VII, VIII eta IX. *Jagon* Jardunaldiek Euskal Herriko Elizbarrutietan euskarak bizi izan duen eta bizi duen egoerari buruzko hausnarketa-saioak burutzeko abagunea eskaini ziguten, euskarak elizan izan duen bilakaerari buruzko saiorik osatuena eta gaurkotuena eskainiz, bidenabar. Horiek horrela, *Jagon* Jardunaldietan aldian-aldian aurkeztutako txostenak *Euskera* Euskaltzaindiaren agerkari ofizialean argitaratu ziren. 2006. urtearen hondarrean, os-tera, aurkeztutako txosten guztiak argitalpen bakar batean bildu ziren (1). Aldi bat itxi zen, honenbestez.

X. *Jagon* Jardunaldietan, aldiz, hiru hausnarketa-gai jorratu nahi genituen, batez ere. Batetik, Europan bizirik dirauten hizkuntza aniztasuna zertan den, ikuspegi soziolinguistikoari, aitormen ofizialari, haien indarberritzea bultzatzeko hizkuntza politikei zein hiztun-elkartea osatzen duten hiztunen hizkuntza eskubideak onartzeari dagokienez. Bestetik, eraikitzen ari den Europan sortzen ari den corpus juridikoak euskara bezalako hizkuntzak Euskal Herri luze-zabalean indarberritzeko eskaintzen dituen aukerak aztertu nahi genituen. Azkenik, Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Erkidegoan eta Euskal Herri kontinentalean euskarak izan duen bilakaerari buruzko gogoetak eta egungo arronka nagusiak mintzagai izan nahi genituen. Halaber, gaiak jorratu ondoren, *Jagon* Jardunaldien amaiera gisa edo, ondorio nagusi batzuk aurreratzeko ahalegina ere egin nahi genuen.

Jagon Saileko Sustapen Batzordeko kideok egin dugun ahalegin horren emaitza duzu honakoa, beren-beregi atondu ditugun txosten hauen bitartez. Gure hizkuntza indarberritzeko xedez azken aldian egin dugun bilakaerari buruz, arronkei buruz, Europako testuinguruan izan ditzakegun aukerei buruz eta abar askotariko irakurleek gogoeta egin dezaten balio balezate, Batzordearen nahia, hein batez bederen, konpliturik legoke.

(1) «Eliza eta Euskara. *Jagon* Jardunaldietako txostenak», *Euskera*, 2004, 2, Euskaltzaindia.

HIZKUNTZA ANIZTASUNA EUROPAR BATASUNEAN

Patxi Juaristi

Aurkezpena

Lan honen helburua da Europar Batasuneko (EB) hizkuntzen egoeraren berri ematea. Hasteko, EBean dauden hizkuntzak eta bakoitzak dauzkan hiztunak aurkeztuko ditut. Europar Batasuneko hizkuntza aniztasunaren berezitasunak erakutsi ostean, hizkuntza aniztasuna kudeatzeko Batasunean dauden metodoak aztertuko ditut.

Lanean zehar erabiliko ditudan informazio eta datu gehienak Munduko Hizkuntzei buruzko txostenetik datoz. Txosten hau egiteko lanak 1998. urtean hasi ziren, eta 2003. urtean bukatu (1). 2005.ean argitaratu zen lan honek helburu garrantzitsu bi izan ditu: alde batetik, munduko hizkuntzek daukaten egoera eta arazoak azaltzea; eta, bestetik, desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzen egoera hobegotzeko beharrezkoak diren hizkuntza politikak, erabakiak eta pausoak zehaztea, hain zuzen ere, munduko gobernuai, nazioarteko erakundeai eta estatuei aholkuak emateko helburuarekin.

(1) Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostena da Eusko Jaurlaritzaren eta Unesco-ren artean 1997an sinatutako akordioaren ondorioz egin den ikerketa. Txosten honen helburua izan da munduko hizkuntzen egoera azaltzea, euren ezagutza, erabilera eta bilakaerari buruzko datuak emanez. Era berean, zonalde geografiko ezberdinetako errealitate soziolinguistikoen prospekzio azterketa burutu da, hizkuntzen dinamikan aldagai garrantzitsuak zeintzuk diren zehazteko. Hori guztia desagertzeko arriskuan edo gutxitutako egoeran dauden hizkuntzen sustapen eta berreskurapenerako politiken arloan hartu beharreko erabakiei buruzko zenbait irizpide emanez. Txostenean zortzi pertsona aritu gara lanean: Andoni Barreña, Itziar Idiazabal, Carme Junyent, Paul Ortega, Belen Uranga, Felix Martí, Esti Amorrortu eta ni neu. Era berean, bulego lana aurrera eramanez duten hiru pertsona egon dira lanaldi osorako kontratatuak. 1998 urtean hasi zen ikerketa hau eta 2005. urtean argitaratu da. Argitarapenaren erreferentzia da: Martí, F. Ortega, P., Barreña, A., Idiazabal, I., Juaristi, P., Junyent, C., Uranga, B. eta Amorrortu, E. (2005): *Words and Worlds*. *World Languages Review*. Multilingual Matters, Erresuma Batua.

Liburu honen euskarazko bertsioa da. Martí, F. Ortega, P., Barreña, A., Idiazabal, I., Juaristi, P., Junyent, C., Uranga, B. eta Amorrortu, E. (2005): *Hizkuntzen mundua*. Munduko Hizkuntzei Buruzko Txostena. UPV-EHU, Bilbao.

Liburu hau frantsesera ere itzuli da: Martí, F. Ortega, P., Barreña, A., Idiazabal, I., Juaristi, P., Junyent, C., Uranga, B. eta Amorrortu, E. (2006): *Un monde de paroles, Paroles du monde*. Etude sur les langues du monde. L'Harmattan, France.

Ikerketa honi buruz informazio gehiago lortzeko ikusi: www.amarauna-languages.com

Lan honen egileok erabili dugun informazioa galdeketa bidez jaso dugu, nagusiki. Alegia, ikerketa honen oinarria balizko informatzaile guztiei bidali zitzaizen galdeketa izan da.

Gehienetan, posta arruntaren bidez jaso dugu informazioa, baina ahal izan den kasuetan e-posta ere erabili dugu. Postaren metodoak ahalbidetu digu beste modu batera lortu ezingo genukeen informazioa lortzea. Alegia, postaren bidea erabiliz, gugandik oso urruti edo informazio bilketa saila duten hizkuntzen berri lortu ahal izan dugu. Gainera, kontuan izan behar da galdeketa posta bidez bidalita denbora ematen zaiela informatzaileei erantzunak pentsatzeko edota hizkuntzaren egoerari buruz informazio fidagarria bilatzeko.

Galdeketen bidez lortu dugun informazioaren osagarri, liburuen eta artikuluen araketa egin dugu. Besteak beste, adituen liburu eta lanak, munduko hizkuntzen atlasak, zenbait eremutako azterketa deskribatzaileak, era askotako komunitateen eta zonaldeen ikerketa soziolinguistikoak eta galtzeko zorian edo arriskuan dauden hizkuntzei buruzko ikerketak eta lanak arakatu ditugu.

Azkenik, munduko hizkuntzen gaia ondo ezagutzen duten ikerlari eta irakasle askorekin egon gara harremanetan biltzen ari ginen informazioa kontrastatzeko eta balioztatzeko. Zentzu honetan, gogoratzekoa da nazioarteko bost bilera antolatu genituela 1999. urtetik 2001era: Boliviako Cochabamban 1999an, Errusiar Federazioko Kalmykia Errepublikako kapitalean, hau da, Elistan, 1999an, Burkina Fasoko Ouagadougoun 1999an, Indiako Mysoren 2000n eta, azkenik, Australiako Melbournen 2001ean. Bilera horietan, Txostenaren helburuak eta galdeketa aurkeztu genituen, inguru horretako hizkuntzen egoera zuzenean ezagutu genuen eta, batez ere, han bildutako adituen laguntza zuzena eskatu.

I. HIZKUNTZAK ETA HIZTUNAK EBean


Zenbait kasutan hizkuntzen eta dialektoen arteko bereizketa zaila dela ahantzi gabe, gaur egungo hizkuntza bizien kopurua 5.000 eta 6.000 bitartekoa dela uste da, (Crystal 2000, Nettle 1999, Comrie, Matthews and Polinsky 1996, Wurm 2001, Grenoble and Whaley, 1998 and Hagege 2000, Hale 1992, Krauss 1992) (2).

Hala eta guztiz ere, hizkuntzak ez daude modu homogeenan banatuta munduan zehar. Guztira, munduan 6000 hizkuntza daudela onartzen badugu,

(2) Barbara Grimes-ek (2000) bere *Ethnologue* liburuan munduan 6.800 hizkuntza daudela aipatzen du, Bright-ek (1992) *International Encyclopedia of Linguistics* liburuan 6.300 hizkuntza, eta Moseley eta Asher-ek (1994) *Atlas of the world's languages* liburuan 6.796 hizkuntza.

munduko hizkuntzen %3 (200 hizkuntza) europarrak dira, hizkuntzen %32 (1.900 hizkuntza inguru) afrikarrak, %32 asiarrak (1.900 hizkuntza inguru), %15 amerikarrak (900 hizkuntza inguru) eta Ozeano Barean 1.100 hizkuntza hitz egiten dira, munduko hizkuntzen %18 (Crystal 2000, Nettle 1999, Comrie, Matthews and Polinsky 1996, Wurm 2001, Grenoble and Whaley 1998, Hagège 2000).

1. irudia: hizkuntzen banaketa kontinenteen arabera



1.1. EBeko hizkuntzak

Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Europar Batasunean? Ez da erraza galdera honi erantzutea. Hain zuzen ere, zaila delako zehaztea hizkuntza baten aldaera bat hizkuntza den ala dialektoa (3). Alegia, hizkuntza bat zer den erabakitzeko erabiltzen den irizpidearen arabera, Batasunean hizkuntza gehiago edo gutxiago daudela esan genezake.

Grimes-ek (2000), adibidez, Alemanian zazpi hizkuntza germaniar hitz egiten direla esaten du, baina beste ikerlari batzuek diote zazpi hizkuntza horiek alemanaren aldaerak direla. Zentzu honetan, askotan egiten den galdera da: luxenburgera, alsaziera, mochenoa, franciquea, walsera, zimbriera eta yidisha alemanaren dialektoak dira ala hizkuntza desberdinak dira?

(3) Hizkuntzaren eta aldaeraren arteko desberdintasunei dagokionez ikuspuntu ugari daude. Romaine-ren (1996) arabera, aldaera bat hizkuntza den ala ez hitzunerak erabaki behar dute, ez hizkuntzalariek. Alegia, hizkuntza eta aldaera zehaztea ez dagokio hizkuntzalaritzari, hain zuzen ere, hizkuntzen arteko bereizketa arazo soziala delako.

Antzerako galdera egin daiteke tsakonian izeneko dialektoari buruz. Greziera modernoaren dialektoa da ala berezitateko hizkuntza? (4)

Luxemburgeta, alemanarekin eta frantsesarekin batera, Luxenburgoko hizkuntza ofiziala bihurtu zen 1983. urtean, nahiz eta orain dela gutxi arte alemanaren dialekto gisa onartua zegoen.

Meänkieli eta Yiddish hizkuntzak finlandieraren eta alemanaren aldaerak direla esaten da, baina nolabaiteko babes ofiziala duten hizkuntza gisa onartu ditu Suediako gobernuak (5).

Ikusten den bezala, ez da erraza esatea zenbat hizkuntza hitz egiten diren Europar Batasunean; hain zuzen ere, zaila delako zehaztea hizkuntza baten aldaera bat hizkuntza den ala dialektoa. Gainera, hizkuntzalarien irizpideen aurka, arrazoi historikoak, politikoak eta sozialak daude askotan aldaera bat hizkuntza gisa hartzeko.

Lan honetan, luxemburgeta, meänkieli, rusynera edo Yiddish (6) bezala, nolabaiteko onarpen ofiziala duten hizkuntza edo dialektoak Batasuneko hizkuntza gisa hartuko ditut, eta albo batera utziko ditut, alsaziera, mochenoa, franciquea, walsera, zimbriera, tsakoniera edo vöroa (7) bezalako dialektoak, hain zuzen ere, inolako onarpen ofizialik ez dutelako.

Zenbait iturriren arabera, 125 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira, gaur egun, Europar Batasunean. Hauetariko asko azken urteotan izan diren migrazioen ondorio dira (Siguan, 1995). Frantzia, adibidez, Algeriako arabiera hitz egiten duten 600.000 hiztun daude, kabylea (Algeriako Bereber familiako hizkuntza) hitz egiten duten 500.000 hiztun, eta Tunisiako arabiera hitz egiten duten 200.000 hiztun (Martí et al, 2005). Londresen panjabia hitz egiten duten 143.000 hiztun, gujaratia hitz egiten duten 138.000 hiztun eta hindi/urdu hitz egiten duten 125.900 hiztun (Baker and Eversley, 2000). Migrazioen ondorio diren hizkuntza hauek guztiek babes, onarpen eta prestigio gutxi dute Batasunean.

(4) Glanville Price-k (2000) editatutako *The Encyclopedia of the Languages of Europe* liburuan zera esaten da: «Tsakonian is a dialect of Greek spoken in a number of villages in the SE Peloponnese between Mount Parnor and the Argolic Grief. Not being mutually intelligible with other dialects, it has sometimes been reckoned to be a distinct language. According to different sources there are 300 speakers of Tsakonian nowadays». Price, G. (2000): *Encyclopedia of the languages of Europe*. Blackwell Publishing, Oxford.

(5) 2000. urtean, Suediako gobernuak nolabaiteko babes ofiziala eman zien bost hizkuntzei: finlandiera, meänkieli, samiera, ijtoera eta yiddisha.

(6) Luxemburgeta hizkuntza ofiziala da Luxenburgon, meänkieli eta yiddish hizkuntzek nolabaiteko onarpen ofiziala dute Suedian eta rusynera Serbiako Vojvodina Elkarte Autonomoko hizkuntza ofiziala da.

(7) Vöro hizkuntza Estoniako hego-ekialdean hitz egiten da eta estonieraren dialektotzat jotzen da. Dena dela, literatura propioa dauka eta bere hiztunak Estoniako jatorrizko hizkuntza gisa onartua izateko presioa egiten ari zaizkio Estoniako gobernuari. Vöro hizkuntza asteen behin erakusten da Estoniako 26 eskoletan. Hilean bitan argitaratzen den kazeta bat ere badago: *Uma Leht*. [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\).](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005).)

Azken urteotan asko aldatu da EBeko populazioaren bilakaera eta osaketa. Etorकिन kopurua handituz joan da Batasunean, eta, ondorioz, 90. hamarkadaren hasieratik, etorkinak dira Batasuneko biztanleriaren hazkunderaren arrazoi garrantzitsuenak (8). Honek zera esan nahi du: hizkuntza asko daudelako Batasunean inolako onarpenik ez dutenak, nahiz eta hiztun ugari izan. Hau kontuan izanik, iruditzen zait beharrezkoa dela EBean bizi diren etorkinek hitz egiten dituzten hizkuntzei buruzko eztabaida edota gogoeta publikoa egitea. Hain zuzen ere, Batasunak etorkizunean izango duen erronketariko bat hori izango da: etorkinen hizkuntza eta kultur eskaerei behar bezalako erantzuna ematea.

2005eko irailean, Europako Batzordeak *A Common Agenda for Integration – Framework for the Integration of Third-Country Nationals in the European Union* komunikazioa onartu zuen. Komunikazio honetan aholkuak ematen zizkien estatu kideei etorkinen gaian aurrerapausoak eman ditzaten. Zehazki, etorkinak integratzeko estrategiak martxan jartzea aholkatzen zitzaizkien estatuei, eta horrekin batera, baita EBak martxan jarri dituen estrategiekin bat egitea ere. Dena dela, komunikazio honetan ez zen ezer esaten etorkinek hitz egiten dituzten hizkuntzei dagokionez hartu behar diren erabakiei edo martxan jarri behar diren estrategiei buruz.

Etorकिनек hitz egiten dituzten hizkuntzez gain, kontuan izan behar dugu Europar Batasuna osatzen duten Estatuon menpe dauden lurraldeetan hizkuntza ugari hitz egiten direla (Asiako, Afrikako eta Hego Ameriketako lurraldeak dira nagusiki). Adibidez, Bernard Cerquiglini-ren arabera (l'Institut national de la langue française-ko zuzendaria (C.N.R.S.), 75 hizkuntza hitz egiten dira Frantziar gobernuaren menpe dauden lurralde guztietan (9).

Etorकिन eta atzerriko lurraldeetako hizkuntzak alde batera uzten baditugu, EBean jatorria duten 60 hizkuntza hitz egiten dira EBean:

1. Albaniera (230.000) (10)
2. Alemana (84 milioi) (11)

(8) Europako Batzordea (2006): *EU integration seen through statistics. Key facts of 18 policy areas*. Eurostat, Luxenburgo, 11. orr. <http://ec.europa.eu/eurostat>.

(9) Cerquiglini, Bernard: LES LANGUES DE LA FRANCE http://www.culture.gouv.fr/culture/dglf/lang-reg/rapport_cerquiglini/langues-france.html#ancre276758

(10) Ethnologue-aren (Grimes, 2000) arabera, albanieraz hitz egiten duen 80.000 hiztun daude Italian (Italiako albanierari Arbëreshë deitzen zaio) eta 150.000 hiztun Grezian (Greziko albanierari Arvanitika deitzen zaio). www.ethnologue.com. Grimes, F. B. (2000): *Ethnologue. Languages of the World*. Summer Institute of Linguistics. Dallas.

Price-en arabera, albanieraz hitz egiten duten 100.000 hiztun daude Italian (Price, 2000).

(11) Europar Batasunean gehien hitz egiten den hizkuntza da. 75.3 milioi hiztun daude Alemanian, 7.5 milioi hiztun Austrian, 150.000 hiztun Belgikan, 50.000 hiztun Txekiar Errepublikan, 23.000 Danimarkan, 250.000 Hungarian, 225.000 Italian, 10.900 Luxenburgon eta 500.000 Polonian. www.ethnologue.com.

3. Aragoiera (10.000) (12)
4. Asturiera (450.000) (13)
5. Bielorrusiera (220.000) (14)
6. Bretoiera (369.000) (15)
7. Bulgariara (400.000) (16)
8. Daniera (5 milioi) (17)
9. Errumaniera (80.000) (18)
10. Errusiera (1.9 milioi) (19)
11. Estoniera (953.000) (20)
12. Eskoziako gaelikoa (67.000) (21)
13. Eslovakiera (5.5 milioi) (22)

(12) Aragoiera Huescako lau herriren inguruan hitz egiten da: Ansó, Ayerbe, Fonz eta Benasque. [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)).

(13) [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)). Asturiak 1.083.576 biztanle dauka. *II Estudio Sociolingüístico de Asturias 2002* liburuaren arabera, Asturiasko biztanleriaren %7,6a asturiera ulertzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko gai da.; %14,6ak asturiera ulertzen du, hitz egiten du eta irakurri egiten du; %26,8ak hizkuntza ulertu eta hitz egiten du; eta %33,4ak bakarrik ulertu egiten du. Llera, F. and San Martín, P. (2003): *II Estudio sociolingüístico de Asturias 2002*. Academia de la Llingua Asturiana, Uviéu, 2003, 132. orr.

(14) Orotara, bielorrusieraz hitz egiten duten 8 milioi hiztun daude European. Ethnologue-n arabera, bielorrusiera hitz egiten duten 220.000 hiztun daude Polonian. www.ethnologue.com.

(15) [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)). Broudic-en arabera, bretoieraz hitz egiteko gai direnen kopurua asko jaitsi da azken 100 urteotan: XX. Mendearen hasieran 1.5 milioi pertsonak hitz egiten zuten Bretoiera; 1950. urtean, 1,2 milioi ziren hiztunak; gaur egun, 250.000 hiztun daude. Broudic, F. (1999): «L'évolution des bilingues bretonnants au XXe siècle», in *Klask*, 5. Rennes, Université de Rennes.

(16) 30.000 hiztunek hitz egiten dute Grezian (Greziaiko bulgariarari Pomak deitzen zaio). Bulgariara Hungarian ere hitz egiten da. [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005))

(17) Daniera Danimarkan hitz egiten da. Alemanian danieraz hitz egiten duten 21.000 hiztun daude eta Groelandian 8.000 hiztun. [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)).

(18) Nahiz eta itxura guztian arabera 2007. urtean Errumania Batasunean sartuko den, gaur gaurkoz Errumaniera Batasuneko estatu batean hitz egiten da bakarrik: Hungarian. [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)).

(19) www.ethnologue.com. Errusieraz hitz egiten duten elkarteak bizi dira Estonian (474.834 hiztun), Letonian, (861.600 hiztun) eta Lituanian (562.000 hiztun). Are gehiago, Errusiar Federazioaren inguruko estatuetan errusiera da gehien hedatua dagoen atzerriko hizkuntza. Polonian, adibidez, biztanleriaren %28ak hitz egiten du errusieraz, Eslovakian %30ak eta Txekiar Errepublikan %21ak. Eurobarometroa, 50. txostena. www.europa.eu.int

(20) Ethnologue-en arabera, finlandieraz hitz egiten duten 6.000 hiztun daude Estonian. Letonian ere badaude estonieraz hitz egiten duten hizkuntza komunitateak. www.ethnologue.com.

(21) 1891. urtean Eskoziako gaelikoa hitz egiten zuten 254.415 hiztun zeuden (Birch: 1989, 77). 1991. urteko erroldaren arabera 69.510 hiztun ziren. 1999. urteko erroldaren arabera, Eskoziako gaelikoa hitz egiten duten 67.000 hiztun dira. Eskoziak 5.500.000 biztanle inguru dauzkala kontuan hartzen badugu, ateratzen dugun ondorioa da Eskoziako biztanleen %1,21ak hitz egiten duela bakarrik hizkuntza hau. Eskoziako gaelikoak onarpen ofiziala dauka eta, beraz, dirulaguntzak jazozen ditu gobernutik, baina ez dauka ofizialtasunik. [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)).

(22) Eslovakiera Eslovakian (4,9 milioi hiztun), Hungarian (11.000 hiztun) eta Serbian (80.000 hiztun) hitz egiten da, baita Ukrainian, Polonian, Txekiar Errepublikan, Kroazian eta Errumanian. [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)).

14. Esloveniera (2 milioi) (23)
15. Euskara (750.000) (24)
16. Faroeera (45.000) (25)
17. Finlandiera (4.7 milioi) (26)
18. Franco-Provenzera (60.000) (27)
19. Frantsesa (55 milioi) (28)
20. Frisiera (362.000) (29)
21. Friuliera (600.000) (30)
22. Galesa (500.000) (31)
23. Galiziera (2.3 milioi) (32)
24. Gaztelera (43 milioi) (33)
25. Greziera (10.5 milioi) (34)
26. Hungariera (12 milioi) (35)

(23) Eslovenian ez ezik, eslovenieraz hitz egiten duten elkarreak daude Austrian (30.000 hitzun) eta Italian (100.000 hitzun). www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)

(24) Aztiker (2002): *Euskal Herria Datuen Talaiatik*. Udalbiltza, Astigarraga eta Eusko Jaurlaritza (2005): *III. Mapa Soziolinguistikoa*. Eusko Jaurlaritza, Vitoria-Gasteiz.

(25) Daniera eta faroeera hizkuntza koofizialak dira Faroe Iretan. Faroe Irlak Danimarkakok dira, baina autogobernu nahiko zabala dute. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005).

(26) Finlandieraz hitz egiten duten 200.000 hitzun daude Suedian. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005).

(27) Franco-Provençala Suitzan, Frantzia eta Italian hitz egiten da. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005).

(28) Ethnologue-n arabera, frantsesa dakiten 51 milioi hitzun daude Frantzia, 4 milioi Belgikan, 100.000 hitzun Italian eta 13.100 hitzun Luxenburgon. www.ethnologue.com. Crystal-en (1997) arabera, frantsesa ofiziala edo koofiziala da munduko 30 estatutan.

(29) Herbeheretan (350.000) eta Alemanian (12.000) hitz egiten da. Herbeheretan, Frisieraz hitz egiten duten hitzun gehienak Fryslân izeneko probintzia bizi dira, Herbeheretako iparraldean. Alemanian, 2000 hitzun daude Lower Saxony-ko Saterland erregioan. Alemaniako Nordfriesland erregioko Schleswig-Holstein probintzian frisieraz hitz egiten duten 10.000 hitzun daude. Fishman-ek (1991) salatu duenez, Herbeheretan frisiera arrisku larrian dago, batez ere hiriguneetan (Juaristi et. al, 2005, pp. 70).

Alemanian, hitzun kopurua asko gutxitu da, eta gero eta gehiago dira frisiera albo batera utzi eta alemanez hitz egiteko joera dutenak. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005).

(30) Italian hitz egiten da, baita Austriako eta Sloveniako zenbait herritan ere. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)

(31) Galesek 2.5 milioi biztanle dauzka. Galeseko biztanleriaren %20ak dio gai dela galeseraz hitz egiteko. Hauetatik, %69a hitz egiteko, irakurtzeko eta idazteko gai da, %17a bakarrik hitz egiteko gai da, eta gelditzen direnak hitz egiteko eta irakurtzeko gai dira edo hitz egiteko eta idazteko gai edo soilik idazteko eta irakurtzeko gai. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005).

(32) Galiziera Galizian hitz egiten da nagusiki, baina baita Asturiasko, Leoneko eta Zamarako zenbait herritan ere. Portugaleko iparraldeko zenbait herritan ere hitz egiten da. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005).

(33) Crystal-en (1997) arabera, gaztelera ofiziala edo koofiziala da munduko 20 estatutan.

(34) Orotara, grezieraz hitz egiten duten 9.9 milioi hitzun daude Grezian, 578.000 hitzun Zipren eta 20.000 hitzun Italian. www.ethnologue.com.

(35) Hungarierak 10.450.000 hitzun dauzka Hungarian, 15.000 Austrian, 765.000 Slovakian eta 10.000 Slovenian (Price, 2000).

27. Ijitoera (1.5 milioi) (36)
28. Irlandera (1.2 milioi) (37)
29. Italiara (55 milioi) (38)
30. Ingelesa (55 milioi) (39)
31. Katalana (7 milioi) (40)
32. Kroaziera (140.000) (41)
33. Korsikera (200.000) (42)
34. Kashubiera (200.000) (43)
35. Kareliera (10.000) (44)
36. Ladinera (40.000) (45)
37. Letoniera (1.8 milioi) (46)

(36) www.amarauna-languages.com. Ijito elkarte handienak Hungarian, Mazedonian eta Errumanian bizi dira. Talde txikiagoetan Europako ekialdean zein mendebaldean ere bizi dira. Hala eta guztiz ere, ijitoerak ez dauka onarpen ofiziala Europar Batasunean. Zentzu honetan, desagertzeko arriskuan dagoen hizkuntza da (Juaristi, et al, 2005:70).

Hagège-en (2000) arabera, era askotako genozidioengatik ijitoera hitz egiten duten hiztun asko desagertu dira.

Liégeois-en (1992) arabera, estatuek bultzatu dituzten politikek ijitoen kultura, hizkuntza eta identitatea ukatu dituzte. Liégeois, J.P. (1992): «Les Tsiganes: situation d'une minorité non territoriale» in Giordan H. (editor) : *Les Minorités en Europe. Droits Linguistiques et droits de l'homme*. Paris, Kimé.

(37) Irlandera Irlandan hitz egiten da. Irlandako konstituzioak bi hizkuntza onartzen ditu: Irlandera eta ingelesa. Hala eta guztiz ere, irlandera oso jende gutxi hitz egiten du. Grut, M. (2004): «The Endangered Celtic Languages: A wake-up Call», in Argenter and Mckenna Brown (edit.): *Endangered Languages and linguistic rights. On the margins of nations*. Barcelona: FEL, 223.

(38) Italiako hizkuntza ofiziala da. Gainera, italieraz hitz egiten duten 4.000 hiztun daude Eslovenian. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005).

(39) Crystal-en (1997) arabera, ingelesa ofiziala edo koofiziala da munduko 70 estatutan. Crystal, D. (1997): *Ingelesa as a Global Language*. Cambridge University Press, Cambridge.

(40) 49.000 hiztunek hitz egiten dute Andorran, 6.3 milioik Catalunyan, 203.000 hiztunek Frantzia eta 20.000 hiztunek Italian. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005).

(41) Ethnologue-aren arabera, kroazieraz hitz egiten duten 103.000 hiztun daude Austrian, 32.132 Hungarian eta 3.500 Italian. Eslovakian ere hitz egiten da kroazieraz. www.ethnologue.com

(42) Korsikan (Frantzia) hitz egiten da. Dena dela, Korsikako hizkuntza ofiziala Frantsesa da. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005). *UNESCO Red Book on Endangered Languages: Europe* liburuaren arabera, korsikera desagertzeko zorian dago. Salminen, T. (2005): *UNESCO Red Book on Endangered Languages: Europe*.

(43) www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005). Kashubiera Polonian hitz egiten da. Price-ren (2000) arabera, Kashubieraz hitz egiten duten 150.000 hiztun daude. Moskal, M. (2004): «Language Policy and protection of Endangered Languages in Poland». Argenter, J.A. and Mckenna Brown, R. (arg.): *Endangered languages and linguistic rights. On the margins of nations*. FEL, Barcelona.

(44) Kareliera Finlandian hitz egiten da. Kalerieraz hitz egiten duten 172.000 hiztun daude Errusiar Federazioan. www.ethnologue.com

(45) Italiako Bolzano, Trento eta Belluno probintzietan hitz egiten da. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005).

(46) 1.6 milioi hiztun daude Letonian. Bestalde, 200.000 hiztun gehiago daude Estonian, Errusian, Bielorrusian eta Lituania. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005).

38. Lituaniara (2.9 milioi) (47)
39. Luxenburgera (442.000) (48)
40. Mazedoniera (10.000) (49)
41. Maltera (370.000) (50)
42. Meänkieli (30.000-70.000) (51)
43. Mirandera (10.000) (52)
44. Nederlandera (21 milioi) (53)
45. Okzitaniera (1.5 milioi) (54)
46. Poloniera (39 milioi) (55)
47. Portugesa (10 milioi) (56)
48. Rusynera (50.000) (57)
49. Samia (30.000) (58)

(47) [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)). Lituaniara Lituaniako hizkuntza ofiziala da 1922. urtetik.

(48) [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)). Hizkuntzalariek Luxenburgera alemanaren aldaera zela esaten zuten, baina 1983. urtean, Luxenburgera, frantsesarekin eta alemanarekin batera, Luxenburogo hizkuntza ofiziala bihurtu zen. Ordunik luxenburgera hizkuntzat hartzen da nazioarte mailan.

(49) Mazedonieraz hitz egiten duten 10.000 hiztun daude Grezian. Mazedoniera Mazedoniako Errepublikan ere hitz egiten da (1.4 milioi hiztun), baita Albanian (15.000 hiztun) eta Bulgarian (180.000 hiztun). [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)).

(50) [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)). Maltera Maltan hitz egiten da. Maltako konstituzioaren arabera, maltera eta ingelesa dira maltako hizkuntza ofizialak. Maltera Europar Batasuneko hizkuntza ofiziala ere bada.

(51) Meänkielia Suediako iparraldeko herrietan, Finlandiako mugan hitz egiten da, nagusiki Norrbotten eskualdean, Torne ibaiaren inguruan. Ikuspuntu linguistikotik meänkielia finlandieraren aldaera bat da, baina arrazoi historikoengatik gutxitutako hizkuntza estatusa dauka. 2002ko apirilaren lein Suediako gobernuak onartu zuen samiera, yidish, ijitoera eta finlandierarekin batera, meänkielia Suediako gutxitutako hizkuntza zela. [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)).

(52) Mirandesera Portugalen hitz egiten da, Espainiako mugatik oso hurbil. Zehazki, Miranda do Douren eta inguruko herrietan hitz egiten da (Price, 2000). Batzuentzat antzinako leoneraren aldaera den arren, beste batzuentzat *portugesa* eta leoneraren arteko hizkuntza beregaina da (Siguán, 1995).

(53) Nederlandera Holandan hitz egiten da, baita Belgikan ere. [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)).

(54) Okzitaniera Espainiako iparraldean hitz egiten da (Val d'Aran), eta baita Italia eta Frantzia ere. Gutxi gora-behera okzitanieraz hitz egiten duten 5.000 hiztun daude Espainian. [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)).

(55) Polonian, Alemanian (240.000 hiztun) eta Eslovakian (50.000 hiztun) hitz egiten da. www.ethnologue.com

(56) www.ethnologue.com. Crystal-en (1997) arabera, portugesa ofiziala edo koofiziala da munduko 6 estatutan.

(57) Rusyn hizkuntza Eslovakian hitz egiten da, zehazki Preshow eskualdean. Ukrainian, Serbiako ipar-mendebaldean (hizkuntza ofiziala da Serbiako Vojvodina probintzia autonomoan) eta Kroaziako ekialdean ere hitz egiten da. Batzuen ustez, Rusyn hizkuntza ukrainieraren aldaera bat da, baina hiztunek diote ukrainiarrengandik desberdinak direla eta hizkuntza desberdina hitz egiten dutela. [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)).

(58) [www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al \(2005\)](http://www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005)). Samierahiztunak Norwegia, Suedia, Finlandia eta Errusiar Federazioan bizi dira. Helander, E. (1994): *The SamieraPeople*:

50. Sardiniera (1.6 milioi) (59)
51. Sorbiera (30.000) (60)
52. Suediera (8 milioi) (61)
53. Tataroa (1.229) (62)
54. Turkoa (205.000) (63)
55. Txekiera (10 milioi) (64)
56. Ukraniera (250.000) (65)
57. Yiddish (66)

Ia desagertuta dauden beste hiru hizkuntza gehitu behar zaizkio zerrenda honi (67):

Demographics, origin, economy, culture. The World Commission on Culture and Development: Majority-Minority Relations. The case of the Samierain Scandinavia. Diedut, number 1.

(59) Sardiniera Italiako Sardinia irlan hitz egiten da (Price, 2000). Sardiniera hizkuntza ko-ofiziala da Sardiniako Erregio Autonomoan.

(60) www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005). Sorbiera Alemanian hitz egiten da.

(61) 7.8 milioi hitzun daude Suedian eta 300.000 hitzun Finlandian. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005). Gogoan hartzekoa da Finlandian bizi diren suediar hitzunik (Finlandiako biztanleriaren %5) suediera erabiltzeko eskubidea dutela administrazioarekiko harremanetan. Are gehiago, 1970. urtean egin zen hezkuntza erreformaren ondoren, suediera eta finlandiera biak erakusten dira Finlandiako eskoletan.

(62) Tatarerak 1870. urtetik bizi dira Estonian. 1989. urtean, 4.058 tataro bizi ziren Estonian, 3.315 ziren 1997.ean eta 2000. urtean 2.582. Hauetatik, 1.229 ziren (47.6%) tatarera ama hizkuntza gisa zutenak, 1.295-en ama hizkuntza errusiera zen eta 51rentzat Estoniera. Nahiz eta tatarera irakasten duten elkarteak dituzten, hizkuntza hau desagertzeko arriskuan dago Europar Batasunean. http://europa.eu.int/comm/education/policies/lang/languages/langmin/euromosaic/et2_en.html#11

(63) www.ethnologue.com. Europar Batasunean Zipren (177.000 hitzun) eta Grezian hitz egiten da (128.380 hitzun).

(64) Txekiar Errepublikan hitz egiten da. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005). Txekiera eta eslovakiera hurbileko hizkuntzak dira, baita txekiera eta poloniera ere. Txekiarrek eta esloveniarrak oso ondo elkar ulertzen dute.

(65) Polonian hitz egiten da, Poloniako eta Ukrainiako mugan. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005).

(66) Ethnologue-n arabera, 2005. urtean Ekialdeko Yiddish hitz egiteko gai ziren 3 milioi hitzun zeuden. Mendebaldeko yiddishak 50.000 hitzun zituen 2000. urtean. Yiddisheraz hitz egiten duten elkarteak daude Europako ekialdeko estatuetan (Estonia Lituania, Hungaria, Polonia, Txekiar Errepublika ...). Bestalde, 2000. urtean Suediak Yiddish hizkuntza onartu zuen estatuko gutxitutako hizkuntza gisa.

(67) Manx-eko gaelikoa ez dugu zerrenda honetan sartu. Izan ere, Man irla ez delako Batasuneko estatu kidea. Nahiz eta kanpo politikari loturiko arazoak zein defentsa kontuak Erresuma Batuak eramaten dituen eta Erresuma Batuko Koroaren menpe dagoen, Man irla askea da. Erroldaren arabera, 1901. urtean biztanleriaren %9.1ak zioen Manx-eko gaelikoz hitz egiteko gai zela; 1921. urtean, biztanleriaren %1,1ak zioen hizkuntza honetan hitz egiteko gai zela. XX. mendean erdialdean hiruzpalau pertsonen zioten hizkuntza honetan hitz egiteko gai direla eta 1974. urtean hil zen jatorrizko azken hitzuna. Hala eta guztiz ere, gero eta gehiago dira hizkuntza hau ikasten ari direnak eta hizkuntza honen alde lanean ari direnak. 1991. urteko erroldan 1.689 pertsonen zioten (Manx irlak 71.000 biztanle dauzka) Manx-eko gaelikoaren nolabaiteko ezagutza zutela. Nettle eta Romain (2000): *Vanishing Voices. The extinction of the world's languages*. Oxford University Press, Oxford.

- 58. Korniera (200) (68)
- 59. Karaimera (400) (69)
- 60. Livoniera (10) (70)

Europar Batasunean 60 hizkuntza daudela kontuan izanik, aipatzekoa da eremu geopolitiko honetan munduko hizkuntzen %1 hitz egiten dela. Zentzu honetan, argi dago EBetik kanpo dagoela munduko hizkuntzen ondarearen parte garrantzitsuena. Are gehiago, kontuan izan behar dugu EBean munduko biztanleen %7 bizi dela, baina munduko hizkuntzen %1 hitz egiten dela bertan (71).

Zergatik gertatzen da hau? Zergatik dago Batasunean munduko beste zonalde batzuetan baino hizkuntza gutxiago? Argi dago hizkuntza aniztasuna galtzen ari dela munduan (Wurm 1996, 2001, Comrie, Matthews eta Polinsky 1996, Junyent 1999, Nettle 1999, Moreno Cabrera 2000, Crystal 2000, Hagège 2000). Munduko beste zonalde askotan bezala, Europar Batasunean ere arrazoi historikoak, ekonomikoak, politikoak eta kulturalak daude hizkuntza aniztasunaren galeran. Dena dela, arrazoi garrantzitsuena, nire ustez, zera da: EB osatzen duten 25 estatuetako gobernu gehienek gutxitutako hizkuntzak baztertu egin dituztela eta asimilazio politika erasokorrek bultzatu dituztela (Martí et al, 2005).

2005eko ekainean, EBko Kontseiluak europar erakundeetara beste zenbait hizkuntzatan zuzentzeko aukera ematea onartu zuen, honako hiru eremutan onartu ere:

- Europar Legebiltzarrak eta Kontseiluak koerabakitzeko prozeduraren bidez hartutako disposizioen xedapenak argitaratzea.
- Ahozko parte-hartzeak Kontseiluaren saiioetan eta, hala dagokionean, EBren beste zenbait erakunde eta organotan.
- Hiritarren idatzizko komunikazioak Batasuneko erakunde eta organoekin.

(68) Erresuma Batuko Cornwall County-n hitz egiten da. Gutxi gorabehera 2.000 pertsonak ulertzen dute hizkuntza eta zenbait kasutan arazoekin bada ere, gai dira hitz egiteko. 200 pertsonak oso ondo hizkuntzen eta hitz egiten dute hizkuntza. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005).

(69) Guztira, 2.600 pertsonak hitz egiten dute hizkuntza hau: 291 pertsona Lituaniar, 680 Errusiar, 1.400 Krimean (Ukrainia), 100 baino gutxiago Poloniar, 100 baino gutxiago Turkian, eta ehundaka batzuk Israelen. www.amarauna-languages.com/Juaristi, et al (2005). Nathan Schuren (Frankfurt, 1995) *The Karaites Encyclopaedia*-n irakurri daitekeen bezala: M. El-Kodsi-k 280 karaita aurkitu zituen Lithuania 1991. urtean: 150 Vilna-n, 50 Panevezys-en eta 80 Troki-n. Poloniar M. El-Kodsi-k 150 karaita aurkitu zituen 1991. urtean: Warsaw-n, Gdansk-n eta Varcelo-va-n 50 bakoitzean eta 4 Pele-n.

(70) Letonian hitz egiten da. Hiruzpalau hiztun gelditzen dira gaur egun, beraz, ia desagertuzat jotzen da. com/Juaristi, et al (2005).

(71) Europako Batzordea (2006): *EU integration seen through statistics. Key facts of 18 policy areas*. Eurostat.

Erabaki hau aurrerapauso garrantzitsua izan zen gutxitutako hizkuntzentzako. Hala eta guztiz ere, Europar Batasuna osatzen duten estatu gehien orain arteko joera izan da estatu osorako hizkuntza ofizial bakarra sustatzea. Beraz, izugarrizko ahaleginak egin dituzte ofizialtzat aukeratu duten hizkuntza hedatzeko, batzeko eta prestigioa emateko; eta horrek ekarri du estatuetan erabiltzen diren edo ziren beste hizkuntza eta aldaerak alboratzea, estandarizatzea, prestigiorik gabe uztea edo desagerraraztea (72). Ondorioz, munduko beste zonalde batzuetan baino hizkuntza gutxiago dago Batasunean. Paradoxikoki, munduko beste zonalde batzuetan baino hizkuntza handi gehiago dago EBean. Hain zuzen ere, hamar milioi hiztun baino gehiago dituzten munduko hizkuntzak 70 direla kontuan hartzen badugu, hauetako 11 (munduko hizkuntza handi guztien %16) ofizialak dira Batasun Europarrean.

1. Alemana (84 milioi)
2. Gaztelera (43 milioi)
3. Frantsesa (55 milioi)
4. Greziera (10.5 milioi)
5. Hungariera (12 milioi)
6. Ingelesa (55 milioi)
7. Italiera (55 Milioi)
8. Niderlandera (21 milioi)
9. Poloniera (39 milioi)
10. Portugesa (10 milioi)
11. Txekiera (10.3 milioi)

Laburbilduz, Europar Batasunean munduko biztanleen %7 bizi da, munduko hizkuntzen %1 hitz egiten da bertan eta munduko beste zonalde batzuetan baino hizkuntza handi gehiago dago, hain zuzen ere, hamar milioi hiztun baino gehiago dituzten munduko hizkuntzen %16 ofizialak dira Europar Batasunean.

1.2. EBeko hizkuntzen hiztun kopurua

Aipatu ditudan 60 hizkuntzak hiztun kopuruaren arabera sailkatu daitezke. Zehazki, EBean jatorria duten hizkuntza hauek guztiak hiru taldetan banatu daitezke:

Lehen taldean daude 10 milioi hiztun baino gehiago dauzkaten hizkuntzak. Talde hau osatzen duten 11 hizkuntzek 395 milioi hiztun daukate guz-

(72) Krauss-en (1992) arabera, munduko hizkuntzen %30ak hizkuntza-transmisioa guztiz eten dute. Ondorioz, 1.800 hizkuntza inguru desagertu egingo dira hurrengo 25-50 urteetan.

tira. Honek zera esan nahi du: EBeko biztanleriaren %85ak EBeko hizkuntzen %18a hitz egiten duela (73). Talde honetan dauden 11 hizkuntzak dira:

1. Alemana (84 milioi)
2. Frantsesa (55 milioi)
3. Gaztelera (43 milioi)
4. Greziera (10.5 milioi)
5. Hungariera (12 milioi)
6. Ingelesa (55 milioi)
7. Italiara (55 Milioi)
8. Nederlandera (21 milioi)
9. Poloniera (39 milioi)
10. Portugesa (10 milioi)
11. Txekiera (10.3 milioi)

Nahiz eta jakin, dakigun, hizkuntzen bizi-indarra eta etorkizuna ez dagoela hiztun kopuruaren menpe, argi dago talde honetan dauden hizkuntza denek egoera soziolinguistikoa ona dutela. Are gehiago, 11 hizkuntza hauek ofizialak dira, ez bakarrik EBeko 11 estatutan, baita Europar Batasuneko erakundeetan ere, eta eurentariko batzuk, gainera, munduan gehien hitz egiten diren hizkuntzen artean daude. Kontuan izan ingelesa, frantsesa, portugesa eta gaztelera munduan hedapen handienetarikoa duten hizkuntzak direla (74).

Bigarren taldean sartu ditut milioi bat eta 10 milioi hiztun dauzkaten hizkuntzak. Guztira, 15 hizkuntza daude talde honetan; hain zuzen ere, EBeko hizkuntzen %25:

1. Daniera (5 milioi)
2. Ijitoera (1.5 milioi)
3. Errusiera (1.9 milioi)
4. Eslovakiera (5.5 milioi)
5. Esloveniera (2 milioi)
6. Estoniera (953.000)
7. Finlandiera (4.7 milioi)
8. Galiziera (2.3 milioi)
9. Irlandera (1.2 milioi)
10. Katalana (7 milioi)

(73) 2004. urtean EBak 460 milioi biztanle zituen. Europako Batzordea (2006): *EU integration seen through statistics. Key facts of 18 policy areas*.

(74) Ingelesa, gaztelera, frantsesa eta portugesa hizkuntza ofizialak dira Amerikan zein Afrikan, eta baita Asiako eta Ozeano Bareko estatu askotan ere. Ethnologuaren arabera, munduan 72 milioi hitz egiten dute Frantsesez, 266 milioi espainieraz, 322 milioi ingelesez, eta 170 milioi portugesez.

Crystal-en (1997) arabera, ingelesa hizkuntza ofiziala edo koofiziala da munduko 70 estatutan, frantsesa 30 estatutan, Portugesa 6 estatutan eta gaztelera 20 estatutan. Crystal, D. (1997): *Ingelesa as a Global Language*. Cambridge University Press, Cambridge.

11. Letoniera (1.8 milioi)
12. Lituania (2.9 milioi)
13. Okzitaniera (1.5 milioi)
14. Sardiniera (1.6 milioi)
15. Suediera (8 milioi)

Bigarren talde honetako hizkuntza gehienek ez dute lehen taldekoek duten hiztun kopurua, ezta hedakuntza ere. Dena dela, talde honetako hizkuntza gehienak ofizialak dira bai hitz egiten diren estatuetan eta bai Europar Batasunean.

Hala eta guztiz ere, talde honetan daude milioi bat hiztun baino gehiago izanik, gutxitutako egoeran dauden hizkuntzak, edo inolako onarpen edota babesik ez dutenak. Egoera horretan leudeke: ijitoera, okzitaniera, katalana, irlandera edo galiziera.

Nahiz eta errusiera bigarren talde honetan sartu dudana, kontuan izan behar da, oro har, errusierak hiztun asko dituela Batasunean. Adibidez, Errusiako mugan bizi diren Estoniako biztanle askoren ama hizkuntza da errusiera; Letoniako biztanleriaren %29 errusiar jatorrikoa da, baita Lituaniako biztanleriaren %6 ere. Are gehiago, Errusiaren inguruan dauden Batasuneko estatuetan errusiera da gehien hitz egiten den atzerriko hizkuntza. Adibidez, Lituaniako biztanleriaren %83ak hitz egiten du errusieraz; Letonian biztanleriaren %59ak, Estonian %53ak, Polonian %28ak, Eslovakian %30ak eta Txekiar Errepublikan %21ak (75).

Hirugarren taldean sailkatu ditut milioi bat hiztun baino gutxiago dauzkatena hizkuntzak. Talde honetan 34 hizkuntza daude, EBeko hizkuntzen %57:

1. Albaniera (230.000)
2. Aragoiera (10.000)
3. Asturiera (450.000)
4. Bielorrusiera (220.000)
5. Bretoiera (369.000)
6. Bulgariera (400.000)
7. Eskoziako gaelikoa (67.000)
8. Euskara (750.000)
9. Faroera (45.000)
10. Franco-provenzera (60.000)
11. Frisiera (362.000)
12. Friuliera (600.000)
13. Galesera (500.000)
14. Ijitoera (80.000)
15. Kashubiera (200.000)

16. Kareliera (10.000)
17. Kroaziera (140.000)
18. Korsikera (200.000)
19. Ladinera (40.000)
20. Luxenburgera (442.000)
21. Mazedoniera (10.000)
22. Maltera (370.000)
23. Meänkieli (30.000-70.000)
24. Mirandesera (10.000)
25. Rusyn (50.000)
26. Samiera (30.000)
27. Sorbiera (30.000)
28. Tatarera (1.229)
29. Turkiera (205.000)
30. Ukrainera (250.000)
31. Yiddish

Talde honetan daude hauek ere:

32. Kornishera (200)
33. Karaimera (400)
34. Livoniera (10)

Zerrenda honetan bi hizkuntza daude (maltera eta luxenburgera) ofizialak direnak EBeko bi estatutan (Maltan eta Luxenburgon), eta zortzi hizkuntza ofizialak direnak EBtik kanpoko estatuetan (Albanian, Bielorrussian Bulgarian, Kroazian, Errumanian, Tatarstanen, Turkian eta Ukrainian (76)). Gelditzen diren beste 24 hizkuntzak gutxitutako hizkuntzat hartu ditzakegu; alegia, hitz egiten diren estatuetakoko gutxiengo batek hitz egiten ditu. Zentzu honetan, azpimarratzekoa da Batasuneko populazioaren %0,8ak gutxitutako hizkuntza bat hitz egiten duela. Hau da, 4 milioi europarek gutxitutako hizkuntza bat hitz egiten dute.

Bi talde bereiz ditzakegu 24 hizkuntza hauen artean:

Alde batetik, 13 hizkuntza koofizialak dira edo nolabaiteko onarpen edo babes ofiziala dute:

1. Euskara (750.000)
2. Eskoziako gaelikoa (67.000)
3. Galesera (500.000)
4. Faroeera (45.000)

(76) Kontuan hartzeko da Bulgaria eta Errumania 2007. urteko urtarrilaren lein sartuko direla Batasunean eta Kroaziak eta Turkiak Batasunean sartzeko negoziazioak hasi zituztela 2005ean. Honek esan nahi du etorkizunean bulgariara eta errumaniera, eta, agian, baita kroaziera eta turkoa ere, Batasuneko hizkuntza ofizialak izango direla.

5. Franco-Provenzera (70.000)
6. Frisiera (362.000)
7. Friuliera (600.000)
8. Ladinera (27.500)
9. Meänkieli (30.000-70.000)
10. Mirandesera (10.000)
11. Samiera(30.000)
12. Sorbiera (30.000)
13. Yiddish

Bestalde, gelditzen diren 11 hizkuntzak desagertzeko arrisku gehien duten hizkuntzak dira, hain zuzen ere, inolako onarpen ofizialik ez dutelako. EBean egoera larrietan dauden hizkuntzak dira:

14. Aragoiera (10.000)
15. Asturiera (450.000)
16. Bretoiera (369.000)
17. Korsikera (200.000)
18. Kashubiera (200.000)
19. Kareliera (10.000)
20. Rusynera (50.000)
21. Kornisha (200)
22. Karaimera (400)
23. Tatarera (229)
34. Livoniera (10)

Nettle-k (1999) esaten du 10.000 hitzun baino gutxiago duten hizkuntzak desagertzeko arriskuan daudela. EBean, 3 hizkuntza daude 10.000 hitzun inguru dauzkatena –aragoiera, kareliera and mirandesera– eta lau 10,000 hitzun baino gutxiago dauzkatena –kornisha (200), karaimera (400), tatarera (1,229) eta livoniera (10). Nettle-ren teoriei jarraitzen badiegu, zazpi hizkuntza hauek desagertzeko arrisku handia dute.

1.3. Hizkuntzak eta hitzunak: ondorio batzuk

Nahiz eta munduko beste zonalde batzuetan baino jatorrizko hizkuntzak gutxiago hitz egiten diren, uka ezina da EB elkarte anitza dela. Hain zuzen ere, eremu geopolitiko honetan 60 hizkuntza hitz egiten dira (munduko hizkuntzen %1. Europa osoan 200 hizkuntza hitz egiten direla kontuan hartzen badugu, Europako hizkuntzen %30 hitz egiten da Batasunean).

EBeko hizkuntza guztiek ez dute egoera bera. Hizkuntza gutxi batzuk he-dapen oso handia dute eta hizkuntza gehienek oso hitzun gutxi dituzte. Hau da, biztanleriaren %85ak –395 milioi biztanle– EBeko hizkuntza guztien %18 hitz egiten du. Bestalde, EBeko populazioaren %0,8k (4 milioi biztanle) Ba-

tasuneko hizkuntza guztien %43 hitz egiten du. Beste hitz batzuekin esanda, EBeko populazioaren %0,8k gutxitutako hizkuntza bat hitz egiten du. Ia kasu guztietan, hizkuntzaren egoera soziolinguistikoa eta haren status politikoa loturik daude hiztun kopuruarekin.

II. HIZKUNTZA ANIZTASUNA KUDEATZEKO METODOAK EBE-KO ESTATUETAN

EBeko estatuak metodo desberdinak erabiltzen dituzte hizkuntza aniztasuna kudeatzeko. Zehatzago esateko, nik neuk, bost eredu daudela pentsatzen dut:

- Hizkuntza ofizial bakarra onartzen duten estatuak: Frantzia, Lituania, Letonia, Estonia, Polonia, Eslovakia eta Grezia.
- Hizkuntza ofizial bakarra onartzen duten estatuak, baina estatuaren zenbait zonalde edota eskualdetan beste hizkuntzen bat edo batzuk onartzen dituztenak: Suedia, Eslovenia, Hungaria, Portugal, Txekiar Errepublikak, Britainia Handia, Austria eta Alemania.
- Zonalde edota eskualde batzuetan hizkuntza koofizialak onartzen dituzten estatuak: Espainia, Danimarka, Herbehereak eta Italia.
- Hizkuntza federazioak: Belgika.
- EBeko estatu eleaniztunak: Finlandia, Irlanda, Luxenburgo, Txipre eta Malta.

2.1. Hizkuntza ofizial bakarra onartzen duten estatuak: Frantzia, Lituania, Letonia, Estonia, Polonia, Eslovakia eta Grezia

Hizkuntza bakarra duten eta hizkuntza horren erabilera bakarrik bultzatzen duten zuzpe estatu daude Batasunean: Frantzia, Lituania, Letonia, Estonia, Polonia, Eslovakia eta Grezia.

Adibiderik ezagunena eta aipatuena Frantziako eredu da. Hala eta guztiz ere, eredu bera jarraitzen dute Batasuneko beste estatu batzuek ere; hauek dira: Lituania, Letonia, Estonia, Polonia, Eslovakia eta Grezia.

Estatu hauen hizkuntza politikaren oinarria ideologikoa da, hots, hizkuntza bakarrak gizarte kohesioa ziurtatzen duela, baita estatuaren garapen ekonomikoa errazten duela ere. Beste hitz batzuekin esanda, estatu hauek agintariak modernitate, hizkuntza bat bakarra, nazioa eta estatu kontzeptuak uztartzen dituzte (Lastra, 1992). Hizkuntza politika honen ondorioa da ofizialak ez diren hizkuntzak baztertu egiten direla, eta, ondorioz, hizkuntza hauek prestigioa galtzen dutela eta zenbait kasutan desagertu egiten direla (Crystal,

2000). Are gehiago, hizkuntza eredu hau jarraitzen duten estatuak hezkuntza eredu elebakarrak bultzatzen dituzte, eta horrek arazo eta kontraesan ugari sortzen dizkie gutxitutako hizkuntzak hitz egiten dituzten elkarteei.

Eredu honen ondorioak ulertzeko, adibide ona da Bretoiaren bilakaera aztertzea: XIX. mendearen bukaeran Bretoiak 1,5 milioi hiztun inguru zituen. Gaur egun, bretoierak 250,000 hiztun dauzka (Broudic, 1999). Zentzu honetan, *bretoieraren* beherakada nabarmena izan da azken 50 urteetan. Eta horren arrazoi garrantzitsuenetakoa da transmisioa eten egin dela. Are gehiago, gauzak aldatzen ez badira, 40-50 urteren buruan bretoiera hitz egiten duten hiztun gutxi batzuk geldituko dira.

Bretoiera ez da egoera larri honetan dagoen Batasuneko hizkuntza bakarra. Egoera larrian daude baita Frantzia hitz egiten diren euskara, katalana, korsikera, franko-provenzera eta okzitania ere; baita Estonian hitz egiten den tata-rera, Eslovakian eta Polonian hitz egiten den ijitoera, Eslovakian hitz egiten den Rusynera edo Polonian hitz egiten den kashubiera ere. Estatu hauetako hizkuntza politika aldatzen ez bada, hizkuntza hauek desagertzeko arrisku handia dute.

2.2. Hizkuntza ofizial bakarra onartzen duten estatuak, baina estatuaren zenbait zonalde edota eskualdetan beste hizkuntzen bat edo batzuk onartzen dituztenak: Suedia, Eslovenia, Hungaria, Portugal, Txekiar Errepublikak, Austria, Britainia Handia eta Alemania

EBeko bederatzi estatuak hizkuntza ofizial bakarra izateaz gain, estatuaren zenbait zonalde edota eskualdeetan beste hizkuntzen bat edo batzuk onartzen dituzte.

2002. urtean, Suediak samiera onartu zuen estatuko bosgarren gutxitutako hizkuntza gisa (samieraz gain, Suediak meänkielia, finlandiera, ijitoera eta yiddisha onartu zituen gutxitutako hizkuntza gisa). Honela, beraz, lau herritan (Arjeplog, Gällivare, Jokkmokk and Kiruna) samiera hizkuntza erabili daiteke administrazioarekiko harremanetan, haur-eskoletan eta epaitegietan.

Italiera koofiziala da Istriako (Eslovenia) zenbait herritan.

Gauza bera gertatzen da mirandeserarekin. 1998. urtetik babes ofiziala dauka Portugaleko ipar-ekialdeko zenbait herritan (Miranda do Douro herrian eta inguruan).

Nahiz eta gobernuen babesa eta zenbait kasutan laguntza ekonomikoa duten, talde honetako hizkuntza askok aurrera egiteko arazoak dauzkate; hain zuzen ere, ofizialtasunik ez dutelako. Adibide ona da Alemaniako frasieraren egoera. Nahiz eta Alemaniako politikariek frasiera babesteko legeak onartu dituzten (1990.eko Schleswig-Holstein Konstituzioa, 1997ko gutxitutako hizkuntzen ituna) arazoak daude lege hauek betearazteko.

Erresuma Batuan ere antzerako arazoa gertatzen da. Hizkuntza ofizial bakarra ingelesa da, eta horrek esan nahi du galesak, Eskoziako gaelikoak, kornishak eta irlanderak aurrera egiteko arazoak daukatela (Moreno, 2000). Nahiz eta hizkuntza hauek nolabaiteko babes ofiziala izan, aurrera egiteko arazo handiak daukate.

Nahiz eta 1993. urtean onartu zen Welsh Language Act delakoaren araberako galesak nolabaiteko onarpen ofiziala izan, lege honek ez die ziurtatzen gales hitzunei euren hizkuntza edozein tokitan erabiltzeko eskubidea.

2.3. Zonalde edota eskualde batzuetan hizkuntza koofizialak onartzen dituzten estatuak: Espainiako, Danimarkako, Herbeheretako eta Italiako kasuak

Batasuneko lau estatuk hizkuntza ofizial anitz izan beharrean, hizkuntza ofizial bakarra dute, baina estatuko zonalde batzuetan koofizialtasuna onartzen zaie hizkuntza batzuei. Adibidez, katalana, galiziera, euskara, Faroeera, galesa, sardiniera, friuliera edo ladinera hizkuntza koofizialak dira estatuaren zonalde batzuetan.

Hagège-k (2000) esan duen bezala, ofizialtasuna onartzen zaion hizkuntzak nolabaiteko babes legala dauka, eta hau gutxitutako hizkuntzaren egoera hobetzeko eta sendotzeko lehen pausoa da.

Hala eta guztiz ere, status ofiziala izateak ez du ziurtatzen hizkuntza baten biziraupena. Nahiz eta onarpen ofiziala izan katalana, galiziera, euskara, faroeera, galesa, frisiera, friuliera, sardinioera edo ladinera bezalako hizkuntzek ez dute etorkizun argirik estatuek euron aldeko politika sendoak bultzatzen ez badituzte.

Danimarkako zenbait tokitan frisiera hizkuntza koofiziala da. Hala eta guztiz ere, desagertzeko arrisku handienetakoa duen Batasuneko hizkuntzetariko bat da (Fishman, 1991).

Euskararentzat aurrerapauso garrantzitsua izan zen 1979. urtean euskara Euskal Erkidego Autonomoko hizkuntza koofizial eta 1982an Nafarroako Foru Elkarteko hizkuntza koofizial bihurtzea. Ofizialtasuna oso garrantzitsua izan zen hizkuntzaren biziraupenerako, hain zuzen ere, prestigioa eman ziolako euskarari eta, gainera, euskaldunek indartuta ikusi zituztelako euskararen alde egindako lan eta ahaleginak.

Nahiz eta talde honetako estatuak hizkuntza batzuei koofizialtasuna onartzen dien estatuko zonalde batzuetan, azpimarratzekoa da hauetariko estatu batzuek bereizketak egiten dituztela hizkuntzen artean. Horrela, ofizialtasuna eskaintzen diote hizkuntza batzuei eta ukatu beste batzuei. Adibidez, euskara, katalana, okzitania eta galiziera ofizialak dira Espainian baina asturierara ez da ofiziala.

2.4. Hizkuntza federazioak: Belgika

Belgika da EBeko hizkuntza federazio bakarra. Honek zera esan nahi du: hiru hizkuntza, hau da, alemana, frantsesa eta nederlandera, ofizialak direla. Horregatik, hain zuzen ere, hiru hizkuntzok prestigioa dute eta guztiak babesten dira administrazioetik.

Belgika hiru hizkuntza elkartetan banaturik dago: nederlandera hitz egiten dutenen elkartea, frantsesez hitz egiten dutenena eta alemanez hitz egiten dutenena. Bestalde, hiru erregiotan banaturik dago: Bruselan nagusiki frantsesez eta alemanez hitz egiten duten 980.000 biztanle bizi dira; flandestarrak bizi diren erregioak 5,900,000 biztanle dauzka eta nagusiki nederlandera hitz egiten da; eta Baloniak 3,360,000 biztanle dauzka eta nagusiki frantsesez hitz egiten da. Estatuko biztanleen %60ak nederlandera hitz egiten du; Frantsesa estatuko bigarren hizkuntza da (%40 inguruk hitz egiten du) eta, azkenik, alemanez Belgikako biztanleen %1ak hitz egiten du. Nahiz eta hizkuntza bakoitzak egoera soziolinguistiko desberdina duen, hiru hizkuntzak ofizialak dira eta babestuak daude.

2.5. EBeko estatu eleaniztunak: Finlandia, Irlanda, Luxenburgo, Txipre eta Malta

Bost estatu eleaniztun daude Batasunean: Finlandia, non finlandiera eta suediera hizkuntza ofizialak diren; Irlanda, non ingelesak eta irlanderak babes ofiziala duten; Luxenburgo, non frantsesa, alemana eta luxenburgera ofizialak diren; Txipre, non greziera eta turkiera hitz egiten diren; eta Malta, non ingelesa eta maltera konstituzioan onartuak dauden.

Txipre albo batera utzita, non egoera politiko oso berezia bizi duten (77), beste estatu guztietako konstituzioetan esaten da hizkuntza ofizial bat baino gehiago daudela. Teorian, behintzat, konstituzioan aipatzen diren hizkuntza guztiak daude legez babestuak.

Bere konstituzioaren arabera, Finlandia estatu elebiduna da. Honek esan nahi du suedieraz mintzatzen diren Finlandiako biztanleak (Finlandiako biztanleriaren %5 gutxi gorabehera) euren ama-hizkuntzen erabiltzeko eskubidea dutela administrazioarekiko harremanetan. Are gehiago, 1970. urtean egin zen hezkuntza erreformaren ondoren suediera eta finlandiera biak irakatsi behar

(77) Guardia Nazionaleko ofizial grekoek estatu-kolpea eman zuten eta Makarios III.a agintetik baztertu zuten 1974an. Turkiako armadak uhartearen iparraldea inbaditu zuen komunitate turkiarra defendatu eta Ziprek Greziarekin bat egin ez zezan. Geroztik, uhartea bitan banatzen duen «Atilaren lerroa» ezarri eta Zipre turkiarra eta Zipre grekoa bereizi egin ziren. 1975. urtean, komunitate turkiarrak Zipreko Iparraldeko Errepublikak Turkiarra aldarrikatu zuen eta komunitate grekoa irten egin zen iparraldetik.

dira Finlandiako eskoletan. Hala eta guztiz ere, esan behar da Suedieraz hitz egiten den hiri eta herrietan ere Finlandiera dela nagusi.

Bestalde, ezin dugu ahantzi 1991. urteko samiera hizkuntzaren legearen arabera, Finlandiako samiak (6000 samiar bizi dira Finlandian) bizi diren lurraldeetan samiera hizkuntza erabiltzeko eskubidea dutela administrazioarekiko harremanetan. Gainera, 2003ko hizkuntza legearen arabera, samiera hizkuntza koofiziala da Finlandiako bost herritan: Enontekiö, Inari, Sodankylä eta Utsjoki (78).

Irlanda ere estatu elebiduna da. Konstituzioak bi hizkuntza ofizial daukela esaten du: Irlandera Irlandako hizkuntza nazionala da eta bere lehen hizkuntza ofiziala (Irlandako konstituzioaren 8. artikulua). Hala eta guztiz ere, ingelesa da irlandarrek gehien erabiltzen duten hizkuntza. Azken finean, elebitasun ofizialak ez du ziurtatzen konstituzioan aipatzen diren bi hizkuntzek erabilpen bera dutenik.

2.6. Ondorio batzuk

Hizkuntza aniztasuna kudeatzeko irizpide desberdinak daude EBeko estatuaren artean. Era askotako lege, politika eta konstituzioak daude hizkuntzak kudeatzerakoan.

Alde batetik, bi hizkuntza ofizial edo gehiago dauzkaten estatuak daude. Adibidez, Finlandia, Irlanda, Luxenburgo, Txipre, Malta eta Belgika. Bigarren talde batean daude hizkuntza ofizial bakarra dutenak baina estatuaren zenbait zonaldeetan hizkuntza koofizialak onartzen dituztenak, adibidez, Espainia, Danimarka, Herbehereak eta Italia. Estatu gehienek hizkuntza ofizial bakarra dute, baina beste hizkuntza batzuk onartzen eta zenbait kasutan babesten dira. Egoera honetan daude Suedia, Eslovenia, Hungaria, Portugal, Txekiar Errepublikak, Austria, Britainia Handia eta Alemania; azkenik, EBeko estatu batzuetan hizkuntza ofizial bakarra dute, nahiz eta estatu hauetan beste hizkuntza batzuk hitz egiten diren. Azken egoera honetan daude Frantzia, Lituania, Letonia, Estonia, Polonia, Eslovakia eta Grezia.

Hizkuntza aniztasuna kudeatzeko eredu eta modu desberdinak daudenez, oso zaila da EBean hizkuntza politika orokor bat bultzatzea, are eta zailagoa

(78) Aikio, P.: «Development of the political status of the Sámi People in Finland». The World Commission on Culture and Development: Majority-Minority Relations. *The case of the Samierain Scandinavia*. Diedut, nº 1, 1994, 39. orr. 1976. urtean Finlandiako Samien Legebiltzarrak zabaldu zen. Legebiltzar honek 20 ordezkari ditu eta lau urtean behin berriztatzen da. Hauteskundeetan bozkatzeko zein hauteskunde zerrendatan joateko beharrezkoa da 18 urte izan eta samien erregistroan egotea. Horretarako, hizkuntz irizpideak bete behar dira; hau da, samiera ama hizkuntza bezala jakin behar da edo guraso edo aitaita-amonetariko batek samiera ama hizkuntza bezala eduki behar izan du.

estatuei hizkuntzei buruzko lege orokor bat inposatzea. Egoera honek azaltzen du, nire ustez, zergatik estatu batzuk gutxitutako hizkuntzen aldeko legeen aurka agertzen diren.

IV. ONDORIO OROKORRAK

Europar Batasunean eremu geografiko honetan jatorria duten 60 hizkuntza hitz egiten dira (munduko hizkuntzen %1, eta Europako hizkuntza guztien %30). EB elkarte eleaniztuna da, nahiz eta munduko beste zonalde batzuetan baino hizkuntza gutxiago hitz egiten diren.

Hala eta guztiz ere, hizkuntzak ez daude modu homogeneoan banatuta biztanleriaren artean. Hiztun gutxi batzuk hizkuntza pila bat hitz egiten dituzte, eta hizkuntza gutxi batzuk oso hedatuak daude. Alegia, EBeko hizkuntza guztien %18 biztanleriaren %82ak hitz egiten ditu (395 milioi hiztun). Bestalde, EBeko hizkuntza guztien %82 biztanleriaren %15ak (65 milioi hiztun) hitz egiten ditu. 65 milioi hiztun hauetatik 4 milioi hiztunek (EBeko biztanleriaren %0,8) gutxitutako hizkuntza bat hitz egiten dute.

Batasuneko hizkuntza askok, nahiz eta hiztun kopuru handia duten, ez dute inolako onarpenik, ijitoerarekin gertatzen den bezala (79).

Bestalde, hizkuntza batzuek, nahiz eta ofizialak izan edo zenbait tokitan nolabaiteko onarpen ofiziala duten, arazoak dituzte aurrera egiteko. Are gehiago, zonalde batzuetan EBeko hizkuntza ofizialak hitz egiten dira, baina hizkuntza horiek hitz egiten dituzten hizkuntza elkarten eskubideak ez daude babestuta. Hori da alemanez hitz egiten dutenen egoera Hungarian, Txekiar Errepublikan edo Polonian; baita Austrian eslovenieraz, eslovakieraz, hungarieraz edo txekieraz hitz egiten dutenena edo eslovakieraz hitz egiten dutenen egoera Hungarian.

EBeko mapa soziolinguistikoa ulertzeko, ezinbestekoa da kontuan hartzea hizkuntza aniztasuna kudeatzeko irizpide desberdinak daudela. Egoera honetan, oso zaila da EB osorako hizkuntza eredu orokorra adostea eta bultzatzea. Are gehiago, gauzak aldatzen ez badira, baliteke hizkuntza asko desagertzea. Honela, beraz, ezinbestekoa da gai desberdinei buruzko eztabaida publikoa egitea Batasunean:

- Lehenengo eta behin, inolako onarpenik ez duten EBeko hizkuntzei buruz hitz egin behar da.

(79) Garrantzitsua da gogoratzea Ijitoera Shuto Orizari-ko (Mazedonia) hizkuntza ofiziala dela, Suedian gutxitutako hizkuntza gisa onartua dagoela eta hizkuntza koofiziala dela Errumaniako 79 herritan eta baita hiri batean ere (Budesti).

- Bigarrenik, EBeko hizkuntzak hitz egiten diren baina hizkuntza hauek inolako ofizialtasunik ez duten eskualdetan bizi diren hizkuntza elkar-teen eskubideei buruzko eztabaida egin behar da.
- Hirugarrenik, EBeko erakundeen hizkuntza irizpideei buruzko gogoeta orokorra egin behar da.
- Azkenik, EB osorako hizkuntza politika orokorrari buruz eztabaida pu-blikoa egin behar da.

V. ERABILITAKO BIBLIOGRAFIA

- AITKEN, A.J. and MCARTHUR, TOM. (1979): *Languages of Scotland*. Edinburgh: Chambers.
- AIKIO, PEKKA. 1994. «Development of the political status of the Sami people in Finland», in *The World Commission on Culture and Development: Majority-Minority Relations. The case of the Sami in Scandinavia*. *Diedut*, 1, 39-43.
- AZTIKER (2002): *Euskal Herria Datuen Talaiatik*. Udalbiltza, Astigarraga.
- BAKER, P. and EVERSLEY J. (2000): *Multilingual Capital. The languages of London's schoolchildren and their relevance to economic, social and educational policies*. Battlebridge Publications, London.
- BASQUE GOVERNMENT (2005): III. Mapa Soziolinguistikoa. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Vitoria-Gasteiz.
- BIRCH, H.A. (1989): *Nationalism & National Integration*. Unwin Hyman, London.
- BROUDIC, F. (1999): «L'évolution des bilingues bretonnants au XXe siècle», in *Klask*, 5. Rennes, Université de Rennes.
- COMRIE, B., MATTHEWS, S. and POLINSKY, M. (1996): *The Atlas of Languages. The Origin and Development of Languages Throughout the World*. New York: Facts On File.
- CRYSTAL, D. (1997): *Ingelesa as a Global Language*. Cambridge University Press, Cambridge.
- CRYSTAL, D. (2000): *Language Death*. Cambridge University Press, Cambridge.
- DIXON, R.M.W. (1997): *The rise and fall of languages*. Cambridge University Press, Cambridge.
- EUROPEAN COMMISSION (2006): *EU integration seen through statistics. Key facts of 18 policy areas*. Eurostat.

- FISHMAN, J. (1991): *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Assistance to Threatened Languages*. Multilingual Matters, Clevedon.
- GRIMES, F.B. (ed) (2000): *Ethnologue. Languages of the World*. Summer Institute of Linguistics. Dallas (13. edition).
- GRUT, M. (2004): «The Endangered Celtic Languages: A wake-up Call». Argenter and McKenna Brown (ed): *Endangered Languages and linguistic rights. On the margins of nations*. Barcelona: FEL, 223.
- HAGÈGE, C. (2000): *Halte à la mort des langues*. Paris: Éditions Odile Jacob.
- HALE, K. (1992): «Endangered Languages» in *Language* 68-1.
- HELANDER, E.: *The Samierain People: Demographics, origin, economy, culture*. The World Commission on Culture and Development: Majority-Minority Relations. The case of the Samierain Scandinavia. *Diedut*, no. 1, 1994
- JUARISTI, ET AL (2005): *Words and Worlds. World Languages Review*. Multilingual Matters, Clevedon.
- JUNYENT, C. (1999): *La diversidad lingüística. Didáctica y recorrido de las lenguas del mundo*. Octaedro, Barcelona.
- KRAUS, M. (1992): «The World's Languages in Crisis» in *Language* 68-1.
- KUOLJOK, S. and UTSI, E.J.: *The Sami. People of the sun and wind*. Ájtte, Swedish Mountain and Saami Museum, Jokkmokk, Sweden, 1993.
- LASTRA, Y. (1992): *Sociolingüística para hispanoamericanos*. El Colegio de Mexico, Mexico.
- LIÉGEOIS, J.P. (1992): «Les Tsiganes: situation d'une minorité non territoriale» in - Giordan H. (editor) : *Les Minorités en Europe. Droits Linguistiques et droits de l'homme*. Paris, Kimé.
- LLERA, F. and SAN MARTIN, P. (2003): *II Estudio sociolingüístico de Asturias 2002*. Academia de la Llingua Asturiana, Uviéu.
- MORENO CABRERA, J. C. (2000): *La dignidad e igualdad de las lenguas. Crítica de la discriminación lingüística*. Madrid: Alianza Editorial.
- MOSKAL, M. (2004): «Language Policy and protection of Endangered Languages in - Poland». Argenter, J.A. and McKenna Brown, R. (arg.): *Endangered languages and linguistic rights. On the margins of nations*. FEL, Barcelona.
- NETTLE, D. (1999): *Linguistic Diversity*. New York: Oxford University Press.
- NETTLE and ROMAIN (2000): *Vanishing Voices. The extinction of the world's languages*. Oxford University Press, Oxford.

- PINKER, S. (1994): *The Language Instinct*. Allen Lane, The Penguin Press, London.
- PEKKA, A.: Development of the political status of the Sami people in Finland. The World Commission on Culture and Development: Majority-Minority Relations. The case of the Samierain Scandinavia. *Diedut*, no. 1, 1994
- PRICE, G. (2000): *Encyclopedia of the languages of Europe*. Blackwell Publishing, Oxford.
- PUJADAS, B. *The rules governing the languages of the European Union: which languages and to what extent. A practical guide*. Dossier no. 17. www.ciemen.org/mercator/index-gb.htm
- SALMINEN, T. (2005): *UNESCO Red Book on Endangered Languages: Europe*. Unesco.
- SASSE, H.J. (1992): «Theory of language death» in Brenzinger, M. (ed): *Language Death: Factual and Theoretical Explorations with Special Reference to East Africa*. Mouton de Gruyter, New York.
- SCHUR, N. (1995): *The Karaitic Encyclopedia*. Frankfurt.
- WARASIN, M. (2002): Towards linguistic rights in the EU 2004. The promotion of linguistic diversity as part of the new constitutional treaty of the European Union. Dossier no. 10. www.ciemen.org/mercator/index-gb.htm
- WURM, S. A. (2001): *Atlas of the world's languages in danger of disappearing*. Paris-Camberra: UNESCO Publishing / Pacific Linguistics.

Web iturriak

www.amarauna-languages.com

www.ethnologue.com

http://europa.eu.int/comm/education/policies/lang/languages/langmin/euromosaic/et2_en.html#11

http://www.helsinki.fi/~tasalmin/europe_index.html#biblio

http://www.culture.gouv.fr/culture/dglf/lang-reg/rapport_cerquiglini/langues-france.html#ancre276758

EREMU URRIKO HIZKUNTZAK EUROPA BATUAN

Erramun Baxok

Europa batua aipatzen delarik hiru erakunde badira bata besteari lotuak: Europako Erkidego Ekonomikoa, Europar Batasuna, Europako Kontseilua. Txosten honetan hiru puntu landuko ditugu:

- Zein den Europako erakundeen ideologia hizkuntza gutxituei buruz.
- Europako ideologiak zer eragin ukan duen Frantziako herri hizkuntzetan.
- Zer eragin Ipar Euskal Herriko euskalgintzan.

I. EUROPAKO ERAKUNDEEN IDEOLOGIA

Bi iturburu landu behar ditugu, Europa batua eta Europako Kontseilua. Hona idazki nagusien zerrenda:

a) Europako Parlamentuaren ebazpenak:

- Arfé gomendia (1981-10-16);
- Kuijpers ebazpena (1987-10-30);
- Pasquale ebazpena (1988-10-28);
- Killilea ebazpena (1994-02-13);
- Maastrichteko ituna (1992-02-07);
- Nizako ituna (2000-12-18);
- Europako Itun Konstituzionala (2004).

b) Europako Kontseiluan:

- Cirili txostena eta 928. gomendia (1981);
- Eskualde Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Europako Karta (Hizkuntzen Karta, 1992-06-25);
- Gutxiengo nazionalak babesteko hitzarmen orokorra (Gutxiengo Hitzarmena, 1994-11-10).

Harreman asko izan dira erakunde horien artean. Adibidez Cirili txostena Europako Parlamentuak landu zuen eta gero Europako Kontseiluari onar-

pena eskatu zionean txostena berehala artxibatua izan zen, hizkuntzak estatuen eskuduntzan zirelaketz. Alderantzizko bidetik Europako Kontseiluak landu zuen Eskualde Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Europako Karta (Hizkuntzen Karta), gero Europako Parlamentuak onartu zuen eta gomendatu Killea ebazpenaren bitartez. Corpus osoa kontuan hartu behar da. Alabaina Europar Batasunaren testuak oso gutxi dira: Maastrichteko itunaren 128. artikulua, Nizako itunaren 21. eta 22. artikulua eta Europako Konstituzioaren egitasmoko 4 artikulua (I-3, II-82, III-280, IV-448). Dena dela, hemen daukagun zerrendak osatzen du hizkuntza gutxituei buruz Europak 25 urtez eskaini digun zuzenbidezko corpus garrantzitsua.

Zer indar juridiko daukate idazki hauek?

Hasieratik erran dezagun erabaki gehien aurretik ikerketa bat badagoela: lehenik txostena, gero ebazpena edo gomendioa. «Ebazpena» (*résolution*) aipatzen delarik zer ulertu behar dugu? Nazioarteko legedian gaude eta alor honetan aurau bereziak badira. Europako Parlamentuko «ebazpenak» ere gomendio batzuk dira. Gehiengo handian onartuak izanikan ere, estatu bakoitzeko legebizarraren berrespena behar dute egiazko lege bilakatzeko. Gauza bera erran daiteke Europako Kontseiluko idazkietaz: Hizkuntzen Karta eta Gutxiengoen Hitzarmena Frantziak onartu zituen idazki baliagarri bezala, baina erreserbak ezarriz. Adibidez Frantziako Konstituzioaren arabera Estatu frantsesean ez dagoela gutxiengorik eta ondorioz hitzarmenak ez duela bertan aplikaziorik; edo Hizkuntzen Kartako 39 neurri onargarriak direla, salbu lau printzipio konstituzioaren aurka baitoaz. Maastrichteko eta Nizako itunak dira soilik estatu guztientzat erabakigarriak direnak. Irakur ditzagun idazki batzuk ordena kronologikoan.

1. Kuijpers txostena eta ebazpena (1987)

Atalburua: Europako Erkidegoan dauden gutxiengo erregional eta etnikoen hizkuntzak eta kulturak. Laburbilduz erran daiteke eurodiputatu flandresak aurkeztu zuen ebazpena, hizkuntza eskubideen aitortpen bat dela. Hasieran idazkiak onarpen juridikoa eskatzen du hizkuntza gutxituentzat. Europako Kontseiluari sustengua eskaintzen dio Europako Kartaren antolatzen egiten duen lanarentzat.

Gomendio andana bat egina zaizkie Europako Erkidegoan parte hartzen duten estatuei:

- irakaskuntzaren eremuetan (5. atala);
- administrazio eta zuzenbide gaietan (6. atala);
- hedabide zabaletan (7. atala);
- kultura egituretan (8. atala);

- eremu sozio-ekonomikoan (9. atala);
- mugaz gaineko hizkuntzentzat (10. atala);

Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Bulegoa sustengatzeko (11. atala).

Azken ataletan idazkiak neurri praktiko batzuk gomendatzen dizkio Europako Erkidegoari, mila milioi ekuseko aurrekontua eskatuz.

2. Maastrichteko ituna (1992)

Itun nagusi bat da Europaren historian. Alabaina Europar Batasunaren oinarria da, bai eta ere «euro» deritzon diru batua sortzeko idazki ofiziala. Helburu nagusiak politikoak dira eta ekonomikoak. Halere kulturak badauka leku txiki bat, kultura eskubideak aipatzen dituelarik eta bereziki «kultura eta hizkuntza aniztasuna». Artikulu berezi bat bada eskualdeetako kulturak esplizitoki aipatzen dituena. 128. artikulua:

Erkidegoak kide diren estatuetako kulturaren loratzea bultzatu behar du, berrietako eskualde eta nazioetako berezitasunak kontuan izanik eta Europa osoko ondare komuna goretsiz.

3. Eskualde Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Europako Karta (Hizkuntzen Karta, 1992)

Hizkuntzen Karta hau Europako Kontseiluaren lana da, gero Europako Parlamentuak bere gain hartu zuena Killilea ebazpenaren bitartez (1994). Erran dezakegu idazki hau nolazpaiteko hizkuntza eskubideen aitortpen bat dela. Hizkuntzen Kartak aitzinsolas bat dauka eta 24 artikulua 4 zatitan banatuak.

Aitzinsolasean Europako Kontseiluak oroitarazten digu bere helburu nagusia kideen batasuna dela, elkarrekin daukagun ondare ideologikoa zaintzeko eta garatzeko. Adibidez hizkuntza gutxituak erabiltzeko eskubide ezin baztertua dela, nola bizitza pribatuan hala bizitza publikoan. Begiramen honetan zerrendatuak dira gai hau aipatzen duten nazioarteko itunak.

Lehen zatia planteamendu orokorra da eta bereziki kontseilukideen eginbideak, hizkuntzen ituna onartzerakoan: gutxienez 35 neurri aukeratu dira, 2. zatiko 7 artikuluetarik bakar bat ere baztertu gabe. Estatu bakoitzak, ituna bere moldean onartuko duelarik zehaztuko du hautatu neurriak zein hizkuntzei aplikatuko dizkien.

Bigarren zatian agertzen dira itunaren (13) abiapuntuak eta helburuak. Atal honetan dago demokrazia linguistikoa oinarritzen duen zuzenbidea: hizkuntza guztien onarpena, lurralde historikoen errespetua, hizkuntza gutxituen

aldeko sostengua, galtzear diren hizkuntzak berreskuratzeko ahalak, hiztun multzoen eskubide kolektiboak, lurraldeen arteko loturak.

Hirugarren zatian ehun bat neurri zerrendatuak dira eskualde hizkuntzen alde, zazpi artikulutan:

- 8. artikulua: irakaskuntza;
- 9. artikulua: justizia;
- 10. artikulua: administrazio aginteak eta zerbitzu publikoak;
- 11. artikulua: komunikabideak;
- 12. artikulua: kultura jarduerak eta azpiegiturak;
- 13. artikulua: ekonomia eta gizarte arloa;
- 14. artikulua: mugaz gaineko harremanak.

Laugarren eta bosgarren zatietan zehazten dira itunaren onartzeko eta aplikatzeko moldeak: urteroko txostenak, jakitunen batzordea, itunaren sinadura eta berrespena, idazki ofizialak.

4. Killilea txostena eta ebazpena (1994)

Ebazpenaren iturburua da Maastrichteko itunaren 128. artikulua da, kulturen aniztasuna garatzeko, eskualde eta nazioetako berezitasunak kontuan hartuz. Bi gomendio nagusi:

1. Kultura eta hizkuntza minoritario guztiak babestu behar direla «estatutu legal egoki baten bidez». Lege horrek sostengatuko du aipatu hizkuntzen erabilera «hainbat esparrutan, hala nola irakaskuntzan, kultur alorrean, justizia eta administrazio publikoan, hedabideetan, toponimian eta bizitza publiko eta kulturaren gainontzeko sektoreetan».
2. Itunak Hizkuntzen Karta sostengatzen du eta kide diren estatuetakoko gobernuak eskatzen die lehenbailehen sina dezaten, oraindik egina ez badute. Ondorioz Europako Kontseiluaren karta Europar Batasunaren idazki ofiala bilakatzen da.

5. Nizako ituna (2000)

Nizako itunak zabaldu zuen «Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Karta». Alabaina aipatu batasunaren finkatzeko, Europako herriek bilatzen dute «etorkizun baketsua», abiapuntutzat hartuz «elkarrekin dauzkaten balo-

reak». Txostenak zerrendatzen ditu denek onartzen dituzten «eskubideak, askatasunak eta abiapuntuak». Hizkuntzak bi artikulutan aipatuak dira.

21. artikulua diskriminazio guztiak debekatzen ditu, besteak beste hizkuntzetan oinarritzen direnak.

22. artikulua

Batasunak kulturen, erlijioen eta hizkuntzen aniztasuna errespetatzen du.

Zer indar juridiko dauka eskubideen karta honek? Aitzinsolasak dio eskubideen gozamenak, erantzukizunak eta eginbeharrak sortzen dituela «beste buruz, giza erkidegoaren aldera eta geroko belaunadiei begira». Hemen daukagu Europa batua sortu duen ideia nagusia: batasuna aniztasunaren bidetik datorrela. Azkenean Nizan ez diote Eskubideen Kartari eman itun baten indarra. Indar juridiko osoa hartuko du Europako Konstituzioa onartuko delarik. Horiek hola, hizkuntza gutxituen egoera hain da kezagarria non bailukete diskriminazio baikorraren beharra.

6. Europako Itun Konstituzionala (2004)

Zein da kulturaren eta hizkuntzen lekua Europako konstituzioa finkatzen duen itunean. Itzulia laster eginga da: lau idazki labur daude, bat egitasmoaren zati bakoitzean.

I. zatia, konstituziaren helburuena da. Aniztasunaren printzipioa agertzen da:

Batasunak aniztasun kulturala eta linguistikoa errespetatzen du, eta Europako ondare kulturala artoski zaintzen du eta aitzinarazten (I-3. artikulua).

II. zatian, printzipio bera errepikatua da itunaren oinarritzko eskubideetan:

Batasunak kulturen, erlijioen eta hizkuntzen aniztasuna errespetatzen du (II-82. artikulua).

Hau da hitzez hitz Nizako itunaren 22. artikulua.

III. zatia, luzeena, antolaketarena da eta ekintza politikoena. Laguntzilegoaren izenean (subsidiaritatea, I-11) kultura estatuen eginbideetan dago, eta Europar Batasunak laguntza eskaitzen die bakarrik helburuak ezin direlarik erdietsi estatuen edo lurraldeen mailan. Ondorioz, kulturaren alorrean, Batasunak eskuduntza dauka

laguntza, koordinazio eta betegarritasun ekintzak eramateko.

III-280. artikulua Batasunaren eragina zein den kulturaren alorrean zehazten digu:

Batasunak kulturen garapenean parte hartzen du, nazioen eta lurraldeen berezitasunak errespetatuz eta agerian ezarriz elkarrekin daukagun ondare kulturala.

Lerroaldi hau Maastrichteko 128. artikulua errepika da. Gainera egitasmo honetan Europa mailako lege orokorra aipatzen da, Eskualdeen Batzordea kontsultatuz, baina

legezko neurrien baterakuntza (harmonizazioa) baztertuz.

IV. zatia, azken xedapen orokorren zatia da. Aipamen bakar bat agertzen da eskualde hizkuntzez. Itzulpenak aipatzerakoan, Europako 21 hizkuntzak zerrendatuak dira eta, gainera, beste hizkuntza batzuei fabore berezi bat egiten zaie:

Konstituzioaren erabakiz, hizkuntza ofizialaren estatusa duten hizkuntzak, lurralde osoan edo zati batean

erabil daitezke konstituzioaren itzulpenarako. Definizio honetan sartzen dira Espainiako hizkuntza koofizialak, euskara besteak beste, Polinesia frantseseko hizkuntza, luxenburgera... Batasuna ez doa urrunago. Jadanik estatu hizkuntzen itzulpenak 1500 itzultzaile eskatzen ditu. Zenbat behar lirateke Europako herri hizkuntza guztientzat? Tokian tokiko elebitasuna antolagarria bada, eleaniztasun zentrala antolagaitza da. Edo bestenez, eguneroko harremanetarako, orok hizkuntza bakar bat erabiliko dute (English of course), beste hizkuntzak ikur-hizkuntza bilakatzeko arriskuarekin.

Europako konstituzioaren ituna baztertua izan da 2005ean Frantziaren eta Herbeheretan erreferendumen bidez (ez haatik Euskal Herrian!). Egitasmo guztia geldirik dago. Halere noizbait Europa politikoa eraikiko da, egitasmoak aipatzen dituen helburuetan eta printzipioetan oinarrituz, egitasmoaren I. eta II. zatian zehazten direnak. Maastrichteko «aniztasun kulturala», gaur egun indarrean dagoena, orduan konstituzionala bilakatuko da. Bi konstituzio aurrez aurre egonen dira, Frantziako konstituzio «monoglosikoa» eta Europakoa aniztasun kulturean oinarritua. Kontraesan juridiko horretarik zer aterako den ezin da iragarri. Hain segur indar berri bat izan liteke hizkuntza gutxituen alde borrokatzen direnentzat.

Hizkuntz aniztasunaren onarpena, Europako lege nagusi baten abiapuntua izan daiteke herri hizkuntzen alde. Orain arte Europako legebiltzarrak gomendio baliosak egin zituen, nola Kuipersen hizkuntz eskubideak, hala Kiliaren aplikazioak. Orain tenorea litzateke gomendioak lege bilakatzeko, egiazko konstituzio baten babespean.

II. EUROPAREN ERAGINA FRANTZIAN

1. Maastrichteko itunaren ondotik

a) Frantziako Konstituzioaren aldaketa (1992)

Maastrichteko itunak garrantzizko eragina ukan zuen Frantzian, zeharkako bide batetik, hizkuntzen alorrean. Alabaina Frantziako Konstituzioa aldatu

behar zen, itunaren erabakiak onartzeko, eskuduntzen aldetik, diruaren alorrean adibidez. Gainera Europak kultura aniztasuna aldarrikatzen duen puntutik, Estatu frantsesak bere «monoglosia» azpimarratzen du. Ez zen gauza berria. Alabaina frantsesa zen akta ofizialen hizkuntza, latinaren ordez, François Lehena erregearen manuz geroztik (Villers-Cotterêts, 1539). Eta 1789ko iraultza denboran frantsesa bilakatu zen «nazioaren ikur eta askatasunaren tresna». Halere, historian zehar, hizkuntza ofiziala ez zen lege nagusi batean sartua. Oraingo aldaketa horretaz baliatu dira Toubon eta Lamassoure diputatuak, 2. artikuluan emendakin bat bozkarazteko:

La langue de la République est le français

(Errepublikaren hizkuntza frantsesa da). Besterik ez. Frantziako beste hizkuntzen «errespetua» ere ez zen onartua izan. Nabari da emendakinak ez dela Maastrichteko itunaren 128. artikulua aldarrikatzen !

Gaurko konstituzioan badaude bi alderantzizko artikulua. 1992an aldatu zuten 2. artikulua, laikotasuna aipatu-eta, errerepublikaren elebakartasuna finkatzen du. Bestalde 1789ko Giza eta Hiritar Eskubideen Aitorpena ere konstituzionala da eta 11. artikulua dio:

la libre communication des pensées et des opinions est un des droits les plus précieux de l'homme: tout citoyen peut donc parler, écrire, imprimer librement sauf à répondre de l'abus de cette liberté dans les cas déterminés par la loi

(gogoetak eta iritziak adierazteko askatasuna, giza eskubideetan baliosenatarik da. Beraz hiritar orok hitz egin dezake, idatz eta inprima askatasunean)...

Ez ahantz 2. artikulua eginbide kolektiboa sortzen duela, 11. artikulua eskubide indibidual bat definitzen duelarik. Dena dela, badirudi herri hizkuntzak bi artikulua hauen artean koka daitezkeela. Egia erran, Kontseilu Kontituzionalak (hau da legeen epaitegi gorena), hiruetan gutienez, 11. artikulua erabili du frantsesaren elebakartasuna mugatzeko, geroxeago ikusiko dugun bezala.

Halere herri hizkuntzen aurka doa konstituzioaren «mito fundatzailea». Estaturen nortasunari buruzko liburu batean irakurri nuen:

nazio frantsesa zibikoa da, nozio alemana etnikoa delarik.

Edo argudiaketa analogiko bat eginez erran genezake, Frantzia hiritarra da, Espainia herritarra den bezala.

b) Toubon legea (1994-08-03)

Konstituzioaren aldaketa ez da soilik sinbolikoa izan. Berehala lege bategen atera ditu aplikazio praktikoak. Alabaina Toubon legeak erabakitzen ditu frantsesaren nahitaezko eremuak. «Article 1: Langue de la République en ver-

tu de la Constitution, la langue française est un élément fondamental de la personnalité et du patrimoine de la France. Elle est la langue de l'enseignement, du travail, des échanges et des services publics » (konstituzioaren arabera Errepublikaren hizkuntza den frantsesak Frantziaren nortasuna eta ondarea oinarritzen ditu. Ikaskuntzako, laneko, harremanetako eta zerbitzu publikoetako hizkuntza da). Jarraian legearen 24 artikuluek finkatzen dute frantsesaren erabilera iragarkietan, lan munduan, kontratuetan, publizitatean, zuzenbidezko idazkietan.

Ikusi dugu neurri handi batean administrazioa frantsesaren eremua dela. Halere konstituzioaren bikoiztasunari esker, irakurketa ezberdinak posible dira. Alabaina 1992ko 2. artikulua ezin da irakurri, 1789ko 11. artikulua baztertuz, komunikazio askatasuna lehen mailako eskubidea baita.

Holaxe ulertu behar da Toubon legean (1994) agertzen den 21. artikulua:

les dispositions de la présente loi s'appliquent sans préjudice de la législation et de la réglementation relatives aux langues régionales et ne s'opposent à leur usage

(lege honetako neurriak aplikatzen dira, herri hizkuntzei buruzko legediari eta araubideari kalterik egin gabe eta ez doaz hizkuntza horien erabileraren aurka). Zer nolako erabilera, pribatua ala publikoa? Testuak ez du trenkatzen baina kontestu guztia komunikazio publikoarena da.

2. Hizkuntzen Kartaren ondotik

a) Estatu Kontseiluaren abisua (1996-09-24)

Gobernuak Estatu Kontseiluari eskatu zion bere abisua eman zezan Hizkuntzen Kartaz. Konstituzioaren 2. artikulua aurka doala erran zuen eta ondorioz ezin zela sinatu. Estatu Kontseiluaren abisuak ez dira erabakigarriak eta gobernuak bazter ditzake. Hori gertatu zen eta Lionel Jospin Lehen Ministroak hiru ikerketa eskatu zieten jakitun batzuei:

- herri hizkuntzen egoeraz (Nicole Pery eta gero Bernard Poignant);
- Hizkuntzen Kartaren konstituzionalitateaz (Guy Carcassonne);
- herri hizkuntzen zerrendaz (Bernard Cerquiglini).

b) Poignant txostena (1998)

Kemperreko alkate bretoi erdaldun honek berridatzi zuen herri hizkuntzen historia, erakutsiz eskola publikoaren asmatzaileek ezer ez zutela egin eskualdeetako hizkuntzen aurka. Alderantziz, aberri txikien baliagarritasuna az-

pimarratzen zuten, aberri handiaren hobeki eraikitzeko. Hamar aipamen egiten ditu, Jules Ferry-rena lehen eta Claude Allegre-rena azken, frogatzeko errepublika ez dela hobendun, baina bai ekonomia. Ekonomiak ditu gizarte egiturak aldatu eta egitura hauen zutabe ziren tokiko kulturak:

ukaldi gehiegi errepublikari buruz eta gutxiegi kapitalaren aurka.

Gezurra handiegia delarik, egia ere ateratzen da hitzen artetik, berak uste gabeen aitortzen duelarik:

Il est temps de sortir de l'hypocrisie

(ordua da faltsukeriatik ateratzeko). Noren faltsukeria ote? Alabaina ele zuriek ez dituzte ekintza beltzak estaltzen. Eta gaurko proposamenetan zer beritasun eskaintzen digu?

Publikotasunaren bidean urrats batzuk egin gogo ditu. Txostenean Hizkuntzen Kartaren sinadura proposatzen duelarik helburu nagusi bezala, herri hizkuntzen erabilera pribatua eta publikoa azpimarratzen du. Bestalde ikastoletan eta beste elkarte eskoletan darabilten murgil metodoa onargarriz hartzen da eta ikastetxe hauei eskaintzen zaie erakunde publiko bilakatzea. Komunikabide publikoek ere toki definitu bat eginen diete eskualdeetako kulturei.

Gainera bizpahiru lerroaldetan agertzen da «hizkuntza frantsesaren eta Frantziako hizkuntzen» arteko parekotasuna: konstituzioak erabaki behar luke ondare nazional berean daudela; Kultur Ministerioan dagoen «frankofoniaren ordezkari nagusian» kokatu behar litezke beste hizkuntzak ere. Hots, utopia ala ironia, ez omen da etsaigorik hizkuntza horien artean, adiskidantza baizik, elkar zaintzeko eta elkarrekin estatuaren dirdira erakusteko nazioartean. Lurraldetasunaren hastapen bat ikusten dugu herri hizkuntzen onetan. Poignant alkateak errepikatzen digu Paris ez dela estatu osoa, errepublika jakobinoa antzu bilakatu dela eta «aukera girondinoa» egin behar dela, deszentralizazioaren urrapidea ez delakotz bururatua. Noraino doa federalismo hau?

Horiek hola, administrazioaren eremua giltzaturik dago herri hizkuntzen zat eta alor honetan txostenak konstituzioaren irakurketa hertsiana egiten du. Errepublikaren hizkuntza, hizkuntza «ofiziala» bilakatzen da. Nahitezkoa da arduradun publikoentzat bai eta ondorioz administratuentzat. Alderantziz beste hizkuntzak ezin dira erabili zerbitzu publikoetan, salbu Hezkuntza Nazio-nalean. Kasu honetan ere ikasleek eta (gauza berria) irakasleek nahi badute.

Ipar Euskal Herriko hizkuntza estrategia nahizkotasun horretan oinarritua da. Lege gerizaren faltaz (noiz arte?), hiztunen, familien eta gizarte zibilaren gain da kultur eskubideen errespetaraztea, irekitzen diren bideetan sartuz eta hetsirik dauden ateak «de facto» irekiz. Euskalgintzaz arduratzen direnen ahalbide nagusia da herri motibazioa piztea herritarrengan.

c) Carcassonne txostena (1998)

1998ko urriaren 6an zabaldu zen Hizkuntzen Kartaren hitzez hitzeko «azterketa metodikoa eta hotza». Egia erran, orain arte jende anitz berotu zen idazki famatu horren iguruan, edo aurka, frantsesa gutituko zuelako beldurra-ekin, edo alde, herri hizkuntzen salbatzeko itxaropenez. Gure legegizonak denak ados ezarri ditu. Bai, Hizkuntzen Karta sinagarri da, 52 neurri baitauzka onargarriak direnak. Bai, nazioarteko hitzarmen horrek errespetatzen ditu printzipio konstituzional oro: errepublikaren batasuna, herritarren berdintasuna, komunikatzeko askatasuna bai eta ere frantsesaren estatutu berezia.

Denbora berean Hizkuntzen Kartako 7. artikulua, «Helburuak eta printzipioak», irakurritz egiten genituen ametsak erori dira. Artikulu horretan aipatzen dira hizkuntzen onarpena, lurraldetasuna, hizkuntz taldeak, bizitza publikoa, mugaz gaineko harremanak. Hots, kultur demokraziaren deklarazio baten itxura du. Uste genuen Hizkuntzen Karta sinatzearekin, gure hizkuntzak eta gure herriak nolazbaiteko ofizialtasuna edo gutienez publikotasun zerbait erdietsiko zuela.

Aipatu txostenak dioenez, deus ez da holakorik. Eta hain zuzen 7. artikulua lehen helburutzat ematen du «Herri hizkuntzen onarpena, aberastasun kulturalak direlaketz». Ondorioz Hizkuntzen Kartaren helburu zuzena ez da hitzunen eskubideak adieraztea bainan arriskuan diren hizkuntzak zaintzea

Beraz nola ulert ditake aitzin solaseko 3. begiramena:

kontuan hartuz lurralde hizkuntzen eta hizkuntza gutxituen erabilera ezin kenduzko eskubidea dela bizitza pribatuan eta bizitza publikoan...?

Ohar hau oinarritzen duten idazki juridikoez ez omen dute hizkuntz eskubiderik sortzen. Zeren eta aipatzen den Nazio Batuen Erakundeak erabaki zuen Eskubide zibilen eta politikoan nazioarteko ituna, gutxiengoak zaintzeko zen eta sinatzerakoan ordezkari frantsesak salbuezpena adierazi zuen, Frantzia ez zitakeela gutxiengorik izan, berdintasun zibikoari esker. Salbuezpenak orain ere balio du eta begiramen hau indargabe gelditzen da.

Ohar berdintsuak eginak dira «lurralde» eta «hizkuntz multzo» hitzez. «Lurraldea» geografikoki ulertzen da eta hemen «multzoa» kontzeptu estatistikoa da. Banakazko hitzunen taldeak ez dezake sortu eskubide kolektiborik. Bestenaz «komunitarismoak» errepublikaren batasuna hauts lezake. Hizkuntzen Karta sinatzeko momentuan, adierazpen interpretatibo batek gauzak argi litzazke.

Beste argitasun atzerakor bat ukan dugu publikotasunari begira. 7. art. d. helburua:

eskualde hizkuntzen eta hizkuntza gutxituen erabilera mintzatua eta idatzia erraztea eta sustatzea, bizitza publikoan eta pribatuan.

Eremu publikoa aipatzen delarik gehienetan administrazioaz eta zerbitzu publikoetz hitz egiten da. Hizkuntzen Karta sinatuz uste genuen urrats handia eginen genuela herri hizkuntzen publikotasunaren bidean.

Irakurketa hertsiegia dela dio legegizonak. Bizitza publikoa hasten da «etxetik ateratzen delarik» eta zabaltzen gizarte harreman guztietara: lanean, merkatuan, saltegietan eta ez bakarrik administrazioan. Beraz Hizkuntzen Karta izenpeturik ere herri hizkuntzak administrazio publikotik kanpo egonen ote dira? Ez baitezpada, eta hemen daukagu Carcassonne txostenaren sorpresa on bat.

Interpretamen okerra litekela, dio Maisu Carcassonnek. 18 orrialdeko arrazoinamendu zorrotza darama adostasunean ezarri nahiz, aipatu ditugun 6 lerroaldeak: Konstituzioaren 2.a, Eskubide aitortenaren 11.a, Tubonen 21.a, Polinesiako 115.a, Konstituzio Kontseiluarenak 1994ean eta 1996ean. Dударik gabe frantsesa da administrazioa hizkuntza normala. Baina ez dauka eksklusibitatearik. Beste hizkuntzak ez dira debekatuak, beraz zilegi dira:

Ez da gehieria baieztatzea bidezkoa denik elebitasunaren erabilera bultzatzea, administrazioa hobetzeko kezkarerkin, hurbiltasuna edo eraginkortasuna bilatuz (63. art.).

Herri hizkuntzak erabiltzea zilegi da. Haatik ahalbide horrek ez du sortzen eskubiderik hitzunen alde, ez eta ere eginbiderik arduradunengan. Bi baldintza nagusiak hor daude, hitzunen nahia eta frantsesaren presentzia.

Dena dela Konstituzio 2. artikulua harresia urratu da eta zulo horarik pasarazi dira Justiziaren artikuluko 7 neurri eta Administrazioaren artikuluko 5 neurri (neurri bana azki delarik Hizkuntzen Karta sinatzeko). Gainera beste 5 artikulua kasik osoki bateragarri dira Konstituzioarekin eta beraz sinagarri: Ikaskuntza (8. art.), Komunikabideak (11. art.), Kulturgintza (12. art.), Gizarte harremanak (13. art.), Mugaz gaineko harremanak (14. art.).

Txosten honetan, gure legegizonak aztertu ditu Hizkuntzen Kartak eskaitzen dituen 98 neurriak, 7 artikulutan banaturik. 52 badira onargarri direnak Konstituzioaren aldetik. Gure berehalako kezka zen zenbat neurri onartuko ziren.

d) Cerquiglini zerrenda (1999)

Bernard Cerquiglini hizkuntzalaria Hizkuntza Frantsesaren Ordezkaritza Nagusiko zuzendaria zen eta gobernuak eskatu zion egin zezan Frantziako hizkuntza guztien zerrenda. Hexagonako eta Itsasandiko mintzairak aztertu ondoren, 75 hizkuntza aurkitu zituen, bere ustez denak Hizkuntzen Kartaren babesean ezartzeko. Ez genuen ikusten zer politika egin zitekeen horrenbeste

hizkuntzekin. Bainan eztabaidak erakutsi zigun hizkuntzen egoerak eta hiztunen eskaerak oso ezberdinak zirela.

Lehen kategoria batean sailka daitezke adibidez Guianako hizkuntz amerindianoak. Asko dira bainan hiztun gutxirekin? kaliba 200 hiztun, arawak 300 hiztun eta beste holako 9 hizkuntza. Jende horiek Amazonatik edo Surinametik etorriak ziren eta herrixka batzuetan bizi dira erreka edo itsas bazterretan. Beren hizkuntzari begira ezer ez dute eskatzen bainan hizkuntzalariek diote hizkuntza guztiak eskubide berdinak dituztela eta Errepublikaren babesa hartze dutela.

Beste sail batean koka daitezke ekialdeko eta mendebaleko kreollerak, bai eta Kaledonia Berriko hizkuntzak. Kreollerak hizkuntza « handiak » dira, hiztun asko baitituzte eta ohizko gizarte harremanetan erabiliak baitira, familian, lanean, bilkuretan. Halere ez dira oraindik toki guztietan sartzen, ez administrazio zentrolean, ez eta ere liburugintzan. Ondorioz denentzat goi mailako hizkuntza frantsesa da. Militanteen eskaera da bi hizkuntzen arteko parekotasuna lortzea eskolaren bitartez, diglosia «heterotopikotik homotopikora» pasatuz.

Hirugarren sail batean aurkitzen ditugu oil dialektoak. Frantsesa ere jatorriz oil familiakoa da, bainan mendeetan zehar erregeen eta errepublikaren hizkuntza bilakatu da. Beste dialektoak ahul daute Bretainian (galo), Pikardian, Champagnean, Walonian, Poitou eta beste. Literatura zerbait bazuten, orain hiztun gutxi dira eta adinekoak. Halere eskoletan irakatsiak dira. Eta geroari buruz? Oil hiztun askok diote dialekto horiek lehenagoko bizi moldeari lotuak direla eta ez direla egokiak modernitatea adierazteko. Heientzat oil batua frantsesa da.

Laugarren sailean daude 7 herri hizkuntza «handiak»? alsaziera, bretoiera, flandjera, katalanera, korsikera, ok hizkuntza eta euskara. Gure eskaera nagusia da lurraldetasuna, herri bakoitzean herri hizkuntza frantsesaren parekoa izan dadin. Hizkuntzalari jakobinoek ez dute federalismoa onartzen «komunitarismoaren beldurrez». Hizkuntzalari ofizialentzat frantsesak bakarrik dauka errealitate politiko bat. Beste hizkuntzak birtualki onartzen dira ikergaitzat unibertsitateetan eta ikasgaitzat eskoletan. Ez diete beste tokirik ematen. Ez dakite zer den hizkuntz antolaketa. Hizkuntzen Kartako atal bakar bat ulertzen dute, irakaskuntzarena.

e) Eskualde Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Europako Kartaren sinadura (1999-05-07)

Frantziako ordezkariak Budapesten Hizkuntzen Karta sinatu zuen, gobernu sozialistaren aginduz. Izenpetze aktak baditu bi zati, irakurketa ohar bat eta onartuak diren 39 neurrien zerrenda.

Irakurketa oharra zertarako? Alde batetik Hizkuntzen itunak ez du onartzen III. zatiko neurrien arteko hautuez beste salbuespenik. Bestalde II. zatiko printzipio batzuk ez dira egokiak Frantziako Konstituzioaren ikuspuntutik hiztun komunitateen eskubideak, hizkuntzen lurraldetasuna, eskualde hizkuntzen erabilera publikoa. Ondorioz Frantziako ordezkariak ohar baten bidez zehaztu du Errepublikaren gobernuak nola interpretatzen dituen dudazko printzipio horiek. Hona oharraren laburpena 4 puntutan:

1. Hitzunen multzoak aipatzen direlarik Hizkuntzen Kartak ez die eskualdeetako hitzunei eskubide kolektibo berezirik ematen eta Errepublikaren gobernuak ituna ulertzen du hiritarrek legearen aitzinean duten berdintasunaren arabera.
2. Errepublikaren gobernuak administrazioari buruzko lerroaldeak ulertzen ditu konstituzioaren 2. artikuluaen arabera, zeinek frantsesaren erabilera behartzen baitu zerbitzu publikoetan.
3. Errepublikaren gobernuak irakaskuntzari buruzko lerroaldeak ulertzen ditu azpimarratuz eskualde hizkuntzen ikasketa hautazkoa dela eta ikasle guztiek eskubide eta eginbide berdinak dituztela ikastetxe publikoetan.
4. Errepublikaren gobernuak legeen itzulpenak onartzen ditu, kontuan hartuz frantsesezko bertsioak duela bakarrik zerbitzu publikoetan erabiltzeko indar juridikoa.

Sinadura aktaren bigarren zatiak zerrendatzen ditu hautatuak izan diren 39 neurriak, gero berrespen erabakiak finkatuko duelarik zein hizkuntzei aplikatzen diren. Hona zein neurri onartuak izan diren III. zatiko 7 artikuluetan, 7.etik 11.era.

Irakaskuntzaren artikuluan 10 neurri. Eskualde hizkuntzak irakatsiko eta erabiliko dira ama eskolan, lehen eta bigarren mailan, lanbide heziketan, unibertsitatean, ikasleen nahiaren eta kopuruaren arabera. Historiaren eta kulturaren irakaskuntza azpimarratua da bai eta ere irakasleen formakuntza. Erakunde batek neurtuko du herri hizkuntzen aitzinamendua. Eskualdez kanpo ere eskualde hizkuntzen irakaskuntza antola daiteke ikasleen kopurua nahikoa bada.

Justiziaren artikuluan neurri bat. Legedia idazkiak eskuragarri izan daitezke eskualde hizkuntzetan, bereziki hitzun horiei doazkien idazkiak.

Administrazioaren artikuluan 3 neurri. Hitzunen kopurua nahikoa delarik, tokiko agintean idazki ofizialak eskualdeko hizkuntzean argitara daitezke: bi baldintza errespetatuz, hitzunek nahi badute eta hizkuntza ofiziala baztertu gabe. Toponimia erabil daiteke jatorrizko molde zuzenean, beharrez izen ofizialarekin batera.

Hedabideen artikuluan 9 neurri. Neurri horiek berehala aplikagarriak dira gaurko egoeran: eskualde hizkuntzezko emankizunak irрати eta telebista publikoetan; entzunezko eta entzun-ikusizko ekoizpenak egiteko laguntzak; hizkuntza berdina duen auzo herriko komunikabideetan sartzeko ahala; komunikabide ezberdinen irekitzeko baimena eta irрати kate oso bat, aldizkari bat, entzun-ikusizko estudio bat; komunikabide horietako langileen formakuntza. Komunikabideen pluraltasuna eta askatuna zaintzeko erakundeetan eskuldeetako hiztunak ordezkatuak izanen dira.

Kulturgintzaren artikuluan 8 neurri. Estatuak onetsiko eta lagunduko ditu ekimenak, itzulpenak, ekoizpenak, antolaketak, egitarauak, sorkuntzak, zabal-kuntzak, mugaz gaineko harremanak.

Ekonomia eta gizarte bizitzaren artikuluan 6 neurri. Legediatik eta erakundeetako araudietarik kenduko dira herri hizkuntzen erabilera mugatzen duten erabakiak ekonomian eta gizarte bizitzaren alorretan. Herri hizkuntzen aurkako jokamoldeak baztertuko dira eta haien aldekoak sustatuko: bankuetako eta saltegietao dokumentuetan, ospitaletan eta osasun zerbitzuetan bereziki, segurtasun aholkuetan eta kontsumatzaileen eskubideak adierazteko idazkietan. Toubon legeak (1994) frantsesa inposatzen du kontratuentzat, publizitarentzat eta abar. Bainan lege honek ez du baztertzen eskualde hizkuntzen erabilera.

Mugaz gaineneko harremanen artikuluko 2 neurriak. Hitzarmenak eginen dira eskualde hizkuntza berdina duten Estatuaren artean. Harremanak eta lankidetzak antolatuko dira hiztunen artean, irakaskuntzaren, informazioaren eta lanbide heziketaren alorretan.

f) Konstituzio Kontseiluaren erabakia (1999-06-15)

Gobernu sozialistaren sinaduraren ondotik, Errepublikaren presidentek Konstituzio Kontseiluari galdegin dio Hizkuntzen Karta onargarria zenetz lege nagusiaren aldetik. Erantzuna hau izan da: «La Charte européenne des langues régionales ou minoritaires comporte des clauses contraires à la Constitution (Eskualde hizkuntzen edo hizkuntza gutxituen Europako Kartak badauzka Konstituzioaren aurka doazen klausulak). Ondorioz Legebiltzarrak ezin du ituna berretsi, Konstituzio Kontseiluaren erabakiak legea baino indartsuagoak baitira.

Hiru dira Konstituzioaren aurka doazen printzipioak: hiztunen eskubide kolektiboak, hizkuntzen lurraldetasuna eta Frantsesaz beste hizkuntzen erabilera publikoa. Alabainan Konstituzioaren lehen artikulua finkatzen ditu hiritar guztien berdintasuna legearen aitzinean eta lurraldea ezin dela zatitu. Bigarren artikulua arabera zerbitzu publikoen hizkuntza frantsesa da. Gobernuaren irakurketa oharra ez da nahikoa, zeren-eta, denboraren buruan,

jatorrizko idazkia da nagusi, oharrak ahanzten baitira (Konstituzioaren 2. artikulua gertatu den bezala). Ondorioz Frantziako eskualde hiztunentzat atea hetsirik dago Europari begira eta ezin dute baliatu itunaren aitzinsolasean dagon abiapuntu nagusiaz:

eskualde hizkuntzak erabiltzeko eskubidea, nola bizitza pribatuan hala bizitza publikoan, ezin ukatuzko eskubidea da.

Zer gelditzen zaie? Adierazpen askatasuna. Ez da gutxi. Baina askatasun batek bestea mugatzen du, hitz egin nahi ez duenarenak, hitz egin nahi duenarena. Aldiz eskubideak eginbidea sortzen du.

Horiek hola begiramen batzuk badira eskualde hizkuntzen alde agertzen direnak. Gutxienez hiru.

1. Konstituzioa irakurtzerakoan bi oinarriko arauen arteko adostasuna bilatu behar da. Alde batetik «Errepublikaren hizkuntza frantsesa da». Eta bestalde «Herritar orok hitz egin dezakela askatasunean». Bi arauak bata bestea mugatzen dute eta dialektika horren arabera ezin da egin Konstituzioaren adiera bakarreko irakurketarik.
2. Oraindik eskualde hizkuntzak zerbitzu publikoetako eremu batzuetan sartuak dira legearen bidez: irakaskuntzan, ikerketetan, komunikabideetan, administrazioarako itzulpenetan. Beraz frantsesaren erabilera publikoa ohizkoa da, baina ez da osoiki eksklusiboa. Legeak publikotasunaren bide berriak ireki ditzake.
3. Hain zuzen gobernuak sinatu dituen eskualde hizkuntzen aldeko beste arauak ez doaz Konstituzioaren aurka. Ondorioz III. zatian dauden 39 neurri berehala hizkuntza lege orokor baten osagaiak izan daitezke.

g) Orain zer?

Ikusiz frantsesaz beste hizkuntzen erabilera osoki sinbolikoa dela eta funtzionaltasun publiko izpirik ez daukatela, zer motibazio zuen Frantziak Hizkuntzen Karta izenpetzeko? Herri nortasunak eta hizkuntz eskubide kolektiboak ukatu-eta, zertarako sina eskualde hizkuntzen ituna?

Errepublikaren ikusmoldea doi bat aldatu da eta bere oinarriko mitoak ukatu gabe hiru arrazoi nagusi baditu frantsesaz beste hizkuntzak onartzeko.

1. Estatuak lurralde hizkuntzak onartzen ditu kultur ondare nazionaltzat (Hizkuntzen Karta, 7. artikulua, 1a). Errepublikaren eginbidea da hizkuntza gutxitu horiek zaintzeko, bereziki suntsitzeko arriskuan direlarik. Ez baitezpada hiztunen eskubideengatik, baina kultur aberastasunaren zaindari delakotz munduaren aitzinean.

2. Adierazpen eskubidearen izenean, herritar bakoitzak askatasuna du nahi duen hizkuntza erabiltzeko. Hori dio 1789ko aitortpenak eta idazki hau errepublikak ukan dituen 5 konstituzioetan sartzen da. Baina giza eskubideak eskubide indibidualak dira, hain zuzen herritar soila zaintzen baitute gizarte indarren aurka.
3. Gizartearen funtsezko hautua delarik, estatuaren eginbidea da tokiko hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko zerbitzu publikoak eskaintzea. Nahikunde soziala da Frantziako hizkuntza araudiaren oinarria, baina baieztatua den neurrian:

la volonté sociale avérée.

Trilogia hau da azkenean diskurtso politiko guzien bilduma. Gogoan izan Lorienteko dizkurtsoa (Mitterrand 1981) edo Kenperren bazkal-ondoko mintzaldia (Chirac 1997). Ele zuri horiek, hauteskunde denboretako fraseologian sartzen dira. Bainan bidea luze da ideologia eta aplikazioaren artean.

III. EUROPAREN ERAGINA IPAR EUSKAL HERRIAN

Ipar Euskal Herrian, Europako erakundeen eragina 1987an agertu zen, Kuijpers erabakiarekin. Euskalgintzako eta kulturgintzako elkarteetan lan egiten zutenek Europako Parlamentuaren dokumentuak erabili zituzten beren argumentazioetan, botere publikoenganik aitzinamendu batzuk erdiesteko. Erran behar da gauzak lehenagotik aldatzen hasiak zirela euskararen alde.

1. Euskalgintza berriaren etapak

Deixonne legea (1951) garrantzizko aldaketa kulturala izan zen Errepublika Frantsesean herri hizkuntzei begira. Lehen aldikotz 7 herri hizkuntza irakaskuntza publikoan sartu ziren lege baten bidez, horietarik bat euskara zelarik. Lege horren balioa gutxiesten dugu, eragin ofizialak 10 urteren buruan agertu baitziren. Baina nolazbait mentalitateak aldatzen hasi ziren eta 1975eko hezkuntza legearen arabera herri hizkuntza guztien irakaskuntza sar zitekeen ikaskuntza maila guztietan.

Anartean Euskal Herrian Ikas elkarte sortu zen 1959an, Piarres Lafitte elkarte buru zelarik. Elkartearen helburua zen euskararen ikaskuntza antolatzea nahi zuten ikastetxeetan. Beste ildo batean lehen ikastola sortu zen 1969an eta urte berean lehen irakasle ibiltaria izendatu zuen Hezkuntza Ministerioak. Denbora berean beste mugimendu batzuk ari ziren euskaltasuna zabaltzen jende helduengan, adibidez Mende Berri, eta 1979an Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK) Iparraldera pasatu zen. Hogeita hamar urtez euskal-

gintza abiadura txikian ibili zen, baina indarrak metatu ziren aldaketa handi-
goak prestatuz.

Aldaketa nagusia 1981ean gertatu zen,

euskara eta euskal kulturaren jardunaldiak (Assises de la langue et de la culture basques)

bildu zirelarik, Ikas elkarteburuaren eta idazkariaren ekimenez, hurrenez hurren Jean Haritschelhar eta Manex Goihenetxe. Egia erran Frantziako bizi-tza politikan zen lehenik gertatu aldaketa nagusia, alderdi sozialistak hauteskondeak irabazi baitzituen. François Mitterrand Presidentearen programak hitzematzen zituen euskaltasunaren aldeko gauza asko: herri kulturen garapena, hizkuntzen legea, Euskal departamendua, hedabideen askatasuna... Ikusiz ate batzuk irekitzen ari zirela, Jardunaldietan bildu ziren 35 elkarteek egitasmo orokor bat eztabaidatu zuten eta zabaldu «Kaier horia» deritzon agiri batean: euskararen irakaskuntza, hizkuntzaren erabilera publikoa, hedabide euskaldunak, kultura erakundea eta beste.

Gainera Pizkundera antolatu zen, euskal elkarten federatzaile, nolazbait eztabaidatik ekintzetara pasatzeko, «euskararen eta euskal kulturaren hazkundera edozein bide egokiz sustatzeko». Federazio hau botere publikoaren mintzakide bilakatu zen. Pizkunderaren bidez manifestaldi handiak egiten ziren noizean behin, «Deiadar» lemapean. Negoziaketa eraginkorrak eraman ziren irakaskuntza mailan bereziki, baina ez bakarrik: Seaskaren onarpena, ikaskuntza elebiduna sare publikoan eta gero sare pribatuan, irakasleen formakuntza, euskal diploma unibertsitarioak, hedabideak hala nola euskal irratiak eta Euskal Telebistaren iparralderatzea, Euskal Kultur Erakundea (EKE)... Mugimendu guzti honen sustengatzeko Europako erakundeen txostenak, erabakiak eta itunak lagunak izan ziren

2. Europako agiriak eta Deiadar aldarrikapenak

Bigarren jardunaldiak iragan ziren 1988ko abenduan oinarritzat hartuz Kuijpers ebazpenean zerrendatuak diren kultura eskubideak. Hona Jardunaldi hauen helburua:

Jardunaldi hauetan bilduak diren elkarteek adierazten dituzte Euskal Herriak dauzkan eskubideak bere nortasuna goratzeko:

- gure gizarteak ingurune euskaldunean bizitzeko eskubidea du, kultur askotako munduan izanikan ere;
- euskaraz ikasteko eskubidea ikasle guztientzat;
- euskaraz mintzatzeko eskubidea, ez bakarrik etxean, bai eta ere lanean eta zerbitzu publikoetan;
- euskal kultura komunikabide zabaletan sartzeko eskubidea.

Berriz ere eskatzen dugu legezko ofizialtasuna euskararentzat eta gure kulturarentzat, Europako Parlamentua gure alde delarik 1987ko urriaren 30eko (Kuijpers) erabakian.

- Gogoeta guztien bilduma egin zen «Euskaldungoaren eskubideak» deitu txostenean. Zortzi kapitulu landu ziren:
- kultur eskubideak eta herri nortasuna,
- euskal erakundeak (Seaska, AEK, UEU),
- ikaskuntza, maila eta sare ezberdinetan,
- euskararen erabilera bereziki gizarte-ekonomia alorretan,
- komunikabideak irratietan eta telebistan,
- kulturgintza, animazioa eta sortzailetasuna,
- herri ondasunak eta ingurunea,
- euskaldungoaren batasuna.

Alor bakoitza aurkeztu zen beti plan bera erabiliz: Europako Parlamentuaren gomendio baten testu osoa, euskaltasunaren azterketa diagnostikoa, Pizkundearen proposamenak bereziki botere publikoei buruz.

Irakur 1. eranskina

1989ko maiatzean, Kultur eskubideen aldeko kanpaina baten ondotik, «Deiadar» lehen elkarretaratzea antolatu zen, Pizkundera, Seaska eta AEK animatzaile zirelarik. Lau eskaera nagusi: Seaska eta Hezkuntza Ministerioaren arteko hitzarmena, irakasleen formakuntza diploma ofizialekin, gau eskolen aldeko finantzamendu publikoa eta «euskal kultur etxea», kultur elkarteen eta hedabideen lagungarri.

3. Euskal Kultur Erakundea eta Herrienarteko Sindikata (1990)

Bi erakunde hauek izan ziren Pizkundera federazioaren lorpen nagusiak, euskaltasunaren geroa baikorki eta luzaro baldintzatuko dituztenak.

Euskal kultur erakundea sortu zen Pariseko gobernu sozialistaren eta Pizkundeko ordezkariaren arteko negoziaketaren ondotik. Pizkundera gutun bat idatzi zuen erakunde berri bat eskatuz, non ere euskal elkarteak eta botere publikoa partaide izanen baitziren, lankidetzan aritzeko euskararen eta euskal kulturaren onetan. Alde batetik aginte publikoaren lau mailek urtero aurrekontua onartzen dute, Estatuak, Akitaniako Eskualdeak, Departamenduak eta Udalerriek. Bestalde euskal elkarteen ordezkariak urteko kultur egitasmoa finantzatzeko, zuzendariaren eta talde profesionalaren laguntzarekin gauzatzeko.

1989 uztailearen 13an, Pizkundearen gutunari erantzun bat eman zion Kultura Ministerioak, bere adostasuna emanez Euskal Kultur Erakundearen sor-

tzeari: araudiaren onarpena, administrazio kontseiluan parte hartzeko xedea eta 1989ko diru-laguntza. Dokumentu hau da erakundea ofizialki oinarritzen duen idazkia.

1990ko apirilaren 7an, Baionako komertzialdegian egin zen biltzar nagusi sortzailean, 67 elkartek parte hartu zuten eta botere publikoen ordezkari guztiek, araudia eta aurrekontua onartzeko, bulegokideak bozkatzuz hautatzeko eta zuzendaritza izendatzeko. Ramuntxo Camblong izan zen lehen elkarteburua eta gero Erramun Baxok; Txomin Heguy lehen zuzendaria eta gero Pantxoa Etchegoin.

1990eko ekainaren 30ean, Ipar Euskal Herriko 140 udalerrietako ordezkariak bildu ziren Baionako Herriko etxean, «Euskal kultura sustengatzen duen herrienarteko sindikata» (Herrienarteko Sindikata) antolatzeko eta lehendakaria izendatzeko. Lehen ideia zen ekonomia eta kultura uztartzea. Baina estatuaren ordezkariak bakarrik helburu kulturalera mugatu zuen sindikata, ekonomiarentzat «beste egitura bat» izanen zela hitzemanetz. Sindikata mugatua onartu zuten baina ekonomia eta kultura bereizteak atsekabea piztu zuen, bai kulturzaleenganik bai herri kontseilarienganik. Bernard Auroy, Uztaritzeko auzapeza izan zen lehen sindikataburua.

Bi erakunde hauen garrantzia azpimarratzeko, hona ohar batzuk, Europako Parlamentuaren izpirituari lotuak direnak:

1. Beharrezkoa da aldarrikapen borrokatik antolaketa instituzionalera iragaitea, zentzuzko elkarlan batean jokatzuz botere publikoekin. Elkarteen batasuna eta ausardia hor baitziren, bai eta ere botere publiko batzuen boluntarismoa (arduradun publiko guztiak galdezkatuak izan ziren, Ministeriotik Euskal Herriko udalerrri txikieneraino), Euskal kultur erakundea eredu bilakatu da, geroztik gizarte zibila eta gizarte politikoa lotzen duen «governantza» berriarentzat.
2. Euskal Herriko udalerrri guztiek lankidetzan jokatu behar dute, udalerrietan erabakitzen baita euskal nortasunaren golea. Herrienarteko Sindikatak ongi ulertu du eta ekintza guztietan sartu da, nola irakaskuntzan, hala hedabideetan, kulturgintzan eta hizkuntz politikan.
3. Kulturgintzaren eta euskalgintzaren arteko sinergia baitezpadakoa da. Bai eta ere herrigintza eta kulturgintzaren artekoa. Lan zatiketa beharrezkoa da alor bakoitzean. Baina edozein estrategitan bakoitzak go-goan ukan behar du urraspide osoa. Urrats bat huts egin eta dena huts eginga da. Kulturaren garapena eta ekonomiarena elkarri lotuak dira. Hori zen euskal sindikataren abiapuntua. Ideia berriz aterako da Euskal Herri 2010 prospektibarekin.

4. Euskararen Agiria (1994-10-15)

1994a, oso data emankorra izan zen Ipar Euskal Herriarentzat. Alde batetik Europako Parlamentuak onartu zuen Kililea erabakia, bi urte lehenago Europako Kontseiluak proposatu zuen Hizkuntzen Karta. Jarraian Pizkundek eta Deiadar kolektiboak zabaldu zuten «Euskararen Agiria». Bestalde Iparraldean abiatu ziren Lurralde antolaketaren lanak, besteak beste egitasmoan ezarri «hizkuntz antolaketa», geroxeago «hizkuntz politika» bilakatu dena.

Euskararen Agiria, *Hirugarren Jardunaldien* emaitza da. Berriz ere euskal elkarteak bildu ziren «euskararen aldeko oinarrizko neurriak finkatzeko eta koordinazio gune iraunkorra sortzeko». Agiria argitaratu zen herritarren, elkarten eta erakundeen onarmena eskatuz. Zazpi kapitulutan banatuak diren 40 neurriak, «hizkuntzaren eremu osoa estaliko duen politika» baterako proposamenak dira. «Herri hizkuntzen Eurokarta da politika honen abiapuntua eta ofizialtasuna helburua».

Europako hizkuntz politikari etengabe erreferentzia egiten dio Euskararen Agiriak. Hona hiru aipamen, «administrazioa eta legedia» kapitulutik:

4. Lehenbailehen, Frantziak onartu eta sinatu behar ditu Europar lekuko hizkuntzen egoera normaltzeko onetsi diren erabakiak eta legeak, bereziki 1992ko hizkuntza gutituen eurokarta, 30 Estatuk onartua 50 milioi hiztunen onetan.

5. Epe laburrean, gobernua legegai bat aurkeztu behar du, Estatu frantseseko hizkuntzen onartzeko eta legezatzeko, frantsesaren aldeko legegai bezain laster eztabaidatzeko. Lege horrek euskararen ofizialtasuna onartuko du eta lehengo diskriminazioak indargabetuko.

6. Ahal bezain laster, eta Eurokartak onesten duen bezala (7.art, b), Ipar Euskal Herria kudeatuko duen instituzio politiko-administratibo berezia sortu behar da. Instituzio honek bere gain hartuko du euskararen normalizaziorako ardura publikoa.

Irakur 2. eranskina.

Agiriaren lehenbiziko ondorioa izan zen egitura federatzaile berri bat erakitzea, Euskal Konfederazioa, Pizkunda federazioaren eta Deiadar kolektiboen jarraipenean. Helburua da euskaraz, euskal kulturaz, kirolaz, irakaskuntzaz eta hedabideez arduratzen diren federazioak, elkarteak eta pertsonak biltzea, «euskara salbatzeko baitezpadakoak diren neurriak berehala hartzeko eta gauzatzeko denborarik galdu gabe».

Laburbilduz, Europako hizkuntz zuzenbidea izan zen Deiadar mugimenduen hazkurri, zeinek ondorio iraunkorrak eman baitzituen:

- Euskaldungoaren eskubideen aldarrikapena;
- Euskararen Agiria eta Euskal Konfederazioa;

- lorpen praktiko anitz: ikastolen onarpena, irakasleen diploma ofizialak, ikasgela elebidunak, helduen euskalduntzeko finantzamendu publikoa, euskal hedabideak, besteak beste;
- Euskal Kultur Erakundea eta Herrienarteko Sindikata (edo Euskal Udalartea), geroko erakunde askoren eredu bilakatu zirenak.

Falta zen Euskararen agiriak aipatzen duen « instituzio politiko-administratiboa», beste bide batetik etorriko dena, hain zuzen lurralde antolaketatik.

5. Geroari buruz: euskalgintzatik herrigintzara

Egia da Europako Kontseiluan ere antzeko urraspide bat gertatu zela Hizkuntzen Kartatik gutxiengoaren hitzarmenera. Alabaina Europa batuko erakundeak Estatuaren erakundeak dira. Egoki zen Europako Kontseiluak eztabaida zezan eta proposa «Nazioetako gutxiengoak babesteko hitzarmen nagusia» (1994). Pertsona guztiek askatasun, eskubide eta zerbitzu berdinak hartze dituzte, edozein izan dadin bere nortasuna, nazioa, etnia, kultura, hizkuntza edo sinesmena. Zuzenbide hau indibiduala da bai eta ere kolektiboa. Frantziaren ordezkariak idatzia onartu zuen ohizko erreserba ezarri: Errepublika Frantsean ez dago gutxiengorik, herritar guztiak berdintasunean baitira legearen aitzinean, laiotasunaren izenean, edozein izan dadin bere nortasuna edo erlijioa. Ondorioz Gutxiengoaren Hitzarmenak ez du oihartzun handirik izan herrialdeetan, salbu Britainian eta Alsazian, federalismoa eskatzeko.

Ipar Euskal Herrian herrigintzak beste bide bat hartu du, lurralde antolaketaren bidea, Pasqua legearen (1992) eta Voynet legearen (1999) ildotik. Lege hauen oinarriko filosofia da herri bereziak (*pays*) badaudela, bizikidetzak, tokiko ekonomiak eta kulturak definiturik. Deszentralizazioaren izenean, herri bakoitzak baliabide gehigarriak hartze ditu, garapen urraspidean sartzeko, gizarte zibila eta gizarte politikoa elkartzen duen «gobernantzaren» bidez. Kulturek eta hizkuntzek badute beren lekua, lurralde antolaketan:

article 14: Le schéma ... détermine les actions à mettre en œuvre pour assurer la promotion et la diffusion de la langue française ainsi que la sauvegarde et la transmission des cultures et langues régionales ou minoritaires

(antolaketa eskemak eginkizunak finkatzen ditu hizkuntza frantsesaren garapena eta zabalkuntza segurtatzeko, bai eta ere eskualdeetako kultura eta hizkuntza gutxituak zaintzeko eta jarraikiarazteko). Ondorioz Frantziako hizkuntza guztien antolaketa politika publikoan sartzen da.

Euskal Herri 2010 gauzatu da Garapen Kontseiluaren (gizarte zibila) eta Hautetsien Kontseiluaren (gizarte politikoa) eskutik. «Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskema» (1996) proposamen guztien bilduma da. Deiadar aroan sortu ziren euskal erakundeak eta elkarteak garapen dinamikaz baliatu zi-

ren, hizkuntz antolaketa eztabaidatzeko eta onarrarazteko, Quebecoko ereduari jarraikiz.

Jarraian Estatuak eta tokiko agintek izenpetu zuten «2001-2006 Hitzarmen Berezia». Kontratu politiko honetan sartzen dira proposatu ziren 79 neurri, 10 kapitulutan zerrendaturik, lehen kapituluaren atalburua «Hizkuntz politika» delarik. Lehen aldia da izendapen hau agertzen dela, agiri ofizial batean. Eta hizkuntz politika eramateko Euskararen Erakunde Publikoa eraiki da, gizarte politikoaren esku dagoena, elkarreak aholku batzordean daudelarik proposamenak egiteko.

Denbora berean herri mugimendua ere antolatu zen, urraspide osoa akulatzeke. Batera Plataforma Baionako Komertzialdegian sortu zen 2002ko abenduaren 14ean. Haren ituna 110 elkarte, sindikata eta mugimenduk izenpetu zuten, gizarte zibilaren parte handi bat ordezkatzuz, abertzalegoa baino urrunago. Batera itunak lau aldarrikapen dauzka: euskararen ofizialtasuna ardiestea, euskal laborantza ganbara eraikitzea, euskal unibertsitatea egituratzea Baionaldean, euskal departamendua sortzea.

Bi dinamika paralelo horiek jarraitzen dute. Europaren eragina nabari zen Deiar aroan eta gero hizkuntz politika antolatzean. Gaur egun Europa geldialdi batean dago, Frantziak konstituzioari eza eman duen puntutik, Euskal Herriak bai erranikan ere. Nizako ituna bururatuko delarik, egitura berri bat asmatu beharko da, herri eta kultur aniztasuna bultzatuko duena.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

Hizkuntza gutxituei buruzko corpus juridikoa, txosten honen 1. orrialdean.

BAXOK ERRAMUN: Euskararen prospektiba, in Jakin 114, 1999.

— Euskalgintza hitzartua Ipar Euskal Herrian, in Euskera 2002-2, 961. orrialdean.

BILBAO SARRIA PAUL: Europako Itun Konstituzionalak eskubide gabe utzi ditu hizkuntza-komunitate ugari, in Uztaro 58, Udako Euskal Unibertsitatea 2006.

CARCASSONNE GUY: Etude sur la compatibilité entre la Charte européenne des langues régionales et minoritaires et la Constitution, 1998.

CERQUIGLINI BERNARD: Les langues de la France. www.culture.gouv.fr/dglf/, avril 1999.

Convention spécifique Pays Basque 2001 – 2006, 22 décembre 2000.

CONSEIL DE L'ETAT: Avis n° 359 461 du 24 septembre 1996.

CONSEIL DE L'EUROPE: Charte européenne des langues régionales et minoritaires, Strasbourg, 1992.

CONSEIL CONSTITUTIONNEL: Décision n° 99-412 DC du 15 juin 1999.

Constitution française du 28 septembre 1958.

CONSEIL DE L'EUROPE: Convention-cadre pour la protection des minorités nationales, 1994.

COYOS JEAN BAPTISTE: Politique linguistique. Langue basque et langue occitane du Béarn et de Gascogne, Elkar 2004.

DEIADAR: Euskararen Agiria. Manifeste pour la langue basque. Baiona 1994. (2. *eranskina*)

EUSKAL HERRIKO ANTOLAKETA ETA GARAPEN ESKEMA: 1. norabide orokorrak 1996ko urria; 2. deklinabide eraginkorrak 1997ko martxoa; 3. karten bilduma.

EUSKO JAURLARITZA: Euskararen Jarraipena III, 2001.

ETXEBERRIA BALERDI FELIX: Elebitasuna eta hezkuntza Euskararen Herrian, Ibaeta pedagogia, Donostia 1999.

EYSSERIC VIOLAINE, Le corpus juridique des langues de France. www.culture.gouv.fr/dgIf/, avril 2005.

GRAU GÉRARD: Langues et cultures en France contemporaine, Conseil de la langue française, Québec 1982.

JAKIN 104: Ipar Euskal Herria egituratze bidean, Ramuntxo Kanblong, Peio Olhagaray, Koldo Gorostiaga, urtarrila-otsaila 1998.

MODERNE FRANÇOIS, Problématique juridique du statut et de l'enseignement de la langue basque, Conseil des Elus, Chambre de commerce et d'industrie, Bayonne 2004.

PIZKUNDEA: Euskaldungoaren Eskubideak. Les Droits culturels basques. Baiona 1988. (1. *eranskina*)

POIGNANT BERNARD, Langues et cultures régionales. Rapport au Premier ministre, La documentation française, 1^{er} juillet 1998.

TOUBON JACQUES RAPPORTEUR: Loi n° 94-665 relative à l'emploi de la langue française, 4 août 1994.

1. ERANSKINA
EUSKALDUNGOAREN ESKUBIDEAK
LES DROITS CULTURELS BASQUES
(Bilduma – Synthèse)
Bigarren Jardunaldiak: 1987/12/05 - 1988/02/12

AITZIN SOLASA

Lehen Jardunaldietan 25 euskal elkarte bildu ziren agiri baten inguruan «Pour un statut de la langue et de la culture basque» (1981) 1984an elkartek federazio bat sortu zuten Pizkundera, elkarrekin hartu erabakien akulatzeke. Ondorioak hor ditugu: aitzinatze zerbait eta atsegabe asko.

1986az geroztik gure egoera gaizkondu da kasik eremu guzietan. Pizkundera, 1987ko otsailaren 27ko bilkuran, bere gain hartu zuen eztabaida zabal baten antolatzea euskal kulturaren geroari buruz. Alor honetan lan egiten duten guziak gomituak dira beren gogoetak adieraz ditzaten, 1982ko txostenaren berritzeko. Hona zein diren Bigarren Jardunaldi hauen helburuak:

1. ikus zertan diren kultur ekintzak;
2. finka helburu batzuk gaurko gizarte eta egoera politikoaren arabera;
3. jarraikizko elkarlan baten helbideak antola, elkarte bakoitzaren xedek errespetatuz.

Lan-taldeen txostenak zabaldu genituen 1987ko abenduaren 5ean. Orain lankidetzaren antolatu behar dugu: «Euskaldungoaren eskubideak» deitu bildumaren helburua da. Kultur alor bakoitzarentzat Europako Parlamentuaren Kuijpers Erabakia (30-10-1987) aipatzen da. Gero egoeraren laburpen bat ematen. Azkenean helburuak finkatzen gure ekintzen gidari.

Gaiak:

1. Kultur eskubideak
2. Euskal erakundeak
3. Ikaskuntza
4. Euskararen erabilera
5. Komunikabideak
6. Animazioa eta sortzailatasuna
7. Herri ondasunak eta ingurunea
8. Euskaldungoaren batasuna

1. KULTUR ESKUBIDEAK (laburpena)

Nortasunaren eskubidea

Herri guziek daukate bere nortasunaren zaintzeko eta lantzeko eskubide ezin ukatuzkoa. Estatu frantsesa «giza eskubideen herria da» diotenez. Baina herrien eskubideak ez ditu onartzen. Ondorioz kultura ezberdinak legez kanpo daude.

Gure eskubideak adierazi

Jardunaldi hauetan bilduak diren elkarteek adierazten dituzte Euskal Herriak dauzkan eskubideak bere nortasunaren goratzeko:

- gure gizarteak ingurune euskaldunean bizitzeko eskubidea du, kultur askotako munduan izanikan ere;
- euskaraz ikasteko eskubidea ikasle guzientzat;
- euskaraz mintzatzeko eskubidea, ez bakarrik etxean, bai eta ere lanean eta zerbitzu publikoetan;
- euskal kultura komunikabide zabaletan sartzeko eskubidea.

Berriz ere eskatzen dugu legezko ofizialtasuna euskararentzat eta gure kulturarentzat, Europako Parlamentua gure alde delarik 1987ko urriaren 30eko Kuijpers Erabakian.

Gu gara mende berrian

Euskal mugimendua geroari buruz itzulia da. Europako eremu zabalean, Euskal Herriak bere nortasun berria agertzen du aspaldiko herria balin bada ere. Iharduki dezagun estatuen berdurkerien aurka. Guri da harremanak lotzea Nafarroa eta Euskadi autonomoarekin. Moda zaharretik mende berrira iragaitan nazioarteko eskubideak eta Europako erakundeak gure alde daude. Laguntza emanen digute kultur demokraziaren eraikitzen. Baina guri da demokrazia hortaz jabetzea.

Hori bera da Jardunaldien helburua, eskakizunak eta eginbideak finkatzen ditugularik alor nagusietan: ofizialtasuna, ikaskuntza, euskalduntzea, komunikabideak, herri ondasunak, sortzailetasuna.

2. EUSKAL ERAKUNDEAK

Europako Parlamentuaren (2.) erabakia: «Kide diren estatuek ofizialki onar ditzatela elkarteek legeen arabera sortu dituzten ikastetxeak, herri hizkuntza erabiltzen dutelarik ikas hizkuntza nagusizat».

Lehentasuna eman behar diegu herriak sortu dituen eta euskaraz lan egiten duten erakundeak. Hauek dira nortasun osoaren jabe izanen den Euskal Herriaren oinarriak: ikastolak, gau eskolak, Udako Euskal Unibertsitatea, euskal irriatiak, Euskal Telebista Bat, antzerki, bertso eta pastoral taldeak, euskal aldizkariak (*Herria* eta *Maiatz* Iparraldean), liburugintza. Elebidun erakundeek ere badute beren balioa, erdaldunei ematen badiete gure kulturaren gustua eta euskaldun-zeko gooa. Azter ditzagun ikaskuntzaz arduratzen diren herri erakundeak.

A) IKASTOLAK (laburpena)

Egoera

Ikastolen helburua da euskal ikaskuntzaren antolatzea. Hastean ikasleek euskara bakarrik erabiltzen dute, baina lehen maila bururatzean osoki elebidun bilakatzen dira. Ikastola ez da alderdi edo gizarte klase baten eskola, herri oso-arena baizik.

Ikastolak zerbitzu publiko bat betetzen du euskara eta gure kulturaren alde. Beraz diru publikoa hartze du. Seaska 1969an sortu zen 1901eko legearen gerizapean. Gaur egun kudeatzen ditu 19 ama-eskola, 10 lehen mailako eskola eta bigarren mailako ikastetxe bat. 1987ko irailean 878 ikasle dira 2 urtetarik 17 urtetara eta 89 lankide ikaskuntzan eta administrazioan.

Seaskak eta Bordeleko Errektoreak onartu lantalde batek neurtu zituen ikastoletako ikasleen jakitateak 1983-1984eko ikasturtean. Hona batz-beste ardie-tsi zituzten notak: euskaraz 17,5 / 20, frantsesean 15,5 / 20, matematiketan 16,5 / 20. Froga da elebitasunak ez duela ikaskuntza tratatzen, laguntzen baizik.

Gaurko egoera sekula baino zailago da. Hezkuntza Ministerioak onartu zuen integrazioa, gero Lege Biltzarrak ukatu zuen. Geroztik hitzarmena ezin antolatua da frantsesaren programagatik. Seaskako kideak beren euskal ikaskuntzari atxikiak dira, ondorio onak frogatu baititu ikasgai guzietan.

Eskabideak

Diru auzia (12 milioi liberako buxeta) lehenbailehen trenkatu behar da. Ikastolen eta euskararen salbatzeko bi gauza eskatzen ditugu:

- diru laguntza publikoa beste eskolen heinean;
- euskal ikaskuntzaren legezko onarpena.

B) AEK GAU ESKOLAK

AEK-ren helburuak

AEK-ren helburu nagusia Euskal Herri osoaren berreuskalduntzea da, hots Euskal Herriak euskara berreskura dezan. Bide honetan AEA-k sail berezi baten ardura dauka: jende helduen alfabetatzea eta euskalduntzea. Beraz, euskal hitzun anitz epe laburrean sortzea hartzen du AEK-k helburutzat:

euskal hitzun: euskara zinezko komunikabide-tresna bezala erakatea, euskaldun berriek eta besteek mintzabide gisan balia dezaten erreztasunez.

anitz: euskararentzat hitzun eta beraz ikasle kopurua hil edo bizikoa baita, gau eskolak herri eta auzo gehienetan sortzea dugu helburua.

epe laburrean: ikas prozesua egin ahala laburtu behar da eraginkortasunagatik: oinarriko hizkuntza bat erakasten ahal da, mugatua baina ongi programatua, gero ikasleak hizkuntza osoa beregana dezan.

Helburu horien gauzatzea

Iparraldean sortu zenetik AEK helburu horiei buruz abiatu zen:

- a) Ikaskuntza zerbitzua antolatuz lau sailetan, euskalduntzea, hobekuntza, alfabetatzea eta irakasleen moldakuntza: arratseko klaseak 4 edo 6 oren astean, eguneko klaseak 6 edo 10 oren astean; moldakuntza jarraikia lantokian edo lan-tenoreetan; ikastaldiak aste bat edo biz-pahiru segidan; aktibitateak euskaraz, bidaiak, mendizale ikastaldiak; zülülü ikasleak familia euskaldun batzuetan errezibitzea.
- b) Pedagogia hobetuz: *Jalgi Hadi* metodoa Iparraldekotua, hornidurak, programaketak irakasleentzat materiala hilabetea eta mailaka eginez, «euskaraz eta kitto» dozierrak ikasleendako.
- d) Ingurumen euskalduna sortzen lagunduz: irratiko emankizunak, animazioak euskal biltokietan, afariak, parekatzeak bestaldeko klaseekin, mendi ateraldiak, kirol taldeak, euskal gizartea ezagutzeko ateraldiak.
- e) Euskararen aldeko dinamika herritar bat sustatuz: *Korrika* 5 aldiz, *Kanpainak* 3 aldiz, *Aekantuz* 3 aldiz.

Ondorioak ikasleengan

Hona hemen ikasle kopuru zenbait AEK sortuz goroztik Iparraldean: 1979an 530, 1982an 642, 1984ean 1003, 1987an 534. Jakinez urte batetik bes-

tera kasik ikaslegoaren erdia galtzen dugula, zortzi urtez 2.500 jende inguru hunkitu ditu AEK-k. Ikaslegoaren parterik handiena lehen mailakoa da. Ikasle horiek dute bide luzeena egin behar eta bidenabar anitz gelditzen dira bide bazterrean. Ondorioz, ikas prozesuaren aitzinatzearekin ikasleen kopurua ttipitzen da.

AEK-k publiko erdalduna hunkitzen du gehienik. Jende berria bereganatze honek frogatzen du egiten duen kontzientziatze lana ondoriotsua dela. Al-diz ikaslego euskalduna nekez biltzen dugu. Alta behar konkretu batzuk gero eta gehiago agertzen dira: irrati emankizunak, artikulua, euskarazko produkzioa etab. Behar guzi horiei arropu bat eman nahi genieke, erakaskuntza euskal gizartean zinez emankorra gerta dadin.

Oro har gure ikas prozesuaren ahulezia eta eraginkortasun eskasa nabariak dira. Hain segur badugu zer egin eta hori ikusirik entseetzen gara ikas prozesua hobetzen: pedagogia, ikasleendako dozierrak, züzülü ikastaldiak eta beste. Baina bestalde ere euskal gizartean gibelapen etengabeak muga latzak ezartzen dizkigu: ikasle anitz «kronikoak» bilakatzen dira, klastetik kanpo ez baitute ingurumenik atzematen eta klasea baita haientzat euskaraz mintzatze-ko eremu bakarra.

Erakaslegoa beti dilingo

Erakasle kopuruak ikasle kopuruaren gorabeherak segitu ditu: 1979an 60, 1984an 120, 1987an 80. Ez ditugu gure beharrak betetzen 80 horiekin. Alabaina gero eta zailago da erakasleak atzematen, 4 edo 6 oren klase astean emaitako prest direnak.

Erakasle guzi horiek ez dira batere profesionalak. Gehienetan militantismoz dira bilduak eta beharrean bortxaz hartuak. Ondorioz moldakuntza egoki bat eskaintzea izigarri zaila zaigu. Baldintza txarretan ari diren erakasleak fite akitzen dira eta urtero erakaslego berri batekin ari behar dugu (8 urtez 250 baino gehiago).

AEK-eskola hortarako bultzatu dugu: euskararen ezagutza barnatzeko eta euskaraz aritzeko trebetasuna lantzeko. Gure saila azkartuko da euskararen aldeko borroka azkartu arau. Eta ondorioz euskararen ikasteko eta lantzeko beharrak emendatuko diren heinean.

Gure proposamenak

1. SIADECO-k egin inkesta bururatzea kostaldea ere hartuz. Errealitatearen ezagutzatik funtsezko betekizunak agerian izanen ditugu.

2. Egoera orokorki ikusi ondoren, helburuak eta lehentasunak ditugu finkatu behar, gero eskakizun konkretuak mailakatzeko premien arabera.
3. Euskarak izan behar du lehentasuna (praktikan eta egituretan), herri zerbitzuak azkartu eta ezagutu behar dira eta herri dinamika bultzatu behar da. Hiru ardatz horiek finka lezakete berreuskalduntzerako zinezko proiektu bat.
4. Eta honen egiteko Europako Parlamentuan bozkatua izan den mozioa abiapuntua izan daiteke.

C) UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

Historia

Udako Euskal Unibertsitatea (UEU) 1973an sortu zen Iparraldean, hain zuzen Donibane Lohizunen, mugaz bi aldeko jendeak parte harturik, bai ikaslego bai eta ere irakaslego aldetik. IKAS elkarteak antolatzaile zelarik. 1975 eta 1976an Ustaritzen «Landagoien» etxean ukan zuen UEUK bere egoitza. 1977tik gaur arte, ikasle gehienak Hegoaldekoak zirelaketz, Iruñera aldatzea erabaki zen. «Larraona» ikastetxean egiten dira ikastaldiak, 600 – 700 lagun biltzen direlarik. 1985az geroztik, UEUKo kanpusak badira Baionan eta Donostian.

Helburuak

1975ean, Uztaritzeko hirugarren ikastaldian onartu zen Agirian finkatu ziren UEUren helburuak:

«Euskal Herriko Unibertsitateak euskal gizartea ukan behar du bere ardatz gisa, euskal gizartea bere osotasunean harturik ... Euskal Unibertsitateak, Euskal Herria osatzen duten herrialde guztiena izan behar du: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Zuberoa eta Nafarroa biena».

«Euskal Herriko Unibertsitateak euskaraz behar du jardun nahitaez. Ezin onar dezakegu elebitasunik eta Euskal Herri osoa euskalduntzea dugu geure xede».

«Euskal Unibertsitateak Euskal Herriko jende guztia hartu behar du kontuan, inolako diskriminaziorik gabe, nola Hegoaldean hala Iparraldean, kapitalismo sistemari azpia jaten ahaleginduz».

Laburtuz, helburua hirukoitza da: «Unibertsitate nazionala, euskalduna eta herritarra». Argi dago xede hauek beste unibertsitateek ez dituztela betetzen. Eta arrazoi horiengatik, UEUK, gaur egun, bere izaiteko funts osoa baiduelakotan gaude.

Proposamenak

UEU nazionala erraten dugularik, azpimarratu behar da, lurralde bakoitzak askatasun osoa duela bere ikastaldiak antolatzeko, gai, data ala molde. Erabakitze horretan, helburu hauek onartzen dituen nornahik, pertsona, erakunde edo elkarte, parte hartzeko eskubide osoa du. Hemendik gomita eta dei zabal bat egiten dizuegu. Ildo hontarik jarraikiz, aurtengo ikastaldia bururatu ondoren, ohar batzuk egin nahi genituzke:

- Jende anitz ez balin bada izan ere (arrazoiak bat baino gehiago izan direlarik), Gure Irratiak hartu duen leku handia azpimarratu nahi genuke eta hori garrantzitsua da.
- Ikasleagoa zabaldu behar da: betidanik parte hartzen duten elkarteez gain (AEK, Seaska...), frantses unibertsitateetan eta Iparraldeko lizeoetan dauden ikasle euskaldunengana, eskola publiko eta pribatuetako euskal irakasleengana hurbilduz.
- Jende mota berri bat inplika dadila UEUko antolatze eta osatze laneetan; molde horretan Iparraldeak dituen kultura, politika, ekonomia eta gizarte mailako galdera, eskakizun eta beharrei hobeki erantzunen zaie.

3. IKASKUNTZA (laburpena)

Europako Parlamentuaren 5. gomita:

- *herri hizkuntzari eman behar zaio neurri ofiziala eta estatu hizkuntzarekin berdintasunean ezarri ikaskuntza mailan, ama-eskolatik unibertsitateraino;*
- *irakasleak formatu eta ikastresnak antolatu;*
- *herri diploma eta agiriei balioberdintasuna eman.*

Lehen mailan

Gaur egungo euskal ikaskuntzaren egoera aztertzerakoan, eredu edo ikasmolde berezi batzuk definitu behar dira ama eskolan eta lehen mailan:

A eredu: ikaskuntza guziaz frantsesez egiten da eta ikasleek euskara ikasten dute ibilkariekin asteen 3 orenez. 1985ean 4.506 ikasle baziren eskola publikoetan (%25) eta 2.464 eskola pribatuetan (%37).

B eredu: daude eskola elebidunak: ikaskuntza euskaraz eta frantsesez egiten da irakasle ezberdinekin. Aurten (1987an) 400 ikasle dira eskola publikoetan eta 155 eskola pribatuetan.

D ereduari daude ikastolak: ikaskuntza euskaraz egiten da eta frantsesa mailaka sartzen da. Aurten 760 ikasle dira, bigarren maila bestalde.

X ereduari ez da euskararik ikasten eta zorigaitzez hemen daude ikasle gehienak: eskola publikoetan %75 eta eskola libretan %63, 1985eko urtean.

Beste mailetan

Bigarren mailako ikastetxeetan erabil genezake sailkapen berdintsu bat. Euskara hautazko ikasgaia da edo bigarren hizkuntza bizia, 300 ikaslerentzat ikastetxeetan (%2,3), 1.000 ikaslerentzat ikastetxe pribatuetan (%12). Egia erran ikasle gehienak X ereduari daude. Seaskaren Bigarren Mailako 114 ikasleek bakarrik beren ikasketak euskaraz egiten dituzte.

Gaineko mailan, Euskal Institutuan 50 ikasle badabilta. Eukal hizkuntza eta literaturazko ikastunitateak badira Bordele, Paue eta Tolosako unibertsitateetan. Euskal hizkuntza eta kultur diploma ematen da Baionan eta Pauen, bai eta literatura eta zibilizazio diploma Bordele III.lean. Euskal jakitate aitzinatuen diploma (DEA) ardiets daiteke Baionan, Bordele eta Paueko unibertsitateen gerizapean.

Gure eskabideak

- Euskal ikaskuntza Euskal Herriko haur guzientzat;
- A ereduari B ereduari iragaitea klase elebidunak hedatuz;
- euskal diploma ofizialak.

4. EUSKARAREN ERABILERA

Europako Parlamentuaren 9. gomendioa:

- *herri hizkuntzak erabiliko dira gizarte eta ekonomia alorretan;*
- *lan-leku publikoetan, postetxeetan, adibidez;*
- *diru harremanetan, postatxekeetan, banketxeetan;*
- *erosleen informatzeko eta salgai argibideetan;*
- *bide seinaleetan eta karrika izenetan.*

Euskalduntzea

Euskaltasuna familiatik eta eskolatik hasten da. Halere erdaldun helburtuetan ere ikasmolde ezberdinak antolatu behar ditugu nahi duten guzietan ukan dezaten euskalduntzeko ahalmena. Adibidez:

- gau-eskolak helduen alfabetatzeko eta euskalduntzeko ikaskuntza jarraikiaren moldean, nahiz lantegi eta erakundeekin elkarlanean;
- familia osoak euskalduz guraso elkarteetan bitartez, Elebi ala Ikas-Bi, haurrek euskara eskolan ikasten dutelarik;
- multimedia ikasbideak euskal teleikaskuntza zabaltzeko bizi multzoetara ino eta nork berek ikasi nahi dutenentzat.

Euskararen erabilera

Ikerketa bat egiten da Iparralde guzian (Kostaldean ezik) ikusteko zein den euskararen lekua gizarteetan. Hain segur gibelatze lazgarria agertuko da, 1970ean Pedro de Irizarrek aztertu zuen hizkuntz egoeradanik.

Beraz euskaldunek xedea hartu behar dugu euskararen erabiltzeko egoera orotan. Bestalde jokamolde batzuk asmatu behar ditugu euskararen gizarteetan zabaltzeko euskaldunen gogoa piztuz, elebitasuna negoziatuz administrazioan (herriko etxe, postetxe, bide seinaleetan), bai eta ere zerbitzu publikoetan (salerospen, kirola, osagarri erakundeetan), jende eta lekuen euskal izenak erabiliz.

Lehen «Euskarari Bai» kanpainak gure hizkuntzaren aldeko indarrak sustatu zituen. Aurten «Bateginik» kaipanaren helburua da Euskal Herri osoaren biltzea «Euskara hizkuntza nazionala» lemaren inguruan. Karia horretara elkarrekin oroituko dira euskara dela gure nortasunaren oinarria eta horren araberako xedea hartuko dituzte beren ohizko ekintzetan.

5. KOMUNIKABIDEAK

Europako Parlamentuaren 7. gomendioa:

- *herri hizkuntzak erabiliko dira komunikabide zabaletan;*
- *sar dadila estatu eta lurraldeetako irrati telebistetan, jarraikizko eman-kizunak segurtatuz;*
- *herri gutituek teknika eta diru laguntza ardietsiko dute gehiengoaren neurri berdinean;*
- *berriketarien eta irratilarien formakuntza antolatuko da;*
- *herri hizkuntzak komunikazio tresna berriez baliatuko dira.*

Komunikabide zabal asko dira gaur egun: aldizkariak, irratiak, telebista, entzun-ikusgailuak bereziki. Laster hedatzen ari dira harreman tresnak: informatika, telematika, ikusdiska. Gure bizimoldea errotik aldatzen ari da. Liburu kulturaren ondotik elektronikaren zibilizazioan sartzen ari gara. Euskal kultu-

rak ere iraultza honi jarraiki behar dio. Guk ere «Gutenberg galaxiatik Marconi galaxiara» iragan behar dugu. Bestenaz kultura (eta nortasuna) suntsitzeko arriskuan ezartzen ditugu.

A) IRRATIAK

Irrati publikoa

Lehen jardunaldiek garrantzia ematen zioten irrati eta telebista publikoei euskal kulturaren zabaltzeko. Gure lehen eskaeran bi irrati publiko eskatzen genituen, bat osoki euskalduna, bestea elebiduna. Zer erdietsi genuen «Radio France Pays Basque» delakoarengatik? Bietan oren laurdeneko berriketa egunero eta oren oso bat «gai berezia»-rentzat baina erdiko uhinetan. Privatizazio politika izanagatik eskakizun hau hor dago: euskal emankizunak atseginekin entzuten dira eta Euskal Herriko Artistek leku bat nahi dute irrati eta telebista publikoetan.

Euskal irratia

Dena dela zerbitzu publikoaren hutsen betetzeko hiru euskal irrati badabiltza 5 urte hauetan. Zer entzuten diegu?

- Berriketa: lekuko berriak lehenik eta ahal bezainbat denetarik, jendea hunkitzen duten batzuk, kultura abisu eta beste.
- Emankizun bereziak edozein gaiez: gizarte, kultura, kirola, erlisione, laborantza...
- Denbora pasak: konpainiako irratia alor hau hastapenean baztertera utzi genuen. Gero eta gehiago honi buruz heldu gara: kantu eta musika ahal bezain orokorrak, deskantsu soinua ...

Zein dira irrati hauen berezitasunak?

- Lasaiak dira: gero eta gehiago irri moduan euskara eta euskal mundua entzulegoarekin baketu bezala nahi dugu.
- Adieraztasuna (radio d'expression): komunikazioa laguntzen dute, mikroa irekiz beste komunikabideetan ez diren jende eta multzoei.
- Kulturaz arduratzen dira: erreferentzia berri batzuk sorrarazten dituzte irratia eta euskal kulturaren aurpegi dinamiko bat erakutsiz
- Herrikoiak dira eta herriaren nortasun osoa agertzen eta zaintzen dute. Orain euskaldunek eta erdaldunek gure hizkuntza nonahi eta noiznahi entzun dezakete.

Geroari buruz egin beharrak

Irratilarien lanpostuak segurtatu behar dira. Ez da erraz izanen, zeren estatuarengatik ukan ditugun laguntzak jarraikiko diren ez baitakigu. Altaba SMIGa baino gehiago hartze lukete. Euskal irratiek zerbitzu publiko bat betetzen dute eta hortakotz laguntza publikoa hartze dute. Estatu, lurralde eta departamenduarekin hitzarmenak eztabaidatu behar ditugu jarraipena segurtatzeko, irratilariak ordainduz eta tresneria berrituz.

Tresneriak berritu behar dira eta diskotekak aberastu. Kalitatea ere hobetu, adibidez euskararen aldetik, sorkuntza gehiago eginez eta irratien artean lankidetzaz handiago ezarriz. Gainera entzun-ikusgailuen eremuan zein-gehiegoka bortitza da. Gure irratiek bakarrik beren hobekuntzari esker atxikiko dute beren entzulegoa. Baina hiru irratiek frogatu dute irratia euskalduna egiten badakitela, ikasi dutelakotz.

B) EUSKAL TELEBISTA IPARRALDEAN

Zertan gara?

Entzun-ikusgailuen legearen arabera, FR3 kateak eskualdeetako emankizunak zabaldu behar zituen, herri hizkuntzei garrantzia berezi bat emanez. Alor horretan Pizkundeak negoziaketa asko eraman ditu Akitaniako FR3-ren zuzendariarekin. Gainera eskatu genuen Baionan izan zedin irratitelebista produkzio zentro bat. Ondorio on zerbait ere erdietsi, baina oraindik ez gure beharren neurrian.

Berriketa aipatuz, bi teknikalari bazeuden Baionan gertakariaren grabatze-ko eta bi berriketari «pigistek» (noizean behinekoak) komentarioak egiten ziztuzten. Teknikalariak Bordelera eraman dituzte eta pigistek ez dute lanik bi urte hauetan. Gertakariak ez dira ongi erakusten. Adibidez, *Korrika* zelarrik, Mauleko inauteriak agertu ziren etab. Hobetze bakarra hau da 1987tik hona pilotaz emankizun bat egiten dela hilabetean bi aldiz.

Emankizun orokorrak: bi emankizun egiten ziren hilabetero, oren erdikoak, «Magazine» moldekoak; bakoitza bietan agertzen zen,aldi bat euskaraz eta gero azpigitulaturik. Orain kontrola zorrotza jasaten dugu gaiak hautatzekoan eta ez dugu iraupenaren segurtasunik.

Euskalgintza: hiru urtez Bordeleko Errektoreak euskal (eta okzitan) kurtsoak zabaldu zituen astean bi oren erdiz. Orain kurtso horiek geldituak dira.

Gure proposamenak

- Negoziaketak jarraitzen ditugu komunikabide publikoen alorrean: gure diruaz ordainduak direlaketoz, hartze dugu gure herri kulturaz ardura dadin. Halere ageri da FR3 kateak ez diola euskaldunen beharrei erantzun egokirik ematen. Eta zorigaitzez ez dugu aldaketa handirik goaitzen. Ondorioz beste negoziabide bat ireki dugu.

Telebistarentzat aterabide hoberena Euskal Telebistaren (ETB) zabaltzea da eskualde guzietara, eta neurri batean «iparraldekotzea». Bi helburu beraz: bat, teknikaren aldetik, zabalkuntza, Parisetik erdietsi behar genukena; bestea, programaren aldetik, emankizun batzuen sortzea, ETB-koekin egin genitzakeenak. Hona zehaztasun batzuk.

Teknikaren aldetik

Eskualde menditsu batean garelaketoz ETB-ren emankizunak ongi hartzen dira Hendaiatik Donapaleu arteko marra baten aurrean, baina beste lurraldeak Larrun mendiak itzaltzen ditu. Aterabidea hau da: Jaizkibel menditik hertz-uhinak igorriko dira Jaizkibeleatik Biarnoko Saliseraino, handik bi aldetara hedatzen ahal baitira, Garaziko Jarra mendira eta Zuberoko Madalena mendira. Hiru igorgailuren bidez, aipatu eskualdeetan ETB har liteke.

Guri da behar den baimenaren erdiestea. Orain arte mintzatu ditugun herriko alderdi politikoak eta hautetsiak denak ados daude. Haatik giltza Kultur Ministerioan dago.

Programaren aldetik

Gure xede orokorra da ETB-n parte hartu behar genukeela, ez bakarrik ikusle bezala, bai eta ere emankizun batzuen sortzen. Helburu horretara helzeko 3 baldintza bete behar dira:

1. Iparraldean berean antolatu behar liteke berrikerarako idazkaritza bat, adibidez Baionan.
2. Hemengo teknika talde batek bilduko ditu berriak ala irudiak, eta emaldiak muntatuko erredakzio zuzendariaren aholkuei jarraikiz.
3. Komentarioak hemendik eginen dira, Iparraldeko sentsibilitatea adierazteko.

Hona hasiera batean zer programa proposa genezaken:

- Egunero berriketa flash bat minutu bat edo bi, adibidez «Gaur egun» emankizunean.

- Astero berri bilduma bat 20 minutuz, muntadura berezi batean, pertsonalitate ezagun batek komentaturik. Hemengo aktualitatea agertuko da, politika, kultura, ekonomia, gizartea edo kirol alorretan. Heldu diren gertakizunak eta agerkizunak oroitaraziz.
- Hilabetero emankizun orokorra 30 minutuz, aktualitateari lotua ez dena. Adibidez herri baten aurkezpena, biztanleak mintzaraziz; eta jarduera zerbait, lantegi, kooperatiba, artzaintza, festa, kirol bat; edo pertsona bat, artista, idazle, enpresa zuzendari, txapeldun...

Egitura minimo bat

EITB-ren idazkaritza bat antolatu behar liteke Baionako lokal batean. Lan taldean agertuko dira: legezko zuzendari ordaindu gabekoa eta norabide kontseilua; hiru langile, idazkaria, emankizunak munta ditzazkeena, kamerari bat, gertakarien grabatzeko, berriketari bat lan egingen duena ETB eta Euskadi Irratiarentzat. Idazkaria denbora osoan ordaindua izanen da, beste langileak beharren arabera.

Aurrekontua neurtua da: 2 milioi libera hagaren, igorgailuen eta idazkaritzaren antolatzeke; hilabete oroz 46.000 libera gastu eta soldatentzat.

Diru iturriak: antolakuntzarentzat Kultura Ministerioak eta Eskualdeko administrazioek diru laguntza bat eman lezakete, baimena erdietsiz geroz. ETB-k hemengo idazkaritzaren funtzionamendua bere gain hartu behar luke, ohizko mozkinak bilduz, publizitatea eta kanporako produkzioa.

Adibidez idazkaritza balia daiteke entzun-ikusizko lan batzuen egiteko, hala nola «Euskaraz Bizi» bideoa, eta beste ikasgailu batzuk. Pauen edo Parisen dirua xahutzeko orde, ekoizpen pedagogiko EITB-ren Baionako idazkaritza errentabiliza lezake.

Bestalde hemengo mediateka baten hastapena liteke. Denbora berean Lauga ikastetxeko euskaldun bidezale gazteentzat formakuntza leku bat izan liteke. Beraz diru-iturri eta helburu askotako enpresa bat antola genezake. Orain proiektua talde batek akulatzen du, Pizkundeak egin dituelarik lehen urratsak.

6. ANIMAZIOA ETA SORTZAILITASUNA

Europako Parlamentuaren 8. gomendioa herri hizkuntzen aldeko kultur-gintza alorrean:

- *hizkuntza bereziak erabiltzen dituzten herriek parte hartuko dute kultur antolamendu eta ekintzetan;*

- *fundazioak eta ikastetxeak, herri hizkuntzen aztertzeko ikas-tresnen muntatzeko eta ikerketa orokorren egiteko;*
- *entzun-ikusgailuak antolatuko dira herri hizkuntzak erabiliz;*
- *teknika eta diru laguntzak.*

A) KULTURAREN ALDEKO SOSTENGUA

Euskal Herri barneko hiru kultur etxeek kultur lanak eta gizarteari buruzko laguntzak daramatzate hiru Herrialdeetan. Irakasleek eta animatzaileek behar dituzten tresnak eta lekuak hor aurkitzen dituztelarik. Betetzen dituzten gizarte zerbitzuengatik diru publikoa hartze dute. Eskualde guzietako kargudunekin hitzarmenak antulatuko dira langileen iraupena eta tresneria egokia segurtatzeko.

Beste elkarte batzuk ere lan egiten dute hiri auzoetan eta herrietan: *gaztetxe (MJC), Martxuka, Ote Lore, Sagaio, Uhaina, Xinkako*, kultur aste etabar. Gehienen xedea da euskal kulturaren goratzea. Bestek helburu zabalagoak dituzte: orduan animatzaileen gain da elkar aditzea euskal ingurunearen sustatzeko.

B) KULTURA SORKUNTZA

Sortzailetasunak kultura zaintzen du folklorera erortzetik. Euskaltasunak onartuko ditu gaurko molde berriak, haatik berezitasuna galdu gabe. Egia da musika, dantza, edergailuentzat bai eta ere idazkien alorrean, nola antzerkia hala olerkia edo bertolaritza. Sortzailerik ez da izanen, formakuntza eta zabalanderik gabe: formakuntza ireki batek ager litzake dohain hoberenak; zabalakuntzarentzat erabiliko ditugu merkatalgoaren jokamoldeak, publizitate, agerkizun mas-media.

Artistak elkarretaratu dira sortzailetasun honen akulatzeke eta beren obren ezagutarazteke. Kultur etxeek gaurko eta geroko artisten eskuetan ezarriko dituzte behar dituzten tresna eta laguntzak.

C) EUSKAL HERRIKO ARTISTAK

Duela 3 urte moldatua, Euskal Herriko Artistak deitu batasunak bere baitan dauzka hamar bat sail hunkitzen dituzten edergileak, liburugintza eta kirolak aipatu gabe: margolariak, zizelkariak, kantariak, soinulariak, eskulangile, entzun-ikuski egileak, bertsolariak, marrazkilariak.

Ekintzak

Hor biltzen dira 50 artista edo edergile, beren arteko trabarik batere gabe. Hor beren artean muntatu dituzte 3 urte barne 5 agerraldi nagusi: 1984an Kanbon, 1985ean Pauen, 1986an Baionan, 1987an Donibane Garazin eta Baionan. Sortzailetasuna azkar daukate beren artean partaide horiek.

Baina gaur sortzailetasuna zertan liteke, inguruan ez balin bada erakusteko edo ezagutarazteko toki egokirik edo tresnarik? Asma zer gerta litekeen frantses edergintzarekin, ez balitu edergintza horrek dituenak oro: ministeritza, irratiak, telebista, erakustokiak, kazetak, magazinak, Herriko Etxeak ...

Hemen berean so egiten badugu zer gertatzen den gure esku ditugun berri emateko tresnekin, iduri luke, salbuespen batzuek kanpo, euskal inguruneak berak ez duela hanbat axolarik herriko artisten edo edergileen lanez edo asmoez. Hori dena oraino gaizkiago beste irrati, kazeta eta telebistetan, hots «toki ofizialetan». Aitortu behar da sortzailetasuna gehienetan baldintza txarretan dabilela hemen. Jendeak horretarako behar lukeen hezkuntza bera zertan da? Nongo eskoletan irakasten da?

Ondorioak

Edergintzatik bizi direnak aski bakarti sentitzen dira, kanpora tira gutirekin bezala. Azpimarratzekoa da telebistak orobat edergintzarik ez bagenu bezala jokatzen duela, aise nahiago baitute Euskal Herriari buruz aipatu zalaparta eta bonba!

Erakunde publiko gehienek (Departamenduak, Eskualdeak, Herriko Etxeek), alta ahalak lituzketelarik, ez jakinarena egiten dute. Baionako Kultur Etxean ere gure nahiak ez dizkigute entzun. Hortik aldi bat baizik ez dugu laguntzarik erdietsi !

Proposamenak

1. Gutartean ere bada zer egin, gure esku ditugun kazeta, irrati, Herriko Etxe eta batasun zabaletan.
2. Merkatu baten zabalbiderik gabe ez da sortzailetasun handirik. Nola bizi, ez bada zerbait saltzen edo irabazten? Hortakotz xedea hartu dugu gure batasuna zabaltzea hemen bereko sostengu on batekin, bai eta ere mugaz bestaldeko artistekin, elkarrekin azkarago joaiteko Europara eta mundu zabalera!

D) EUSKAL HERRIKO KULTUR ETXEA

Euskal Herriko Kultur Etxearen araudien arabera elkarteek parte hartzen dute administrazioan eta norabide kontseiluan, gure kulturaren beharrak hobeki kausitzeko. Garrantzizko puntu batzuk erdietsi ditugu: euskararen lehen-tasuna, liburugintza saila, arduradun batzuen izendatzea, elkarlan zenbait ...

Alderantziz Kultur Ministeritza indarka ari da etxe hori Kultur Ekintza Zentro (CAC) bilakatu nahiz, Frantziako beste 40en irudikoa, bakarrik goi mailako ikuskizunen sortzeko eta agertzeko. Bestalde araudiak ez dira errespetatu garrantzizko puntu batzuetan. Ondorioz Pizkundeak boikota erabaki du, baina proposamen baikorrak ginez.

Euskal elkarten eta Baionako kultur etxearen arteko lankidetzak baldintzak hauek dira:

1. Araudiei jarrai arduradun berriak izendatzerakoan.
2. Euskarari eta euskal kulturari lehentasuna eman egitarauan, nola diruaren hala ikusgarrien aldetik.
3. Barneko hiru kultur etxeak segurtatio, diru laguntza bereziaz eta elkarlan hitzarmen batez.

Jardunaldiek egoera hau aztertuko dute eta ordezkariak gure xedeak helaraziko dituzte, erakunde hori euskaltasunaren onetan baliagarri izan dadin.

7. HERRI ONDASUNAK (laburpena)

Gizaldi bakoitzak herri ohiturak ikasten ditu eta aberasten ondokoei helarazteko. Ondasun horiek dira gizartearen oroitzapenak, herriari ematen baitiote den bezala jarraitzeko gogo. Lauburu eta beste elkarteek lan egiten dute gure historiaren bizirik atxikitzeko. Ondasun horien erakusteko, behar dira lekuak eta ekintzak, erakusketak eta erakustokiak, besteen artean Irisarriko Ospitalea, eskoletako animazioak, ikerketak, etxe berritzeak ...

Herri kirolek eta bereziki pilota jokoek jendetza ederrak biltzen dituzte, ala kirolari ala ikusle. Antolaketa egoki baten bitartez (Liga, Federazioa), zein-gehiegoka horiek gure izatea ezagutaraz lezakete. Guri da asmatzea nola lehia-keta horietan egiazko nortasuna ager genezaken, adibidez euskaraz jokatzu.

8. EUSKALDUNGOAREN BATASUNA

Europako Parlamentuaren 10. gomendioa estatuen mugen gainetik erabiltzen diren harremanak herri hizkuntzen alde:

- *hizkuntz eta kultur lankidetzaren aldeko antolaketa;*
- *eskualdeetako administrazioen elkarlana;*
- *Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Bulegoa (EBLUL).*

Jardunaldietan egin diren proposamenak gero denek elkarrekin betetze-koak dira. Lehenbaileheneko egitaraua finkatuko dugu. Gero ikus nola Iparraldeko kultur federazioak jarraiko duen. Denbora berean Hegoaldearekin harremanak antolatu behar ditugu. Bai eta herrien artean eta nazioarteko erakundeetan ere agertuko ditugu gure xedeak eta eskakizunak.

Gutarteko lankidetzaz

Jardunaldien helburu bat da elkarteak jakin dezaten bakoitzak zer egiten duen, beharrez elkar laguntzeko. Hona araudi orokorra geure eta gutarteko ekintzen zuzentzeko:

1. Elkarte eta elkarkide guzien eguneroko kezka da euskara eta euskal kultura bizirik atxikitzea, gure nortasunaren oinarriak direlaketz.
2. Euskal erakundeetan parte hartuko dugu lanaz edo laguntzaz: euskal ikaskuntza, komunikabideak, liburugintza, agerkizunak.
3. Elkarte elebidunetan euskararen lekua zabalduko da.
4. Kulturgintza herri dinamikari lotuko zaio (ekonomia, politika, sindikatua ala erakundeak), baina eremu bakoitzaren autonomia errespetatuz.
5. Elkartasun zabala izanen da kultur eskabideak agertzerakoan, negoziaketa berezien akulatzeke.

Gure eskabideak

1. Euskararen legezketzea zerbitzu publiko eta ikaskuntza alorretan.
2. Ikastola eta gau eskolentzat aterabideak legearen eta diru laguntzaren aldetik.
3. Euskal diploma ofizialak.
4. Kultur lanpostuak segurtatzea hitzarmen batzuen bidez irakaskuntzan, irrati-telebistetan, kultur etxe eta elkarteetan.
5. Euskal Telebitaren zabaltzea eta iparraldeketzea.
6. Ikaskuntza elebidunaren hedatzea ikastetxe guzietara.
7. Artisten bizibideak eta agerbideak.

8. Euskararen sartzeta herri kirol eta agerkizunetan, gutienez zerbitzu publiko batetan, adibidez postetxeetan.
9. Siadeco-ren inkesta osatzea.
10. Harremanak Hegoaldearekin.

Elkarteen federazioa

Egitarau honen bururatzeko nahitezkoa da elkarte guziak elkarretara gaitzen. Hau izan da betidanik Pizkundearen helburu nagusia. Eta uste dugu ildo horretarik jarraiki behar duela, baina eginbideak hobeki definituz: batasuna, negoziaketak, animazioa, idazkaritza, harreman zabalak.

1. Gutarteko batasuna beharrezkoa da elkarrekin indar gehiago ukan dezagun, herriak jasaiten duen egun txar hauetan bereziki. Pizkundan sartzeko baldintza bakarra da Jardunaldiek finkatu helburuetan ados izatea. Araudiak eskatzen duen bulegoan lan egingen dute kultur alor nagusietako ordezkariak.
2. Negoziaketek jarraiki behar dute barneko kultur etxeen eta euskal irratien alde, kultur langileen lanpostuen segurtatzeko, Euskal Telebistaren zabaltzeko, euskal diploma ofizialen erdiesteko. Beti bezala Seasak daraman negoziaketari sostengua emanen diogu.
3. Animazioa: urte guziz elkarte batzuk badute beren ekintza nagusia: Herri Urrats, Korrika edo Aekantuz, Galarrotsak, bertso, kantu edo idazki xapelketak, Dantzari Txiki, Idazleen Biltzarra Nafarroaren Eguna, kultur asteak... Pizkondeak gomitatzen ditu bere kideak, herri mugimendu horietan parte har dezaten batzuk besteen lagungarri. Aurten Euskal Herri osoa biltzen duen Kanpaina 88an parte hartzen dugu. Urtero elkarte guziak bilduko dituen ekintza berezi bat antolatu behar dea, urrats berezi bat egiteko euskaldungoaren aitzinarazteko? Biltzar nagusian hartzeko erabaki bat.
4. Proposamen berria da idazkaritzaren antolaketa «Euskal fundazio» batekin. Diru-iturri honen helburua da elkarteen laguntzea kultur lanpostuen iraupena segurtatzen. Diru emaleak fundaziokideak izanen dira, bai eta ere enpresak, legeak eskaintzen dituen erraztasunez baliaturik, eskualdeetako eta berdin nazioarteko erakundeak. Proiektu honek eskatzen du Hemen-Herrikoa bezelako antolaketa bat. Idazkaritza iraunkorraren beste lanak dira permanente gabeko elkarteak laguntzea, komunikazioa jarraitzea elkarteen artean...
5. Harreman zabalak: hemengo elkarte zenbait federatuak dira Hegoaldekoekin: ikastola, gau eskola, dantza ala antzerki. Hegoaldean Eus-

karazko Kultur Batzarreak (EKB) biltzen ditu euskalgintzan ari diren elkarte asko. Pizkondeak gauza bera egiten du Iparraldean baina kulturaren definizio zabalagoarekin. Bi federazioek elkarrekin hitz egin dugu elkar ezagutzeko eta aurten kanpainan lan egiteko. Elkarrizketa hauek jarraiki behar ditugu elkarren arteko lotura iraunkor baten antolatzeke.

6. Kanpoko harremanak: Pizkondea Europako erakundeekin harremanetan sartu da, Europako Bulegoan partaide jarri delarik. Alde batetik herri gutituekin hitzartzen ahal gara, elkarrekin daramagun borrokan. Bestalde mintzabide zuzena badugu gure xedeak eta borrokak adierazteko maila gorenetan.

2. ERANSKINA

EUSKARAREN AGIRIA

Berehalako 40 neurri eta gomendio

Aintzin solasa

Euskara da Euskal Herriko jatorrizko hizkuntza. Beraz Iparraldean ere hizkuntza ofiziala izan behar du euskarak, legeak honela onartuz eta administrazioak horretarako behar diren neurri guztiak hartuz.

Horixe da nazioarteko itunek galdatzen dutena eta horixe mintzaira anitz duten estatu demokratiko gehienek daramaten politika. Tenorea da Frantziak ere gauza dezan euskararen onartze eta legeztatze ofiziala.

Euskararen egoera kontradizioz beterik agertzen zaigu. Euskal Herriko hizkuntzak ez du sekula hainbeste baliabiderik izan bere historian: eskolak, komunikabideak, legeak eta beste. Halaber hizkuntzaren aldeko atxikimendua ez da sekula hain azkarra izan jendeengan, inkesta anitzek agertzen duten bezala.

Alta hizkuntzaren egoera lasgarria da, ezagutza eta erabilpena maila biziki apalera jausti baitira.

Euskarak, egoera gutititik normalkuntzari buruz abiatzeko, hizkuntzaren eremu osoa estaliko duen politika behar du. Herri hizkuntzen Eurokarta da politika honen abiapuntua eta ofizialtasuna helburua. Horren gauzatzeko legeak, erakundeak eta borondateak oraindik eskas dira.

Anartean euskararen salbatzeko baitezpadakoak diren neurriak berehala hartu behar ditugu eta gauzatu denborarik galdu gabe. Minimo hori da agertzen agiri honetan, hainbat euskaltzale eta elkartek prestatuak.

Euskara familian

Hizkuntza batek jatorrizko hiztunen beharra badu iraunpenaren segurtatzeko. Giza nortasuna ama hizkuntzaren bidez moldatzen da behin betikotz.

Familia da hizkuntz transmisioaren faktore garrantzisuena, ikerketek erakusten dutenez. Alderantziz, familia baten erdalduntzeak euskararen jarraipena mozten du, anitzetan luzarako.

1. Euskararen jarraipenerako, beharrezkoa da etxe hizkuntza izan dadin ahalik eta familia gehienetan. Euskal hezkuntza haurren izenetik hasten da;

ohizko mintzamoldea, komunikabideak eta eskolaren hautua garrantzizko baliabideak dira.

2. Haur, gaztetxo eta gazteei, euskal elkarteetan parte hartzeko aukera emanen zaie, ahal bezain goizik.

3. Familia erdaldunen euskalduntzeko bideak bultzatu behar dira

Administrazioa eta legedia

4. Lehenbailehen, Frantziak onartu eta sinatu behar ditu European lekuko hizkuntzen egoera normaltzeko onetsi diren erabakiak eta legeak, bereziki 1992ko Hizkuntza Gutituen Eurokarta, 30 Estatur onartua 50 milioi hiztunen onetan.

5. Epe laburrean, gobernuak aurkeztu behar du legegai bat, Estatu frantseseko hizkuntzen onartzeko eta legeztatzeko, frantsesaren aldeko legegaiaren bezain laster eztabaidatzeko. Lege horrek euskararen ofizialtasuna onartuko du eta lehengo diskriminazioak indargabetuko.

6. Ahal bezain laster, eta Eurokartak onesten duen bezala (7. art, b), Ipar Euskal Herria kudeatuko duen instituzio politiko-administratibo berezia sortu behar da. Instituzio honek bere gain hartuko du euskararen normalizaziorako ardura publikoa.

7. Euskara erabil dadila seinalizazio publiko osoan: mota guzietako bide-seinaleetan, ez bakarrik herri izenetan; publikorako informazio idazkietan; administrazio egoitza guzietan, herriko etxe, posta, sekuritate sozial, ospitale, suprefeturan.

8. Euskara erabiliko da administrazioek publikoari ematen dizkieten informazio guzietan. Administrazio publikoaren inprimakiak elebidunak izanen dira

9. Herriko Etxeek antolatuko dituzte euskaldunekin euskaraz normalki aritzeko araudiak eta plangintzak:

- arduradun euskaldunak ezar publikoarekilako harremanetan;
- arduradun hauen euskalduntzeko eta alfabetatzeko ikastaldiak antola lan denboran;
- euskararen presentzia eta sustengua jakinaraz «Hemen euskaraz» bezalako kanpaina publikoaren bidez.

10. Euskaltzaindiak onura publikoaren onarmena hartze du akademia ofizialtzat onetsia izan dadin, euskararen zaintzeko, normalizatzeko eta garatzeko. Beste hiriburuetan bezala, Baionan ere bere egoitza ukanen du.

11. Auzitegietan euskaraz mintzatzeko eskubidea onar dezatela, jurisprudentziak eta tradizioak onartzen duten bezala.

Irakaskuntza

Euskal Herriko haurrek hartze dute euskaraz altxatuak izatea. Estatuak herri guzietan euskal irakaskuntza eskaini behar du, mugarik ezarri gabe. Nahi duten ikasle guziei euskarazko irakaskuntza eman behar bazaie ere, urrunago joan behar da: helburua da ikasle guzietan euskara ere jakin dezaten beren ikasketak bururatzeko. Gaur egun gehiengo handiak (% 79) ez du euskarazko ikaskuntzarik.

Euskal irakaskuntzak hartze ditu frantsesak dituen ahalbide berak, egiazko zerbitzu publikoaren gisan. Oraingo legearen arabera gurasoek dute eskatzen euskal ikaskuntza. Estatuak ditu beharrezkoak diren egiturak bultzatu eta antolatu behar, gurasoen eskakizunak aitzinduz.

Irakasleen formakuntza eta kontratatzea irakaskuntza beharren arabera koak izanen dira: haien formakuntza eta irakaskuntzan aritzeko lehiaketak euskaraz eginen dira.

Euskaraz sortu diren haurrek euskarazko ikaskuntza hartze dute, zein nahi eskoletan. Egoera normalean Euskal Herriko aitamek hauta lezakete, edo euskarazko eskola, frantsesa ere ikasiz, edo frantseseko eskola, euskara ere ikasiz.

12. Euskara ikasteko eskola hautatzerakoan aitamek jakin bezate, Seaskak erabiltzen duen murgilbidea dela hoberena, gero ikasbide elebiduna, azkenik ohizko hizkuntz ikaskuntza (astean 3 oren).

13. Seaskak hartze ditu beste eskola publikoek dituzten diru laguntza berak: eraikuntzak urrik, ama eskoletako laguntzaileak, langile teknikoak..

14. Eskola berrantolaketetan, bereziki barnekaldean egiten direlarik, klase elebidunak (bederen) sortu behar dira.

15. Irakasleen kontratatzean, euskaraz irakasteko maila badutela segurtatu behar da. Euskarazko diplomarik ez dutenei, EGA gaindi dezaten eskatuko zaie.

16. Euskarazko formakuntza eta zeingehiagoak xutik jartzeko neurriak hartu behar dira.

17. Diploma guzietan euskaraz ikasi gaiak, euskaraz neurtuko dira.

18. Mediateka zabal batek euskal liburu, diska, informatika programa eta beste baliabideak bilduko ditu, eta eskainiko 4 ikaskuntza sareei, kultur elkartei eta euskaltzale guzietan.

19. Eskolatik kanpo ere, ikasleei euskararen erabiltzeko baldintzak eman behar dizkiegu gizarte alor guzietan, hala nola udalekuetan, agusagailuetan, kirol eta kultur ekintzetan.

20. Erabilpena indartu behar da bai familietan, bai elkarteetan, eta gainera ekimenak hartu behar ditugu jendarte alor guzietan, horiek orok, erabilpena laguntzeaz gain, euskararen ikasteko eta mintzatzeko motibapena azkartuko baitute.

Helduen euskalduntze alfabetatzea

Herrian bizi diren guziek, herri hizkuntzaz jabetzeko, euskara lantzeko eta orotan erabiltzeko eskubidea badute.

Helduen euskalduntze alfabetatzearen helburua da nahi duen orori euskaraz bizi ahal izateko hizkuntz gaitasuna erakatea. Sail hori garrantzi handikoa da euskararen geroari begira, familia transmisioa segurtatzeko, haurren motibazioa azkartzeko eta erabilpen soziala hobetzeko.

Hizkuntza gutituen Eurokartak aldarrikatzen duen bezala (7. art. g), botere publikoek ahalbideak eman behar dituzte, euskara ikasi nahi duten Euskal Herriko herritar guziek ikasteko aukera ukan dezaten.

21. Zerbitzu publikoa betetzen duelakotz, AEK elkarteak onarmen eta laguntza publikoa hartze ditu, ikasle/orenka adibidez.

22. Helduen irakaskuntzarako hiru elementu kontuan hartu behar dira:

- irakasleen formakuntza: unibertsitatearen laguntzarekin segurta daiteke;
- material didaktikoa, erabilpenean oinarritua eta publiko desberdinen beharren arabera;
- mota ezberdineko ikasmoldeak: eskaintza zabala eta dezentralizatua, pertsona helduen behar eta ahalei egokitua. Moldakuntza jarraikia da besteak beste landu beharreko alorra.

23. Euskalduntzeko motibazioa elementu erabakiorra denez, honen zabalatzeko kanpaina eta ekimenak bultzatu behar dira, interes desberdinak kontutan hartuz: Euskal Herrian integratzeko nahia, motibazio instrumentala, haurrekiko komunikazioa, harreman sozialak eta beste.

24. Ikas prozesuaren bermatzailea eta helburua erabilpena denez, euskararen presentzia zabaldu behar da, bizi publikoan, kultur munduan, zein lan eta komertzio harreman, mezu eta iragarkietan.

Unibertsitatea

Euskal Herriko Unibertsitatea beharrezkoa da goi mailako ikasle, irakasle eta ikerleak herrian atxikitzeko, gure jendarte honetan. Gaur egun Iparraldean diren 9000 ikasleetarik 2000 bakarrik daude Baionan.

UEUren helburua egiazko euskal unibertsitatearen eredia agertzea da, bai eta beste unibertsitateek ematen ez dutena osatzea: irakasle euskaldunen formakuntza, irakaskuntza eta ikerkuntza baliabideen antolaketa, adibidez.

25. Euskal Herriko Unibertsitate autonomoa ardietsi behar dugu, euskara erabiliko duena irakaskuntza eta ikerketetan.

26. Unibertsitate honek euskarazko diplomak prestatuko ditu eta alor guzietako gai guziaz euskaraz landuko. Hegoaldeko euskal unibertsitateekin lehenetsuneko harremanak ukanen ditu.

27. Oraingo honetan, Iparraldeko unibertsitatean euskararen lekua zabaldu behar da, irakaskuntzan eta ikerketetan, hala nola:

- Maîtrise, DEA eta doktorego memoria eta tesiak euskaraz egiteko eskubidea erdietsiz;
- CAPES-ean euskararen lekua normalduz, hizkuntza arrotzen eta Korsikar CAPES-etan bezala.

28. Euskarazko unibertsitatearen eredia delakotz, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) egiten duen lanaren ezagutza ofiziala eta finantzamendu publikoa hartze ditu. UEUren zerbitzuen hobetzeko eta baliatzeko, elkarteen arteko harremanak eta elkarlana bultzatzekoak dira.

Komunikabideak

Telebista, irrati eta kazeten bidez du euskarak jende gehiena hunkitzen. Tresna horiek baitezpadakoak zaizkio gaur egun edozoin mintzairari. Euskal komunikabideek premiazko tokia betetzen dute euskara hedatzeko eta sustatzeko.

Eurokartak komunikabideetaz dio: «Mintzaira gutituetan ari direlakotz dituzten gastu bereziak beren gain hartuko dituzte erakunde publikoek» (11. art, f).

29. Euskal komunikabideei zor zaizkie beste komunikabideei emanak zaizkien laguntza berberak, gehi Eurokartak aipatzen dituen laguntza bereziak.

30. Telebistarentzat eskatzen dugu, mugaz gaineko akordio baten bidez, hemengo botere publikoak sar daitezten Euskal Irrati Telebista erakunde.

Iparraldeko kazetari eta animatzaile talde bat har dezaten, jendetzearen araberakoa, hemengo euskarak eta egoerak beren tokia izan dezaten Euskal Telebistan.

31. Beren funtzionamendu berezia kontuan harturik, euskarazko irratiek zerbitzu publikoa betetzen dute. Botere publikoek irradi publiko frantsesaren buxeta bera segurtatu behar diete gutienez.

32. Botere publikoei galdatzen diegu, zuzenean kudeatzen dituzten kateetan, euskarari toki egokia eman diezaioten, Eurokartak dioenez, «irradi eta telebista kate baten sortzea segurta dezatela», herri hizkuntz bakoitzarentzat.

33. Euskarazko aldizkariak diru laguntza publikoa hartze dute, dituzten zailtasun berezien gainditzeko.

34. Tokiko aldizkari frantsesetan ere, euskararazko artikuluak agertu behar lirarteke, irakurleen galdeari erantzuteko (*Sud-Ouest, La Semaine...*).

Kulturgintza

Euskalgintza eta euskal kulturgintzaren aitzinarazteko laguntza, botere publikoen eginbide nagusi bat da. Garapen horrek eskatzen du kultur antolaketa osoa, modernoa eta iraunkorra.

Euskal elkarteek, falta edo eskas diren zerbitzu publikoen orde lan egiten dutelarik, antolaketa profesionala hartze dute, araberako buxetarekin, Pizkundera federazioak galdegiten duen bezala.

Gaur egun bi erakunde ofizial baditugu euskaltasunaren sustengatzeko: Euskal Kultur Erakundea eta Herrien arteko Sindikata. Haien ahalbideak handitu behar dira. «Euskal Herri 2010» inkestak agertzen du euskal kulturaren diru laguntza % 14a dela bakarrik.

35. Euskarazko kulturak euskaltasuna adierazten du molde askotan. Adibidez literatura, bertsolaritza, antzerkia. Gure sostenguaz gain, diru laguntza publikoa hartze dute, sorkuntza eta formakuntza segurtatzeko.

36. Arteak ere euskaltasuna adierazten du beste molde batzuetan. Adibidez dantza, musika, arte ederrak. Euskara erabiliz, erranahi osoa hartzen dute.

37. Festak, kirolak, jokoak dira Euskal Herriko dinamika eta alaitasunaren ikurrak. Are gehiago euskaraz iragaiten direlarik, gure nortasun osoa adierazten baitute.

38. Gazteen hezkuntza ez du eskolak bakarrik egiten. Eskolatik kanpo dabilzan elkarteek garrantzi handia dute: dantza, musika, pilota, beste kirolak, udalekuak. Diru laguntza publikoak ematerakoan, eskatzen dugu euskarazko funtzionamendua kontuan hartua izan dadin.

39. Ondare, kultur, kirol eta agusa federazio eta elkarteei galdegiten diegu euskararen erabilera ezar dezaten beren araudietan..

40. Arduradunei, dei kartsua egiten diegu euskara erabil dezaten nola ariketetan, hala aurkezpen publikoetan, gure nortasunaren zaintzeko.

DEIADAR, 1994-10-26

AEK, EHE, PIZKUNDEA, SEASKA

3. ERANSKINA

OINARRIZKO IZENDEGIA

- Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Bulegoa.
Le Bureau européen des langues moins répandues. EBLUL.
- Errepublikak Frantsesa. *La République française.*
- Eskualde hizkuntzen edo hizkuntza gutxituen Europako karta.
La Charte européenne des langues régionales ou minoritaires.
- Eskubide zibilen eta politikoaren nazioarteko ituna.
Le Pacte international relatif aux droits civils et politiques.
- Estatu Kontseilua. *Le Conseil d'Etat.*
- Europar Batasuna. *L'Union européenne.*
- Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Karta.
La Charte des droits fondamentaux de l'Union européenne.
- Europako Batzordea. *La Commission européenne.*
- Europako Erkidego Ekonomikoa. *La Communauté économique européenne.*
- Europako Eskualdeen Batzordea. *La Commission européenne des régions.*
- Europako Itun Konstituzionala. *Le Traité de constitution européenne.*
- Europako Kontseilua. *Le Conseil de l'Europe.*
- Europako Parlamentua. *Le Parlement européen.*
- Euskal Kultur Erakundea. *L'Institut culturel basque.*
- Euskal Kultura Sostengatzen duen Herrienarteko Sindikata.
Le Syndicat intercommunal de soutien à la culture basque.
- Euskararen Erakunde Publikoa. *L'Office public de la langue basque.*
- Frantziako Konstituzioa. *La Constitution française.*
- Hizkuntza frantsesaren eta Frantziako Hizkuntzen Ordezkaritza Nagusia.
La Délégation générale de la langue française et des langues de France (DGLFLF).
- Giza eta Hiritar Eskubideen Aitorpena (1789).
La Déclaration des droits de l'homme et du citoyen (1789).
- Gutxiengo nazionalak babesteko hitzarmen orokorra.
La Convention-cadre pour la protection des minorités nationales.
- Konstituzio Kontseilua. *Le Conseil constitutionnel.*
- Nazio Batuen Erakundea. *L'Organisation des nations unies.*

EREMU URRIKO HIZKUNTZAK EUOPAR BATASUNEAN: IKUSPEGI JURIDIKOA HEGO EUSKAL HERRITIK

*Santiago Larrazabal,
Herri-Administrazioa*

Erregio-Hizkuntzen edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna, Europako Kontseiluak Estrasburgon 1992ko azaroaren 5ean egin zuena, Espainiako Erresumak 1992an sinatu zuen, baina 2001 arte ez zuen berretsi. Testua berretsi (2001eko otsailaren 2ko berrespen-tresna) eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta gero (2001eko irailaren 15eko BOE) Espainiako arautegian euskararen arauketa aztertuko dut, Gutunaren ondoreetarako erregio-hizkuntza edo eremu urriko hizkuntza baita.

Hala ere, noiz edo noiz Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko berezko arautegiei ere aipamen egingo diet, bi horietan euskara hizkuntza ofiziala baita. Hala ere, azken kasu horiek ez ditut sakonduko (1).

ESPAINIAKO ARAUTEGIA EREMU URRIKO HIZKUNTZEI EDO ERREGIO-HIZKUNTZEI DAGOKIENEZ

Konstituzioa

Europako Gutunaren 1. artikulua arabera euskara erregio-hizkuntza edo eremu urriko hizkuntza moduan ulertuta, Espainiako 1978ko abenduaren 27ko Konstituzioaren 3. artikuluan ezarri da Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango direla haiei dagozkien autonomia-erkidegoetan, beraietako estatutuekin bat etorritik, eta Espainiako hizkuntza-moten aberastasuna kultur ondarea dela eta ondore horrek begirune eta babes berezia izango duela. Bestalde, 20.3 artikuluan, estatuaren nahiz bestelako erakunde publikoen menpeko gizarte-komunikabideei buruz hitz egitean, Espainiako gizarte-aniztasuna eta hizkuntzak errespetatuko direla ezarri da.

(1) Eskerrak eman nahi dizkiot Arantza Etxebarria Iturrate andreaki, Euskal Gaien Institutuko Euskarazko Irakaskuntzaren Laguntza Guneko terminologoari, lan hau egiten lagundu didalako.

Nazioarteko tratatuak eta itunak

- Espainiako Erresumaren eta Frantziako Errepublikaren arteko tratatua lurralde-erakundearen arteko mugaz gaindiko lankidetzari buruz, Baionan 1995eko martxoaren 10ean egin eta 1997tik indarrean dagoena: 6. artikuluan ezarri da estatutuak eta organismoaren deliberazioak idatziko direla alderdi kontratugile bakoitzaren barne zuzenbidearen arabera lurralde-erakundeek egindako egintza eta deliberazioetan manuzkoak diren hizkuntzetan (beraz, Espainiaren kasuan hizkuntza koofizialak erabil daitezke, betiere, espainierarekin batera).
- Espainiako Erresumaren eta Europar Batasuneko organo jakin batzuen arteko administrazio-akordioak: Europako Kontseiluaren 2005eko ekainaren 15 eta 16ko ondorioen ostean, Espainiako Gobernuak Europako hainbat erakunderekin akordioak sinatu ditu herritarrek haietara Espainiako hizkuntza koofizialetan jo ahal izan dezaten, eta Espainiako ordezkarietako kideek espainiera ez den beste hizkuntza ofizial batzuetan hitz egin ahal izan dezaten. Espainiak Europako Erkidegoko erakunde horiekin sinatutako itunak hauek dira: Europako Batzordearekin -2005eko abenduaren 21a (2006/C 73/06), Europar Batasuneko Kontseiluarekin (2006/C 40/02), Eskualdeetako Lantaldearekin (2005eko azaroaren 16an), Ekonomia eta Gizarte Lantaldearekin (2006ko ekainaren 7an), eta Europako Parlamentuari dagokionez, Europako Parlamentuko Mahaiak 2006ko ekainaren 3an hartutako erabakia aipatu behar da. Testu horietan antzeko prozedura ezarri da, funtsean, hurrengo hau: Espainiako herritar batek goian aipatu Europako Erkidegoko organoetara gaztelania ez den baina Espainiako Konstituzioaren arabera hizkuntza ofiziala den hizkuntza batean komunikazio idatzi bat igortzen duenean, komunikazio hori Espainiako Gobernuak ondore horretarako izendatutako organismo eskudunera bidali beharko du (prozedura Espainiako Erresumak Europar Batasunean duen Ordezkaritza Iraunkorraren Gai Autonomikoetarako Kontseilaritzak bideratuko du), eta horrek Europako Erkidegoko kasuan kasuko organora igorriko du gaztelaniazko itzulpenarekin batera. Europako Erkidegoko organoak erantzuna gaztelaniaz bidaliko dio organismo horri, eta azken horrek herritarrari erantzunaren itzulpena komunikazioaren hizkuntza berean emango dio. Hala ere, Europako Erkidegoko organoek ez dute inolako erantzukizunik itzulpenen edukiaren gainean, eta gainera, itzulpen horien kostuak Espainiako Gobernuaren kontura izango dira.

Espainiako ordezkariak Europako Erkidegoko organoetan esku hartuz gero gaztelania ez den baina Espainian ofiziala den beste hizkuntza batean, seihileko bakoitzaren hasieran, Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrrak kasuan kasuko organoaren idazkaritzari zerrenda baten bidez adieraziko dio hizkuntza horietakoren bat zein saiotan erabiliko den. Zazpi

aste lehenago, Espainiako Ordezkaritza Iraunkorrek kasuan kasuko organoaren idazkaritzari jakinaraziko dio hizkuntza horietakoren bat erabili nahi duen Espainiako ordezkariaren eskaera (interpretazio pasiboa). Printzipioz, eskaera onartu egingo da, salbu eta horren inguruan baliabide pertsonal eta materialak eskura ez daudenean. Horrez gain, Espainiako Gobernuak edo horrek izendatutako organismoak hizkuntza horietara zinpeko itzulpenak egin ditzakeela ezarri da, hurrengo kasu hauetan: batetik, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak elkarrekin adostutako egintzak direnean eta, bestetik, legegintzako egintzarik garrantzitsuenak direnean.

Autonomia Estatutuak

- Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua, abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onetsia: 6. artikuluan euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza dela ezarri da, hizkuntza ofizialaren izaera aitortzen zaio gaztelaniarekin batera, eta herritarrek bi hizkuntza ofizialak ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea dutela esaten da. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideek, lurraldeko egoera soziolinguistiko anizkuna kontuan hartuta, bi hizkuntzen erabilera bermatuko dutela ezarri da, haien izaera ofiziala arautuz, eta neurri eta bitartekoak jarriko dituztela bien ezagutza bermatzeko. Hizkuntza dela-eta inor ez dela baztertuko bermatu eta Euskaltzaindia euskararen ganean aholku-erakunde ofiziala dela bermatzen da. Amaitzeko, Autonomia Estatutuan ezarri da euskara beste euskal lurralde eta erkidego batzuetako ondarea denez, erakunde akademiko eta kultura-erakundeek izan ditzaketan loturez eta gutuneriaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoak Espainiako Gobernuari eskatu ahal izango diola euskaldunak dauden beste estatuekin kultur harremanak ahalbidetzen dituzten itunak edo hitzarmenak egin ditzala -eta, hala denean, Gorte Nagusietan aurkeztu-, euskara babestu eta sustatzeko.

Aurrekoaren osagarri, nahitaez aipatu behar dira Euskal Autonomia Erkidegoak emandako arau hauek: azaroaren 24ko 10/1982 Legea, Euskararen Erabilera Normalizatzekoa, 2007an 25 urte beteko dituen (eta *uztailaren 11ko 138/1983 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena*), eta 1/1993 Legea, otsailaren 18koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa, euskal hezkuntza-sisteman eredu linguistikoak ezartzen dituen.

- Abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoa, Nafarroako Foru Araubidea Berrezarri eta Hobetzekoa: 9. artikuluan ezarri da euskarak ere izaera ofiziala duela Nafarroako gunen euskaldunetan, eta Nafarroako Par-

lamentuko geroko Foru Lege bidez zehaztuko dela zein diren gune horiek eta euskararen erabilera eta irakaskuntza arautu, Estatuko legeria orokorraren arabera. Lege hori abenduaren 15eko 18/1986 Legea da, Euskararen Erabilerari buruzkoa. Hezkuntza arloan maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuak osatu du, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan euskara sartzea eta erabiltzea ahalbidetu eta Nafarroako eredu linguistikoak ezarri dituena.

Lege-lerruneko arauak

Hezkuntza-esparrua

- Uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoa, Heziketa Jasotzeko Eskubidea arautzen duena: hezkuntza-jardueraren xedeetako bat Espainiako hizkuntza- eta kultura-aniztasuna errespetatzea dela ezarri du (2.e art.).
- Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, Hezkuntzakoa: xede hauek ezarri ditu: lehen hezkuntzarako, gaztelania eta autonomia-erkidegoko hizkuntza koofiziala ezagutu eta behar den moduan erabiltzea eta irakurketa-ohiturak garatzea (17 e art.). Bigarren hezkuntzarako, gaztelaniazko eta, hala denean, autonomia-erkidegoko hizkuntza koofizialeko testu eta mezu konplexuak ulertu eta zuzen adieraztea, ahoz zein idatziz, eta literatura ezagutzen, irakurtzen eta ikasten hastea (23 h art.). Batxilergorako, gaztelania eta, hala denean, kasuan kasuko autonomia-erkidegoko hizkuntza koofiziala ahoz zein idatziz menperatzea (33 e art.).
- Abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa, Unibertsitatei buruzkoa: unibertsitateen autonomia ezarri du (2. art.), eta horren arabera, berezko hizkuntza duten autonomia-erkidegoetan kokatutako unibertsitateek eskolak hizkuntza horretan eman ditzakete.

Justizia-esparrua

- Urtarrilaren 4ko 17/1977 Legea, 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilararen Legearen 54. art. aldatzen duena: Erregistro Zibilarren inskripzioan jaiorearen izena Espainiako hizkuntzetatik edozeinetan jasoko da. Interesdunak eskatuta, Erregistroko arduradunak, lege hau indarrean sartu aurretik ezarritako izena ordeztuko du, horrek Espainiako hizkuntzetatik edozeinetan duen onomastika-baliokidearekin.
- Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa: 231. artikuluan ezarri da epaile, magistratu, fiskal, idazkari eta epaitegi eta auzitegietako gainerako funtzionarioek gaztelania, Espainiako hizkuntza

ofiziala, erabiliko dutela. Autonomia-erkidegoko hizkuntza ofiziala ere erabil dezakete, betiere, alderdietatik bat aurka jartzen ez bada, hizkuntza hori ez jakiteak defentsarik eza ekar diezaiokeela alegatuz. Era berean, alderdiek, horien ordezkariak, lekukoak eta adituek epaiketako jardunak zein autonomia erkidegoren lurraldetan izan eta horretako hizkuntza ofizial berezkoa erabil dezakete, ahozko zein idatzizko adierazpenetan. Autonomia erkidego bateko hizkuntza ofizialean gauzatutako epaiketa-jardunak eta aurkeztutako agiriek baliozkotasun eta eragingarritasun osoa dute, gaztelaniara itzuli gabe. Nolanahi ere, itzuli egingo dira autonomia-erkidegoko organo judizialen jurisdikziotik kanpo ondoreak sortu behar dituztenean, salbu eta ondoreak sortu behar dituztenean berezko hizkuntza berbera duten autonomia-erkidegoetan. Amaitzeko, ahozko jardunetan, epaileak edo auzitegiak erabilitako hizkuntza ezagutzen duen edonor interpretatzaile gisa gaitu dezake, horrek zina egin edo hitz eman ondoren.

Bestalde, 341. artikuluan ezarri da, hizkuntza ofizial berezkoa duten autonomia-erkidegoetan Auzitegi Nagusiko edo Probintzia Auzitegietakoa presidente karguak betetzeko, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak erkidegoko hizkuntza berezkoa ezagutzea meritu gisa baloratuko duela. Modu berean, 450.4 artikuluan ezarri da idazkari judizialen kasuan meritu moduan baloratuko dela hizkuntza koofiziala ezagutzea. Amaitzeko, 431. artikuluan antzeko arauketa ezarri da Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioen hautaketari dagokionez.

- Abenduaren 28ko 38/1988 Legea, Auzitegi eta Epaitegien Mugape eta Antolaketari buruzkoa: 32.5 artikuluan ezarri da hizkuntza ofizial berezkoa duten autonomia-erkidegoetako Auzitegi Nagusiko presidentea izendatzean, hizkuntza ofizial hori ezagutzea meritu gisa baloratuko duela Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak.
- 1882ko Prozedura Kriminalaren Legea (apirilaren 30eko 10/1992 Legeak eraldatu ostean): gaur egungo idazketan, 440. artikuluan ezarri da lekukoak gaztelaniaz ulertzen ez badu edo hitz egiten ez badu, interpretatzailea izendatuko zaiola. Adierazpena lekukoak erabilitako hizkuntzan jaso beharko da, eta, jarraian, gaztelaniara itzuliko da. Legearen 762.8 artikulurekin beste horrenbeste gertatzen da, prozedura laburtuari dagokionez.
- Urtarrilaren 7ko 1/2000 Lege Organikoa, Prozedura Zibilarena: 142. artikuluan ezarritakoaren arabera, epaileak, magistratuek, fiskalek, idazkariak eta gainerako funtzionario judizialek autonomia-erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala erabil dezakete, baldin eta alderdietatik bat aurka jartzen ez bada, hizkuntza hori ez jakiteak defentsarik eza ekar diezaiokeela alegatuz. Era berean, alderdiek, euren prokuradore eta abokatuek, eta lekuko eta adituek, epaiketako jarduna zein autonomia-er-

kidegoren lurraldetan izan eta horretako hizkuntza ofizial berezkoa ere erabil dezakete, idatzizko nahiz ahozko adierazpenetan. Bestalde, autonomia-erkidego bateko hizkuntza ofizialean gauzatutako epaiketa-jardunak eta aurkeztutako agiriek baliozkotasun eta eragingarritasun osoa dute, gaztelaniara itzuli gabe. Nolanahi ere, itzuli egingo dira autonomia-erkidegoko organo judizialen jurisdikziotik kanpo ondoreak sortu behar dituztenean, salbu eta ondoreak sortu behar dituztenean berezko hizkuntza ofizial berbera duten autonomia-erkidegoetan. Jarduna eta agiriok itzuli egingo dira, halaber, legeetan hala xedatzen bada edo defentsarik eza alegatu duen alderdiak hori eskatzen badu.

Herri Administrazioa

- Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urtarrilaren 13ko 4/1999 Legea, azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldatzen duena. 35 d) artikuluan ezarri da herritarrek eskubidea dutela autonomia-erkidegoaren lurraldean hizkuntza ofizialak erabiltzeko herri-administrazioarekin dituzten harremanetan; 36. artikuluan ezarritakoaren arabera, Estatuko Administrazio Orokorraren prozedurak gaztelaniaz izapidetuko dira. Dena den, interesdunek autonomia-erkidegoan ofiziala den beste hizkuntza ere erabil dezakete autonomia-erkidego horretan kokatutako Estatuko Administrazio Orokorreko organoetara jotzen dutenean. Kasu horretan, interesdunak hautatutako hizkuntzan izapidetuko da prozedura. Herri-administrazio instrukzio-egileak gaztelaniara itzuli behar ditu agiriak, espedienteak eta horien atalak, autonomia-erkidegoko lurraldetik kanpo ondoriorik izan behar badute, eta interesdunei zuzendutakoak, espresuki hala eskatzen badute.
- Azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoa, Eskatzeko Eskubideari buruzkoa: 5. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskatzaileek Estatuko Administrazio Orokorrari edo horri lotutako organo publikoei eskaerak hizkuntza ofizialeatik edozeinetan egingo dizkiote, eta erantzunak jasoko dituzte autonomia-erkidegoetako estatutuen arabera koofizialak diren hizkuntzetatik edozeinetan. Erakunde publikoak espedienteak eta agiriak gaztelaniara itzuli beharko ditu autonomia-erkidegotik kanpo ondoreak sortu behar dituztenean edo horiek jaso behar dituztenek esanbidez hala eskatzen dutenean.

Toki araubidea

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen: 14.2 artikulua arabera, udalerrien izena, gaztelaniazkoa, bakoitzaren autonomia-erkidegoan ofiziala den beste edozein espainiar hizkuntzatakoa edo bietakoa izan daiteke.

Gizarte-komunikabideak, zinema, ikus-entzunezkoen sektorea, eta abar

- Uztailaren 9ko 15/2001 Legeak, Zinematografia eta Ikusentzunezkoen Sektorea Sustatu eta Bultzatzekoak, pizgarriak ezarri ditu gaztelania barrik beste hizkuntza batzuk erabiltzen dituzten zinematografiako eta ikus-entzunezko lanak ekoitzi eta erakusteko (5-6 art.).
- Uztailaren 5eko 17/2006 Legea, Estatuaren Irrati eta Telebistarena: xedeetako bat Espainiako hizkuntza- eta kultura-aniztasuna sustatzea izango da (3.2.e art.).

Partikularren esparrua

- Azaroaren 8ko 30/1995 Legea, Aseguru Pribatuak Antolatu eta Gainbegiratzekoa: kontratuaren polizak gaztelaniaz idatzita egon behar du, eta aseguru-hartzaileak hala eskatzen badu, beste hizkuntza batean (6. art.).

Parlamentuko erregelamenduak

- Senatuaren 1994ko maiatzaren 3ko Erregelamendua (2005eko ekainaren 29ko aldatetaren ondoren): Senatua lurraldeko ordezkaritza-ganbera denez, Senatuko presidentek, legegintzaldi bakoitzean Senatua eratzeko bilkuran, gaztelaniaz gain, Konstituzioaren eta autonomia-estatutuen arabera autonomia-erkidegoetan izaera ofiziala duten hizkuntzak erabil ditzake (11 bis art.). Era berean, Senatuko Autonomia Erkidegoen Batzorde Nagusiaren bilkuretan erabil daitezke, eta ganberako bilkura-aktan idatziz jasoko dira bai erabilitako hizkuntzan bai gaztelaniaz (56 bis 9 art.). 191. artikulua arabera, mozio, interpelazio edo galdera baten egileak horiek gaztelaniaz eta beste hizkuntza koofizial batean aurkezten baditu, ekimena hizkuntza horretan ere argitaratuko da. Amaitzeko, laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, herritarrak eta erakundeak Senatura edozein hizkuntza koofizialetan jo dezakete, eta ganberari horren itzulpena ere emango diote, izapideak behar den moduan egin daitezten.

Erregelamendu lerruneko arauak

Hezkuntza eta kultura esparruari dagokionez

- Otsailaren 26ko 573/1976 Errege Dekretua (otsailaren 25eko 272/2000 Errege Dekretuak eta ekainaren 16ko 750/2006 Errege Dekretuak aldatua), Euskaltzaindia aitortu eta horren estatutuak onesten dituena.

Era berean, ez dira ahaztu behar Estatuko erregelamendu-lerruneko arau guztiak (ministro-aginduak, etab.). Hain ugariak direnez, ezin dira banan-banan aipatu mota honetako testu batean. Horietan laguntzak ezartzen dira Espainiako hizkuntza desberdinetan itzulpenak eta argitalpenak bultzatzeko eta espainiar literatura idatzia Espainiako hizkuntza ofizial guztietan irakurri eta zabaltzeko, dirulaguntzak ematen zaizkie hizkuntza koofizialak bultzatzen dituzten kultura-erakundeei, sariak ematen zaizkie hizkuntza koofizialean ekoiztako lanei, etab. Horrez gain, laguntzak eta diru-laguntzak ematen zaizkie Espainiako hizkuntza ofizialeetan garatzen diren zinema- eta antzerki-lanei eta, oro har, arte eszenikoei.

Era berean, ugari dira erregelamendu-lerruneko xedapenak Estatuko liburutegi, artxibo eta museoetara eta horiek hizkuntza koofizialean ematen dituzten zerbitzuei buruz (errotulazioak, informazioa, argitalpenak, inprimakiak eta komunikazio ofizialak, etab.).

Justiziaren esparruari dagokionez

- Ekainaren 7ko 1/1995 erregelamendua, Karrera Judizialari buruzkoa: kasuan kasuko autonomia-erkidegoaren lurraldeko jurisdikzio-organoen lehiaketetan hizkuntza koofiziala ezagutzea meritu gisa baloratzearen inguruko guztia arautzen du (108. art. eta h.).
- Otsailaren 16ko 249/1996 Errege Dekretua, Justizia Administrazioko Ofizialen, Laguntzaileen eta Agenteen Kidegoen Erregelamendu Organikoa onesten duena: 54.9 artikuluan ezarritakoaren arabera, hizkuntza ofizial berezkoa duten autonomia-erkidegoen lurraldean plazak betetzeko lehiaketetan, hizkuntza hori ahoz eta idatziz ezagutzen dela behar den moduan egiaztatzen bada ziurtagiri ofizialaren bidez, ondore hauerarako soilik, gehienez ere sei punturekin baloratuko da. Eta bigarren xedapen gehigarrian ezarri da, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko plangintza eta aipatu autonomia-erkidegoan euskara normalizatzeko egin daitezkeen planetatik eratorritako gainerako xedapenak arautzen dituen urriaren 17ko 224/1989 Dekretuan ezarritakoaren arabera, irizpide hauek hartuko direla kontuan: 2. hizkuntza-eskakizuna: bi puntu; 3. hizkuntza-eskakizuna: lau puntu; 4. hizkuntza-eskakizuna: sei puntu.
- Apirilaren 29ko 429/1998 Errege Dekretua, Idazkari Judizialen Kidegoen Erregelamendu Organikoa onesten duena: merituen balorazio-sistema ezarri da hizkuntza koofizialak ezagutzen diren kasurako (2.1 e art. eta 2. xedapen gehigarria).
- Apirilaren 5eko 326/2002 Errege Dekretua (otsailaren 3ko 92/2006 Errege Dekretuak, Karrera Fiskaleko ordezkioak izendatzeari buruzkoak, aldatu du): 5. artikuluan ezarri da hizkuntza koofiziala ezagutzea gehienez ere bi punturekin baloratuko dela.

Herri Administrazioaren esparruari dagokionez

- Otsailaren 12ko 334/1982 Errege Dekretua, hizkuntza koofiziala duten autonomia-erkidegoetan errepide, aireportu, geltoki eta interes orokorreko zerbitzu publikoetako seinaleei buruzkoa: errotuluek elebidunak izan behar dutela ezarri du.
- Apirilaren 14ko 489/1997 Errege Dekretua, autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialetan argitaratzeari buruzkoa. Legeak, Errege-Dekretu Legeak eta Legegintzako Errege-Dekretuak autonomia-erkidegoetako gainerako hizkuntza ofizialetan ere argitaratu ahal izango dira, erkidego horiek hala erabakiko balute, Nazioko Gobernuaren eta aipatu erkidegoen artean lankidetzeta-hitzaermenak sinatuta, argitalpen horien itzulpen, edizio eta banaketan lankidetzan aritzeko. Argitalpena Estatuko Aldizkari Ofizialean edo Autonomia Erkidegoko aldizkari Ofizialean egin daiteke (1-2 art.). Horretarako, hitzaermenak sinatu dituzte Lehendakaritza Ministerioak eta Kataluniako Autonomia Erkidegoak (1998ko apirilaren 21a), Galiziako Autonomia Erkidegoak (1998ko ekainaren 18a), Valentziako Autonomia Erkidegoak (2000ko abenduaren 4a) eta Balear uharteetako Autonomia Erkidegoak (2001eko abenduaren 4a). Euskarari dagokionez, beste hizkuntza batzuen kasuan ez bezala, une honetan ez dago horren inguruko hitzaermenik, eta Estatuko arauak ez dira euskaraz argitaratzen. Era berean, hitzaermen zehatzak daude Estatuaren eta autonomia-erkidegoen artean testu ofizialak erregio-hizkuntzetara itzultzeko eta hizkuntza ofizial berezkoa duten autonomia-erkidegoetan lan egiten duten Estatuko Administrazioako funtzionarioen hizkuntza-trebakuntzarako.
- Irailaren 17ko 1465/1999 Errege Dekretua, irudi instituzionalaren irizpideak ezarri eta Estatuko Administrazio Orokorren dokumentuekoizpena eta material inprimatua arautzen dituen: Estatuko Administrazio Orokorrek erabilitako barne seinaleak eta dokumentazio inprimatuaren ereduak elebidunak izango dira hizkuntza koofiziala duten lurraldeetan (5-6 art.).
- Herri Administrazioen Ministerioaren Agindua, 1990eko uztailaren 20koa, Estatuko Administrazio periferikoan lanpostu batzuk betetzeko arauak ezarri zituen, autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizial berezkoak ezagutzeari dagokionez. Bi aukera jaso dira: hizkuntza berezkoa ezagutzea esanbidez zehaztutako plaza batzuetarako lan-eskaintza publikoan parte hartzeko betekizuna izatea, edo hizkuntza berezkoa ezagutzea meritu gisa baloratzea plaza batzuk betetzeko, besteak beste: jendea artatzeko zerbitzua, dokumentazioa jaso eta erregratzea, jendearekin nolabaiteko lotura duten kudeaketa-eginkizunak, eta hizkuntza koofiziala ezagutzea garrantzitsua den gainerako lanpostuak.

Toki Administrazioari dagokionez

- Uztailaren 11ko 1690/1986 Errege Dekretua, Udal Batzen Lurralde Mugaketa eta Biztanleriaren Erregelamendua onesten dituen: udalerrien izena gaztelaniazkoa, bakoitzaren autonomia-erkidegoan ofiziala den hizkuntzatakoa edo bietakoa izan daitekeela ezarri du (30. art.).
- Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten duena: 86, 110 eta 201. artikuluetan ezarri da bilkuren deialdiak, gai-zerrendak, mozioak, boto partikularrak eta Informazio Batzordeen irizpenak gaztelaniaz edo autonomia-erkidegoko hizkuntza ofizialean idatzi daitezkeela, aplikatzeko moduko legeriaren eta korporazioak egindako akordioen arabera. Eztabaidetan bi hizkuntzetako edozein erabil daiteke, eta bertsio elebidunean idatzitako aktak eta ebazpenak dagozkien liburuetan kopiatuko dira bi zutabeko sistema erabiliz, bakoitza hizkuntza baterako.

Erregistroak eta Dokumentazioa:

- Erregistro Zibilari dagokionez, ministro-agindu batzuek ezarri dute gaztelaniaz gain hizkuntza koofiziala duten lurraldeetan eredu elebidunak erabiliko direla (1988ko maiatzaren 26ko agindua). Zehatz esanda, bizi-edo egoera-agirietan, Erregistroko akten ziurtagiri laburtuetan edo hitzez-hitzezkoetan, Familia Liburuan, etab. (1989ko uztailaren 20ko agindua). Amaitzeko, izen-abizenak hizkuntza ofizialetatik edozeinetan horiek duten onomastika-baliokidearekin ordeztu ahal izatea ezarri da. (Otsailaren 11ko 193/2000 Errege Dekretua, alderdi horiei dagokienez Erregistro Zibilaren Erregelamendua aldatzen duena).
- Baita dokumentazioaren arloan ere: esaterako, 1985eko apirilaren 18ko ministro-aginduak, titularraren izen berezia Espainiako hizkuntza ofizialetatik edozeinetan horrek duen onomastika-baliokidearekin ordezte ahalbidetzen du Nortasun Agiri Nazionala berritzaerakoan, edo ordezpenean jasota duen Erregistro Zibileko ziurtagiri bidez edo Familia Liburuaren bidez. Familia Liburuan Erregistro Zibilak izenaren ordezteginbidea egin duela agertu beharko da.

GAIARI BURUZKO KONSTITUZIO-JURISPRUDENTZIAREN LABURPENA

Konstituzio Auzitegiak gai honen inguruan duen jurisprudentzia honela labur daiteke: Auzitegiak argi utzi du hizkuntza-aniztasunaren lege-esparrua ez

dela Konstituziora soilik bildu, baita autonomia-estatutuetara ere (ekainaren 26ko 82/1986 KAE).

Hizkuntza bat ofiziala dela aitortzeko, agintari publikoek haien artean eta subjektu pribatuekin baliozkotasun osoarekin eta ondore juridikoekin komunikatzeko bitarteko moduan aitortu behar dute. Modu berean, hizkuntza koofizialak dituzten lurraldeetan, partikularrek hizkuntza ofizialetako bat erabiltzeak baliozkotasun juridiko osoa du agintari publikoekin dituzten harremanetan, eta hizkuntza horiek edozein organismoen aurrean erabiltzeko eskubidea Konstituzioan eta kasuan kasuko autonomia-estatutuan oinarritutako eskubidea da. Hezkuntzaren esparruan, Estatuak eta autonomia-erkidegoek gaztelania eta kasuan kasuko autonomia-erkidegoko hizkuntza berezkoa ezagutzea bermatzeko eginbeharra dute (urriaren 27ko 87/1983 eta 88/1983 KAE).

Epai berean azpimarratu da gaztelania ezagutzeko betebeharra soilik da-goela, eta kasuan kasuko autonomia-erkidegoetan koofizialak diren beste hizkuntza batzuk erabiltzea eskubidea dela, ez eginbehar individuala. Bestalde, autonomia-erkidegoari dagokio koofizialtasuna eta horren norainokoa arautzea, baina hizkuntzak kultura-ondare diren neurrian babestea Estatuari eta autonomia-erkidegoei dagokie.

Legeriaren bidez aztertu ditugun alderdi zehatzei dagokienez, administrazio-prozedurari dagokionez, hizkuntza bakar bat erabiltzea posible da, betiere, hizkuntza hori ezagutzen ez duela alegatu dezakeen interesdunaren eskubideak urratzen ez badira. Bestalde, agintari publikoek alderdiek adostasunez ezartzen duten hizkuntza erabiltzeko betebeharra dute. Era berean, erregio-hizkuntza ezagutzea meritua izan daiteke plazak betetzeko, betiere, bazterketarik egiten ez bada. Hizkuntza ofizialek maila bera dute kasuan kasuko autonomia-erkidegoetan. Hala ere, Justizia Administrazioaren esparruan, koofizialtasunaren norainokoa berezia da, Konstituzio Auzitegiaren jurisprudentziaren arabera (ekainaren 26ko 82/1986 eta 83/1986 KAE, Kataluniako Hizkuntza Normalizazioaren Legeari buruzkoa, eta ekainaren 26ko 84/1986 KAE, Galiziako Hizkuntza Normalizazioaren Legeari buruzkoa). Oraintsuko jurisprudentzian, Konstituzio Auzitegiak adierazi du, autonomia-erkidego batean kokatutako organo judizialei ez zaiela ezartzen bertako hizkuntza koofiziala ezagutzea, justizia bakarra baita Espainiako lurralde osoan. Beraz, epaileek hizkuntza koofizialean idatzita dauden eta ulertzen ez dituzten idazkiak itzultzea agin dezakete, horrela jokatzeko haien jurisdikzio-eginkizuna betetzeko beharrezkoa denean. Hori dela eta, hizkuntza hori ezagutzea baloratzen den meritua den arren, ez da karrera judizialean sartzeko betekizuna, justizia bakarra baita nazioaren lurralde osoan, eta karrera judizialeko kideei lanpostua eta erkidegoa txandakatzeko aukera ematen baitzaie (apirilaren 13ko 105/2003 KAE eta irailaren 13ko 270/2006 KAE).

ADITUEN BATZORDEAK AURKEZTUTAKO TXOSTENEAN ESPAINIAKO ERRESUMARI EGITEN ZAIZKION GOMENDIOAK

Gutunaren 15.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Espainiako Erresumak Europako Kontseiluko idazkari nagusiari Gutunaren aplikazioari buruzko hasierako aldizkako txostena aurkeztu zion, 2002ko irailaren 23an. Horixe izan da orain arte aurkeztutako txosten bakarra. Era berean, eta Gutunaren 16.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, txosten hori Europako Kontseiluko Adituen Batzordeak aztertu zuen, eta Gutunaren 16.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, horren inguruko txosten bat egin zuen Ministroen Batzorderako, 2005eko irailaren 21ean. Estatu zentralaren lehia-arazoei dagokienez, Adituen Batzordearen txostena, oro har, positiboa da Espainiak erregio-hizkuntzei eta eremu urriko hizkuntzei ematen dien aitorpenaren eta babesaren inguruan, eta erregio-hizkuntzak eta eremu urriko hizkuntzak babestu eta sustatzeko konpromisorik handienetakoa duen herrialdeetako bat dela adierazi du. Hala ere, arazo zehatz batzuk aipatu eta horien inguruan zenbait iradokizun egiten ditu:

Justizia Administrazioaren esparruari dagokionez:

Batzordeak marko arau-emailea aldatzea gomendatu du argi gera dadin Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako agintari judizial, penal, zibil eta administratiboek prozedurak euskaraz egingo dituztela alderdi batek hala eskatuz gero; akusatuari modu formalean bermatu behar zaio euskara erabiltzeko eskubidea gaztelania menperatu arren; Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako gune euskalduneko agintari judizialek, alderdietako batek hala eskatuz gero, prozedurak euskaraz egiteko betebeharra dutela prozesuko alderdiei jakinarazteko neurriak hartzea; Justizia Administrazioaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan euskaraz lan egin dezaketen langileen ehunekoa handitzeko beharrezko neurriak hartzea, zehatz esanda, epaile eta fiskalen artean, eta horretarako, trebakuntza-programa egokiak ezartzea Justizia Administrazioaren Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako langilei eta abokatuei bideratuta.

Herri Administrazioari dagokionez:

Espainiako agintariei beharrezko neurriak hartzea gomendatzen zaie nazioko lege-testurik garrantzitsuenak eta euskaldunei buruzkoak euskaraz ere eskura egon daitezen. Horretarako, neurririk egokiena euskarazko itzulpen ofizial bat argitaratzea izango litzateke gaztelaniazko bertsio ofizialarekin batera. Modu berean, beharrezko neurriak hartu beharko lirateke Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan kokatutako Estatuko Administrazioaren bulego guztietan askotan erabiltzen diren inprimakien eta testu administratiboen bertsio ele-

bidunak herritarren eskura jar daitezzen. Horrekin batera, Estatuko Herri Administrazioan ezarritako karrera- eta trebakuntza-egitura berrikustea eskatzen da, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan kokatutako Estatuko Administrazioaren bulegoetan lan egiten duten langileen ehuneko egoki batek euskara eza-gutzen duela eta laneko hizkuntza moduan erabil dezakeela bermatzeko.

Toki Administrazioari dagokionez:

Espainiako agintariei Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan udal mailan euskararen erabilera sustatzeko moduak bilatzea gomendatzen zaie. Era berean, euskaldunek Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan udal mailan ahozko eta idatzizko eskaerak euskaraz aurkeztea bermatu behar dute agintariek, baita toki erakundeek agiri ofizialak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde osoan euskaraz argitaratzea ere.

Gizarte-komunikabideei, zinemari, ikus-entzunezkoen sektoreari, etab. dagokionez:

Txostenak agintari eskudunei gomendatzen die Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan euskarazko programak ematen dituzten irrati pribatu bat eta telebista-kanal pribatu bat gutxienez sortzea bultzatu eta/edo errazteko eta Euskal Autonomia Erkidegoko komunikabide elektronikoko pribatueta eta Nafarroako irrati eta telebista programetan euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartu beharko litzuketela.

Txostenaren amaieran, Espainian erregio-hizkuntzei edo eremu urriko hizkuntzei buruzko kontzientzia sortu behar dela gomendatzen da, Espainiako komunikabideetan ia ez zaiolako arretarik eskaintzen Estatuko hizkuntza-aniztasunari, eta gaztelaniaz hitz egiten duten herritar gehienak ez direlako ohartzen Espainia herrialde eleanitza dela. Horregatik, gaztelaniaz hitz egiten duten herritarrek -gehiengoa direnak- eta nazioko komunikabideak hezteko ahalegina eskatzen da, erregio-identitateen berezitasunak onartu eta errespetatzea sustatzeko, Espainiako ondarearen osagai diren neurrian. Horren ildotik, ezinbestekoa da elkar ulertzea hobetzea eleaniztasunaren bertuteak eta elkarbizitza baketsu eta harmoniatsuen funtsezko ideia sustatzeko.

ESPAINIAK ADITUEN BATZORDEAREN TXOSTENARI EGINDAKO IRUZKINAK

Bestalde, eta Gutunaren 16.3 artikuluan ezarritakoa dela bide, Espainiako Gobernuak zenbait iruzkin egin zituen Adituen Batzordearen Txoste-

nari buruz. Aipagarrienak jasoko ditut jarraian: Justizia Administrazioari dagokionez, Espainiako Gobernuak azpimarratu du hizkuntza koofiziala ezagutzea meritu gisa baloratzen dela, baina Konstituzio Auzitegiarentzat ez da betekizun funtsezko edo baztertzaila. Horrez gain, sistema judizialak justiziaren jarduna sustatzen du hizkuntza ezagutzeagatik bereizkeriarik egin gabe, eta inguruabar horrek ezin du justiziaren jarduna geldiarazi nazioaren lurraldeko edozein esparrutan. Espainiako arau juridiko nagusiak hizkuntza koofizialean argitaratzeari dagokionez, Espainiako Gobernuak Kataluniako Generalitatearekin, Valentziako Generalitatearekin, Galiziako Xuntarekin eta Balear uharteetako Governarekin sinatutako hitzarmenak aipatu ditu, horiei esker Estatuko xedapenak dituzten Estatuko Aldizkari Ofizialaren eranskin batzuk argitaratu baitira katalanera, valentzierara eta galizierara itzulita. Komunikabideei dagokienez, Espainiako Gobernuak azpimarratu du nazioko irrati-kateek deskonexioak egiten dituztela autonomia-erkidegoetarako, eta horietan hizkuntza koofizialean aritzen direla, eta irrati publikoaren kanal bategi programazio osoa katalanez egiten duela (Radio 4) eta gainerako kasuetan, irrati publikoa (RNE) astean zenbait orduz Kataluniako, Balear uharteetako eta Galiziako hizkuntza koofizialean aritzen dela, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroan eta Valentziako Autonomia Erkidegoan albisteak gaztelaniaz eta hizkuntza koofizialean ematen dituztela. Estatuko telebista publikoari dagokionez (RTVE), egunero-egunero deskonexioak egiten ditu autonomia-erkidegoetan, eta horietan hizkuntza koofizialean ere aritzen da.

EUROPAKO KONTSEILUKO MINISTROEN BATZORDEAK GUTUNAK ESPAINIAN IZAN BEHARREKO APLIKAZIOARI BURUZ EMANDAKO GOMENDIOA

Amaitzeko, Ministroen Batzordeak, Espainiak eta Adituen Batzordeak aurkeztutako txostenak eta Espainiak Adituen Batzordearen txostenari buruz egindako iruzkinak ikusita, 2005eko irailaren 21ean, erregio-hizkuntzen eta eremu urriko hizkuntzen Europako Gutuna Espainian aplikatzeari buruzko gomendio bat onetsi zuen (RecChL gomendioa (2005) 3). Estatu zentralaren eskumenei dagokienez, batez ere, Espainiak Justizia Administrazioaren esparruan beharrezko neurriak hartu behar dituela azpimarratu zuen autonomia-erkidego elebidunetako Justizia Administrazioako langileen ehuneko egoki batek hizkuntza koofizialen ezagutza praktikoa duela bermatzeko. Gomendio bera egiten da Estatuaren Administrazioak autonomia-erkidego elebidunetan dituen langileei dagokienez. Amaitzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko komunikabide pribatuetan eta Nafarroako irrati- eta telebista-programetan euskararen erabilera sustatzea eskatu du.

OINARRIZKO BIBLIOGRAFIA

AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, I. «Reflexiones jurídicas sobre la oficialidad y el deber de conocimiento de las lenguas» in ZZ.AA. *Estudios sobre la Constitución Española. Homenaje al Profesor Eduardo García de Enterría*. Madril: Ed. Civitas, 1991, II. liburukia.

——— *Diversidad y convivencia lingüística. Dimensión europea, nacional y claves jurídicas para la normalización del euskara*. Donostia/San Sebastián: Gipuzkoako Foru Aldundia, 2003.

COBREROS MENDAZONA, E. *El régimen jurídico de la oficialidad del euskara*. Oñati: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea, 1989.

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUA. *EAEko Administrazio orokorraren euskalduntze prozesua. 1989-2004. Emaizak eta III. Plangintzaldirako asmoei buruzko Kontseiluaren irakurketa*. 2004.

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN BEHATOKIA. *Espainiako Estatutuko Administrazio Orokorra eta euskaldunon hizkuntz eskubideak (2003)*. <http://www.behatokia.org/>

——— *An application of the Spanish state's evaluation of the European Charter for Regional or Minority Languages to Euskara, the Basque language (2003)*. <http://www.behatokia.org/>

——— *Hizkuntz eskubideen egoera Euskal Herrian*. Gaur egun arteko txostenak kontsultatu daitezke, web-orrialde honetan: <http://www.behatokia.org/>

IRIONDO, X. «Hizkuntz eskubideak kontzeptu juridikoa eta Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsala». Udako Euskal Unibertsitatearen Zuzenbide Saila, *Hizkuntz eskubideetan trebakuntza*. Iruñea: 2003.

——— *Hizkuntza gutxituen lege statusa. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa 2003-2004*. Asmoz, 2003.

KASARES, P. «Cinco status diferentes para la lengua vasca y los derechos lingüísticos» in Linguapax, *Actas del Congreso Mundial sobre Políticas lingüísticas*, Bartzelona: 2002. www.linguapax.org/congres/indexcast.html

——— *Hizkuntz eskubideak Euskal Herrian. Zer eskubidez ari garen eta zertan diren*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, Giza Eskubideen Institutua, 2004.

REVISTA INTERNACIONAL DE LOS ESTUDIOS VASCOS. «15 años de la Ley del Euskera en Navarra», 2001. urtea, 46-2.

ZZ.AA. «Euskararen Normalkuntzarako Legea aztergai». *Eleria*, 2000. urtea, 5. zk. (zenbaki monografikoa).

- *Hizkuntzen Europako urtea. Euskararen egoera juridikoa Nafarroan / Año Europeo de las lenguas. La situación jurídica del euskara en Navarra*. Iruñea: Euskara Kultur Elkargoa, 2002.
- *Carta Europea de las lenguas regionales o minoritarias. Una perspectiva sobre su aplicación*. Iruñea: Euskara Kultur Elkargoa, 2003.
- «Nafarroako Euskararen Foru Legea aztergai». *Eleria*. 2003. urtea, 11. zk. (zenbaki monografikoa).

EUOPAR BATASUNA ETA EUSKARAREN ALDEKO HIZKUNTZA POLITIKA IPAR EUSKAL HERRIAN

Jean-Baptiste Battittu Coyos

SARRERA

Euskararen aldeko hizkuntza politikaz mintzatu nahi dugunean Ipar Euskal Herriko kasuan, ohar bat bertan gogora etortzen da: Europar Batasunak eguneroko biziaren alor askotan eragin handia badu, Frantzia osoan bezala, tokiko edo eskualdeko hizkuntzen alorrean eraginik ez duela bat ere, edo guti bederen, aitortu behar da. Eta beraz, adibidez, frantses legegintza bakarra da indarrean dagoena.

Europaren eragina Iparraldeko hizkuntza politikan hiru mailan azter genezake: legegintzarenean, ideologiarenean eta diru-laguntzarenean. Aukera hori ere baliatuko dugu Iparraldeko euskararen alde garatzen den hizkuntza politika aurkezteko eta aztertzeke, Europaren eragina ahula izanik ere.

1. FRANTZIA ETA EUROPA: HIZKUNTZEN LEGEZKO TESTUIN- GURUA IPAR EUSKAL HERRIAN

Lehen zati hori Erramun Baxokek zehazki aztertu du eta beraz ez naiz luze izanen, datu batzuk oroitaraziz bakarrik. Frantziak, 2000ko *Oinarrizko Eskubideen Karta*-z bestalde, ez du hizkuntzekin ikusteko duen europar lege testu edo hitzarmen bat ere berretsi, eta beraz horien eragina ideologikoa dela bakarrik esan genezake. Jendearen ideia-sistema, eskualde eta hizkuntza gutxituei buruzko ikusmoldea bilakarazi, aldatu du, Frantzian ere, 1789ko iraultzaren hizkuntzei buruzko ideiak zalantzan jarriz XX. mendeko bukaeran zehar.

Eta egia da euskaltzaleek testu horiek baliatu eta baliatzen dituztela bote publikoak akuilatzeke, baina erantzuna beti bera da: Frantziako legegintzak ez dio ofizialtasunik edo onarpenik ematen euskarari edo edozein eskualde hizkuntzari. Haien irakaskuntza baimentzen du eta ez gehiago. Horiek dira indarrean edo baztertuak diren testu garrantzitsuenak.

1.1. Europako Kontseiluaren hizkuntzen aldeko legegintzaz

- *Eskualdetako Hizkuntzen eta Hizkuntza Gutxituen aldeko Europako Karta* (Estrasburgo, 1992/11/05)

Frantzia gutun honen izenpetzeak, 1999ko maiatzaren 7an, eztabaida harriarria piztu zuen; azken finean ez zen onetsia izan ez eta beraz sekula praktikan erabilia ere. *Conseil constitutionnel* delakoak 1999ko ekainaren 15ean jakinarazi zuen Gutuna Frantses Konstituzioaren aurka joaten zela.

- *Gutxiengo nazionalak babesteko Esparru-hitzarmena* (Estrasburgo, 1994an onartua, 1995/02/01ean izenpetzaileei eskainia, 1998/01/02an indarrean sartua)

II. tituluaren 9., 10., 11., 12., 13. eta 14. artikuluek, batez ere, hizkuntzak aipatzen dituzte. Akordio hori ez da batere aipatua izan Frantzia. Testua Europako Gutuna baino iraultzaleagoa delakotz erran nezake! Frantziako senatari ordezkariak batek bakarrik eztabaidatu du testua, Europako Kontseiluko batzarretan parte hartu ondoren. Ondorioa argia izan zen Frantziarentzat: «Nire ustez, gutxiengo nazionalen babesteko beste tresna juridikorik onartzea ez da beharrezkoa» (Nicolas About, frantses senataria, 1997/09/24).

1.2. Europar Batasunaren hizkuntzen aldeko legegintzaz

- *Nizako Ituna* (2000): *Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Karta* (2000/C 364/01)

Oinarrizko Eskubideen Karta hori 2000ko irailaren 7an Europar Parlamentuak, Europako Kontseiluak eta Europar Batzordeak aldarrikatua izan da. III. atalak «Berdintasuna» 21. artikulua dio: «Sexu, arraza... hizkuntza oinarritua den bereizkuntzarik ez duela onartzen...» eta 22. artikulua: «Batasunak desberdintasun kultural, erlijioso eta linguistikoa errespetatzen du». 2003ko otsailaren 1az geroztik indarrean da. Halere, testu horri ez diote eman Europako itun batek lukeen indar juridikoa eta, gainera, erraza da Frantziarentzat erraitea desberdintasun linguistikoa errespetatzen duela. Indarrean den testu hori ez da aski hertsagarri.

- *Europako Konstituzioko Ituna* (2004)

Besteak beste, Oinarrizko Eskubideen Gutunaren agindu bat onartzen du Itunak: Europar Batasunak bere kultur eta hizkuntza aniztasunaren aberastasuna errespetatuko du (I-3.3 eta II-82 artikulua). Gainera, Europar Batzordeak hizkuntza diskriminazioaren aurkako lege proposamen bat egin dezakela onartzen du testuak (II-81 artikulua).

Baina, dakigun bezala, Europako konstituziorako erreferendumean ituna gaitzetsia izan zen Frantzian (2005/05/29) eta bai ere Herbehereetan (2005/06/01). Geroztik, lotan dago.

1.3. Frantzia, eskualde erakunde publikoak eta tokiko hizkuntzak: frantsesaren aldeko legegintza

Frantzia estatu zentralizatu bat da eta jakin behar da tokiko edo eskualde hizkuntzak edozein erakunde publikoren eskumen-eremuetan ez direla sartzan, hizkuntza horien irakaskuntzaz bestalde, azken hau Hezkuntza nazionalak beregain hartzen duelarik.

- ***Deixonne delako legea* (1951): Frantziako tokiko hizkuntzen aldeko lege bakarra**

Lege horrek lehen aldikoz «tokiko hizkuntzen eta dialektoen ikastea» baimentzen zuen (1. artikulua). Baina irakaskuntza hori nahierarakoa zen (3. artikulua) eta hori ordudanik ez da sekula aldatu. Astean oren bateko jardunaldia kudeatzeko eskubidea aitortzen zuen. Erran behar da oren kopuru hori emendatu dela geroztik, murgiltze ereduraino.

Azken batean, lege bat besterik ez da frantsesetik kanpo Frantziako hizkuntzei osoki emana dena, *Deixonne* lege delakoa. Irakaskuntza baizik ez du kontuan hartzen eta berrogeita hamar urte baino gehiago ditu. Hizkuntza horien ezagupenerako maratoia ez da oraino bukatua.

- ***Konstituzioaren bigarren artikuluari zuzenketa***

1992an diputatuek Konstituzioaren bigarren artikulua aldatu dute erranez frantsesa zela Errepublikaren hizkuntza:

La langue de la République est le français (1).

Bi urte buruan, beraz 1994an, lege berezi bat sortu dute, *frantses hizkuntzaren erabilerari buruzko legea* deitzen dena:

La loi relative à l'emploi de la langue française.

- ***Hezkuntzaren kodea* («*Le Code de l'éducation*», 2000)**

2000ko legegintza-testu orokor horrek irakaskuntzari buruzko aurreko lege testu oroen lekua hartzen du. Bere laugarren zatiko L312-10 artikulua, «*L'enseignement des langues et cultures régionales*» deitzen dena, aldatu izan da 2005eko apirilean, «lurralde-hizkuntza eta kultura irakaskuntza eman daiteke eskola-ibilbide osoan zehar, estatuaren eta lurralde-kolektibitateen arteko

(1) Zuzenketa hori «Toubon-Lamassoure artikulua» deitzen ohi da, Alain Lamassoureren deitura erabiliz, hautetsi horrek emendakin hori aurkeztu baitzuen, Iparraldeko deputatu zelarik orduan, orain eurodeputatu eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluaren lehendakari.

hitzarmen baten bidez finkatuak diren modalitateen arabera, hizkuntza horiek erabiliak diren eskualdeetan», esanez.

Aspaldiko Deixonne legeari so eginez, ohartzen gara *Hezkuntzaren kode* delako horrek lurralde-hizkuntzen edo lurralde-hizkuntzezko irakaskuntzari ez diola gauza handirik ekartzen.

• **Legegintzaren eraginak: bi adibide**

Legegintza berri horri esker, esan nahi baita konstituzioaren bigarren artikuluari 1992ko zuzenketa eta 1994ko legea, frantsesa gerizatu behar zuten ingelesaren eragin eta erasoez. Dakigun bezala, koadro juridiko berri hori erabilia da bereziki lurralde-hizkuntzen aldeko aitzinamenduak tratatzeko, Iparraldeko euskararen aldekoak adibidez. Eta ez du deus egiten ahal edo ez gauza handirik ingelesaren eraginaren aurka.

Nola legegintza hori erabilia den tokiko hizkuntzen aurka hona bi adibide.

– **Murgiltze eredia: legegintzaren aurkakoa** Estatu Kontseiluaren 238653 deliberamendua (*Conseil d'Etat*, 2002/11/29)

Murgiltze eredia legegintzaren aurkakoa da Estatu Kontseiluaren erabakiaren arabera, Hezkuntzaren kodetik urrunago joaiten baita (2). Erabaki horren ondorioa da murgiltze eredia, jasana bada ere, onartua ez dela. Aldi berean, irakaskuntza eredu hori garatzen da Iparraldean, baina, era batez, zalantzan izanik esan daiteke.

– **Parekotasuneko elebidun eredia: eredu honi mugatzea** Estatu Kontseiluaren 238653 deliberamendua (2002/11/29)

Estatu Kontseiluak erabaki du, Hezkuntzaren kodearen arabera, ikasgai oroen irakaskuntzaren zati bat frantsesez egin behar zela. Honela parekotasuneko elebidun ereduaren pedagogia mugatu du (3).

(2) «Selon la méthode dite par “immersion” mise en place par l’arrêté du ministre de l’éducation du 19 avril 2002 et la circulaire n° 2002-103 du 30 avril 2002 qui la complète, la langue régionale est utilisée soit exclusivement dans les écoles maternelles, soit comme langue principale d’enseignement et de communication dans les écoles et établissements des premier et second degrés (...). De telles prescriptions vont au-delà des nécessités de l’apprentissage d’une langue régionale et excèdent ainsi les possibilités de dérogation à l’obligation d’user du français comme langue d’enseignement qu’autorisent les dispositions des articles L. 121-3 (II. - La langue de l’enseignement, des examens et concours, ainsi que des thèses et mémoires dans les établissements publics et privés d’enseignement est le français, sauf exceptions justifiées par les nécessités de l’enseignement des langues et cultures régionales ou étrangères) et L. 312-11 (Les maîtres sont autorisés à recourir aux langues régionales dans les écoles primaires et maternelles chaque fois qu’ils peuvent en tirer profit pour leur enseignement, notamment pour l’étude de la langue française) du code de l’éducation.»

(3) «Les dispositions, qui se bornent à prévoir que, dans les sections “langues régionales”, les enseignements sont dispensés pour moitié en langue régionale et pour moitié en français ne comportent aucune règle relative à la répartition des différentes disciplines entre l’enseignement en français et l’enseignement en langue régionale et ne permettent pas d’assurer qu’une partie au

1.4. Legegintzaren aldatze nahikariez Iparraldean

Ikusiz nola Frantziaren legegintzak euskararen aldeko hizkuntza politika tratatzen zuela Ipar Euskal Herrian, Frantzia osoan bezala, agertu diren entsegu bat eta egitasmo bat aipatzekoak dira. Biak Lamassoure eurodeputatuak bere kabuz hartuak dira, Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluaren lehendakari gisa, jakinez azken bost hamarkada horietan, borrogeita hamar bat eskualde hizkuntzen aldeko lege proposamen aurkeztu dituztela *Assemblée nationale* delakoan, batzuk eztabaidatuak izan direnak, baina bat ere onartua izan ez dena.

2004an, Ipar Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak galdatu zuenaren arabera, Franck Moderne lege-kontuetan adituak ikerlan bat kudeatu zuen ikusteko «euskararen egoera juridikoa eta haren irakaskuntzaren ahalezko bilakaera» zein ziren. *Problématique juridique du statut et de l'enseignement de la langue basque* (Euskararen estatutuaren eta irakaskuntzaren problematika juridikoa) deitzen da txostena (2004/09/23). Emaitzak biziki xumeak izan ziren, 2003ko «deszentralizazio» legeak emaiten zituen ahalbide berriak hain argiak ez zirelako. Azkenik lan hori ez da publikoki aurkeztua izan eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluaren web gunetik kendu dute.

2006ko hastapenean, Lamassoure jaunak, berriz, prentsan esan du «eskualde hizkuntzen onarpenaren eskuratzeko lege testu proposamen bat» nahi zuela prestatu, eta hori 2006an (ikus adib. *Euskal Herriko kazeta*, 2006/01/14-15). Iduri du egitasmo hori bidean utzirik izan dela, 2006ko bederen.

2. EUROPAR BATASUNAREN DIRU-LAGUNTZAK IPAR EUSKAL HERRIAN: PROIEKTU BATZUK

Europar Batasunak hizkuntza gutxituen aldeko proiektuak laguntzen zituen, Hezkuntza eta Kultura Zuzendaritza orokorraren bidez. Baina 2001ean, aitzinkonturik ez zen emanik izan. 2003an berriz «Apprentissage des langues et diversité linguistique» dei bat hedatua izan zen, baina iduri luke Ipar Euskal Herriatik ez dela proposamenik igorri.

Halere, euskara kontuan hartzen duten proiektu batzuk lagunduak izan dira, Europar Batasunaren beste hiru lankidetzarako aitzinkontu erabiliz, mugaz gaindiko egitasmoak onartzen dituztenak. Esan behar da proiektu horiek gutxi direla, dozierraren prestatzea erraza ez baita eta prozedura luzea.

moins des enseignements de ces disciplines se font en français. Ces prescriptions ouvrent des possibilités qui vont au-delà des nécessités de l'apprentissage d'une langue régionale et excèdent ainsi les possibilités de dérogation à l'obligation d'utiliser le français comme langue d'enseignement prévue par les dispositions des articles L. 121-3 et L. 312-11 du code de l'éducation.»

2.1. Interreg III (FEDER «Fonds européen de développement régional» 2000-2006)

Akitania eskualdeak 84, 3 M euroko INTERREG III A (Frantzia-Espainia) europar egitaraua kudeatzen du, Pirinioetako mugaz gaindiko espazioa garatu nahi duena. Ekintzen artean, hamargarrenari esker, «Promouvoir et développer les actions culturelles communes et le multiculturalisme» deitzen dena, Iparraldeko elkarte batzuek diru-laguntza eskuratu dute.

- ***Antxeta Irratia*** (2002/02/18an sortua: «Groupement Européen d'Intérêt économique» baten bidez): Gizarte irrati-emankizunak Irun, Hondarribia, Hendaia, Pausu eta Biriatu arteko biztanleriaren gizarte-interesak ezagutarazteko. Orotara 75.944,68 €, laguntza: 37.900 € (2002/07/11).
- ***Ikas – Elhuyar fundazioa: Gure ingurumena*** euskarazko CD-Roma (500 ale). Elhuyarekin egina eta argitaratua, 6 eta 11 urte bitarteko haurrentzat: hainbat azalpen eta joko uraz, zuhaitzez eta oihanez, hegaztiez, bai eta hondakinen birziklapenaz. Orotara 45.008 €, laguntza: 18.415 € (2002/11/12).
- ***Eusko Ikaskuntza (Donostia – Baiona)***: Albiste kulturalendako *on-line* datu-base bat. Urte anitzeko programa. Orotara 119.779 €, laguntza: 59.889 € (2002/11/12).
- ***Txigundiko badiari buruzko maleta pedagogiko hirueleduna*** (euskarra-frantses-espainiera). Orotara 213.428 €, laguntza: 76.224 € maleta-rendako (2002/11/12).
- ***Chimères antzetzalde (Miarritze)***. Brecht-en *Kaukaziako krezako borrobila* antzerkia euskaraz (frantsesezko eta espainierazko azpigitulukin). Orotara 555.100 €, laguntza: 178.870 € (2004/11/04).
- ***Euskal Kultur Erakundea***: Interakziozko «Kantuketan» erakusketa mugikorra Bartzelonan. Orotara 30.825 €, laguntza: 13.871 € (2004/11/04).
- ***Kostaldeko Itsas Gunea (Miarritze)***: Egitasmoaren helburuetan, frantses eta espainiol estatuetako ikasleen arteko harremanak eta eleaniztasuna bultzatzea, ingurumenari hezkuntzaren bidez. Orotara 599.474 €, laguntza: 299.737 € (2004/11/04).
- ***Baiona-Donostia Eurohiriari buruzko unitate didaktikoa***: Gazteei erakustea zein den Eurohiriako kultura-aniztasunaren eta eleaniztasunaren errealitatea. Orotara 27.000 €, laguntza: 13.500 € (2004/11/04).
- ***Seaska (Baiona)***: Intranet sare bat sortzea, Seaska federazioaren partaide oroen arteko komunikazio zerbitzu bat eskaintzeko (irakasleak, gurasoak, ikasleak), eskualdeen arteko berdintasuna gauzatzeko. Orotara 1.093.086,10 €, laguntza: 544.578,60 € (2004/11/04).

- **Coopelingua elkarteak:** Pika haurrendako euskarazko aldizkaria lagundua da Coopelingua kooperatibaren bidez, aldizkariaren bretoierazko, okzitanierazko eta korsikerazko bertsiorekin batean.

2007-2013ko ez da Interreg IV-rik izanen, baina «Volet coopération territoriale» delako bat garatuko da. Helburua beti bera izanen da: bi estatuen arteko mugaren inguruko eskualdeen arteko loturak garatzea. Europar Batasunak Interreg diru laguntzak bikoiztu beharko lituzke.

2.2. Leader + (2002-2008)

Leader + baserri eremuetarako europar programa bat da. Iparraldean bezaraz, barnekaldeko informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sustatzen ditu. Euskarari lotuak diren hiru proiektu laguntzen ditu:

- **Errobi promotions elkarteak** (Hazparne). Irrati elebidun bat Interneten, Gure Irratiaren laguntzarekin (www.radio.kultura.net). 63.414 €-etarik Europako Leader +-k laguntza hori ekarri du: 31.707 € (2004), gehi Pirinio Atlantikoetako Kontseilu orokorrak: % 10.
- **Euskaldun gazteria elkarteak.** Elkartearen barnekaldeko biziaren 50 urteei buruzko bideo dokumental bat eta web gune bat sortzea: 10.240,07 € (2005/04/22).
- **Irulegiko irratia.** Irratiaren web gune propioa sortzea, administratzaile lanpostu erdi batekin (www.irulegikoirratia.com): 14.139 € (2005/12/06).

2.3. Akitania-Euskadi fondoak

Akitania-Euskadi eta Akitania-Nafarroa lankidetzarako fondoei esker, ekintza batzuk ere lagunduak dira, «Bilinguisme franco-espagnol et développement des langues basque et occitane» sailean sartzen direnak. Horien artean hona Akitania-Euskadi fondoaren bi adibide.

- **Euskal Kultur Erakundeak:** *Euskal Herriko aurpegiak* ukipen pantaila (2003). Ukipen pantaila horri esker, Euskal Herriari buruzko premiazko xehetasunak emanak dira. Hemengo bereko jendeengana eta kanpotik etorriengana jotzen du. Lau hizkuntzatan egin da.
- **Euskal Kultur Erakundeak:** *Praktika kulturalak eta nortasun kolektiborak Euskal Herrian* (2005). 2004-2005ean eraman inkesta da, Eusko Ikaskuntzaren partaidetzarekin egin eta Eusko Jaurlaritzako prospekzio soziologikoen kabinetearen laguntza teknikoari esker.

Iparraldeko elkarteek europar diru-laguntza horiek baliatzen dituzte beren egitasmoak bururatzeko, baina bai eta ere beren legitimitatea indartzeko, toki-ko botere publikoei buruz. Beren euskararen aldeko lana azkartzen eta legitimatzen du, goiko babesa lortzen duela erakutsiz, ez bada beti Frantziakoa.

3. HIZKUNTZA POLITIKAREN EGITURATZEA IPAR EUSKAL HERRIAN

Laurogeita hamarreko hamarkada arte Iparraldeko botere publikoek hizkuntza politika kontzeptua ez zuten aipatzen ere. Diru laguntzak zuhurki ematen zituzten euskararen alde ari ziren elkarte batzuei, aukera irizpiderik gabe, emaitzak neurtu gabe.

Aldi berean, oztopo asko jartzen zitzaizkien elkarte horiei frantses legegaldia estakuru gisa hartuz, hizkuntza politika beste alorrak bezala gizarte-alor bat zela ez onartuz, politika eta hizkuntza politika nahasiz. Gorago ikusi dugun bezala, Europako hizkuntzei buruzko testuetarik bat baizik ez da indarrean Frantzian: 2000ko *Oinarrizko Eskubideen Kartak* eragin handirik ez du.

Halerik ere, Erramun Baxokek erakutsi duen bezala, elkarteen eta euskaltzaleen lana emeki-emeki onartua izan zen, *Pizkundera* eta *Deiadar* mugimenduei esker besteak beste, eta hizkuntza politikaren gaiaren eztabaidatzea mahaiaren gainean jarri zen.

3.1. Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskema (1996)

Frantziako deszentralizazioaren ildoan, garatzen zen lurralde antolaketa mugimendua baliatuz, 1996an, Euskal Herriko Garapen Kontseiluak eta Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluak lau urteko gogoetak aurkeztu zituzten. *Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskema* euskal elkarteen eta hautetsien lanaren fruitua zen, finantzamendurik gabeko egitarau bat, baina beharrezko urratsa, *Euskal Herriko Hitzarmen Berezia* emanen duena, 2000n. Hizkuntza antolaketa atal bat edukitzen zuen.

3.2. Euskal Herriko Hitzarmen berezia (2001-2006)

Azkenean, 2000n, Estatu-Akitania Eskualde Kontratu Planaren *Euskal Herriko Hitzarmen Berezian*, lehen aldikoz, botere publikoek hizkuntza politika atal bat sortu zuten, Estatu, Eskualdea eta Pirinio Atlantikoetako Departamendua partaide nagusienak zirelarik.

Hamar neurri baditu atal horrek, denak aurrekontu batekin. Lehena «Politique linguistique» deitzen da, baina aurrekontuetatik txikiena dauka. Urrats handi bat bazen ere, botere publikoek azkenik politika hori bereganatzen baitzuten, euskararen aldeko lan egiten zuten elkarte nagusiak hizkuntza politika partaide eta eragiletzat hartuak zirelarik, atal hori egiazko euskararen aldeko plan bat ez zela azpimarratu behar da.

3.3. Euskararen Erakunde Publikoa (2005-2010)

Azken etapa izan zen beraz egiazko egitura publiko bat sortzea. *Euskararen Erakunde Publikoa* deitu dute (EEP). Erakunde berri horrek hizkuntza politika publikoa beregain hartuko du. Euskararen Erakunde Publikoa osatzen duten kideak aurrez Hitzarmen berezia finantzatzen eta kudeatzen zuten berak dira. Talde profesionala txikia da, lau lanpostu eta erdi dauzka.

Hitzarmen hori aurten, 2006ean, bururatzen da eta Euskararen Erakunde Publikoak, 2007-2010 hizkuntza politika proiektua prestatu behar du urte bukaerako. 2006ko otsailaren 22an, proiektu horrentzat proposatzen zuen eginmoldea aurkeztua izan zaio Aholku Batzordeari, helburuak, metodologia, egutegia, erronka estrategikoak. Euskararen alde lan egiten duten eragile, elkarte eta adituekin hainbat bilkura egin eta, urriaren 26an hizkuntza politika aitzinproiektua aurkeztu dute: *Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun*. Horri buruz ohar batzuk eginen ditut geroago.

3.4. Mugaz gaindiko harremanak

Europaren eragina alor horretan gero eta argiago agertzen da, eta Iparraldeko euskaltzaleek eragin hori erabiltzen ikasi dute. Euskara Euskal Herriko mugaz gaindiko hizkuntza baita, elkarteen arteko eta Hegoaldeko botere publikoekiko harremanak garatu dira. Ez ditugu hemen zehazki aipatuko, baina jakin behar da Euskadi Autonomia Erkidegoko Hizkuntza Politikarako Saiburuordetzak Ipar Euskal Herriko elkarteak diruz laguntzen dituela nasai-ki, Frantziako botere publikoek baino gehiago batzuetan. Jakin behar da, irakaskuntzaren arloan, azken horiek kontratu pribatupean dagoen egiturarik ezin dutela diruz lagundu, legegintzaren arabera. Hegoaldeko beste egitura batzuek ere Iparraldekoak diruz laguntzen dituzte.

Botere publikoen arteko mugaz gaindiko harremanak sortu dira duela guti, Frantziako beldurra desagertu ondoren. 2000n oraino mesfidantza, aitzin-irritziak hedatuak ziren Iparr aldetik, «atzerriko laguntza» deitzen zutena ez baitzuten onartu nahi, Euskal Herria ezeztatuz gain, Europar Batasunean ginelako kontuan hartu gabe.

Baina Eusko Jaurlaritzak eta Euskararen Erakunde Publikoak 2003an hitzarmen bat izenpetu dute eta geroztik erreberitzeko prozedura finkatu dute. Akordioa 2007an sartuko da indarrean eta prestik 2006ko abendurako, Madrilko eta Pariseko onarpena eskuratu eta. EEP sortuz geroztik solaskide bat dute parean Hegoaldeko botere publikoek. Euskal Herriko laugarren inkesta soziolinguistikoaren ardura hartuko du EEPk. Eusko Jaurlaritzak Seaska eta ikastetxe pribatuei eskaini diru laguntzen berri emanen dio EEPri, besteak beste.

3.5. EEPren hizkuntza politika aitzin proiektua (2006/10/26)

Euskararen Erakunde Publikoak hizkuntza politika aitzinproiektu bat aurkeztu du 2006ko urrian. *Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun goiburuarekin, hamaika «erronka» nagusi biltzen dira bertan: 1/ Familia bidezko transmisioa, 2/ Lehen haurtzarora, 3/ Irakaskuntza, 4/ Hedabideak, 5/ Atsedendia, 6/ Argitalpena, 7/ Euskara bizi publikoan, 8/ Toponomia, 9/ Helduen euskalduntzea, 10/ Euskararen kalitatea, 11/ Motibapena.*

Xehetasunetan sartu gabe, hona gogoeta batzuk. Lan berri eta aberats hori urrats beharrezkoa zen, duela 10 urte asmaezina zena. Halere, legezko koadro eskasak zalantzan jartzen du era batez. Bi adibide eman ditugu irakaskuntzaren kasuan; baina eskas horren eragina indartsua da bizi publikoan, administrazioetan, zerbitzu publikoetan, eta bai herritarren buruetan ere!

Bestetik, holako aitzinproiektuak izigarriko eginahal berriak behar ditu sail orotako formakuntzak sortzeko (unibertsitatekoak bereziki), epe luzerakoak, gai lirakeen langileak eskuratzeko «11 erronka nagusiei» buru egiteko. Oraingo egoeran, holako gaitasunak ez dira laster aurkitzen ahalko Ipar Euskal Herrian.

Aitzinkontu egokirik eta beharrezko formakuntzarik / langile aditurik gabe, printzipio eta helburu hobeki zehazturik gabe, egutegirik gabe, aitzinproiektu hori finantzamendu galdurekiko egitasmo bat izan daiteke, luzakor daitekeena, garatzen den hizkuntzaren edo hizkuntzazko irakaskuntzarekikoarekin, bainan hautuzko hizkuntza batekin oraino, ez beharrezkoa, hezkuntzazikloan zehar uzten dena, «gauza serioak» hasten direnean, bizi sozialean bigarren mailako lekua duena.

Proiektuaren txostenean, azken «Motibapena» alorra hitz horietan aurkezten da: «motibapena piztu, azkartu eta egonkortu, euskararen ikastearen, baliatzearen eta transmititzearen aldeko dinamika iraunkor bat jendartean sortzeko gisan». Iduri du, proiektu oso horretan, motibapena norberaren nahikaritzat, borondatezkatzat hartua dela. Halere, hizkuntza-antolakuntzaren alorrak erakusten digu hizkuntza bat erabilia izanen dela beharrezkoa bada: gizartearen mailan, argi da nortasun motibapena (hizkuntza ikurtzat) edo hizkuntza kulturaren oinarri gisa aski eraginkorrak ez direla (Iparraldea horren frogatzen da).

Eta beraz, gehienetan, hizkuntza nagusia da erabilia dena eta ez mehatxatua. Nahi edo ez, errealitate soziolinguistiko hori kontuan hartu behar daiteke hizkuntza politika eraginkor bat bidean jartzeko.

Kontuan hartuz nola Iparraldeko bi azken belaunaldiek eskuratu zuten euskara beren haurrei ez dieten eman, nola inkesten arabera heldu gutxi euskara ikasi nahi duten, nola atzerritar gero eta gehiago kokatzen diren Iparraldean, euskal kulturaren eta hizkuntzaren izpirik ezagutu gabe, nola frantsesa beharrezkoa den Iparraldean bizitzeko eta ez euskara, iduritzen da «gogoia, nahikaria» delako hori (aurkezpena, 2006/02) edo «motibapena» (aitzinproiektua, 2006/10) ez direla aski eraginkorrak izanen, euskararen egoera aldatzeko.

Alderantziz, ezaugarri onak gutxi dira. Baina gero eta familia gehiago beren haurrentzat euskararen irakaskuntzaren aukeratzea (B edo D ereduak) horietarik bat da, dudarik gabe. Aitzinproiektuan, 16-29 urteko gazteentatik %22 euskaraz mintzatzen direla eta «irakaskuntzaren bidezko transmisioaren lehen ondorioak» lirakeela esaten digute. Baina ez dakigu zein den gazte horien egiazko ezagutzaren maila, lehen belaunaldietakoekin konparatuz. Gainera, hizkuntzaren ezagutza erabiltea dela aditzera emaiten dutela iduri luke. Baina hizkuntza gutxituaren kasuan, badakigu ez dela bat ere hola.

«Motibapena / Halabeharra»-ren dialektika sakondu beharko da. Gure gurasoek frantsesa ikasi dute ez motibapenarengatik, baina bai bereziki halabeharregatik. Beraz motibapen nozio hori zabaltzeko litzateke, norberaren eta elkarrekilako zeharkako «erronka» delarik jakinez.

Beraz politikaren helburuetarik bat euskara hizkuntza bakarra denarekiko lekua, aldia sortzea da, *oasi euskaldunak* Iñaki Martínez de Lunaren hitzetan. Iparraldean, ikastolak, euskal irratia horien adibideak dira; *Herria* astekaria ere bai. Motibapen soziala, hala nola hizkuntza lan-merkatuan, premiatsua da: euskararen ezagutzari esker irabazpide gehiago lortu beharko litzateke, bai eta jakitate, teknologia gero eta ezberdinagoak eskuratu ere. Hots euskara hizkuntza baliagarria bihurtu beharko da Iparraldean, irudizko zeinu izatetik gora.

Honek hizkuntzak bete beharko lituzkeen funtzioei buruzko hausnarketara erakartzen gaitu, aitzinproiektu horretan aztertua ez den gaira, eta bereziki euskararen lekura bizi publikoan. Frantsesaren eta euskararen arteko funtzioak nola erdibanatu nahi dituzte?

3.6. Eta gero?

Ohar horiek ez dute esan nahi besoak gurutzatuak egon behar dela. Proposatu den hizkuntza politika proiektu aberats horren norabidean, botere publikoek eta euskararen alde lan egiten duten elkarteek indarrak oro eman be-

harko lituzkete, euskararen erabilera-eremu berriak sortuz non euskara ohizko hizkuntza izanen den, orain bizi diren holako euskal eremuak azkartuz (ikas-tolak, euskal irriatiak), euskaldun eta euskara ikasten duen bakoitzak euskarazko harreman sareak garatuz, euskara gero eta gehiago beharrezkoa bihurtu dadin Iparraldean. Honetarako nabari da Euskararen Erakunde Publikoak bere aurtengo 1 M 7 €-ko aurrekontua emendatu beharko duela.

Bukatzeko, Europar Batasunaren politikak euskararen aldeko hizkuntza politika Ipar Euskal Herrian eragiten duela esan dezakegu (legegintza gutxi, hizkuntzei buruzko ideologia segur aski, proiektu batzuen finantzamendua diru-laguntza emanez). Erakusten saiatu gara zeharkako eragin bat zela bereziki, baina beharrezko bat dudarik gabe.

BIBLIOGRAFIA

BATZORDE, 2006, *Euskararen egoera Ipar Euskal Herrian, Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 59, ekaina, Euskal Soziolinguistika Institutua, Andoain.

Code de l'éducation, 2000 (2005), Section 4: L'enseignement des langues et cultures régionales, Article L312-10, Loi n° 2005-380 du 23 avril 2005, www.legifrance.gouv.fr/WAspad/UnCode?code=CEDUCATL.rcv.

CONSEIL CONSTITUTIONNEL, 1999, Décision n° 99-412 DC du 15 juin 1999: *Charte européenne des langues régionales ou minoritaires*, www.conseil-constitutionnel.fr/decision/1999/99412/99412dc.htm.

CONSEIL D'ÉTAT, 2002, Décision n° 238653 annulant les textes du ministre de l'Éducation nationale relatifs à l'enseignement bilingue en langues régionales à parité horaire, les textes relatifs à la mise en oeuvre de l'enseignement bilingue par immersion dans les écoles et établissements «langues régionales», les textes relatifs au passage sous statut public des établissements Diwan, 2002/11/29, http://www.conseil-etat.fr/ce/jurispd/index_ac_id0239.shtml.

COYOS JEAN-BAPTISTE, 2004, *Politique linguistique Langue basque et langue occitane du Béarn et de Gascogne*, Donostia-Baiona, Elkar.

ÉTAT - RÉGION AQUITAINE – DÉPARTEMENT DES PYRÉNÉES-ATLANTIQUES – CONSEIL DES ÉLUS DU PAYS BASQUE, 2000, *Convention spécifique Pays Basque 2001-2006*, 2000/12/22an izenpetua, polikopi, <http://www.lurraldea.net/bibliodocs/PB2010/conv-spedec01.pdf>.

EUROPAKO KONTSEILUA, 1992, *Charte européenne des langues régionales ou minoritaires (Eskualdetako Hizkuntzen eta Hizkuntza Gutxituen aldeko Europako Karta)*, Estrasburgo, 1992ko azaroaren 5a, Série des traités européens, n° 148.

- , 1995, *Convention-cadre pour la protection des minorités nationales (Gutxiengo nazionalak babesteko Esparru-hitzarmena)*, Estrasburgo, 1995/02/1, conventions.coe.int/Treaty/FR/Treaties/Html/157.htm.
- EUROPAR BATASUNA - EUROPAKO KONTSEILUA - EUROPAR BATZORDEA, 2000, *Charte des droits fondamentaux de l'Union européenne (Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Karta)*, Niza, 2000ko abendoaren 7a, www.ena.lu/europe/cours-ligne/droits-fondamentaux-union-europeenne-nice-2000.htm.
- EUROPAR BATASUNA, 2004, *Traité établissant une Constitution pour l'Europe (Europako Konstituzioko Ituna)*, Erroma, 2004ko urriaren 29a, http://europa.eu.int/constitution/index_fr.htm.
- EUSKAL HERRIKO GARAPEN KONTSEILUA, 1996, 4. atala Hizkuntz antolaketa (Norabide orokorrak, 1996/10/26), *Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskema*, Baiona, polikopi, <http://www.lurraldea.net/bibliodocs/PB2010/schema.pdf>.
- EUSKAL HERRIKO HAUTETSIEEN KONTSEILUA, 1997, 4. batzordea, Hizkuntz antolaketa (Programmes opérationnels, 1997/03/22), *Euskal Herriko antolaketa eta garapen eskema*, Baiona, <http://www.lurraldea.net/bibliodocs/PB2010/schemaDO.pdf>.
- EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOA, 2006 (2006/10/26), *Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun*, Hizkuntza Politika aitzinproiektua, polikopi, elebidun, http://www.erabili.com/zer_berri/berriak/1161696493.
- LOI n° 94-665 du 4 août 1994 *relative à l'emploi de la langue française*, www.legifrance.gouv.fr/texteconsolide/PCEAW.htm.
- MARTINEZ DE LUNA Iñaki, 2003, Soziolinguistika, *Jakin*, 136 maiatza-ekaina, Donostia, 107 112.
- MODERNE Franck, 2004, *Problématique juridique du statut et de l'enseignement de la langue basque*, Paue, 2004/09/23, argitaratu gabea.

EUROPAR BATASUNA ETA EUSKARAREN ALDEKO HIZKUNTZA POLITIKA: NAFARROA

Andres Iñigo

SARRERA

Gure aitzinetik aritu diren hizlariek Europar Batasuneko hizkuntza aniztasuna eta Europako erakundeek –Parlamentuak eta bereziki Kontseiluak–, hizkuntzen iraupen eta garapenerako onartu dituzten lege, arau, neurri eta gomendioen berri eman digute, hots, Europak azkeneko 25 urteetan eskaini digun corpus garrantzitsuarena.

Euskarari dagokionez, nahiko errealitate berezia dugula azaldu zaigu, hain zuzen ere, Euskal Herria, hiru lurralde administratibotan banandua dagoelako eta lurralde horietako bakoitzak egoera eta legeria berezia duelako.

Frantziako konstituzioak ez dio euskarari ofizialtasunik aitortzen eta estatutu honek ez du onartu ez Europako konstituzioa ez hizkuntza gutxituei buruzko testu lege edota Karta bera ere.

Espainiako 1978ko Konstituzioak, eta bereziki bere 3. artikulua, bidexka bat ireki zuen Estatuko Erkidego bakoitzak bere estatutuaren markoan bertako hizkuntza propioari buruzko legeria onartu eta garatzeko, eta horren ondorio dira Hegoaldeko bi lurralde administratiboetako euskararen legeak. Lehenik Euskal Autonomia Erkidegoan onartu zen eta ondotik Nafarroan.

NAFARROAN EGINDAKOA

Berezko hizkuntza duten Espainiako Erkidegoetako estatutuetan, hizkuntza hori propioa eta ofiziala aitortu zuten. Nafarroan, ordea, 13/1982ko abuztuaren 10eko Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeagotzeko Lege Organikoak euskara ez zuen aitortu ez hizkuntza propioa ez bere ofizialtasuna Foru Komunitateko lurralde osoan.

Ondotik onartutako 18/1986, abenduaren 15eko Euskararen Legeak –hogei urte geroago indarrean segitzen duenak–, hiru hizkuntza eremu deklaratu zituen:

1. Euskalduna. Eremu honetan euskara hizkuntza ofiziala da. Egungo 63 udalerrik osatzen dute, Nafarroako %23'16k, eta horien guztien biztanleria 56.586koa da, Nafarroako %9'5.
2. Mistoa. Euskara ez da hizkuntza ofiziala, baina legeak euskara babestu eta sustatzearen aldeko neurriak bideratzeko nolabaiteko konpromisoa onartu zuen. Egungo 52 udalerrri sartzen dira, Nafarroako %19'11, eta horien biztanleria 311.908koa da, Nafarroako %52'5.
3. Ez euskalduna. Euskara ez da hizkuntza ofiziala eta, gainera, legeak ez du sustatzearen alde inolako neurririk aipatzen. Eremu honek egungo 157 udalerrri hartzen ditu, Nafarroako %57'72, eta 224.978 biztanle, Nafarroako %37'9.

Gauza jakina da hizkuntza bat babestu eta sustatzeko, bertze zenbait oinarriko neurriren artean, hizkuntza horren presentzia irakaskuntzan, administrazioaren zerbitzuetan eta hedabideetan bermatzea izaten dela. Nafarroako Euskararen Legeak, bada, hiru neurri horiek soilik hartzen ditu kontuan eta horietako bakoitza eremuka nola aplikatu behar den zehazten. Honela, laburbilduz:

1. Eremu euskaldunean. Unibertsitatera iritsi arte ikasketa guztiak euskaraz egiteko eskubidea aitortzen da. Administrazioaren zerbitzuetan erabiltzeko eskubidea adierazten da, baina Iruñea, Erkidegoko hiriburua eta administrazio zerbitzугune nagusia, eremu honetatik kanpo utzi zen.
2. Eremu mistoan. Euskara hezkuntza sisteman progresiboki sartzeko erabaki zen. Biztanleei administrazioa euskaraz zuzentzeko eskubidea aitortzen bazaie ere, harremanak euskaraz izateko bermerik ez zaie eskaintzen.
3. Eremu ez euskaldunean. Euskara hezkuntza sisteman sartzeko herritarren eskaria kontuan izanzen dela aitortzen bada ere, argi adierazten da administrazioa ez dagoela nahitaez behartua eskari horiek betetzeko dirulaguntza ematera.

Hedabideei dagokienez, legeak euskara babesteko asmo onak agertzen ditu, baina ez du hizkuntza erabili eta sustatzeko hartuko den neurririk aipatzen, ez orokorrean ezta eremuka ere.

Hogei urteren buruan, oinarriko hiru atal horietako lehendabizikoa, euskarari hezkuntzan eman zaion sarrerari buruzkoa izan da, arazoak arazo eta salbuespenak salbuespen, hobekien aplikatu dena. Emaitzak begi bistakoak dira, erraterako, 1986an Nafarroan %10'1 zen euskalduna eta 2001ean %12'1, baina kontuan izatekoa da azken urte honetan kopuru hori 25 urtetik azpikoen artean 18'8ra igo dela eta 15 urtetik beherakoen artean 21'3ra.

Euskara administrazioan arautzeari dagokionez, ez zen ia-ia urratsik egin zortzi urte beranduago arte, hots, 70/1994 eta 135/1994 Foru Dekretuen on-

dorioz abian jarritako hobekuntza planei ekin zitzaaien arte. Baina zoritxarrez, hagitx epe laburrean, 1996tik aitzina izandako gobernu aldaketaren ondorioz garapen hori eteten hasi zen, eta 2000. urtetik aitzina hobekuntza plan haietan egindakoaren atzerako bidea hartu zen, 72/2000 Foru Dekretuarekin lehendabizi eta ondoren egun indarrean dagoen 29/2003 Foru Dekretuarekin. Gaur hemen garatzen ari garen gaiaren ildotik, aipagarria da aditzera ematea indarrean dagoen 2003ko dekretuan, zortzi urte lehenagokoan ageri ziren bi aipamen garrantzitsu desagertu zirela, bat euskara Nafarroako berezko hizkuntza dela aitortzen zuena, eta bertzea Europako hizkuntzen Kartaren aipamena, noiz eta Espainiako Erresumak 2001ean berretsi ondotik. Horretaz gain, dekretu horretan sustatze eta garatzearen aldeko helburuak alde batera utzi ziren, Nafarroako eremu mistoan batik bat. Eta ezin dugu begien bistatik galdu gorago aipatu duguna, alegia, egun eremu honetan bizi dela Nafarroako biztanleriaren %52'5 eta Erkidego osoko euskaldunen kopururik handiena.

Euskara hedabideetan sustatzeari dagokionez, hitz gutxitan laburbilduz, hutsaren hurrengo egin dela erran daiteke. Adibiderik adierazgarriena irrati lizentzien esleipenekin gertatutakoa da. 1991z geroztik izandako FM irrati esleipenetan, eremu mistoan ez da euskaraz aritzeko irrati baten aldeko lizentziarik eman, edo bertze modu batera errateko, 1988az geroztik Iruñerrian abian jarritako euskal irrati bakarrak ez du 18 urte hauetan lizentzia lortzerik izan.

NAFARROAKO HIZKUNTZA POLITIKA EUROPAKO LEGERIAREN AITZINEAN

Erran bezala, 1986an Nafarroako Euskararen Legea onartu zenetik, sei urte pasatu ziren 1992an Espainian Europako Karta onetsi zeneko, eta bertze bederlatzi gehiago Karta hori 2001ean berretsi eta indarrean jarri zen arte.

Europako hizkuntzen Kartarekin batera, sinatu duten estatu bakoitzean hartutako konpromisoak zein neurritan betetzen diren jakiteko mekanismoak ere ezarri ziren. Hori dela eta, Adituen Batzordeak lehendabiziko ebaluazioa egin ondoren, Europako Kontseiluaren Ministroen Batzordeak joan den 2005eko irailean eman zuen aditzera bere gomendio txostena.

Hona hemen atalez atal, baina laburrean, Europako Kartaren arabera Nafarroan egiten den hizkuntza politikan begiztatzen diren hutsarte, gabezia edo kontraste nagusienak:

1. Kartaren aurrekari eta gai orokorreari dagokienez:

Lehenik eta behin kontuan izan behar da, hemen erran den bezala, alde batetik, Europako Kartak indar juridiko eskasa duela eta, bertzetik, nahiz eta Espainiak onartu eta berretsi duen, Espainiako agintarien erabakiz, Kartaren aplikazioa hizkuntza gutxitua ofizial aitortua duten Er-

kidegoetan soilik hartzen dela aintzat. Puntu honi dagokionez, argitu nahi genuke gauza bat dela printzipioa eta bertzea Adituen Batzordearen balorazioa. Printzipioa argia da. Espainiako Erresumak Karta berretsi zuen, baina Erkidego bakoitzeko legeria errespetatuz. Beraz, printzipio horren arabera, Kartak Nafarroako eremu euskaldunean soilik du eragin zuzena. Adituen Batzordeak egin duen balorazioan, ordea, eremu mistoari babes berezia ematea proposatzen du, hiru arrazoi nagusi hauetan oinarrituta: 1) Nafarroako egungo euskaldunen kopururik handiena Iruñerrian bizi da, 2) Eremu mistoko ikasleen %30 inguru D ereduari matrikulatua dago, 3) Iruñea Erkidegoko hiriburua izateaz gain, euskal eremuaren administrazio hiriburua ere bada.

2. Kartaren II. zatiak oinarritzko printzipio eta helburuak azaltzen ditu. Hona, laburbilduz, Adituen Batzordeak Nafarroako ebaluazioan printzipio horietako garrantzitsuek egiten duen iruzkina:

– Hizkuntzak kultura aberastasunaren adierazle dira.

- Adituen Batzordeak uste du gero eta nafar gehiago direla euskara bai ondare kulturaltzat bai nafar guztien ondaretzat jotzen dutenak. Hortaz, herri aginteak errealitate hori aintzat hartzera gonbidatzen ditu.

– Hizkuntza bakoitzaren eremu geografikoa errespetatu behar da. Ildo horretatik, alde aurretikako zatiketa administratiboak zein berriak ezingo dira eragozpen izan eskualde hizkuntzen edo hizkuntza gutxituen sustapenerako.

- Printzipio horretan oinarrituta, Adituen Batzordeak ez du ontzat ematen Nafarroako zatiketa administratiboa, ez eta erabaki horren ondorio den egungo errealitatea, eremu mistoarena batik bat.

– Hizkuntza salbatu nahi bada bere sustapena bulkatu behar da.

- Printzipio hau dela eta, Adituen Batzordeak berriz ere dio eremu mistoaren ezaugarriak kontuan hartuz, Europako Kartak aplikazioa izan beharko lukeela, eta, hortaz, eremu horretan euskara babestu eta suspertzeko neurriak hartu beharko liratekeela.

– Bizitza publiko eta pribatuan hizkuntzaren erabilera idatzia nahiz ahozkoa erraztu eta sustatu egin behar da.

- Puntu honetan ere Adituen Batzordeak eremu mistoaren egoera salatzen du, erranez, egiaztatu ahal izan duela, hartutako zenbait erabakiren ondorioz, eremu honetako zerbitzuetan gero eta euskara gutxiago erabiltzen dela eta, gainera, errepideetako seinale elebidunak desagertuz joan direla.

- Hizkuntza bera duten Estatuako Erkidegoek harremanak izan eta garatu beharko lituzkete.
 - Adituen Batzordeak Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko harremanak estutzeko gomendioa egiten du, hala nola, irakaskuntzako materialak trukatzeko, telebista kateak ikusteko,...
 - Hizkuntza irakasteko eta ikasteko baliabideak jarri behar dira.
 - Jakina da Nafarroako Legeak eremu euskaldunetik kanpo euskara edo euskaraz ikasteko aukera herritarren eskariaren arabera uzten duela eta, gainera, eskari horiei erantzun egokia eman ahal izateko baldintza estuak jartzen dituena: ikasgela bakoitzean behar den ikasle kopurua, etab. Adituen Batzordeak oso positibotzat jotzen ditu, baldintza estuak eta zailtasunak gaindituz, herritarren jarrerari esker lortu diren emaitzak eta garrantzi berezia ematen dio eremu mistoan haurren %30 D ereduari ikasten ari dela egiaztatzeari.
 - Hizkuntzaren ikasketa eta ikerketaren presentzia unibertsitatean.
 - Adituen Batzordeak dio ikasgai batzuk irakasleen borondatearen arabera euskaraz ematen badira ere, unibertsitateak gai honen inguruko benetako plangintza ez duela egin.
 - Hizkuntza gutxitu bera hitz egiten duten Estatuaren artean nazioarteko harremanak sustatu beharko lituzkete.
 - Adituen Batzordeak dio oraingo txosten honetarako Euskal Herriko Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko harremanez ez duela informazio aski jaso.
3. Kartaren III. zatian II.enean azaldutako printzipioen praktika aztertzen da. Hona, laburrean, Adituen Batzordeak Nafarroari buruzko txostenean azaldu dituen lorpen, hutsarte, gabezia edota kontraste nabariak.
- a) Irakaskuntza.
- Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan D ereduak gora egin du nabarmenki. Zalantzarik gabe, maila hauetan izan da lorpenik handiena, bai eremu euskaldunean bai mistoan.
 - Bigarren Hezkuntzan ere D ereduak itxura guztien arabera gora egin du, baina Batzordeak ez du datu aski lortu ahal izan balioeste zehatza egin ahal izateko.
 - D ereduak ez da ia batera aplikatu Irakaskuntza teknikoan –Lanbide Eskoletan–. Hortaz, eremu euskalduneko ikasleak ere behartuak daude erdal ereduari pasatzera.

- Unibertsitatean, irakasleen borondatearen arabera, ikasgai batzuk ematen badira ere, benetako plangintza egin gabe dago.
- Helduen irakaskuntzan hartutako konpromisoa betetzen dela dio.
- Euskal kulturak irakaskuntzan eta, batik bat, erdal eremuan duen presentzia ez du egiaztatzerik izan.
- Irakasleen prestaketaz zenbait ekimen egiten dela egiaztatu arren, Batzordeak dio ez duela informazio aski jaso ahal izan balorazio orokorra egiteko.
- Eremu ez euskaldunean dauden ikastolen egoera «alegala» salatzzen du. [Argitu behar dugu Nafarroako Gobernuak, konpondu berri duela egoera hau. Ikus 2006ko azaroaren 13ko 136. Nafarroako Aldizkari Ofiziala].

b) Justizia.

Hitz gutxitan erranez, Adituen txostenak dio arlo honetan Europako Kartaren printzipio eta helburu gehienak ez direla praktikan jarri. Aitortzen du justizia sistemak berak dituen oztopoak larriak direla, hala nola, epaileen lekualdatze lehiaketak, etab. Dena dela, zerbitzuren bat edo beste abian jarri bada ere, itzulpen zerbitzua erraterako, errazago betetzen ahal diren zenbait eginbeharri ez zaio oraindik aurre egin, hala nola, testu juridikoen itzulpen eta abarri. Azken honetaz dio egin den bakarra Deustuko unibertsitate pribatuaren eskutik etorri dela.

c) Administrazio arduradunak eta zerbitzu publikoak. Adituen Batzordeak hau dio:

- Estatuak Nafarroan dituen administrazio zerbitzuak elebakarrak dira ia denak. Hortaz, enplegatuen artean elebidun gehiago sartzea eta agiriak ere bi hizkuntzetan ematea aholkatzen du. [Ematen duenez, Madrilgo Kongresuan orain dela hiru egun, azaroaren 21ean, hartutako erabakiaren arabera, zerbitzu horietan enplegatu elebidun gehiago sartzen hasiko dira].
- Nafarroako administrazioari dagokionez:
 - Foru Erkidegoko 29/2003 Dekretuak gai honetan jartzen dituen mugak nabariak dira, eta, era berean, zailak administrazioarekin harremanak euskaraz izatea, batetik, administrazioan «zirkuitu elebidunak» jartzeko asmoa alde batera utzi duelako, eta bertetik, administrazioak, herritarrek euskaraz zuzentzen ahal dizkioten idatziak hartzen baditu ere, ez duelako inolako obligaziorik euskaraz erantzuteko.

- Zerbitzu publikoei dagokienez, egungo araudiaren arabera, euskara nahitaez jakitea ez da euskara irakasle eta itzultzaile izateko bertzerik eskatzen. Gainerako lanpostuetarako meritua gisa eta administrazioak erabakitzen duen lanpostuetarako soilik. [Orduz geroztik, Nafarroako Gobernuak egin du aldaketa txiki bat. 2006ko irailaren 18ko Erabakiaren 3. atalak dioenez, eremu mistoko lanpostuetarako –euskara jakitea nahitaezkoa ez denean– onesten diren merezimendu baremo guztietan, euskara baloratuko da].

Ondorio gisa, Adituen Batzordeak gomendatzen du administrazioa zerbitzuak euskaraz eskaini ahal izateko adina langilez hornitzea.

d) Hedabideak

Ministroen Kontseiluak euskaraz aritzen den irrati bat eta telebista bat bermatzea gomendatzen du. Errealitatea, ordea, helburu horretatik urruti dagoela dio, batetik Nafarroak euskarazko telebistarik ez izateaz gain, EiT Brekin akordiorik ere ez duelako, eta bertzetik, euskarazko irrati publikorik ez izateaz gain, eremu mistoan euskaraz ari den irrati bakarrari oraingoz lizentziarik eman ez diolako. Era berean dio, bertako prentsak egiten duena ere –astean behin orrialderen bat edo bertze euskaraz ematea–, ez datorrela inola ere bat Kartarekin hartutako konpromisoekin.

- e) Kultura ekitaldi eta zerbitzuei, giza harreman eta lan munduari, eta mugaz gaindiko harremanei dagokienez, Adituen Batzordeak uste du deus gutxi dela egiten dena, baina aitortzen du ez duela balorazioa egiteko adina informazio jasotzerik izan.

EUSKALTZAINDIAK ERRANDAKOA

Euskaltzaindiak etengabe jardun du euskara babeste eta sustatze lanetan, eta berari dagokion aholku eta iritzi emaila arduetan. Hori dela eta, behin baino gehiagotan eman du bere iritzia –gaur hemen aurkeztu den *Euskaltzaindiaren adierazpenak*, Jagon Sailaren 3. liburukian ikusten ahal den bezala–. Eta Nafarroari dagokionez, azaltzen ari garen gaiaren inguruan honako adierazpen hauek egin ditu.

- 1982an Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobeagotzeko Legearen aitzinean, Euskara Foru Komunitatearen ondarea dela zioen eta ondare horren jabea komunitate osoa, hots, nafar guztiak. Hortaz, lege horren 9. artikulua, hizkuntzaren lur eremua mugatzearekin, euskara Nafarroa osoaren ondasuna dela ukatzen zuen eta euskarari diskriminaziozko tratamendua ematen.

- 1986ko Nafarroako Euskararen Legea zela eta, berte gainerako erki-degoetako hizkuntza politiketan ez bezala, Foru Komunitatea hiru lurraldetan zatitzen zuelako eta, horrenbestez, lege honek oraindik gehiago estutzen zituelako Espainiako Konstituzioaren 3. artikulua eta Nafarroako Foru Hobeagotzearen 9. artikulua jarritako hizkuntza mugak.
- Irrati lizentzien esleipenetan:
 - 1991n Nafarroako Gobernuari, FM irrati esleipenean emandako zazpi lizentzia berrien artean euskaraz emititzen duten irrati bakar bat ere ez sartzeagatik.
 - 1998an Nafarroako Gobernuari, FM irrati lizentzien esleipena berehala berrikusteko eskatu zitzaion, Euskaltzaindiaren ustez, ez zirelako errespetatzen Nafarroako euskaldunen eskubideak eta, bereziki, Iruñerrikoenak, kontuan izanik hiriburuaren inguruan bizi dela Erki-degoko euskal hiztunen kopururik handiena.
- 2001ean 372/2000 abenduaren 11ko Foru Dekretuaren aitzinean. Euskaltzaindiaren iritziz, dekretu horrek Espainiako Konstituzioa, Nafarroako Foru Hobeagotzeko Legea eta Nafarroako Euskararen Legea urratzen zituen. Horretaz gain, nazioarteko itun eta arauen aurka zihoan, berteak berte, Espainiako Estatuak European sinatu berri zituen itun eta arauen aurka.
- 2002an Euskaltzaindiak, Nafarroako Euskararen Kontseiluan dituen bi ki-deen bitartez, ezezko botoa eman zion 29/2003 otsailaren 10eko Foru Dekretuaren proposamenari. Berteak berte, honako arrazoi hauengatik:
 - Batetik, proposatutako testuak Euskararen 18/1986 Foru Legeak ezarritako oinarritzko helburuak murrizten zituelako.
 - Bertetik, proposatutako testuak husten zuelako ordeztu nahi zuen 135/1994 Foru Dekretua, bai aipamenetan (euskara Nafarroako berezko hizkuntza aitortzea eta Europako Kartaren aipamena egitea), bai edukietan (inprimaki elebidunak, zirkuitu elebidunak, lanpostuetarako euskararen balorazioa...).
- 2004an Parlamentuan. Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza politikaren garapena aztertzeko Parlamentuak berariazko batzorde bat sortu zuen. Erakunde horrek hala eskatuta, Euskaltzaindia bere iritzia ematera joan zen eta, berteak berte, aditzera eman zuen, eremukako banaketa biztanleen eskubideak bermatu ahal izateko oztopo izateaz gain, iraganeko ikusmolde baten isla bertzerik ez dela, giza harremanen eta hizkuntzaren kontzeptzio estatikoa erakusten duena eta, hortaz, engutu bizimoduan inolako zentzurik ez duena, hizkuntza ezin baita, inondik ere, parametro estatikoetara mugatu.

AMAITZEKO

Nafarroan egiten den hizkuntza politika Europar Batasunaren markoan aztertzean, bi ondorio nagusiren aitzinean gaude:

1. Adituen Batzordeak plazaratu bezala, Kartaren II. eta III. zatia atalez ataleko azterketan egiaztatu ahal izan diren lorpen, hutsarte eta gabazien aitzinean.
2. Europako Kartaren aplikazioaren interpretazioaren aitzinean. Espainiako agintariek Europako Karta onartzean hizkuntza ofizialkideak babestea onetsi zuen, baina –eta hemen dago gakoa–, Erkidego bakoitzeko legeriaren arabera. Nafarroa hiru hizkuntza eremutan zatitzea eta euskara ofizialkide eremu euskaldunean soilik izatea Nafarroako Parlamentuak onartutako Euskararen Legeak erabaki zuen. Hortaz, Kartaren aplikazioa eremu euskaldunetik kanpo zabaltzeko bi erabaki hauetako baten beharrea gaude:
 - Espainiako agintariek aplikazioaren bertze interpretazio bat egitea, Karta Erkidego osoan edo, bederen, Europako Ministroen Kontseiluak gomendatu bezala, eremu mistoan ere aplikatzea.
 - Nafarroako Parlamentuak euskararen legea aldatzea. Azken puntu honi dagokionez, bi bide hauetako bat erabaki beharko luke Parlamentuak.
 - a) 1980an gehiengoz hartutako erabakira itzuli eta abiapuntu horretan oinarritutako lege berria egitea. Hau izan zen erabaki hura: «gaztelania eta euskara izanen dira Nafarroako hizkuntza ofizialak».
 - b) Egungo egoeratik hasita hobekuntzak proposatzea. Hau dio, hain zuzen, Nafarroako Foru Komunitateko Hizkuntza Politikaren garapena aztertzeko Parlamentuan sortu zen berariazko batzorde edo *Ponentzia* bereziak 2005ean ondorio gisa egindako azken txostenean.

BIBLIOGRAFIA

EUROPAKO KONTSEILUA: *Aplicación de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias en España*. Ciclo inicial del control: a) Informe del Comité de Expertos sobre la Carta. b) Recomendación del Comité de Ministros del Consejo de Europa sobre la aplicación de la Carta en España. Estrasburgo, 2005.

EUSKALTZAINDIA (2006): *Euskararen sustatzea. Euskaltzaindiaren adierazpenak* (1976-2006), Jagon 3.

- GROS Y LLADÓS, M. (2006): *Recuperación del euskera en Navarra. Un estudio sociolingüístico sobre la evolución del euskera en el último cuarto del siglo XX*. Argitaratu gabea.
- Iñigo, A. (1999): «Nafarroa: euskara bermatzeko bide berrien beharra». *Euskera* 44-2, 997-1002.
- (2003): «Nafarroa: Euskararen egoera XXI. mendearen hasieran», *Bida-soa Ikerketa Zentroaren Koadernoak* 4, 57-76.
- (2004) «Euskaltzaindiaren agerraldia Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitatean egiten eta garatzen den hizkuntza politika aztertzeko eraturako batzordearen aurrean», *Euskera* 49-2, 927-937.
- ROMEU, J. (2002): «Erregioetako zein gutxiengo hizkuntzei buruzko Eurokartaren ezarpena Espainiako estatuan», *Hizkuntzen Europako urtea, Euskararen egoera juridikoa Nafarroan*, Euskara Kultur Elkargoa, Iruñea, 31-48.
- ZENBAITEN ARTEAN (2001): «15 años de la ley del euskera en Navarra», *RIEV* 46, 2, 517-681.
- (2006): «Euskararen egoera Nafarroan», *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 58, martxoa.

EREMU URRIKO HIZKUNTZAK EUROPAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EGOERA JORRATUZ

Jose Luis Lizundia

Euskal Autonomia Erkidegoaren hizkuntza statusa jorratzerakoan, Estatutuaren 6. artikulua izan behar dugu begi bistan, ezinbesteko erreferentzia delako. Hara hor artikulua horren bost lerrodekiko azalpen laburra.

1. *«Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialaren maila izango du Euskal Herrian gaztelaniarekin batera eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea».* Ofizialtasun horrek zer ondorio dakartzan jende arruntak, ez eta politikoko askok ez dute neurtu. Alde batetik XIX. mendetik, «Etat-Nation» unitario eta zentralista izan dugunetik, euskara, ez eta galegoa, ez eta katalana II. Errepublikako Generalitatearen garaian salbu, baztertuta edo pertsegitua izan delako. Abertzale askok uste izan dutelako, ofizialtasuna aitortuz gero, lorpen garrantzitsua zela eta siestara lasai joateko moduan zeudela, ohartzeko, administrazio zentralistaren inertiak eta, askoren erresistentziak, ofizialtasun hori moteltzen, «loapizatzen» saiatuko zirela. Nik, hori, behin baino gehiagotan esan nuen, politikan nengoen, komunikabideetan eta Euskararen Aholku Batzordean nengoenean. Bestalde, «El euskera, lengua propia del Pueblo Vasco», aho batez onartu zena, bai hemen testuaren negoziaketan, ba Gernikan euskal parlamentariaren batzarrean eta baita Madrilgo Gorteetan ere, orain ukatua da, baita intelektual mailan ere. Gauza bera gertatzen ari da katalanarekin eta galegoarekin. Gaztelau nazionalismoaren eragile askok horretan dihardute eta, bistan da, inboluzionismo bat egon dela eta indarra hartzen ari dela.
2. *«Komunitate Autonomoko Erakunde amankomunek Euskal Herriko egoera sozio linguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta medioak erabaki eta baliaraziko dituzte».* Erkidegoko erakunde amankomunek bi hizkuntzen erabilpena bermatzeko ahalegin ugari egin dituzte, begi bistan dago hori. Era berean beharrezko ziren neurri asko hartu dituzte. Besterik da, alorrik alor desoreka franko daudela, baina hori gero jorratuko dugu.

3. «*Hizkuntza dela-eta, ez da inor gutxietsiko*». Gutxieste edo diskriminazio kontua jorratzeaz luze jardun beharko genuke eta, hemen, inor diskriminatua izan baldin bada euskaldunok izan gara eta ez gaztelaniadun elebakarrak.
4. «*Euskarari dagokionetan, Euskaltzaindia izango da erakunde aholku emaille*». Puntu hau gerorako uzten dut.
5. Artikulu honek historia luzea du, EEn prestatu genuen aurreproiektuko testutik: «*Euskal Agintea podrá establecer relaciones bilaterales de índole cultural, destinadas a salvaguardar y promocionar la lengua vasca, patrimonio común de Alava, Guipúzcoa, Vizcaya y Navarra peninsular, Merindad de Ultrapuertos de Navarra, Lapurdi y Zuberua, con las instituciones correspondientes de estas tres regiones euskéricas bajo Administración de la República Francesa, a cuyo fin solicitará de las Cortes Generales la proposición y aprobación del Corresponsiente Tratado*» (zoritzarrez Tamayo Salaberria neba-arrebek ez zuten euskal bertsioa argitaratu), Gernikan onartu zenera «*Euskara ez da soilik autonomidun herrialde honen ondasuna baita beste eusko jende-multzo eta herrialde mugakide batzuen ere. Horregatik, autonomidun herrialde honek kultur lokarriak ezarri ahalko ditu beroriekin, ondasun hori zaindu eta pizteko*» eta, hortik, Gorteetan onartutako eta indarrean jarri zenera: «*Euskara beste euskal lurralde eta komunitate batzuetako ondarea izanik, erakunde akademiko eta kulturazkoek beroekin izan ditzaketen harreman eta loturez, kanpo, Euskal Herriko Komunitate Autonomoek eskatuko ahalko dio espainol Gobernuari lurralde eta komunitate horiek kokaturik dudaneko Estatuarekin itunak eta komenioak egin ditzala –edo eta hala behar izanez gero Gorte Jeneralei horretarako eskabidea ager dezan, berauek hura onartzeko–, horretara euskara zaindu eta bultzatzea dedin*», ba dardelako diferentziak. Konpara ditzagun testuak. Dena dela, gai hau, txosten honen azken puntuan jorratuko dut zehatzago.

Gaur hogeita lau urte betetzen dituen 1982/10 Legeaz, hots, Euskararen Erabilpena Normalizatzekoaz, aipamen batzuetara mugatuko naiz, besteak beste, gaurko xedea ez delako horrenbeste, ez legea goraiatzea, ez errukirik gabe kritikatzeko. Legea koiuntura jakin batean eztabaidatu, negoziatu eta onartu zen, Garaikoetxea lehendakari zenean, bi sailbururen partaidetzaz, Hezkuntzako Etxenike jaunaren eta Kulturako Labaien jaunaren, partaidetzaz eta tramitatu zen Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura batzorde parlamentarioaren bidez, zeinetan batzorde buru zen Alberto Ansola jeltzalea, buruorde ni neu eta idazkari, Joaquín Aginaga UCDekoa. Orduko egoera politikoa, oraingoa baino ahaltsuagoa zen, indar politikoen korrelazioa halakoxea zen eta, legearekiko negoziaketan, lanean geunden talde parlamentarioen artean zen posible. Gure bizkar dugu bakoitzaren euskara eta hizkuntza politikarekiko erantzukizun historikoa, bai partaideona eta baita parte hartu ez zutenena ere. Oinarritzko le-

gea denez, Euskal Herriaren historian inoiz ez bezalako aukerak ematen ditu. Frankismo garaian ez genuen hainbeste amesten. Besterik da, guretariko asorentzat asebetegarriak suertatu diren.

24 urte geroago, Oinarrizko Lege horren –Ley Básica delakoaren karakteristika bat baitu– garapena jorratzea nahiko nuke, ez lege berri batez, ez baita gaurko gaia. Aukerak, ene ustez, oso modu desberdinez aprobetxatu dira. Hara hor eta eztabaida agortzeko asmorik gabe, hausnarketa edota iradokizun zenbait.

Irakaskuntza izan da, dudarik gabe, oinarrien garatu dena. D B eta A ereduak Oinarrizko Lege horren garapen zehatza baitira; Ikastolen Legea ere hor dago; IRALE (Irakasleen Alfabetatze Euskalduntze Programa). Honetaz irakurgarria da, berriena delako, IRALEn 2006-2007 ikasturterako Aurkezpen-txostena, zeinetan 19 orrialdean hau dioen: «*Euskeraren Erabilera Normalizatze*ko 10/1982 Oinarri Legeak (EHHA, 1982-12-16), bere 15. atalean, Euskal Autonomia Erkidegoko ikasle orori bere ikasketak euskaraz zein gaztelaniaz egiteko eskubidea aitortzen dio. Hori dela-eta, Eusko Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak euskal irakas-sistema elebiduntzeko beharrezko neurriak hartuko dituztela adierazten du atal horrek berorrek. –Lege hori garatzeko, bestalde, Hezkuntza eta Kultura Sailaren uztailaren 11ko 138/1983 Dekretuak (EHAA, 1983-7-19) Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera xeheago arautu zuen unibertsiteteaz kanpoko irakasmaitetan. Dekretu haren adierazpena garatuz, 1983ko abuztuaren 1eko Agindua (EHAA, 1983-8-19) zera ezarri zuen bere 3.1. atalean: «Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan lanean diharduen irakasle-jendea alfabetatu edo euskalduntzeko programa eratuko du Hezkuntza eta Kultura Sailak, eta urtero-urtero egingo...».– Otsailaren 19ko 1/1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legeak, eta hori garatzeko martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuak (EHAA, 1993-4-2), ordurainoko araudian aldaketa sakonak eragin dituzte. Irakas-sistema publikorako HE1 eta HE2 eskakizunak sortu eta ezarpen-egunak zehazteko irizpideak finkatu dira bertan, besteak beste. Ondoren, berriz, 1994ko urtarrilaren 10eko eta 28ko Aginduek (hurrenez hurren EHAA, 1994-1-26 eta EHAA, 1994-2-11) IRALE programa bera eraberritu dute bere luze-zabalean. Bigarren Agindua, hain zuzen ere, zera dio bertako 4. atalean 3. pasartean: «deialdi publikoz edota aurkezpen-txostenez jakinaraziko dituen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila aldiari aldiko ekitaldiaren baldintza zehatzak». Aurreraxeago, Agindua-ren 6. atalean, hain zuzen, Hezkuntza Sailburuordetzak urtero-urtero zein puntu zehaztu eta beharrezko aurretiaz jakinaraziko dituen adierazi du.– Ikastetxe pribatuetakoa irakasleei, publikoetakoei bezala, HE1 eta HE2 azterketen bidea eskaintzen zaie, eta beren irakaslanerako baliozkotzat aitortzen. Ikus, bereziki, hartarako atea zabaltzen duen urtarrilaren 19ko Agindua, 1996ko otsailaren 8ko EHAAn argitaratua emana».

Eta zergatik IRALEn zehazki garatu da? Agian, euskalduntzea irakaskuntza alorrean ondo finkatuz gero, gainontzeko esparruak berez etorriko zirelako-

an, ahazturik Lluís Ninyoles soziolinguistak zioena, hots, hizkuntza bat normalizatzeko, irakaskuntza maila guztietan, administrazio erakunde denetan, giza komunikabide orotan ofizialdua, normalizatua, alegia, izan behar dela. EITB legean ere garatua da euskararen erabilera eta baita garatzen dituen dekretu eta bestetan ere. Kulturari gauza asko eta onak egin dira, egia da, baina euskaldun-tze prozesua ez da irakaskuntza eta kulturagintza eremuetan amaitzen.

Eta ez, «deskuidatu» egin ditugu beste asko. Administrazio desberdinak: justizia administrazioan oraindik ez duk ikusi zentzu zehatz bat alderdi edo barruti judizialen arabera, nahiz eta Aholku Batzordean nengoelarik eskatu. Eta horrek ez du kentzen, alor honetan ez dugula aukera handirik, zoritxarreko 1985eko «Ledesma Legeari esker» baina dugun apurretan ere ez da garatu, itzulpengintzara mugatu da gehienbat. Tokiko Administrazioan udal ordenantzen poderioetan utzi da, gehienak edozein auzitegik atzera botatzeko modukoak, duten lege mailarik ezaz gain. Nahiz eta Auzitegi Konstituzionalak atzera bota 6.3. artikulua, Euskadiko Udal Lege ditxosoa eginda egon bazen eta, hor, lege mailako kapitulu bat, euskararen erabileraz, ez bakarrik udalentzat, baita mankomunitate, partzuergo eta kontzejuntzat hobeto eta ziurrago egongo ziren erakunde horiek, ordenantza mailako tokian tokiko garapen ahulekin baino. Quebec-en bezala «Commission de toponymie», zoritxarrez, ez da gauzatua izan, ez lege mailan, ez dekretu mailan ere, zeinetan Jaurlaritza, Aldundi, EUDEL, Euskaltzaindia eta Unibertsitatea izango ziren partaide. HPSko legegari bik eta hirurok dekretu proiektu idatzia ere aurkeztu genion buruari, baina nonbait ez zen gai izan, Aldundiekin bereziki, akordiora iristeko. Garraio eta enpresa publikoetan eta bestetan, bakoitzaren arabera dago, lege garapen amankomun baten aterbe eskasiaz. Barne eta Osasun sailetan, euskalduntze planak beranduegi etorri dira eta, aurretiaz beharko zukeen lege garatu propiorik gabe. Merkataritza, nekazaritza, industria eremuetan hainbeste erabaki hartu dira, baina euskarekiko lege propiorik, kapitulu berezirik, gutxienez, ez dut ezagutzen. Foru arauen mailan, gauza puntual batzuk ezagutzen ditut, baina sistematikoki eta, urte hobeagoetan, ez asko. Dena dela zehatzago aztertu beharko litzateke hau guztia.

Estatutuaren 6.4. lerroakad historia triste bat du, lerrokada honek, hots, «la» galdu baitzuen norbaitek Gernikatik Madrilerako bidaian desagertu zuelako. Hala ere, konponbidean jarri daiteke, Kataluniako «Llei d’Autoritat Llingüística» gisako batekin edo Galiziako hizkuntza normalizazio legeak dioenarekin: *Disposición adicional. En las cuestiones relativas a la normativa, actualización y uso correcto de la lengua gallega, se estimará como criterio de autoridad el establecido por la Real Academia Gallega*. Orain hogeita lau urteko arazorik ez dago eta uste dut garaia dela gai hau garatzeko. Hobeto oraindik Kataluniako «Llei 8/1991, de 3 de maig, sobre l’autoritat llingüística de l’Institut d’Estudis Catalans» delakoaren pareko batekin.

Eusko Jaurlaritzaren, hiru foru diputazioen eta udalen inguruetan mota desberdinetako erakunde ugari sortu dira; beraien sorrerako lege edo dekretu

tuetan hizkuntza normalizazioak zer nolako garapen propioa izan dute? Batzuk izan dute, bai, EITB, IVAP, baina beste askok?

Nafarroa eta Iparraldearena aztertzeko Estatutuaren 6.5. irakurri beharra dago, baina baita ere Nafarroako Foru Erkidegoarekin Estatutuaren 22. artikulua. Nafarroako oraingo agintariekin nekez gauza daiteke ezer eta aurrera pauso batzuk egin zirenean, Otano gobernuburu zela, porrot egin zuten. Iparraldearekin, hobeto esan, Akitaniako Hego-Mendebaldearekin, hitzarmen koiuntural bat lortu zen, baina, tamalez, ez du jarraipen iraunkorrik izan, akordio solteak bai, ordea. Estatuko elebidun diren beste erkidegoekin zer egin daitekeen, beti ere, hizkuntza normalizazioaz soilik, guztiz aztertu gabe dagoela esango nuke. Europari begira, ordea, ni baino prestatuagoak mintzatu dira, baina ez legoke gaizki lege eta ahalbide trukaketa bat izatea hizkuntza minoritarioetako erakundeen artean.

ONDORIOAK

Europar Batasuneko hizkuntza aniztasuna eta euskararen hizkuntza politikak

X. Jagon Jardunaldien ondorioak (1)

X. *Jagon* Jardunaldietan bi atal aztertu dira nagusiki; batetik, Europar Batasunean bizirik dirauen hizkuntza aniztasunaren deskribapena egin da, hedaduraren aldetik, nola baita gutxiagotutako hizkuntzak indarberritzeko neuan, Europako askotariko foroetan aniztasun horri eusteko iradokitzen den ikuspegiari dagokionez, ikuspegi juridikoa bera ere barnebilduz, bidenabar; bestetik, aurreko testuingurua kontuan hartuz, hortik datozkeen on-gaitzak kontuan, Nafarroan, Euskal Autonomia Erkidegoan zein Euskal Herri kontinentalean indarrean diren hizkuntza politikak aztergai izan ditugu.

Horiek horrela, gaurko saioaren *ondorioak* honakoak izan litezke:

1. Europar Batasunean jatorria duten hizkuntzak bakarrik kontuan hartzen badira, orotara 60 hizkuntza hitz egiten dira, gaur egun, Europar Batasunean. Honek zera esan nahi du, ezen, eremu geopolitiko honetan munduko hizkuntzen %1 hitz egiten dela. Argi dago, beraz, Europar Batasunetik kanpo dagoela munduko hizkuntzen ondarearen parte garrantzitsuena. 60 hizkuntza horien bizi indarrari dagokionez, ostera, hamar milioi hitzun baino gehiago dituzten hizkuntzak % 18 dira, eta hamar eta miloi hitzun bitarte dituzten hizkuntzak % 25 dira; beraz, gehiengo zabala dira (%57 eta 34 hizkuntza) miloi bat baino hitzun gutxiago dituzten hizkuntzak.

Europar Batasunean dirauten hizkuntzen onarpenari dagokionez errealitatea askotarikoa da. Horiek horrela direla, oso zaila da Batasunean hizkuntza politika orokor bat bultzatzea, eta are zailagoa estatuei hizkuntzei buruzko lege orokor bat ezartzea, Europar Batasunean gaur egun hitz egiten diren hizkuntza asko desagertzeko aukerak indartuz. Horregatik, hitzun-elkarteak aitortzeari buruz ez ezik, hiztunei dagoz-

(1) X. *Jagon* Jardunaldietan aztergai izan diren txostenetatik ateratako ondorioak dira. Horiek horrela, ondorioak Jardunaldiei dagozkie soil-soilik, hartatik, Euskaltzaindiak hartutako erabakien inguru abarrean ezin koka litezke.

kien eskubideei zein hizkuntzak indarberritzeari buruz ere eztabaida sustatzea erabakigarria da.

2. Corpus juridiko aberats bat badugu hiztunen eskubideak adierazteko, zailtasunak dituzten hizkuntzak zaintzeko eta biziberritzeko. Adibidez, Europako Parlamentuko ebazpenak (Kuijpers 1987, Kililea 1994) eta kultura aniztasuna aldarrikatzen duten itunak (Maastricht 1992, Niza 2000). Idazkirik zehatzena da Europako Kontseiluak eskaini digun Eskualde Hizkuntzen edo Hizkuntza Gutxituen Karta (1992), estatu gehienek berretsi dutena. Frantzia estatua da onartu ez duen horietakoa, alabaina, Europako ebazpenek eragin handia ukan dute Ipar Euskal Herriko euskalgintzan. Askotariko elkarte zein erakundeen arteko lankidetzari esker, Garapen Kontseiluaren proposamenak (1995), Hitzarmen Bereziko «hizkuntza politika» (2000) eta gaur egun Euskararen Erakunde Publikoak bere gain hartu duen «hizkuntza politika berria» (2006) ondorioztatuz.

Espainiar Estatuak, aldiz, 2001ean Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Karta berretsi zuen. Hori dela eta, urte horretatik Karta hori indarrean dago Espainiako estatuan. Berrespen horrek euskara hizkuntza ofizialkide moduan duten lurraldeetan izan dituen ondorioak aztertu dira Jardunaldietan, ikuspuntu juridikotik. Horretarako, Kartak Espainian duen aplikazioa aztertzeke, Espainiako Erresumak 2002an aurkeztutako txostena eta Adituen Batzordeak egindako Txostena, Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak emandako Gomendioak eta Espainiako estatuak eremu urriko hizkuntzen inguruan duen legeria kontuan hartuz, batez ere.

3. Euskal Herri kontinentalean bizi dugun egoerari buruz jardutean, Europar Batasunak hartu izan dituen askotariko erabakiek jendearen ideologia, eskualde eta hizkuntza gutxituei buruzko ikusmoldea bilakarazi, aldarazi egin du, bai eta Frantzian ere, XX. mendeko bukaeran zehar. Horiek horrela, euskaltzaleek Europako testuak baliatu eta baliatzen dituzte botere publikoak akuilatzeke. Testuinguru horretan, Frantzian garatzen zen lurralde antolaketa mugimendua baliatuz, euskal elkarteek eta hautetsiek elkarrekiko lan bat abian jarri zuten. 2000n, Estatuaren eta Akitania Eskualdearen arteko Kontratu Planaren Euskal Herriko Hitzarmen Berezian, lehen aldiz, botere publikoek hizkuntza politika atal bat sortu zuten (2001-2006). Azken aldia, beraz, egiazko egitura publiko bat sortzea izan zen: Euskararen Erakunde Publikoa –EEP– (2005-2010). Hala ere, EEPk *Hizkuntza politika aitzinproiektua* (2) egituratu duelarik, hel-

(2) Euskararen Erakunde Publikoa (2006ko urria); *Hizkuntza politika aintzinproiektua*. «Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun» da dokumentu honen izenburu zehatza.

buruak are zehatzago ez jasotzeagatik edota giza eta ekonomi baliabide egokirik ez ezartzeagatik eragingarria ez izatera iritsi litekeela aitatu da.

4. Nafarroan garatzen den hizkuntza politikaren oinarri juridikoez Espainiako beste gainerako erkidegoetan ez bezala, Nafarroan bertako hizkuntzari ofizialkidetasuna ez diola Erkidego osoan aitortzen azpimarratu da. Horiek horrela, Nafarroako legeriaren garapenean izandako gorabeherak eta beronen aplikazioak eremu eta arlo bakoitzean izan dituen emaitza eta ondorio nagusienak aztertu dira, horrekin batera, Europako Kartaren aplikazioa dela eta, Adituen Batzordeak egin duen balorazioa eta, ondorioz, Ministroen Kontseiluak emandako gomendioak ere azalduz. Testuinguru horretan sakonduz, Euskaltzaindiak, euskara zaintzea eta aitzinatzea dagokion aldetik, ibilbide honetan zenbait egoeraren aitzinean, jendaurrean egin dituen adierazpenak ere gogora ekarri dira.
5. Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean den hizkuntza politikari buruz aritzean, ostera, Estatutuaren 6. artikulua izan behar dugu begi bistan, bera baita ezinbesteko erreferentzia. Halaber, gaur hogeita lau urte betetzen dira EAEko 10/1982 Oinarrizko Legea, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoa onartu zela. Orduko eztabaidak gogoan, Lege horrek izan duen bilakaera aztergai izan da, atal batzuetan garatzeko (irakaskuntzan, esate baterako) urratsak egin diren arren, beste batzuetan garapen mugatua gertatu dela nabarmenduz. Badago egon, beraz, nahiko helduleku irakaskuntzan ez ezik gainerako eremuetan ere ibilbide luze eta erabakigarri bati ekiteko.

*Euskaltzaindiaren egoitzan,
2006ko azaroaren 24an*

EUSKARAREN IRAUPENA, ATZO ETA GAUR (*)

Donostia, 2006ko irailaren 25a

*Ana M^a Toledo Lezeta.
Deustuko Unibertsitatea. Donostiako campusa.
Giza Zientzien Fakultatea*

Lehendakari jaun txit gorena, jaun-andre txit goren eta prestuak,
Deustuko Unibertsitateko irakasle-klaustrokide txit prestuak,
jaun-andreak:

gizakiaren historian zehar, konplexua izan da hizkuntzen gizarte-erabile-
ra erregulatzeko era. Babelgo Dorretik gure egunetaraino dirau eta gizateria-
ren kultura guztietan presente dago. Gai konplexu eta tentuz erabiltzekoa, giza
taldeen sentiberatasuna ukitzen baitu, eztabaida sutsu eta jarrera setatiak so-
rرازiz.

Lehia konplexu horretan, hizkuntza batzuk galtzaile atera dira. Joan egin
zaizkigu. Beren desagerpenarekin batera, behin ere berreskuratuko ez den gi-
zateriaren kultur ondarea ere hil da.

«La extinción de cada lengua supone una pérdida irrecuperable de cono-
cimientos históricos, culturales y ecológicos. Cada idioma es una expresión
única de una experiencia humana del mundo», dio Unesco Etxeak munduko
hizkuntzei buruz eginiko txostenean (1).

Azken bost mendeetan, munduan hitz egiten ziren hizkuntzen erdiak de-
sagertu dira. XX. mendean, gainera, galera-erritmoa oso azkarra izan da:
1970-1985 urteen artean munduan hitz egiten ziren hizkuntzetako %40 de-
sagertu zen.

(*) 2006-2007 ikasturteko irekiera-hitzaldia Deustuko Unibertsitatean.

(1) Unesco Etxeak munduko hizkuntzei buruz eginiko txostena, *Words and Worlds: world languages review*, Multilingual Matters-ek argitaratu zuen 2005eko ekainean. Urte berean argita-
ratu zen euskaraz: *Hizkuntzen mundua. Munduko hizkuntzei buruzko txostena*, Euskal Herriko Uni-
bertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbao. Aipamenerako ik. *Expansión*, 2005.05.20, 41. or.

Euskarak bizirik iraun du. Ahozko euskarak, eta ahozko euskararen esparruek eutsi omen diote bizirik euskarari. Hortxe landu eta ondu ei da euskara, eta, oro har, gure kultura (2).

Seguru aski ahozko euskarak eta ahozko euskararen erabilera-esparruek eutsi diote bizirik euskarari. Belaunaldiz belaunaldiko ahozko transmisioak eutsi dio bizirik. Baina iraungo ote zuen euskarak ahozkotasan hutsean, bizi den testuinguruan bizita, hots, Europako Mendebaldean? Ez ote du inolako ekarririk egin euskara idatziak? Idatzizko euskararen ekarririk gabe, ez ote zen euskara XX. mendean desagertutako edo desagertzear dauden hizkuntzen estatistiketan egongo? Kasualitate hutsa ote, XX. mendearen ia azken laurdenean hain ehuneko handia (%40) desagertu izana? Noiz desagertuko hainbeste hizkuntza eta juxtu, Mendebaldeko kulturaren behinik behin, Lehen Munduaren kulturaren behintzat, giza eskubideak aldarrikatu ondotik, gutxiengoaren eskubideak errespetatzeko sentiberatasuna gehituz doanean, irakaskuntzaren sozializazioa erdiesten denean, komunikabideen hedapena indarrean sartzean, eragin sozioekonomiko eta kultural nabarmenak dakartzan industrializazioa zabaltzen denean: hiriko kultura nagusituz doanean, gizartea gero eta sekularra goa denean.

Gizarte-aldaketei aurre egiterik izan ez duten hizkuntzak dira, seguru aski, desagertzen direnak. Euskarak, azken orduan bada ere, bere testuinguruan –Europako Mendebaldean– gertatutako aldaketei aurre egin zien, eta horrela lortu du orain arteko iraupena.

Aurreikuspenen arabera, XXI. mendean munduko ondare linguistikoaren %90 galduko da. Agidanean, ondare linguistikoa gordetzearen kaltetan doaz gizartearen aurrerapenak. Egun bizileku dugun herrixka globalak badu sentiberatasunik ingurugiroa zaintzeko edo ondare artistikoa gordetzeko; baina, antza denez, ondare linguistikoaren galerak ez du gehiegi arduratzen. Itxuraz, Babelgo Dorrea eraiki aurretiko egoera du erosen mundu honek: elebakartasuna du atsegin, nonbait, mugarriak hautsiz independentzia interdependentziara eraman duen egungo munduak. Botere absolutuak elebakartasuna du amets. Harako «la lengua es la compañera del imperio» ez zuen asmatu gaztelar botereak. Gaztelar boterearen aurretikoa da eta inperio guztien ezaugarri komuna. Babelgo Dorrea eraikitzen hasi aurretiko egoera omen perfektua, eta beti ere, horra itzultzeko joera izan du botere absolutuak. Lehiaren gain eraiki da Babelgo Dorreaz geroztikako hizkuntzen ibilbidea, eta hizkuntzaren batek nagusi izatea bilatu du. Egungo herrixka globalaren plaza digitalak modu gordinagoan erakusten du hizkuntza bakarrerako joeraren makurrera.

(2) Hala zioen Pello Esnalek 2005eko azaroaren 25ean Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean emandako hitzaldian: «Herri-prosa: oinarri eta bide». Goian adierazitako hitzak 2005.11.23ko *El Diario Vasco*ri (76. or.) aurreratu zizkionak dira.

Lehia horretatik bizirik atera da euskara gaur arte. Mirarien erresumako emaitza ez bada, nonbait aurkitu behar argibideak: edo garai bakoitzak ezarritako egitekoei beranduegi baino lehenago erantzutera heldu izanean, edo komunikazio-bitartekoaz gain, identitate-zeinu ere izatean, edo...

Izan ere, aspaldi utzi zion euskarak Euskal Herriko hizkuntza bakarra izateari. Eta hizkuntz ukipen-egoeran, –diglosian zein elebitasunean–, ez da inoiz izan boterearen hizkuntza ofiziala: latinak, gaztelaniak edo frantsesak bete dute zeregin hori. Hizkuntzok izan dira jakintza igortzeko bitartekoak, herritarren bizimodua arautu eta epaituko duten legeak egitekoak... Hitz batean, bizitza publikoko hizkuntzak.

Testuinguru honetan, nekazari-giroko euskal gizartean, ahozko transmisioak eman dio zinez iraupena euskarari. Familiaren transmisioa belaunaldi berriek bereganatzeak eta beren eguneroko bizitzako zereginetan erabili izanak (etxean, lanean, lagunartean...) eman dio jarraitutasuna euskarari mendez mende.

Jarduera-eremuak bereizten ditu hizkuntz erabilerak. Nekazari-mundua eta jakintzaren edo boterearen mundua elkarrengandik aparte bizi dira. Nahiz eta batetik bestera iragatea ez duen muga itxi batek eragozten, apenas erabiltzen diren pasabideak: nekazari-giroak ez du oso eskuragarri, ez interesgune ere, jakintzaren edo boterearen giroa, eta giro honek ere ez baserritar ezjakinen kultura. Ez da partekatzen bizitza-barrutirik; bakoitza berean bizi da.

Zentzu honetan, ahozko transmisioak eman dio iraupena euskarari. Egia da; ez, horregatik, egia oso-oso. Izan ere, hizkuntza baten iraupenak hiru zutabe ditu oinarrian: bata, transmisioa, belaunaldi batetik besterako transmisio zuzena; bestea, norbere hizkuntza duintzat jotzea eta ordezkatzeko nahirik ez sentitzea; eta hirugarrena, garaian garaiko barruti komunikatibo guztietan erabiltzea. Horra hor, desagertzeko arriskua saihesteko hizkuntzak behar dituen euskarri ezinbestekoak. Euskarari dagokionez, bistan da: belaunaldi batetik besterako transmisioak ez du huts egin. Argitaratutako lehen liburuak hizkuntza landuaren estatusa eskaini nahi dio euskarri. Hirugarren zutabea geratzen da betekizun: garaian garaiko barruti komunikatibo guztietara heltzea. Lehen zutabea da sendoa; bigarrena, mehea; eta hirugarrenak ez du zimen-durik atera.

Horregatik baieztatu daiteke ahozko euskarak bermatu duela euskararen iraupena; ezin gutxietsi, ordea, ahulagoa den bigarren zutabea: XVI. mendean agerkera egin eta harrezkero etenik gabe eraikitzen joan dena. Euskal literaturaren sorrera markatzen duen liburuak euskararen estatusa aldatu nahi du: herri-hizkuntza izatetik hizkuntza landu izatera egin jauzi. Hurrengo liburuak markatzen du euskal prosaren jaiotza; baina, egileak berak dioenez, jasotako mandatuari uko egiteko zorian egon zen, hain zeregin zaila zuen esku artean, hain «sterilenetarik eta diversenetarik» erabili beharreko hizkuntza. Hala eta guztiz, eutsi egin zion zereginari; besteak beste, euskaldunok beste nazioeta-

koak baino beherago geldi ez gintezen gure hizkuntzan Jauna ezagutzeko eta gurtzeko orduan (3).

Latinetik eratorritako hizkuntzek ahozkotasan soilari idazkuntza gehitukoan, beste horrenbeste egin zuen euskarak, geroxeago bada ere. Hau da, Europako Mendebaldeko testuinguruan, latinak hizkuntza landu eskusibo izateari uzten dionean eta latinetik jaiotako herri-hizkuntzak hizkuntza landuaren estatusa eskuratzeko lantegian hasi eta laster, euskarak ere bide horri heltzen dio. Hizkuntzaren estatusa zegoen jokoan: hizkuntza landua izatea lortzeko, ezinbestekoa zen idaztea. Idazkuntzaren barrutiari eusteak bestelako estatusa ematen die ahozkotasan hutsean bizi ziren hizkuntzei.

Lehen liburuak, Etxeparerenak, estatus-aldaketari erantzuten dio; bigarrenak, Leizarragarenak, beste alderdi bat gehitzen dio: ezagutza batzuk ematera bideratua egonik –Testamentu Berria eta beste erakusten dituena– agerian uzten du gaingitu beharreko erroka: hizkuntza «diversenetaric» idazketarako abiapuntu izateak sortutako eragozpenak. Funtzio praktikoa duen liburuak hizkuntza homogeneous bilatu behar du lehenik eta behin, aurrez aurre ez daukan hartzailearekin harremana errazten diolako.

Euskara moldiztegiara heltzen den unetik, formulatuta gelditu ziren ahozkotasetatik idatzirako jauziak eragiten dituen aldaketak: hizkuntzaren bi ardatzen –corpusaren eta estatusaren– kudeaketa. Kudeaketa bikoitz horri aurre egiteko, beharrezkoa da hizkuntza duinaren alde lan egitea: ezinbestekoak dira gramatika, hiztegia...; idazketarako euskara-eredu bat izatea, inguruko hizkuntzen mailako dela erakustea... Corpusaren kodifikazioa eta eskuratutako estatusa gordetzea eta areagotzea ez ziren beharrezko ahozkotasan hutsean; baina hizkuntza idatzira eramateak alderdi horiek guztiak aintzat hartu eta lantzea eskatzen zuen. XVI. mendean planteatu eta aurrerantzean, nahiz eta garaia baino geroxeago edo geroago izan, euskal letrek corpusaren eta estatusaren ardatzok kudeatuko dituzte. Eta ahulezian bada ere, etengabe erantzungo arazo horiei. Gaur arte, erantzun ere. Horregatik, hain juxtu, euskal letrek ere beren ekarria egin diote euskararen iraupenari.

Euskara ez da, baina, hizkuntza noranahiko: mendeetan zehar eginkizunen alorra mugatua duen barrutia izango da euskararena. Kultura idatzia hutsumenean erakusten ditu: euskararekin lehian diren hizkuntzek eskusiboki bereganatzen baitituzte zenbait komunikazio-esparru.

Luzaroan, herritarren gutxiengoena izan da kultura idatzia. Ahozko kultura bizi izan da gehiengoa. Horrela iraun du euskarak mendez mende ahozko kultura nagusi zen bitartean, nahiz eta batik bat baserritar ezjakinen hizkuntza izan eta ez noranahikoa eta zernahitarakoa.

(3) Hala dio Ioaanes Leizarragak bere itzul-lana Joana Albet Nafarroako Erreginari eskaintzerakoan. Euskaltzaindiak, Bilbon, 1990ean egindako edizioan, ik. 252-253. orr.

Zernahi gisaz, hizkuntza idatziz erabilia eta hizkuntza bera arretagune izanda heltzen da industri gizartearen jaiotzara. Industrializazio-prozesu modernoak aldaketa demografikoak, soziologikoak eta ideologikoak eragingo ditu: dela lantoki berrietara datozen etorkinak, dela hirien hazkundera, dela gehitzen hasia zen eskolaratzeko aukera ere. Gizarte-aldaketa honen iragarpenaren inguruan, euskararen hil-kanpaiak entzuten dira (4), baina ez dira mugatzen negar-lantuetara. Ordu arteko erabilera-barrutien hedapena eskatzen dute, agonia-egoera gainditzeko. Hau guztia planteatu ote zitekeen euskara ahoz-kotasun hutsean bizi izan balitz?

Euskal Herrian, Bilbo eta Nerbioi ibaiaren ezkerrean hasiko da eratzen industria modernoa, XIX. mendearen azken herenean. Gertaera sozioekonomiko honen eragin linguistikoa atzemateko, datu bat besterik ez: 1866an bizkaitarren %81,4k euskaraz hitz egiten zuen; 2001ean %25ek.

Nekazari-girotik industriarako jauzi hau dela-eta, itxuraldatzen hasten da euskararen ordu arteko hizkuntza esparruen banaketa: lantoki berean ari dira hizkuntza desberdinetakoak (5). Nekazari-giroko lanetan, komunikazio-bitartekoa zen euskara. Orain, hizkuntzen erabilerak bereizi dituzte eta lana ere. Aldaketa sozioekonomiko honek, aldi berean, kolokan jartzen zituen ordu arteko euskal letren oinarri ideologiko eta erlijiosoak, eta baita letra horiek gobernatu nahi izan zituzten ahozko kulturaren oinarriak ere. Euskarazko adierazpen idatziak baztertu edo arbuatu egin zuen industri prozesuak zekarren aldaketa. Euskarak ez ditu bereganatuko sortzen doazen barruti berri horiek: hiria, meategia, fabrika... Hala eta guztiz ere, garai horretan bertan, hil-kanpaiak jotzearekin batera, bada eskabiderik: euskara irakaskuntzara, euskara aldirietara, euskara Batzar Nagusietako aktetara, euskara kaleko errotuluetara... Euskara gorde, zabaldu eta duinduko duen erakunde baten proiekturik ere egin zen. Baita ortografia batzeko ahaleginik ere. Nahiz eta euskarak bizkar eman itxuraldatzen hasi den gizarte-guneari, arautze- eta normalizazio-prozesuek eginkizun izaten jarraitzen dutela geratzen da agerian inoiz baino modu larriagoan eta ozenagoan.

Zinez, XX. mendearen bigarren erdia arte ez da emango urrats erabakigarriak alor horietan. Industrializazio-prozesua geroz eta hedatuagoa denean mamitzen da, hain zuzen, prozesuaren sorreran egindako aldarrikapenen muina. Eta aldarrikapen horien muina ontzearekin batera, «euskara hirira» helbu-

(4) Adierazgarri izan daitekeen aipamen bakar bat besterik ez: Felipe Arrese Beitiaren «Ama euskeriari azken agurrak» da 1879an Elizondon ospatutako Lore-Jokoetan saritutako bertsoa.

(5) «Enda, oitura ta izkera guztietakoak nasteen dabiltz: *ingeles, prantzes* ta españatarrak, euskaldunak eta erdalduak; Arabar ta naparrak Galizia ta Asturiaskoen ondoan; Santander, Palenzia, Burgos, Balladolid, Soria, Logroño ta Zaragozakoak Zamudion edo Muxikan, Amoroton edo Errigoitin, Errezillen edo Asteasun, Amezketan edo Ataunen jaio diranakin batera». AGUIRRE, Domingo: *Garoa*, Arantzazuko Frantzizkotar argitaldaria, 5. argitalpena, 1981, 187. or. (Aita Villasantek prestatutako edizioa).

rua gehitzen zaio lehen aldiz, ondorio guztiekin: ideologia guztietara ireki, gizar-te-antolamendu berri eta anitzetara zabaldu.

Ez zen eginkizun erraza. Izan ere, ordu arte erabili gabeko esparruetara eramane behar zen, zein hizkuntza, eta euskalkietan sakabanatutakoa, baserrian eta itsas ertzean bizi zena, Eliza babesle nagusi izan eta ahozkotasuna zutabe nagusi zuena.

Berebiziko eztabaida ideologikoen artean hasten da euskararen eskolara-ko bidea, nahiz batasunerakoa. Ideologizatu egiten da ortografia, testu-liburuetarako hautatutako eredu linguistikoa... Hor daude, euskara bizitza modernorako ere komunikazio-bitarteko nahi dutenen aurrean, bizitza moderno honekin ezer jakin nahi ez dutenak, baserriko euskara garbiari eutsi nahi diotenak, eredu batu baten aurrean euskalkiari eutsi nahi diotenak...

Tirabira bortitzen artean, gero eta haur gehiagok zuten euskara eskola-hizkuntza, jartzen ari ziren euskara batu baten ereduaren oinarriak. Gogotik egiten da lan militantziatik, euskararen erabilera sustatzeko –«Bai Euskarari kanpaina», adibidez– eta esparru berrietara zabaltzeko: idazle nahiz kantari, jakintza-alor desberdinetako aditu, nahiz hedabideetako profesional –«24 orduak euskaraz» irratsaioa, kasu–. Euskaltzale bakoitzak urrats bat eman nahi du aurrera, komunikazio-barruti berrian edo berritu nahi den hartan.

Hau guztia, noiz eta munduan hitz egiten ziren hizkuntzetako %40 desagertzen ari zen garaian: 1970-1985 urteetan.

Urtealdi hauetan, hain juxtu, pizten da eztabaida Europako Kontseiluan. Nola liteke hain kezkatuta eta arduratuta izatea kultur ondarea babestearekin eta hizkuntzen desagertzearen aurrean ez-ikusiarrena egitea? (6) Urte batzuetako azterketa eta eztabaida ugariren ondotik 1988an onartu zuen erakunde honek «Eremu urriko edo eskualde hizkuntzen Europako Gutuna» (7). Txosten honek ideologi korrante gehienetako legebiltzarkideen onespina izan arren, Gutunaren edukiok bere erritmoan eramaten ari da lege-ordenamenduetara es-tatu bakoitza: Espainiak, esaterako, 1992an izenpetu eta 2001ean jarri zuen indarrean. Frantziak, eztabaida ugariren ondotik 1999an izenpetu izanagatik, ez

(6) «Propio del Consejo de Europa ha sido el esfuerzo por salvar los monumentos arquitectónicos, los conjuntos histórico-artísticos y los valores de la ecología. Dentro de ese marco gigante de protección y conservación se halla toda esa floración de pequeñas lenguas. En la preocupación por su salvación, se percibe no sólo un sentido humanitario sino también estético. Europa es, en muchos aspectos, una pluralidad de diversidades que han sido capaces de formar toda una unidad mantenida a través de los siglos». PETSCHEN VERDAGUER, Santiago: *Las minorías lingüísticas de Europa Occidental: Documentos (1492-1989)*, Eusko Legebiltzarra, Vitoria-Gasteiz, 1990, vol. I, 79. or.

(7) «Derecho a la diferencia, exigencia de la democracia, principio de justicia, principios de libertad, principios de no discriminación, responsabilidad política de los Estados» ziren Gutunak euskarri izan behar zituen sei printzipioak. Ik. PETSCHEN VERDAGUER, Santiago: op. cit., vol. II, 587-588. orr.

du oraindik ez berretsi, ez indarrean jarri: frantsesa da Errepublikako hizkuntza ofizial bakarra.

1978ko Espainiako Konstituzioak gaztelaniaz gaineko beste hizkuntzei –euskara, katalana, galegoa– ofizialtasuna onartu bazien ere, Autonomia Erki-dego horietako erakundeen jardunera mugatu du hizkuntz on ofizialtasuna. Gernikako Estatututik sortutako euskal erakundeek beren eskumenak garatuko dituzte: 1982an jarriko du indarrean Eusko Legebiltzarrak «Euskararen Erabilera Normalkuntzaren Legea», hiru erabilera-esparruetara hedatzen dena: hezkuntza, hedabide eta administraziora. Nafarroan, «Ley Orgánica de Reintegración y Amejoramiento del Régimen Foral de Navarra»ren 9. artikuluan oinarrituz, 1986an dator «Ley Foral del Vasculencia de Navarra» honako xede hauekin: gizarte-bizikidetasun barrutietan euskararen erabilera normal eta ofiziala araupetu, baita irakaskuntzan ere. Nafarroa hiru eremutan bereizten du: euskalduna, mistoa eta euskalduna ez dena.

Honela euskara, azken berrogei urteotan, irakaskuntza arautura heldu da, administraziora, hedabideetara, hirira... Inoiz ezagutu gabeko biziguneetara heldu da: sendotasun handiago edo txikiagoarekin, barruti gehienetara heldu da. Komunikazio-barruti gehienak partekatzen ditu beste hizkuntzaren batekin, alde nabarmenak dauden arren, barruti desberdinetan egiten den erabileran. Transmisioa eteten ez bada, prestigioa galtzen ez badu, jarduera-eremu guztietan erabiltzen bada, bizirik iraun beharko luke. Hizkuntzaren egoera ahulak, ordea, iraupenaren nolakoa baldintzatzen du erro-errotik.

Ahula da, hiztun kopuruarengatik: 800.000ren bat euskaldun gara, ia denak elebidunak, 352 milioi gaztelaniazko hiztunekin eta 122 milioi frantsezko hiztunekin hizkuntz ukipen-egoeran. Gainera, gaztelania zein frantsesarekin partekatzen ditugu erabilera-barrutiak. Euskal hirian bizi gara eta, historian ez bezala, erabilera-barruti gehienak partekatzen ditugu bi hizkuntza indartsu horiekin: hizkuntzok lehian daude komunikazio-barrutiotan. Bestalde, ez da berdina 800.000 hiztun horien hizkuntzak duen lege-babesa eta erakunde aldetiko sustapena: gutxienez hiru abiadura desberdinetako lurraldeetan bizi dira euskal hiztunok. Abiadura desberdinetako hiru guneak, gainera, uhartetxo osaturik daude: giro euskalduna nagusi duen uhartetxoak beste hizkuntza bat du gailen berbertan.

Ahozko transmisioak funtzionatu duen gizarte batean eta hizkuntza egin-kizun ugaritarako tresna bezala behar ez zen gizarte batean iraun du euskarak luzaroan. Industri iraultzak ekarritako aldaketetara egokitu da, azken unearan unean. Horretan ari zela, Berrikuntzaren, Informazioaren, Ezagutzaren eta Globalizazioaren Gizartea iritsi da tupustean: berria berehala zaharkitzen duen Gizartea. Gai izango ote gara, bata bestearan atzetik, geroz eta abiadura handiagoaz datozen hizkuntz erabileraren erronkei erantzuteko? Nekazari-gizartearen mende askotako iraupenak, nahiz industri gizartearen iraupen nabarmen laburragoak, estuasun eta higadura handiarekin bada ere, aldaketetara egokitze

astia eman du. Kultura idatziaren euskarriak berak –liburuak– mendetako iraupena izan du, baina hamarkada batean indarra galdu du. Web orrien ordua da. Liburutegia osatzen hasi orduko egin behar izan du euskarak web orrirako jauzia. Aurreko mendean, 1960 aldean ezagutu genuen gaztelaniazko telebista. ETB 1982ko abenduan hasten da emititzen, TVEren ordu arteko monopolioa apurtuz. Euskarazko telebista-kate bakarra satellite bidez saio batzuk emititzera heldu denean, horrelako 374ren bat kate daude gaztelaniaz eta 220ren bat frantsesez. Eta kopuru hauek txiki uzten ditu ingelesak. Hitz batean: bizi garen gizarte honetan, pertsona edo organizazio bakoitzak ia ahalmen mugagabea du, bere informazio-biltegiez gain, besteek eragindako informazioa erabiltzeko.

Zenbaki absolututan inoiz baino gehiago gara euskaldunak, inoiz baino komunikazio-barruti gehiagotara iritsi da euskara, egun inork ez du auzitan jartzen euskara kultur hizkuntza denik... Eta, hala ere, hil-kanpaien hotsa ez da zeharo isildu: izango ote gara gai Ezagutzaren eta Informazioaren gizartean ere euskaraz bizi izateko? Gizarte-modu berri hau, aukera ala mehatxua ote?

Zaharkituak gelditu dira, bistan denez, nekazari- eta industri gizarte-ereduei zegozkien egitekoak, jokabideak eta azter-ereduak. Informazioaren Gizarteak ekonomiaren eta gizartearen antolaketa-modu berri bat izendatzen du. Hori azpimarratu da, nahiz eta bista motzekoak izango ginatekeen Gizarte honen ezaugarriak alor sozioekonomikora mugatuko bagenu. Nolatan Informazioaren eta Ezagutzaren Gizartean aintzakotzat hartu ez hezkuntzaren, kulturaren eta hizkuntzen erabileraren dimentsioak? Izan ere, Ezagutzaren eta Informazioaren Gizarteak hizkuntzaren erabilera du euskarri –mintzaira zibernetikoa, mintzaira arrunta, berau abiapuntu duten argot berriak...–. Gizarte honetan, interakzioan oinarritzen da mintzaira arrunt eta argot berri horien erabilera. Industri gizartearen ohiko hedabideek eskatutako trebetasun pasiboez gain –entzun, ulertu–, aktiboak bultzatzen ditu –erantzun, komunikatu (blog-a, chat-a, SMSa, posta elektronikoa...)–. Beraz, mintzaira arruntaren eta argoten erabilek gizarte honen gune-gunean jarraitzen du. Laster omen gara makinekin hitz egiten eta hauek gizakion aginduak ulertzen. Baina, agian, ingelesa edo txinera bakarrik ulertuko dituzte. Babel aurretiko egoerara itzultzeko joeraren erakuskeri ote? Kontua da egoera perfektu hori desegin egin zuela gizakiak, zerrura helduko zen Dorrea eraikitzen hasi zenean. Hortik etorri zen aniztasuna. Eta gizakiak aniztasunari eutsi dio mendez mende, nahiz eta aniztasun horrek murrizketa ikaragarriak jasan. Agian, makinekin hitz egiteko ezinbestekoa izango dugu *lingua franca* bat, baina *lingua franca* hori gizakiaren hizkuntza erabilera-esparru guztiak ordezkatzera helduko ote da? Afektiboak ere bai? Edo, *lingua franca* horrekin batera, bere ama-hizkuntzari eutsiko dio hiztun bakoitzak? Industri iraultzak ekarritako garapen jasanezinari, garapen jasangarria kontrajarri zaio. Gaur, Ezagutzaren eta Informazioaren Gizartean bizi gara. Bihar, ez jakin. XXI. mendean munduko ondare linguistikoaren %90en desagertzea iragarri dute. Babelgo Dorreak ekarritako hizkuntzen arteko lehian, ba ote planteamendu ekologikorik egiterik?

SUSTAPEN BATZORDEA

HIZKUNTZA POLITIKA AITZINPROIEKTUA
«HIZTUN OSOAK HELBURU,
HAUR ETA GAZTEAK LEHENTASUN» (*)

Durango, 2006ko abenduaren 6a

Euskaltzaindiko Sustapen Batzordea

2006ko urrian Euskararen Erakunde Publikoak kaleratutako Hizkuntza Politika Aitzinproiektua aztergai izan du Euskaltzaindiak. Horiek horrela, Euskaltzaindiaren ekarpenak bost ataletan bildu dira:

1. TXOSTENARI EGINDAKO OHAR OROKORRAK

Atal honetan garrantzi handiko lau ohar egin nahi ditu Euskaltzaindiak:

- a) Euskara da Euskal Herriaren berezko hizkuntza. Mendez mende aldatur eta egokituz joan diren errealitate politiko zein instituzional guztien aurrekoa da, beraz, euskara. Euskarari buruzko aipamen horren falta ikusten du Euskaltzaindiak.
- b) Halaber, 1789ko aitortpenaren 11. artikulua «Herritar orok mintzatzeko, idazteko eta inprimatzeko askatasuna dauka» jaso zuelarik, Errepublikaren barnean dirauten hizkuntzak sustatzeko eta normaltasunez garatzeko zerueta dagoela antzematen du Euskaltzaindiak. Izan ere, Frantziar Iraultzak, hastapenean, ele eta kultur askotarikoa izan nahi zuela gogoan eduki behar genuke.
- c) Eztabaidarako prestatu den txostenean Euskaltzaindiaren aitormena ez jasotzea kezkarri zaigu. Izan ere, Nafarroako Foru Komunitatean zein Euskal Autonomia Erkidegoan indarrean den hezurdura juridikoan (1), besteren artean, zera jasotzen da: Euskal Autonomia Erkidegoko Au-

(*) Euskararen Erakunde Publikoak 2006ko urrian aurkeztutako txostenari Euskaltzaindiak egin dizkion ekarpenak.

(1) Besteak beste, Espainiako Estatuak berak 1976ko 573/1976 otsailaren 26ko Dekretua eta baita 272/2000 otsailaren 25eko Erret Dekretua direla bide Euskaltzaindiari egiten dion aitormena.

tonomia Estatutuaren 6.4. artikulua «Euskarari dagozkionetan, Euskaltzaindia izango da arauemaile» dio, halaber, Eusko Legebiltzarrak 1982/100, azaroaren 24ko Oinarrizko Legeak, Euskararen Erabilpena Arauzkotzekoak, 10. artikuluan, toponimiaren alorrean, Euskaltzaindiari ematen dio aitormena; Nafarroari dagokionez, oster, 18/1986 Foru Legeak, abenduaren 15ekoak, Euskarari buruzkoak bere 2.3 artikuluan «Hizkuntz arauen ezartze ondorioetarako, Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku emaile ofiziala, eta berari eskatuko dizkiote botere publikoek aurreko atalean ezarritakoa betetzeko beharrezko zaizkien txosten eta diktamenak» dio (2). Era berean, 8.2 artikulua «Nafarroako Gobernuak Euskaltzaindiaren alde aurreko txostenari jarraiki eta artikulua honen lehendabiziko atalean aurreikusitakoaren arabera, Foru Komunitatearen toponimoak erabakiko ditu, baita lurralde, herri eta hiriarteko bideen izen ofizialak ere» (3) jasotzen du.

Beraz, argi dago noren eskuduntza den araugintza eta, bereziki, toponimia, EAEn eta Nafarroan. Horiek horrela direla, euskararen batasunaren mesedetan, Euskaltzaindiari pareko aitormena egitea eta txostenean espresuki jasotzea garrantzi handikoa dela ikusten du Euskaltzaindiak.

- d) Askotariko arrazoiengatik, mendez mendez, euskaraz jardun duen hiztun-elkartea ahulduz joan delarik, euskararen lur-eremu osoan, euskararen indarberitzea aldarrikatzen du Euskaltzaindiak. Ahuldutako hizkuntza indarberitzeak, besteak beste, hiztunak mantentzea zein haztea nola baita erabilera eremuak irabaztea eskatzen ditu. Horiek horrela, «Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehenetsun» pasartea «Hiztun osoak helburu, haurrengandik eta gazteengandik hasirik» proposatuko genuke, izan ere, aurkeztu den txostenak urrats are gehiago ekarriko dituen politika berri baten hasiera ez besterik dela dakusa Euskararen Akademiak. Inguruabar horretan sakonduz, euskararekiko atxikimendua eta haren prestigioa areagotzeko sentiberatze jarduerak behar-beharrezkoak direla azpimarratu nahi dugu.

(2) Frantses itzulpenean, Gobernuak berak egindakoa hau dio: «L'institution consultative officielle pour l'établissement des normes linguistiques sera la Royale Académie de la Langue Basque, à laquelle les pouvoirs publics demanderont tous les rapports nécessaires à l'accomplissement des dispositions de cette loi».

(3) «Le Gouvernement de Navarre, après avoir étudié le rapport de la Royale Académie de la Langue Basque, déterminera conformément à ce qui est prévu au premier paragraphe de cet article, les toponymes de cette communauté, ainsi que les noms officiels des territoires, localités et voies interurbaines».

2. TXOSTENARI IKUSTEN ZAIZKION INDARGUNEAK

Lau indargune antzeman dira, nagusiki:

- a) Antolatzen ari den «hizkuntza politika berria», 1997ko hizkuntza antolaketaren eta 2001-2006 Hitzarmen Bereziaren jarraipenean kokatzen da, baina aitzinamendu handia ekarriz. Lurralde antolaketari loturik, hizkuntza politikak lau norabide hartzen ditu: familiako eta eskolako transmisioa, gizarte erabilera, hizkuntzaren kalitatea eta euskararen aldeko motibazioa.
- b) Geroari irekia den lema baten pean («Hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun») hamaika erronka nagusik komunikazioaren eremu guztiak estaltzen dituzte, norabide orokorrak eta lan ardatzak definituz. Euskal irakaskuntzak toki handia dauka, Hezkuntza ministroaren onarpenarekin.
- c) Botere publikoaren inplikazioa nabari da Euskararen Erakunde Publikoaren bitartez, elkarte eta eragile guztien ideiak bilduz Aholku Batzordean.
- d) Besteak beste, lau egitasmo ausart azpimarratzekoak dira: euskal irakaskuntzaren eskaintza zabaltzea lurralde osora, euskara sartzeari haurtzaindegietan, euskara teknikarien sarea antolatzea herri-elkarteetan eta unibertsitatean pedagogia, itzulpengintza eta hizkuntz antolaketa lantzea.

3. TXOSTENARI IKUSTEN ZAIZKION AHULEZIAK

Lau ahulezia antzeman dira, nagusiki:

- a) Aurkeztu den egitasmoak hizkuntza politika alor asko kontuan hartzen ditu, baina, era orokor batean. Horiek horrela, alor guztietan epeak-eta ongi zehaztu beharko liratekeela iritzi dio Euskaltzaindiak.
- b) Hizkuntzaren eta hizkuntzazko irakaskuntza da programazio zehatza duen egitasmo bakarra. Alabaina, euskararen eta euskarazko irakaskuntza gazte guztiei eskaintzea gaineratu beharko litzatekeela ikusten da.
- c) Halaber, hamaika erronka horiek garabidean jarri ahal izateko aurreikusitakoak baino ekonomi eta giza baliabide are gehiago behar direla antzematen dugu, erdibidean eta hankamotz geratzeko arrisku bizi dago, bestela.
- d) Egitasmo osoa norbanakoaren motibapenaren gainean jartzen da, motibapen kontzeptua borondatezkotzat hartua delarik. Halere, soziolinguistikak erakutsi du hizkuntza bat erabilia izanen dela beharrezkoa den neurrian eta erabilia izateko egiazko aukerak, erabilera eremuak dituen neurrian. Noranzko horretan, urratsak egin daitezten animatu nahi du Euskaltzaindiak Euskararen Erakunde Publikoa.

4. EUSKARA INDARBERRITZEKO ASKOTARIKO ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA

Egitasmoa aurrerapauso handia da Euskaltzaindiaren aburuz. Alabaina, egitasmoan aurreikusi diren helburuak-eta lortu ahal izateko askotariko eragileen arteko lankidetzaren giroa gorpuztea eta indartzea garrantzi handiko kontua da, horiek horrela, eragile bakoitzari dagokion eskuduntza errespetatuz, lehia antzuak eta bikoizketak ekidin behar direla azpimarratu nahi du Euskaltzaindiak. Beraz, eragile guzti-guztiak ikuspegia zabal dutela lankidetzan aritzera animatu nahi ditugu.

5. BESTELAKO OHARRAK

Euskaltzaindiaren aitormenarekin zer ikusia daukan pasarteak diogenarekin bat eginez, honako oharrak egiten dira:

5.1. 8. atala: Toponimia. 29-32 orrialdeak

a) Ohar orokorra

- Izenburua bera aldatzea proposatzen da, hots, Toponimia izan beharrean **Onomastika** jartzea. Arrazoia honako hau da: toponimia onomastikaren azpi-atal bat da. Izenak tratatzen dituen zientzia Onomastika da eta honen bi azpi-atal nagusiak; 1) Antroponimia (pertsona izenak, deiturak, hagianimoak eta abar); 2) Toponimia edo leku izenak (eremuak, ibarrak, herriak, auzoak, karrikak, etxeak –oi-konimia–, mendiak, ibaiak, eta abar).
- Hortaz, toponimia hitza leku izenez ari garenean soilik erabili behar da. Iparraldeko Hizkuntza Politikaren proiektu honetan Onomastika bere osotasunean da kontuan izan behar dena, hizkuntzaren normalizaziorako izenen egokitzeaz ari garenean ezin baita, inola ere, alde batera utzi izen-deituren eta abarren normalizazioa. Horregatik, bada, toponimia hitza leku izenei dagokienean erabili behar da.

b) Ohar zehatzak. Dokumentuaren 30. orrialdean:

- 1.1. puntuan; «Euskaltzaindiarekin partaidetzan» jarri beharrean «Euskaltzaindiaren arauak eta irizpenak betez» jarri beharko luke. Ez da zehatza «Euskal Autonomia Erkidegoko arautze irizpideak eta lurraldeko berezitasunak kontutan hartuz» jartzea, Nafarroako Foru Komunitatean ere egin baita lan hori. Bietan, txosten honen 1.c) atalean erran bezala, Euskaltzaindiak lurraldeko berezitasunak kontuan

hartuz eman dituen arautze irizpideak betez. Horregatik, «Euskaltzaindiaren arauak eta irizpenak betez» jarri beharko luke.

- 2.1. puntuan: «Euskal Autonomia Erkidegoko egin-moldeak eta lurraldeko berezitasunak kontutan hartuz» jarri beharrean «Euskaltzaindiaren arauak eta irizpenak segituz» jarri beharko luke.
- 2.2. puntuan, honako hau gehitu: «Euskaltzaindiaren arauak, irizpenak eta lan-egitura akademikoa segituz».

5.2. 9. atala. Dokumentuaren 34. orrialdea

3) zutabearen helduen irakaskuntzaren mailaz mailako prozesuaz ari denez gero, ezinbestekoa da, gaur egun, *Europako Erreferentzia Markoa* (4) segitzea, bai programazioetan bai ebaluazioetan, horren arabera definitu behar baita agiri bakoitzari dagokion hizkuntza-maila edo hizkuntza-eskakizuna.

Gainera, oso kontuan izatekoa da agiriekin bermatzen duten hizkuntza mailaren definizioa euskararen agirien baliokidetasuna bideratu ahal izateko. Gai honi dagokionez, Euskal Herriko Hegoaldean euskararen agirien egokitze prozesu hau egiten ari dira. HABEK jadanik egin du: Euskal Autonomia Erkidegoak EGA agiria Europako C1 mailarekin parekatu du. Nafarroako EGA eta Hegoaldeko bi Erkidegoetan ematen diren Hizkuntza Eskoletako Euskara agiriak (orain arte EGArekin baliokideak), egokitze prozesuan daude.

Hortaz, 3.1. ataleko azkeneko paragrafoan dioen «dispositibo berri bat definitu eta plantan jarri EGA azterketarentzat, agiri ofizial egokia sortuz» beharrean «*Europako Erreferentzia Marko*-ari egokitutako agiri ofizialak erabaki eta kasuan kasuko euskararen gainerako agiriekin baliokidetasunak definitu».

(4) *Common European Framework for Languages: Learning, Teaching, Assessment*. Education Committee. Language Policy Division, Strasbourg (2001). Europako Kontseiluaren argitarapen honen itzulpena: *Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa* (2005). HABE.

**PRÉ-PROJET DE POLITIQUE LINGUISTIQUE
«UN OBJECTIF CENTRAL: DES LOCUTEURS COMPLETS.
UN CŒUR DE CIBLE: LES JEUNES GÉNÉRATIONS»**

**Contribution de l'Académie de la langue basque / Euskaltzaindia
au document présenté par l'Office public de la langue basque
en octobre 2006**

*(Seul fait foi le document original en basque envoyé
par Euskaltzaindia)*

*Euskaltzaindia,
le 6 décembre 2006*

L'Académie de la langue basque Euskaltzaindia a analysé le Pré-projet de politique linguistique publié par l'Office public de la langue basque en octobre 2006. Ainsi donc la contribution d'Euskaltzaindia se divise en 5 articles:

1. REMARQUES GÉNÉRALES AU SUJET DU DOCUMENT

Dans le présent article Euskaltzaindia voudrait faire quatre remarques importantes:

- a) La langue basque euskara est la langue propre au Pays Basque. En effet la langue basque est antérieure à la réalité politique et institutionnelle qui s'est modifiée et adaptée de siècle en siècle. Euskaltzaindia constate l'absence de cette mention au sujet de la langue basque.
- b) De même, puisque l'article 11 de la Déclaration de 1789 a proclamé «Tout citoyen peut donc parler, écrire, imprimer librement», Euskaltzaindia trouve qu'il y a là une raison de promouvoir les langues utilisées à l'intérieur de la République et de les développer normalement. En effet, il faudrait que nous gardions à l'esprit que la Révolution française, au début, se voulait multilingue et multiculturelle.
- c) Il nous paraît regrettable de ne pas trouver une reconnaissance d'Euskaltzaindia dans le document qui a été préparé pour la discussion. En effet, voici ce qu'on trouve dans la structure juridique de la Commu-

nauté Forale de Navarre et de la Communauté Autonome Basque (1). L'article 6.4. du Statut d'autonomie de la Communauté Autonome Basque dit «qu'en ce qui concerne la langue basque, Euskaltzaindia établira la norme»; de même, le Parlement Basque par la Loi Cadre 100 du 24 novembre 1982, au sujet de la Norme d'utilisation de la langue basque, à l'article 10, reconnaît la compétence d'Euskaltzaindia dans le domaine de la toponymie. En ce qui concerne la Navarre également, la Loi Forale 18 du 15 décembre 1986, à l'article 2.3 concernant la langue basque, dit que «pour l'établissement des normes linguistiques, Euskaltzaindia sera l'institution consultative officielle, et les pouvoirs publics lui demanderont les rapports et les décisions nécessaires à l'accomplissement des dispositions de cette loi» (2). De la même manière, l'article 8.2 stipule que «suite au précédant rapport d'Euskaltzaindia, le Gouvernement de Navarre déterminera, conformément à ce qui est prévu au premier paragraphe de cet article, les toponymes de la Communauté Forale ainsi que les noms officiels des territoires, localités et voies interurbaines» (3).

Par conséquent, on voit clairement à qui appartient la compétence concernant la norme et spécialement la toponymie, dans la Communauté Autonome Basque et en Navarre. Ainsi donc et pour favoriser l'unité de la langue basque, Euskaltzaindia pense qu'il est très important d'établir une reconnaissance analogue de l'Académie de la langue basque et de la spécifier expressément dans le document.

- d) Pour de nombreuses raisons, alors que la communauté linguistique basque s'affaiblit de siècle en siècle, Euskaltzaindia réclame la revitalisation de la langue basque sur tout le territoire. La revitalisation de la langue en difficulté demande, entre autres, le maintien voire l'augmentation du nombre de locuteurs ainsi que la reconquête d'espaces d'utilisation. Ainsi donc nous proposerions que la formule «un objectif central: des locuteurs complets; un cœur de cible: les jeunes générations» devienne «un objectif central: des locuteurs complets; un cœur de cible: les futures générations». En effet, l'Académie de la langue basque pense que «les enfants et les jeunes» ne constituent que

(1) L'Etat Espagnol accorde cette reconnaissance à l'Académie de la langue basque/Euskaltzaindia notamment par le Décret 573 du 26 février 1976 ainsi que par le Décret Royal 272 du 25 février 2000.

(2) Traduction français faite par le Gouvernement lui-même: «L'institution consultative officielle pour l'établissement des normes linguistiques sera la Royale Académie de la Langue Basque, à laquelle les pouvoirs publics demanderont tous les rapports nécessaires à l'accomplissement des dispositions de cette loi».

(3) «Le Gouvernement de Navarre, après avoir étudié le rapport de la Royale Académie de la Langue Basque, déterminera conformément à ce qui est prévu au premier paragraphe de cet article, les toponymes de cette communauté, ainsi que les noms officiels des territoires, localités et voies interurbaines».

le début d'une nouvelle politique linguistique parmi les nombreuses étapes présentées dans le document. En réfléchissant à ce contexte, nous voulons souligner que les activités de sensibilisation ayant pour but l'adhésion à la langue basque et l'illustration de cette langue sont absolument nécessaires.

2. LES POINTS FORTS QUE PRÉSENTE LE DOCUMENT

Quatre points forts ont été repérés principalement:

- a) La «nouvelle politique linguistique» qui se met en place se situe dans la continuité de l'aménagement linguistique de 1997 et de la Convention spécifique 2001-2006, tout en apportant une avancée significative. En lien avec l'aménagement du territoire, la politique linguistique se donne quatre lignes directrices: la transmission familiale et scolaire, l'utilisation sociale, la qualité de la langue et la motivation en faveur de la langue basque.
- b) Sous une «formule-épigraphe» largement ouverte sur l'avenir (un objectif central: des locuteurs complets; un cœur de cible: les jeunes générations), 11 enjeux majeurs ont été identifiés recouvrant l'ensemble des situations de communication et orientant plusieurs axes de travail. L'enseignement basque tient une grande place, en concertation avec le ministère de l'Éducation.
- c) Le volontarisme des pouvoirs publics se manifeste de manière évidente par l'action de l'Office public de la langue basque, tout en tenant compte des idées de tous les acteurs réunis en Comité consultatif.
- d) Quatre projets audacieux, entre autres, sont à souligner: la généralisation de l'enseignement basque sur tout le territoire, l'introduction de la langue basque dans les crèches, le réseau des techniciens de la langue s'organisant en intercommunalité et les formations universitaires en pédagogie, en traduction, en aménagement linguistique.

3. LES POINTS FAIBLES QUE PRÉSENTE LE DOCUMENT

Quatre points faibles ont été repérés principalement:

- a) Le projet politique qui a été présenté prend en compte beaucoup de domaines, mais de manière générale. Ceci dit, Euskaltzaindia pense que dans tous les domaines il faudrait préciser les délais notamment.

- b) L'enseignement du basque et en basque est le seul domaine à avoir un projet de programmation. Cependant il est évident qu'il faudrait ajouter comme objectif l'offre de l'enseignement du basque et en basque à tous les jeunes.
- c) De même, nous pensons que pour développer ces onze enjeux il faudra bien plus de ressources humaines et financières que celles qui sont prévues; sinon le risque est grand de rester en panne à mi-chemin.
- d) L'ensemble du projet repose sur la motivation personnelle, le concept de motivation étant pris dans le sens de volontariat. Cependant la sociolinguistique montre qu'une langue s'utilise dans la mesure où elle est indispensable, dans la mesure où il existe de véritables occasions et espaces d'utilisation. Euskaltzaindia veut encourager l'Office de la langue basque à avancer dans cette direction.

4. LA COOPÉRATIONS DES NOMBREUX ACTEURS POUR LA REVITALISATION DE LA LANGUE BASQUE

De l'avis de Euskaltzaindia, le présent projet est une avancée importante. Cependant pour réussir les objectifs et les enjeux prévus dans le projet, concrétiser et renforcer la coopération des nombreux acteurs est une question d'une grande importance. Ainsi donc, Euskaltzaindia veut souligner, qu'il faut éviter les oppositions stériles et les duplications. En conséquence, nous voulons encourager absolument tous les acteurs à travailler de concert avec une grande ouverture d'esprit.

5. AUTRES REMARQUES

Ces remarques-ci sont faites au sujet des paragraphes où la compétence d'Euskaltzaindia est en question, tout en donnant notre accord avec le contenu:

5.1. 8° enjeu: Toponymie. Pages 29 à 32.

- a) Remarque générale
 - Il est proposé de modifier le titre lui-même, à savoir, au lieu de «Toponymie» mettre «**Onomastique**». En voici la raison: la toponymie est un sous-titre de l'onomastique. L'onomastique est la science qui traite des noms propres avec deux sous-titres principaux: 1) l'anthroponymie concerne les personnes (prénoms, noms, hagnonymes

etc). 2) la toponymie c'est la dénomination des lieux (lieux-dits, vallées, villages, quartiers, rues, maisons (oïconymie), montagnes, rivières etc).

- Par conséquent le terme de toponymie s'utilise uniquement quand il est question des noms de lieu. Dans le présent projet de politique linguistique du Pays Basque nord, c'est l'ensemble de l'onomastique qu'il faut prendre en compte; quand il est question des normes linguistiques des noms propres, il n'est absolument pas possible de laisser de côté la normalisation des prénoms, des noms etc. Voilà pourquoi il faut utiliser le mot «toponymie» uniquement quand il est question des lieux.

b) Remarques précises à la page 30 du document:

- Point 1.1.: Au lieu de mettre «en partenariat avec Euskaltzaindia», il faudrait mettre «en appliquant les normes et les critères d'Euskaltzaindia». Il n'est pas exact de dire «prenant en compte les pratiques développées au sein de la Communauté Autonome d'Euskadi et les spécificités locales», parce que le même travail se fait dans la Communauté Forale de Navarre. Dans les deux cas, comme il est dit au paragraphe (1.c) de ce document-ci, on a tenu compte des normes et des critères qu'Euskaltzaindia a établis en prenant en compte les spécificités locales. C'est pourquoi il faudrait mettre «en appliquant les normes et les critères de l'Euskaltzaindia».
- Point 2.1.: au lieu de mettre «en tenant compte de la pratique en vigueur au sein de la Communauté Autonome d'Euskadi et des spécificités locales» il faudrait mettre «en appliquant les normes et les critères de l'Euskaltzaindia».
- Point 2.2.: au lieu de mettre «en tenant compte de la pratique en vigueur au sein de la Communauté Autonome d'Euskadi et des spécificités locales» il faudrait mettre «en appliquant les normes et les critères d'Euskaltzaindia».
- Point 4.2.: il faudrait ajouter, «en appliquant les normes et les critères d'Euskaltzaindia».

5.2. 9° enjeu. Page 34 du document

- Dans la colonne 3, comme il s'agit de l'enseignement des adultes selon une progression par niveaux, il est indispensable, aujourd'hui de suivre le *Cadre européen de référence*, aussi bien dans les programmations que dans les évaluations. C'est en fonction de ce cadre qu'il

faut définir le niveau linguistique ou l'exigence linguistique qui convient à chaque diplôme (4).

- De plus il faut prendre bien en compte la définition des niveaux linguistiques que garantissent les diplômes, pour établir la parité avec les diplômes de langue basque. A ce sujet, ce processus d'adaptation des diplômes de la langue basque est en cours au Pays Basque sud. L'organisme HABE (enseignement aux adultes) a déjà commencé le travail: dans la Communauté Autonome Basque, le diplôme EGA (aptitude à la langue basque) a l'équivalence du niveau C1 européen. Le diplôme EGA et les diplômes de basque des écoles de langues (qui jusqu'à présent avaient l'équivalence du diplôme EGA) sont dans un processus de définition d'équivalence.
- Ainsi au lieu de la mention qu'on lit au dernier paragraphe de l'article 3.1 «définir et mettre en place un nouveau dispositif pour l'épreuve EGA débouchant sur la délivrance d'un diplôme officiel adapté», il faudrait mettre: «définir des diplômes officiels en conformité avec le *Cadre européen de référence*, et évaluer dans chaque cas les équivalences des autres diplômes de la langue basque.

(4) *Common European Framework for Languages: Learning, Teaching, Assessment*. Education Committee. Language Policy Division, Strasbourg (2001). Traduction en basque de cette publication du Conseil de l'Europe: *Ikaskuntza, Irakaskuntza eta Ebaluaziorako Europako Erreferentzia Markoa (HABE 2005)*. Version française: *Cadre européen commun de référence pour les langues: apprendre, enseigner, évaluer (CECR)*. Conseil de l'Europe. Division des politiques linguistiques (Edition Didier 2001).

Référence Internet <www.coe.int/T/DG4/Linguistic/CADRE_FR.asp>

JAGONETeko 2006ko DATUAK

Urte guztikoak

*Joxe Ramon Zubimendi,
JAGONETen arduraduna.
Euskaltzaindia*

1. Galdelekuan jasotako galderak: 1.325.
2. Banan-banan emandako erantzunak: 1.271.
3. Datu-basea osatzen duten galde-erantzunak: 523.
4. JAGONETeko orri nagusia zenbat aldiz bistaratua: 115.772 (*).
5. JAGONETeko datu-basean egindako bilaketak: 42.283 (*).
6. JAGONETen bistaratutako galde-erantzunak: 45.621 (*).

(*) Izarñoa duten kopuruak EUSKALTELeK emanak dira.

**EUSKALTZAINDIAREN
BARNE-HISTORIA
(X)**

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-HISTORIAZ

*Xabier Kintana,
idazkaria*

SARRERA

Gure Hizkuntzaren Akademiak aspaldidanik ikerketa eta arautze arloan egiten dituen lanak eta euskara sustatu eta jagoteko asmoz ematen dituen pausoak gero eta ezagunagoak dira, eta horiek gure gizartean sorrarazten duten oihartzunak eta dituzten aplikazio zabalek aski ongi erakusten digute jendeak zer nolako interesa duen gure egitekoez.

Badira, ordea, gure erakundearen historian hain ezagunak ez diren puntuak, beraren sortze, jardunbide eta bilakaeraren gorabeherei buruzkoak, horan-hemenka gutun argitaragabe, artikulua eta dokumentu sakabanatueta burreiatuak. Horietan guztiotan nolabait Euskaltzaindiaren barne historia dei genezakeena datza, maiz, zoritxarrez, aski ezezagun eta gaizki adituen eta ulkerak okerren iturri, eta, horrexegatik, gure ustez, barne historia horretako zokomokoak argitu eta gure argi-ilunak islatzea egokia bezain komenigarria litzateke. Beraz, xede horrekin, zenbaki honetan hasi eta hemendik aurrera osatuz joan nahi genukeen atal honetan, Euskaltzaindiaren ibilbide historikoa hobeki ulertzeko lagun dezaketen era guztietako agiriak eta lekukotasunak agertzen hasiko gara, P. Xarrittonek oraingoan argitaratzen dituen dokumentu baliotsuak lehenbiziko urratsak izanik.

EUSKALTZAINDIAREN BARNE-HISTORIA

X. emanaldia

Piarres Xarritton

Euskeraren 2002,1eko 47. liburukian Xabier Kintana idazkari jaunak ireki zionez geroz atea sail berri honi, lehenbizian Piarres Broussainen gutundegiari esker iturri berri batzuren uretan murgildu ginen. Geroxeago Baionako apezpikutegiko Piarres Andiazabal eta Janpiarre Ouret kalonjeen laguntzarekin Piarres Lafitten gutundegiko xoko zenbaiten harrotzen hasi ginen eta horrela, lau urte barne X. kapitulu honetara heldu gara.

Baina gisala, gaurko gure historia ere, gurekin aitzina badoa bere bide-tik. Horra zergatik, aurkezpen honek bizpahiru ohar hauek eskatzen dizkidan:

duela

1. oharra: Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak ekarlanean argitaratu berri dute Kepa Altonaga Irakasle eta Urgazle jaunaren *Etxepare Aldudeko Medikua* liburu aberatsa. Hona non liburu horren «Eztago Bilbo langorik» deitu kapituluaren 145-155. orrialdeetan aipatzen diren Azkuek eta Etxeparek, Piarres Broussain hil zen ondoko egunetan kurutzatu zituzten bost gutun, gaurdaino Bilboko Euskaltzaindiaren Bibliotekan lo egon direnak baina gure Erakundearen historia zuzentzeko eta beharbada ere gure kideko edo inguruko lagun batzuek asmatu nahi dituzten ametsetako «arau» zenbaiten kordokan ezartzeko baliagarri direnak. Pentsu dugu beraz gure irakurleek atseginekin irakurriko dituztela X. kapitulu honetan, Pruden Gartzia gure urgazle liburuzainak eta haren lankideek aurkitu eta Kepa Altonagak komentatu dizkiguten beihalako Azkue eta Etxepareren arteko bost gutun gorde haiek.

2. oharra: duela zenbait urte nihonek atseginekin parte hartu nuen irakasle lagun zenbaitekin «Piarres Lafitten, sare intelektualaz» Amelia Hernandez Mata Salamankan jaiotako andereak Leioan, euskaraz aurkeztu zuen epaimahainean. Jakin berri dut tesiaren argitaratzeko erabakia hartua dela eta zorionak bidali ondoan lankide porrokatua den andere Ameliari, erranen diet gure irakurleei argitalpen horri esker ikusiko dutela zehazki *AINTZINA* aldizkaria sortu eta kudeatu zuelarik 1934-1937 urteetan Piarres Lafittek berak, zer

aztarna utzi zuen historia horrek haren gutundegian. Ez dugu beraz gai hori errepikatuko *Euskeraren* gure sail honetan .

3. *oharra*: Azken xehetasun bat oraino gure Iparralde honetatik, klima aldaketak eta hauteskundeak, ez baitabil beste solasik gure eskualdeetan. Nik ez dut erranen ez dela deus horrelakorik Euskaltzaindian aldaira egiten, ari garenaz geroz gure bulego, tresna eta paperekin laurehun urte honetan Frantziako Errege, Errepublika eta Enperadoreen esku izan den Jauregi Berrirat, baina ez dugu horregatik ez uhaste, ez idorte, ez izozte larriegirik jasaten. Bakarrik Piarres Andiazabal kalonje euskaltzain ohorezkoak ekarri digu Piarres Lafitte zenaren gutundegia giltzapean ongi zain eta laneko erabil genezan. Ez dakigu ordea zenbat denbora eskatuko digun lan horrek. Geroak erranen; gu, geure aldetik, ariko gara, Jainkoa lagun!

**EUSKALTZAINDIAREN
AGIRIAK**

BATZAR-AGIRIAK

AGERIKO BILKURA

Uztailaren 13an, egoitzan, ageriko bilkura egin du Akademiak, arratsaldeko 5etatik 6etara, euskaltzain urgazleei diplomak emateko.

Bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, *Iker* sailburua; Andres Iñigo, *Jagon* sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Pierre Charriton, Patxi Goenaga, Emile Larre eta Ana Toledo euskaltzain osoak. Ezin etorria adierazi du J.L. Davantek.
- Xabier Gereño, ohorezko euskaltzaina.
- Urgazleak: Kepa Altonaga, Ricardo Badiola, Sebastian García Trujillo, Juan Luis Goikoetxea, Mikel Gorrotxategi, Iñaki Irazabalbeitia, Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta.
- Euskaltzaindikoko langileak: Lutxi Alberdi, Amaia Okariz eta Emilio Porras.

* * *

Xabier Kintana idazkariak eman dio hasiera ekitaldiari, Euskaltzaindiaren maiatzeko osoko batzar-agiria irakurritz, non adierazten den hogeita hamabost euskaltzain urgazle izendatzen zirela. Bestetik, hau azpimarratu du idazkariak: lehen aldia dela Euskaltzaindiaren historian euskaltzain urgazleen diploma ematea beren-beregi horretarako bakarrik antolatzen den ekitaldi batean egitea.

Ondoren Andres Urrutia euskaltzainburuak agur-hitzak egin ditu. Euskaltzain urgazle izendatu berriei lanerako gonbita egin die, bakoitzak bere lan-esparruan duen eskarmentua Euskaltzaindiaren bidez euskarak dituen eskakizunei erantzuteko erabiltzeko gonbidatuz. Urgazleak herrialde eta lan-esparru ezberdinetatik datozenek, bakoitzak beretik emanez gero, euskararen premiei modu eguneratuan erantzun ahal izango zaie.

Azkenik, diplomak eman zaizkie euskaltzain urgazleei. Ondoren azaltzen da zein euskaltzain osok eman dion diploma kasuan kasuko urgazleari:

Nork

Jose Antonio Arana Martija

Adolfo Arejita

Patxi Goenaga

Andres Iñigo

Jean Haritschelhar

Xabier Kintana

Henrike Knörr

Emile Larre

Jose Luis Lizundia

Beñat Oihartzabal

Ana Toledo

Andres Urrutia

Piarres Xarritton

Nori

Pruden Gartzia Isasti

Dorleta Alberdi Aretxederreta
Josu Koldobika Bijueska BasterretxeaXabier Artola Zubillaga
Jose Luis Erdozia MauleonSagrario Alemán Astiz
Mikel Bujanda Oñederra
Paula Kasares CorralesUr Apalategi Idirin
Jakes SarrailetJacinto Iturbe Barrenetxea
Laura Mintegi LakarraAingeru Epaltza Ruiz de Alda
Josu Zabaleta Kortaberria

Pello Jorajuria

Patxi Galé García
Odile Kruzeta Olañeta
Alfontso Mujika EtxeberriaJean-Baptiste Coyos
Itziar Laka MugarzaAndoni Egaña Makatzaga
Elixabete Pérez GazteluIñigo Aranbarri Alberdi
Jose Mari Iturralde Uria
Miren Agur Meabe Plaza
Eneko Oregi Goñi

Agnes Dufau

Ezin etorria adierazi dute: Luis Alberto Aranbarri, Jose Ramon Etxebarria, Ricardo Gómez, Joakin Gorrotxategi, Angel Ibisate, Felipe Juaristi, Bernadette Soulé eta Juan Jose Zubiri euskaltzain urgazleek.

* * *

Diplomak banatu ostean, izendatu berri guztien izenean, Andoni Egañak bertso hauek bota ditu:

Zer ohorea pentsatzen gendun
honuntza gentozenean,
nik bederen baita aitortzen dut
modu zintzo ozenean
nahiz ta Andresek gero lanera
bultza gaitun zuzenean,
eskerrik asko neroni eta
beste denen izenean.

Bertsolaria maiz joaten da
bizkor zuritik zirira
izendapena onartu du
errazena hori, tira,
Euskaltzaindia lasai jar leike
etorkizunari begira,
hogeita zazpitik hiru edo lau
finak aterako dira.

* * *

Ekitaldiaren erdian eta amaieran, Maria Zubikarai eta Alfonso Rodriguez biolon-
txelo eta biolin jotzaileek, musika pieza batzuk eskaini dituzte. Musikariek lagunduta,
Agur, jaunak abestuz amaitu da ekitaldia.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Antzuolan, 2006ko uztailaren 20an

Andres Urrutia euskaltzainburua
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Jose Antonio Arana Martija,
Adolfo Arejita,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Patxi Salaberri,
Ana Toledo
eta Mikel Zalbide euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Mikel Gorrotxategi eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: M. Azkaratek, ahala Haritschelharri; J-L. Davantek, ahala Txomin Peillen; Patxi Goenagak, ahala B. Oihartzabali; J. Irazuk, ahala A. Urrutiari; Pello Salaburuk, ahala B. Oihartzabali; Piarres Xarritonek, ahala B. Oihartzabali, eta Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori.

Batzarra arratsaldeko 16:15ean hasi da Antzuolako Kultur Etxean, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea: aurreko bilkuraren akta, J. Luis Lizundiaren ohar txo batekin (Onomastikako Izendegian *Arabako mendialdea* ere jartzeko), ontzat eman da.

2. Hizkuntza gaiak

2.1.1. Onomastika «Arabako herri-izendegia: 4. zerrenda (Arabako Errioxa)» onartzea. A. Iñigok A. Arejitaren ohar bakarra jaso duela adierazi du, *Bañueta* formaren alde. *Mañueta* formak izan duen onarpen zabala kontuan izanda, halaxe uztea erabaki da. Zerrenda onarturik gelditu da.

2.1.2. Exonomastika: «Montenegro-ren euskal izena» onartzea. Oharririk ez da heldu eta, beraz, ontzat eman da.

2.1.3. Onomastika «Arabako herri-izendegia: 5. zerrenda (Añana)» aurkeztea. M. Gorrotxategik ohar batzuk egin ditu *Armiñon*, *Berantevilla*, *Argantzun*, *Trebiñu* eta beste herri-izen batzuei buruz, eta, proposamenarekin batera, zenbait herri-izen argitasun-txostenak ere erantsi direla azaldu du.

Ondoren, J. L. Lizundiak Arabako Errioxako herri batzuek herri-izena berreskuratzeke egindako gestioen berri eman du. Oharrak irailaren 15erako bidali behar direla gogorarazi da.

2.1.4. Exonomastika: Euskal Herriaren auzo eskualdeetako herri izenak: II. zerrenda» aurkeztea. J. L. Lizundiak aurkeztu du, eskualde mugakide bakoitzaren kontsiderazio historiko-geografikoak eginez. Oharrak irailaren 15erako bidali beharko direla gogorarazi du

2.2. Hiztegi Batua: D letrako zerrendari egindako oharra aztertu eta erabakitzea. Jose Antonio Aduriz Hiztegi Batuko lantaldearen arduradunaren zuzendaritzapean, *doktrinamendu*-tik *dona*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.

3. 2007ko aurrekontu-proposamena aurkeztea. Aurretik, euskaltzainburuak aurrekontuak onartzeko prozedura azaldu du: hasieran diruzainak eta kudeatzaileak azalpen orokorra emanen dute, gero kontuak kapituluz kapitulu xehekiago argitzeko. Kapitulu bakoitzaren ondoan, behar diren argitasunak egin ondoren, botazioa egin eta hurrengora pasatuko dela azaldu du.

J.L. Lizundia diruzainak oraingo honetan lehenbiziko aldiz era berriko aurrekontu hauen inguruko kontsiderazioak egin ditu, duten garrantzia azpimarratuz. Alde batetik, batzordeetatik iritsiriko proposamen guztiak kontuan hartu direla esan du, batzuk aski berandu heldu arren. Aurrekontuak proposamen horien arabera prestatu badira ere, gogoan izan behar da oraindik Herri Agintek ikusi eta ontzat eman beharrekoak direla, eta kasu batzuetan hitzarmen propioa edo Herri Administrazioetatik kanpoko babesa bilatu beharra izan daitekeela. Dena den, azken hitzarmenetik Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Agintek eskuzabal agertu direla aitortu du diruzainak

Gero euskaltzainburuak hitza J. J. Zearretari eman dio. Kudeatzaileak lege aldetik erakundeekiko hitzarmenak Euskaltzaindia zertara behartzen duen argitu du, eta, beraz, legezko beharkizun horren arabera moldatu direla oraingo aurrekontuak. Era berean, argitasun eske egin zaizkion galderak erantzun ditu.

Ondoren, *aurrekontu arrunta* aurkeztu du bai eta partida bakoitzaren xehetasunak eman ere. Inork aurka ezer esan gabe, ontzat eman da.

Horren hurrengo, *aribidezko egitasmoen partida* ikusi da (Euskaltzaindiaren Hiztegia-1, Euskal Gramatika Orotarikoa, Euskal Hizkeren Hizkuntza Atlas eta Jagonet zerbitzua), bakoitzaren berezitasunekin. Inork aurka ezer ere esan gabe, ontzat eman da.

Beste *administrazioekiko hitzarmenak*. Kudeatzaileak ECO Nafarroako Gobernarekiko hitzarmenean sartuko dela adierazi du. A. Urrutiaren galderari erantzunez, J. J. Zearretak argitu du Euskal Herriko administrazioei beste administrazioetatik jasoriko diruaren berri eman behar zaiela, baina ez laguntza horiek zertan eta zertarako erabili diren, horien garbiketa, bereziki, emaileari ez besteri eskaini behar zaiolako.

J. Haritschelharrek gogoratu du aurrekontuaren bukatzen dela Iparraldeko administrazioarekin bost urterako sinaturiko hitzarmena, eta beraz, ezin dela jakin datorren urtean zehatza emanen duen. Inork aurka ezer esan gabe, hitzarmen hauek ere ontzat eman dira.

Babesgabeko argitalpenen egoera ere azaldu du J. J. Zearretak, kasu batzuetarako aurreikuspenak egin beharko direla gogoraraziz. B. Oihartzabalek zerrenda horretan aurrekontu argitaratuko diren liburuen partidak ez jartzea eskatu du. Salbuespen hori eginda, hauetarako aurrekontuak ontzat eman dira.

Egitasmo osagarriak. Beroriek ere banan-banan azaldu ditu J. J. Zearretak. Ondoren, onartu egin dira.

Berrikuntza egitasmoak. Aurreko urteetako lanei segituz, aurrera eraman beharra dauka Euskaltzaindiak bere oinogitura informatikoa eguneratu eta garatzeko ahalegina. Horretarako aurreikusiriko partidak ontzat eman dira.

Inbertsio berriak. Berauek ere, azaldu ondoan, ontzat eman dira.

Azkenik, ***sarrera-aurrekontuak***, gainerako aurrekontu guztiekin batera behin-behinekoak direla gogoratuz, ontzat eman dira.

3. Esku artekoak

3.1. Madrileko Gobernuak onartu eta argitaratu du Arautegia. Berau batzar-karpetan sartu da, eta 2006ko uztailaren 15etik indarrean dago, BOEn 14an argitaratu baitzen.

3.2. Barne Erregelak. Argomaizen onartu ziren Barne Erregelen artikulua ere karpetan banatu dira. Horien ponentea J. L. Lizundia izanenez gero, hitza berari eman zaio. J. L. Lizundiak legezko aldaketa honek dakartzan ondorioak xeheki azaldu ditu, lehengo egoeratik egoera berrirako igaraldi honetan hiru puntuon garrantzia azpimarratuz:

1. «Boletín Oficial del Estado»ren 750/2006 ekainaren 16ko Errege Dekretua hila labete honen 14an argitaratua denez, indarrean biharamunetik dagoela. Ondorioz, 2. «Azken xedapena»ren arabera, gaur igarotzen dira emeritu egoerara ondoko euskaltzainak: Xabier Dihartze «Iratzeder», Piarres Xarritton, Jean Haritschelhar, Emile Larre, Antonio Zavala eta Jose Antonio Arana Martija.
2. Euskaltzain oso gisa jarraitzen dutenen heriotza edo «baja» biologikoen ondorioz gertaturiko hutsarteak, ohiko prozeduraz beteko dira.
3. Azken xedapena martxan jartzeko proposamena, hor, besteak beste, euskaltzain oso berriak izendatzeko egutegia, irailean aurkeztuko dio Zuzendaritzari, beronek azter eta, bere kasuan, onar dezan eta, jarraian hileroko batzarrean berrets dadin, hala balegokio.

B. Oihartzabalek euskaltzain oso berrien aulkiak nola geldituko diren galdetu du. J. L. Lizundiak argitu dio Euskaltzaindiaren sorrerako 12en kopurutik ondoren 18ra eta, geroago, 24ra gehitu zirenean, aulki batzuk berriak izan zirela, inoren ordekoak izan gabe, J. A. Arana Martijak egindako sarrera-hitzaldiko txostenean argi ageri denez. Oraingoa, neurri batez, antzeko kasua litzateke. Halere, nolabait itxurazko «segi-da» formala gordetzeko, izendatuko diren berrien «ordena» erabakitzea on legokeela esan du euskaltzainburuordeak.

Beraz, aurrekoaren ondorioz, ontzat eman da:

- a) Legearen arabera gaurko bilkuran emeritu egoerara igaro dira euskaltzain hauek: Xabier Dihartze «Iratzeder», Piarres Xarritton, Jean Haritschelhar, Emile Larre, Antonio Zavala eta Jose Antonio Arana Martija.
- b) Era berean, arautegi berriaren azken xedapena martxan jartzeko egutegia Jose Luis Lizundiak irailean aurkeztuko dio Zuzendaritzari, beronek azter eta, bere kasuan, onar dezan, jarraian hileroko batzarrean berrets dadin.

4. Azken ordukoak

4.1. Gasteizko Toponimia taldekoen hitzarmena. Gasteizko toponimia aztertzen diharduen taldeari hitzarmenak seinalatzen duen epea, hots, datu-bilketarena, amai-

tu zaiola azaldu da. Beraz, horren zuzendari akademikoari dagokio udazkenerako Zuzendaritzari 2. faserako egitaraua aurkeztea.

4.2. Gaizka Barandiaranen heriotza. J. L. Lizundiak Gaizka Barandiaran urgazlea gaur hil dela jakinarazi du.

Bilera iluntzeko 20:00etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

AGERIKO BILKURA

Uztailaren 21ean, Antzuolako Udaletxean, ageriko bilkura egin du Akademiak, goizeko 11:00etatik 12:30era, Ana Maria Toledo Lezeta euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia gauzatzeko.

Bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Jose Antonio Arana Martija, Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Bernardo Atxaga, Pierre Charritton, Emile Larre, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Pello Salaburu, Ana Toledo, Patxi Zabaleta, Mikel Zalbide eta Antonio Zavala euskaltzain osoak. Ezin etorria adierazi du J.L. Davantek.
- Joseba Intxausti, ohorezko euskaltzaina.
- Urgazleak: Jose Antonio Aduriz, Xabier Altzibar, Xipri Arbelbide, Aurelia Arkotxa, Mikel Atxaga, Ricardo Badiola, Jon Casenave, Xabier Erdozia, Izaskun Etxebeste, Sebastian García Trujillo, Pruden Gartzia, Jose Mari Iriondo, Jabier Kaltzakorta, Maria Pilar Lasarte, Lourdes Otaegi, Rosa Miren Pagola, Elixabete Perez Gaztelu, Manu Ruiz de Urrestarazu, Koro Segurola, Patxi Uribarren, Miriam Urkia, Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta.
- Erramun Osa batzordekidea.
- Lutxi Alberdi, Maixa Goikoetxea eta Amaia Okariz Euskaltzaindikoko langileak.

Ekitaldia, Jose Angel Zabalo Antzuolako alkatearen ongietorriarekin eta Andres Urrutia euskaltzainburauren agur-hitzekin hasi da. Juan San Martin zenaren lekua betetzera datorren Ana Toledori buruzko zertzelada nagusiak eman ditu, UZEIn lanean ezagutu zuenetik deustuko Unibertsitatean irakasle izan arte eta Ondarroan Txomin Agirrerri buruzko tesia aurkeztera joan zenekoak gogoratuz.

Xabier Kintana idazkariak ekitaldiak izango dituen atal ezberdinen azalpen laburra egin du. Ondoren, Adolfo Arejita eta Jose Luis Lizundia euskaltzainek lagunduta, batzar aretora sartu da Ana Toledo Lezeta euskaltzaina, eta *Musen arnasatik Goi-arnasara, euskal letretan barrena* izeneko sarrera-hitzaldia irakurri du.

Ezer baino lehen, Juan San Martin zena ekarri du gogora Ana Toledok, haren bitzita eta lana goraipatuz: lanerako grina, alor asko landu eta garaiko erronkei erantzunak aurkitzen jakin izana. Euskal Literaturaren ikuspegi zabala eskaini du Ana Toledok hitzaldian zehar, garrantzi handiena izan duten garai eta joerak islatuz eta herrialde

eta euskalki guztietako idazle nagusienak aipatuz: Kontraerreforma, Erromantizismoa eta 1950eko hamarkadaren haustura.

Jean Haritschelhar euskaltzainak erantzun dio Ana Toledori, *60ko belaunaldiaren ongietorria* izeneko hitzaldia irakurriz. Ana Toledok euskal idazleak aztertu dituen bezala, Haritschelharrek Euskaltzaindiaren historia egin du, hasieratik gaur artekoa. Euskararen batasunaren inguruan, 1968an, sortu zen hizkuntza-iraultza aipatu du, eta horrek Akademiaren barnean izan zuen eragina. Orduan belaunaldi jakin suertatu zitzaion orduko erronkei aurre egitea. Ondoren, egitasmo garrantzitsuak gauzatzen hasi ziren: Orotariko Euskal Hiztegia, Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak, Hizkuntza Atlas, Onomastika eta Literatura batzordeen lana... Belaunaldi hartakoa izen zen Juan San Martin. Gaur ere euskaltzain gazteen belaunaldi berria sartzen hasia de Euskaltzaindian, eta horietakoa da Ana Toledo. Hitz hauekin amaitu du hitzaldia: «60ko belaunaldiko batekin ongietorri bero batekin hartzen zaitu egun ospetsu honetan».

Hitzaldia amaitzean, denak zutik jarri direlarik, euskaltzainburuak euskaltzain oso berriari dagozkion agiria eta diploma eman dizkio. Gero, banan-banan, euskaltzain guztiek zoriondu dute.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Uxuen, 2006ko irailaren 28an

Andres Urrutia euskaltzainburua
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Adolfo Arejita,
Jean-Louis Davant,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Piarres Xarritton
Patxi Zabaleta
eta Mikel Zalbide euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zeareta kudeatzailea, Mikel Gorrotxategi eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaietan.

historikoak azaldu ditu. H. Knörrrek *Berantevilla* eta *Soportilla* izenen inguruan beste datu batzuk irakurri ditu, idatzirik ekarriak. Euskaltzainen artean eztabaidatu eta gero, azentu grafikoa daukaten izenak salbuetsirik, zerrendako gainerako izen guztiak ontzat eman dira. Salbuetsiriko izen horiei buruz batzordeak hurrengo bilerarako proposamena ekarriko du.

2.2. Onomastika. «Euskal Herriaren auzo eskualdeetako herri izenak: 2. zerrenda» onartzea. J. L. Lizundiak azaldu duenez, ez da aurkako oharririk jaso. Beraz, ontzat eman da.

2.3. Onomastika. «Arabako herri-izenak: 6. zerrenda (Gorbeialdea) aurkeztea»: M. Gorrotxategik laburki azaldu du zerrenda honetako aldaketak zertan datuzan. Oharrak urriaren 16rako aurkeztu behar direla adierazi da.

2.4. Exonomastika. «Espainiako Erresumako autonomia erkidegoen, probintzien eta probintzia hiriburuen izenak proposatzea». Euskaltzaindiak berauek bere 32. arauan aspaldian onartu zituen arren, azken urteetan izen horietan egin diren aldaketa ofizialak eta aurkitu diren hutsune txiki batzuk zuzentzeko, proposamen berri hau aurkeztu du J. L. Lizundiak batzordearen izenean. Oharrak urriaren 16rako aurkeztu beharko direla gogorarazi du.

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Arejita, ahala J.L. Lizundiari, egon ez den denboran; Miren Azkaratek, ahala P. Salabururi; Patxi Goenagak, ahala B. Oihartzabali; Jose Irazuk, ahala A. Urrutiari.

Batzarra arratsaldeko 5etan hasi da Uxueko udaletxeko batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea: aurreko bilkuraren akta, oharririk gabe, ontzat eman da.

2. Hizkuntza gaiak

2.1. Onomastika «Arabako herri-izenak: 5. zerrenda (Añana eta Trebiñu)» onartzea. J. Haritschelharrek *Añana*, *Armiñon* eta *Beranturi* / *Berantevilla* toponimoei buruz hiru ohar aurkeztu ditu. A. Iñigok, informazioa handitzeko, herri-izen horien datu

3. Hiztegi Batua: «D letrako zerrendari egindako oharra aztertu eta erabakitzea». P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *donekidatu*-tik *drogagintza*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.

5. Esku artekoak

5.1. Euskaltzain oso berriak izendatzeko egutegia. J. L. Lizundiak, berak prestatutako egutegi-proposamena eta argitasun-txostena banatu eta irakurri ditu, goizean Zuzendaritzan onartua.

Horren arabera, barne erregelen azken xedapenak agintzen duena betetzeko, 2006an bi euskaltzain izendatuko lirateke, honetara: irailean bi euskaltzain osoren hutsarte aldarrikatu, urriko eta azaroko batzarretan proposamenak aurkeztu, eta abendu-ko batzarrean aurkezturiko hautagaien artean bozkatu eta izendatu egingo lirateke.

2007. urtean, aldiz, lau euskaltzain berri hautatuko lirateke, prozedura honen arabera:

2007ko otsaileko osoko bilkuran bi euskaltzain osoren hutsarte aldarrikatuko litzateke eta hurrengo bi batzarretan, martxo-apiriletakoetan, proposamenak aurkeztu, maiatzeko batzarrean hautatzeko.

Ondoren, 2007ko uztailean beste bi euskaltzain osoren hutsarte aldarrikatzea lortorke. Irail-urriko batzarretan proposamenak egingo lirateke, eta, azkenean azarokoan hautagaien artean bozkatu eta izendatu.

Egutegia onartu ondoren, J. L. Lizundiak botazioa egiteko prozedura azaldu du: ekitaldi berean bi euskaltzain hautatzen direnean bietarako quoruma eta osaera bere izango du, lehen hautatuak bigarrenaren bozketan parte hartu gabe. Emerituen hutsarte biologikoen ondorioz titularrik gabe gelditzen diren dominak izendatu berriei egotziko zaizkie hautaketa-dataren arabera. Artean, hautatuek domina berria jasoko dute. Euskaltzainen hutsarte biologikoak bere egutegi propioa ukanen du, besteekiko baterakidetasunik gerta ez dadin, osoko batzarrak erabakiko duenez. Azkenean, quoruma eta gehiengo nola antolatuko den azaldu du, betiere euskaltzain oso direnen eta bileretara etorririko euskaltzain emerituen kopurua zenbaturik. J. Haritschelharrek aurkeztu dituen zalantzei erantzunez, J. L. Lizundiak eta A. Urrutiak adibide eta argitasunak eman dituzte. Prozedura ontzat eman da. Era berean, bi euskaltzainen hutsarte aldarrikatutik gelditzen da.

5.2. Jose Antonio Arana Martijak bere liburutegia Euskaltzaindiari ematea erabaki du. Euskaltzainburuak J. A. Arana Marijak egindako gutun bat irakurri du, bere liburutegia Euskaltzaindiari ematea erabaki duela esanez. Eskerrak ematea erabaki da.

5.2. Gaizka Barandiaranen hilberri txostena: J. L. Lizundiak urgazle honen hilberri-txostena haren ezaguna den Jose Mari Velez de Mendizabal euskaltzain urgazleari eskatzea proposatu du. Ontzat eman da.

5.3. Euskal Kulturaren Kontseilurako ordezkaria izendatzea: Euskaltzaindiari eskatu zaion ordezkaritza horretarako Patxi Salaberri proposatu eta onartu da.

5.4. Dieten atxikipenak. Bizkaiko Foru Diputazioaren aginduekin bat, hemendik aurrera euskaltzainei dietengatik helaraziko zaizkien ordainketetan egin beharreko atxikipenak nolakoak izango diren azaldu dute zehazki A. Urrutiak eta J. J. Zearretak.

5.4. Hurrengo osoko batzarra. Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra Bilbon urrian 27an, goizean, egingo dela iragarri da. Arratsaldean ageriko ekitaldia izanen da Azkue Ikastolaren legezatzarean 40. urteurrena ospatzeko, berau, gaur Lauro Ikastola deitua, lehen ikastola legezkatua izan baitzen.

5.5. Euskaltzainen antzinakotasuna kontuan hartzea. P. Salaburuk ekitaldi publikoetan jartzen diren jarleku izendunak ipintzerakoan, euskaltzainen antzinakotasuna kontuan hartzea eskatu du. Ontzat eman da.

6. Azken ordukoak

6.1. Nafarroa oinez. Andres Iñigok aurtengo *Nafarroa oinez*-ekin batera egingo den ekitaldirako gonbita egin du, urriaren 6an, Beran, egingo den ageriko bilkurara.

6.2. P. Xarrittonen gogoeta-iradokizunak. P. Xarrittonek Euskaltzaindiaren egitekoez-eta euskaltzainburuari zenbait gogoeta bidaliko dizkiola esan du. A. Urrutiak begiramen osoz irakurriko dituela erantzun dio.

Bilera arratseko 8:50ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

AGERIKO BILKURA

Uxue, 2006-IX-29

Irailaren 29an, Uxueko pilotalekuan ageriko bilkura egin du Akademiak, goizeko 11:30etik 13:30era, Patxi Salaberri Zaratiegiren euskaltzain osoaren sarrera-hitzaldia gauzatzeko.

Bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Beñat Oihartzabal, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Bernardo Atxaga, Pierre Charriton, Jean-Louis Davant, Patxi Goenaga, Emile Larre, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Pello Salaburu, Patxi Salaberri, Ana Toledo, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide euskaltzain osoak.
- Pello Apezetxea ohorezko euskaltzaina.
- Euskaltzain urgazleak: Jose Antonio Aduriz, Sagrario Aleman, Xipri Arbelbide, Ricardo Badiola, Mikel Bujanda, Iñaki Camino, Jon Casenave, Patxi Galé, Sebastian García Trujillo, Pruden Gartzia, Joakin Gorrotxategi, Mikel Gorrotxategi, Patxi Iñigo, Iñaki Irazabalbeitia, Joseba Andoni Lakarra, Patziku Perurena, Pello Telleria eta Juan Jose Zearreta.
- Lutxi Alberdi, Gema Insausti eta Amaia Okariz Euskaltzaindiko langileak.
- Felix Mugurutza eta Iratxe Lasa batzordekideak

Ezin etorria adierazi du Karmele Rotaetxe ohorezko euskaltzainak eta Xabier Erdozia eta Patxi Uribarren urgazleek.

Ekitaldia, Maria Jesús Zoroza Uxueko alkatearen ongietorriarekin eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren agur-hitzekin hasi da. Euskaltzainburuak Patxi Salaberriren ezaugarri batzuk goraipatu ditu, hala nola, euskaltzaletasuna, aspalditik euskara galdu zuen herrialde bateko nafarra izanik; haren maila eta prestigio zientifikoa euskalgintzan, urte luzeetan ondu duena, batez ere onomastika arloan.

Jararian, Xabier Kintana idazkariak ekitaldiaren nondik norakoa azaldu du eta ondoren Ana Toledo eta Patxi Zabaleta euskaltzainek lagunduta, batzar aretora sartu da Patxi Salaberri *Uxueko izenak mintzagai* izeneko sarrera-hitzaldia emateko.

Patxi Salaberrik, ezer baino lehen, Patxi Ondarra zena izan du gogoan, haren apaltasuna eta euskaltzaletasuna nabarmenduz, eta baita ere euskal testu zaharretan egin

zuen ikerketa-lana. Ondoren, euskara galdua duen Uxueko euskara ezagutzeko, bertako toponimiara jo beharra azaldu du. Leku-izen ugari aipatu ditu hitzaldian zehar, *Uxue* herri izenetik beretik hasita: *Arbolaga*, *Barriozar*, *Altzunbidea*, *Astabidea*, *Beiremuga*, *Beraiz*, *Dorreberria*, *Errekararra*, *Iribarren*, *Gurutzegibela*, *Mendigorria*, *Muñukukua*, *Opelamendi*, *Soroandia*, *Zabala*... Euskara, garai batean, uxuetarren ahotan nagusi zebilen seinale, zalantzarik gabe.

Andres Iñigo Iturengo euskaltzainak erantzun dio Patxi Salaberriri. Gaurko ekitaldia adierazgarria dela esan du; batetik, Patxi Salaberri Erriberriko Merindadeko lehendabiziko euskaltzaina delako. Bestetik, Nafarroako Agintariek egina duten banaketan hain zuzen eremu ez euskaldunekoa delako Patxi Salaberri. Ondoren, arlo hauek aipatu ditu: Salaberriren ibilbide profesionala eta ikerketan –batez ere Onomastikanean– egin duen lana. Euskaltzain gazteena da eta lanean bere buruari eta gainerakoei asko eskatzen diena. Andres Iñigok ongiatorria eman dio Patxi Salaberriri eta Euskaltzaindian lanerako gonbita ere bai.

Hitzaldiak amaitzean, denak zutik jarri direlarik, euskaltzainburuak euskaltzain oso berriari dagozkion agiria eta diploma eman dizkio. Gero, banan-banan, euskaltzain guztiek zoriondu dute.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Bilbon, 2006ko urriaren 27an

Andres Urrutia, euskaltzainburua
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Adolfo Arejita,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Piarres Xarritton
Patxi Zabaleta
eta Mikel Zalbide euskaltzainak,

Pello Telleria idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Mikel Gorrotxategi eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaitan.

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Arejita, etorri bitartean, ahala J. L. Lizundiari; Miren Azkaratek, ahala P. Salabururi; Patxi Goenagak, etorri bitartean, ahala B. Oihartzabali; Joseba Irazuk, ahala A. Urrutiari.

Batzarra goizeko 10etan hasi da, egoitzako batzar gelan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea. Aurreko bilkuraren akta, J. L. Lizundiaren ohar batekin, ontzat eman da.

2. Hizkuntza gaiak

2.1. Onomastika «Arabako herri-izen-degia: 6. zerrenda (Añana eta Trebiñu)» onartzea. Henrike Knörrek *Zuia* izenaz egindako azken orduko oharra hurrengo baterako utzita, proposamena ontzat eman da.

2.2. Onomastika. «Espainiako Erresumako autonomia erkidegoen, probintzien eta probintzia hiriburuen izenak onartzea». Jose Luis Lizundiak, Jean Haritschelharrek egindako galderari erantzunez, exonimoen grafiari buruzko argitasunak eman ditu, toki horiekiko hurbiltasun geografikoa edo merkataritza eta historia aldetiko harremanak izan direnean horien izenen grafia ohiko euskal hitzen arabera egokitzea aspaldian onartu zela gogoratuz. P. Salaburuk adierazi du ez dakusala hain beharrezko erkidegoen izenak bertako aldaketan arabera aldatzen aritu beharra, hangoen ofizialtasuna gora behera, hizkuntza bakoitzak bere lehengo usadioak gorde ditzakeelako. Jose Luis Lizundiak, Patxi Zabaletak eta Mikel Gorrotxategik Estatu barruko erkidegoen forma ofiziala finkatu beharra azpimarratu dute, horiek itzultzaileentzat ezinbestekoak dira eta. Patxi Goenagak bere zalantzak azaldu ditu herrialde batzuekiko harreman-irizpideaz. Beñat Oihartzabalek eskualdeen arazo geografiko eta politikoa bereiztu beharra azpimarratu du. Txomin Peillen batzordearen irizpideekin bat dator. Patxi Salaberrik gogoratu du irizpidea duela hamaika urte onartu zuela Euskaltzaindiak. Andres Iñigok *Nafarroako Foru Erkidegoa*-ren ondoan, ohar gisa, *Nafarroako Foru Komunitatea* ere ontzat ematea proposatu du. Ontzat eman dira, bai oharra eta bai testu osoa ere.

2.3. Hiztegi Batua: «D» letrako zerrendari egindako oharra aztertu eta erabakitzea. Pello Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *droga-menpekotasun-etik edari-rainoko* hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.

3. Eskuarztekoak

- Euskaltzainburuak ohar batzuk egin ditu: lehenengo eta behin, batzarra eguerdira arte izango dela, arratsaldean ageriko bilkura egingo baita, R. M. Azkue ikastola legezatu zelako 40. urteurrena ospatzeko.
- Ondoren, Piarres Xarriton euskaltzainari zorionak eman dizkio, duela gutxi 85 urte bete dituelako. Pello Telleria idazkariordeari, berriz, doluminak adierazi dizkio, koinatua hil berri zaiolako.
- Literaturako lau sari nagusietako epaimahaikideak onartu ditu Zuzendaritzak, Literatura Ikerketa batzordeak proposatuak, eta berretsi egin dira:
 - Txomin Agirre sarian: Maria Jose Olaziregi, Ur Apalategi eta Iratxe Retolaza.
 - Toribio Altzaga sarian: Eugenio Arozena, Daniel Landart eta Patri Urkizu.
 - Felipe Arrese Beitia sarian: Mikel Lasa, Lourdes Otaegi, Jon Kortazar.
 - Mikel Zarate sarian: Adolfo Arejita, Antton Aramburu, Iñaki Aldekoa.
- Eibarko Udalak Juan San Martin euskaltzain zena herriko seme kutuna izendatzea erabaki duela adierazi du, eta azaroaren 17an haren jaioterrian egingo den ekitaldi publikora euskaltzain guztiak gonbidaturik daudela ere bai.
- Azkenik, Euskaltzaindiak hiru hitzarmen sinatu dituela jakinarazi du: Bizkaia Irratiarekin, *Berria* egunkaria argitaratzen duen Euskarazko Komunikazio Taldearekin, eta Labayru elkartearekin

4. Azken ordukoak

- Patxi Goenagak galdera egin du euskaltzain berriak hautatzeko moduz, hots, batera hiru hautagai aurkeztuko balira, horiekiko bozketak egiteko prozeduran gerta litezkeen zalantzak argitzeko. Jose Luis Lizundiak erantzun dio hori ezin dela bat-batean erabaki, baina arazo hori zuzendaritzan aztertu eta onartu ondoren, azaroko batzarrerako hautagaien aurkezpen eta bozketa-prozeduraren testua ekarriko dela.
- Jose Luis Lizundiak ekainera arteko batzar-dietak eta gastuen zerrendak banatu ditu, kudeatzaileak emanak.
- Ondarroako Udalak bi egitarau bidali dizkio Euskaltzaindiari Augustin Zubikarai euskaltzain ohorezkoa izandakoaren omenez antolatatu dituen Lore Jokoen barruan.

Batzarra 14:30ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

AGERIKO BILKURA

Bilbo, 2006-X-27

Urriaren 27an, Bilbon, Euskaltzaindiaren egoitzan, ageriko bilkura egin du Akademiak, arratsaldeko 17:00etatik 18:30era, R. M. Azkue ikastola legezatu zeneko 40. urteurrena dela eta.

Bildu dira:

- Andres Urrutia, euskaltzainburua; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Henrike Knörr, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua eta Adolfo Arejita, Patxi Goenaga, Patxi Salaberri, Ana Toledo eta Mikel Zalbide euskaltzain osoak.
- Xabier Gereño eta Karmele Rotaetxe ohorezko euskaltzainak.
- Euskaltzain urgazleak: Jose Antonio Aduriz, Pakita Arregi, Ricardo Badiola, Jose Ramon Etxebarria, Sebastian Garcia Trujillo, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Rosa Miren Pagola, Pello Telleria, Patxi Uribarren eta Juan Jose Zearreta. Ezin etorria adierazi dute Paula Casares eta Xabier Erdozia euskaltzain urgazleek.
- Amaia Okariz, Lutxi Alberdi eta Emilio Porrás Euskaltzaindiko langileak.
- Erramun Osa batzordekidea.

Xabier Kintana idazkariak eman dio hasiera ekitaldiari. Lehenik, Euskaltzaindiak goizean egin duen osoko batzarraren berri eman du, batez ere tratatu diren hizkuntza-gaiak aipatuz. Ondoren, mahaian daudenak aurkeztu ditu eta ekitaldian zehar kasuan kasuko hizlariari hitza eman dio. Hauek izan dira mahaian:

- Andres Urrutia Badiola, euskaltzainburua
- Ignacio Etxeberria Olañeta, *Lauro* ikastolako presidentea
- Jaime Martinez Martin, *Lauro* ikastolako zuzendaria
- Pedro Aranburu Aranburu, Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko presidentea

Andres Urrutia euskaltzainburuak, gaurkoa ospakizun eguna dela adierazi du, orain 40 urte R. M. Azkue ikastola legezatu zelako eta hor parte hartze zuzena Euskaltzaindiak izan zuelako. Gogora ekarri du Euskaltzaindia euskalgintzako ekimen ugariaren sortzaile izan dela, hala nola Alfabetatze Euskalduntze Koordinakundea (AEK), Udako Euskal Unibertsitatea (UEU), D Irakasle Titulua (gero EGA bihurtu dena), Bai Euskarari, Itzultzaile Eskola...

R. M. Azkue ikastola Lauro bihurtu

Ondoren, Lauro ikastolako ordezkariak hartu dute hitza, lehenik Ignacio Etxeberria Olañeta presidentea eta gero Jaime Martínez Martín zuzendariak. Martínez jaunak, bideo emanaldiaz baliatuz, orain Lauro ikastola bilakatu den ikastetxearen hasierako urratsen berri zehatza eman du. Izan zituen kokaleku ezberdinak zehaztu ditu eta orduko guraso, ikasle eta irakasle ugarien lekukotasunak ikusi eta entzun ahal izan dira.

Hasieran legez kanpo aritu ondoren, 1966an legezatu egin zen R. M. Azkue ikastola, gaur egun Lauro ikastola dena. Bi hizkuntzatan –gazteleraz ez ezik, euskaraz ere– irakasteko legezatu zen lehen ikastetxea izan zen, Estatu osoan. Legeztatze hori, Euskaltzaindiaren babesarekin lotu zen. Ikastolari babesa ematearen aldeko proposamena Euskaltzaindiaren batzarrean aurkeztu zuen Alfontso Irigoien idazkariak 1966ko urtarrilaren 28an, eta Euskaltzaindiak onartu egin zuen proposamena. Ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiko buruari ikastolaren aldeko agiria eskatu zion Euskaltzaindiak. Maiatzaren 25ean idatzi zion Madrileko Hezkuntza Ministerioi Lehen Hezkuntza Zuzendari Nagusiari ikastola legezatzeko arazuko eskabidea: «...en el cual se enseñará, además del idioma oficial, en lengua vasca...».

Handik aurrera bere bidea egin zuen ikastolak eta horretan dihardu gaur egun ere, Lauro ikastola izenarekin. Amaitzeko, Jaime Martínezek, Lauro ikastolak eta Euskaltzaindiak, batez ere hasieran, izan zuten harreman estua eta emankorra azaldu eta eskerkeru du. Ekitaldian zehar, Lauroko ikasle talde batek bi abesti kantatu ditu: Nikolas Ormaetxea «Orixe»k, *Euskaldunak* poemaren atariko «Zatozkida, goi-arnas» bertsoa eta Urkoren «Guk euskaraz, zuk zergatik ez?» abesti ezaguna.

Ikastolak eta Akademia: eskuz esku lankidetzan

Azkenik, Pedro Aranburu Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko presidentea hartu du hitza. XIX. mendetik hona, euskararen eta euskarazko irakaskuntzan egin diren ahaleginak azpimarratzeaz gain, Euskaltzaindiak urteotan zehar bete duen eginbidea ere gogora ekarri du.

Batetik, Euskaltzaindiak euskararen garapenean eta babesean egin dituen ekarpenak aitortu ditu: pertsona helduen alfabetatze eta euskalduntze mugimenduaren sorrera eta garapena, ikastolen zabalkundeari emandako laguntza eta Jagon Sailaren bidez hizkuntzaren alde eman dituen urratsak.

Bestetik, Ikastolek egin duten lana aipatu du Aranburu jaunak. Euskara batuaren bidea egiten hasi zenean ikastolak ondoan izan ditu Euskaltzaindiak. Izan ere, ikastola gehienek euskararen biziberritzea ahalbidetzeko aukera historikoa antzeman baitzuten, batasunerako bidea onartuz. Biek dute elkarren premia: Ikastolek Euskaltzaindia behar dute, baina baita Akademiak ere badu ikastolen beharra, irakaskuntzaren bidez hedatzen baitira neurri handi batean Euskaltzaindiaren lan akademikoaren emaitzak. Elkarlanerako deia eginez bukatu du bere hitzaldia Pedro Aranburu jaunak.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Bilbon, 2006ko azaroaren 24an

Andres Urrutia, euskaltzainburua
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Adolfo Arejita,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Patxi Salaberri,
Pello Salaburu,
Ana Toledo,
Piarres Xarritton
eta Mikel Zalbide euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose Zearreta kudeatzailea, Mikel Gorrotxategi eta Jose Antonio Aduriz, zegozkien gaietan.

ren Pilar Artza andereari Euskaltzaindiaren domina emango zaio. Arratsaldean X. Jagon Jardunaldiak izango dira.

3. Hizkuntza gaiak

3.1. Onomastika: Arabako herri-izendegia amaitzea. Irizpideak argitzeko, A. Iñigo, X. Kintana, J. Haritschelhar, P. Salaberri, P. Salaburu, M. Gorrotxategi, M. Zalbide, B. Oihartzabal, A. Arejita, J. L. Lizundia mintzatu ondoren, *Armiñón* eta *Lantarón* izenak era ofizial horretan uztea aho batez onartu da, euskaraz azentu grafikorik gabe erabiliko direla erantsirik.

3.2. Hiztegi Batua: «E» letrako zerrendari egindako oharrak aztertu eta erabakitzea. P. Salaburu batzordeburuaren zuzendaritzapean, *edarra*-tik *edukitzaile*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.

4. Esku artekoak

Euskaltzainburuak abenduko batzarra 22an Donostian izanen dela adierazi du, Baionako ordezkari batzordeak oraindik amaiturik ez dagoelako.

Era berean, banatzeko liburuaren zerrenda jakinarazi du: 1) *Euskaltzaindiaren 2005eko oroitidazkia*, 2) Azken 30 urteotan Euskaltzaindiak egindako adierazpenen bil-

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Arejita, etorri bitartean, ahala Jose Luis Lizundiari; Miren Azkaratek, ahala Patxi Goenagari; Patxi Goenagak, etorri bitartean, ahala Beñat Oihartzabali; Jose Iratzuk, ahala Andres Urrutiari, Henrike Knörrek, Andres Urrutiari; Patxi Zabaletak, ahala Andres Iñigori.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Euskaltzaindiaren Bilboko egoitzaren batzar gela, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurreko akta onartzea: aurreko bilkuraren akta, oharrak gabe, ontzat eman da.

2. Aurretiko oharrak. Euskaltzainburuak, bilduak agurtu ondoren, eguneko egitekoak azaldu ditu: Goizeko batzarra eguerdiko 14:00ra arte izango da. Ondo-

duma-liburua, arratsaldeko ekitaldian ematekoa: *Euskararen sustatzea. Euskaltzaindiaren adierazpenak (1976-2006)*, 3) Juan Carlos Gerraren *Ilustraciones Genealógicas de Garibay referentes a solares vascos* eta 4) Euskaltzaindiari buruzko informazio-triptikoa.

P. Xarritonek euskaltzainburuari galdera egin dio: ea Gabonetan ohorezko Euskaltzainik izendatuko ote den. A. Urrutiak zuzendaritzak laster erantzunen diola esan dio, horretarako proposamena eginez.

5. Euskaltzain osoak izateko hautagaiak. Euskaltzainburuak epe barruan helduriko kandidaturen berri eman du. Bi kandidatu izan dira. Lehena, 25. dominarako: Xarles Videgain jauna; J. Haritschelharrek, E. Larrek eta P. Xarritonek aurkeztua. Bigarrena, 26. dominarako: Andoni Sagarna jauna, A. Arejitak, J. Irazuk eta M. Zalbidek aurkeztua. Botazioa hurrengo batzarrean egingen da.

6. Pilar Artzaren omenaldia. Pilar Artza andreak erakundearen zerbitzuan, bulegoen garbitasuna egiten daramatzen hogeita bost urteak ospatzeko, Euskaltzaindiak gorazarre bat eskaini dio batzar gelan, bertan euskaltzain eta langile guztiak izanez. Haren pertsona, lana eta zintzotasuna goraipatu eta gero, euskaltzainburuak Akademiaren zilarrezko domina eman dio, oroigarri, bai eta lore sorta bat ere, bilduriko guztien txalo artean.

Batzarra 14:00etan amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Donostian, 2006ko abenduaren 22an

Andres Urrutia, euskaltzainburua,
Beñat Oihartzabal, euskaltzainburuordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
Jose Luis Lizundia, diruzaina,
Henrike Knörr, Iker sailburua
Andres Iñigo, Jagon sailburua,
Adolfo Arejita,
Jean-Louis Davant,
Patxi Goenaga,
Jean Haritschelhar,
Jose Irazu «Bernardo Atxaga»
Emile Larre,
Txomin Peillen,
Patxi Salaberri,
Ana Toledo,
Piarres Xarritton
eta Mikel Zalbide euskaltzainak,

Pello Telleria, idazkariordea, Juan Jose
Zearreta kudeatzailea eta Jose Antonio
Aduriz, zegozkien gaitan.

adierazi du. Lehenik Onomastika batzordearen lana aztertuko da; ondoren euskaltzain osoen hautaketa; horren hurrengo, Hiztegi Batuaz jarraiki eta, azkenean, esku artekoak ikusiko direla jakinarazi du. Horien ondoren, batzar areto hau utzi eta beste batera joango da, Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo duen F. Lardizabalen liburuaren aurkezpena.

1.2. Jean Haritschelhar saritua. Euskaltzainburuak, halaber, Algortako Bertsolari Eskolak *VII. Ahobi* Saria, bertsolaritzari buruzko doktorego-tesiak golaratzeko urtero emana, Jean Haritschelhar-i eman berri diola jakinarazi du, berorri zorionak adieraziz.

2. Aurreko akta onartzea: aurreko bilkuraren akta, oharrik gabe, ontzat eman da.

3. Hizkuntza Gaiak

3.1. Onomastika: Nafarroako Izendegia. Plangintza eta prozedura.

Andres Iñigok izendegi hori gauzatzeko Onomastika Batzordeak prestatu duen plangintza aurkeztu du, paperean eskaini diren aurreikuspenen arabera. Lana nola burutuko den azaldu du.

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Arejita (etorri bitartean), ahala Jose Luis Lizundiari; Miren Azkaratek, ahala Jean Haritschelharri; Patxi Goenagak (etorri bitartean), ahala Beñat Oihartzabali;

Pello Salaburuk, ahala Jean Haritschelharri; Ibon Sarasolak, ahala Beñat Oihartzabali; Patxi Zabaletak, ahala, Andres Iñigori.

Batzarra goizeko 10etan hasi da Gipuzkoako Foru Aldundiaren batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak eta bertan direla.

1. Aurretiko oharra

1.1. Gai-ordena. Euskaltzainburuak, bilduak agurtu ondoren, eguneko egitekoak azaldu ditu. Goizeko batzarra eguerdiko 12:15era arte izango dela

3.2. Hiztegi Batua: «E» letrako zerrendari egindako oharra aztertu eta erabakitzea.

Pello Salaburu batzordeburuaren ezin etorriaz, Jose Antonio Adurizen zuzendaritzapean, *edutezko-tik egikune*-rainoko hitzak ikusi, eztabaidatu eta onartu dira.

4. Hautagaiak aukeratzea

Hasieran eztabaida izan da, Jean Haritschelharrek eragina, *quorum*-aren arabera gehiengoaren kopurua erabakitzeko. Ondorioz, 21 bozdun direnez, gehiengoa 11an jarri da. Hemendik aurrera era honetako zalantzarik berriz ere izan ez dadin, gehiengoa nolakoa izanen den barne arauetan jartzea erabaki da. Jose Luis Lizundia gelditu da arduradun testua prestatzeko.

25. zenbakirako hautagaitzan, Xarles Videgain jaunaren kandidaturaren botazioa egin da. Lehenengoan, Videgainek bere aldeko 10 boto eta 11 zuri. Bigarrenean, Videgainek 10 boto eta 11 zuri. Hirugarrenean, Videgainek 10 boto eta 11 zuri. Hortaz, gehiengorik ezaz, 25. zenbakiko hutsartea berriz ere aldarrikatzen da, kandidatuak urtarril eta otsailean aurkezteko.

26. zenbakirako hautagaitzan, Andoni Sagarna jaunaren kandidaturaren botazioa egin da. Lehenengoan Andoni Sagarnak 20 boto izan ditu eta boto zuri bat. Beraz, Andoni Sagarna Izaguirre euskaltzain hautatu dela aldarrikatzen da.

* * *

5. Esku artekoak:

5.1. 2007ko batzar egutegia. Pello Telleriak Euskaltzaindiaren 2007ko urtarril-ekain arteko batzar-egutegia azaldu du. Bilerak noiz, non eta zergatik egingo diren xeheki adierazi du, ospakizun nabarmenenak azpimarratuz. Bi ohar egin dira: Jose Iratzuk, martxoan dituen konpromisoen berri emango duela adierazi du, sarrera-hitzaldiaren datan eraginik duten ala ez ikusteko. Bestetik, Piarres Xarrittonek, Gaizka Barandiaranen hil-txostena Donostian egin ote litekeen galdetu du, haren senideak Donostian bizi baitira. Eskari hori Zuzendaritzan aztertuko dela erantzun dio buruak. Berretsi egin da Zuzendaritzak onartua zuen eta gaurko osoko batzarrean aurkeztu den egutegia, 2007ko urtarril-ekain artekoa.

5.2. Hitzarmenak. Iruñeko Udalarekiko hitzarmena sinatu dela jakinarazi du A. Urrutiak, eta hortik 6.000 euro jasoko direla. Xarrittonek galdetu du ea horrelako hitzarmenak edozein erakunderekin egin behar diren, horren euskararekiko politika kontuan hartzeke. Zuzendaritzaren zentralismoa salatu du, eta Euskaltzaindiarentzat konfederazioa eskatu du. A. Urrutiak erantzun dio dioenarekin kontsekuente izateko, konfederazio molde hori, antolakuntzaren ikuspegitik ezinezkoa baita gaur egun. Mikel Zalbidetik bere desadostasuna agertu dio Piarres Xarrittoni.

Era berean, Zuzendaritzak Gasteizko Udalarekiko hitzarmen testua onartu duela adierazi da.

6. Euskaltzainei banaturikoak. Bukaeran ondoko liburu eta material hauek banatu dira:

- Juan San Martinen omenaldiko film-disketea, Eibarko Udalak prestarazi eta argitaratua.
- 2005eko Azkue saria jasoriko *Narrazioak eta olerkiak* argitalpena.
- Labayru Ikastegiak, Markina-Xemeineko Udalaren laguntzarekin argitaratu duen *The basque dialect of Marquina* deritzon liburua banatu da; lan hori William Rollo eskoziarrak egina da eta Jabier Kaltzakortak prestatu du berrargitalpena. Adolfo Arejitak laburki aurkeztu eta azaldu du liburu horren nondik-norakoa. Markinako Alkateari eskerrak emango zaizkio euskaltzaintzako liburu horren ale bana bidaltzeagatik.

Batzarra 12:25ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

ESPAINIAKO ERRESUMAKO AUTONOMIA-ERKIDEGOEN, PROBINTZIEN ETA PROBINTZIA-HIRIBURUEN IZENAK¹

(Arau zuzendua eta eguneratua)

ATARIKOA

Hamaika urte joan dira Euskaltzaindiak onomastika alorreko lehenengo arauak eman zituenetik (32. Araua, Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak, 1995eko apirilaren 28koa; eta 36. Araua, 1995eko ekainaren 30ekoa, Frantziako Errepublikako eskualde izenak). Hori dela eta, Akademiak egoki ikusi du arauak berraztertzea. 1995eko apirilaren 28an onartutako 32. Araua, Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak, aztertu da oraingo honetan.

Arau horiek eman zirenetik, aldaketa batzuk izan dira izen ofizialetan (adibidez, 1997an *Illes Balears* izena hartu zuen ordura arte *Islas Baleares* izena zuen probintziak). Era berean, 32. Araua argitaratuz geroztik emandako arau berriek aldaketa batzuk ekarri dituzte izendapenetan (adibidez, «elkarte autonomoak» eta «komunitateak» aipatzen dira arau hartan, baina 45. Arauak –*Gure egitura politiko batzuen euskal izenez– erkidego* hitza hobetsi zuen komunitate politikoa adierazteko). Izen batzuk ere falta ziren, eta oraingo honetan erantsi egin dira, osatzearren. Azkenik, zerrendak aurkezteko era ere aldatu da, erabilgarriagoa izan dadin

* * *

Espainiako Erresumaren administrazio-banaketa hiru atalez osatua dago:

1. Autonomia-erkidegoak (gaztelaniaz, *comunidades autónomas*).
2. Autonomia-hiriak edo hiri autonomoak (gaztelaniaz, *ciudades autónomas*).
3. Probintziak.

* * *

1. AUTONOMIA-ERKIDEGOAK

1.1. Autonomia-erkidegoak euskal izenaren hurrenkeran

Izen ofizialak ematen dira, ohiko izendapena edo izendapen laburtua ere ematen da.

Erkidegoaren euskal izena	Erkidegoaren izen ofiziala
Andaluzia (Andaluziako Autonomia Erkidegoa)	Andalucía (Comunidad Autónoma de Andalucía)
Aragoi (Aragoiko Autonomia Erkidegoa)	Aragón (Comunidad Autónoma de Aragón)
Asturiasko Printzerria ² (Asturiasko Printzerriko Autonomia Erkidegoa)	Principado de Asturias (Comunidad Autónoma del Principado de Asturias)

¹ Euskaltzaindiak, Bilbon, 1995eko apirilaren 28an onarturiko testuaren ordez, beste berri hau onartu du Bilbon, 2006ko urriaren 27an.

² Izen historikoak *Asturietakoko Printzerria* eta *Asturietakoko Printzea*.

Erkidegoaren euskal izena	Erkidegoaren izen ofiziala
Asturias Balear Uharteak	Asturias ³ Illes Balears
(Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa) Balear Uharteak / Balearrak	(Comunidad Autónoma de las Illes Balears ⁴) Islas Baleares / Balears
Errioxa (Errioxako Autonomia Erkidegoa)	La Rioja (Comunidad Autónoma de La Rioja)
Euskal Autonomia Erkidegoa	Comunidad Autónoma del País Vasco País Vasco / Euskadi
Extremadura (Extremadurako Autonomia Erkidegoa)	Extremadura (Comunidad Autónoma de Extremadura)
Galizia (Galiziako Autonomia Erkidegoa)	Galicia (Comunidad Autónoma de Galicia ⁵)
Gaztela eta Leon (Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoa)	Castilla y León (Comunidad Autónoma de Castilla y León)
Gaztela-Mantxa (Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoa)	Castilla-La Mancha (Comunidad Autónoma de Castilla-La Mancha)
Kanariak (Kanarietako Autonomia Erkidegoa)	Canarias (Comunidad Autónoma de Canarias)
Kantabria (Kantabriako Autonomia Erkidegoa)	Cantabria (Comunidad Autónoma de Cantabria)
Katalunia (Kataluniako Autonomia Erkidegoa)	Cataluña (Comunidad Autónoma de Cataluña ⁶)
Madrilgo Erkidegoa (Madrilgo Autonomia Erkidegoa)	Comunidad de Madrid (Comunidad Autónoma de Madrid)
Murtziako Eskualdea (Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoa) Murcia	Región de Murcia (Comunidad Autónoma de la Región de Murcia) Murcia
Nafarroako Foru Erkidegoa ⁷ Nafarroa	Comunidad Foral de Navarra Navarra
Valentziako Erkidegoa	Comunitat Valenciana ⁸

1.2. Autonomia-erkidegoak izen ofizialaren hurrenkeran

Izen ofizialak ematen dira, ohiko izendapena edo izendapen laburtua ere ematen da.

Erkidegoaren izen ofiziala	Erkidegoaren euskal izena
Andalucía (Comunidad Autónoma de Andalucía)	Andaluzia (Andaluziako Autonomia Erkidegoa)
Aragón (Comunidad Autónoma de Aragón)	Aragoi (Aragoiko Autonomia Erkidegoa)

³ Asturias (babez), *Principáu d'Asturies* edo *Asturies*.

⁴ Katalanez, *Comunitat Autònoma de les Illes Balears*, *Illes Balears* edo *Balears*. Izen ofizial bakarra katalanezkoa izanagatik, gaztelaniazko lehengo izena erabili ohi da oraindik gaztelaniaz: *Islas Baleares* edo *Baleares*.

⁵ Galegoz, *Comunidade Autónoma de Galicia* edo *Galiza / Galiçia*.

⁶ Katalanez, *Comunitat Autònoma de Catalunya* edo *Catalunya*.

⁷ *Nafarroako Foru Komunitatea* izendapena ere erabili daiteke.

⁸ Izen ofizial bakarra katalanezkoa («valentziera»zkoa, autonomia-erkidego horretan erabiltzen den izendapen ofizialaren arabera) izanagatik, gaztelaniazko izena erabili ohi da oraindik gaztelaniaz: *Comunidad Valenciana*.

Erkidegoaren izen ofiziala	Erkidegoaren euskal izena
Canarias (Comunidad Autónoma de Canarias)	Kanariak (Kanarietako Autonomia Erkidegoa)
Cantabria (Comunidad Autónoma de Cantabria)	Kantabria (Kantabriako Autonomia Erkidegoa)
Castilla y León (Comunidad Autónoma de Castilla y León)	Gaztela eta Leon (Gaztela eta Leongo Autonomia Erkidegoa)
Castilla-La Mancha (Comunidad Autónoma de Castilla-La Mancha)	Gaztela-Mantxa (Gaztela-Mantxako Autonomia Erkidegoa)
Cataluña (Comunidad Autónoma de Cataluña ⁹)	Katalunia (Kataluniako Autonomia Erkidegoa)
Comunidad Autónoma del País Vasco País Vasco / Euskadi	Euskal Autonomia Erkidegoa
Comunidad de Madrid (Comunidad Autónoma de Madrid)	Madrilgo Erkidegoa (Madrilgo Autonomia Erkidegoa)
Comunidad Foral de Navarra Navarra	Nafarroako Foru Erkidegoa ¹⁰ Nafarroa
Comunitat Valenciana ¹¹	Valentziako Erkidegoa
Extremadura (Comunidad Autónoma de Extremadura)	Extremadura (Extremadurako Autonomia Erkidegoa)
Galicia (Comunidad Autónoma de Galicia ¹²)	Galizia (Galiziako Autonomia Erkidegoa)
Illes Balears (Comunidad Autónoma de las Illes Balears ¹³) Islas Baleares / Balears	Balear Uharteak (Balear Uharteetako Autonomia Erkidegoa) Balear Uharteak / Balearrak
La Rioja (Comunidad Autónoma de La Rioja)	Errioxa (Errioxako Autonomia Erkidegoa)
Principado de Asturias (Comunidad Autónoma del Principado de Asturias) Asturias ¹⁴	Asturiasko Printzerria ¹⁵ (Asturiasko Printzerriko Autonomia Erkidegoa) Asturias
Región de Murcia (Comunidad Autónoma de la Región de Murcia) Murcia	Murtziako Eskualdea (Murtziako Eskualdeko Autonomia Erkidegoa) Murtzia

⁹ Katalanez, *Comunitat Autònoma de Catalunya* edo *Catalunya*.

¹⁰ *Nafarroako Foru Komunitatea* izendapena ere erabili daiteke.

¹¹ Izen ofizial bakarra katalanezkoa («valentziera»zkoa, autonomia-erkidego horretan erabiltzen den izendapen ofizialaren arabera) izanagatik, gaztelaniazko izena erabili ohi da oraindik gaztelaniaz: *Comunidad Valenciana*.

¹² Galegoz, *Comunidade Autónoma de Galicia* edo *Galtza / Galicia*.

¹³ Katalanez, *Comunitat Autònoma de les Illes Balears*, *Illes Balears* edo *Balears*. Izen ofizial bakarra katalanezkoa izanagatik, gaztelaniazko lehenengo izena erabili ohi da oraindik gaztelaniaz: *Islas Baleares* edo *Baleares*.

¹⁴ Asturieraz (babez), *Principáu d' Asturias* edo *Asturies*.

¹⁵ Izen historikoak *Asturiatoko Printzerria* eta *Asturiatoko Printzea*.

1.3. Autonomia-erkidegoen datu osagarriak euskal izenaren hurrenkeran

Erkidegoaren euskal izena	Erkidegoaren izen ofiziala	Erkidego-heriburuaren izen ofiziala	Erkidego-heriburuaren euskal izena	Erkidegoko probintzien izen ofiziala	Erkidegoko probintzien euskal izena
Andaluzia	Andalucía	Sevilla	Sevilla ¹⁶	Almería Cádiz Córdoba Granada Huelva Jaén Málaga Sevilla	Almería Cádiz Kordoba Granada Huelva Jaén Málaga Sevilla
Aragoi	Aragón	Zaragoza	Zaragoza	Huesca ¹⁷ Teruel Zaragoza	Huesca Teruel Zaragoza
Asturiasko Printzerria	Principado de Asturias	Oviedo ¹⁸	Oviedo	Asturias	Asturias
Balear Uharteak	Illes Balears	Palma de Mallorca	Palma de Mallorca	Illes Balears	Balear Uharteak
Errioxa	La Rioja	Logroño	Logroño	La Rioja	Errioxa
Euskal Autonomia Erkidegoa	Comunidad Autónoma del País Vasco	Vitoria-Gasteiz	Gasteiz	Álava/Araba ¹⁹ Bizkaia Gipuzkoa	Araba Bizkaia Gipuzkoa
Extremadura	Extremadura	Mérida	Mérida	Badajoz Cáceres	Badajoz Cáceres
Galizia	Galicia	Santiago de Compostela	Santiago de Compostela ²⁰	A Coruña Lugo Ourense Pontevedra	Coruña Lugo Ourense Pontevedra
Gaztela eta Leon	Castilla y León	Valladolid ²¹	Valladolid	Ávila Burgos León Palencia Salamanca Segovia Soria Valladolid Zamora	Ávila Burgos León Palentzia Salamanca Segovia Soria Valladolid Zamora
Gaztela-Mantxa	Castilla-La Mancha	Toledo	Toledo	Albacete Ciudad Real Cuenca Guadalajara Toledo	Albacete Ciudad Real Cuenca Guadalajara Toledo
Kanariak	Canarias	Santa Cruz de Tenerife Las Palmas de Gran Canaria ²²	Santa Cruz de Tenerife Las Palmas de Gran Canaria	Las Palmas de Gran Canaria Santa Cruz de Tenerife	Las Palmas de Gran Canaria Santa Cruz de Tenerife

¹⁶ Euskarazko izen historikoa *Sibilia*.

¹⁷ Izen historikoa *Oska*.

¹⁸ Asturieraz (babez), *Uviéu*.

¹⁹ Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek probintziaren izen ofizialak *Álava / Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa* direla onartu bazuten ere, probintziaren izendapen ofizialaren aldaketa gauzatzeko, Espainiako Gortek onartu behar dituzte. Beraz, izendapen ofizialaren aldaketak ez dira oraindik gauzatu Estatuko legean.

²⁰ Euskarazko izen historikoa *Compostelako Donejakue*.

²¹ Autonomia-estatutuak ez du hiriburu ofizialik izendatzen. 1987tik, legez, Erkidegoko erakunde ofizialen egoitza Valladolid hirian dago. ²² Erkidegoaren hiriburutzat bi hiriei dagokie. Autonomia-erkidegoko lehendakariaren egoitza txandakatu egiten da legegintzalditik legegintzaldira.

Erkidegoaren euskal izena	Erkidegoaren izen ofiziala	Erkidego- hiriburuaren izen ofiziala	Erkidego- hiriburuaren euskal izena	Erkidegoko probintzien izen ofiziala	Erkidegoko probintzien euskal izena
Kantabria	Cantabria	Santander	Santander ²³	Cantabria	Kantabria
Katalunia	Cataluña	Barcelona	Bartzelona	Barcelona Girona Lleida Tarragona	Bartzelona Girona Lleida Tarragona
Madrilgo Erkidegoa	Comunidad de Madrid	Madrid	Madril	Madrid	Madril
Murtziako Eskualdea	Región de Murcia	Murcia	Murtzia	Murcia	Murtzia
Nafarroako Foru Erkidegoa ²⁴	Comunidad Foral de Navarra	Pamplona/Iruña	Iruña	Navarra	Nafarroa
Valentziako Erkidegoa	Comunitat Valenciana	Valencia	Valentzia	Alacant / Alicante Castelló / Castellón València / Valencia	Alacant Castelló Valentzia

1.4. Autonomia-erkidegoen datu osagarriak izen ofizialaren hurrenkeran

Erkidegoaren izen ofiziala	Erkidegoaren euskal izena	Erkidego- hiriburuaren izen ofiziala	Erkidego- hiriburuaren euskal izena	Erkidegoko probintzien izen ofiziala	Erkidegoko probintzien euskal izena
Andalucía	Andaluzia	Sevilla ²⁵	Sevilla	Almería Cádiz Córdoba Granada Huelva Jaén Málaga Sevilla	Almería Cádiz Kordoba Granada Huelva Jaén Málaga Sevilla
Aragón	Aragoi	Zaragoza	Zaragoza	Huesca ²⁶ Teruel Zaragoza	Huesca Teruel Zaragoza
Canarias	Kanariak	Santa Cruz de Tenerife Las Palmas de Gran Canaria ²⁷	Santa Cruz de Tenerife Las Palmas de Gran Canaria	Las Palmas de Gran Canaria Santa Cruz de Tenerife	Las Palmas de Gran Canaria Santa Cruz de Tenerife
Cantabria	Kantabria	Santander	Santander ²⁸	Cantabria	Kantabria
Castilla y León	Gaztela eta Leon	Valladolid ²⁹	Valladolid	Ávila Burgos León Palencia Salamanca Segovia Soria Valladolid Zamora	Ávila Burgos León Palentzia Salamanca Segovia Soria Valladolid Zamora

²³ Euskarazko izen historikoa *Sanandere*.

²⁴ *Nafarroako Foru Komunitatea* izendapena ere erabil daiteke.

²⁵ Euskarazko izen historikoa *Sibilla*.

²⁶ Izen historikoa *Oska*.

²⁷ Erkidegoaren hiriburutza bi hiriei dagokie. Autonomia-erkidegoko lehendakariaren egoitza txandakatu egiten da legegintzalditik legegintzaldira.

²⁸ Euskarazko izen historikoa *Sanandere*.

²⁹ Autonomia-estatutuak ez du hiriburu ofizialik izendatzen. 1987tik, legez, Erkidegoko erakunde ofizialen egoitza Valladolid hirian dago.

Erkidegoaren izen ofiziala	Erkidegoaren euskal izena	Erkidego-hiriburuaren izen ofiziala	Erkidego-hiriburuaren euskal izena	Erkidegoko probintzien izen ofiziala	Erkidegoko probintzien euskal izena
Castilla-La Mancha	Gaztela-Mantxa	Toledo	Toledo	Albacete Ciudad Real Cuenca Guadalajara Toledo	Albacete Ciudad Real Cuenca Guadalajara Toledo
Cataluña	Katalunia	Barcelona	Bartzelona	Barcelona Girona Lleida Tarragona	Bartzelona Girona Lleida Tarragona
Comunidad Autónoma del País Vasco	Euskal Autonomia Erkidegoa	Vitoria-Gasteiz	Gasteiz	Álava/Araba ³⁰ Bizkaia Gipuzkoa	Araba Bizkaia Gipuzkoa
Comunidad de Madrid	Madrilgo Erkidegoa	Madrid	Madril	Madrid	Madril
Comunidad Foral de Navarra	Nafarroako Foru Erkidegoa ³¹	Pamplona/Iruña	Iruña	Navarra	Nafarroa
Comunitat Valenciana	Valentziako Erkidegoa	Valencia	Valentzia	Alacant/Alicante Castelló/Castellón València/Valencia	Alacant Castelló Valentzia
Extremadura	Extremadura	Mérida	Mérida	Badajoz Cáceres	Badajoz Cáceres
Galicia	Galizia	Santiago de Compostela ³²	Santiago de Compostela	A Coruña Lugo Ourense Pontevedra	Coruña Lugo Ourense Pontevedra
Illes Balears	Balear Uharteak	Palma de Mallorca	Palma de Mallorca	Illes Balears	Balear Uharteak
La Rioja	Errioxa	Logroño	Logroño	La Rioja	Errioxa
Principado de Asturias	Asturiasko Printzerria	Oviedo ³³	Oviedo	Asturias	Asturias
Región de Murcia	Murtziako Eskualdea	Murcia	Murtzia	Murcia	Murtzia

2. HIRI AUTONOMOAK

Hiri autonomoaren euskal izena	Hiri autonomoaren izen ofiziala	Hiriburuaren izen ofiziala	Hiriburuaren euskal izena
Ceutako Hiri Autonomoa	Ciudad Autónoma de Ceuta	Ceuta	Ceuta
Meliillako Hiri Autonomoa	Ciudad Autónoma de Melilla	Melilla	Melilla

³⁰ Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek probintziaren izen ofizialak *Álava / Araba, Bizkaia* eta *Gipuzkoa* direla onartu bazuten ere, probintziaren izendapen ofizialaren aldaketa gauzatzeko, Espainiako Gortek onartu behar dituzte. Beraz, izendapen ofizialaren aldaketak ez dira oraindik gauzatu Estatuak legean.

³¹ *Nafarroako Foru Komunitatea* izendapena ere erabil daiteke.

³² Euskarazko izen historikoa *Compostelako Donejakue*.

³³ Asturieraz (bablez), *Uviéu*.

3. PROBINTZIAK

3.1. Probintziak euskal izenaren hurrenkeran

Probintziaren euskal izena	Probintziaren izen ofiziala	Hiriburuaren euskal izena	Hiriburuaren izen ofiziala	Autonomia-erkidegoa
Alacant	Alacant/Alicante	Alacant	Alacant/Alicante	Valentziako Erkidegoa
Albacete	Albacete	Albacete	Albacete	Gaztela-Mantxa
Almería	Almería	Almería	Almería	Andaluzia
Araba	Álava/Araba	Gasteiz	Vitoria-Gasteiz	Euskal Autonomia Erkidegoa
Asturias	Asturias ³⁴	Oviedo	Oviedo ³⁵	Asturias
Ávila	Ávila	Ávila	Ávila	Gaztela eta Leon
Badajoz	Badajoz	Badajoz	Badajoz	Extremadura
Balear Uharteak	Illes Balears ³⁶	Palma	Palma de Mallorca	Balear Uharteak
Bartzelona	Barcelona	Bartzelona	Barcelona	Katalunia
Bizkaia	Bizkaia ³⁷	Bilbo	Bilbao	Euskal Autonomia Erkidegoa
Burgos	Burgos	Burgos	Burgos	Gaztela eta Leon
Cáceres	Cáceres	Cáceres	Cáceres	Extremadura
Cádiz	Cádiz	Cádiz	Cádiz	Andaluzia
Castelló	Castelló/Castellón	Castelló de la Plana	Castelló de la Plana / Castellón de la Plana	Valentziako Erkidegoa
Ciudad Real	Ciudad Real	Ciudad Real	Ciudad Real	Gaztela-Mantxa
Coruña	A Coruña ³⁸	Coruña	A Coruña	Galizia
Cuenca	Cuenca	Cuenca	Cuenca	Gaztela-Mantxa
Errioxa	La Rioja	Logroño	Logroño	Errioxa
Gipuzkoa	Gipuzkoa ³⁹	Donostia	Donostia / San Sebastián	Euskal Autonomia Erkidegoa
Girona	Girona ⁴⁰	Girona	Girona	Katalunia
Granada	Granada	Granada	Granada	Andaluzia
Guadalajara	Guadalajara	Guadalajara	Guadalajara	Gaztela-Mantxa
Huelva	Huelva	Huelva	Huelva	Andaluzia
Huesca ⁴¹	Huesca	Huesca	Huesca	Aragoi
Jaén	Jaén	Jaén	Jaén	Andaluzia
Kantabria	Cantabria	Santander	Santander	Kantabria
Kordoba	Córdoba	Kordoba	Córdoba	Andaluzia

³⁴ Asturieraz (babez), *Asturies*.

³⁵ Asturieraz (babez), *Uviéu*.

³⁶ Izen ofizial bakarra katalanezkoa izan arren, batzuetan gaztelaniazko lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Islas Balears*.

³⁷ Bizkaiko Batzar Nagusiek probintziaren izen ofiziala *Bizkaia* dela onartu bazuten ere (12/86 Foru Araua), probintziaren izendapen ofizialaren aldaketa gauzatzeko, Espainiako Gorteek onartu behar dute. Beraz, izendapen ofizialaren aldaketa ez da oraindik gauzatu Estatuko legean.

³⁸ Izen ofizial bakarra galegozkoa izan arren, batzuetan gaztelaniazko lehengo izena erabiltzen da oraindik: *La Coruña*.

³⁹ Gipuzkoako Batzar Nagusiek probintziaren izen ofiziala Gipuzkoa dela onartu bazuten ere (161/90 Foru Araua), probintziaren izendapen ofizialaren aldaketa gauzatzeko, Espainiako Gorteek onartu behar dute. Beraz, izendapen ofizialaren aldaketa ez da oraindik gauzatu Estatuko legean.

⁴⁰ Izen ofizial bakarra katalanezkoa izan arren, batzuetan gaztelaniazko lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Gerona*.

⁴¹ Izen historikoa *Oska*.

Probintziaren euskal izena	Probintziaren izen ofiziala	Hiriburuaren euskal izena	Hiriburuaren izen ofiziala	Autonomia-erkidegoa
Las Palmas	Las Palmas	Las Palmas Kanaria Handikoa	Las Palmas de Gran Canaria	Kanariak
León	León	León	León	Gaztela eta Leon
Lleida	Lleida ⁴²	Lleida	Lleida	Katalunia
Lugo	Lugo	Lugo	Lugo	Galizia
Madril	Madrid	Madril	Madrid	Madrilgo Erkidegoa
Málaga	Málaga	Málaga	Málaga	Andaluzia
Murtzia	Murcia	Murtzia	Murcia	Murtziako Eskualdea
Nafarroa	Navarra	Iruñea	Pamplona / Iruña	Nafarroa
Ourense	Ourense ⁴³	Ourense	Ourense	Galizia
Palentzia	Palencia	Palentzia	Palencia	Gaztela eta Leon
Pontevedra	Pontevedra	Pontevedra	Pontevedra	Galizia
Salamanca	Salamanca	Salamanca	Salamanca	Gaztela eta Leon
Santa Cruz Tenerifekoa	Santa Cruz de Tenerife	Santa Cruz Tenerifekoa	Santa Cruz de Tenerife	Kanariak
Segovia	Segovia	Segovia	Segovia	Gaztela eta Leon
Sevilla ⁴⁴	Sevilla	Sevilla	Sevilla	Andaluzia
Soria	Soria	Soria	Soria	Gaztela eta Leon
Tarragona	Tarragona	Tarragona	Tarragona	Katalunia
Teruel	Teruel	Teruel	Teruel	Aragoi
Toledo	Toledo	Toledo	Toledo	Gaztela-Mantxa
Valentzia	València/Valencia	Valentzia	València/Valencia	Valentziako Erkidegoa
Valladolid	Valladolid	Valladolid	Valladolid	Gaztela eta Leon
Zamora	Zamora	Zamora	Zamora	Gaztela eta Leon
Zaragoza	Zaragoza	Zaragoza	Zaragoza	Aragoi

3.2. Probintziak izen ofizialaren hurrenkeran

Probintziaren izen ofiziala	Probintziaren euskal izena	Hiriburuaren izen ofiziala	Hiriburuaren euskal izena	Autonomia-erkidegoa
A Coruña ⁴⁵	Coruña	A Coruña	Coruña	Galizia
Alacant/Alicante	Alacant	Alacant/Alicante	Alacant	Valentziako Erkidegoa
Álava/Araba	Araba	Vitoria-Gasteiz	Gasteiz	Euskal Autonomia Erkidegoa
Albacete	Albacete	Albacete	Albacete	Gaztela-Mantxa
Almería	Almería	Almería	Almería	Andaluzia
Asturias ⁴⁶	Asturias	Oviedo ⁴⁷	Oviedo	Asturias

⁴² Izen ofizial bakarra katalanezkoa izan arren, batzuetan gaztelaniazko lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Lérida*.

⁴³ Izen ofizial bakarra galegozkoa izan arren, batzuetan gaztelaniazko lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Orense*.

⁴⁴ Euskarazko izen historikoa *Sibilla*.

⁴⁵ Izen ofizial bakarra galegozkoa izan arren, batzuetan gaztelaniazko lehengo izena erabiltzen da oraindik: *La Coruña*

⁴⁶ Asturieraz (babez), *Asturies*.

⁴⁷ Asturieraz (babez), *Uviéu*.

Probintziaren izen ofiziala	Probintziaren euskal izena	Hiriburuaren izen ofiziala	Hiriburuaren euskal izena	Autonomia-erkidegoa
Ávila	Ávila	Ávila	Ávila	Gaztela eta Leon
Badajoz	Badajoz	Badajoz	Badajoz	Extremadura
Barcelona	Bartzelona	Barcelona	Bartzelona	Katalunia
Bizkaia ⁴⁸	Bizkaia	Bilbao	Bilbo	Euskal Autonomia Erkidegoa
Burgos	Burgos	Burgos	Burgos	Gaztela eta Leon
Cáceres	Cáceres	Cáceres	Cáceres	Extremadura
Cádiz	Cádiz	Cádiz	Cádiz	Andaluzia
Cantabria	Kantabria	Santander	Santander	Kantabria
Castelló/Castellón	Castelló	Castelló de la Plana / Castellón de la Plana	Castelló de la Plana	Valentziako Erkidegoa
Ciudad Real	Ciudad Real	Ciudad Real	Ciudad Real	Gaztela-Mantxa
Córdoba	Kordoba	Córdoba	Kordoba	Andaluzia
Cuenca	Cuenca	Cuenca	Cuenca	Gaztela-Mantxa
Gipuzkoa ⁴⁹	Gipuzkoa	Donostia / San Sebastián	Donostia	Euskal Autonomia Erkidegoa
Girona ⁵⁰	Girona	Girona	Girona	Katalunia
Granada	Granada	Granada	Granada	Andaluzia
Guadalajara	Guadalajara	Guadalajara	Guadalajara	Gaztela-Mantxa
Huelva	Huelva	Huelva	Huelva	Andaluzia
Huesca	Huesca ⁵¹	Huesca	Huesca	Aragoi
Illes Balears ⁵²	Balear Uharteak	Palma de Mallorca	Palma	Balear Uharteak
Jaén	Jaén	Jaén	Jaén	Andaluzia
La Rioja	Errioxa	Logroño	Logroño	Errioxa
Las Palmas	Las Palmas	Las Palmas de Gran Canaria	Las Palmas Canaria Handikoa	Kanariak
León	León	León	León	Gaztela eta Leon
Lleida ⁵³	Lleida	Lleida	Lleida	Katalunia
Lugo	Lugo	Lugo	Lugo	Galizia
Madrid	Madril	Madrid	Madril	Madrilgo Erkidegoa
Málaga	Málaga	Málaga	Málaga	Andaluzia
Murcia	Murtzia	Murcia	Murtzia	Murtziako Eskualdea
Navarra	Nafarroa	Pamplona/Iruña	Iruña	Nafarroa
Ourense ⁵⁴	Ourense	Ourense	Ourense	Galizia

⁴⁸ Bizkaiko Batzar Nagusiek probintziaren izen ofiziala *Bizkaia* dela onartu bazuten ere (12/86 Foru Araua), probintziaren izendapen ofizialaren aldatzea gauzatzeko, Espainiako Gorteeek onartu behar dute. Beraz, izendapen ofizialaren aldatzea ez da oraindik gauzatu Estatuko legean.

⁴⁹ Gipuzkoako Batzar Nagusiek probintziaren izen ofiziala Gipuzkoa dela onartu bazuten ere (161/90 Foru Araua), probintziaren izendapen ofizialaren aldatzea gauzatzeko, Espainiako Gorteeek onartu behar dute. Beraz, izendapen ofizialaren aldatzea ez da oraindik gauzatu Estatuko legean.

⁵⁰ Izen ofizial bakarra katalanezkoa izan arren, batzuetan gaztelaniako lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Gerona*.

⁵¹ Izen historikoa *Oska*.

⁵² Izen ofizial bakarra katalanezkoa izan arren, batzuetan gaztelaniako lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Islas Baleares*.

⁵³ Izen ofizial bakarra katalanezkoa izan arren, batzuetan gaztelaniako lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Lérida*.

⁵⁴ Izen ofizial bakarra galegozkoa izan arren, batzuetan gaztelaniako lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Orense*.

Probintziaren izen ofiziala	Probintziaren euskal izena	Hiriburuaren izen ofiziala	Hiriburuaren euskal izena	Autonomia-erkidegoa
Palencia	Palentzia	Palencia	Palentzia	Gaztela eta Leon
Pontevedra	Pontevedra	Pontevedra	Pontevedra	Galizia
Salamanca	Salamanca	Salamanca	Salamanca	Gaztela eta Leon
Santa Cruz de Tenerife	Santa Cruz Tenerifekoa	Santa Cruz de Tenerife	Santa Cruz Tenerifekoa	Kanariak
Segovia	Segovia	Segovia	Segovia	Gaztela eta Leon
Sevilla	Sevilla ⁵⁵	Sevilla	Sevilla	Andaluzia
Soria	Soria	Soria	Soria	Gaztela eta Leon
Tarragona	Tarragona	Tarragona	Tarragona	Katalunia
Teruel	Teruel	Teruel	Teruel	Aragoi
Toledo	Toledo	Toledo	Toledo	Gaztela-Mantxa
València/Valencia	Valentzia	València/Valencia	Valentzia	Valentziako Erkidegoa
Valladolid	Valladolid	Valladolid	Valladolid	Gaztela eta Leon
Zamora	Zamora	Zamora	Zamora	Gaztela eta Leon
Zaragoza	Zaragoza	Zaragoza	Zaragoza	Aragoi

4. PROBINTZIA-HIRIBURUAK

4.1. Probintzia-hiriburuak euskal izenaren hurrenkeran

Hiriburuaren euskal izena	Hiriburuaren izen ofiziala	Probintziaren izen ofiziala	Probintziaren euskal izena	Autonomia-erkidegoa
Alacant	Alacant/Alicante	Alacant/Alicante	Alacant	Valentziako Erkidegoa
Albacete	Albacete	Albacete	Albacete	Gaztela-Mantxa
Almería	Almería	Almería	Almería	Andaluzia
Ávila	Ávila	Ávila	Ávila	Gaztela eta Leon
Badajoz	Badajoz	Badajoz	Badajoz	Extremadura
Bartzelona	Barcelona	Barcelona	Bartzelona	Katalunia
Bilbo	Bilbao	Bizkaia ⁵⁶	Bizkaia	Euskal Autonomia Erkidegoa
Burgos	Burgos	Burgos	Burgos	Gaztela eta Leon
Cáceres	Cáceres	Cáceres	Cáceres	Extremadura
Cádiz	Cádiz	Cádiz	Cádiz	Andaluzia
Castelló de la Plana	Castelló de la Plana / Castellón de la Plana	Castelló/Castellón	Castelló	Valentziako Erkidegoa
Ciudad Real	Ciudad Real	Ciudad Real	Ciudad Real	Gaztela-Mantxa
Coruña	A Coruña	A Coruña ⁵⁷	Coruña	Galizia
Cuenca	Cuenca	Cuenca	Cuenca	Gaztela-Mantxa

⁵⁵ Euskarazko izen historikoa *Sibilia*.

⁵⁶ Bizkaiko Batzar Nagusiek probintziaren izen ofiziala *Bizkaia* dela onartu bazuten ere (12/86 Foru Araua), probintziaren izendapen ofizialaren aldaketa gauzatzeko, Espainiako Gortek onartu behar dute. Beraz, izendapen ofizialaren aldaketa ez da oraindik gauzatu Estatuko legean.

⁵⁷ Izen ofizial bakarria galegozkoa izan arren, batzuetan gaztelaniazko lehengo izena erabiltzen da oraindik: *La Coruña*.

Hiriburuaren euskal izena	Hiriburuaren izen ofiziala	Probintziaren izen ofiziala	Probintziaren euskal izena	Autonomia-erkidegoa
Donostia	Donostia / San Sebastián	Gipuzkoa ⁵⁸	Gipuzkoa	Euskal Autonomia Erkidegoa
Gasteiz	Vitoria-Gasteiz	Álava/Araba	Araba	Euskal Autonomia Erkidegoa
Girona	Girona	Girona ⁵⁹	Girona	Katalunia
Granada	Granada	Granada	Granada	Andaluzia
Guadalajara	Guadalajara	Guadalajara	Guadalajara	Gaztela-Mantxa
Huelva	Huelva	Huelva	Huelva	Andaluzia
Huesca	Huesca	Huesca	Huesca	Aragoi
Iruñea	Pamplona/Iruña	Navarra	Nafarroa	Nafarroa
Jaén	Jaén	Jaén	Jaén	Andaluzia
Kordoba	Córdoba	Córdoba	Kordoba	Andaluzia
Las Palmas Kanaria Handikoa	Las Palmas de Gran Canaria	Las Palmas	Las Palmas	Kanariak
León	León	León	León	Gaztela eta Leon
Lleida	Lleida	Lleida ⁶⁰	Lleida	Katalunia
Logroño	Logroño	La Rioja	Errioxa	Errioxa
Lugo	Lugo	Lugo	Lugo	Galizia
Madril	Madrid	Madrid	Madril	Madrilgo Erkidegoa
Málaga	Málaga	Málaga	Málaga	Andaluzia
Murtzia	Murcia	Murcia	Murtzia	Murtziako Eskualdea
Ourense	Ourense	Ourense ⁶¹	Ourense	Galizia
Oviedo ⁶²	Oviedo	Asturias ⁶³	Asturias	Asturias
Palentzia	Palencia	Palencia	Palentzia	Gaztela eta Leon
Palma	Palma de Mallorca	Illes Balears ⁶⁴	Balear Uharteak	Balear Uharteak
Pontevedra	Pontevedra	Pontevedra	Pontevedra	Galizia
Salamanca	Salamanca	Salamanca	Salamanca	Gaztela eta Leon
Santa Cruz Tenerifekoa	Santa Cruz de Tenerife	Santa Cruz de Tenerife	Santa Cruz Tenerifekoa	Kanariak
Santander ⁶⁵	Santander	Cantabria	Kantabria	Kantabria
Segovia	Segovia	Segovia	Segovia	Gaztela eta Leon
Sevilla ⁶⁶	Sevilla	Sevilla	Sevilla	Andaluzia
Soria	Soria	Soria	Soria	Gaztela eta Leon
Tarragona	Tarragona	Tarragona	Tarragona	Katalunia

⁵⁸ Gipuzkoako Batzar Nagusiek probintziaren izen ofiziala Gipuzkoa dela onartu bazuten ere (161/90 Foru Araua), probintziaren izendapen ofizialaren aldaketa gauzatzeko, Espainiako Gorteek onartu behar dute. Beraz, izendapen ofizialaren aldaketa ez da oraindik gauzatu Estatuko legean.

⁵⁹ Izen ofizial bakarra katalanezkoa izan arren, batzuetan gaztelaniazko lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Gerona*.

⁶⁰ Izen ofizial bakarra katalanezkoa izan arren, batzuetan gaztelaniazko lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Lérida*.

⁶¹ Izen ofizial bakarra galegozkoa izan arren, batzuetan gaztelaniazko lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Orense*.

⁶² Asturieraz (babelez), *Uviéu*.

⁶³ Asturieraz (babelez), *Asturies*.

⁶⁴ Izen ofizial bakarra katalanezkoa izan arren, batzuetan gaztelaniazko lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Islas Baleares*.

⁶⁵ Euskarazko izen historikoa *Sanandere*.

⁶⁶ Euskarazko izen historikoa *Sibilla*.

Hiriburuaren euskal izena	Hiriburuaren izen ofiziala	Probintziaren izen ofiziala	Probintziaren euskal izena	Autonomia- erkidegoa
Teruel	Teruel	Teruel	Teruel	Aragoi
Toledo	Toledo	Toledo	Toledo	Gaztela-Mantxa
Valentzia	València/Valencia	València/Valencia	Valentzia	Valentziako Erkidegoa
Valladolid	Valladolid	Valladolid	Valladolid	Gaztela eta Leon
Zamora	Zamora	Zamora	Zamora	Gaztela eta Leon
Zaragoza	Zaragoza	Zaragoza	Zaragoza	Aragoi

4.2. Probintzia-hiriburuak izen ofizialaren hurrenkeran

Hiriburuaren izen ofiziala	Hiriburuaren euskal izena	Probintziaren izen ofiziala	Probintziaren euskal izena	Autonomia- erkidegoa
A Coruña	Coruña	A Coruña ⁶⁷	Coruña	Galizia
Alacant/Alicante	Alacant	Alacant/Alicante	Alacant	Valentziako Erkidegoa
Albacete	Albacete	Albacete	Albacete	Gaztela-Mantxa
Almería	Almería	Almería	Almería	Andaluzia
Ávila	Ávila	Ávila	Ávila	Gaztela eta Leon
Badajoz	Badajoz	Badajoz	Badajoz	Extremadura
Barcelona	Bartzelona	Barcelona	Bartzelona	Katalunia
Bilbao	Bilbo	Bizkaia ⁶⁸	Bizkaia	Euskal Autonomia Erkidegoa
Burgos	Burgos	Burgos	Burgos	Gaztela eta Leon
Cáceres	Cáceres	Cáceres	Cáceres	Extremadura
Cádiz	Cádiz	Cádiz	Cádiz	Andaluzia
Castelló de la Plana / Castellón de la Plana	Castelló de la Plana	Castelló/Castellón	Castelló	Valentziako Erkidegoa
Ciudad Real	Ciudad Real	Ciudad Real	Ciudad Real	Gaztela-Mantxa
Córdoba	Kordoba	Córdoba	Kordoba	Andaluzia
Cuenca	Cuenca	Cuenca	Cuenca	Gaztela-Mantxa
Donostia / San Sebastián	Donostia	Gipuzkoa ⁶⁹	Gipuzkoa	Euskal Autonomia Erkidegoa
Girona	Girona	Girona ⁷⁰	Girona	Katalunia
Granada	Granada	Granada	Granada	Andaluzia
Guadalajara	Guadalajara	Guadalajara	Guadalajara	Gaztela-Mantxa
Huelva	Huelva	Huelva	Huelva	Andaluzia
Huesca	Huesca	Huesca	Huesca	Aragoi
Jaén	Jaén	Jaén	Jaén	Andaluzia

⁶⁷ Izen ofizial bakarra galegozkoa izan arren, batzuetan gaztelaniazko lehengo izena erabiltzen da oraindik: *La Coruña*

⁶⁸ Bizkaiko Batzar Nagusiek probintziaren izen ofiziala *Bizkaia* dela onartu bazuten ere (12/86 Foru Araua), probintziaren izendapen ofizialaren aldaketa gauzatzeko, Espainiako Gorteek onartu behar dute. Beraz, izendapen ofizialaren aldaketa ez da oraindik gauzatu Estatuko legean.

⁶⁹ Gipuzkoako Batzar Nagusiek probintziaren izen ofiziala Gipuzkoa dela onartu bazuten ere (161/90 Foru Araua), probintziaren izendapen ofizialaren aldaketa gauzatzeko, Espainiako Gorteek onartu behar dute. Beraz, izendapen ofizialaren aldaketa ez da oraindik gauzatu Estatuko legean.

⁷⁰ Izen ofizial bakarra katalanezkoa izan arren, batzuetan gaztelaniazko lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Gerona*.

Hiriburuaren izen ofiziala	Hiriburuaren euskal izena	Probintziaren izen ofiziala	Probintziaren euskal izena	Autonomia-erkidegoa
Las Palmas de Gran Canaria	Las Palmas Kanaria Handikoa	Las Palmas	Las Palmas	Kanariak
León	León	León	León	Gaztela eta Leon
Lleida	Lleida	Lleida ⁷¹	Lleida	Katalunia
Logroño	Logroño	La Rioja	Errioxa	Errioxa
Lugo	Lugo	Lugo	Lugo	Galizia
Madrid	Madril	Madrid	Madril	Madrilgo Erkidegoa
Málaga	Málaga	Málaga	Málaga	Andaluzia
Murcia	Murtzia	Murcia	Murtzia	Murtziako Eskualdea
Ourense	Ourense	Ourense ⁷²	Ourense	Galizia
Oviedo ⁷³	Oviedo	Asturias ⁷⁴	Asturias	Asturias
Palencia	Palentzia	Palencia	Palentzia	Gaztela eta Leon
Palma de Mallorca	Palma	Illes Balears ⁷⁵	Balear Uharteak	Balear Uharteak
Pamplona/Iruña	Iruñea	Navarra	Nafarroa	Nafarroa
Pontevedra	Pontevedra	Pontevedra	Pontevedra	Galizia
Salamanca	Salamanca	Salamanca	Salamanca	Gaztela eta Leon
Santa Cruz de Tenerife	Santa Cruz Tenerifekoa	Santa Cruz de Tenerife	Santa Cruz Tenerifekoa	Kanariak
Santander	Santander ⁷⁶	Cantabria	Kantabria	Kantabria
Segovia	Segovia	Segovia	Segovia	Gaztela eta Leon
Sevilla	Sevilla ⁷⁷	Sevilla	Sevilla	Andaluzia
Soria	Soria	Soria	Soria	Gaztela eta Leon
Tarragona	Tarragona	Tarragona	Tarragona	Katalunia
Teruel	Teruel	Teruel	Teruel	Aragoi
Toledo	Toledo	Toledo	Toledo	Gaztela-Mantxa
València/Valencia	Valentzia	València/Valencia	Valentzia	Valentziako Erkidegoa
Valladolid	Valladolid	Valladolid	Valladolid	Gaztela eta Leon
Vitoria-Gasteiz	Gasteiz	Álava/Araba	Araba	Euskal Autonomia Erkidegoa
Zamora	Zamora	Zamora	Zamora	Gaztela eta Leon
Zaragoza	Zaragoza	Zaragoza	Zaragoza	Aragoi

⁷¹ Izen ofizial bakarra katalanezkoa izan arren, batzuetan gaztelaniako lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Lérida*.

⁷² Izen ofizial bakarra galegozkoa izan arren, batzuetan gaztelaniako lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Orense*.

⁷³ Asturieraz (bablez), *Uviéu*.

⁷⁴ Asturieraz (bablez), *Asturies*.

⁷⁵ Izen ofizial bakarra katalanezkoa izan arren, batzuetan gaztelaniako lehengo izena erabiltzen da oraindik: *Islas Baleares*.

⁷⁶ Euskarazko izen historikoa *Sanandere*.

⁷⁷ Euskarazko izen historikoa *Sibilla*.

5. IZEN HISTORIKOAK

Euskara	Gaztelania
Asturietako Printzea	Príncipe de Asturias
Asturietako Printzerria	Principado de Asturias
Compostelako Donejakue	Santiago de Compostela
Kataluniako Printzerria	Principado de Cataluña
Oska	Huesca
Sanandere	Santander
Sibilila	Sevilla

Izen historiko hauek lurralde bakoitzaren historiarekin loturik daude, eta, hortaz, historia-gaietan erabil daitezke.

OHARRA

Gaztelaniaz azentu grafikoa duten hitzak azentuarekin nahiz azenturik gabe idatz daitezke: *León / Leon*.

IRIZPIDE NAGUSIAK

Espainiako Erresumako eta Frantziako Errepublikako probintzia, departamendu eta eskualdeen euskal ordainak finkatzean, irizpide hauek izan dira gidari:

- Toki-izen horiek idatziz eta ahoz euskaraz izandako tradizio, usadio eta hurbiltasuna: *Akize, Arroxele, Bordele, Gaztela, Kordoba, Madril, Paue, Tolosa...*
- Toki-izenen garrantzia eta erabiltzeko maiztasuna kontuan izanik, toki-izen nagusi ezagun eta hurbilenak euskal fonetikaz jarri dira: *Akitania, Aragoi, Bartzelona, Britainia, Errioxa, Korsika, Palentzia, Murtzia...*
- Gure artean gutxi erabiltzen ditugulako, tradizio sendorik ez duten izenak jatorrizko era ofizialean eskaintzen dira, inoiz toki bereko hizkuntza jatorren grafiak errespetatuz, ofizialak direnean bereziki: *Alacant, Avignon, Avila, Girona, Lleida, Lozère, Nancy, Ourense, Perpinyà, Troyes, Valladolid...*
- Inoiz, bigarren mailan bada ere, forma historiko zaharrak eskaini dira: *Auski, Aturbe, Oska, Sibilila*, etab.
- Zenbait izenatarako formak proposatzeak ez du esan nahi toponimo jakin baterako proposatzen dena toponimo horren balizko homonimoei ere ezarri beharrekoa denik. Adibidez, Espainiako Andaluziako *Córdoba* hiria, euskaraz, *Kordoba* da; Argentinako *Córdoba* hiria, berriz, *Córdoba* da euskaraz ere. Frantziako *Lorraine* eta *Bourgogne* eskualdeen izena, euskaraz, *Lorrena* eta *Borgoina* da, hurrenez hurren; Kanadako Québeceko *Lorraine* hiria eta Frantziako Marne departamenduko *Bourgogne* udalerria, berriz, euskaraz ere *Lorraine* eta *Bourgogne* dira, hurrenez hurren.

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 2006ko urriaren 27an onartua)

LX. ARAUEN TESTU OSOA

149

EUSKAL HERRI INGURUKO EXONIMOAK

Euskaldunek kanpoko lekuak izendatzeko inoiz erabili eta beren hizkuntzara egokitu dituzten toponimoak baino ez dira ematen zerrenda hauetan. Ez dira, beraz, gure inguruan dauden tokien izenen zerrenda osatuak eta bertan aipatzen ez diren izenak hizkuntza ofizial propioaren arabera erabili ohi dira euskaraz ere (*Laruns, Tarazona, Haro, Santoña...*).

Zerrendak ikuste hutsarekin ohartzten gara, Euskal Herriaren inguruko eskualde bakoitzean ematen diren leku izenen kopuruak ez direla inondik inora antzekoak. Badaude, hala ere, horretarako arrazoiak. Batetik, sistema fonetikoaren ikuspegitik, euskara eta gaztelaniaren arteko aldea baino nabarmen handiagoa da euskara eta frantsesaren artekoa, eta, ondorioz, askoz ere normalagoa izaten da Iparraldeko euskaldunek beren inguruko lekuen izen frantses ofizialak egokitu behar izatea. Gainera, eremu horretako euskaldunek badute ondo-ondoan beren lege fonetikoetatik hurbilago dagoen gaskoinera; hango euskal hiztunentzat, hizkuntza horretako toponimoak frantsesutako erak baino erabilgarriagoak direnez, ohikoa izaten da lekuen izen gaskoina euskaraz ere erabiltzea. Kontrara, Hegoaldeko euskaldunek ez dute –zenbait hots gora behera– oztopo askorik izango beren inguruko lekuen izen gaztelaniazkoak nahiz beste erromantze batezkoak ahoskatu, deklinatu edo idazteko. Beste aldetik, euskararen gaur eguneko muga, Iparraldean ia-ia Euskal Herriko mugarekin bat dator eta, hortaz, herrialde horietako euskaldunek maiz erabili ohi dituzte beren ohiko solasetan mugez haraindiko lekuen izenak. Hegoaldean, ordea, euskararen gaurko muga euskal herrialdeen mugak baino nabarmen barrurago dago. Ondorioz, herrialde horietako euskaldunentzat kanpoko lekuak ez dira hain auzokideak eta beren ohiko elkarrizketetan ez dira hain sarri agertzen.

Beste alde batetik, Euskal Herritik kanpoko zenbait eskualdetan euskal etimo argia duten leku izenak aurki ditzakegu. Horiek ez dira, ezinbestez, exonimoak eta euskaraz erabili nahi izanez gero, grafia ofiziala nahiz etimologikoa erabiltzeko aukera egon daiteke. Hala egin ohi dute kazetariak eta idazleak eta ez dirudi bide hori ixteko gomendioa eman behar denik. Arrazoi horrengatik, izen hauek ez dira exonimoekin batera zerrendetan ematen.

Hortaz, bost lerrokadatan ematen dira izenak:

Euskal exonimoak, euskara jasoan erabili beharrekoak:

1. Landak / Landes:

- Landes: *Landak / Landes*
Bere bikoiztasunean Euskaltzaindiak 36. Arauan¹ onarturiko izena da.
- Dax: *Akize*
- Hastings: *Hastinga*
- Peyrehorade: *Peirahorada*
- Saint-Vincent-de-Tyrosse: *San Bisentse*
- Tarnos: *Tarnose*

¹ «Frantziako Errepublikako eskualde-departamentu eta hiriburu-izenak» titulua darama 36. Arau honek.

2. *Bearno / Biarno:*

Euskaltzaindiak 36. Arauan² onaturiko izena. Herritar izena *bearnes* den arren, erregularragoa den *bearnotar* era hobesten da, bestea herri mailarako utziz:

- Abitain: *Abitaine*
- Ance: *Arhantze*
- Angous: *Angastue*
- Aramits: *Aramitze*
- Arette: *Ereta*
- Arrive: *Arriba*
- Aspe, Valle de (Valle d'Aspe): *Aspe*
- Autevielle³: *Autile*
- Baretous (Vallée de): *Baretos*
- Barlanes: *Barlanes, Sarraltzune*
- Castetnau-Camblong: *Gazteluberri Bearno*
- Charre: *Xarra*
- Escos: *Ezkoze*
- Espiute: *Azpilda*
- Eysus: *Isuazi*
- Féas: *Inhasi*
- Géronce: *Jeruntze*
- Geüs (d'Oloron): *Ustasu*
- Guinarthe⁴: *Ginarte*
- Issor: *Izorra*
- Labastide-Villefranche: *Bastidaxarre*
- Lanne-en-Barétous: *Landa*
- Lescar: *Leskarre*
- Lescun: *Laskun*
- Lichos: *Lixoze*
- Meritein: *Meritiñe*
- Monein: *Muneiñe*
- Nabas: *Nabarzi*
- Navarrenx: *Nabarregose*
- Oloron-Sainte-Marie: *Oloroe-Donamaria*
- Orthez: *Ortheze*
- Préchacq-Josbaigt: *Josibaia*
- Saint-Goin: *Sangoine*
- Salies-de-Béarn: *Saliese*
- Sauvaterre-de-Béarn: *Salbattera Bearno*
- Sus: *Xütxe*

² «Frantziako Errepublikako eskualde-departamendu eta hiriburu-izenak» titulua darama 36. Arau honek.

³ 1842an beste herri birekin elkartu zen *Autevielle-Saint Martin-Bidèren* Udala sortzeko.

⁴ 1842an elkartu zen *Parenties* herriarekin eta 1845ean *Guinarthe-Parenties* izena eman zioten.

3. *Aragoi:*

- Biniés: *Bintze*
- Jaca: *Jaka*
- Ruesta: *Arrosta*
- Salvatierra de Esca: *Salbaterra Ezka*
- Sigüés: *Zigoze*
- Sos del Rey Católico: *Sause*
- Tauste: *Deustia*
- Undués de Lerda: *Undoze Lerda*
- Undués Pintano: *Undoze Pintano*
- Urdués: *Urdoze*
- Valle de Ansó: *Anso Ibarra*⁵
- Valle de Echo: *Echo Ibarra*

4. *Errioxa:*

- Casalarreina: *Nafarruri*
- Nájera: *Naiara*
- San Millán de la Cogolla: *Donemiliaga Kukula*

5. *Burgos:*

- Miranda de Ebro: *Miranda Ebro*
- Valle de Losa: *Lausa Harana*
- Valle de Mena: *Mena Harana*

* * *

Testu berezietan, historia lanetan edo eleberrietan, euskaraz eman daitezkeenak:

- Ansó: *Berari*
- Ejea de los Caballeros: *Exea*
- Gijón: *Kixoi*
- Huesca: *Oska*
Euskaltzaindiaren 32. Arauak *Oska* dakar izen «historikoen» artean (5. atala)⁶.
- Santander: *Sanandere*
Euskaltzaindiaren 32. Arauak *Sanandere* dakar izen «historikoen» artean (5. atala)⁷.

* * *

Euskal jatorriko inguruko herri izenak, euskal grafiaz erabil daitezkeenak:

- Arza (Burgos): *Artza*
- Cihuri (Errioxa): *Zihuri*
- Ezcaray (Errioxa): *Ezkarai*
- Herrera (Burgos): *Olaerrea*
- Javierregay (Huesca): *Xabierregai*
- Miraveche (Burgos): *Mirabetxe*
- Ochánduri (Errioxa): *Otxanduri*

⁵ Ikus, hala ere, balio historikoa izan dezakeen *Berari* izenari buruz hurrengo atalean esaten dena.⁶ «Espainiako Erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak» titulua du 32. Arau honek eta 5. atalean «Izen historikoak» gehitzen dira.⁷ Id.

Bestalde, badaude aldaketa grafikorik ia behar ez duten beste herri izen batzuk:

- *Artieta* (Burgos)
- *Badaran* (Errioxa)
- *Bardauri* (Burgos)
- *Galbarruli* (Errioxa)
- *Herramelluri* (Errioxa)
- *Murita* (Burgos)
- *Ollauri* (Errioxa)
- *Orrantia* (Burgos)
- *Sajazarra* (Errioxa)
- *Udalla* (Kantabria)
- *Zaballa* (Burgos)
- *Zilbarrena* (Errioxa)

Beste izen batzuk zerrendara ez gehitzea erabaki da inoiz erabili den izena ez baita egoki ikusi:

- Calahorra: *Kalagorria* (Errioxa)
- Santo Domingo de la Calzada: *Ozkabarte* (Errioxa).

(Euskaltzaindiak 2006ko maiatzaren 26an, Elantxoben
eta 2006ko irailaren 28an, Uxuen, onartua)

ARABAKO HERRI IZENDEGIA

I) Eskualdeak

Euskal izena	Erdal izena
Aiaraldea (-a) ¹	Ayala
Añana	Añana
Arabako Errioxa	Rioja Alavesa
Arabako Lautada	Llanada Alavesa
Gorbeialdea (-a) ²	Estribaciones del Gorbea
Mendialdea (-a) ³	Montaña Alavesa
Trebiñu ⁴	Treviño

II) Herrien euskal izena

Euskal izena	Herritarra	Izen ofiziala	Eskualdea
Agurain ⁵	aguraindar	Salvatierra / Agurain	Arabako Lautada
Aiara	aiarar	Ayala / Aiara	Aiaraldea
Amurrio	amurriotar ⁶	Amurrio	Aiaraldea
Añana	añanar	Añana	Añana
Aramaio	aramaiotar	Aramaio	Gorbeialdea
Argantzun	argantzundar	La Puebla de Arganzón	Trebiñu
Armiñón ⁷	armiñondar	Armiñón	Añana

¹ Lurralde historikoa izendatzeko erdarazko *Tierra de Ayala* izenaren euskal kidea *Aiarerria* (-a) da eta adiera horretan erabil daiteke, 143. Arauan erabakitakoaren ildotik.

² Gogoratu behar da *Aiaraldea* izenaren bukaerako -a artikulua dela. Hortaz, eskualdearen izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Aiaraldea, Aiaraldearekin, Aiaraldean...*; baina *Aiaraldeko, Aiaraldetik, Aiaraldera...* Era berean, izen honek bere azken -a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Aiaralde maitea, Aiaralde osoan, Gure Aiaralde hau...*

³ Gogoratu behar da *Gorbeialdea* izenaren bukaerako -a artikulua dela. Hortaz, eskualdearen izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Gorbeialdea, Gorbeialdearekin, Gorbeialdean...*; baina *Gorbeialdeko, Gorbeialdetik, Gorbeialdera...* Era berean, izen honek bere azken -a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Gorbeialde maitea, Gorbeialde osoan, Gure Gorbeialde hau...*

⁴ Gogoratu behar da *Mendialdea* izenaren bukaerako -a artikulua dela. Hortaz, eskualdearen izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Mendialdea, Mendialdearekin, Mendialdean...*; baina *Mendialdeko, Mendialdetik, Mendialdera...* Era berean, izen honek bere azken -a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Mendialde maitea, Mendialde osoan, Gure Mendialde hau...*

⁵ Eskualdea izendatzeko *Uda* izena ere erabil daiteke.

⁶ Euskaldunek erabilitako eta gaur egun Oñati aldean bizirik dagoen *Salbaterra* izena erabiltzea ere zilegi da, batik bat historia alorreko idazkietan.

⁷ Kontuan izanik Orozkon egiaztatutako erabilera, eta inguruko -io amaiera duten Laudio eta Baranbio herrietan -ioar egiten dela, *amurriotar* izena hobetsi da.

⁸ Euskal testuetan azentu grafikorik gabeko forma erabiliko da.

Euskal izena	Herritarra	Izen ofiziala	Eskualdea
Arraia-Maeztu	arraiar, maeztuar	Arraia-Maeztu	Mendialdea
Arratzua-Ubarrundia ⁸ (-a)	arratzuar, ubarrundiar	Arrazua-Ubarrundia	Gorbeialdea
Artziniega	artziniegarr	Artziniega	Aiaraldea
Asparrena ⁹ (-a)	asparrendar	Asparrena	Arabako Lautada
Barrundia ¹⁰	barrundiar	Barrundia	Arabako Lautada
Bastida ¹¹	bastidar	Labastida	Arabako Errioxa
Berantevilla ¹²	berantevillar	Berantevilla	Añana
Bernedo	bernedar	Bernedo	Mendialdea
Bilar	bilartar	Elvillar / Bilar	Arabako Errioxa
Burgu	burguar	Elburgo / Burgelu	Arabako Lautada
Donemiliaga	donemiliagar	San Millán / Donemiliaga	Arabako Lautada
Dulantzi	dulantziar	Alegria-Dulantzi	Arabako Lautada
Ekora	ekorar	Yécora / Iekora	Arabako Errioxa
Eltziego	eltziegar	Elciego	Arabako Errioxa
Erriberabeitia ¹³ (-a)	erriberabeitiar	Ribera Baja / Erribera Beitia	Añana
Erriberagoitia ¹⁴ (-a)	erriberagoitiar	Ribera Alta	Añana
Gasteiz	gasteiztar	Vitoria-Gasteiz	Arabako Lautada
Gaubea	gaubear	Valdegovía / Gaubea	Añana
Guardia	guardiar	Laguardia	Arabako Errioxa
Harana ¹⁵ (-a)	harandar	Harana / Valle de Arana	Mendialdea
Iruña Oka	iruñar, iruñakokar	Iruña Oka / Iruña de Oca	Añana
Iruraitz-Gauna	iruraitzar, gaunar	Iruraitz-Gauna	Arabako Lautada
Kanpezu	kanpezuar	Campezo/ Kanpezu	Mendialdea
Kripan	kripandar	Kripan	Arabako Errioxa
Kuartango	kuartangar	Kuartango	Añana

⁸ *Arratzua* izenaren amaierako -a artikulua da eta deklinatzean honela egin behar da: *Arratzua, Arratzuarekin, Arratzuan...*; baina *Arratzuko, Arratzutik, Arratzura...* Era berean, izen honek bere azken -a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Arratzu maitea, Arratzu osoan, Gure Arratzu hau...*

⁹ Gogoratu behar da *Asparrena* izenaren bukaerako -a artikulua dela. Hortaz, Udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Asparrena, Asparrenarekin...*; baina *Asparrenean, Asparreneko, Asparrenetik, Asparrenera...* Era berean, izen honek bere azken -a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Asparren maitea, Asparren osoan, Gure Asparren hau...*

¹⁰ Beraz, ez bedi erabili: *Asparrenko, Asparrendik, Asparrenean*.

¹¹ Nahiz eta *barrundi* hitz arrunta izan, Lazarragak *barrundiarra* eta *Barrundiaco* erabili zuzen azken erabilera hau hobetsi da.

¹² Izen hau Euskal Herrian dagoen beste *Bastida*-tik bereizi behar denean, honela erabiliko da:

- Izenburu gisa: *Bastida Errioxa*.

- Testuetan, deklinaturik eman behar denean: *Bastida Errioxako eliza berritu dute*.

¹³ Euskaltzaindiak 1979an proposatu zuen *Beranturi* izen berriak izan duen erabilera dela eta maila apalagoan erabili daiteke.

¹⁴ *Erriberabeitia* izenaren amaierako -a artikulua da eta deklinatzean honela egin behar da: *Erriberabeitia, Erriberabeitarekin, Erriberabeitian...*; baina *Erriberabeitiko, Erriberabeititik, Erriberabeitira...* Era berean, izen honek ere azken -a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Erriberabeiti maitea, Erriberabeiti osoan, Gure Erriberabeiti hau...*

¹⁵ *Erriberagoitia* izenaren amaierako -a artikulua da eta deklinatzean honela egin behar da: *Erriberagoitia, Erriberagoitiarekin, Erriberagoitian...*; baina *Erriberagoitiko, Erriberagoititik, Erriberagoitira...* Era berean, izen honek ere azken -a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Erriberagoiti maitea, Erriberagoiti osoan, Gure Erriberagoiti hau...*

¹⁶ Gogoratu behar da *Harana* izenaren bukaerako -a artikulua dela. Hortaz, Udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Harana, Haranarekin...*; baina *Haranean, Haraneko, Haranetik, Haranera...* Era berean, izen honek bere azken -a galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Haran maitea, Haran osoan, Gure Haran hau...*

Euskal izena	Herritarra	Izen ofiziala	Eskualdea
Lagran	lagrandar	Lagrán	Mendialdea
Lantarón ¹⁶	lantarondar	Lantarón	Añana
Lantziego	lantziegar	Lanciego / Lantziego	Arabako Errioxa
Lapuebla de Labarca	lapueblar	Lapuebla de Labarca	Arabako Errioxa
Laudio	laudioar ¹⁷	Laudio / Llodio	Aiaraldea
Legutio ¹⁸	legutioar	Legutiano	Gorbeialdea
Leza	lezar	Leza	Arabako Errioxa
Mañueta	mañuetar	Baños de Ebro / Mañueta	Arabako Errioxa
Moreda ¹⁹	moredar	Moreda de Alava	Arabako Errioxa
Navaridas	navaridastar	Navaridas	Arabako Errioxa
Oion	oiondar	Oyón-Oion	Arabako Errioxa
Okondo	okondar	Okondo	Aiaraldea
Samaniego	samaniegar	Samaniego	Arabako Errioxa
Trebiñu ²⁰	trebiñar	Condado de Treviño	Trebiñu
Urizaharra ²¹ (-a)	urizahartar	Peñacerrada-Urizaharra	Mendialdea
Urkabustaiz	urkabustaiztar	Urkabustaiz	Gorbeialdea
Villabuena ²²	villabuenar	Villabuena de Álava / Eskuernaga	Arabako Errioxa
Zalduondo	zalduondar	Zalduondo	Arabako Lautada
Zanbrana	zanbrantar	Zambrana	Añana
Zigoitia ²³	zigoitiar	Zigoitia	Gorbeialdea
Zuia	zuiar	Zuia	Gorbeialdea

Udal ez diren baina izateko bidean daudenak:

Arrastaria ²⁴ (-a)	arrastariar		Aiaraldea
Lezama ²⁵	lezamar		Aiaraldea

¹⁶ Euskal testuetan azentu grafikorik gabeko forma erabilitako da.

¹⁷ Nahiz eta 1979an *lauidar* proposatu, geroagoko ikerketek frogatu dute *laudioar* dela herritar izena eta horrela jakinarazi zitzaion Udalari 1985 eta 2000. urteetan eginiko irizpenetan. Aldaketa proposatzeko, kontuan hartu ziren, alde batetik, Jose Paulo Ulibarri (1775-1847) idazlearen *Gutun liburua* eta, bestetik, inguruko adineko euskaldunen erabilera. Horretaz gain, aintzat hartu behar da Udal honen kontzejua den *Baranbioko* herritar izena *baranbioar* dela euskaldunen artean.

¹⁸ Euskaltzaindiak 1979an *Legutio* = *Bilerle* proposatu zuen. Ezaguna denez, izen hau hiri-gutunean ageri den *Legutiano*-tik sortu zen inguruko herrien izenen erabilerean analogiaz: *Oxandiano* > *Oxandio*, *Aramaiona* > *Aramaio*.

¹⁹ Izen hau beste *Moreda*-tik bereziki behar denean, honela erabiliko da:

– Izenburu gisa: *Moreda Araba*.

– Testuetan, deklinaturik eman behar denean: *Moreda Arabako eliza berritu dute*.

²⁰ Udalaren izen ofizialaren euskal ordaina *Trebiñu Konderrria* da. Berezi behar denean *Trebiñu Uda* ere erabil liteke.

²¹ Gogoratu behar da *Urizaharra* izenaren bukaerako –a artikulua dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Urizaharra, Urizahararekin...*; baina *Urizaharrean, Urizaharreko, Urizaharretik, Urizaharrean...* Era berean, izen honek bere azken –a galzten du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Urizahar maitea, Urizahar osoan, Gure Urizahar hau...*

²² Izen hau dauden beste *Villabuena*-tik bereziki behar denean, honela erabiliko da:

– Izenburu gisa: *Villabuena Araba*.

– Testuetan, deklinaturik eman behar denean: *Villanueva Arabako eliza berritu dute*.

²³ *Zigoitia* izenaren amaierako –a artikulua da eta deklinatzean honela egin behar da: *Zigoitia, Zigoitiarekin, Zigoitian...*; baina *Zigoitiko, Zigoititik, Zigoitira...* Era berean, izen honek ere azken –a galzten du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Zigoiti maitea, Zigoiti osoan, Gure Zigoiti hau...*

²⁴ 1976an Amurriok bereganatu arte udal izandakoa.

²⁵ 1976an Amurriok bereganatu arte udal izandakoa. Txorierriko herritik bereziki behar denean, honela erabiliko da:

– Izenburu gisa: *Lezama Aitara*.

– Testuetan, deklinaturik eman behar denean: *Lezama Aiarako eliza berritu dute*.

III) Herrien izen ofiziala

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra	Eskualdea
Alegria-Dulantzi	Dulantzi	dulantziar	Arabako Lautada
Amurrio	Amurrio	amurriolar ²⁶	Aiaraldea
Añana	Añana	añanar	Añana
Aramaio	Aramaio	aramaioar	Gorbeialdea
Armiñón	Armiñón ²⁷	armiñondar	Añana
Arraia-Maeztu	Arraia-Maeztu	arraiar, maeztuar	Mendialdea
Arrazua-Ubarrundia	Arratzua-Ubarrundia ²⁸ (-a)	arratzuar, ubarrundiar	Gorbeialdea
Artziniega	Artziniega	artziniegar	Aiaraldea
Asparrena	Asparrena ²⁹ (-a)	asparrendar	Arabako Lautada
Ayala / Aiara	Aiara	aiarar	Aiaraldea
Baños de Ebro / Mañueta	Mañueta	mañuetar	Arabako Errioxa
Barrundia	Barrundia ³⁰	barrundiar	Arabako Lautada
Berantevilla	Berantevilla ³¹	berantevillar	Añana
Bernedo	Bernedo	bernedar	Mendialdea
Campezo / Kanpezu	Kanpezu	kanpezuar	Mendialdea
Condado de Treviño	Trebiñu ³²	trebiñar	Trebiñu
Elvillar / Bilar	Bilar	bilartar	Arabako Errioxa
Elburgo / Burgelu	Burgu	burguar	Arabako Lautada
Elciego	Eltziego	eltziegar	Arabako Errioxa
Harana / Valle de Arana	Harana ³³ (-a)	harandar	Mendialdea
Iruña Oka / Iruña de Oca	Iruña Oka	iruñar, iruñakor	Añana
Iruraiz-Gauna	Iruraiz-Gauna	iruraiztar, gaunar	Arabako Lautada
Kripan	Kripan	kripandar	Arabako Errioxa
Kuartango	Kuartango	kuartangar	Añana
Labastida	Bastida ³⁴	bastidar	Arabako Errioxa

²⁶ Kontuan izanik Orozkon egiaztatutako erabilera, eta inguruko *-io* amaiera duten *Laudio* eta *Baranbio* herrietan *-ioar* egiten dela, *amurriolar* izena hobetsi da.

²⁷ Euskal testuetan azentu grafikorik gabeko forma erabiliko da.

²⁸ *Arratzua* izenaren amaierako *-a* artikulua da eta deklinatzean honela egin behar da: *Arratzua, Arratzuarekin, Arratzuan...*; baina *Arratzuko, Arratzutik, Arratzura...* Era berean, izen honek ere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Arratzu maitea, Arratzu osoan, Gure Arratzu hau...*

²⁹ Gogoratu behar da *Asparrena* izenaren bukaerako *-a* artikulua dela. Hortaz, Udalaren izen osoa erabiltzen honakoa da bidea: *Asparrena, Asparrenarekin...*; baina *Asparrenean, Asparreneko, Asparrenetik, Asparrenera...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Asparren maitea, Asparren osoan, Gure Asparren hau...*

Berez, ez bedi erabili: *Asparrenego, Asparrendik, Asparrenen*.

³⁰ Nahiz eta *barrundi* hitz arrunta izan, Lazarragak *barrunditarra* eta *Barrundiaco* erabili zenez azken erabilera hau hobetsi da.

³¹ Euskaltzaindiak 1979an proposatu zuen *Beranturi* izen berriak izan duen erabilera dela eta maila apalagoan erabil daiteke.

³² Udalaren izen ofizialaren euskal ordaina *Trebiñu Konderrria* da. Berezi behar denean *Trebiñu Uda* ere erabil liteke.

³³ Gogoratu behar da *Harana* izenaren bukaerako *-a* artikulua dela. Hortaz, Udalaren izen osoa erabiltzen honakoa da bidea: *Harana, Haranarekin...*; baina *Haranean, Haraneko, Haranetik, Haranera...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Haran maitea, Haran osoan, Gure Haran hau...*

³⁴ Izen hau Euskal Herrian dagoen beste *Bastida*-tik berezi behar denean, honela erabiliko da:

– Izenburu gisa: *Bastida Errioxa*.

– Testuetan, deklinaturik eman behar denean: *Bastida Errioxako eliza berritu dute*.

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra	Eskualdea
Lagrán	Lagran	lagrandar	Mendialdea
Laguardia	Guardia	guardiar	Arabako Errioxa
Lanciego / Lantziego	Lantziego	lantziegar	Arabako Errioxa
Lantarón	Lantarón ³⁵	lantarondar	Añana
La Puebla de Arganzón	Argantzun	argantzundar	Trebiñu
Lapuebla de Labarca	Lapuebla de Labarca	lapueblar	Arabako Errioxa
Laudio / Llodio	Laudio	audioar ³⁶	Aiaraldea
Legutiano	Legutio ³⁷	legutioar	Gorbeialdea
Leza	Leza	lezar	Arabako Errioxa
Moreda de Alava	Moreda ³⁸	moredar	Arabako Errioxa
Navaridas	Navaridas	navaridastar	Arabako Errioxa
Oyón-Oion	Oion	oiondar	Arabako Errioxa
Okondo	Okondo	okondar	Aiaraldea
Ribera Alta	Erriberagoitia ³⁹ (-a)	erriberagoitiar	Añana
Ribera Baja / Erribera Beitia	Erriberabeitia ⁴⁰ (-a)	erriberabeitiar	Añana
Salvatierra / Agurain	Agurain ⁴¹	aguraindar	Arabako Lautada
Samaniego	Samaniego	samaniegar	Arabako Errioxa
San Millán / Donemiliaga	Donemiliaga	donemiliagar	Arabako Lautada
Peñacerrada-Urizaharra	Urizaharra ⁴² (-a)	urizahartar	Mendialdea
Urkabustaiz	Urkabustaiz	urkabustaiztar	Gorbeialdea
Valdegovía / Gaubea	Gaubea	gaubear	Añana
Villabuena de Álava / Eskuernaga	Villabuena ⁴³	villabuenar	Arabako Errioxa
Vitoria-Gasteiz	Gasteiz	gasteiztar	Arabako Lautada

³⁵ Euskal testuetan azentu grafikorik gabeko forma erabiliko da.

³⁶ Nahiz eta 1979an *laudiar* proposatu, geroagoko ikerketek frogatu dute *audioar* dela herritar izena eta horrela jakinarazi zitzaion Udalari 1985 eta 2000. urteetan eginko irizpenetan. Aldaketa proposatzeko, kontuan hartu ziren, alde batetik, Jose Paulo Ulibarri (1775-1847) idazlearen *Gutun liburua* eta, bestetik, inguruko adineko euskaldunen erabilera. Horretaz gain, aintzat hartu behar da Udal honen kontzejua den Baranbioko herritar izena *baranbioar* dela euskaldunen artean.

³⁷ Euskaltzaindiak 1979an *Legutio* = *Bilerle* proposatu zuen. Ezaguna denez, izen hau hiri-gutunean ageri den *Legutiano*-tik sortu zen inguruko herrien izenen erabilerean analogiaz: *Oixandiano* > *Oixandio*, *Aramaiona* > *Aramaio*.

³⁸ Izen hau beste *Moreda*-tik bereziki behar denean, honela erabiliko da:

– Izenburu gisa: *Moreda Araba*.

– Testuetan, deklinaturik eman behar denean: *Moreda Arabako eliza berritu dute*.

³⁹ *Erriberagoitia* izenaren amaierako –a artikulua da eta deklinatzean honela egin behar da: *Erriberagoitia*, *Erriberagoitiarekin*, *Erriberagoitian...*; baina *Erriberagoitiko*, *Erriberagoitik*, *Erriberagoitira...* Era berean, izen honek bere azken –a galzten du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Erriberagoiti maitea*, *Erriberagoiti osoan*, *Gure Erriberagoiti hau...*

⁴⁰ *Erriberabeitia* izenaren amaierako –a artikulua da eta deklinatzean honela egin behar da: *Erriberabeitia*, *Erriberabeitiarekin*, *Erriberabeitian...*; baina *Erriberabeitiko*, *Erriberabeititik*, *Erriberabeitira...* Era berean, izen honek bere azken –a galzten du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Erriberabeiti maitea*, *Erriberabeiti osoan*, *Gure Erriberabeiti hau...*

⁴¹ Euskaldunek erabilitako eta gaur egun Oñati aldean bizirik dagoen *Salbaterra* izena erabiltzea ere zilegi da, batik bat historia alorreko idazkietan.

⁴² Gogoratu behar da *Urizaharra* izenaren bukaerako –a artikulua dela. Hortaz, Udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Urizaharra*, *Urizaharrekin...*; baina *Urizaharrea*, *Urizaharreko*, *Urizaharretik*, *Urizaharerra...* Era berean, izen honek bere azken –a galzten du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Urizahar maitea*, *Urizahar osoan*, *Gure Urizahar hau...*

⁴³ Izen hau dauden beste *Villabuena*-tik bereziki behar denean, honela erabiliko da:

– Izenburu gisa: *Villabuena Araba*.

– Testuetan, deklinaturik eman behar denean: *Villanueva Arabako eliza berritu dute*.

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra	Eskualdea
Yécora / Iekora	Ekora	ekorar	Arabako Errioxa
Zalduondo	Zalduondo	zalduondar	Arabako Lautada
Zambrana	Zanbrana	zanbrantar	Añana
Zigoitia	Zigoitia ⁴⁴	zigoitiar	Gorbeialdea
Zuia	Zuia	zuiar	Gorbeialdea

IV) Herrien izenak eskualdeka

Aiaraldea⁴⁵ (-a)

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra
Amurrio	Amurrio	amurrioiar ⁴⁶
Artziniega	Artziniega	artziniegarr
Ayala / Aiara	Aiara	aiarar
Laudio / Llodio	Laudio	laudioar ⁴⁷
Okondo	Okondo	okondar

Añana

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra
Añana	Añana	añanar
Armiñón	Armiñón ⁴⁸	armiñondar
Berantevilla	Berantevilla ⁴⁹	berantevillar
Iruña Oka / Iruña de Oca	Iruña Oka	iruñar, iruñaoakar
Kuartango	Kuartango	kuartangarr
Lantarón	Lantarón ⁵⁰	lantarondar
Ribera Alta	Erriberagoitia ⁵¹ (-a)	erriberagoitiar

⁴⁴ *Zigoitia* izenaren amaierako *-a* artikulua da eta deklinatzean honela egin behar da: *Zigoitia, Zigoitiarekin, Zigoitian...*; baina *Zigoitiko, Zigoititik, Zigoitira...* Era berean, izen honek ere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Zigoiti maitea, Zigoiti osoan, Gure Zigoiti hau...*

⁴⁵ Lurralde historikoa izendatzeko erdarazko *Tierra de Ayala* izenaren euskal kidea *Aiarerria (-a)* da eta adiera horretan erabil daiteke, 143. Arauan erabakitakoaren ildotik.

Gogoratu behar da *Aiaraldea* izenaren bukaerako *-a* artikulua dela. Hortaz, eskualdearen izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Aiaraldea, Aiaraldearekin, Aiaraldean...*; baina *Aiaraldeko, Aiaraldetik, Aiaraldera...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Aiaralde maitea, Aiaralde osoan, Gure Aiaralde hau...*

⁴⁶ Kontuan izanik Orozkon egiaztatutako erabilera, eta inguruko *-io* amaiera duten *Laudio* eta *Baranbio* herrietan *-ioar* egiten dela, *amurrioiar* izena hobetsi da.

⁴⁷ Nahiz eta 1979an *laudiar* proposatu, geroago ikerketek frogatu dute *laudioar* dela herritar izena eta horrela jakinarazi zitzaion Udalari 1985 eta 2000. urteetan eginiko irizpenetan. Aldaketa proposatzeko, kontuan hartu ziren, alde batetik, Jose Paulo Ulibarri (1775-1847) idazlearen *Gutun liburua* eta, bestetik, inguruko adineko euskaldunen erabilera. Horretaz gain, aintzat hartu behar da udal honen kontzejua den *Baranbio*ko herritar izena *baranbioar* dela euskaldunen artean.

⁴⁸ Euskal testuetan azentu grafikorik gabeko forma erabiliko da.

⁴⁹ Euskaltzaindiak 1979an proposatu zuen *Beranturi* izen berriak izan duen erabilera dela eta maila apalagonean erabil daiteke.

⁵⁰ Euskal testuetan azentu grafikorik gabeko forma erabiliko da.

⁵¹ *Erriberagoitia* izenaren amaierako *-a* artikulua da eta deklinatzean honela egin behar da: *Erriberagoitia, Erriberagoitiarekin, Erriberagoitian...*; baina *Erriberagoitiko, Erriberagoititik, Erriberagoitira...* Era berean, izen honek ere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Erriberagoiti maitea, Erriberagoiti osoan, Gure Erriberagoiti hau...*

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra
Ribera Baja / Erribera Beitia	Erriberabeitia ⁵² (-a)	erriberabeitiar
Valdegovía / Gaubea	Gaubea	gaubear
Zambrana	Zanbrana	zanbranar

Arabako Errioxa

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra
Baños de Ebro / Mañueta	Mañueta	mañuetar
Elciego	Eltziego	eltziegar
Elvillar / Bilar	Bilar	bilartar
Kripan	Kripan	kripandar
Labastida	Bastida ⁵³	bastidar
Laguardia	Guardia	guardiar
Lanciego / Lantziego	Lantziego	lantziegar
Lapuebla de Labarca	Lapuebla de Labarca	lapueblar
Moreda de Alava	Moreda ⁵⁴	moredar
Navaridas	Navaridas	navaridastar
Oyón-Oion	Oion	oiondar
Samaniego	Samaniego	samaniegar
Villabuena de Álava / Eskuernaga	Villabuena ⁵⁵	villabuenar
Yécora / Iekora	Ekorra	ekorar

Arabako Lautada

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra
Alegría-Dulantzi	Dulantzi	dulantziar
Asparrena	Asparrena ⁵⁶ (-a)	asparrendar
Barrundia	Barrundia ⁵⁷	barrundiar

⁵² *Erriberabeitia* izenaren amaierako *-a* artikulua da eta deklinatzean honela egin behar da: *Erriberabeitia, Erriberabeitiarekin, Erriberabeitian...*; baina *Erriberabeitiko, Erriberabeititik, Erriberabeitira...* Era berean, izen honek ere azken *-a* galzten du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Erriberabeiti maitea, Erriberabeiti osoan, Gure Erriberabeiti hau...*

⁵³ Izan hau Euskal Herrian dagoen beste *Bastida*-tik bereizi behar denean, honela erabiliko da:

– Izenburu gisa: *Bastida Errioxa*.

⁵⁴ Testuetan, deklinaturik eman behar denean: *Bastida Arabako eliza berritu dute*.

Izan hau beste *Moreda*-tik bereizi behar denean, honela erabiliko da:

– Izenburu gisa: *Moreda Araba*.

⁵⁵ Testuetan, deklinaturik eman behar denean: *Moreda Arabako eliza berritu dute*.

Izan hau dauden beste *Villabuena*-tik bereizi behar denean, honela erabiliko da:

– Izenburu gisa: *Villabuena Araba*.

⁵⁶ Testuetan, deklinaturik eman behar denean: *Villanueva Arabako eliza berritu dute*.

Gogoratu behar da *Asparrena* izenaren bukaerako *-a* artikulua dela. Hortaz, Udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Asparrena, Asparrenarekin...*; baina *Asparrenean, Asparreneko, Asparrenetik, Asparrenera...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galzten du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Asparren maitea, Asparren osoan, Gure Asparren hau...*

Beraz, ez bedi erabil: *Asparrengo, Asparrendik, Asparrenen*.

⁵⁷ Nahiz eta *barrundi* hitz arunta izan, Lazarragak *barrundiarra* eta *Barrundiaco* erabili zenez azken erabilera hau hobetsi da.

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra
Elburgo / Burgelu	Burgu	burguar
Iruraiz-Gauna	Iruraitz-Gauna	iruraitzar, gaunar
Salvatierra / Agurain	Agurain ⁵⁸	aguraindar
San Millán / Donemiliaga	Donemiliaga	donemiliagar
Vitoria-Gasteiz	Gasteiz	gasteiztar
Zalduondo	Zalduondo	zalduondar

Gorbeialdea⁵⁹ (-a)

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra
Aramaio	Aramaio	aramaioar
Arrazua-Ubarrundia	Arratzua-Ubarrundia ⁶⁰ (-a)	arratzuar, ubarrundiar
Legutiano	Legutio ⁶¹	legutioar
Urkabustaiz	Urkabustaiz	urkabustaiztar
Zigoitia	Zigoitia ⁶²	zigoitiar
Zuia	Zuia	zuiar

Mendialdea⁶³ (-a)

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra
Arraia-Maeztu	Arraia-Maeztu	arraiar, maeztuar
Bernedo	Bernedo	bernedar
Harana / Valle de Arana	Harana ⁶⁴ (-a)	harandar
Campezo / Kanpezu	Kanpezu	kanpezuar
Lagrán	Lagran	lagrandar
Peñacerrada-Urizaharra	Urizaharra ⁶⁵ (-a)	urizahartar

⁵⁸ Euskaldunek erabilitako eta gaur egun *Oñati* aldean bizirik dagoen *Salbaterra* izena erabiltzea ere zilegi da, batik bat historia alorreko idazkietan.

⁵⁹ Gogoratu behar da *Gorbeialdea* izenaren bukaerako *-a* artikulua dela. Hortaz, eskualdearen izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Gorbeialdea, Gorbeialdearekin, Gorbeialdean...*; baina *Gorbeialdeko, Gorbeialdetik, Gorbeialdera...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Gorbeialde maitea, Gorbeialde osoan, Gure Gorbeialde hau...*

⁶⁰ *Arratzua* izenaren amaierako *-a* artikulua da eta deklinatzean honela egin behar da: *Arratzua, Arratzuarekin, Arratzuan...*; baina *Arratzuko, Arratzutik, Arratzura...* Era berean, izen honek ere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Arratzu maitea, Arratzu osoan, Gure Arratzu hau...*

⁶¹ Euskaltzaindiak 1979an *Legutio = Bilerle* proposatu zuen. Ezaguna denez, izen hau hiri-gutunean ageri den *Legutiano*-tik sortu zen inguruko herrien izenen erabileraren analogiaz: *Otxandiano > Otxandio, Aramaiona > Aramaio*.

⁶² *Zigoitia* izenaren amaierako *-a* artikulua da eta deklinatzean honela egin behar da: *Zigoitia, Zigoitiarekin, Zigoitian...*; baina *Zigoitik, Zigoititik, Zigoitira...* Era berean, izen honek ere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Zigoiti maitea, Zigoiti osoan, Gure Zigoiti hau...*

⁶³ Gogoratu behar da *Mendialdea* izenaren bukaerako *-a* artikulua dela. Hortaz, eskualdearen izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Mendialdea, Mendialdearekin, Mendialdean...*; baina *Mendialdeko, Mendialdetik, Mendialdera...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Mendialde maitea, Mendialde osoan, Gure Mendialde hau...*

⁶⁴ Gogoratu behar da *Harana* izenaren bukaerako *-a* artikulua dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Harana, Haranarekin...*; baina *Haranean, Haraneko, Haranetik, Haranera...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Haran maitea, Haran osoan, Gure Haran hau...*

⁶⁵ Gogoratu behar da *Urizaharra* izenaren bukaerako *-a* artikulua dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Urizaharra, Urizaharrekin...*; baina *Urizaharrean, Urizaharreko, Urizaharretik, Urizaharrera...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Urizahar maitea, Urizahar osoan, Gure Urizahar hau...*

Trebiñu ⁶⁶

Izen ofiziala	Euskal izena	Herritarra
La Puebla de Arganzón	Argantzun	argantzundar
Condado de Treviño	Trebiñu ⁶⁷	trebiñar

Izendegi honetako zerrendak toki eta data hauetan onartu ditu Euskaltzaindiak:

Urnietan, 2006ko apirilaren 27an.

Elantxoben, 2006ko maiatzaren 26an.

Zaldibian, 2006ko ekainaren 30ean.

Antzuolan, 2006ko uztailaren 20an.

Uxuen, 2006ko irailaren 28an.

Bilbon, 2006ko urriaren 27an.

Bilbon, 2006ko azaroaren 24an.

⁶⁶ Eskualdea izendatzeko *Uda* izena ere erabil daiteke.

⁶⁷ Udalaren izen ofizialaren euskal ordaina *Trebiñu Konderrria* da. Berezi behar denean *Trebiñu Uda* ere erabil liteke.

**AZKUE BIBLIOTEKAREN
KATALOGAZIO ERREGELAK**

Bilbo, 2005

**AZKUE BIBLIOTEKAREN
KATALOGAZIO ERREGELAK**

AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

Burua: Jose Antonio Arana Martixa

Idazkariak: Pruden Gartzia
Josune Olabarria

Kideak: Kepa Altonaga
Gidor Bilbao
Andolin Eguzkitza (†)
Sebastian García Trujillo
Juan Luis Goikoetxea
Agurtzane Juanena
Henrike Knörr
Jose Mari Larrarte (†)
Gerardo Luzuriaga
Juan San Martin (†)

Aholkulariak: Joseba Agirreazkuenaga
Jose Maria Jimeno Jurio (†)
Joseba Lakarra

Katalogazio-arduraduna: Kristina Arana (*)

Dokumentazio-arduraduna: Nere Altuna (*)

(*) Ez da batzordekidea.

SARRERA

I

1992an Euskaltzaindiak erabaki zuen bere bibliotekako funts bibliografiakoak katalogatzea ISBD – MARC formatuen eskakizunen arabera (1), hots, mundu mailako estandar katalogafiko eta informatiko batzuen arabera. Horretarako, biblioteka ordenagailuz hornitu eta ABSYS programa hautatu eta ezarri ondoren, mahai gainean jarri ziren gure inguruko biblioteka unibertsitarioetan erabiltzen ziren tresna dokumentalak, funtsean, *Espainiako Katalogazio Erregelak* (2) eta *Sevillako Unibertsitateko gai-zerrenda* (3) izenekin ezagutzen ditugunak. Eta orduan planteatu zen lehen aldiz arazo handi bat, handik aurrera lan eta buruhauste franko ekarriko zuena: nola egin lan hori euskaraz? Eskuartearen duzuen liburua arazo horri emandako erantzuna da.

Jakina denez, Azkue Biblioteka bere katalogo berria egiten hasi zen denboran ez zegoen euskaraz katalogatzeko inolako tresna dokumentalik, ez erreklarik, ez gomendiorik, ez irizpiderik... Oinarrizko terminologia bibliotekonomikoa bera ere zalantza eta hutsunez beterik zegoen eta, zer esanik ez, alor honetan ez zegoen euskarazko tresna informatikorik. Hortaz gain, esku bateko hatzekin konta zitezkeen euskara beren katalogoetan neurri batean edo bestean erabiltzeko erabakia hartuta zuten erakundeak, eta esan daiteke inon ere ez zela ISBD – MARC formatuko katalogorik euskaraz, erran nahi baita, osorik euskaraz. Eta hala eta guztiz ere Euskaltzaindiak erabaki zuen bere katalogoa euskaraz egitea, Madriliko biblioteketako katalogoak gaztelaniaz egiten diren bezala, edo Parisekoak frantsesez. Hein berean. Ez gehiago, baina ezta gutxiago ere.

(1) Une horretan erabili ziren erreferentzia nagusiak hauek dira: Federación Internacional de Asociaciones de Bibliotecarios y Bibliotecas (1983): *ISBD (M): Descripción Bibliográfica Internacional Normalizada para publicaciones monográficas*, Madrid: Asociación Española de Archiveros, Bibliotecarios, Museólogos y Documentalistas, 1983 eta *Manual del formato IBER-MARC para monografías*, Madrid: Centro de Coordinación Bibliotecaria, 1988.

(2) Une horretan erabiltzen zen edizioa: *Reglas de catalogación*, 1ª ed., 2ª reimp. con corr., Madrid: Ministerio de Cultura, Dirección General del Libro, Archivos y Bibliotecas, 1988.

(3) Gai-sarrerak egiteko hasiera batean erabili zen: *Lista de encabezamientos de materia para las bibliotecas públicas*, Madrid: Ministerio de Cultura, Dirección General del Libro y Bibliotecas, 1986. Geroxeago beste honekin ordezkatu zen: *Encabezamientos de materia de la biblioteca universitaria*, Sevilla: Universidad, 1994. Une horretan baita ere sarri kontsultatu zen gai-zerrenda hau: *Lista de encabezamientos de materias para bibliotecas*, Barcelona: Diputació, Biblioteca de Catalunya, 1985.

Erabaki horren arrazoiak, bistan da, Madrilen edo Parisen erabiltzen diren berberak dira, alegia, katalogoaren erabiltzaileen hizkuntzan katalogatu behar dela, beraientzat egiten baita katalogoa. Eta Euskaltzaindiaren bibliotekaren erabiltzaileak lehenengo eta behin euskaldunak dira. Horientzat egiten da katalogoa.

Egia da, halaber, Euskaltzaindiarena bezalako biblioteka espezializatu baten erabiltzaileak ez direla soilik euskaldunak, mundu osoko ikerleak baizik, baina hizkuntza bati lehentasuna ematekotan ez da dudarik gure katalogoan euskarak behar duela izan lehentasun hori. Ez da luze arrazoitu beharreko kontua, begi bistakoa baita. Dena den, hasiera-hasieratik ez da ahaztu Azkue Bibliotekaren katalogoak, ahalaz, eleaniztuna beharko lukeela izan, alegia, lehenengo eta behin euskaraz, baina baita ere gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, era berean begi bistan dauden arrazoiengatik. Baina ildo horretan pauso batzuk eman badira ere, aitortu behar dugu katalogoa euskaraz egitea izan dela gure ahalegin gehien-gehienak bildu dituen, bigarren fase hori bigarren maila batean utziz, gaur egun arte.

Hastapenetako une horietan izan zen ere beste bidegurutze bat, zirt edo zart erabaki beharrekoa lanari ekin ahal izateko. Alegia, erabaki behar izan zen zein zen hartu beharreko metodologia, lehenengo eta behin euskaraz katalogatzeko tresna dokumentalak sortzea, eta gero katalogatzen hasi, ala zuzen-zuzenean katalogatzeari ekin, eta bidean sortutako arazoak bidean konpondu. Bata ala bestea. Aukerak eta ondorioak aztertu ondoren bigarren bidea hautatu zen, hots, euskaraz katalogatzen hastea, prozesua bukatutakoan ondorio batzuk ateratzeko. Horrela abiatu zen lana, eta gaur egungo esperientziaren arabera esan dezakegu erabaki zuzena izan zela, batere zalantzarik gabe. Izan ere, prozesua hasieran uste zena baino gehiago luzatu bazen ere, lehen bidea hartzea (bide *logikoa*, batzuen aburuz) prozesua kale itsu batean sartzea izango zelako.

Baina bidea zinez luzea suertatu da, hasieran uste zena baino anitzez luzeagoa, Euskaltzaindiak bere buruari jarritako lana hasieran uste zena baino askoz ere korapilatsuagoa zelako. Eta horrela, lehen unean erabili ziren irizpideak nahikoa errazak dira azaltzen: Espainiako katalogazio erregelak hartuta, haietan alde edo moldez *zentro katalogatzailearen hizkuntza* erabili behar zen lekuetan (hots, gaztelania), gure zentro katalogatzailearen hizkuntza erabili, alegia, euskara. Horrek sorrarazten zituen arazo terminologikoak bibliotekan bertan konpontzen ziren, baina prozesuak aurrera egin ahala Azkue Biblioteka batzordera bideratzen hasi ziren eta, itxura batera, aurrerakada handiak egin ziren.

1995ean enpresa batekin sinatutako hitzarmen baten bidez beste lau katalogatzaile hasi ziren lanean, prozesua biziki azkartuz. Baina soilik 1997tik aurrera ondorioztatu zen prozesu osoa berrikusi beharra zegoela, pauso bakoitza hobetu zehaztuz eta hartzen ziren erabaki guztiak *erregela* batzuetan

bilduz eta sistematizatuz (ABK egitasmoa). Eredua, ezinbestean, *Euskaltzaindiaren Arauak* izeneko bilduma izan zen. Tamainak tamaina, aldeak alde, eta helburuak helburu, egitasmo horren prozedurak aplikatzea erabaki zen, hain zuzen ere liburu-ondarearen katalogazio-lanean sortzen ziren hizkuntza arazoak konpontzeko. Ildo horretan Azkue Bibliotekako zuzendariak txosten berezi bat idatzi zuen (4), zeina aurkeztua izan zen 1997ko azaroko osoko bilkuran euskaltzainen adostasuna lortuz. Esku artean duzun liburua prozesu horren azken emaitza da.

II

Beraz, esan dezakegu 1997tik aurrera dokumentuak katalogatzerakoan sortzen ziren arazo guztiak sistematikoki tratatuak izan direla, lehenengo eta behin Azkue Bibliotekako langileen artean eta, ondoren, Azkue Biblioteka batzordean. Prozesu luzea eta korapilatsua izan da.

Kasu guztietan prozedura izan da arazo katalogafiko erreal batetatik abiatuz, hots, katalogatzerakoan sortutako arazo batetatik abiatuz, soluzio orokor bat prestatzea eta txosten batean biltzea. Txosten horri *erregela* forma eman ondoren Azkue Biblioteka batzordera bideratzen zen eta han eztabaidatzen zen, beharrezko oharrak eta zuzenketak eginez. Batzordean onartutako testua katalogatzaileei ematen zitzaien, horiek katalogoan egindako sarrerak horren arabera zuzen zitzaizten. Baina katalogatzaileek zalantza berriak edo akats kontzeptualak atzemanaz gero, proposamen berriak egin eta txostena berriz ere aztertzen zen, behar beste aldiz. Horrela, konponbide ustez sendo batera iritsi arte.

Sarritan, denbora asko eta eztabaida luzeak behar izan dira kontu batzuk ebazteko. Bereziki euskal deituren grafiari buruzkoak, eta horrekin lotutakoek, hausnarketa luzeak eragin dituzte. Horren lekuko dugu *Euskera* agerkarian gai horretaz argitaratutako artikulua, ondoren idatzi eta eztabaidatu zen erregelaren euskarri teorikoa (5). Kasu bakarra da, arruntean hausnarketa teorikoak erregeletan bertan barneratu direlako, baina kontuan har bedi hori dela, ziur aski, batzordeak onartutako erregela nagusia eta eragin handiena daukana. Gero ere mintzatuko gara horretaz.

Dena den, deskribapen horrek oraindik ere ez du nahikoa islatzen prozesu osoaren konplexutasuna. Izan ere, faktore berri bat gehitu zen, hasieran aurreikusitako gabea, prozesua martxan zegoelarik sakonki baldintzatu zuena: urte

(4) Gartzia, Pruden, «Azkue Bibliotekaren katalogoa (ABK) : Euskaltzaindiaren proiektu estrategikoetariko bat», in *Euskera*, 42. libk. (1997, 3); 615-622 or., Bilbon, 1997-XI-28an hileroko batzarrean irakurritako txostena

(5) Gartzia, Pruden, «Azkue Bibliotekaren katalogoa (ABK): euskal deituren sarrera nagusia», in *Euskera*, 45. libk. (2000, 1); 319-342 or., Azkue Biblioteka batzordearen 1999-X-4ko bilan aurkeztutako txostena. Ikus gainera liburu honetako 1go erregela.

horietan, 1998an zehatz-mehatz, instalatu zen Euskaltzaindiko egoitzan internet sarbidea eta, ordutik aurrera, lehenago ez bezala Azkue Bibliotekako langileek zuzenean arakatu ahal izan zituzten munduko biblioteka nagusienetako katalogoak. Horri esker ez soilik erreferentzia zehatzak jaso ahal izan ziren honelako edo horrelako dokumentuaren sarrera nola egin argitzeko, baizik eta, areago, arazoak ikusteko moldea osorik aldatu zen. Ondorioz, ordutik aurrera, de facto, *arau anglo-amerikarrak* (6) bihurtu ziren gure erregelagintzaren erreferentzia nagusia, Espainiako Erregelen lekua betez. Aldi berean, Frantziako Erregelak (7) eta Kataluniakoak (8) sarritan kontsultatzeko ohitura hartu zen. Horiekin batera, erreferentziako zenbait katalogo sistematikoki arakatzeko hasi ginen, bereziki Estatu Batuetako Kongresuaren Bibliotekarena (*Library of Congress*), Madrileko eta Pariseko Biblioteka Nazionalena edo, baita ere oso sarritan, Erresuma Batuko Biblioteka Nazionalarena (*British Library*) eta Alemaniako Biblioteka Nazionalarena (*Deutsche Bibliothek*). Baina erregelaz gain, katalogoak zuzen-zuzenean kontsultatzeko aukera izatean, gaien tratamenduari dagokionez Sevillako Unibertsitatearen zerrendaren erreferentzia neurri batean lausotu egin zen, zuzenean *Congress*-eko gaiak eta soluzioak kontsultatzeko ohitura finkatu zelarik. Laburbilduz, internetaren erabilerak dimentsio berri bat eman zion gure katalogogintzari, hasierako erreferentziak aberastuz eta, dudarik gabe, alor honetan lider argia den Washingtoneko bibliotekari zuzenean helduz.

2000. urtean eman zen bukatutzat ondarearen katalogoaren lehen fasea eta jarri zen interneten, erabiltzaileen kontsultagai. Baina erregelagintza eta zuzenketak oraingoz beste bi urte luzatu ziren, 2002ra arte. Urte horretan bertan erabaki zen erregela guztiak berriz ere banan-banan batzordean berrikustea, hutsuneak eta inkoherentziak konpontzeko eta prozesuan zehar ordena logikorik gabe sortutako erregelak ahal zen neurrian bateratzeko eta trinkotzeko, beste bi urtetan. Beraz, bigarren fase horrek lau urte iraun zuen eta esan dezakegu berriz ere aldaketa eta zuzenketa ugari eragin zituela katalogoan.

Hirugarren fase batean erregela guztiak testu bakar batean bildu ziren, ordena logiko baten arabera, eta azken ukituak eman zitzaizkion, errepikapenak konponduz eta adibideak birregiaztatuz. Ondoren, 2005ean denak batera onartu ziren hirugarren aldiz, hamar urteko prozesu luze bat burutuz. Azkue Biblioteka batzordearen iritziz, erregela horiek urte luzeetan baliagarria izango

(6) *Anglo-American Cataloguing Rules*, prepared under the direction of The Joint Steering Committee for Revision of AACR; a committee of The American Library Association ... [et al.], 2nd. ed., 1998 rev., Ottawa [etab.]: Canadian Library Association [etab.], 1998.

(7) *Formation des bibliothécaires et documentalistes: normes pour l'épreuve de catalogue*, Paris: AFNOR, 1999.

(8) *Manual del Catmarc* [redactada per Marcel Estrader; amb l'assessorament i supervisió d'Alice Keefer], Segona edició revisada i augmentada [redactada per Marcel Estrader; amb l'assessorament i supervisió d'Alice Keefer], Barcelona: Generalitat de Catalunya, Departament de Cultura, 1992.

den marko bat eskaintzen dute, hemendik aurrera sortuko diren arazo katalogafikoak berorien arabera konpondu beharko direlarik.

Dena den, badirudi azken urteotan katalogafia aldaketa-une batean sartua dela: oraingo erregelagintzak urte luzetan indarrean segituko badu ere, hasiak gara ikusten proposamen berri sendoak, FRBR (*Functional Requirements of Bibliographic Records*) edo FRANAR (*Functional Requirements and Numbering of Authority Records*) bezalako egitasmoen bidez (9). Goiz da jakiteko proposamen horiek ekarriko dituzten aldaketak baina, edonola ere, badirudi etapa bat bukatzen ari dela eta beste berri bat zabaltzen. Ondorioz, gure euskarazko erregelagintza (zehatzago esanik, *egokigintza*) ere ildo berrietara bideratuko da, proposamen berriak munduan zehar zabaldu ahala.

III

Gorago iradoki den legez, erregela hauek ez dira autonomoak, hots, ez dute bere baitako nortasunik. Aitzitik, erregelagintza zabalago baten *euskal eranskina* moduko bat baino ez dira funtsean, haien osagarri bat.

Erran nahi baita: azken urteotan *Anglo-American Cataloguing Rules* dira aldeaz edo moldez mundu mailako katalogogintza arautzen dutenak. Gure inguruko erregelak ere, hots, Espainiakoak edo Frantziakoak, funtsean haien egokitzapen bat besterik ez dira, jatorrizkoekin dituzten desberdintasunak aski txikiak direlarik. Funtsean, gainera, desberdintasunak baino arazo zehatz batzuetarako konponbide bereziak izaten dira. Hala ere, erregela autonomoak dira, posible delarik edozein dokumentu katalogatzea haiek bakarrik erabilia, bestelako erreferentziarik gabe.

Beraz, teorikoki euskaldunontzat ere posible izango litzateke angloamerikarretatik abiatuz erregela autonomo eta beregain batzuk formulatzea, espainolek edo frantsesek egin duten bezala. Hori da, gainera, aldeaz edo moldez katalanek segitu izan duten bidea CATMARC bultzatuz. Baina bereziki azpimarratu nahi dugu gure helburua hori baino apalagoa izan dela, alegia, erregela multzo handi hori (angloamerikarrak, espainolak eta frantsesak) ontzat emanaz, arazo zehatz batzuei irtenbide zehatza eskaintzea. Azkue Bibliotekaren erregelak, beraz, angloamerikarrekin (edo espainolekin, edo frantsesekin)

(9) Ikus, adibidez: *Statement of International Cataloguing Principles: Draft approved by the IFLA Meeting of Experts on an International Cataloguing Code, 1st, Frankfurt, Germany, 2003* [«Final» Draft Based on Responses through Dec. 2004 showing further recommended changes from Buenos Aires August 2004 (Jan. 2005 Draft)], edo baita ere: *Functional Requirements for Authority Records: A Conceptual Model* IFLA UBCIM Working Group on Functional Requirements and Numbering of Authority Records (FRANAR) Draft, 2005 [2005-06-15]. Biak IFLA-ren web gunean eskuragarri.

batera erabili behar dira, kontu zehatz batzuetan haiek argitzen eta zehazten dituztelarik.

Behin bakarrik atera gara marko orokor horretatik, hain zuzen ere euskal herritarren euskal deituren sarrera nagusia egiteko orduan (ikus 1. erregela). Kasu horretan aitortzen dugu Azkue Biblioteka batzordeak berariaz nahi izan duela euskal deituren grafia sustatu, horretarako dagoen oinarri bibliografikoa kasu batzuetan zinez ahula bada ere. Baina batzordeak kontsideratu du ezin duela ontzat eman euskal onomastikak mendez mende jasan duen bazterketa sistematikoa, eta ordua dela euskarari bere duintasuna eta beregaintasuna aitortzeko, alor honetan ere. Finean, euskal grafia erabiltzea urterik urte gorantz doan ohitura izanik, badirudi zenbait kasutan oraingoz apur bat bitxia egiten dena hemendik gutxira normaltzat hartuko dela eta, gainera, hori dela hain zuzen ere euskaldun ikasien artean argi eta garbi nagusitzen den joera.

Gai-sarrerei dagokienez, Sevillako Unibertsitateko zerrenda izan da gure erreferentzia nagusia, bereziki haren hitzaurrean agertzen diren jarraibideak (10). Dena den, ez dugu ahaztu behar zerrenda hori finean *Congress*-eko bibliotekako gaietan oinarritzen dela (11) (Laval Unibertsitatearen bitartez (12)) eta, interneti esker, azken urteotan gero eta arruntagoa bihurtu zai-gula iturria zuzenean kontsultatzea, bitartekariarik gabe.

Laburbilduz, bai kasu batean zein bestean, hots, bai egileetan zein gaietan, gure asmoa euskaraz katalogatzeak sortzen zituen arazoak konpontzea izan da. Baina ez euskara bera huts-hutsean hartuta, baizik eta bere testu-guru naturalean kokatuta, hots, Euskal Herrian. Alegia, euskararik gabeko Euskal Herririk irudikatzea ezinezkoa egiten zaigun bezala, egia da Euskal Herri-rik gabeko euskara hizkuntzalari gutxi-gutxi batzuen ardurara baino ez litzatekeela izango, museo bateko pieza bat. Ez da hori, zorionez, gaur egungo egoera. Eta horrela, Euskaltzaindiaren erabakiei jarraituz (ikus Euskaltzaindiaren 139. araua), ardurara berezia jarri da termino horren erabilera zehazten, erregela ugarietan aipatzen delarik.

IV

Esana dugu erregela hauek ez zirela modu sistematiko batean sortu, arian-arian baizik. Horrek ekarri du batzuk luzeagoak izatea, beste batzuk laburragoak. Batzuk kontsiderazio eta hausnarketa ugari hornituak, beste batzuk le-

(10) *Encabezamientos de materia de la biblioteca universitaria*, Sevilla: Universidad, 1994, l. tomoa, IX-XXI or.

(11) Library of Congress, *Office for Subject Cataloging Policy: Subject Cataloging Manual*, Washington: Library of Congress, 1990.

(12) *Répertoire de vedettes-matière*, 9ème ed., Quebec: Bibliothèque du L'Université Laval, 1983.

horragoak. Gai batzuei arreta handia eskaine zaie, beste batzuei gutxiago. Azken fasean egitura bakar baten inguruan kokatu nahi izan badira ere, emaitza oraingoz ez da armonikoa. Lortuko ahal da hurrengo argitaraldi batean!

Dena den, badaude guztientzako balio duten ezaugarri batzuk. Lehenengo eta behin, onartutako sarrerak beti letrakera beltzez ezarri dira, eta arrunki haien azpian kokatu diren sarrera ez-onartuei aurretik «X» zeinua ezarri zaie. Zeinu horren bitartez adierazi nahi da sarrera hori ez dela zuzena biblioteka-katalogo batean, baina, bistan da kasu gehien-gehienetan zuzena izan daitekeela beste testuinguru batean, adibidez, edozein testu arrunten barnean. Edonola ere azpimarratu nahi dugu erregela hauek biblioteka-katalogo batean erabiltzeko direla soilik, eta ez dela zilegi, inola ere ez, hemengo kontsiderazioak besterik gabe hizkuntza arruntera trasladatzea. Hala egin ote daitekeela kasuren batean edo bestean? Ez litzateke harritzekoa izango, gure helburua izan delako hizkuntza zuzena baina, era berean, ahal denik eta naturalena erabiltzea, baina Azkue Biblioteka batzordeak horretaz ez du ezer esatekorik, ez baita haren ardurapekoa, Euskaltzaindiarena berarena edo haren beste batzorde batzuen baizik. Gaineratu nahi dugu Euskaltzaindiaren edozein arau berrik hemen paratzen den edozein adibideren idazkera zuzena aldatuko balu, erregela hauetan ere automatikoki aldatutzat jo beharko litzatekeela, aparteko oharrik gabe.

Beraz, mota honetako bibliotekonomiako erregela-bildumetako ohiturari segituz, oro har hizkuntzaren barnean zuzenak diren aukeren artean zein hautatu behar den baino ez da zehazten eta adibideen bidez argitzen, barbarismoak edo idazkera ez-akademikoak kontuan hartu gabe. Dena den, euskararen kasuan zabalxeago jokatu dugu termino ez-onartuen adibideak paratzerakoan, bistan diren arrazoiengatik, baina beti ere garbi izanik erregela hauek euskaldun alfabetatuek erabiltzeko direla eta, beraz, horiek nahikoa irizpide badutela erregelen erabilera zuzen baterako.

Orobat, kontuan hartzekoa da biblioteka-katalogoak hizkuntza ahal denik eta naturalena erabiltzen saiatzen badira ere, berez testuinguru terminologiko berezi bat osatzen dutela, eta zilegi zaiela hizkuntza arruntaren arau gramatikalak neurri batean bortxatzea. Hori gertatzen da, adibidez, pertsonen izen-deiturak ematean, ordena arrunta (izena + deitura) antinaturalki aldatzen delarik, deituraren araberako zerrenda alfabetikoak egitea errazteko (deitura + izena). Aldaketa hori gure inguruko hizkuntza guztietan praktikatzen da. Gai-sarreretan ere sarritan gertatzen dira horrelako ordena-aldaketak eta euskaraz ere horrelako batzuk egin ditugu, oso gutxi hala ere.

Baina bada aipatu beharreko kasu berezi bat: marra gramatikala. Azkue Bibliotekako Katalogoaren gai-sarreretan ez da marra gramatikalik onartzen, izen propioetan ez bada. Arrazoiak hau da: gai-sarreretan marra bibliografikoa masiboki erabiltzen denez gero, zenbait kasutan oso zaila sueta daitekeela marra gramatikala eta bibliografikoa bereiztea, terminoaren ulermena biziki zailduz. Beraz, ahalaz marrarik gabeko terminoak dira onartzen direnak edo, az-

ken buruan, terminoa marrarik gabe idazten da, gramatikaren kontrakoa izan arren. Ondorioz, biblioteca katalogo batean ikus daitezkeen marra guztiak bibliografikoak dira, izen propioetan izan ezik.

Halaber, oro har sarrera osoak baino ez dira aztertzen. Azalpena gehiegi ez korapilatzeko eta astuntzeko azpisarrerak arrunki ez dira aipatzen, baina ABKn bertan horren erabileraren adibide ugari daitezke.

V

Erregela hauek Azkue Bibliotekako ondare bibliografikoa katalogatzeko prozesuan sortu dira eta, beraz, Azkue Bibliotekako Katalogoarekin (ABK) batera ulertu behar dira. Erran nahi baita, alde batetik katalogoa erregelen arabera egin dela (eta aurrerantzean ere horrela egingo dela), baina, era berean, erregela hauek katalogo horren ondorio direla. Ondorioz, erregeletan aipatzen diren adibide guztiak dokumentu errealei dagozkie eta, era berean, erregeletan zehatz-mehatz azalduta aurkitzen ez den kasua agian katalogoan aurki daitezke. Beti ere argi eta garbi aitortuz bai batean zein bestean egongo direla hutsuek, akatsak eta inkoherentziak.

Orobat, argi eta garbi aitortu behar da erregela hauek ez direla exhaustiboak. Azkue Bibliotekaren ondarearen katalogazio-prozesuan sortu direnez, horko liburuak eta aldizkariak baino ez dira aztertu eta, beraz, ez dakigu erantzungo ote dioten edozein bibliotekaren katalogazioan ager daitezkeen arazo guzti-guztiei. Kontuan izan behar da Azkue Biblioteka humanitateetan espezialdutako biblioteca bat dela, eta bere ondare gehienak zerikusirik duela Euskal Herriarekin edo haren inguru hurbilarekin. Ez dakigu, beraz, aski izango ote diren edozein ondare katalogatzeko, baina beldurrik gabe esango genuke gure irudiko hemen tratatzen diren berezitasunak gaia ia-ia agortzen dutela. Ondorioz, euskaraz katalogatu nahi duen edozein bibliotekak bere arazo gehienak konponduta aurkituko ditu hemen, edo, gutxienez, arazo berriak konpontzeko irizpide aski argiak eta zehatzak.

Ildo horretan, Azkue Bibliotekak pozik jasoko du edozein iradokizun, kritika, zuzenketa edo iritzi, eta guztiei erantzuten saiatuko da, beharrezkoa izanez gero batzordera joz.

Azken buruan, katalogo on bat egitea urte luzeetako lanaren ondorioa da, etengabeko zuzenketa ezinbestekoak direlarik. Euskaldunon ororen esku egon behar du, eta dago, euskararen ohoretan eta kulturaren alde egin nahi izan dugun egitasmo honetan parte hartzea. Hala biz.

EGILEAK

1. BANAKO EGILEEN SARRERA NAGUSIA

1.1. ERREGELA HONEN ZERGATIEZ

Sarritan zalantza handiak sortzen dira egileen, eta bereziki euskal egileen, sarrera nagusia euskarazko biblioteka-katalogo batean idazteko orduan. Izan ere, bereziki deituretan, era askotako grafiak erabiltzen dira, frankotan pertsona berak bat baino gehiago erabiltzen duelarik. Kasu horietako bat Koldo Mitxelenaarena da, zeinaren idazlan gehienetan *Michelena* grafia eta *Luis* izena aurkitzen dugun. Zein hautatuko dugu?

Arazo hori ezin da ebatzi soilik nazioarteko katalogazio-erregeleri begiratu, hots, esanaz formarik arruntena eta erabiliena hautatu behar dela. Izan ere, Euskal Herriaren historiaren ondorioz euskara ez da hizkuntza ofiziala izan duela oso gutxira arte eta, gainera, hamarkada luzetan espresuki debekatua egon da euskal izenak erabiltzea edo euskal deiturak euskal ortografiaren arabera idaztea: gaztelarazko edo frantseseko grafiak ziren ofizialki onartzen ziren barrak. Horrek distorsio ikargarriak ekarri dizkio euskal onomastikari.

Halaber, duela gutxira arte ez da egon euskal ortografia baturik eta, beraz, testuinguru ez-ofizialetan ere berriki arte ez da egon euskal deiturak euskaraz idazteko forma arrunt eta ezagunik. Horrek esan nahi du ez dela erraza aurkitzea onarpen zabala duen autoritate-zerrendarik eta, beraz, oraingoz zalantza handiak izaten direla pertsona baten izen-deituraren forma erabakitzeke.

Laburbilduz, euskal onomastikaren arazoez soluzio bat behar dute nazioarteko katalogazio-erregelak kontuan hartuz, baina euskal grafiaren normalizazioan Euskaltzaindiak emandako arau eta irizpenak aplikatuz. Horra erregela honen helburua.

1.2. ARGIBIDE OROKORRAK

Hauek dira arazo hori ebazteko kontuan hartu beharreko oinarriak (13):

(13) Oinarri horien gaineko azalpena eta hausnarketa, hemen: Gartzia, P., «Azkie Bibliotekaren katalogoa (ABK) : euskal deituren sarrera nagusiez», in *Euskeraz*, 45. libk. (2000, 1), 319-342 or.

- a) Hizkuntza bakoitzak bere ortografia du eta horren modernizatzea fenomeno unibertsala da: neurri batean edo bestean aldiro-aldiro munduko hizkuntza guztietan gertatzen da.
- b) Duela gutxira arte euskara ez da inoiz hizkuntza ofiziala izan eta horrek distortsio handiak ekarri dizkio euskal onomastikari.
- c) Euskal ortografia modernoa 1968an erabaki zen eta 1998ra arte ez zen hartu erabaki sistematikorik euskal deituren grafiaz. Horrek atzerapen handia ekarri dio euskal deituren normalizazio prozesuari.
- d) ABK osorik euskaraz egindako katalogoa da, hain zuzen ere bere erabiltzaile naturalak euskaldun ikasiak direlako.
- e) Nazioarteko katalogazio-arauei segituz sarrera nagusiak erabiltzaileen artean arruntak eta zabalduenak izan beharko lirateke (ikus AACR2r, 22.1. *General Rule*), baina horren aplikazio estuak arazoak sortzen ditu.
- f) Biblioteka-katalogoetan hizkuntza bakoitzaren ortografia normalizatua erabili ohi da, sarrera nagusietan bederen gaur egun zuzenak ez diren formak baztertuz.
- g) Gure kasuan bereziki kontuan hartu behar da nazioarteko katalogazio-erregelen arabera pertsona baten sarrera nagusia egiteko bi grafien artean hautatu behar baldin bada, ortografia-aldaketa ofizial baten ondorioz finkatutako forma hautatu behar dela (ikus AACR2r, 22.3D *Spelling*).
- h) Katalogoaren tinkotasuna eta koherentzia zaintzea ezinbestekoa da, ez baita logikoa, salbuespenak salbuespen, hizkuntza bereko terminoak ortografia desberdinen arabera idaztea. Adibidez, inkoherentea litzateke gai-sarrerak eta sarrera nagusiak arau ortografiko desberdinen arabera idaztea, edota hizkuntza bereko leku-izenak idazteko bizpahiru grafia desberdin erabiltzea, edota hitz berbera leku-izena denean modu batera idaztea eta deitura denean beste batera (*Nebrija* eta **Nebrixa*, edo *Etxarri* eta **Echarri*). Arazo honek ez du zerikusirik euskalkien arteko desberdintasunekin, zeintzuk, Euskaltzaindiaren erabakiei jarraiki, beren lekua baitute euskara batuaren baitan (adibidez, *Aranburu* eta *Haranburu*, biak dira zuzenak; ez, ordea, **Arámburu* edo **Harambourou*).
- i) Deitura-aldaketa eta deituraren forma-aldaketa (gehienetan grafia-aldaketa hutsa) bi gauza desberdin dira. Erregela hau grafia arazoei buruzkoa da, ez deitura- edo izen-aldaketei buruzkoa.

Oinarri horietatik hiru ondorio nagusi atera ditzakegu:

- a) Gainetiko edozein hizkuntzatan bezala, salbuespenak salbuespen euskal deiturak euskal ortografian idatzi behar dira, hots, espainierazko

deiturak espainierazko ortografian, frantsesezko deiturak frantsesezko ortografian edota ingelesezko deiturak ingelesezko ortografian idatzi ohi diren bezala. *Cervantes* edo *Shakespeare* deiturak ez dira hizkuntza batetik bestera aldatzen, beti grafia berean ematen baizik. Halaber, gaur egun sistematikoki grafia **modernoan** ematen dira, ez dagoeneko indarrean ez diren arau ortografikoen arabera: adibidez, *Cervantes* eta ez egileak berak erabiltzen zuen **Çerbantes*, edota *Leizarraga* eta ez beronek erabiltzen zuen **Leiçarraga*. Horrek esan nahi du euskal deiturak normalizatzeko ahalegin sistematiko bat egin behar dela.

- b) Ponte-izenen edota goitzenen forma eta grafia, aldiz, salbuespenak salbuespen ez da normalizatuko, ez baitago horretarako pisuzko arrazoirik. Beraz, nazioarteko katalogazio-erregelen arabera egilearen hautua eta euskaldun ikasien gaur egungo erabilera baino ez dira kontuan hartu behar.
- c) Egile baten izen edo deitura aldaketari dagozkion arazoak nazioarteko katalogazio-erregelen arabera ebatziko da, aparteko oharririk gabe.

Beraz, erregela honetan, funtsean, euskal deituren grafia desberdinen artean bat hautatu beharraz jardungo gara, hautapen hori gauzatzeko irizpideak emanaz.

1.3. ERREGELA OROKORRA

Oinarri horiei segituz, hauxe da erregela orokorra. Beronen aplikaziorako zehaztapenak eta salbuespenak hurrengo ataletan aipatuko dira.

Hauxe da oinarrizko erregela, bost puntutan banatuta:

1. Sarrera nagusi gisa euskal herritarren euskal deiturak euskal grafian idatziko dira. Horretarako *Nomenclátor de apellidos vascos = Euskal deituren izendegia* (Euskaltzaindia, 1998) erabiliko da.
2. Gaietiko kasu guztietan nazioarteko bibliotekonomia-arauen ohiko praxiari begiratuko zaio, erreferentzia-iturri gisa munduko biblioteka nagusiak erabiliz.
3. Orobat, ponte-izenak zehazteko kasu guztietan egilearen hautuari eta euskaldun ikasien gaur egungo erabilerari begiratuko zaio soilik, hots, izenik edo formarik arruntena eta erabiliena hautatuko da, edonolako bada ere (hipokoristikoa, txikikaria, etab.).
4. Zalantza kasuetan Azkue Biblioteka batzordeak erabakiko du, beharrezkoa izanez gero Onomastika batzordearen irizpena eskatuz.
5. Kasu guztietan beharrezkoak liratekeen bigarren sarrera guztiak egin-go dira erabiltzaileen bilaketak errazteko. Dokumentatutako izen eta forma desberdin guztien bigarren sarrera bat egiteaz gain, kontuan har-

tuko dira, bereziki, erdal grafia baten edo euskal grafia ez-akademiko baten erabilerak sor ditzakeen aldaera posible guztiak.

Hauek dira erregela horren zenbait adibide:

Mitxelena, Koldo (1915-1987)

- X: Michelena, Luis (1915-1987)
- X: Michelena Elissalt, Luis (1915-1987)
- X: Adiskide-berri (1915-1987)
- X: Elizalde (1915-1987)
- X: Michelena, L. (1915-1987)
- X: Mitxelena Elissalt, Luis (1915-1987)
- X: Mitxelena Elissalt, Koldo (1915-1987)
- X: Michelena Elissalt, L. (1915-1987)

Mourlane Mitxelena, Pedro (1885-1955)

- X: Mourlane Michelena, Pedro (1885-1955)

Agirre Lekube, Jose Antonio (1904-1960)

- X: Aguirre Lekube, José Antonio (1904-1960)
- X: Aguirre y Lecube, José Antonio de (1904-1960)
- X: Azpilikoeta, Dr. (1904-1960)
- X: Agirre y Lekube, José Antonio (1904-1960)
- X: Agirre-Lekube'tar, Joseba Andoni (1904-1960)

Etxebarria, Toribio (1887-1968)

- X: Etxebarria Ibarbia, Toribio (1887-1968)
- X: Echevarría, Toribio (1887-1968)
- X: Echebarría, Toribio (1887-1968)
- X: Arratetiko bat (1887-1968)

Lafitte, Piarres (1901-1985)

- X: Ikusgarria (1901-1985)
- X: Ithurralde, Piarres (1901-1985)
- X: Iturralde, Pierre (1901-1985)
- X: Lafitte Ithurralde, Pierre (1901-1985)
- X: Lafitte, Pierre (1901-1985)

1.4. ZENBAIT ZEHAZTAPEN

Erregelari ondoko zehaztapenak gehituko zaizkio:

1. Euskal herritarren erdal deiturak nazioarteko arauen arabera idatziko dira, aparteko oharrik gabe. Adibidez:

Casenave-Harigile, Junes (1924-)

- X: Casenave Harigile, Junes
- X: Cazenave-Harigile, June

Kintana, Xabier (1946-)

- X: Quintana Urtiaga, Xabier
- X: Kintana Urtiaga, Xabier
- X: Kintana, Xavier
- X: Quintana Urtiaga, Francisco Javier

Quintana, Calixto

- X: Kintana, Calixto

2. Ez da grafia zaharkiturik onartuko. Euskarari dagokionez, grafia zaharkituzat 1998ko *Euskal deituren izendegia*-n zehaztutako idazkera akademikoarekin bat ez datorren guztia ulertu behar da: *ç* letra, *r* eta *l* gangardunak, *Mujika*, *Urkijo*, *Garzia*, *Elorza* edo *Alzola* bezalako grafia ez-akademikoak, etab. Adibidez:

Urkixo, Julio (1871-1950)

- X: Urquijo e Ibarra, Julio de (1871-1950)
- X: Urquijo e Ybarra, Julio de (1871-1950)
- X: Urquijo e Ibarra, Julio Gabriel de (1871-1950)
- X: Urquijo, J. de (1871-1950)
- X: Urkijo, J. (1871-1950)
- X: Urquijo-koa, Julio (1871-1950)
- X: J. de U. (1871-1950)
- X: Urkixo Ibarra, Julio (1871-1950)

Alzola, Nikolas (1923-1982)

- X: Alzola, N. (1923-1982)
- X: Alzola Gerediaga, Nikolas (1923-1982)
- X: Alzola Guerediaga, Nicolás (1923-1982)
- X: Alzola Gerediaga, N. (1923-1982)
- X: Alzola Gerediaga, M. B. (1923-1982)
- X: Oxiñondoko Txoria (1923-1982)
- X: Ozerin-Jauregui (1923-1982)
- X: Bitaña-Echebarria, Pedro José de (1923-1982)
- X: Parral, V. del (1923-1982)
- X: Cortázar, N. de (1923-1982)
- X: Berriotxo, Anaia (F.S.C.) (1923-1982)
- X: Berriochoa, Valentín de (1923-1982)
- X: Berriotxo, Valentin, Anaia (F.S.L.) (1923-1982)
- X: Alzola, N. (1923-1982)

- X: Bitaña (1923-1982)
- X: Markue (1923-1982)
- X: Al Iburreta (1923-1982)
- X: Altzarte (1923-1982)
- X: Bidaurreta (1923-1982)
- X: Dolometa (1923-1982)
- X: H. V. B. (1923-1982)
- X: N. A. G. (1923-1982)
- X: Tontorreko Mikolaitz (1923-1982)

3. Euskal herritar ez diren euskal deituradunen grafia bere horretan utzi-ko da. Adibidez:

Cortázar, Julio (1914-1984)

- X: Kortazar, Julio (1914-1984)

Bryce Echenique, Alfredo (1939-)

- X: Bryce Etxenike, Alfredo (1939-)

4. Euskal deituren izendegiak bi grafia desberdin onartzen dituen kasuetan (*Artzubiaga/Arzubiaga, Lasa/Latsa, Otxoa/Otsoa*, etab.) deituradunaren hautuari begiratuko zaio. Adibidez:

Otxoa de Alda, Jabi

- X: Otxoa de Alda, Jabi
- X: Ochoa de Alda, Jabi

Otxoa, Julia (1953-)

- X: Otxoa, Julia (1953-)
- X: Ochoa, Julia (1953-)

5. Euskal herritarren euskal deituretan, 1800 ondoko pertsonatan ez da onartuko deituraren aurreko, tarteko edo ondoko eranskinik (*-ko, -koa, -tar, de, d', eta, y*). Orobat, 1800 baino lehenagoko egileetan Azkue Biblioteka batzordeak erabakiko du zein den grafia edo forma egokia, beharrezkoa izanez gero Onomastika batzordeari bere irizpena eskatuz. Adibidez:

Unamuno, Miguel (1864-1936)

- X: Unamuno, Miguel de (1864-1936)
- X: Unamuno y Jugo, Miguel de (1864-1936)
- X: Miguel Unamuno-koak (1864-1936)
- X: Unamunokoa, Migel (1864-1936)

Arana Goiri, Sabino (1865-1903)

- X: Arana, Sabino (1865-1903)
- X: Arana-Goiri, Sabino de (1865-1903)
- X: Arana-Goiri'tar, Sabin (1865-1903)
- X: Arana eta Goiri'tar, Sabin (1865-1903)
- X: Arana y Goiri, Sabino de (1865-1903)
- X: Jelalde (1865-1903)
- X: A. eta G.'tar, S. (1865-1903)
- X: Bizkaitar bat (1865-1903)
- X: Bizkatar bat (1865-1903)

Azkue, Resurreccion Maria (1864-1951)

- X: Azkue, Resurrección María de (1864-1951)
- X: Azkue, R. M^a (1864-1951)
- X: Azcue, R. M. de (1864-1951)
- X: Azkue, R. M. (1864-1951)
- X: Azcue, Resurrección María (1864-1951)
- X: Azkue, Resurrección M. (1864-1951)
- X: Azkue, Resurrección M^a (1864-1951)
- X: Azkue, Resurrección M. de (1864-1951)
- X: Azkueko, Resurrección María (1864-1951)
- X: Azkuetar, R. M. (1864-1951)
- X: Azkue Aberasturi, Resurrección María (1864-1951)
- X: Azkue, Abbé d' (1864-1951)
- X: Azkue, Abatea (1864-1951)
- X: R.M.A. (1864-1951)
- X: El Basco (1864-1951)
- X: Eztena (1864-1951)
- X: Ezti-Abaua (1864-1951)
- X: Eketa (1864-1951)
- X: Basozale bat (1864-1951)
- X: Euskalzale (1864-1951)
- X: Tsirrist (1864-1951)
- X: Vascofillo (1864-1951)
- X: Azkúe, Resurrección María de (1864-1951)
- X: Barrundia, J. (1864-1951)
- X: Tertzadun bat (1864-1951)

6. Bereziki Iparraldean hain arruntak diren *d* + *euskal deitura* formei dagokienez, ondokoa da erregela: *d*-a itsasia den kasuetan fosildutzat joko da eta, beraz, bere horretan utziko da; aldiz, *d'* apostrofoarekin idatzi ohi den kasuetan, aurreko erregelari bezala jokatu da, hots, ez da onartuko. Kasu bietan euskal herritarren euskal deiturak euskal grafian idatziko dira. Adibidez:

Abadia, Anton (1810-1897)

- X: Abbadie, Antoine Thompson d' (1810-1897)
- X: Abbadie, Antoine d' (1810-1897)
- X: Abbadie d'Arrast, Antoine d' (1810-1897)
- X: Abbadia, Anton (1810-1897)
- X: Abbadia, Antoine Thompson (1810-1897)
- X: Abbadia, Antonio (1810-1897)
- X: Abadia, Antonio de (1810-1897)
- X: Abbadia, Antoine (1810-1897)
- X: Abbadie, Anton d' (1810-1897)
- X: Abadie, Antonio d' (1810-1897)
- X: Abadi, Antoin (1810-1897)
- X: Subernotarra (1810-1897)

Durruti, Simon

- X: Durruty, Simon (Curé de Domezain)

7. *Patronimikoa + de + toponimoa* deiturak dituzten euskal herritarren kasuan (*Diaz de Zerio/Diaz Zerioko, Martinez de Eulate/Martinez Eulateko*, etab.), toponimoa beti euskal grafian jarriko da. Aldiz, *de* ala *-ko* erabili behar den erabakitzeke 1800 ondoko egileetan deituradunaren hautuari begiratuko zaio. Zalantzazko kasuetan Azkue Biblioteka batzordeak erabakiko du zein den grafia edo forma egokia, beharrezkoa izanez gero Onomastika batzordeari bere irizpena eskatuz. Adibidez:

Otsoa Eribeko, Agustin

- X: Otsoa de Eribe, Agustin
- X: Otxoa de Eribe, Agustin
- X: Ochoa de Eribe, Agustin

Lopez de Gereñu, Gerardo (1904-1992)

- X: López de Guereño Galarraga, Gerardo (1904-1992)
- X: López de Guereño Galarraga, Gerardo (1994-1992)
- X: Lz. de Guereño, Gerardo (1994-1992)

8. Euskal deituretan onartzen den aldaketa bakarra grafia gaurkotzea da, baina deitura bera aldatu gabe. Bereziki azpimarratzen dugu horrek esan nahi duela deiturak ez direla irizpide etimologikoen arabera aldatuko. Adibidez:

Rekalde, Jose Ramon (1932-)

- X: Errekalde, José Ramón (1932-)
- X: Recalde, José Ramón (1932-)

Errazkin, Luis

X: Errazquin, Luis

Paniagua Razkin, Genaro

X: Paniagua Razquin, Genaro

Txabarri, Victor (1854-1900)

X: Chávarri y Salazar, Victor (1854-1900)

Gonzalez de Etxabarri Castañeda, Vicente (1859-1917)

X: González de Echávarri, Vicente (1859-1917)

X: Rivacherá (1859-1917)

X: Gz de Echavarri, Vicente (1859-1917)

X: Gónzalez de Echávarri y Castañeda, Vicente (1859-1917)

9. Orobat, euskal deiturak ez dira itzuliko edo eguneratuko. Alegia, *Bilbao* deitura ez da *Bilbo* bihurtuko, edo *San Sebastian* deitura ez da *Donostia* bihurtuko, eta abar.
10. Transliterazioak sortutako arazoak bereziki korapilatsuak direnean Azkue Biblioteka batzordeak erabakiko du, erreferentzia nagusitzat Estatu Batuetako Kongresuko Biblioteka erabiliz. Adibidez:

Mao, Zedong (1893-1976)

X: Mao, Tse-Tung (1893-1976)

X: Mao, Ts'e (1893-1976)

X: Mao, Tsé Toung (1893-1976)

X: Mao, Tsetung (1893-1976)

X: Mao, Tse-tung (1893-1976)

Dostoyevsky, Fyodor (1821-1881)

X: Dostoievski, Fedor Mijailovich (1821-1881)

X: Dostoiewski, Fedor Mijailovitch (1821-1881)

X: Dostoevsky, Fedor Mijailovich (1821-1881)

X: Dostoevski, Fedor Mikhailovitch (1821-1881)

X: Dostoevskii, Fiodor Mijaïlovich (1821-1881)

X: Dostojevskij, Fjodor (1821-1881)

X: Dostoevsky, F'odor (1821-1881)

X: Dostojevski, Ferdor M Mikhailovich (1821-1881)

X: Dostojewskij, Fyodor (1821-1881)

11. Euskal Herriko Erdi Aro eta Aro Berriko egileetan, alegia, 1800 urrekoak, Azkue Biblioteka batzordeak erabakiko du zein den sarrera nagusiaren grafia edo forma egokia, beharrezkoa izanez gero Onomastika batzordeari bere irizpena eskatuz Adibidez:

Salazar, Lope Gartzia (1399-1476)

- X: García de Salazar, Lope (1399-1476)
- X: Salazar, Lope García de (1399-1476)
- X: García Salazar, Lope (1399-1476)
- X: Salazar, Lope García (1399-1476)

Lazarraga, Joan Perez (1547-1605)

- X: Pérez de Lazárraga, Juan de (ca.1550-1605)
- X: Lazarragakoa, Joan Perez (ca. 1550-1605)
- X: Joan Perez Lazarragako (ca.1550-1605)
- X: Poeta, El

12. Ponte-izen edota goitizenak ez dira normalizatuko, forma desberdinen artean aukeratu behar izatekotan izendunaren hautuari eta euskaldun ikasien gaur egungo erabilerai begiratuko zaiolarik. Adibidez, *José / Jose / Joxe / Joseba / Yoseba / Ioseba*, edo *Ignacio / Inazio / Iñazio / Iñaki*, edo *Juan / Joan / Jon / Yon / Joanes*, edo *Juan Maria / Juan María / Juan M^a / Juan Mari*, eta abar, guztiak dira onargarriak, kasu bakoitzean izendunaren hautuari eta euskaldun ikasien gaur egungo erabilerari begiratuko zaiolarik. Horrela, *Jose Mendiaga, Joxe Azurmendi, Jose Antonio Agirre Lekube, JosAnton Artze, Joxe Austin Arrieta*, edo *Xipri Arbelbide, Patziku Perurena, Antxon Agirre Sorondo, Arantxa Iturbe, Maritxu Urreta*, etab.

1.5. ERREGELAREN SALBUESPENAK ETA KASU BEREZIAK

Aurreko atalean zehaztu diren irizpideez gain, ezaguna da Onomastikaren alorrean etengabe aurkitzen direla kasu bereziak, hots, irizpide arruntak erabiliz egokiro ebatzi ezin diren kasuak. Mota horietako kasuak gutxi batzuk dira baina ezinbestekoa da haien gaineko aipamen esplizitua egitea. Funtsean, bi multzotan bil daitezke:

1.5.1. Pseudonimoak edo izen artistikoak

Jakina denez, hainbat egilek izen artistiko bat erabiltzen dute beren lanak sinatzeko. Egilea izen horren bitartez ezaguna bada, alegia, erabilerari ugarria eta koherentea dagoenean, pseudonimoak bere horretan utziko dira, euskal deiturak edo leku-izenak izan arren. Adibidez:

Celaya, Gabriel (1911-1991)

- X: Zelaia, Gabriel (1911-1991)
- X: Múgica, Rafael (1911-1991)
- X: Muxika, Rafael (1911-1991)
- X: Leceta, Juan de (1911-1991)

Uranzu, Luis de (1894-1968)

- X: Rodríguez Gal, Luis (1894-1968)
- X: Urantzu, Luis de (1894-1968)

1.5.2. Grafia fosilduak

Zenbait egileren deitura arrunki grafia ez-akademikoan eman ohi da eta badirudi zein bere forma berezian fosildu dela, ezen ortografia akademikoa ezartzeko saioak ez baitute arrakastarik izan euskaldun ikasien artean, eta ez dirudi aurrerantzean ere izango duenik.

Kasu garbienetako bat *Pedro Axular* da. Ezaguna denez, *Axular* bere jaiotetxearen izena da. Ez dugu hemen eztabaidatuko sarrera nagusizat aitarengandik zetorkion deitura hartu behar ote den (*Agerre / Dagerre*) ala bere jaiotetxetik zetorkiona, ponte-izentzat *Pedro*, *Pierre* edo *Piarres* erabili behar ote den, edo izen-deiturari bestelako eranskinik paratu behar ote zaizkion (amaren deitura, *de* edo *d'* tartekia, *Navarrois* ezizena, etab.). Alegia, katalogazio-erregela honetan argitu behar duguna soilik euskal deituren grafia denez gero, ontzat emango dugu *Pedro Axular* dela sarrera nagusiaren oinarritzat erabili behar dugun izen-deitura, eta hauxe baino ez dugu eztabaidatuko: *Axular* deituraren grafia gaurkotu behar ote da?

Gaur egun gauza jakina da *Axular* grafia zahar bat dela eta, berez, *Atsular* ahoskatu behar dela. Alegia, inguru horretako euskaldunek gaur egun (eta, beraz, baita XVII. mendean ere) *Atsular* ahoskatzen dute etxe horren izena. Hori dela-eta, sasoi batean ez zen arraroa euskarazko testuetan *Atsular* idatzita ikustea; adibidez, Jon Etxaidek eta Luis Villasantek ere aitortzen dute inoiz edo beste erabili izan dutela grafia hori, bi-biek gaineratzeko, finean, *Axular* idazkera hobetsi zutela (14). Beraz, egon zen saio bat Axularren grafia gaurkotzeko (*Atsular* proposatuz) baina saio horrek ez zuen arrakastarik izan euskaldun ikasien artean. Ondorioz, 1970etik aurrera *Axular* da testu-mota guztietan ikusten den grafia bakarra, bai euskaraz, bai gaztelaniaz zein frantsesez. Zinez esan dezakegu grafia hori fosildu egin dela eta gaur egun ikusten den bakarra dela, salbuespenik gabe.

(14) Etxaide, Yon: *Amasei seme Euskalerrri'ko*, Zarautz: Itxaropena, 1958, 21 or. eta Villasantek, Luis: *Axular: mendea, gizona, liburua*, Oñati: Ed. Franciscana Aranzazu, 1972, 24 or.

Ez da hori kasu gehienetan gertatu dena. Alderantziz, *Etxepare*, *Leizarraga* edo *Oihenarten* kasuetan, adibide hurbil batzuk jartzearen, kontrakoa gertatu da: beren jatorrizko grafia gaurkotu egin da eta, gaur egun, euskal grafia modernoaren arabera idazten dira beti, euskarazko testuetan bederen (erdarazkoetan ere gehienetan). Gorago esan dugunez ere, badirudi hori dela euskal idazle klasiko gehienen kasua eta joera hori bat datorrela gure inguruko hizkuntzen usadioekin.

Beraz, *Axular* grafia zaharraren arabera idaztea ez da araua, salbuespena baizik, erregela guztietan aurkitu ohi den salbuespena, areago Onomastikaren esparruan. Beste horrenbeste esan daiteke, adibidez, Pio Barojaren deiturari buruz, zeina *Euskal deitura izendegia*-ren arabera *Baroxa* idatzi beharko litzatekeen: garbi dago kasu honetan ere grafia zaharra guztiz gailentzen zaio-la berriari.

Halaber, azpimarratu behar da euskal onomastikaren historia kontuan izanik ez dela arraroa hainbat zalantza agertzea eta, inoiz edo beste, erregelaren salbuespentzat jo behar izatea. Azkue Biblioteka batzordeari dagokio erabakitzea grafia bat noiz jo behar den fosildutzat, beharrezkoa izanez gero Onomastika batzordearen irizpena eskatuz.

1.6. BANAKO EGILEEN BIGARREN DEITURARI BURUZ

Sarri zalantzak izaten dira erabakitzeko sarrera nagusian noiz jarriko den deitura bat eta noiz bi. Arazo hori konpontzeko bi irizpide hartuko dira: lehenengo eta behin, egilea nola den arrunki ezaguna gaur egungo euskaldun ikasien artean, deitura bat ala birekin; irizpide hori garbia ez denean, egilearen beraren erabilerari begiratuko diogu (hots, nola izenpetzen zituen liburuak, deitura batekin ala birekin). Zalantzak segitzen badu, bi deitura jarriko dira.

Iparraldeko egileekin arreta berezia jarri behar da. Izan ere, arrunki ez dute bigarren deiturarik erabiltzen, baina Hegoaldeko ohiturari segituz, askotan bigarren deitura bat *esleitzen* zaie, mimetismo hutsez eta oinarri garbirik gabe, deitura bakarra behar denean.

Orobat, eta Iparraldeari dagokionez ere bereziki, bada beste ohitura bat aski zabaldua: deitura bikoitza erabiltzea, adibidez, *Jean Hiriart-Urruti*. Kasu horretan deitura bakarra da, baina bi deituren batuketatik sortua. Kasu horietan bi zatien arteko gidoia jarriko da. Berdin Iparraldekoak ez direnen kasuetan ere.

Hauek dira adibide batzuk:

Baroja, Pio (1872-1956)

X: Baroja Nessi, Pío (1872-1916)

Caro Baroja, Julio (1914-1995)

X: Caro, Julio (1914-1995)

Hiriart-Urruti, Jean (1927-1990)

X: Hiriart-Urruty, Jean (1927-1990)

X: Hiriart Urruty, Jean (1927-1990)

Lhande, Pierre (1877-1957)

X: Lhande Heguy, Pierre (1877-1957)

X: Lhande Hegi, Pierre (1877-1957)

X: Lande, Pierre (1877-1957)

X: Lhande, P. (1877-1957)

X: Lhande, Pedro (1877-1957)

X: Lhande, Petiri (1877-1957)

1.7. TILETAREN ERABILERARI BURUZ

Jakina denez, nazioarteko katalogazio-erregelen arabera tiletak (hots, azentu-markak) hizkuntza bakoitzaren arau ortografikoaren arabera ezarriko dira, informazio-iturrian agertzen ez badira ere (ikus AACR2r, 1.0G. *Accents and other diacritical marks*). Horrek esan nahi du Onomastika alorreko terminoetan ere ezarriko direla, terminoaren jatorrizko hizkuntzaren arau ortografikoen arabera: frantsesezkoak frantses arauen arabera, alemanezkoak aleman arauen arabera, eta abar.

Baina Onomastikaren alorrean zailtasun berezi bat sortzen da, alegia, xede-hizkuntzak sor hizkuntzaren hainbat termino neurri batean bereganatuztat jotzen ditu eta, beraz, aldatu egiten du jatorrizko idazkera, bereziki tiletari dagokionez. Adibidez, *Paris* toki-izena gaztelaniaz tiletarekin idazten da (*París*), frantsesez ez bezala, gaztelaniak bereganatuztat jotzen duelako. Ez dira kasu ugari, baina bai kontuan hartu beharrekoak. Euskararen kasuan, gaztelaniaren kasuan bezala (ikus Real Academia Española: *Ortografía de la lengua española*, Edición revisada por las Academias de la Lengua Española, Madrid: Espasa, 1999) toki-izenen zerrenden bidez konpontzen da auzia, horietan zehazten baita zeintzuk jo behar diren guztiz bereganatuztat eta zeintzuk ez.

Euskal onomastikaren historiaren ondorioz Euskal Herriko egileen deiturretan oraindik askoz ere problema handiagoak sortzen dira. Izan ere, ez dago dudarik erromantzezko jatorria duten deitura asko euskarak bereganatuztat jo beharko liratekeela, Erdi Arotik aurrera masiboki dokumentatzen baitira euskaldunen artean. Hori da *Martinez*, *Lopez* edo *Perez* bezalako deituren kasua.

Ponte-izenekin ere antzera gertatzen da: nekez defendi daiteke *Maria*, *Jose* edo *Jesus* bezalako izenak arrotzak zaizkiola euskarari, mendez mende

dokumentatzen baitira euskaldunen artean. Askoz ere zentzuzkoagoa da esatea euskarak bereganatu dituela eta, beraz, beraiekin ez dela zertan erabili gaztelaniazko ortografia modernoa, bereziki tiletari dagokionez eta, areago, jatorrizko iturrian askotan aurkitzen ez denean.

Gauzak horrela, hots, *Jose* bezalako ponte-izenak edo *Lopez* bezalako deiturak euskarak bereganatuzat jo behar badira, garbi dago izen horiek bi grafia zuzen izango dutela, bata gaztelaniazkoa (tiletaduna) eta bestea euskarazkoa (tilet gabea). Zein erabili kasu bakoitzean?

Baina bada arazoa korapilatu egiten duen beste kontu bat: sarritan jatorrizko dokumentuetan (adibidez, Espainian argitaratutako liburu askotan) ez da tiletik erabiltzen sistematikoki, gaztelaniaren ortografia-arauen kontrakoa izan arren. Kasu horietan tileta beti gaztelaniaren ortografia-arauen arabera berrezarri behar da?

Galderei erantzunez, hau da erregela: kasu guztietan lehenengo eta behin egilearen hautuari begiratuko zaio, baina egilearen hautua garbia ez denean, ondoko irizpideak aplikatuko dira:

- a) Euskal Herrikoak diren egileetan, egilearen hautuari begiratuko zaio, baina zalantzazko kasuetan ez da tiletik ezarriko. Bereziki, 1900 aurrerako egileetan tileta salbuespen gisa erabiliko da soilik.
- b) Euskal Herrikoak ez diren egileetan, erreferentzia gisa munduko biblioteka nagusiak erabiliko dira.
- c) Azkue Biblioteka batzordeak erabakiko du izen edo deitura bat euskarak bereganatuzat jo behar den ala ez, beharrezkoa izanez gero Onomastika batzordeari irizpena eskatuz.

Adibidez:

Martinez de Marigorta Ortiz de Zarate, Jose

X: M. de Marigorta, J.
X: Martínez de Marigorta, José

Perez de Eulate, Ester

X: Pérez de Eulate, Ester
X: Pérez de Eulate, Esther

Pérez Galdós, Benito (1843-1920)

1.8. SARRERA NAGUSIEN ETENGABEKO ZUZENKETA ETA EGU- NERATZEA

Erregelaren hasieran aipatu da ezinbestekoa dela ahalegin berezi bat egitea euskal herritarren euskal deituren grafia euskararen arau ortografiko modernoan arabera normalizatzeko. Izan ere, arrazoi historikoengatik distortsio handiak gertatu dira euskal onomastikan eta haren normalizazio-prozesua oso berandu abiatu da. Beraz, ezinbestekoa da irizpide orokor batzuk onartzea eta ezartzea gaur egungo anabasatik ateratzeko.

Baina emaitza oro har ona bada ere, irizpide horien ondorio guztiak ezin dira erabat aurreikusi eta, beraz, ezinbestekoa da aldiro-aldiro katalogoa beraztertzea hutsak, okerrak edota errakuntzak zuzentzeko. Espero izatekoa da urteen poderioz etengabeko azterketak eta zuzenketak eginez, oraingo hutsak leunduz eta konponduz joango direla.

Bereziki azpimarratzekoa da egileren batek bere sarrera nagusiaren formarekin ados ez dagoela adieraziko balu, Azkue Biblioteka batzordearen proposamenez aldatuko litzatekeela, egile horren autoritate-sarreran ohar bat eginez.

2. EGILE KORPORATIBOEN SARRERA NAGUSIA

2.1. ERREGELA HONEN ZERGATIEZ

Sarritan zalantza handiak izaten dira erakunde edota elkarteen sarrera nagusia egiteko, bereziki Euskal Herrikoak direnean. Izan ere, nazioarteko katalogio-erregelatan erabiltzen diren irizpideak ezin dira modu erraz batean euskarazko katalogo batean aplikatu. Hots, katalogazio-erregela guztietan aipatu ohi den arau nagusia (katalogo horren erabiltzaileen artean arruntena eta erabiliena den izena, zeina arrunki izen ofiziala izan ohi den) euskararen kasuan askotan ez dator bat delako korporazioaren izen ofizialarekin. Adibidez, eta jakina denez, salbuespenak salbuespen Ipar Euskal Herriko erakundeek ez dute euskarazko izen ofizialik, gaur egungo euskaldun ikasien artean kasuan kasuko euskarazko izenaren arabera ezagunak eta hitzetik hortzera aipatuak badira ere. Era horretako kasuak hizkuntza guztietan gertatzen badira ere, euskararen normalizazio berantiarrak eta zenbait alorretako ofizialtasun gabeziak zaildu eta korapilatzen du egile korporatibo bakoitzari esleitu beharreko sarrera nagusiaren zehaztapena.

Orobat, delako korporazioaren izenaren ofizialtasuna alde batera utzirik ere, bada beste katramilarik. Adibidez, arazoa zertan den ulertzeko azpimarratu beharra dago asko eta asko direla euskaldunen artean ahozko mailan euskarazko izen baten bitartez ezagutzen diren talde, elkarte, edo dena delako korporazioak, baina euskararen bazterketa historikoaren eta normalizazio berantiarraren ondorioz izen horiek gutxitan gainditzen dutela lagun arteko maila kolokiala eta, beraz, normalean ez direla idazten. Horien ordez idatzizko mailan gaztelaniazko/frantsesezko izen formalak erabiltzen dira edo, sarritan ere, euskarazko aldaera *formalago* bat, urte luzez arrotza egiten zaiona euskaldun arruntari, nolabaiteko arrakasta erdiesten duenean ere. Beraz, sarritan, ez dago euskarazko forma bat, guztiok ezagutzen eta erabiltzen dutena, baizik eta bi, hiru, lau... baina batzuk oso kolokialak (eta hortaz, ez dira idazten) eta beste batzuk oso *jasoak* (eta hortaz, ez dira apenas erabiltzen, testuinguru oso formaletatik kanpo). Gaur egun egoera hori poliki-poliki gainditzen ari bada ere, zinezko normalizazioa oraingoz urrun dago.

Esandakoaren erakusgarri har dezagun, adibidez, azken hamarkadatan herri eta auzo askotan sortutako *koru* edo *koralak*, horrela deitzen baitzaien maila kolokialean Hego Euskal Herrian; sarritan izen *ofizialzat* gaztelaniazko bat baino ez dute (eta, ondorioz, hori izaten da idatzizko mailan erabiltzen dena), baina euskarazko izen nolabait ofiziala dutenean ere, *abesbatza*, *abestalde* edo antzekoak erabiltzen dira (batzuk nahikoa bitxiak, adibidez, *abes-batza*, *abes-patza*, *abes-talde*, *eres-patza*, *eres-batza*, *eres-patza*, *abeslari-bazkun*, *abeslari-talde*, etab.). Gaur egun, eta euskararen normalizazio gero eta handiagoaren ondorioz, *abesbatza* nahikoa zabaldu da eta esango genuke euskaldun ikasien artean terminorik erabiliena dela (idatzizko mailari dagokionez). Horrek ez du

esan nahi, ordea, Euskal Herriko abesbatza guztiek *abesbatza* hitza sartu dutenik beren izenean, besteak beste askok oraingoz ez dutelako euskarazko izen *ofizialik* edo, daukatenen artean ere, euskara batukoak diren *korua*, *korala* edo *orfeoia* bezalako terminoak baita ere erabiltzen direlako. Edota, baita ere, oraingoz maila formalean bizirik daudelako sasoi bateko terminoak, *abeslari-bazkun* bezalakoak, gaur egun zaharkituzat jotzen ditugunak. Nola deitu, beraz, bere euskarazko izena maila guztietan (ahoz zein idatziz) arrunta bihurtzea oraingoz lortu ez duen *abesbatza*?

Laburbilduz, egile korporatiboen izena normalizatzea prozesu luzea izango da. Erregela honetan irizpide batzuk zehaztuko dira baina horrek ez ditu arazo guztiak konponduko.

2.2. ARGIBIDE OROKORRAK

Arau hau ondo ulertzeko, lehenengo eta behin beharrezkoa da kontzeptua zehaztea. Horrela, nazioarteko katalogazio-erregelai jarraiki, euskaraz bi motako egileak bereiztuko ditugu: **banako egileak** eta **egile korporatiboak**. Lehenek ez dute aparteko azalpenen beharrik; bigarrenei buruz esan dezagun honako hau ulertzen dugula:

Egile korporatiboa: Edozein idazlanen erredakzio edo argitalpenaren erantzukizuna duen pertsona juridikoa. Hainbat motatakoa izan daiteke, besteak beste erakundea, elkartea, korporazioa, organizazioa, elkargoa, gobernua, eliza, erlijio-erakundea, alderdia, enpresa, bazkuna, taldea, biltzarra, batzordea, eta abar (15).

2.3. ERREGELA OROKORRA

Hau da erregela orokorra, lau zatitan banatua:

1. Euskal Herriko eta nazioarteko egile korporatiboen sarrera nagusia euskaraz egingo da gaur egungo euskaldun ikasien artean ezaguna eta erabilia den neurrian, berorren ofizialtasunari erreparatu gabe. Gaine-

(15) **Corporate body:** An organization or group of persons that is identified by a particular name and that acts, or may act, as an entity. Typical examples of corporate bodies are associations, institutions, business firms, nonprofit enterprises, governments, government agencies, religious bodies, local churches, and conferences. (AACR2r).

Entidad: Persona jurídica responsable de la redacción o publicación de una obra. (*Reglas de catalogación*, 1995).

Collectivité: Toute organisation ou groupe de personnes ou d'organisations identifié par un nom particulier, y compris les groupes ou manifestations temporaires ayant un nom. (NF Z 44-060) [Frantziako katalogazio erregelak]

tiko egile korporatiboen sarrera nagusia bakoitzari dagokion hizkuntzan egingo da, horretarako munduko biblioteka nagusien katalogoak kontsultatuko direlarik.

2. Izen geografikoak eta parentesi artean ematen diren azalpen guztiak euskaraz emango dira, egile korporatiboaren izena edonolako izanik ere.
3. Euskaltzaindia da sarrera nagusiaren euskarazko forma zuzena zehazteko aintzat hartuko den autoritate gorena. Euskaltzaindiak erabakirik hartu ez duen kasuetan, Azkue Biblioteka batzordeak aukera guztiak aztertu eta behin-behineko forma bat erabakiko du, beharrezkoa izanez gero Onomastika batzordearen irizpena eskatuz.
4. Erregelari ondoko ataletan egiten diren zehaztapenak gehituko zaizkio.

2.4. EUSKAL HERRIKO EGILE KORPORATIBOAK

Euskal Herriko egile korporatiboak hiru taldetan banatuko ditugu:

1. Herri aginteak, hots, lurralde jakin bateko erakunde legegile, betearazle eta judizialak, administrazioaren maila guztietan: auzoa, udala, eskualdea, herrialdea, departamentua, erregioa edota autonomia erkidegoa.
2. Eliza Katolikoarekin lotutakoak, hots, mota guztietako erakunde, ordena erlijioso, organizazio, elkarte edo talde, eta baita beraien egoitza izan ohi den mota guztietako eliza, santutegi, monasterio, ermita eta abar.
3. Gainetiko guztiak. Jakina denez, horien guztien sarrera nagusia egile korporatiboaren izena bera da.

Lehenengo eta bigarren multzoko egile korporatiboen izena beti euskarazkoa izango da. Bigarren sarrerak egingo dira gainetiko forma guztiekin: gaztelaniazkoa, frantsesezkoa, ingelesezkoa, euskarazko aldakiak, eta argigarrira litzatekeen beste edozein.

Hirugarren multzoko egile korporatiboen izena euskaraz izango da iturri nagusian euskarazko forma bat dagoen kasu guztietan. Orobat, euskarazko izena jarriko da erreferentziatzeko iturrietan agertzen den neurrian, hots, gaur egungo euskaldun ikasientzat arrunta eta erabilia den neurrian. Baina egile korporatibo horrek ez badu euskarazko izenik, edota gaur egungo euskaldun ikasien artean erdarazko izen baten bitartez ezagutzen bada, ez da euskarazko izenik asmatuko.

2.5. EUSKAL HERRITIK KANPOKO EGILE KORPORATIBOAK

Euskal Herritik kanpoko egile korporatiboen izenak arrunki erdaraz emango dira, salbu eta ondoko kasuetan:

1. Herri aginteen kasuan, egile korporatiboa estatuburua bada.
2. Nazioarteko erakundeen izenak.
3. Nazio mailatik gorako eliza eta korporazio erlijiosoen izenak.
4. Antzinako zenbait erakunderen izenak: framazonak, Maltako zaldunak, etab...

Azken lau multzo horietan guztietan sarrera nagusia euskaraz jarriko da eta, horretarako, Azkue Biblioteka batzordeak aukera guztiak aztertu ondoren euskarazko izen bat zehaztuko du. Kontuan izanik mota horretako erakundeen artean egon daitezkeen kasu berezi ugariak, salbuespenak egiteko aukera ez da guztiz debekatzen, beti ere gaur egungo euskaldun ikasien erabilerari jarraiki eta nazioarteko katalogazio-erregelen testuinguruan.

Kasu guztietan egile korporatiboen izena zehazteko munduko biblioteka nagusien katalogoak eta autoritate datu baseak kontsultatuko dira.

2.6. ZENBAIT ADIBIDE

Egile korporatiboen artean kasuistika zabala dago. Hori dela eta, zenbait multzo aipatuko dira, horietan hainbat irtenbide proposatuz. Kasu batzuetan aski garbi dago erabakia; beste batzuetan, ez horrenbeste. Beraz, aipatzen diren adibideak goiko irizpideen osagarri eta erakusgarri dira, baina ez dute gaia agortzen.

Halaber, kontuan har bedi orain dela gutxira arte euskarazko izenik izan ez duten Euskal Herriko korporazio asko poliki-poliki ari direla euskarazko izena bereganatzen eta euskaldunen artean ezagutarazten, hots, normalizatzen. Beraz, hainbat kasutan orain ematen diren soluzioak agian euskararen normalizazio-prozesuaren ondorioz aldatu behar izango dira gerora.

2.6.1. Elkarteak

Rosa Sensateko irakasle taldea

Arturo Campion Kultur Elkarteak

Bizkaiko Emakumeen Asanblada

X: Asamblea de Mujeres de Vizcaya

Asociación Alavesa de Miniaturas y Maquetas

Euskal Artisten Elkarte

X: Asociación de Artistas Vascos

Asociación Española de Lingüística Aplicada

2.6.2. Udalak

Abadiño. Udala

X: Abadiano. Ayuntamiento.

Errenteria. Udala

X: Orereta. Udala

X: Rentería. Ayuntamiento

Iruñea. Udala

X: Iruña. Udala

X: Pamplona. Ayuntamiento

Baiona. Udala

X: Bayonne. Mairie

X: Bayona. Ayuntamiento

Madril (Hiriburua). Ayuntamiento

Bartzelona (Hiriburua). Ajuntament

X: Barcelona. Ayuntamiento

2.6.3. Gobernuak

Andaluzia. Consejería de Cultura

Aragoi. Departamento de Cultura y Educación

Katalunia. Departament de la Presidència

Argentina. Ministerio de Obras Públicas

Andorra. Consell General

Estatu Batuak. War Department

2.6.4. Akademiak

Euskaltzaindia

- X: Real Academia de la Lengua Vasca
- X: Académie de la Langue Basque

Real Academia Galega

Real Academia Española

Euskal Gastronomi Akademia

- X: Academia Vasca de Gastronomía

Academia de la Llingua Asturiana

Real Academia de Medicina del Distrito de Bilbao

Academia de las Lenguas Mayas de Guatemala

Académie Française

Ceskoslovenska Akademie ved (Praga)

- X: Czechoslovak Academy of Sciences
- X: Académie Tchecoslovaque des Sciences
- X: Academia Scientiarum Bohemoslovaca

Academy of American Franciscan History

2.6.5. Alderdi politikoak, sindikatuak, etab.

Euzko Alderdi Jeltzalea

- X: Euzko Alderdi Jeltzalea
- X: Euzko Alderdi Jeltzalia
- X: Partido Nacionalista Vasco
- X: EAJ
- X: PNV

Partido Socialista Obrero Español

- X: PSOE

Partido Republicano Autónomo de Navarra

Euskadiko Partidu Komunista

- X: Euskadiko Komunista Alderdia
- X: Euskadiko Partido Komunista
- X: Partido Comunista de Euskadi

X: PCE

X: EPK

**Parti Communiste Français. Federation des Pyrenées Atlantiques
(Baiona)**

Eusko Abertzale Ekintza

X: Euzko Abertzale Ekintza

X: Acción Nacionalista Vasca

X: EAE

X: ANV

Ajuria Eneko Ituna (1988)

X: Pacto de Ajuria Enea (1988)

Amnesty International (Espainia)

X: Amnistía Internacional (Espainia)

2.6.6. Elizak, erlijio-korporazioak, etab.

Espainiako Gau Gurkintza

X: Adoración Nocturna Española

Agrupación Sacerdotal Catequística de Estudio y Acción

Agustindarrak

X: Agustinos

X: Agustinas

X: Canónigos Regulares

2.6.7. Unibertsitateak

Adelphi University

Euskal Herriko Unibertsitatea

X: Universidad del País Vasco

X: EHU

X: UPV

Deustuko Unibertsitatea

X: Universidad de Deusto

Nafarroako Unibertsitatea

X: Universidad de Navarra

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

X: Universidad Pública de Navarra

X: UPNA

X: NUP

2.6.8. Kultur elkarteak**AEK**

X: Alfabetatze ta Euskalduntze Koordinakundea

X: Coordinadora de Alfabetización y Euskaldunización de Adultos

Andra Mari Abesbatza (Erresteria)

X: Coral Andra Mari (Erresteria)

X: Andra Mari Korala (Erresteria)

Andra Mari Korala (Gernika-Lumo)

X: Coral Andra Mari (Gernika-Lumo)

X: Andra Mari Abesbatza (Gernika-Lumo)

Algortako Bertsolari Eskola**Altafaylla Kultur Taldea****Amigos de la Historia Najerillense****Amigos de Maeztu (Madril)****Bizkaiko Santiago Bideen Lagunak****Amics Gascons et Bearnais de Bayonne, Anglet, Biarritz et du Bas-Adour****Elhuyar Kultur Elkartea****2.6.9. Eskolak****Aitor Ikastola****San Inazio Ikastetxea**

2.6.10. Artxiboak**Archivo General de Indias****Nafarroako Artxibo Nagusia**

- X: Nafarroako Artxibo Orokorra
- X: Nafarroako Agiritegi Nagusia
- X: Archivo General de Navarra

Archivo Vaticano**Udal Artxiboa (Baiona)**

- X: Archives Communales (Baiona)

2.6.11. Museoak**Arma Museoa (Eibar)**

- X: Museo de Armas (Eibar)

Arma Museoa (Gasteiz)

- X: Museo de Armería (Gasteiz)

Arrantzaleen Museoa (Bermeo)

- X: Museo del Pescador (Bermeo)

2.6.12. Komunikabideak**EITB**

- X: Euskal Irrati Telebista
- X: Euskal Telebista
- X: ETB

Euskalerria Irratia

- X: Euskal Herria Irratia

Arrate Irratia**Gasteiz Irratia**

- X: Radio Vitoria

Onda Cero Radio

2.6.13. Banketxeak**Banco Bilbao Vizcaya**

X: BBV

Banco de España**Bankoa****Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala**

X: Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa

X: CAP

X: Gipuzkoako Kutxa

X: GK

X: Caja de Guipúzcoa

Bizkaiko Aurrezki Kutxa

X: Caja de Ahorros Vizcaína (Bilbo)

Caja de Ahorros de La Rioja**2.6.14. Kofradiak****Santa Klara Kofradia (Ondarroa)****2.6.15. Lanbide elkargoak****Colegio de Ingenieros de Caminos, Canales y Puertos (Madril)****Euskadiko Portu, Ubide eta Bideetako Ingenarien Kolegioa (Bilbo)**

X: Colegio de Ingenieros de Caminos, Canales y Puertos del País Vasco (Bilbo)

Bizkaiko Industri Ingeniarien Elkargo eta Elkarte (Bilbo)

X: Colegio y Asociación de Ingenieros Industriales de Bizkaia (Bilbo)

Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala (Bilbo)

X: Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro (Bilbo)

X: EHAE (Bilbo)

X: COAVN (Bilbo)

Gipuzkoako Abokatuen Kolegioa

X: Colegio de Abogados de Gipuzkoa

3. EUSKAL HERRIA ETA EUSKADI TERMINOEN ERABILERARI BURUZ

3.1. ERREGELA HONEN ZERGATIEZ

Bi termino hauen erabilerak nahasketarako bide ugari ekar ditzake. Alde batetik *Euskal Herria* hitz zaharrena eta jatorrena da eta, gainera, egungo euskara bizian ahoz zein idatziz gehien erabiltzen dena. Aitzitik, *Euskadi* hitza nahiko berria da (ehun bat urte baino ez du), eta batzuk Euskal Herri osoa izendatzeko erabiltzen badute ere, beste batzuk Euskal Autonomia Erkidegoa izendatzeko soilik. Horrez gain, oso kontuan hartzekoa da lege ezin dela erabili Nafarroako edo Ipar Euskal Herriko erakundeen dokumentu administrati- boak katalogatzeko. Alegia, *Euskadi* termino nahasgarria da, eta lege aldetik arazoak sortzen dituena, baina ezinezkoa da kasu guztietan *Euskal Herria* ter- minoaz ordezkatzea, besteak beste termino horrek ez duelako esanahi admi- nistratiborik. Alegia, ez dago *Euskal Herria* izeneko esparru administratiborik.

Erregela honen helburua termino bakoitzari erabilera zehatza esleitzea da.

3.2. ARGIBIDE OROKORRAK

Orain arte Euskaltzaindiak hiru aldiz adierazi du bere iritzia bi termino hauetakoren bati buruz:

- a) «Euskal-Herri hitza ez baztertzeaz», Euskaltzaindiaren erabakia, Bai- nan 1979ko Urtarrilaren 26an hartua, Eusko Kontseiluak eginiko gal- dera bati erantzunez (ikus *Euskera* agerkaria, XXIV (2. aldia), 1979-1, 115-117, eta *Bergarako Biltzar ondoko erabakiak*, *Euskera* agerkaria- ren gehigarria, 1979, 115-117). Honela dio, hitzez-hitz:

Aspaldikoa den *Euskal Herria* izena, ezin dela inola ere baztertu erderazko País Vasco delakoaren ordain bezala, nahiz Euskadi hitza ere erabili.

- b) «1993ko irailaren 30eko erabakia, Espainiako Gobernuaren Ordezka- ritzako idazkariaren eskeari erantzunez, erakunde honen euskarazko izen zuzenari buruz» (ikus *Euskera* agerkaria, XXXVIII (2. aldia), 1993-3, 446. Honela dio, hitzez-hitz:

Onomastika batzordeak prestaturiko erantzun zirriborra irakurri du E. Knö- rrek: 1) Euskaltzaindiaren 1979ko erabakia oroitarazten da [...] 2) *Gobernuaren Ordezkaritza Euskal Herria* proposatuz; eta 3) *Euskal Herriko* baino hobeki le- gokeela *Euskal Herriko Autonomi Elkarteko* izena, erakunde horrek ez baitu eus- kal eremu osoa hartzen. B. Oyharçabalen zuzenketa jasoaz, **Gobernuaren Eus- kal Herriko Ordezkaritza** onartu da.

- c) Euskaltzaindiaren 139 araua: «*Euskal Herria* izena» (Euskaltzaindiak 2004ko uztailearen 23an onartutakoa). Honela dio:

Gorago adieraziriko guztiaren argitan, Euskaltzaindiak, zazpi probintzia edo herrialdeen osotasuna adierazteko, *Euskal Herria* izenaren egokitasuna, zuzentasuna eta zehaztasuna berresten du, eta izen hori ez dela errealitate politiko administratibo konkretu baten baliokide ez asimilagarri. Aldi berean, gogorazi nahi du mendez mendeko tradizio luzea errespetatu beharra, eta inork eta ezerk ez du hori hausteko, eteteko edo aldatzeko eskubiderik.

Hiru adierazpen horietatik azkena da osoena eta esplizituena, nahiz eta aurreko bietan esaten dena berretsi eta garatu baino ez duen egiten. Hortik hiru printzipio hauek ondorioztatzen dira:

- a) Lehenik eta behin *Euskal Herria* dela zazpi lurraldeen osotasuna adierazteko hobetsi behar den terminoa.
- b) *Euskal Herria* ez dela errealitate administratibo bat.
- c) *Euskadi* terminoa ez da gaitzesten nahiz eta zazpi probintzien osotasuna adierazteko argi eta garbi *Euskal Herria* hobesten den.

Bestalde, gogoratu beharra dago *Euskadi* izeneko esparru administratiboa autonomia erkidego bat dela eta 1936an sortzen dela, lehen Autonomia Estatutua ofizialki onartu zenean, eta 1979tik aurrera berriz esparru berbera berresten dela, bigarren Autonomia Estatutua onartzean.

3.3. ERREGELA OROKORRA

Azalpen horietan oinarrituta, hau da erregela orokorra, lau zatitan azaldua:

1. *Euskadi* terminoa soilik *Euskal Autonomia Erkidego*-aren sinonimo gisa erabiliko da. Beraz, *Euskal Autonomia Erkidegoa* ezin da ABKn erabili, horren ordez beti **Euskadi (Autonomia Erkidegoa)** jarriko delarik.
2. Gaietiko kasu guztietan **Euskal Herria** erabiliko da. Era berean, *Euskal Herria* terminoa ezin da ABKn erabili.
3. Zalantza bat egotekotan, honako hau kontuan hartuko da: *Euskal Autonomia Erkidegoa* autonomia estatuturen bat onartzen den unetik sortzen dela, ez lehenago, eta delako estatutua indarrean dagoen bitartean eta neurrian baino ez. Aipatu den bezala, hori bi aldiz gertatu dela gure herriaren historian: 1936an eta 1979an.
4. Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeei dagokienetan (Jaurlaritza, Legebiltzarra, Lehendakaritza, etab...), **Euskadi (Autonomia Erkidegoa)** erabiliko da salbuespenik gabe. Arau honek berdin balio du

1936an eratzten diren erakundeentzat, erbestean badaude ere, zein 1979tik aurrera eratzten direnentzat.

3.4. ZENBAIT ZEHAZTAPEN

Aurreko erregela orokorrari ondoko zehaztapenak gehituko zaizkio:

1. Historiako liburuetan ezin da *Euskadi (Autonomia Erkidegoa)* terminoa erabili, Euskal Autonomia Erkidegoaren azken hogeituroko historiari buruz dihardutenean ere, horren ordez **Euskal Herria** erabiliko baita. (Ikus 7. katalogazio erregela).
2. Orobat Filosofia, Antropologia, Erljio, Linguistika, Literatura, Arte, Geografia eta antzekoei dagozkienetan kasu guztietan, **Euskal Herria** erabiliko da, 7. katalogazio erregelan zehaztutakoaren ildotik. (Ikus gainera 8, 9, 10, 11, 12, 13 eta 14. erregelak).
3. Estatistika, Soziologia, Politika, Ekonomia, Zuzenbide eta antzekoei dagokienez, berriz, egoera ez da hain garbia. **Euskadi (Autonomia Erkidegoa)** erabiliko da liburua soilik Euskal Autonomia Erkidegoari buruzkoa denean eta autonomia estatuturen bat indarrean egon den garai batean (alegia, ia kasu guztietan 1979tik aurrera). Bestelakoetan, **Euskal Herria** erabiliko da.

3.5. EUSKADIKO ERAKUNDEEN SARRERAK

Hauek dira zenbait adibide:

a) Lehendakaria:

Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Lehendakaria (1936-1960: Jose Antonio Agirre)

Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Lehendakaria (1960-1979: Jesus Maria Leizaola)

Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Lehendakaria (1980-1984: Carlos Garaikoetxea)

Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Lehendakaria (1984-1999: Jose Antonio Ardantza)

Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Lehendakaria (1999- : Juan Jose Ibarretxe)

b) 1936-79 bitarteko Eusko Jaurlaritzaz:

Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Jaurlaritzaz
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Lehendakaritzaz
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Nekazaritzaz Zaingoa
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Ogasun Zaingoa
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Zabalkunde Zaingoa
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Ordezkaritzaz (Paris)
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Ordezkaritzaz (Habana)
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Ordezkaritzaz (Santiago, Txile)
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Ordezkaritzaz (New York)
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Ordezkaritzaz (Katalunia)

c) 1979 ondoko Eusko Jaurlaritzaz:

Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Jaurlaritzaz
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Kultura Sailaz
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Kultura eta Turismo Sailaz
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Nekazaritzaz eta Arrantza Sailaz
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Herrizaingo Sailaz
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Unibertsitate eta Ikerketa Sailaz
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Hezikuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaz. Euskara Zerbitzua
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Hizkuntza Politikarako Idazkaritzaz Nagusia
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaz
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Gazteria eta Gizarte Ekintzarako Zuzendaritzaz
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Lehendakaritzaren Idazkaritzaz
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Lehendakaritzaz. Gizarte Azterketarako Lantaldeaz
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Kultura Ondarearen Zuzendaritzaz
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Antzerti Zerbitzua
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Publizitate Zerbitzua

d) Beste zenbait erakunde:

Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Kontseilu Nagusia
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Arartekoa
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Legebiltzarra
Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Legebiltzarra. Presidentea

e) Zenbait lege:

Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Autonomia Estatutua, 1936

Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Autonomia Estatutua, 1979

Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Ekonomia Ituna, 1981

**Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Euskararen erabilpena arauz-
katzeko oinarritzko legea, 1982**

**Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Euskal eskola publikoaren le-
gea, 1993**

**Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Arrantzaleen kofradiei buruzko
legea, 1998**

f) Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak (1979 ondotik):

Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Ordezkaritza (Brusela)

4. DIPUTAZIO ETA BATZAR NAGUSIEN SARRERA NAGUSIAK

4.1. ERREGELA HONEN ZERGATIEZ

Diputazio eta Batzar Nagusien sarrera nagusia egitea korapilatsua suertatzen da. Izan ere, bi motako arazoak ditugu: erakunde horiek historiaren ondorioz izan dituzten izen (eta neurri batean, izaera) desberdintasunek sortutakoak, eta euskararen normalizazio berantiarrak eragindako arazo terminologikoak. Erregela honetan arazo horientzat guztientzat irtenbide orokor bat proposatuko bada ere, kontuan har bedi kasu oso berezietan salbuespenak egiteko atea zabalik utzi behar dela, erakunde bakoitzaren historia berezia dela-eta ezinezkoa baita aukera guztiak aurreikustea. Adibidez, Diputazioen Foru /Probintzia izena eta izaera oso zalantzarria da une askotan, eta hemen proposatzen den irtenbideak ez ditu, ziur aski, kasu guztiak asetuko.

4.2. ARGIBIDE OROKORRAK

I

Historiari dagokionez, esan behar dugu Foruen Aroan Diputazioek *Foru Diputazio* izenari eutsi diotela, baina foruen deuseztapenaren ondorioz (1841, 1876) izen (eta neurri batean, izaera) aldaketa nozitu zutela, *Probintzia Diputazio* bihurtuz. Baina aldaketa hori ez zen berdina izan lau Diputazioetan: Nafarroan lehenago gertatu zen (1841), baina leunagoa izan zen, neurri handi batean de facto *Foru Diputazio* izenari eutsi baitzion 1982ra arte, data horretatik aurrera *Gobernu* bihurtuz. Bizkaiak eta, Gipuzkoak, berriz 1877-1979 bitartean *Probintzia* izena izan zuten, data horretatik aurrera berriz ere *Foru* izaera berreskuratuz. Araba bien bitartean gelditu zen, 1936tik aurrera *Foru* izena berreskuratu baitzuen, bere izaera asko aldatu ez bazen ere.

Era berean, Araban hain garrantzitsua zen *Diputatu Nagusi* kargua ez zen oso berandu arte zabaldu gainera lurraldeetara, Bizkaian eta Gipuzkoan erabilera murrizta eta berankorra izan zuelarik, inoiz erabili bada bederen. XIX. mendean (1841, 1876) legeria berriaren eraginez kargu hori *Diputazioko Presidente* bihurtzen da, eta horrela erabiltzen da lau erakundeetan beste lege-aldaketa handi bat gertatu arte (1979, 1982), zeinaren ondorioz Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan *Diputatu Nagusi* kargua berrezartzen den, Nafarroan *Gobernuko Presidente* bihurtzen delarik.

II

Euskararen normalizazio berantiarrak beste bereizketa bat dakarrela dirudi. Jakina denez, euskara ez da ofiziala izan berriki arte; hori dela-eta, diputazioen izen ofiziala gaztelaniazkoa izan da, baina horrek ez du esan nahi euskaldunek euskarazko izenik erabili ez dutenik. Ofizialtasuna, beraz, ez da modu absolutuan aintzat hartzeko irizpidea, euskarazko katalogo bat egin nahi denean, bederen.

Kontua da euskara ofiziala bihurtu ondoren (1978), Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan *Diputazio* termino tradizionalaren ordez *Aldundi* neologismoa aukeratzeko delatzen (Nafarroan, gorago esan dugunez, *Diputazioa Gobernu* bihurtu zen, baina aldaketa horrek ez du hizkuntzarekin zerikusirik). Horrek bi arazo sortzen ditu: lehenik, anakronikotzat jo daiteke Euskal Herriko erakunde zaharrenak neologismo baten bidez izendatzea; bigarrenik, Euskaltzaindiak *aldundi* hitza onartu badu ere (ikus *Hiztegi Batua*), ez du **aldun* ontzat ematen, *ahaldun* baizik.

Lehenengo arazoari dagokionez, esan behar da XX. mendea baino lehenagoko erakundeentzat *Aldundi* hitza anakronikotzat jo badaiteke ere (XIX. mendeko *ikastolak* aipatzea bezala), 1979az geroko erakundeentzat egokiena dirudiela: ofiziala izateaz gain, guztiz zabaldu da euskaldun ikasien artean eta, idatziz bederen, *Diputazio* baino askoz ere gehiago erabiltzen da mota guztietako euskal testuetan. Hortaz gain, ez dirudi oso zentzuzkoa hain erabilera zabaldua eta koherentea duen terminoa beste batekin ordezkatzeko, bigarren hori historikoki egokiagoa bada ere.

Bigarren arazoari dagokionez, esan beharra dago gaur egungo euskaldun ikasien artean Diputazioko kideen kargua adierazteko *diputatu* hitza erabiltzen dela gehienik, *ahaldun* ikusi edota entzutea arraroa ez bada ere. Orobat, horixe da erakunde horien paper ofizialetan agertu ohi dena, salbuespen bakar batekin: *Bizkaiko Aldun / Ahaldun Nagusia* (baina Bizkaiko Aldundian ere, gaitetiko kideak *diputatuak* dira).

III

Batzar Nagusiei dagokienez, badirudi egoera askoz ere errezagoa dela: erakunde horiek izan diren neurrian ez dute ez izen ez izaera aldaketa handirik nozitu. Euskaltzaindiaren gomendioz (*Euskera*, 1995-1, 40, 353) *Batzar Nagusiak* da dagokien izenik egokiena, hori delarik euskaldun ikasien artean ere guztiz zabaldua dagoena. Orobat, hori da haien izen ofiziala, salbuespena *Arabako Biltzar Nagusiak* direlarik, baina izen horrek oso erabilera urria du, erakundearen beraren paper ofizialetatik at.

Halaber, kontuan hartzekoa da Nafarroan ez dela inoiz Batzar Nagusirik izan, *Gorteak* baizik (1841 arte), eta 1982tik aurrera *Parlamentua*.

4.3. ERREGELA

Hori guztia kontuan izanik, ondoren zerrendatzen dira erabiliko diren sarrera nagusiak. Dena den, kontuan hartzekoa da bereziki XIX. mendean erakunde horietan egoera bereziak sortzea eta, ondorioz, bestelako sarreraren bat erabili behar izatea. Kasu horiek salbuespen gisa tratatuko dira.

4.3.1. Araba

Araba. Foru Diputazioa *[1878ra arte eta 1939-1979 bitartean]*

X: Araba. Foru Aldundia

Araba. Probintzia Diputazioa *[1878-1939 bitartean]*

X: Araba. Probintzia Aldundia

Araba. Foru Aldundia *[1979tik aurrera]*

X: Araba. Foru Diputazioa

Araba. Foru Diputazioa. Diputatu Nagusia *[1878ra arte]*

X: Araba. Ahdun Nagusia

X: Araba. Aldun Nagusia

Araba. Probintzia Diputazioa. Presidentea *[1878-1939 bitartean]*

X: Araba. Probintzia Diputazioa. Lehendakaria

Araba. Foru Diputazioa. Presidentea *[1939-1979 bitartean]*

X: Araba. Foru Diputazioa. Lehendakaria

Araba. Foru Aldundia. Diputatu Nagusia *[1979tik aurrera]*

X: Araba. Ahdun Nagusia

X: Araba. Aldun Nagusia

Araba. Batzar Nagusiak

X: Araba. Biltzar Nagusiak

4.3.2. Bizkaia

Bizkaia. Foru Diputazioa [1878ra arte]

XX: Bizkaia. Foru Aldundia

Bizkaia. Probintzia Diputazioa [1878-1979 bitartean]

X: Bizkaia. Probintzia Aldundia

Bizkaia. Foru Aldundia [1979tik aurrera]

XX: Bizkaia. Foru Diputazioa

Bizkaia. Probintzia Diputazioa. Presidentea [1878-1979 bitartean]

X: Bizkaia. Diputatu Nagusia

Bizkaia. Foru Aldundia. Diputatu Nagusia [1979tik aurrera]

X: Bizkaia. Aldun Nagusia

X: Bizkaia. Ahaldun Nagusia

Bizkaia. Batzar Nagusiak

X: Bizkaia. Biltzar Nagusiak

4.3.3. Gipuzkoa

Gipuzkoa. Foru Diputazioa [1878ra arte]

XX: Gipuzkoa. Foru Aldundia

Gipuzkoa. Probintzia Diputazioa [1878-1979 bitartean]

X: Gipuzkoa. Probintzia Aldundia

Gipuzkoa. Foru Aldundia [1979tik aurrera]

XX: Gipuzkoa. Foru Diputazioa

Gipuzkoa. Probintzia Diputazioa. Presidentea [1878-1979 bitartean]

X: Gipuzkoa. Diputatu Nagusia

Gipuzkoa. Foru Aldundia. Diputatu Nagusia [1979tik aurrera]

X: Gipuzkoa. Aldun Nagusia

X: Gipuzkoa. Ahaldun Nagusia

Gipuzkoa. Batzar Nagusiak

X: Gipuzkoa. Batzarre Nagusiak

4.3.4. Nafarroa

Nafarroa. Foru Diputazioa [1982ra arte]

X: Nafarroa. Foru Aldundia

Nafarroa (Foru Erkidegoa). Gobernua [1982tik aurrera]

Nafarroa. Foru Diputazioa. Presidentea [1841-1982 bitartean]

X: Nafarroa. Foru Diputazioa. Lehendakaria

Nafarroa (Foru Erkidegoa). Presidentea [1982tik aurrera]

X: Nafarroa (Foru Erkidegoa). Gobernua. Lehendakaria

Nafarroa (Erresuma). Gorteak [1841era arte]

X: Nafarroa (Erresuma). Batzar Nagusiak

X: Nafarroa (Erresuma). Biltzar Nagusiak

Nafarroa (Foru Erkidegoa). Parlamentua [1982tik aurrera]

X: Nafarroa (Foru Erkidegoa). Legebiltzarra

4.4. LABURPENA

Orohar, esan daiteke *Diputazio* zentzu historikoan erabiliko dela, eta *Aldundi* gaurrengungo erakundeak izendatzeko. Era berean, 1878-1979 bitarteko erakundeek *Presidente*a izan dute, nahiz *Foru* (Nafarroa, Araba hamarkada batzuetan) nahiz *Probintzia* (Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba hamarkada batzuetan) izena erabili. Halaber, data horiek baino lehenago *Diputatu Nagusia* Araban baino ez dago, baina erakunde hori 1979tik aurrera Bizkaira eta Gipuzkoara ere zabaltzen da, izen berberarekin. Azkenik, Nafarroan, *Diputazioa* *Gobernu* bihurtu arren, buruak *Presidente* izenari eusten dio.

5. PRINTZE SUBIRANOEN ETA ANTZEKOEN SARRERA NAGUSIAK

5.1. ERREGELA HONEN ZERGATIEZ

Ez da erraza printze subirano eta antzekoen sarrera nagusia zehaztea euskal katalogo batean. Izan ere, batetik nazioarteko erregeletan konponbide desberdinak arautzen dira eta, bestetik, katalogoetan kontsultatuz gero salbuespenak eta kasu bereziak ugariak izaten dira. Horrela, herrialde batzuetako arauak katalogoaren hizkuntzan ongi erroturiko formak erabiltzea gomendatzen dute, baina beste batzuk, aldiz, delako subiranoaren erresumaren hizkuntza. Adibidez:

1. Arau Angloamerikarretan (AACR2r):

«**22-3B. Names written in the roman alphabet and established in an English form.** Choose the English form of name for a person entered under given name, etc. (see 22.8) or for a Roman of classical times (see 22.9A) whose name has become well established in a English form in English-language reference sources.

...

Charles V

not Karl V

Carlos I

King Philip II

not Rey Felipe II

...»

2. Espainiako Kultura Ministerioaren Arauetan:

«**15.1. B f)** Variaciones lingüísticas

4. Se escogerá la forma española (1) para los santos, beatos, papas, emperadores, reyes, príncipes reinantes, así como en el caso de clásicos griegos y latinos.

...

Luis XV

y no

Louis XV

Guillermo II

y no

Wilhelm II

... [Oharra] (1) Las expresiones «en español» o «forma española» aplicadas a la lengua, se refieren a cualquiera de las lenguas oficiales habladas en España.»

3. Frantziako Arauetan (NF Z 44-061, Juin 1986):

«**1.2.2.7. Souverains**

On choisit se nom de régime dans la langue du territoire concerné. Cependant, la forme française peut être employée dans les catalogues où elle serait plus approprié. On fait un renvoi de la forme non retenue vers la forme vedette.

Exemples: Felipe 2

renvoi de: Philippe 2

Le cas des souverains ayant régné succesivement ou simultanément dans plusieurs pays peut donner lieu á plusieurs vedettes reliées par des renvois d'orientation.

Henri 3 (roi de France)

voir aussi: Henryk Walezy 1 (roi de Pologne)»

Arestian ikusi bezala, Espainiako errege Felipe II.aren izena bi modu guztiz kontrajarrietan arautzen da: katalogo anglofonoetan ingelesez (Philip II) eta katalogo frankofonoetan espainieraz (Felipe 2). Irizpidea, beraz, desberdina ezezik guztiz kontrakoa da araudi batean eta bestean. Zer egin euskarazko katalogoetan?

5.2. ERREGELA OROKORRA

Hauxe da erregela orokorra: munduan zehar gehien zabaldu den ohitura segituz, printze subiranoen sarrera nagusiak euskaraz idatziko dira, jatorrizko formak bigarren sarrera gisa paratuz. Kasu guztietan forma modernoak erabiliko dira, hots, gaur eguneko iturri historiografikoetan arrunki erabiltzen direnak, eta ez jatorrizko forma zaharkituak. Dena dela, kasu berezien ugartasuna kontuan izanik eta nazioarteko araudietan dagoen irizpide bikoiztasuna gogoan hartuz, Azkue Biblioteka batzordeak erabakiko ditu izenak, banan-banan, beharrezkoa izanez gero Onomastika batzordearen irizpena eskatuz.

Irizpide orokor horren arrazoia hauxe da: lehenengo eta behin, Nafarroako hainbat errege-erreginen izenak euskarazko forman emateko ohitura zabalago gaur egungo euskal testu askotan; gainera, Nafarroako errege-erreginen izenak gaztelaniazko formatan eman ohi dira gaztelaniazko testuetan eta frantsesez frantsesezkoetan. Beraz, badirudi zentzuzkoa dela Nafarroakoenak bederen euskaraz ematea; adibidez, gaztelaniazko testuetan Sancho dena, eta frantsesezkoetan Sanche, euskarazkoetan Antso izaten da; arrazoi beragatik ba-

dirudi gaztelaniazko testuetan Blanca dena eta frantsesezkoetan Blanche euskarazkoetan Zuria (Erdi Aroan usu erabilitako izena) izan beharko lukeela, oraingoz euskal historiografian forma hori hedatu ez bada ere.

Nafarroako zenbait errege-erreginen izenez gain, euskal testuetan oraingo ez dugu aurkitzen subiranoen izena euskaraz idazteko ohitura sendorik, ez tradiziozko testuetan ezta gaur egunekoetan ere. Baina hori da, hain zuzen ere, onomastika alorreko izenekin euskal testuetan gertatu ohi dena orain dela gutxi arte, errege-erreginen kasuan arazo hau, agian, beste sail batzuetan baino larriagoa bada ere. Arazoak arazo, Euskaltzaindiaren joera izen horien euskal forma estandar bat arautzea izan da, eta horrela egin du santutegiko izen ohi-koekin (66. araua), latin eta greziar pertsona-izen klasikoekin (76. araua) eta Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoekin (82. araua); joera horren ondorioz badirudi zentzuzkoa dela errege-erreginentzat ere ildo beretik segitzea.

Joera orokor horretaz gain, kontuan hartzekoa da subiranoaren erresumaren araberrako forma bat hautatzeak bestelako arazo batzuk sortzen dituela. Adibidez, jakina da errege bat bera erresuma desberdinetako subirano izan ohi zela sarri, bereziki Erdi Aroan, baina Aro Berrian ere usu. Nafarroaren kasuan, adibidez, Erdi Aroari lotzen gatazkiolarik sasoi luze batez bertako erregea Aragoikoa ere bazen (XI. eta XII. mendeetan), eta Frantziakoa ere (XIII. eta XIV. mendeetan); zer esanik ez XVI. mendetik aurrera. Egoera hau ez zen inola ere salbuespenezkoa, Karlos V.a (1500-1558) kaiserraren adibide ezagunak adierazten digun bezala. Eta izenaren formarena arazo bakarra ez bada ere (erregeen hurrenkeran ere badu eraginik, esan nahi baita, Nafarroako Luis I.a Frantziako X.a da, adibidez), arazo erantsia da lehenago ere nahikoa korapilatsua zen hautuari. Bi sarrera nagusi guztiz desberdin onartu beharko ote lirateke, bakoitza erresuma bati egokitua (*Luis* I.a Nafarroakoa eta *Louis* X.a Frantziakoa, hurrenez hurren)? Irtenbide hori egokia izan daiteke munduko hainbat biblioteca handirentzat, baina ez dirudi oso zentzuzkoa Euskal Herri-rako.

Hortaz gain, badirudi ezinbestekoa dela orobat euskal forma batean ematea erromanikoa ez den alfabeto batean idazten diren subiranoen izenak; adibidez, Errusiako Tsarra Petri izango da, eta ez Pedro edo Pierre; ezta Pyotr edo Petr ere (alfabeto zirilikoaren transkribaketaren bi aukerak), euskaldunentzat guztiz arrotzak baitira forma hauek.

Dena dela, aipatzekoa da salbuespenak eta kasu bereziak kontuan hartuko direla; adibidez, Karlomagno. Bereziki hizkuntza bakar batean idatzitako iturretan ere forma bat baino gehiago aurkitzen dugulako, ziur aski arrazoi historiko oso partikularrengatik. Hori dela eta forma historiko berezi bat hautatu da soil-soilik berarentzat, kontuan hartuz ez dela serie batean errepikatzen den izena (I.a, II.a., III.a., eta abar).

5.3. ERREGELA ZEHATZAK

Hauxek dira zenbait kasu zehatzetan erabili behar diren sarrerak:

5.3.1. Nafarroako Errege-Erreginak

Eneko Aritza, Iruñeko Erregea (h. 851)

- X: Eneko Aritza, Nafarroako Erregea (h. 851)
- X: Iñigo Arista, Iruñeko Erregea (h. 851)
- X: Enneco Aresta, Iruñeko Erregea (h. 851)

Gartzia Enekoitz, Iruñeko Erregea (h. 882)

- X: Gartzia Enekoitz, Nafarroako Erregea (h. 882)
- X: Gartzea Enekoitz, Iruñeko Erregea (h. 882)
- X: Gartzia Iñigez, Iruñeko Erregea (h. 882)
- X: García Iñíguez, Iruñeko Erregea (h. 882)

Orti Gartzeiz, Iruñeko Erregea (h. 905)

- X: Orti Gartzeiz, Nafarroako Erregea (h. 905)
- X: Fortun Gartzes
- X: Fortun Gartzeiz
- X: Fortún Garcés, el Monje
- X: Fortún Garcés, le Moine

Antso Gartzeiz I.a, Iruñeko Erregea (h. 925)

- X: Antso Gartzeiz I.a, Nafarroako Erregea (h. 925)
- X: Antso I.a Gartzes, Iruñeko Erregea (h. 925)
- X: Sancho Garcés I.a, Iruñeko Erregea (h. 925)
- X: Sanche Garcés I.a, Iruñeko Erregea (h. 925)

Ximeno Gartzeiz (h. 931)

[batzuen arabera erregea izan zen, baina arrunki ez da aipatzen]

- X: Ximeno Gartzeiz, Iruñeko Erregea (h. 931)
- X: Ximeno Gartzeiz, Nafarroako Erregea (h. 931)
- X: Ximeno Gartzez
- X: Jimeno Garcés

Gartzia Santxez I.a, Iruñeko Erregea (h. 970)

- X: Gartzia Santxez I.a, Nafarroako Erregea (h. 970)
- X: Gartzea Santxez I.a, Iruñeko Erregea (h. 970)
- X: García Sánchez I.a, Nafarroako Erregea (h. 970)

Andregoto, Gartzia Santxez I.a Iruñeko Erregearen Erregina Ezkontidea (h. ca. 972)

X: Andregoto Galíndez

Antso Abarka, Iruñeko Erregea (h. 994)

X: Antso Gartzreiz II.a, Abarka, Iruñeko Erregea (h. 994)

X: Antso Gartzreiz II.a, Nafarroako Erregea (h. 994)

X: Antso II.a Gartzreiz Abarka, Iruñeko Erregea (h. 994)

X: Sancho Garcés II Abarca

X: Sanche Garcés II Abarca

Gartzia Santxez, Dardartia, Iruñeko Erregea (h. 1004)

X: Gartzia Santxez II.a, Dardartia, Iruñeko Erregea (h. 1004)

X: Gartzia Santxez II.a, Dardartia, Nafarroako Erregea (h. 1004)

X: Gartzia Santxez II.a, Ikaratía

X: García Sánchez II el Temblón

X: García III el Tembloroso

X: Garcia Sanchez II le Trembleur

Antso Nagusia, Iruñeko Erregea (h. 1035)

X: Antso Gartzreiz III.a, Nagusia, Iruñeko Erregea (h. 1035)

X: Antso Gartzreiz III.a, Nagusia, Nafarroako Erregea (h. 1035)

X: Antso III. Gartzreiz Nagusia, Iruñeko Erregea (h. 1035)

X: Antso Handia

X: Sancho Garcés III el Mayor

X: Sanche Garcés III le Grand

Gartzia Santxez, Naiarakoa, Iruñeko Erregea (h. 1054)

X: Gartzia Santxez III.a, Naiarakoa, Iruñeko Erregea (h. 1054)

X: Gartzia Santxez III.a, Naiarakoa, Nafarroako Erregea (h. 1054)

X: Gartzia Naxerakoa (h. 1054)

X: García de Nájera (h. 1054)

X: García IV Sánchez III (h. 1054)

Antso Peñalengoa, Iruñeko Erregea (h. 1076)

X: Antso Gartzreiz IV.a, Peñalengoa, Iruñeko Erregea (h. 1076)

X: Antso Gartzreiz IV.a, Peñalengoa, Nafarroako Erregea (h. 1076)

X: Antso IV.a Gartzreiz Peñalengoa, Iruñeko Erregea (h. 1076)

X: Antso Gartzreiz Peñalengoa

X: Sancho de Peñalén

X: Sancho IV Garcés

X: Sanche Garcés IV

Antso Ramirez, Iruñeko eta Aragoiko Erregea (1043-1094)

- X: Antso V.a Ramirez, Iruñeko eta Aragoiko Erregea (1043-1094)
- X: Antso Ramirez V.a, Nafarroako Erregea (1043-1094)
- X: Sancho V Ramirez (1043-1094)
- X: Sancho I, rey de Aragón (1043-1094)
- X: Sanche Ramirez V.a (1043-1094)

Petri Santxez, Iruñeko eta Aragoiko Erregea (h. 1104)

- X: Petri I.a, Iruñeko eta Aragoiko Erregea (h. 1104)
- X: Petri Santxez I.a, Nafarroako Erregea (h. 1104)
- X: Pedro I de Aragón y de Navarra
- X: Pedro Sanchez

Alfontso Borrokalaria, Iruñeko eta Aragoiko Erregea (1073-1134)

- X: Alfontso I.a, Borrokalaria, Iruñeko eta Aragoiko Erregea (1073-1134)
- X: Alfontso I.a, Borrokalaria, Nafarroako Erregea (1073-1134)
- X: Alfontso I.a, Gudularia
- X: Alfonso I el Batallador
- X: Alphonse le Batailleur

Gartzia Ramirez, Berrezarlea, Iruñeko Erregea (h. 1150)

- X: Gartzia IV.a Ramirez, Berrezarlea, Iruñeko Erregea (h. 1150)
- X: Gartzia IV. Ramirez, Berrezarlea, Nafarroako Erregea (h.1150)
- X: Gartzea Ramirez, Osatzailea (h. 1150)
- X: García Ramírez el Restaurador
- X: Garcia Ramirez le Restaurateur

Antso Jakintsua, Nafarroako Erregea (h. 1194)

- X: Antso VI.a, Jakituna, Nafarroako Erregea (h. 1194)
- X: Antso VI.a, Jakituna, Iruñeko Erregea (h. 1194)
- X: Antso Jakituna
- X: Antso Zuhurra
- X: Sancho el Sabio
- X: Sanche le Sage

Antso Azkarra, Nafarroako Erregea (h. 1234)

- X: Antso VI.a, Jakituna, Nafarroako Erregea (h. 1194)
- X: Antso Indartsua, Nafarroako Erregea (h. 1234)
- X: Sancho el Fuerte
- X: Sanche le Fort

Tibalt I.a, Nafarroako Erregea (1200-1253)

- X: Teobaldo I.a, Nafarroako Erregea (1200-1253)

X: Thibault I.a, Nafarroako Erregea (1200-1253)

X: Teobaldo Trobalaria

X: Thibaut IV, Comte de Champagne

X: Thibaut le Chansonier

Tibalt II.a, Nafarroako Erregea (1237-1270)

X: Teobaldo II.a, Nafarroako Erregea (1237-1270)

X: Thibault II.a, Nafarroako Erregea (1237-1270)

X: Thibaut V, Comte de Champagne

Henrike I.a, Nafarroako Erregea (1238-1274)

X: Enrike I.a, Potoloa, Nafarroako Erregea (1238-1274)

X: Henri le Gros

X: Enrique el Gordo

X: Henri III, Comte de Champagne

Joana I.a, Nafarroako Erregina (1273-1305)

X: Juana I.a, Nafarroako Erregina (1273-1305)

X: Jeanne I.a, Nafarroako Erregina (1273-1305)

X: Johana de Navarra (1273-1305)

Filipe IV.a, Ederra, Frantziako Erregea (1268-1314)

X: Filipe IV.a, Ederra, Frantziako Erregea eta Joana I.a Nafarroako Erreginaren Errege Ezkontidea (1268-1314)

X: Philippe IV.a, Ederra, Frantziako Erregea (1268-1314)

X: Filipe I.a, Ederra, Joana I.a Nafarroako Erreginaren Errege Ezkontidea (1268-1314)

X: Felipe I.a, Ederra, Nafarroako Erregea (1268-1314)

X: Philippe le Bel (1268-1314)

X: Felipe el Hermoso (1268-1314)

Luis Setatia, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1289-1316)

X: Luis I.a, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1289-1316)

X: Luis I.a, Setatia, Nafarroako Erregea (1289-1316)

X: Louis X.a, Frantziako Erregea (1289-1316)

X: Louis le Hutin

X: Luis el Hutín

X: Luis el Obstinado

Joan Postumoa, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1316)

X: Joan I.a, Hilondokoa, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1316)

X: Jean I.a, Frantziako Erregea (1316)

X: Joan I.a, Nafarroako Erregea (1316)

X: Jean le Posthume

- X: Juan el Phostumo
- X: Juan el de los pocos días

Filipe Luzea, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1294-1322)

- X: Filipe II.a, Luzea, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1294-1322)
- X: Felipe II.a, Nafarroako Erregea (1294-1322)
- X: Philippe V.a, Frantziako Erregea (1294-1322)
- X: Philippe le Long
- X: Felipe el Largo

Karlos Burusoila, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1294-1328)

- X: Karlos I.a, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1294-1328)
- X: Karlos I.a, Burusoila, Nafarroako Erregea (1294-1328)
- X: Charles IV.a, Ederra, Frantziako Erregea (1294-1328)
- X: Charles le Bel
- X: Carlos el Calvo
- X: Charles le Chauve

Joana II.a, Nafarroako Erregina (1311-1349)

- X: Jeanne II.a, Nafarroako Erregina (1311-1349)
- X: Juana II.a, Nafarroako Erregina (1311-1349)

Filipe Evreux, Joana II.a Nafarroako Erreginaren Errege Ezkontidea (1305-1343)

- X: Filipe III.a, Joana II.a Nafarroako Erreginaren Errege Ezkontidea (1305-1343)
- X: Filipe III.a, Nafarroako Erregea (1311-1349)
- X: Philippe, Comte d'Evreux
- X: Felipe, Conde de Evreux

Karlos Gaiztoa, Nafarroako Erregea (1332-1387)

- X: Karlos II.a, Gaiztoa, Nafarroako Erregea (1332-1387)
- X: Charles II.a, Nafarroako Erregea (1332-1387)
- X: Carlos II.a, Nafarroako Erregea (1332-1387)
- X: Charles le Mauvais
- X: Carlos el Malo

Karlos Prestua, Nafarroako Erregea (1361-1425)

- X: Karlos III.a, Prestua, Nafarroako Erregea (1361-1425)
- X: Charles III.a, Nafarroako Erregea (1361-1425)
- X: Carlos III.a, Nafarroako Erregea (1361-1425)
- X: Charles le Noble
- X: Carlos el Noble

Zuria I.a, Nafarroako Erregina (1385-1441)

- X: Blanca I.a, Nafarroako Erregina (1385-1441)
- X: Blanka I.a, Nafarroako Erregina (1385-1441)
- X: Blanche I.a, Nafarroako Erregina (1385-1451)

Joan II.a, Nafarroako eta Aragoiko Erregea (1398-1479)

- X: Joan II.a, Zuria I.a Nafarroko Erreginaren Errege Ezkontidea (1398-1479)
- X: Joan II.a, Nafarroako Erregea (1398-1479)
- X: Juan II.a, Aragoiko Erregea (1398-1479)
- X: Jean II.a, Nafarroako Erregea (1398-1479)
- X: Juan II.a, Nafarroako Erregea (1398-1479)

Karlos, Vianako Printzea (1421-1461)

- X: Karlos, Nafarroako Erregea (1421-1461)
- X: Carlos, Vianako Printzea (1421-1461)
- X: Charles, Vianako Printzea (1421-1461)

Zuria Nafarroakoa (1424-1464)

- X: Zuria II.a, Nafarroako Erregina (1424-1464)
- X: Zuria, Nafarroako Printzesa (1424-1464)
- X: Doña Blanca de Navarra (1424-1464)
- X: Blanche de Navarre (1424-1464)
- X: Andre Zuria Nafarroakoa (1424-1464)

Leonor I.a, Nafarroako Erregina (ca. 1420-1479)

- X: Leonor I.a, Nafarroako Erregina (ca. 1420-1479)
- X: Eleonor I.a, Nafarroako Erregina (ca. 1420-1479)

Gaston IV.a, Comte de Foix (h. 1472)

- X: Gaston, Eleonore I.a Nafarroako Erreginaren Errege Ezkontidea (h. 1472)

Magdalena, Vianako Printzesa (1443-1495)

- X: Madelaine de Foix
- X: Magdalena Foix, Vianako Printzesa (1443-1495)
- X: Madalena Frantziakoa
- X: Madelaine de France

Frantses Febo, Nafarroako Erregea (ca. 1469-1483)

- X: Frantzisko I.a, Febo, Nafarroako Erregea (ca. 1469-1483)
- X: François Phébus, Nafarroako Erregea (ca. 1469-1483)
- X: Francisco Febo, Nafarroako Erregea (ca. 1469-1483)

Katalina I.a, Nafarroako Erregina (1468-1518)

- X: Catherine I.a, Nafarroako Erregina (1468-1518)
- X: Catherine de Foix (1468-1518)
- X: Catalina I.a, Nafarroako Erregina (1468-1518)
- X: Catalina de Foix

Joan Albret, Katalina I.a Nafarroako Erreginaren Errege Ezkontidea (ca. 1477-1516)

- X: Joan III.a, Nafarroako Erregea (ca. 1477-1516)
- X: Jean d'Albret, Katalina I.a Nafarroako Erreginaren Errege Ezkontidea (ca. 1477-1516)
- X: Juan III.a, Katalina I.a Nafarroako Erreginaren Errege Ezkontidea (ca. 1477-1516)

Henrike II.a, Nafarroako Erregea (1503-1555)

- X: Henri d'Albret, Nafarroako Erregea (1503-1555)
- X: Enrike II.a Albretakoa, Nafarroako Erregea (1503-1555)
- X: Enrique II de Albret (1503-1555)

Margarita Nafarroakoa, Henrike II.a Nafarroako Erregearen Erregina Ezkontidea (1492-1549)

- X: Marguerite d'Angoulême, Nafarroako Erregina (1492-1549)
- X: Margarita de Navarra (1492-1549)
- X: Marguerite de Navarre (1492-1549)
- X: Margarita de Angulema (1492-1549)

Joana Albret, Nafarroako Erregina (1528-1572)

- X: Joana III.a Albretakoa, Nafarroako Erregina (1528-1572)
- X: Jeanne d'Albret, Nafarroako Erregina (1528-1572)
- X: Juana de Albret, Nafarroako Erregina (1528-1572)

Antonio Bourbon, Joana Albret Nafarroako Erreginaren Errege Ezkontidea

- X: Antonio Borboikoa, Joana Albret Nafarroako Erreginaren Errege Ezkontidea
- X: Antoine de Bourbon
- X: Antonio de Borbón

Henrike III.a, Nafarroako Erregea (1553-1610)

- X: Henrike III.a, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1553-1610)
- X: Enrike III.a, Nafarroako Erregea (1553-1610)
- X: Henri IV.a, Frantziako Erregea (1553-1610)
- X: Henri de Navarre
- X: Enrique de Navarra

Margarita Valois, Henrike III.a Nafarroako Erregearen Erregina Ezkontidea (1553-1615)

X: Marguerite de Valois

X: Margarita de Valois

X: Margot, Reine

X: Margot Erregina (1553-1615)

Oharrak:

- a) Hasiera bateko *Iruñeko Errege-Erregina* titulua Antso Jakintsuarengandik aurrera *Nafarroako Errege-Erregina* bihurtu zen.
- b) Era berean, Iruñeko/Nafarroako zenbait errege-erreginak beste erresuma batzutako errege-erregina ere izan dira. Kasu horietan ez da beti irizpide berbera aplikatu; Erdi Aroan zehar, salbuespenak salbuespen, titulu biak elkarren parean jarri dira kasu horietan zeuden errege-erreginekin, beti ere Iruñea/Nafarroari lehentasuna emanez (hots, subira-noaren zenbatgarrena Nafarroako genealogian dagokion hurrenkeraren arabera); Aro Berrian, aldiz, kasu gutxi batzuetan baino ez dugu *Nafarroako Errege-Erregina* titulua erabiliko.
- c) Aro Berrian zehar *Nafarroako Errege-Erregina* titulua salbuespen gisa baino ez erabiltzeko arrazoiak funtsean bibliografikoak dira, hots, Henrike III.a Nafarroakoa Frantziako Errege bilakatzen den unetik, *Nafarroako Errege-Erregina* titulua ez da ia-ia erabiltzen erreferentzia bibliografikoetan. Alegia, eta bi adibide baino ez ipintzearren, Filipe II.a Espainiakoak eta Luis XIII.a Frantziakoak, biek, *Nafarroako Errege* tituluari eutsi zioten, baina beraiei buruz idatzi diren milaka liburuetan normalean ez dira titulu horren bitartez aipatzen (gogora, Filipe II.a Espainiakoa Nafarroako V.a dela, eta Luis XIII.a Frantziakoa Nafarroako II.a, baina era horretako erreferentzia bibliografikorik ez dugu inon aurkituko, genealogistaren baten aipamen eruditoren batean ez bada).
- d) Hortaz gain, kontuan hartu behar da 1512tik aurrera Nafarroako Erresuma bitan banatu zela, eta une horretatik aurrera bi Nafarroako Errege-Erregina daudela, elkarren garaikideak. Baina, gorago esan dugun bezala, Nafarroa Garaiari dagokionez *Nafarroako Errege* titulua Gaztelako Erregeari lotzen zaion unetik (1515), izendapen hori faktikoki desagertu egiten da erreferentzia bibliografikoetatik; beste horrenbeste gertatzen da Nafarroa Beherean *Nafarroako Errege* titulua Frantziako Erregeari lotzen zaionetik (1620). Tarte horretan, dena dela, Henrike II.a, haren alaba Joana Albret gogogangarria eta beronen semea Henrike III.a *Nafarroako Errege-Erregina* tituluarekin aipatzen dira usu mota guztietako liburuetan. Beraz, ABKri dagokionez, Henrike III.a da *Nafarroako Erregea* tituluaren bitartez aipatuko den azkenena, izen horrekin ere oso ezaguna baita, nahiz eta berau ere Historiako liburuetan arrunki *Henrike IV.a Frantziakoa* izendatzen den.

5.3.2. Frantziako Errege-Erreginak: zenbait adibide

Luis IX.a, Frantziako Erregea, Santua (1214-1270)

X: Louis IX.a, Frantziako Erregea, Santua (1214-1270)

Filipe III.a, Frantziako Erregea (1245-1285)

X: Philippe III.a, Frantziako Erregea (1245-1285)

Filipe IV.a, Ederra, Frantziako Erregea (1268-1314)

X: Filipe IV.a, Ederra, Frantziako Erregea eta Joana I.a Nafarroako Erreginaren Errege Ezkontidea (1268-1314)

X: Philippe IV.a, Ederra, Frantziako Erregea (1268-1314)

X: Filipe I.a, Ederra, Joana I.a Nafarroako Erreginaren Errege Ezkontidea (1268-1314)

X: Felipe I.a, Ederra, Nafarroako Erregea (1268-1314)

X: Philippe le Bel (1268-1314)

X: Felipe el Hermoso (1268-1314)

Luis Setatia, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1289-1316)

X: Luis I.a, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1289-1316)

X: Luis I.a, Setatia, Nafarroako Erregea (1289-1316)

X: Louis X.a, Frantziako Erregea (1289-1316)

X: Louis le Hutin

X: Luis el Hutín

X: Luis el Obstinado

Joan Postumoa, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1316)

X: Joan I.a, Hilondokoa, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1316)

X: Jean I.a, Frantziako Erregea (1316)

X: Joan I.a, Nafarroako Erregea (1316)

X: Jean le Posthume

X: Juan el Phostumo

X: Juan el de los pocos días

Filipe Luzea, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1294-1322)

X: Filipe II.a, Luzea, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1294-1322)

X: Felipe II.a, Nafarroako Erregea (1294-1322)

X: Philippe V.a, Frantziako Erregea (1294-1322)

X: Philippe le Long

X: Felipe el Largo

Karlos Burusoila, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1294-1328)

X: Karlos I.a, Nafarroako eta Frantziako Erregea (1294-1328)

X: Karlos I.a, Burusoila, Nafarroako Erregea (1294-1328)

X: Charles IV.a, Ederra, Frantziako Erregea (1294-1328)

X: Carlos el Calvo

X: Charles le Chauve

Filipe VI.a, Frantziako Erregea (1293-1350)

X: Philippe VI.a, Frantziako Erregea (1293-1350)

Joan II.a, Frantziako Erregea (1319-1364)

X: Jean II.a, Frantziako Erregea (1319-1364)

X: Jean le Bon

Frantses I.a, Frantziako Erregea (1494-1547)

X: François I.a, Frantziako Erregea (1494-1547)

X: Frantzisko I.a, Frantziako Erregea (1494-1547)

X: Francisco I.a, Frantziako Erregea (1494-1547)

Luis XIII.a, Frantziako Erregea (1601-1643)

X: Louis XIII.a, Frantziako Erregea (1601-1643)

Luis XIV.a, Frantziako Erregea (1638-1715)

X: Louis XIV.a, Frantziako Erregea (1638-1715)

Maria Antonia, Luis XVI.a Frantziako Erregearen Erregina Ezkontidea (1755-1793)

X: Marie Antoinette, Luis XVI.a Frantziako Erregearen Erregina Ezkontidea (1755-1793)

X: Maria Antuaneta, Luis XVI.a Frantziako Erregearen Erregina Ezkontidea (1755-1793)

X: Maria Antonieta, Luis XVI.a Frantziako Erregearen Erregina Ezkontidea (1755-1793)

Napoleon I.a, Frantziarren Enperadorea (1769-1821)

Luis Filipe I.a, Frantziarren Erregea (1773-1850)

X: Louis Philippe I.a, Frantziarren Erregea (1773-1850)

X: Luis Felipe I.a, Frantziarren Erregea (1773-1850)

Napoleon III.a, Frantziarren Enperadorea (1808-1873)

Eugenia, Napoleon III.a Frantziarren Enperadorearen Enperatriz Ezkontidea (1826-1920)

X: Eugenia de Montijo, Emperatriz de Francia

X: Eugénie, Napoléon III.a Frantziarren Enperadorearen Enperatriz Ezkontidea (1826-1920)

5.3.3. Espainiako Errege-Erreginak: zenbait adibide

5.3.3.1. Erdi Aroa

Alfontso III.a, Asturiasko Erregea (866-910)

X: Alfonso III.a, Asturiasko Erregea (866-910)

Urraka, Gaztelako Erregina (ca. 1080-1126)

X: Urraca, Gaztelako Erregina (ca. 1080-1126)

Alfontso X.a, Jakintsua, Gaztelako Erregea (1221-1284)

X: Alfonso X.a, Gaztelako Erregea (1221-1284)

Maria, Antso IV.a Gaztelako Erregearen Erregina Ezkontidea (h. 1321)

X: María, Sancho IV.a Gaztelako Erregearen Erregina Ezkontidea (h.1321)

X: María de Molina

Petri I.a, Ankerra, Gaztelako Erregea (1334-1369)

X: Pedro I.a, Gaztelako Erregea (1334-1369)

Henrike II.a, Gaztelako Erregea (1333?-1379)

X: Enrique II.a, Gaztelako Erregea (1333?-1379)

Joan I.a, Gaztelako Erregea (1358-1390)

X: Juan I.a, Gaztelako Erregea (1358-1390)

Henrike III.a, Gaztelako Erregea (1379-1406)

X: Enrique III.a, Gaztelako Erregea (1379-1406)

Joan II.a, Gaztelako Erregea (1405-1454)

X: Juan II.a, Gaztelako Erregea (1405-1454)

Henrike IV.a, Gaztelako Erregea (1425-1474)

X: Enrique IV.a, Gaztelako Erregea (1425-1474)

Ramiro II.a, Aragoiko Erregea (1080-1157)

Jaime I.a, Konkistatzailea, Aragoiko Erregea (1208-1276)

X: Jakue I.a, Aragoiko Erregea (1208-1276)

X: Jaime I.a, Aragoiko Erregea (1208-1276)

Petri IV.a, Zeremoniotsua, Aragoiko Erregea (1319-1387)

X: Pedro IV.a, Aragoiko Erregea (1319-1387)

5.3.3.2. Aro Berria eta Garaikidea**Fernando Katolikoa, Aragoiko Erregea (1452-1516)**

X: Fernando II.a, Aragoiko Erregea (1452-1516)

Elisabet Katolikoa, Gaztelako Erregina (1451-1504)

X: Isabel I.a, Gaztelako Erregina (1451-1504)

Karlos V.a, Erromatar-Germaniar Inperioko Kaisarra (1500-1558)

X: Karlos I.a, Espainiako Erregea (1500-1558)

X: Carlos I.a, Espainiako Erregea (1500-1558)

Filipe II.a, Espainiako Erregea (1527-1598)

X: Felipe II.a, Espainiako Erregea (1527-1598)

Elisabet, Filipe II.a Espainiako Erregearen Erregina Ezkontidea (1546-1568)

X: Isabel, Felipe II.a Espainiako Erregearen Erregina Ezkontidea (1546-1568)

X: Valois, Elisabeth de

X: Valois, Isabel de

Filipe III.a, Espainiako Erregea (1578-1621)

X: Felipe III.a, Espainiako Erregea (1578-1621)

Margarita, Filipe III.a Espainiako Erregearen Erregina Ezkontidea (1584-1611)**Filipe IV.a, Espainiako Erregea (1605-1665)**

X: Felipe IV.a, Espainiako Erregea (1605-1665)

Elisabet, Filipe IV.a Espainiako Erregearen Erregina Ezkontidea (1603-1644)

X: Isabel, Felipe IV.a Espainiako Erregearen Erregina Ezkontidea (1603-1644)

Mariana, Filipe IV.a Espainiako Erregearen Erregina Ezkontidea (1634-1696)

X: Mariana, Felipe IV.a Espainiako Erregearen Erregina Ezkontidea (1634-1696)

Maria Luisa, Karlos II.a Espainiako Erregearen Erregina Ezkontidea (1662-1689)

X: María Luisa, Carlos II.a Espainiako Erregearen Erregina Ezkontidea (1662-1689)

Filipe V.a, Espainiako Erregea (1683-1746)

X: Filipe V.a, Espainiako Erregea (1683-1746)

Luis I.a, Espainiako Erregea (1707-1724)**Fernando VI.a, Espainiako Erregea (1713-1759)****Karlos III.a, Espainiako Erregea (1716-1788)**

X: Carlos III.a, Espainiako Erregea (1716-1788)

Karlos IV.a, Espainiako Erregea (1748-1819)

X: Carlos IV.a, Espainiako Erregea (1748-1819)

Maria Luisa, Karlos IV.a Espainiako Erregearen Erregina Ezkontidea (1751-1819)

X: María Luisa, Carlos IV.a Espainiako Erregearen Erregina Ezkontidea (1751-1819)

Fernando VII.a, Espainiako Erregea (1784-1833)**Maria Josefa Amalia, Fernando VII.a Espainiako Erregearen Erregina Ezkontidea (1801-1829)****Maria Kristina, Fernando VII.a Espainiako Erregearen Erregina Ezkontidea (1806-1878)**

X: Maria Cristina, Fernando VII.a Espainiako Erregearen Erregina Ezkontidea (1806-1878)

Elisabet II.a, Espainiako Erregina (1830-1904)

X: Isabel II.a, Espainiako Erregina (1830-1904)

Amadeo I.a, Espainiako Erregea (1845-1890)**Alfontso XII.a, Espainiako Erregea (1857-1885)**

X: Alfonso XII.a, Espainiako Erregea (1857-1885)

Alfontso XIII.a, Espainiako Erregea (1886-1941)

X: Alfonso XIII.a, Espainiako Erregea (1886-1941)

Joan Karlos I.a, Espainiako Erregea (1938-)

X: Juan Carlos I.a, Espainiako Erregea (1938-)

Sofia, Joan Karlos I.a Espainiako Erregearen Erregina Ezkontidea (1938-)

5.3.4. Europako Errege-Erreginak: zenbait adibide**Maria Frantziska Elisabet, Petri II.a Portugalgo Erregearen Erregina Ezkontidea (1646-1690)**

X: María Francisca Isabel, Pedro II.a Portugalgo Erregearen Erregina Ezkontidea (1646-1690)

X: Marie Françoise Elisabeth, Pierre II.a Portugalgo Erregearen Erregina Ezkontidea (1646-1690)

Joan V.a, Portugalgo Erregea (1689-1750)

X: João V.a, Portugalgo Erregea (1689-1750)

X: Juan V.a, Portugalgo Erregea (1689-1750)

X: Jean V.a, Portugalgo Erregea (1689-1750)

Karlos VI.a, Erromatar-Germaniar Inperioko Kaisarra (1685-1740)

X: Carlos VI.a, Erromatar-Germaniar Inperioko Kaisarra (1658-1740)

X: Charles VI.a, Erromatar-Germaniar Inperioko Kaisarra (1658-1740)

Elisabet Kristina, Karlos VI.a Erromatar-Germaniar Inperioko Kaisarraren Enperatriz Ezkontidea (1691-1750)

X: Elisabeth Chistine, Charles VI.a Erromatar-Germaniar Inperioko Kaisarraren Enperatriz Ezkontidea (1691-1750)

X: Isabel Cristina, Carlos VI.a Erromatar-Germaniar Inperioko Kaisarraren Enperatriz Ezkontidea (1691-1750)

Petri Handia, Errusiako Tsarra (1672-1725)

X: Petri I.a, Errusiako Tsarra (1672-1725)

X: Petr I.a, Errusiako Tsarra (1672-1725)

X: Pedro Ia., Errusiako Tsarra (1672-1725)

X: Pierre Ia., Errusiako Tsarra (1672-1725)

X: Peter Ia. Errusiako Tsarra (1672-1725)

Frederiko II.a, Prusiako Erregea (1712-1786)

X: Friedrich II.a, Prusiako Erregea (1712-1786)

X: Federiko II.a, Prusiako Erregea (1712-1786)

X: Federico II.a, Prusiako Erregea (1712-1786)

X: Frédéric II.a, Prusiako Erregea (1712-1786)

Gustavo III.a, Suediako Erregea (1746-1792)

X: Gustav III.a, Suediako Erregea (1746-1792)

X: Gustave III.a, Suediako Erregea (1746-1792)

Viktor Emanuel III.a, Italiako Erregea (1869-1947)

X: Vittorio Emmanuele III.a, Italiako Erregea (1869-1947)

X: Víctor Manuel III.a, Italiako Erregea (1869-1947)

X: Victor Emmanuel III.a, Italiako Erregea (1869-1947)

5.3.5. Beste zenbait adibide**Alexandro Handia (K.a. 356-323)**

X: Alejandro Magno

X: Alexandre le Grand

Karlomagno (742-814)

X: Karolus Magnus

X: Charles the Great

X: Charles le Grand

X: Carl der Grosse

X: Karl

X: Charlemagne

X: Xarlemaña

X: Karlos Handia

Leonor Akitaniakoa, Henrike II.a Ingalaterrako Erregearen Erregina Ezkontidea (1122-1204)

X: Leonor de Aquitania

X: Eléonore d'Aquitaine

X: Eleanor of Aquitaine

Maria Stuart, Eskoziarren Erregina (1542-1587)

X: Mary Steward, Eskoziarren Erregina (1542-1587)

X: Maria Estuardo, Eskoziarren Erregina (1542-1587)

X: Maria Stuart, Eskoziarren Erregina (1542-1587)

X: Marie Stuart, Eskoziarren Erregina (1542-1587)

6. ZENBAIT BANAKO EGILE BEREZIREN SARRERA NAGUSIAK

6.1. ERREGELA HONEN ZERGATIEZ

Banako egileen artean badaude batzuk sail berezi bat osatzen dutenak: latin eta greziar egile klasikoak, santuak, apezpikuak, noble tituludunak, etab. Mota horietako egileak erregela espezifiko batzuk izaten dituzte, funtsean, egile arruntekin ez bezala hizkuntza batetik bestera beraien izenak usu aldatzen direlako. Erregela honen helburua da zehaztea nola egingo diren mota horietako sarrerak euskarazko katalogo batean. Ez da zerrenda exhaustiboa izango, baina bai bilduko ditu kasurik arruntenak.

Orobat, egilea ezezaguna denean eta esaldi baten bidez adierazten denean zer egin behar den ere zehaztuko da azken atalean.

6.2. LATIN ETA GREZIAR PERTSONA-IZENAK

Izen latino eta grekoek multzo berezi bat osatzen dute banako egileen sarrera nagusien barruan. Izan ere, Grezia edota Erroma klasikoko egileen izenak arrunki zentru katalogatzailearen hizkuntzaren arabera eman ohi dira eta, beraz, horixe izango da ABKn ere segituko den irizpide nagusia. Baina Erdi Aroan zehar eta askoz ere geroago ere egile askok beren izenak latinezko forman ematen ditu. Zer egin guztiekin? Hori arautzera datoz ondoko zehaztapenak:

- a) Egileak K.o. 1400. urtea baino lehenagokoak badira, sarrera nagusi gisa euskarazko forma erabiliko da (bai latinoekin bai grekoekin). Orobat, bigarren sarrera egingo da latinezko, gaztelaniazko eta frantsesezko formekin eta, beharrezkoa bada, dokumentuan dakarrenarekin ere. Forma horiek zehazteko Euskaltzaindiaren 76. araua erabiliko da (*Latin eta greziar pertsona-izen klasikoak euskaraz emateko irizpideei buruzko erabakia*<). Adibidez:

Homero

- X: Homerus
- X: Homère
- X: Omer

Sofokles

- X: Sophocles
- X: Sophocle
- X: Sófocles
- X: Sopokel

Bakilides

- X: Bacchylides
- X: Bacchylide
- X: Baquilides

Seneka, Luzio Aneo

- X: Seneca
- X: Sènéque
- X: Séneca

- b) Data horretatik aurrerako egileen kasuan sarrera nagusi gisa euskaldun ikasien artean gaur egun arruntena eta erabiliena dena erabiliko da. Orobat, bigarren sarrera egingo da latinezko, gaztelaniazko eta frantsesezko formekin eta, oro har, beharrezkoak diren gutziekin.

Etcheberri, Joanes (Sarako) (1668-1749)

- X: Ioanne Etcheberri (1668-1749)
- X: Ioannes Etcheberri (1668-1749)
- X: Etcheberri, Joannes d' (1668-1749)
- X: Etcheverry, Joannes d' (1668-1749)

Oihenart, Arnaud (1592-1667)

- X: Arnaldus Oihenartus (1592-1667)
- X: Oihenart, Arnauld (1592-1667)
- X: Oyenart, Arnaldo de (1592-1667)
- X: Oihénart, Arnaud d' (1592-1667)
- X: Oihenarte (1592-1667)
- X: Oyhenart, Arnaud d' (1592-1667)

Nebrija, Antonio de (1444-1522)

- X: Elius Antonius Nebrissensis (1444-1522)
- X: Nebrixa, Antonio de (1444-1522)
- X: Lebrixa, Antonio de (1444-1522)
- X: Nebrissa, Antonio de (1444-1522)

Valla, Lorenzo (1406-1457)

- X: Della Valle, Lorenzo (1406-1457)
- X: Vallensus, Laurentius (1406-1457)
- X: Valla, Laurentius (1406-1457)
- X: Vallati, Lorenzo (1406-1457)

- c) Zalantza azkue Biblioteka batzordeak erabakiko ditu, beharrezkoa izanez gero Onomastika batzordearen irizpena eskatu ondoren.

6.3. SANTUAK ETA SANTAK

Santuen eta santen izenei dagokienez, ezaguna da santu berberak izen bat baino gehiago izan dezakeela eta, batez ere, bere izenak dozenaka forma desberdin izan ditzazkeela. Forma horietako asko hizkuntza berberaren barruan agertzen dira, baina, beste asko hizkuntzaz hizkuntzako bertsioei dagozkie. Zeren, jakina denez, Eliza Katolikoaren tradizioan santu eta santen izenak sistematikoki itzuli izan dira hizkuntza guztietara.

Adibidez, Ignazio Loiolakoak izen-deitura bat baino gehiago erabili zituene bere bizitzan zehar eta, gainera, bere izenaren bertsioak egin izan dira, sistematikoki, munduko hizkuntza guztiz gehienetara. Hortaz gain, arrunta da hizkuntza berberaren barruan dozena erdi forma ezberdin agertzea.

ABKren helburua euskarazko katalogo bat egitea denez gero, gaur eguneko euskaldun ikasientzat arruntena eta ezagunena den forma hautatu behar da sarrera nagusiaren oinarritzat. Horretarako ondoko erregelak erabiliko dira:

- a) Santuen eta santen kasuan sarrera nagusi gisa oro har euskarazko formak hobetsiko dira.
- b) Euskal forma hautatzeko Euskaltzaindiaren 66. araua erabiliko da (*Santutegiko izen ohikoena*).
- c) Orobat, bigarren sarrerak egingo dira gaztelaniazko eta frantsesezko formekin eta, oro har, beharrezkoak diren guztiekin.
- d) Zalantzako kasuetan Azkue Biblioteka batzordeak erabakiko du zein forma hautatu, beharrezkoa izanez gero Onomastika batzordearen irizpena eskatu ondoren.

Erregela orokorrak horiek badira ere, aipagarria da gaiaren konplexutasuna eta kasuistika ugaria. Bereziki kontuan hartu behar da duela gutxira arte ohitura zabala izan dela egile klasikoek zein modernoek izena itzultzea, baina azken urteotan egile modernoentzat ohitura hori bertan behera geratu dela. Adibidez, hortxe ditugu *Carlos / Karel / Karol / Karl* Marx edo *Segismundo / Sigismund / Sigmand / Sigmund* Freud. Badirudi azken urteotan hizkuntza guztietan soilik beren jatorrizko izenen bidez ezagutzen direla eta ez dela haizu izena itzultzea. Santu modernoek kasuan ere antzerako bide bat egin delakoan gauden, adibidez, Jean Baptiste de La Salle edo Jean Baptiste Marie Vianney-en kasuetan: duela gutxira arte beren izenak hizkuntzaren arabera itzultzea arrunta izan bada ere, badirudi azken urteotako joera jatorrizkoa errespetatzea dela.

Beraz, antzinako santuen kasuan oro har euskarazko formak hobetsiko badira ere (gure inguruko hizkuntzetan egiten den bezala), zalantza ugari sor daiteke santu modernoagoen edo gutxiago ezagunen kasuan. Kasu horietan Azkue Biblioteka batzordeari dagokio formak banan-banan erabakitzea, ondoko irizpideak kontuan hartuz:

- a) Munduko biblioteka nagusietako katalogoetan erabaki duten sarrera nagusia.
- b) Balizko euskarazko formak euskaldun ikasien artean duen gaurkotasuna.

Bestalde, sarrera nagusiaren sintaxiari dagokionez, kasu guztietan sarre-raren lehen elementua ponte-izena izango da, deitura aurretik jarri gabe. Halaber, *Santua* edo *Santa* terminoak gehituko dira. Orobat, posible den kasu guztietan datak erantsiko dira.

Ikus dezagun zenbait adibide:

Ignazio Loiolakoa, Santua (1491-1556)

- X: Ignacio de Loyola, Santo (1491-1556)
- X: Ignace de Loyola, saint (1491-1556)
- X: Ignatius of Loyola, Saint (1491-1556)
- X: Ignatius von Loyola (1491-1556)
- X: Iñigo Loiolakoa (1491-1556)
- X: Ignacio Loiolaco, Santo (1491-1556)
- X: Loyola'tar Iñazio, Deuna (1491-1556)
- X: San Ignacio Loiolaco, Aita (1491-1556)
- X: Iñazio, Deuna (1491-1556)
- X: Loyola'tar Iñigo, Deuna (1491-1556)
- X: Loyola'tar Eneko, Deuna (1491-1556)
- X: Loyola'tar Iñaki, Deuna (1491-1556)
- X: Iñaki, Deuna (1491-1556)
- X: Loiolako Iñazio, Donea (1491-1556)
- X: Loiolako Iñigo (1491-1556)
- X: Inazio, Donea (1491-1556)

Frantzisko Xabier, Santua (1506-1552)

- X: Francisco Javier, Santo (1506-1552)
- X: François Xavier, saint (1506-1552)
- X: Francis Xavier, Saint (1506-1552)
- X: Francesco Saverio, santo (1506-1552)
- X: Xabier'tar Prantzisko, Deuna (1506-1552)
- X: Jabier'tar Frantzisko, Santua (1506-1552)
- X: Franzizco Zabierekoa (1506-1552)
- X: Francés de Xavier (1506-1552)
- X: Frantses Jatsukoa, Santua (1506-1552)
- X: François de Jaxu et Xavier, Saint (1506-1552)
- X: Xabierko Frantzisko (1506-1552)

Frantzisko Asiskoa, Santua (1182-1226)

- X: Francisco de Asís, Santo
- X: François d'Assise, saint

- X: Francis of Assisi, Saint
- X: Francesco d'Assisi, santo
- X: Asistar Prantzisko, Deuna
- X: Frances Assisacoua, Santua

Joan Gurutzekoa, Santua (1542-1591)

- X: Juan de la Cruz, Santo (1542-1591)
- X: John of the Cross, Saint (1542-1591)
- X: Giovanni della Croce, santo (1542-1591)
- X: Donibane Gurutze (1542-1591)

Jean Baptiste Marie Vianney, Santua (1786-1859)

- X: Ars'ko Erretorea (1786-1859)
- X: Vianney Santua (1786-1859)
- X: Juan Bautista M. Vianney, Santo (1786-1859)
- X: Jean Baptiste Marie Vianney, saint (1786-1859)
- X: Vianney, John Baptist, Saint (1786-1859)

Jean Baptiste de La Salle, Santua (1651-1719)

- X: Juan Bautista de La Salle, Santo (1651-1719)
- X: Jean Baptiste de La Salle, saint (1651-1719)
- X: La Salle, Jean Baptiste, Saint (1651-1719)
- X: Jean-Baptiste de LaSalle (1651-1719)
- X: Salle, Jean-Baptiste de la (1651-1719)
- X: Joannes Batista, Dohatsua (1651-1719)
- X: Salle'ko Joan Bautista, Deuna (1651-1719)

Joana Arkekoa, Santa (1412-1431)

- X: Juana de Arco, Santa (1412-1431)
- X: Jeanne d'Arc, sainte (1412-1431)
- X: Joan of Arc, Saint (1412-1431)
- X: Giovanna d'Arco, santa (1412-1431)
- X: Jeanne la pucelle (1412-1431)
- X: Jeanne d'Arc, Santa (1412-1431)
- X: Giovanna d'Arc, santa (1412-1431)

Vicenta Maria Lopez Bikuña, Santa (1847-1890)

- X: López Vicuña, Vicenta María, Santa (1847-1890)

6.4. BANAKO EGILEEN ERLIJIO-IZENAK

Jakina denez, Eliza Katolikoaren zenbait ordena erlijiosotan oso arrunta izan da ordenean sartzean izen berri bat hartzea. Zenbait kasutan, gainera, izen

horiek eredu topiko batzuk segitzen dituzte eta leku zehatz batekin edo adbo-kazio erlijioso batekin lotuta daudenez gero, hizkuntza batetik bestera itzuli ohi dira.

Atal honen asmoa ez da kasu horiek motaz-mota deskribatu eta arautzea, baizik eta euskarazko katalogo batean sortzen diren arazo nagusiei irtenbidea ematea. Eta arazoak sortzen dira batez ere zenbait ordenetako erlijiosoek euskal gaiekin lotutako produkzio bibliografiko aberatsa daukatelako. Beraz, ikus dezagun kasurik arruntenak nola ebatzi:

6.4.1. Kaputxinoak eta antzeko ordenak

Kaputxinoen artean orain dela hamarka gutxi arte oso arrunta izan da ize-na + jaioterria bezalako egiturak erabiltzea. Horrelako kasuetan ondoko erre-gelen arabera jokatu da:

- a) Egilearen izenik arruntena eta ezagunena hautatuko da sarrera nagusiztat. Jaiotzatiko izena bada, beste edozein egileren kasuan bezala jarriko da, baina erlijio-izena baldin bada, sintaxi estandar baten arabera kokatuko da nahiz eta ez izan egileak berak sarrien erabili duena. Adibidez, **Damaso Intzakoa**, nahiz eta berak sarrien darabilen forma *Intza'r Damaso* izan.
- b) Euskal Herriko kaputxinoen kasuan izena euskarazko forman emango da eta gainetik kasuetan jatorrizko forman. Adibidez, **Bernardino Lizarrakoa**, baina **Lamberto de Zaragoza**.

Ondoren, adibide gehiago:

Polikarpo Iraizozkoa (O.F.M. Cap.)

- X: Zarranz Bermejo, Agustín
- X: Iraizoiz'ko Polikarpo
- X: Iraizoz'tar Polikarpo
- X: Policarpo de Iraizoz

Roman Berakoa (O.F.M. Cap.)

- X: Román de Bera (O.F.M. Cap.)
- X: Dornaku de Vera, Román
- X: Bera'tar Erroman Mirena, Aba
- X: Bera, P.
- X: Bera'tar Erroman
- X: Erramun Berakoa, Aita
- X: Dornaku Olaetxea, Juan Maria Roman
- X: Dornacu Olaechea, Juan María Román

Damaso Intzakoa (O.F.M. Cap.)

- X: Olasagarre Zubillaga, Miguel
- X: Intza'r, Damaso
- X: Intza, Aita
- X: Aita Intza-r
- X: Dámaso de Inza
- X: Kalparregi
- X: Araiz'tar, D.
- X: Ar'tar, D.
- X: Damasus ab Inza
- X: O.dar M.

Jose Antonio Donostiakoa (O.F.M. Cap.)

- X: Donostia, Aita (O.F.M. Cap.)
- X: Zulaika Arregi, José Gonzalo
- X: Zulaica Arregui, José Gonzalo de
- X: Aita Donostia
- X: Donostia, P.
- X: Donostia'r J.A., Aba
- X: Donosti, Aita
- X: Donostiar, Joseba Andoni, Aita
- X: Jose Antonio de Donostia (O.F.M. Cap.)
- X: José Antonio de San Sebastián (O.F.M. Cap.)
- X: Udalaitz

Fernando Dimakoa (O.F.M. Cap.)

- X: Soloeta-Dima, Aita (O.F.M. Cap.)
- X: Fernando María Soloeta-Dima (O.F.M. Cap.)
- X: Soloeta, Saturnino de
- X: Soloeta Iturrondobeitia, Saturnino

6.4.2. Banako egileen adbokazio erlijiosoak

Sarritan, ordena erlijioso batean sartzean hartzen den izen berria adbokazio erlijioso bat izan ohi da, doktrina katolikoaren puntu zehatzen bat edo santuren bat aipatuz. Kasu horietan ondoko erregelak segituko dira:

- a) Egilearen izenik arruntena eta ezagunena hautatuko da sarrera nagusiztat. Jaiotzatiko izena bada, beste edozein egileren kasuan bezala jarriko da, baina erlijio-izena baldin bada, sintaxi estandar baten arabera kokatuko da nahiz eta ez izan egileak berak sarrien erabili duena. Adibidez, **Pi Santa Teresarena** eta ez *Terese Deuna'ren Pi*.

- b) Euskal Herriko egileen kasuan izena euskarazko forman emango da eta gainera kasuetan jatorrizko forman. Adibidez, **Bartolome Santa Teresarena** baina **Antonio de San Joseph**.
- c) Adbokazio erlijiosoak printzipioz «-en» kasuaren bidez eraikiko dira, eta ez «-ko» kasuaren bidez, baina kasuan kasuko salbuespenak egin daitezke. Adibidez, **Josefa Sakramentu Santuarena**, eta ez *Josefa Sakramentu Santukoa*, baina **Joan Gurutzekoa** eta ez *Joan Gurutzearena*.

Ondoren, adibide gehiago:

Bartolome Santa Teresarena (O.C.D.) (1768-1835)

- X: Madariaga Garate, Bartolome (1768-1835)
- X: Bartolome Santa Teresacoa (1768-1835)
- X: Bartolomé de Santa Teresa (O.C.D.) (1768-1835)
- X: Bartolome Santa Teresa (O.C.D.) (1768-1835)

Pi Santa Teresarena (O.C.D.)

- X: Terese Deuna'ren Pi, Aba
- X: Pi, Aita
- X: Pio de Santa Teresa (O.C.D.)
- X: Etxebarria Alakano, Felipe
- X: Echebarria Alakano, Felipe
- X: Pi Aba

Emiliano Jesus Haurrarena (O.C.D.) (1904-1967)

- X: Emiliano, Aita (O.C.D.) (1904-1967)
- X: Barandiaran Kortazar, Julián (1904-1967)
- X: Barandiaran Cortazar, Julián (1904-1967)
- X: Barandiaran, Emiliano (1904-1967)
- X: Emiliano del Niño Jesús (O.C.D.) (1904-1967)
- X: Emiliano, Aita (O.C.D.) (1904-1967)
- X: Olagoiti (1904-1967)
- X: Zapal (1904-1967)

Josefa Sakramentu Santuarena (1652-1721)

- X: Larramendi Larrañaga, Josefa (1652-1721)
- X: Josefa del Santísimo Sacramento (1652-1721)
- X: Larramendi, Josefa (1652-1721)
- X: Josefa Sakramentu Txit Santukoa (1652-1721)
- X: Josefa Sacramento Guciz Santuarena (1652-1721)

6.5. NOBLEZIA TITULUAK ETA ANTZEKOAK

Jakina denez, noblezia-tituluen eta antzekoen izena oso zaila da hizkuntza batetik bestera itzultzen, sarritan ez baitago baliokide zehatzik, ezta antzerakorik ere. Adibidez, ez dirudi *Lord* edo *Sir* bezalako ohorezko izendapek erraz itzultzekoak direnik.

Aldiz, beste termino batzuk baliokide arruntagoak dituzte hizkuntza batetik bestera, hala nola *conde*, *conte*, *count*, *graaf*.. baina arrunki analogiaz jokatzen da, ez itzulpen zehatz bat egin nahirik. Izan ere, noblezia-titulua gehien-gehienetan errege-erregina batek emanak izan ohi dira eta beren esanahi zehatza guztiz lotuta dago emaitza horren testuinguru historiko-legalari.

Katalogazio Erregela Angloamerikarrek (AACR) ere noblezia-titulua eta antzekoak jatorrizko hizkuntzan emateko agintzen dute, hots, ingeles titulua ingelesez edo aleman titulua alemanez. Badirudi hori dela euskarazko katalogo batek ere segituko beharko lukeen bidea.

Baina zalantzazkoa izan daiteke erabakitzea zein hizkuntzatan eman behar diren Euskal Herriko nobleen titulua. Izan ere, *konde*, *markes* edo *duke* hitz arruntak dira gaur egungo euskaldun ikasientzat eta, hortaz gain, zenbait euskal idazle arrunki bere noblezia-tituluaren euskarazko formaren bidez eza-gutzen da, adibidez, Peñafloidako kondea.

Printzipioz badirudi kasu honetan hauxe dela biderik egokiena: titulua eman duen erregearen hizkuntzan ematea, hots, Espainiako erregeak emandako titulua gatzelaniaz eta Frantziako erregeak emandakoak frantsesez.

Bi arrazoi daude horretarako. Batetik, nazioarteko katalogazio-araudiak alde edo moldez bide hori bultzatzen du, goian aipatu diren arrazoiengatik. Bestetik, arrazoi historikoengatik sarritan ez da batere erraza banako egile baten herritartasuna bere noblezia titulu *baten*, eta *soilik baten*, arabera ebaztea. Kontuan har bedi nobleek sarritan titulu bat baino gehiago izaten dutela, ezkontzaz edo heredentziaz eskuratuak, eta titulu horien jatorria oso leku desberdinetan egon daitekeela. Gainera, gaur egun noblezia tituluek balio sinboliko hutsa dute kasu gehienetan, aipatzen den lekuarekin inolako lotura materialik gabe. Adibidez: Jose Antonio Primo de Rivera *Marqués de Estella* tituluaren jabea zen, baina hortik nekez ondoriozta daiteke bere herritartasunari buruzko daturik (*Marqués de Estella* titulua bere arbaso bati eman zion Espainiako erregeak karlisten bigarren gerratean izandako garaitzpenengatik); beste horrenbeste esan daiteke *Conde de Xauen* edo *Marqués de Alhucemas* tituluaren jabeen buruz (Dámaso Berenguer eta Manuel García Prieto, hurrenez hurren), kasu bietan Espainiako erregeak emandako titulua baitira (XX. mendearen hasieran, gerra kolonialetan izandako portaeragatik) eta horietatik nekez atera daiteke beren jatorrizko edo egungo jabeen marrokoartasunari buruzko ondorioz.

Beraz, salbuespenak salbuespen, tituluak eman duen erregearen hizkuntzan emango dira. Euskal Herriko egileen kasuan ere, izen-deiturak euskal grafian jarriko dira, hala dagokion kasuetan (ikus 1. katalogazio-erregela), baina noblezia titulua jatorrizko hizkuntzan.

Dena den, badira zenbait egile euskaldun ikasien artean beti-beti euskarazko formaren bidez aipatzen direnak eta, beraz, kasu horietan, salbuespen gisa, titulua ere euskaraz jarriko da. Horrela, adibidez, Peñafloredako kondearen sarrera nagusian bere izena euskal grafian jarriko da, eta bere titulua euskaratu egingo da. Azkue Biblioteka batzordeak erabakiko du zein kasutan egin behar den salbuespenik.

Orobat, kontuan har bedi sarrera nagusia izenaren ala tituluaren arabera egin behar den erabakitzeke AACR segituko dela.

Ondoren, adibide gehiago:

Peñafloreda Kondea (1729-1785)

- X: Peñafloreda, Xabier Maria Munibe, Kondea (1729-1785)
- X: Munibe, Xabier Maria, Conde de Peñafloreda (1729-1785)
- X: Peñafloreda, Javier María de Munibe, Conde de (1729-1785)
- X: Munibe, Xavier de (1729-1785)
- X: Munibe, Francisco Xavier de (1729-1785)
- X: Munibe e Idiaquez, Xavier María de (1729-1785)
- X: Un Caballero Guipuzcoano (1729-1785)
- X: Un Cavallero Guipuzcoano (1729-1785)
- X: Sor Luisa (1729-1785)
- X: Luisa de la Misericordia (1729-1785)
- X: Luisa Miserikordiakoa (1729-1785)

Bonaparte, Louis Lucien, Prince (1813-1891)

- X: Bonaparte, Louis Lucien, Printzea (1813-1891)
- X: Bonaparte, Luis Luciano, Príncipe (1813-1891)
- X: Bonaparte, Louis-Lucien, Prince de France (1813-1891)
- X: Bonaparte, Luis-Luziano (1813-1891)
- X: Bonaparte, L. L. (1813-1891)
- X: Bonaparte, Ludovicus Lucianus (1813-1891)
- X: Bonaparte, Luis-Luzian (1813-1891)

Folin, Léopold Alexandre Guillaume, Marquis de (1817-1896)

- X: Folin, Marquis de (1817-1896)
- X: Folin, Markesa (1817-1896)
- X: Folin, L. de (1817-1896)
- X: Folín, Leopoldo (1817-1896)
- X: Folin, Leopold de (1817-1896)

Berwick, James Fitzjames, Duke of (1670-1734)

- X: Berwick-upon-Tweed, James Fitzjames, Duke of
- X: Fitzjames, James, Duke of Berwick
- X: Duc de Fitz-James
- X: Earl of Tinmouth
- X: Baron of Bosworth
- X: Marshal Duke of Berwick
- X: Mariscal Duque de Berwick

Byron, George Gordon Byron, Baron (1788-1824)

- X: Lord Byron (1788-1824)
- X: Byron, Lord (1788-1824)

6.6. AITA SANTU, APEZPIKU ETA ANTZEKOAK

Eliza Katolikoaren eta bestelako elizen kargudunek sail berezi bat osatzen dute banako egileen artean. Izan ere, beren kargua hartzean sarritan izen erlijioso berri bat hartu ohi dute (sarriago lehen azken hamarkadatan baino) eta, ondorioz, beren izenak trataera berezi bat behar dute. Hortaz gain, sarritan izenari beren karguari dagokion terminoa eranstean zaio (*Aita santua, Kardinala, Apezpikua...*). Atal honetan kasurik arruntenak ebatziko ditugu, bide batez irizpide nagusiak emanik antzerako guztiak ebazteko. Aita santuarena da kasurik argiena eta hortik abiatuko gara.

Aita santuen sarrera nagusiak euskaraz idatziko dira, printze subiranoen kasuan bezala (ikus 5. katalogazio-erregela). Beraz, Joan Paulo II.a, Aita santua eta ez *Juan Pablo II, Papa* edo *Jean Paul II, Pape*. Ildo horretan ondoko erregelak segituko dira:

- a) Izenaren sintaxia eta forma erabakitzeke Katalogazio Erregela Anglo-amerikarrei (AACR) segituko zaie.
- b) Izenaren euskal forma finkatzeko Euskaltzaindiaren 129. araua (*Aita santuen izenak*) segituko da.
- c) Bigarren sarrerak egingo dira beharrezkoa den kasu guztietan.

Adibidez:

Joan Paulo II.a, Aita santua (1920-2005)

- X: Juan Pablo II, Papa (1920-2005)
- X: Jean Paul II, Pape (1920-2005)

Joan XXIII.a, Aita santua, Dohatsua (1881-1963)

X: Juan XXIII, Papa, Beato (1881-1963)

X: Jean XXIII, Pape (1881-1963)

Delako Aita santuari banako egile gisa dagokion sarreraz gain, erakunde gisa dagokion sarrera behar denean erabiliko da, adibidez:

Eliza Katolikoa. Aita santua (1978-2005: Joan Paulo II.a)**Eliza Katolikoa. Aita santua (1958-1963: Joan XXIII.a)**

Bide beretik, kristau elizaren apezpiku, kardinal, patriarka eta antzekoak aita santuaren ereduari segituz idatziko dira. Kontuan har bedi apezpiku edo kardinalen artean izen erlijosoa barik izen arrunta erabili ohi dela (antzinakoen kasuan salbu), karguari buruzko aipamena erantsiz. Beraz, kasu berezietan izan ezik izen-deituren jatorrizko forma erabiliko da (eta ez euskarazko bertsiorik), baina karguari buruzko aipamena euskaraz idatziko da, salbuespenak salbuespen. Adibidez:

Lavieuxville, Pierre Guillaume de, Baionako Apezpikua (1682-1734)

X: La Vieuxville, Piarres de, Bayonaco Apezpikua (1682-1734)

X: Lavieuxville-Harosteguy, Pierre Guillaume de (1682-1734)

X: Lauieuxuille, P. Guillaume de, Bayonaco Apezpikua (1682-1734)

X: Lauieuxuille, Piarres de (1682-1734)

Nerses IV.a, Armeniako Patriarka (1102-1173)

X: Nerses Clajensis armeniorum patriarcha (1102-1173)

X: Nerses, Santo, Patriarca de Armenia (1102-1173)

X: Nerses IV, Shnorhali (1102-1173)

X: Nerses IV, the Gracious (1102-1173)

X: Nerses Glayetsi (1102-1173)

X: Nerses, Shnorhali, Saint (1102-1173)

X: Nerses, Chorhali, Saint (1102-1173)

X: Nerses, Glaietsi, Saint (1102-1173)

X: Nerses IV, Catholicos of Armenia (1102-1173)

X: Nerses IV, Patriarch of Armenia (1102-1173)

X: Nerses, Klajetsi, Saint (1102-1173)

X: Nerses, Pahlawuni (1102-1173)

X: Nerses, Pahlavuni (1102-1173)

X: Nerses Claiensis, Santo (1102-1173)

6.7. EGILEA ESALDI BATEN BIDEZ ADIERAZTEN DENEAN

Zenbait kasutan liburu baten egilea ematerakoan izena erabili beharrean esaldi baten bidez adierazten da. Horrelako kasu askotan, antzinako liburuetan bereziki, esaldi horietan erabiltzen den grafia ez da gaur egungoa, ez euskaraz ezta beste hizkuntzetan ere. Kasu horietan sarrera nagusien grafia egungo moldeetara ekarriko da, grafia zaharrarekin bigarren sarrera bat eginez.

Halaber, grafia ezezik, morfologia ere moldatuko da, egilea adierazten duen esaldia kasu nominatiboan emateko.

Hauxek dira kasu batzuk:

X: Apaiz euscaldun batec eusquerara biurtua

X: Abade euscaldun batec eusquerara biurtua

IKUS Abade euskaldun bat [*Liburu beraren bi edizio dira, itzultzaile berbera dutenak*].

X: Un Alabés Patriota

IKUS Un alavés patriota

Auteur de Amitié Amoureuse

X: Baztango Valleco Parroco batec

IKUS Baztango Balleko Parroko bat

X: Lejoa-ko biologo talde batek

IKUS Leioako biologo talde bat

GAIAK

7. EUSKAL HERRIKO HISTORIARI BURUZ

7.1. ERREGELA HONEN ZERGATIEZ

Euskal Herriko historiari buruzko liburuak katalogatzeak arazo ugari sortzen ditu. Izan ere, Espainia eta Frantziako historiari buruzko liburuak katalogatzeko zerrenda bereziak erabili ohi dira, estatu horien historia bere osotasunean hartzen dutenak, zatiketa kronologikoak eta geografikoak ere arautuz. Baina estatu bakoitzarenak franko desberdinak izaten dira kronologiari dagokionez; adibidez, askotan erreinaldiak hartzen dira irizpide kronologikotzat, errege eta erreinaldiak bat ez datozelarik Espainian eta Frantzian. Horrek oztopo handia dakar, bereziki Euskal Herri osoari buruzko liburuak katalogatzeko orduan: nola uztartu Iparra eta Hegoa?

Hortaz gain, euskal historian (eta, ondorioz, historiografian) bereziki azpimarratzekoa da herrialdeen garrantzia; hainbeste non eta azken urteotan *lurralde historiko* terminoa guztiz zabaldu den, beste batzuen kaltetan (probinzia, jaurerri, erresuma, zazpi euskal herriak...). Hori dela eta, bigarren zailtasun bat sortzen da: nola uztartu lurralde bakoitza Euskal Herriarekin, edota Historian zehar gertatu diren batasunekin (bi Nafarroen artekoa, edota mendebaldeko hiru lurraldeen artekoa, edota Iparraldeko hiru lurraldeen artekoa, etab.).

Orobat, zenbait hirik eta eskualdek garrantzi historiko berezia izan dute eta, ondorioz, ugaria da beraiei buruzko historiografia. Hori da, adibidez, Baiona edo Gasteiz bezalako hirien kasua, edota Enkarterri, Durango, Baztan... edota Trebiñuko Konderrria bezalako kasu bereziak.

Erregela honen helburua Euskal Herriko historiaren ikuspegi oso bat eskaintzea da, goian aipatu ditugun hiru zailtasunei aurre egiteko. Azpimarra dezagun duen helburu bakarra dokumentuen sailkapenerako baliagarria izatea dela. Tresna honen bitartez biziki erraztuko da Euskal Herriaren historiari buruzko bilaketa bibliografikoak egitea, liburu bakoitza sistema orokor baten barruan kokatuko baita.

7.2. ARGIBIDE OROKORRAK

Ezaguna denez, Frantzia eta Espainiako biblioteketan historiako dokumentuak sailkatzeko gaur egun erabiltzen den sistema, funtsean, Frantziako Biblioteka Nazionalak XIX. mendearen erdi aldean sortutako katalogoan oinarritzen da (16). Horretan finkatu zen, adibidez, Frantzia erromatarren aurreko Galiatik gaur egun arte oinarritzko deskribapen-unitatetzat hartzeko erabakia (muga geografikoak), edota denbora historikoa errainaldien arabera antolatzeko irizpidea (muga kronologikoak). Espainian, beste hainbat gauzetan bezala honetan ere Frantziako ereduari segitu zitzaion.

Molde horiek XIX. mendeko usadio historiografikoen arabera sortu baziren ere, beren bidea egin zuten eta, gaur egun, ia-ia naturalizat jotzen ditugu. Izan ere, tradizio katalogafikoa berriztapen historiografikoa baino kontserbadoreagoa suertatu baita eta gaur egungo ikuspegitik usadio horiek guztiz konbentzionalak direla garbi ikusi arren, ez dirudi oso praktikoa Frantziako edo Espainiako historiari buruzko katalogoetan errotikako aldaketak proposatzea, ongi finkatuak dauden topikoak itzulipurdikatu. Gainera, topiko horiek katalogatzailearen lana eta erabiltzailearen bilaketak errazten dituzte. Beraz, gutxi gora-behera ondo funtzionatzen dute, eta hori aski da biblioteka-katalogo bantzat.

Besterik da, noski, Euskal Herriko Historiari buruzko katalogo bat sortu nahi izatea, ez baitago aurrez hamarkadaz hamarkada ondutako konbentzio katalogafikorik, eta konbentzio historiografikoak ere, neurri batean, Frantziako edo Espainiako historia berezien menpeko suertatzen baitira askotan. Beraz, Euskal Herriko historiaren katalogoei buruzko konbentzioak sortu beharrean aurkitzen gara, frantsesek XIX. mendearen erdi aldera sortu zituzten gisa berean.

Erregela honetan proposatzen den ebazpena ondoko irizpide orokorrean oinarritzen da: Euskal Herri osoaren historia zazpi herrialdetan banatuko da (*zazpi euskal herriak*), eskualdeek eta hiriek ere sarrera zuzena izan dezaketelarik, baina aldikatzeko bera erabiliz Euskal Herri osorako zein bere bere herrialde, eskualde edo hirietarako. Periodizazio horren oinarria historia zazpi aro nagusitan banatzea da. Zenbait kasutan ez da aro horiek guztiak erabili beharrik izango, katalogoan dokumentu aski ez dagoelako; halaber, beste kasu batzuetan zazpi aroak hainbat azpiarotan banatuko dira, katalogoko dokumentuen ugaritasunak premia hori sortzen duen heinean. Zehaztapen horiek herrialdez-herrialde, eskualdez-eskualde edo hiriz-hiri erabakiko dira.

Dena dela, ezinezkoa izan da kasu guzti-guztietan aro bakoitzaren mugadatak bat etortzea. Baina daten artean sortzen diren desorekak bigarren mailakotzat jotzen dira, beti ere aroaren izaera orokorra hobetsi behar delarik, eta

(16) Ikus Almavi, Christian: «Catalogues historiques et conceptions de l'histoire». *Storia della Storiografia*, 1982, 2. zenb., 77-101 or.

ez data zehatza. Areago, daten helburua katalogatzailearen lana erraztea da, ez aroak modu absolutuan zedarritzea. Beraz, data historikoak malguki irakurtzea proposatzen da, beti ere zazpi aroen eskemaren arabera.

Irizpide horri segituz, Euskal Herriko historiari buruzko dokumentuak hiru multzo nagusitan banatuko ditugu:

- *Euskal Herria* sarrera dutenak (ikus 3. atala)
- Euskal herrialde baten izena sarreratzat dutenak (ikus 4. atala)
- Hiri edo eskualde baten izena sarreratzat dutenak (ikus 5. atala)

Hauek dira sarrera-mota bat, bestea edo hirugarrena erabiltzeko irizpideak:

- a) Euskal herrialde bat sarreratzat erabili behar da dokumentuaren gaia lurralde horri baino ez dagokionean.
- b) *Euskal Herria* sarrera erabili behar da dokumentuaren gaia Euskal Herriari bere osotasunean edo bere lurralde zabal bati dagokionean. Praktikan, eta besterik ezean, bi herrialderi buruzkoa bada, bi sarrera egingo dira, baina aski da hiru herrialderi buruzkoa izatea *Euskal Herria* sarrera erabili behar izateko.
- c) Dokumentuaren gaia Euskal Herriko hiri edo eskualde bat denean, hoxe erabiliko da sarreratzat.
- d) Dokumentuaren gaia euskal herrialde edo hiri bati egokitu arren, kasu batzutan komeni da bi sarrera egitea, bat dagokion lurraldearekin eta bestea *Euskal Herria* sarrerarekin. Ez da erreza arau bat ematea, baina gutxienez honako kasuetan bi sarrera egingo dira:
 1. Dokumentuaren aldi kronologikoa bete-betean dagokionean *Euskal Herria* sarreraren zerrendako aldiren bati.
 2. Dokumentuaren gaia espresuki euskal herrialde bati eta bi aldi kronologiko hauetako bati dagokionean: *Historiaurrea* edo *Erromatar Aroa*.
 3. Orobat, dokumentuaren gaia espresuki euskal herrialde bati dagokionean eta aldi kronologikoa V.-X. mende bitartekoa denean, hots, euskal herrialdeei buruzko lehen aipamen historikoak izan aurreko garaia.
 4. Zenbait gai berezitan, batez ere azken hiru mendetan: Frantziako Iraultza eta Inperioa, karlisten gerrak, mundu-gerrak, Espainiako Errepublikak eta Gerra Zibila, etab...

Ondoren daude zerrendatuta ABKn Euskal Herriaren historiako liburuak katalogatzeko erabiliko diren sarrera onartu guztiak eta sarrera ez-onartu nabarmenenak.

Katalogazio-erregela honetan sistema ireki bat proposatzen da, alegia, katalogoko dokumentuak ugaritu ahala posible da gai-sarrera berriak onartzea, beti ere aurrez ezarritako irizpideak errespetatuz. Horietako batzuk erregela honetan bertan iradokitzen dira, baina, dena dela, gai-sarrera berriak bere momentuan erabakiko dira.

7.3. EUSKAL HERRIA SARRERA DUTENAK

Liburu orokorretarako beltzez dagoen sarrera eta soilik hori erabiliko da:

Euskal Herria – Historia

- X: Euskadi – Historia
- X: Euskalerrria – Historia
- X: Baskonia – Historia
- X: Pirinio Apalak – Historia
- X: Pirinio Atlantikoak – Historia
- X: Iparraldea – Historia
- X: Ipar Euskal Herria – Historia
- X: Hego Euskal Herria – Historia
- X: Euskal Autonomia Erkidegoa – Historia
- X: Nafarroako Foru Erkidegoa – Historia
- X: Hegoaldea – Historia

Euskal Herriaren historia zazpi aro nagusitan antolatuko da, ondoko zatiketa kronologikoa segituz:

Euskal Herria – Historiaurrea

Euskal Herria – Historia – 0200 K.a.-0476 K.o. (Erromatar Aroa)

Euskal Herria – Historia – 0476-1512 (Erdi Aroa)

Euskal Herria – Historia – 1512-1789 (Aro Berria)

Euskal Herria – Historia – 1789-1876 (Foru Erregimenaren Krisialdia)

Euskal Herria – Historia – 1876-1979 (Gaur Egungo Aroa)

Euskal Herria – Historia – 1979-

Muga-datak hauek dira:

- 0200 K.a. Lehen aipu historikoak
- 0476 Erromako Inperioaren hondamendia
- 1512 Nafarroako Erresumaren zatiketa
- 1789 Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako Foruen suntsipena
- 1876 Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foruen suntsipena
- 1979 Euskal Autonomia Erkidegoaren sorrera

Aro horietako bakoitzaren barruan, ondoko azpiaroak erabiliko dira:

7.3.1. Historiaurrea

Aro honetarako beltzez dagoen sarrera eta soilik hori erabiliko da. Dena dela, dokumentu kopurua asko ugarituz gero zilegi izango da zatiketa kronologiko gehiago egitea, oraingoz aurreikusi ez badira ere.

Euskal Herria – Historiaurrea

- X: Paleolitoa – Euskal Herria
- X: Epipaleolitoa – Euskal Herria
- X: Mesolitoa – Euskal Herria
- X: Neolitoa – Euskal Herria
- X: Metal Aroa – Euskal Herria
- X: Eneolitoa – Euskal Herria
- X: Brontze Aroa – Euskal Herria
- X: Burdin Aroa – Euskal Herria

Garrantzitsua da azpimarratzea Historiaurreari dagozkion dokumentu guztiek izango dutela *Euskal Herria* sarrera, nahiz eta kasuren batzuetan euskal herrialde edo eskualde zehatz bati dagokiona ere izan

Beste sarrera batzuk ere onartzen dira, adibidez:

- Arkeologia – Euskal Herria**
- Historiaurreko artea – Euskal Herria**
- Indusketak (Arkeologia) – Euskal Herria**

Halaber, azpisarrera geografiko gisa lurralde historikoak ere onartzen dira, adibidez:

- Arkeologia – Araba**
- Historiaurreko artea – Bizkaia**
- Indusketak (Arkeologia) – Nafarroa**

7.3.2. Erromatar Aroa

Aro honetarako beltzez dagoen sarrera eta soilik hori erabiliko da. Dena dela, dokumentu kopurua asko ugarituz gero zilegi izango da zatiketa kronologiko gehiago egitea, oraingoz aurreikusi ez badira ere.

Euskal Herria – Historia – 0200 K. a.-0476 K. o. (Erromatar Aroa)

- X: Autrigoiak
- X: Barduloak
- X: Baskoiak
- X: Beroiak
- X: Kantabroak
- X: Karistioak

Garrantzitsua da azpimarratzea Erromanizazioari dagozkion dokumentu guztiek izango dutela *Euskal Herria* sarrera, nahiz eta kasuren batzuetan euskal herrialde edo eskualde zehatz bati dagokiona ere izan

7.3.3. Erdi Aroa

Aro honetarako beltzez dauden sarrerek eta soilik horiek erabiliko dira:

Euskal Herria – Historia – 0476-1512 (Erdi Aroa)

Euskal Herria – Historia – 0476-0824 (Inbasioen Aroa)

Euskal Herria – Historia – 0824-1200 (Goi Erdi Aroa)

Euskal Herria – Historia – 1200-1512 (Behe Erdi Aroa)

Muga-datak hauexek dira:

476 Erromako Inperioaren hondamendia

824 Iruñeko Erresumaren sorrera

1200 Araba eta Gipuzkoa Nafarroako Erresumatik bereizten dira

1512 Nafarroako Erresumaren zatiketa

Inbasioen aroan katalogatzen dira godo, franko eta arabeen inbasioei buruzko dokumentuak. Orobat, garrantzitsua da azpimarratzea 824ra arte dokumentu guztiek izango dutela *Euskal Herria* sarrera, nahiz eta kasuren batzuetan euskal herrialde zehatz bati dagokiona ere izan. Aldiz, data horretatik aurrera posible da soilik euskal herrialde zehatz bati dagokion sarrera izatea, zein bere eskemaren arabera.

7.3.4. Aro Berria

Aro honetarako beltzez dagoen sarrera eta soilik hori erabiliko da. Dena dela, dokumentu kopurua asko ugartuz gero zilegi izango da zatiketa kronologiko gehiago egitea, oraingoz aurreikusi ez badira ere.

Euskal Herria – Historia – 1512-1789 (Aro Berria)

Muga-datak hauexek dira:

1512 Nafarroako Erresumaren zatiketa

1789 Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako Foruen suntsipena

Alegia, Euskal Herrian Erdi Aroa 1512an bukatzen da, Nafarroako erresuma zatitzen denean. Horixe da euskal historiografian garbiki gailentzen den gertakaria eta horregatik hautatu da aro bien harteko muga konbentzionaltzat.

Garbi dago, bestalde, Aro Berriaren ezaugarri nagusia Foru Erregimena dela, baina jakina da horren eraketa XV. mendearen erdialdetik XVI. mendearen erdialdera luzatzen den prozesu luze bat dela, zaila delarik data konbentzional argiak eta nabarmenak ematea. Datak badira (adibidez, Lapurdiko Kostumak 1514an onartzen dira, Zuberoako Kostumak 1520an, Bizkaiko Foru Berria 1526an, Arabako Legeen Liburuaren lehen edizioa 1555koa da, Gipuzkoako Liburu Zaharra 1562an osatzen da, eta abar) baina modu marginalean aipatzen dira historiografian eta, ondorioz, ez dira baliagarriak muga konbentzionaltzat erabiltzeko.

Aroaren bukaera (1789), aldiz, muga konbentzional argia da Europa osan, eta bereziki ondo datorkio Euskal Herriari Foru Erregimenaren (Antzina-ko Erregimenaren) suntsipena dakarrelako Iparraldean eta krisi sakon bat zabaltzen duelako Hegoaldean, ehun urte geroago bururatuko dena (1876).

7.3.5. Foru Erregimenaren Krisialdia

Aro honetarako beltzez dauden sarrerak eta soilik horiek erabiliko dira:

Euskal Herria – Historia – 1789-1876 (Foru Erregimenaren Krisialdia)

Aro hau bitan banatzen da:

Euskal Herria – Historia – 1789-1815 (Iraultza eta Inperioa)

Euskal Herria – Historia – 1815-1876 (Karlismaldia)

Espezifikoki bi gerra karlistetako bati eskainitako liburuak bi sarrera hauen bidez katalogatuko dira:

Euskal Herria – Historia – 1833-1839 (1. Karlismaldia)

Euskal Herria – Historia – 1872-1876 (2. Karlismaldia)

Muga-datak hauek dira:

1789 Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako Foruen suntsipena

1815 Napoleonen hondamendia

1833 I. Gerra Karlistaren hasiera

1839 I. Gerra Karlistaren bukaera

1872 II. Gerra Karlistaren hasiera

1876 II. Gerra Karlistaren bukaera: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foruen suntsipena

Alegia, Foru Erregimenaren Krisialdia bi azpiarotan banatzen da, baina Karlismaldiek euskal historiografian duten pisua kontuan izanik, zilegi da bi sarrera berezi egitea, espezifikoki gerra horietako bat jorratzen duten dokumentuzat.

7.3.6. Gaur Egungo Aroa

Aro honetarako beltzez dauden sarrerak eta soilik horiek erabiliko dira:

Euskal Herria – Historia – 1876-1979 (Gaur Egungo Aroa)

Aro hau bitan banatzen da:

Euskal Herria – Historia – 1876-1936 (Kontzertuen Aroa)

Euskal Herria – Historia – 1936-1979 (Frankismoa eta Espainiako Trantsizioa)

Sarrera horietaz gain, beste bi sarrera hauek ere onartzen dira, espezifikoki gai horietako bat jorratzen duten dokumentuentzat:

Euskal Herria – Historia – 1931-1939 (Espainiako 2. Errepublikak)

Euskal Herria – Historia – 1936-1939 (Espainiako Gerra Zibila)

Orobat, mundu-gerrei buruzko dokumentuak, legokiekeen Historiako sarrera orokorraz gain, bi sarrera hauen bitartez katalogatuko dira:

Mundu-Gerra, 1.a, 1914-1918

X: Euskal Herria – Historia – 1914-1918 (I. Mundu-Gerra)

Mundu-Gerra, 2.a, 1939-1945

X: Euskal Herria – Historia – 1939-1945 (II. Mundu-Gerra)

Muga-datak hauek dira:

1876 Kontzertu Ekonomikoen negozioazioen abiapuntua

1914 I. Mundu-Gerraren hasiera

1918 I. Mundu-Gerraren bukaera

1931 Espainiako II. Errepublika

1936 Espainiako Gerra Zibilaren hasiera

1939 Espainiako Gerra Zibilaren bukaera eta II. Errepublikaren deuseztapena

1945 II. Mundu-Gerraren bukaera

1979 Euskal Autonomia Erkidegoaren sorrera

Alegia, aroa bi azpiarotan banatu da, bien arteko muga Espainiako Gerra Zibilaren hasiera delarik Baina bi sarrera horietaz gain, gai berezi batzuek euskal historiografian duten pisua dela-eta, beste lau sarrera espezifiko ere ezartzen dira. Azpimarratzekoa da mundu-gerrei buruzko dokumentuek bi sarrera izango dutela, bata espezifikoa eta bestea generikoa (dokumentua Euskal Herriari buruzkoa denean).

Bestalde, aroaren muga konbentzianaltzat 1979. urtea hautatu da, Euskal Autonomia Erkidegoaren sorrera XX. mendeko gertakari nagusia delako Eus-

kal Herri osoan, nahiz eta, beherago ikusiko dugun bezala, Nafarroaren kasuan data hori pixka bat aldatzen den (1982).

7.3.7. 1979az geroztikako aroa

Aro honetarako beltzez dagoen sarrera eta soilik hori erabiliko da.

Euskal Herria – Historia – 1979-

X: Euskal Autonomia Erkidegoa – Historia – 1979-

X: Nafarroako Foru Erkidegoa – Historia – 1979-

7.3.8. Euskal Herria: eskema orokorra

Laburbilduz, *Euskal Herria* sarrerarekin ABKn beltzez dauden sarrerak eta soilik horiek erabiliko dira. Dena dela, dokumentu kopurua asko ugarituz gero zilegi izango da zatiketa kronologiko gehiago egitea, oraingoz aurreikusi ez badira ere.

Euskal Herria – Historiaurrea

Euskal Herria – Historia – 0200 K. a.-0476 K. o. (Erromatar Aroa)

Euskal Herria – Historia – 0476-1512 (Erdi Aroa)

Euskal Herria – Historia – 0476-0824 (Inbasioen Aroa)

Euskal Herria – Historia – 0824-1200 (Goi Erdi Aroa)

Euskal Herria – Historia – 1200-1512 (Behe Erdi Aroa)

Euskal Herria – Historia – 1512-1789 (Aro Berria)

Euskal Herria – Historia – 1789-1876 (Foru Erregimenaren Krisialdia)

Euskal Herria – Historia – 1789-1815 (Iraultza eta Inperioa)

Euskal Herria – Historia – 1815-1876 (Karlismaldia)

Euskal Herria – Historia – 1833-1839 (1. Karlismaldia)

Euskal Herria – Historia – 1872-1876 (2. Karlismaldia)

Euskal Herria – Historia – 1876-1979 (Gaur Egungo Aroa)

Euskal Herria – Historia – 1876-1936 (Kontzertuen Aroa)

Euskal Herria – Historia – 1931-1939 (Espainiako 2. Errepublikak)

Euskal Herria – Historia – 1936-1939 (Espainiako Gerra Zibila)

Euskal Herria – Historia – 1936-1979 (Frankismoa eta Espainiako Trantsizioa)

Euskal Herria – Historia – 1979-

7.4. EUSKAL HERRIALDEAK

Honako hauek dira sarrera orokorrak:

Araba – Historia
Bizkaia – Historia
Gipuzkoa – Historia
Nafarroa – Historia
Nafarroa Beherea – Historia
Lapurdi – Historia
Zuberoa – Historia

7.4.1. Araba

Herrialde honetarako beltzez dauden sarrerak eta soilik horiek erabiliko dira. Dena dela, dokumentu kopurua asko ugarituz gero zilegi izango da zati-keta kronologiko gehiago egitea, oraingoz aurreikusi ez badira ere.

Araba – Historia

Araba – Historiaurrea
Araba – Historia – 0200 K. a.-0476 K. o. (Erromatar Aroa)
Araba – Historia – 0476-1512 (Erdi Aroa)
Araba – Historia – 1512-1789 (Aro Berria)
Araba – Historia – 1789-1876 (Foru Erregimenaren Krisialdia)
Araba – Historia – 1876-1979 (Gaur Egungo Aroa)
Araba – Historia – 1979-

7.4.2. Bizkaia

Herrialde honetarako beltzez dauden sarrerak eta soilik horiek erabiliko dira. Dena dela, dokumentu kopurua asko ugarituz gero zilegi izango da zati-keta kronologiko gehiago egitea, oraingoz aurreikusi ez badira ere.

Bizkaia – Historia

Bizkaia – Historiaurrea
Bizkaia – Historia – 0200 K. a.-0476 K. o. (Erromatar Aroa)
Bizkaia – Historia – 0476-1512 (Erdi Aroa)
Bizkaia – Historia – 1512-1789 (Aro Berria)
Bizkaia – Historia – 1789-1876 (Foru Erregimenaren Krisialdia)
Bizkaia – Historia – 1876-1979 (Gaur Egungo Aroa)
Bizkaia – Historia – 1979-

7.4.3. Gipuzkoa

Herralde honetarako beltzez dauden sarrerak eta soilik horiek erabiliko dira. Dena dela, dokumentu kopurua asko ugarituz gero zilegi izango da zati-keta kronologiko gehiago egitea, oraingoz aurreikusi ez badira ere.

Gipuzkoa – Historia

Gipuzkoa – Historiaurrea

Gipuzkoa – Historia – 0200 K. a.-0476 K. o. (Erromatar Aroa)

Gipuzkoa – Historia – 0476-1512 (Erdi Aroa)

Gipuzkoa – Historia – 1512-1789 (Aro Berria)

Gipuzkoa – Historia – 1789-1876 (Foru Erregimenaren Krisialdia)

Gipuzkoa – Historia – 1876-1979 (Gaur Egungo Aroa)

Gipuzkoa – Historia – 1979-

7.4.4. Nafarroa

Herralde honetarako beltzez dauden sarrerak eta soilik horiek erabiliko dira. Dena dela, dokumentu kopurua asko ugarituz gero zilegi izango da zati-keta kronologiko gehiago egitea, oraingoz aurreikusi ez badira ere.

Nafarroa – Historia

Nafarroa – Historiaurrea

Nafarroa – Historia – 0200 K. a.-0476 K. o. (Erromatar Aroa)

Nafarroa – Historia – 0476-1512 (Erdi Aroa)

Nafarroa – Historia – 0476-1234 (Goi Erdi Aroa)

Nafarroa – Historia – 1234-1512 (Behe Erdi Aroa)

Nafarroa – Historia – 1512-1789 (Aro Berria)

Nafarroa – Historia – 1512-1530 (Konkista eta Anexioa)

Nafarroa – Historia – 1789-1876 (Foru Erregimenaren Krisialdia)

Nafarroa – Historia – 1876-1982 (Gaur Egungo Aroa)

Nafarroa – Historia – 1982-

Lehenago aipatu ez diren muga-datak hauexek dira:

1234 Errege-leinu baskoiaren amaiera

1982 Foru Hobekuntzaren Legearen onarpena

Kontuan hartu behar da konkistaren gaiak historiografian duen pisua dela-eta, gai hori espezifikoki jorratzen duten dokumentuak sarrera propio baten bidez katalogatuko direla.

Bestalde, zalantza askoren ondoren ez da aintzat hartu Lege Paktatuaren urtea (1841) muga-data konbentzionaltzat, historiografian 1876. urtea gehia-

gotan aipatzen delako prozesu baten amaieratzat, nahiz eta prozesu horretan Lege Paktatua mugarri guztiz garrantzitsua izan; baina eskuarki ez da aro baten muga kronologikotzat hartzen.

7.4.5. Nafarroa Beherea

Herralde honetarako sarrera bakarra erabiliko da, zatiketa kronologikoarik gabe. Dena dela, dokumentu kopurua asko ugarituz gero zilegi izango da zatiketa kronologiko gehiago egitea, oraingoz aurreikusi ez badira ere.

Nafarroa Beherea – Historia

7.4.6. Lapurdi

Herralde honetarako sarrera bakarra erabiliko da, zatiketa kronologikoarik gabe. Dena dela, dokumentu kopurua asko ugarituz gero zilegi izango da zatiketa kronologiko gehiago egitea, oraingoz aurreikusi ez badira ere.

Lapurdi – Historia

7.4.7. Zuberoa

Herralde honetarako sarrera bakarra erabiliko da, zatiketa kronologikoarik gabe. Dena dela, dokumentu kopurua asko ugarituz gero zilegi izango da zatiketa kronologiko gehiago egitea, oraingoz aurreikusi ez badira ere.

Zuberoa – Historia

7.5. HIRI ETA ESKUALDEAK

Hiri eta eskualdeen izenak sarreratzat erabil daitezke, baina oraingoz ABKn ez da inolako zatiketa kronologikorik onartzen. Dena dela, dokumentu kopurua asko ugarituz gero zilegi izango da zatiketa kronologiko gehiago egitea, oraingoz aurreikusi ez badira ere.

Era berean, hiri eta eskualdearen izenaren ondoan lurralde historikoaren izena jarriko da, parentesi artean, adibidez:

Baiona (Lapurdi) – Historia

Iruñea (Nafarroa) – Historia

Gernika (Bizkaia) – Historia

Donapaleu (Nafarroa Beherea) – Historia

Aiara Herria (Araba) – Historia
Enkarterri (Bizkaia) – Historia
Zangozako Merindadea (Nafarroa) – Historia

Trebiñuko Konderrria eta Villaverde Turtzioz kasu bereziak dira; izan ere, geografikoki eta historikoki Euskal Herria badira ere, administratiboki ez dira Arabakoak edo Bizkaikoak. Hori dela eta, Trebiñuko Konderrriaren edo Villaverde Turtziozaren historiari buruzko liburuei bi sarrera jarriko zaie:

Trebiñuko Konderrria (Araba: Barrendegia) – Historia
Euskal Herria – Historia – [liburuari dagokion aldia]

Villaverde Turtzioz (Bizkaia: Barrendegia) – Historia
Euskal Herria – Historia – [liburuari dagokion aldia]

7.6. SHUri DAGOKIONEZ

Jakina denez, Euskal Herriak bere osotasunean ez du SHU zenbakirik. Hori dela eta, gure katalogoan honako soluzio hau erabiliko dugu:

a) **Euskal Herria – Historia** sarrera dutenak:

Sarrera horietan guztietan ondoko zenbakia erabiliko da: **946.6 EH**. Alegia, Autonomia Erkidegoaren zenbaki zaharra (egun desagertua) eta, nahasketak ekiditeko, «EH» letrak ondoan

b) Euskal Herrialdeen sarreretan:

Araba – Historia: 946.015.6
Bizkaia – Historia: 946.015.2
Gipuzkoa – Historia: 946.015.4
Lapurdi – Historia: 944.7 Lapurdi
Nafarroa – Historia: 946.016
Nafarroa Beherea – Historia: 944.7 Nafarroa Beherea
Zuberoa – Historia: 944.7 Zuberoa

c) Hiri eta eskualdeen sarreretan

Hiri eta eskualde bakoitzari dagokion lurraldearen zenbakia emango zaio eta ondoan hiriaren edo eskualdearen izena. Adibidez:

946.015.6 G. [Gasteiz]
946.015.4 D. [Donostia]
94.015.2 B. [Bilbo]
944.7 Uztaritze
946.015.2 Durango Merindadea

7.7. AZPIBURUAK

Azpiburu gisa besteak beste honako hauek erabil daitezke:

Bibliografia

Erljio historia

Historiografia

Hiztegiak

Ikasketa eta irakaskuntza (Lehen Hezkuntza)

Ikasketa eta irakaskuntza (Bigarren Hezkuntza)

Ikasketa eta irakaskuntza (Goi irakaskuntza)

Iturriak

Literatura eta gerra

Mapak

8. FORUEI BURUZ

8.1. ERREGELA HONEN ZERGATIEZ

Ugariak dira zuzen edo zeharka foruei buruz diharduten liburuak eta, sarritan, zalantza handiak sortzen dira haiek katalogatzeko. Erregela honen helburua *foru* terminoaren eta horrekin lotutako enabileraz zehaztea izango da, horren adiera desberdinak argituz eta horien araberrako gai-sarrerak finkatuz. Izan ere, gaztelaniarazko *fuero* edo *fueros* terminoaren azpian oso kontzeptu desberdinak agertzen dira.

Foru/Fuero/For hitza latinezko *forum*-etik dator. Euskarazko enabileraz alde batera utzita, Zuzenbidearen esparruan espainieraz baino ez da hitz arrunta (*fuero*), hizkuntza horretan adiera ugari dituelarik. Frantsesez, berriz (Zuzenbidearen esparruan beti), *for* hitza Euskal Herriko eta, oro har, Pirineo aldeko lege historiko bereziak izendatzeko baino ez da erabiltzen. Ingeleseaz ez da ez hizkuntza arruntean ez teknikoan erabiltzen, Euskal Herriko historiari buruz hitz egiteko ez bada, eta orduan ere mailegu garbi bezala (alegia, euskaraz, gaztelaniaraz edo frantsesez hitz egiterakoan *Common law* terminoa erabiltzen den bezala, Ingalaterrako Zuzenbideari buruz ari garenean). Horrek guztiak esan nahi du foruei buruzko liburuak batez ere gaztelaniaraz idatzi direla eta batez ere Euskal Herriko gaiei buruz. Era berean, euskaraz, frantsesez edo ingelesez idatzitakoetan zuzen edo zeharka gaztelaniarazko *fuero/foral* terminoa da ezinbesteko erreferentzia, eta horrek sarritan nahasketak eta interferentziak sortzen ditu.

Orobat, XIX. mendera arte Euskal Herriko Foruak Zuzenbide sistema jakin bati lotuta agertzen dira, Antzinako Erregimenarena, hain zuzen ere. Sistema hori Ipar Euskal Herrian 1789an guztiz suntsitzen bada ere (lege mailan bederen, ez gizarte mailan), Hego Euskal Herrian historia askoz ere korapilatsuagoa izan du, neurri batean gaur arte iraun duelarik, etenik gabe. Adibidez, aipatzekoa da 1876ra arte Foruak konstituzio liberalen sistemari lotu zitzaizkiola.

Hauxe da gaztelaniarazko *fuero* hitzari atxekitako zenbait adieren (gure axolakoak soilik) sailkapena:

1. Europa osoan, Erdi Aroan zehar ohitura zabala izan zen erregeak hiri berri bat fundatzean haren gobernurako lege berezi bat ematea. Lege horrek izen desberdina du hizkuntzaren arabera, horrela, gaztelaniaraz *fuero* esaten da (*Fuero de Estella, Fuero de San Sebastián*, eta abar). Frantsesez, berriz, *charte* esaten da (*Le Robert* hiztegia (1981): *Au moyen âge, Titre de propriété, de vente, de privilege octroyé ... Spécialt. Charte d'affranchissement des communes*). Ingeleseaz, *charter* esaten zaio (*The Oxford English Dictionary* (1978): 1. *A written document delivered by the sovereign or legislature: a. granting privileges to, or recog-*

nozing rights of, the people, or of certain classes or individuals). Euskal Herrian prozesu hori XI. mendean hasi eta XIV.ean bukatzen da.

2. Bestalde, Euskal Herrian XIII. mendetik aurrera herriaren usuario eta ohiturak batzen zituen lege-bilduma batzuk hasten dira idazten, XVII. mendea arte iraungo duen prozesu baten baitan. Lege-bilduma horiei gaztelaniaz *fueros* esaten zaie (*Fuero General de Navarra*, *Fuero de Ayala*, *Fuero Viejo de Vizcaya*, eta abar). Asko badira ere, bakoitza bere ezaugarri bereziekin, XVIII. mendetik aurrera gero eta gehiago izen komun baten magalean bildu izan dira, gaztelaniaz *los fueros*, *el régimen foral*. Euskal Herriko lege bereziei frantsesez, berriz, *fors* eta *coutumes* deitu zaie (gaskoieraz, *costumas*), eta ingelesez *Common law* da erabili izan den termino antzekoena. Orobat, XIX. mendetik aurrera, bai frantsesez bai ingelesez gaztelaniazko *fueros/foral* terminoa erabili izan da Euskal Herriaren berezko legeen sistema (eta haren inguruan sortutako gerrak eta gatazkak) izendatzeko.
3. Arestian esan dugun bezala, Euskal Herriko berezko lege sistema hori Ipar Euskal Herrian 1789an suntsitua izan zen lege-mailan eta Hego Euskal Herrian, berriz, bi gerren ondoren gogorki murriztua, erabat suntsitu gabe. Orain laburtu ezin dugun prozesu korapilatsua eta luzea izen bazen ere, esan dezakegu 1841etik aurrera Nafarroan, eta 1876tik aurrera Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ez dagoela foruei buruz hitz egiterik ordu arte hitz horrek zeukan zentzuan bederen; orduetik aurrera foruez gelditzen dena Zuzenbide Zibilaren atal berezi bat baino ez da. Orobat, gaztelaniaz sarri erabili da *Derecho Foral* terminoa euskal herrialdeetan Zuzenbide Zibilaren esparruan gelditzen ziren lege berezi horiek izendatzeko, zenbaitek (Adrian Zelaia Ibarrek, adibidez) *Derecho Civil Vasco* terminoa hobesten badute ere.

Honaino hiru kontzeptu desberdinen arteko zedarriketa. Terminologiaren alorrean, berriz, euskarari dagokionez gaztelaniaren eraginak sarritan lausotu eta nahastu ditu kontzeptu bereizketa horiek, *foru* terminoari gaztelaniaz daukan adiera guztiak ezarri, ñabardurarik gabe. Horrela, berdinean erabili izan da *Lizarrako Forua* edo *Nafarroako Foruak* bezalakoak (kontuan hartu gabe bi gauza guztiz desberdinak direla) eta azken horretan, berriz, inolako ñabardura historikorik egin gabe.

Nahasketa horiek argitzeko, zenbait proposamen egin izan da euskaraz, horrela, J.A. Arana Martiak *forua* eta *fueroa* bereiztea proposatu zuen: «**Forua** herriak bere buruari emandako legea zen; **fueroa**, ostera, hiriei Errege eta Jaunak emandako legea» (UZEI, *Politika Hiztegia*, 1980, «Foruak» sarre-*ra*). Apur bat geroago, baina ildo beretik, A. Urrutiak *foru orokorrak* edo *luzeak* («herrien usuario eta ohiturak idatzita batzen zituen erregelamenduak») eta *foru laburrak* edo *fueroak* («erregeak hiri, leku edo abategi bati [emana-*nak*]) bereiztea proposatu zuen (UZEI, *Zuzenbide Hiztegia*, 1985, «Forua»

sarrera). Bestalde, hiri fundatu berriei erregeak emandako lege berezia izendatzeko sarri erabili izan dira *gutuna* edo *hiri-gutuna* terminoak.

Orobat, gogoratu behar da *Lege Zaharra* terminoa ere sarri erabili dela, eta aspaldi honetan zenbait historialari berriz ere erabiltzen hasi direla (J. Agirreazkuenaga, adibidez), beti ere Euskal Herriko berezko legeen multzoa izendatzeko soilik.

Halaber, Ipar Euskal Herrian (batez ere, baina ez soilik), *forua* baino *kos-tuma* da Euskal Herriko lege bereziak izendatzeko erabili izan den terminoa. Termino hori erabili zuten, besteak beste, Leizarragak, Larramendik eta Harrietek (azken honek zehatz-mehatz Lapurdiko berezko legeak izendatzeko), eta egun euskara mintzatuan arrunta ez bada ere, zenbait historialarik erabiltzen du bereziki Ipar Euskal Herriko foruei buruz jarduteko (M. Goihenetxe, adibidez).

Era berean, *Foru Zuzenbidea* eta *Zuzenbide Zibila* terminoak ere azken urteetan sarri erabili dira.

Bukatzeko, komenigarria izan daiteke hizkuntzari buruzko hausnarketa bat egitea. Jakina denez, Euskal Herriko legeak, salbuespenak salbuespen eta azken hamarkadak alde batera utzita, ez dira inoiz euskaraz idatzi, horren ordez latinez, gaskoieraz, Nafarroako erromantzeaz, gaztelaniaz edo frantsesez idatzi direlarik. Baina horrek ez du esan nahi euskarazko izenik ez dutela izan, edota legez jardutean euskaldunek ez zutela euskaraz hitz egiten. Alderantziz, hainbat arrazoi dago esateko euskaraz hausnartu, eztabaidatu eta sortutako lege bat baino gehiago, beste hizkuntza batean (ezen denbora eta tokiaren arabera) aldaketak baitaude idatzi zirela. Hori bereziki nabarmena da ohituran oinarritutako legeetan (foruak, neurri handi batean), baina ez soilik: adibidez, Frantziako Iraultzarekin lotutako hainbat dokumentu zuzenean euskaraz idatzi ziren (*dolu kaierrak*) edo euskaratuak izan ziren (zenbait lege); Bizkaiko Bartzar Orokorretan XIX. mendean ere oraingoz arrunta zen neurri batean euskaraz mintzatzea, ondoren erabakitzen zena gaztelaniaz idazten bazen ere; Euskal Herriko udal-batza askotan beste horrenbeste gertatu izan da, frankismo gorrienean ere. Eta jakina da euskal literaturaren orrietan barna legeei, eta bereziki foruei, aipu asko egiten zaiela, adibidez, bertsoetan.

Hori dela eta, izenburua hautatzerakoan honako irizpideak erabiliko dira:

- a) Testua edozein hizkuntzatan dagoelarik ere, Euskal Herriko hiri-gutun edo foruekin lotutako lege guztien izenburu hautatua euskaraz emango da.
- b) Testua edozein hizkuntzatan dagoelarik ere, Gaztelako legeen izenburu hautatua, gaztelerez emango da. Orobat, Kataluniako legeen izenburu hautatua katalanez emango da, Frantziakoa frantsesez, eta abar.

Dena dela, beherago emango dira zehaztapen gehiago.

8.2. ARGIBIDE OROKORRAK

Hauexek dira gorago aipatu hiru kontzeptuak izendatzeko euskaraz proposatzen diren terminoak, hots, Azkue Bibliotekako Katalogoan erabiliko direnak:

1. Lehenengo kontzeptuan badirudi frantsesaren eta ingelesaren ereduari jarraiki, *gutun* edo *hiri-gutun* termino egokiagoak direla *foru* baino. Bestalde, badirudi *fuero* proposamenak, edo *foru labor* terminoak, ez dutela arrakasta handirik izan. Ikus 3. atala.
2. Bigarren kontzeptuan duarik gabe *foru* terminoa da aukerarik onena, guztiz zabaldua eta erabilia baita. *Lege Zahar* terminoak, berriz, ez du horren erabilera zabala izan, soilik testuinguru nahiko konkretuetan erabiltzen delarik (alegia, *foruak* baino *foru erregimena* izendatzeko erabili ohi da). *Kostuma* terminoa, berriz, egokia izan daiteke zenbait lege zehatz izendatzeko (*Lapurdiko Kostumak*, *Zuberoako Kostumak*, etab.), baina oso erabilera zehatza eta mugatua izan duenez, ez dirudi egokia denik Hego Euskal Herrira ere zabaltzea, *foru* terminoaren kaltetan. Ikus 4. atala.
3. Hirugarren kontzeptuan *Foru Zuzenbidea* eta *Zuzenbide Zibila* termino arruntak eta erabilera handikoak dira. Lexikografiari dagokionez, ez dirudi arrazoirik dagoenik bata ala bestea hobesteko, eta irizpide bibliotekonomikoei buruz beherago mintzatuko gara. Ikus 5. atala.

Laburbilduz, proposamen horren arabera, euskaraz *foru* terminoa erabiliko litzateke Euskal Herrian XIII. eta XVII. mendeen bitartean herri-ohituretan oinarrituta idatzi ziren lege-bilduma bereziak izendatzeko, edota beraietatik sortutako antolaketa politikoa, Euskal Herriaren zati batean 1876 arte iraun zuena. Hortaz landara erabiltzea ez litzateke gomendagarri, erabat gaitzesgarri ez bada ere.

Izan ere, gaztelaniaren eraginez *foru* terminoa sarri erabiltzen da gutxienez beste bi kontzeptuak izendatzeko ere, eta kasu batzuetan horien mugak zehaztea franko zaila izan daiteke. Adibidez, Nafarroaren kasuan, zenbait legegilariren arabera egungo Foruaren eta antzinakoaren artean ez da etenik gertatu, lehena beste haren jarraipen eta *hobekuntza* baino ez delarik. Hartara, berdin *foralak* lirateke XVII. mendeko eta oraingo erakundeak (besteak beste, izenlagun bera dute). Euskal Autonomia Erkidegoari buruz legelarien iritzia, oro har, bestelakoa izan bada ere, badira baita *Foru Aldundiak*, *Foru Arauak*, eta abar. Hala ere, Nafarroaren kasuan ere inork ez du ukatzen 1841ko Lege Paktuaren garrantzi erabakigarria eta, beraz, zentzuzkoa dirudi bi aldi historikoen artean desberdintasun bat egitea, *foru* terminoa batez ere 1841 aurreko lege-bildumak eta antolaketa politikoa izendatzeko erabiliz.

Beraz, gorago proposatzen den *foru* terminoaren adieren argiketak ez du zurruna izan behar, Euskal Herriaren historiaren ondorioz neurri batean ezinezkoa baita erabateko bereizketarik egitea. Baina dokumentu guztiak sistema bakar baten arabera katalogatzeak aurrerabide nabarmena eskainiko dio bilaketa bibliografikoei.

8.3. HIRI-GUTUNAK

Hiri gutunak erregeak hiri bat fundatzean hari emandako lege bereziak dira, dela bere ekimenez, dela herritarren eskariz. Salbuespenak salbuespen, Euskal Herrian XII. eta XIV. mende bitartean idatzi ziren (Lizarrak 1090ean izan zuen lehenengo hiri-gutuna). Gai horri buruzko dokumentuak honela katalogatuko dira:

8.3.1. Hiri-gutunei buruz diharduten liburuak

Gutxienez bi gai-sarrera izango dituzte. Lehena, horrelakoa:

[*Hiriaren izena*] – **Hiri gutunak**

Horrela, adibidez;

Donostia (Gipuzkoa) – Hiri gutunak

Gasteiz (Araba) – Hiri gutunak

Bernedo (Araba) – Hiri gutunak

Lizarra (Nafarroa) – Hiri gutunak

Iruñea (Nafarroa) – Hiri gutunak

Era honetakoak ez dira onartzen, adibidez:

X: Hiri gutunak – Nafarroa – Lizarra

X: Foruak – Araba – Gasteiz

X: Fuegoak – Gipuzkoa – Donostia

Berdin jokatuko da Euskal Herritik kanpokoekin, adibidez:

Jaca (Huesca, Espainia) – Hiri gutunak

Cuenca (Espainia: Hiriburua) – Hiri gutunak

Miranda de Ebro (Burgos, Espainia) – Hiri gutunak

Calatayud (Zaragoza, Espainia) – Hiri gutunak

Bejar (Salamanca, Espainia) – Hiri gutunak

Sarrera honetaz gain, beharrezkoa da dokumentu horiei historiari buruzko sarrera bat egitea, adibidez:

Donostia (Gipuzkoa) – Historia

Gasteiz (Araba) – Historia

8.3.2. Liburuaren mamia hiri-gutunaren beraren testua denean

Kasu hauetan Historiari buruzko sarrerari *Iturriak* azpisarrera erantsiko zaio, honela:

[*Hiriaren izena*] – **Historia – Iturriak**

Adibidez:

Cuenca (Espainia: Hiriburua) – Historia – Iturriak

Funes (Nafarroa) – Historia – Iturriak

Gasteiz (Araba) – Historia – Iturriak

Jaca (Huesca, Espainia) – Historia – Iturriak

8.3.3. Hiri-gutunen izen espezifikokoak

Hiri-gutun bat aipatzen denean ez da halabeharrez testu bakar bat aipatzen; frankotan, hainbat eskuizkribu desberdin ditugu, sasoi desberdinetakoak eta, sarritan, hizkuntza desberdinetan. Hori dela eta, arriskugarria izan daiteke hiri-gutun bati jatorrizko data bat esleitzea, ikerleak testu bakar batez barik testu multzo bati buruz ari baitira. Baina, bestalde, beste hainbat kasutan testu bakarra dugu, garbi datatua, edota testu multzo bat izan arren, beraien arteko batasuna oso nabarmena da. Gainera, arestian aipatu ditugun bi sarrez gain kasu askotan komenigarria da hiri gutunaren izen espezifikoa sarrera nagusi gisa edo gai-sarrera gisa ematea. Beraz, ez da erraza kasu guztietan erabaki zehatzak hartzea.

Ohar horiek guztiak kontuan harturik, hainbat hiri gutuni izenburu hautatu bat esleituko zaie, ondoko irizpideen arabera:

- a) Formarik aruntena eta erabiliena hautatuko da.
- b) Forma modernoa hautatuko da, forma arkaikoei bigarren sarrerak eginez.
- c) Euskal Herriko hiri-gutunen izen espezifikoa euskaraz emango da, Espainiakoak espainieraz, Frantziakoak frantsesez, etab.
- d) Izenari data erantsiko zaio posible den kasu guztietan.

Hau da zenbait hiri gutunen izen espezifikoa, gai-sarrera edo izenburu hautatu gisa erabiliko dena:

Viguera eta Funesko Hiri Gutuna (1110)

Gesaltzako Hiri Gutuna (1140)

Donostiako Hiri Gutuna (1180)

Gasteizko Hiri Gutuna (1181)

Bernedoko Hiri Gutuna (1182)
Batasunaren Pribilegioa (1423)

Fuero de Cuenca
Fuero de Béjar
Fuero de Miranda de Ebro (1099)
Fuero de Calatayud (1134)
Fuero de Avilés (1155)
Fuero de Briviesca (1313)

8.4. EUSKAL HERRIKO FORUAK

Foruak Euskal Herriko legeen bildumak dira, herri-ohituretan oinarrituak. XIII. eta XVII. mende bitartean idatzi ziren, eta haiei zerien antolaketa politikoak 1789ra arte iraun zuen Ipar Euskal Herrian, 1841era arte Nafarroan eta 1876ra arte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Gai horri buruzko liburu guztiak honela katalogatuko dira:

8.4.1. Euskal herrialde bateko foruei buruz diharduten dokumentuak

Sarrera hauetako baten bidez katalogatuko dira:

Foruak – Araba
Foruak – Bizkaia
Foruak – Gipuzkoa
Foruak – Lapurdi
Foruak – Nafarroa
Foruak – Nafarroa Beherea
Foruak – Zuberoa

Ez dira onartzen:

X: Lege Zaharrak
 X: Kostumak
 X: Fueroak
 X: Eskubide historikoak

Sarrera honetaz gain, beharrezkoa da dokumentu horiei historiari buruzko sarrera bat egitea, adibidez:

Gipuzkoa – Historia – 1463-1876 (Foruen Aroa)

8.4.2. Bi euskal herrialde edo gehiagoren foruei buruz diharduten dokumentuak

Guztiak sarrera honen bidez katalogatuko dira:

Foruak – Euskal Herria

Ez dira onartzen:

X: Foruak – Iparraldea

X: Foruak – Hegoaldea

X: Foruak – Ipar Euskal Herria

X: Foruak – Hego Euskal Herria

X: Foruak – Euskal Autonomia Erkidegoa

Sarrera honetaz gain, zenbait kasutan komenigarria da dokumentu horiei historiari buruzko sarrera bat egitea, adibidez:

Euskal Herria – Historia – 1512-1789 (Aro Berria)

8.4.3. Eskualde edo ibar bateko foruei buruz diharduten dokumentuak

Honela katalogatuko dira:

Foruak – Bizkaia – Durangaldea

Foruak – Bizkaia – Enkarterri

Foruak – Araba – Aiara Herria

Sarrera honetaz gain, beharrezkoa da dokumentu horiei historiari buruzko sarrera bat egitea, adibidez:

Enkarterri (Bizkaia) – Historia

8.4.4. Dokumentuaren mamia foruaren beraren testua denean

Aurreko sarrerei **Legeria** azpisarrera erantsiko zaio. Horrela:

Foruak – Araba – Legeria

Foruak – Nafarroa – Legeria

Foruak – Nafarroa Beherea – Legeria

8.4.5. Foruen izen espezifikokoak

Jakina denez, *foruak* aipatzen direnean frankotan ez dago garbi zein testuri edo testu-multzori egiten zaion erreferentzia. Ez beti, hala ere; izan ere, XV. mendetik aurrera, eta gaur egun arte, sarritan argitaratu dira foru-bildumak, eta gehienetan argi datatuak egon ohi dira, jakina bada ere argitalpen batetik bestera aldaketak egon daitezkeela testuetan.

Beraz, ez dirudi oker handia denik hainbat foru-bildumentzat izen espezifikoko batzuk zehaztea, batez ere kontuan hartuz oso mesedegarria izango dela bilaketa bibliografikoak errazteko. Horretarako ondoko irizpideak erabiliko dira:

- e) Formarik arruntena eta erabiliena hautatuko da.
- f) Forma modernoa hautatuko da, forma arkaikoei bigarren sarrerak eginez.
- g) Euskal Herriko dena delako foru-bildumaren izen espezifikoa euskaraz emango da, Espainiakoak espainieraz, Frantziakoak frantsesez, etab.
- h) Izenari data erantsiko zaio posible den kasu guztietan.

Hauxe da zenbait foruen izen espezifikoa, gai-sarrera edo izenburu hautatu gisa erabiliko dena:

- Nafarroako Foru Nagusia**
- Nafarroako Foruen Bilketa Berria**
- Arabako Legeen Liburua**
- Durangoko Merindadeko Foru Zaharra**
- Aiara Herriko Forua (1373)**
- Enkarterriko Foru Zaharra (ca. 1394-1411)**
- Bizkaiko Foru Zaharra (1452)**
- Enkarterriko Foru Berritua (1503)**
- Lapurdiko Kostumak (1514)**
- Burdinolen Forua (1519)**
- Zuberoako Kostumak (1520)**
- Bizkaiko Foru Berria (1526)**
- Nafarroako Foru Murritzua (1528)**
- Gipuzkoako Liburu Zaharra (1562)**
- Nafarroa Behereko Foruak eta Kostumak (1611)**
- Gipuzkoako Foruen Bilduma Berria (1696)**

8.5. EUSKAL HERRIKO ZUZENBIDE ZIBILA

Euskal Herriko Zuzenbide Zibila da Foruen suntsiketaren ondoren zuzenbide pribatuaren esparruan indarrean gelditu ziren lege berezien bilduma. Gai horri buruzko liburuak honela katalogatuko dira:

8.5.1. Euskal herrialde bati buruz diharduten dokumentuak

Jakina denez, Ipar Euskal Herrian foruak guztiz suntsituak izan ziren eta, beraz, ez da honelako kasurik gertatzen. Honela katalogatuko dira:

Zuzenbide Zibila – Araba
Zuzenbide Zibila – Bizkaia
Zuzenbide Zibila – Gipuzkoa
Zuzenbide Zibila – Nafarroa

8.5.2. Bi euskal herrialde edo gehiagori buruz diharduten dokumentuak

Honela katalogatuko dira:

Zuzenbide Zibila – Euskal Herria

8.5.3. Euskal Autonomia Erkidegoari buruz diharduten dokumentuak

Aurreko kasuan ez bezala, honetan dena delako legea Euskal Autonomia Erkidego osoan dago indarrean, eta ez beste inon. Bereziki azpimarratu behar da 1979tik aurrera sortutako legeriari buruzko dokumentuez ari garela. Hone-
la katalogatuko da:

Zuzenbide Zibila – Euskadi (Autonomia Erkidegoa)

X: Zuzenbide Zibila – Euskal Autonomia Erkidegoa

8.5.4. Dokumentuaren mamia legearen beraren testua denean

Aurreko sarrerei **Legeria** azpisarrera erantsi behar zaie. Horrela:

Zuzenbide Zibila – Araba – Legeria

Zuzenbide Zibila – Bizkaia – Legeria

Zuzenbide Zibila – Euskadi (Autonomia Erkidegoa) – Legeria

X: Zuzenbide Zibila – Euskal Herria – Legeria

8.6. ZENBAIT KASU BEREZI

Gaia korapilatsua denez gero, arrunta da zenbait dokumentutan zalantzak izatea multzo batean edo bestean kokatzeko. Ondoren bi kasu nabarmenenak tratatuko ditugu:

8.6.1. Baiona

Baiona kasu berezia da. Izan ere, 1125. urtetik aurrera Akitaniako Duke Gilen IX.ak emandako hiri gutuna izan zuen, latinez idatzia, 1273an gaskoieraz idatzi zena gauza franko aldatuz. Baina 1514ean Bordeleko Parlamentuak batera onartu zituen arren Lapurdiko Forua eta Baionako Forua (*Les coutumes générales gardées et observées au Pays et Baillage de Labourd et ressort d'Iceluy* eta *Les coutumes générales de la Ville et Cité de Bayonne et jurisdiction dicelle*, biak frantsesez idatziak), bakoitzak bere egituraketa politiko-administratibo berezia gorde zuen, elkarrengana bildu gabe. Alegia, Euskal Herriko gainerako hiriak ez bezala (Bilbo, Donostia, etab.), Baiona ez zen inguratzen zuen lurraldean integratu, bere izaera bereziari eutsi ziolarik. Hori dela eta, Baionako lege eta egituraketa politiko-administratiboari buruzko liburua, honela katalogatuko dira:

- a) 1125-1514 urte bitarteko dokumentuak Euskal Herriko hirietako gainerakoak bezala katalogatuko dira, hots, sarrera hauen bidez:

Baiona (Lapurdi) – Hiri gutunak

Baiona (Lapurdi) – Historia – Iturriak

Baionako Hiri Gutuna

- b) 1514-1789 urte bitarteko dokumentuak, berriz, honela katalogatuko dira:

b.1. Baionako foruari buruzkoak, honela:

Foruak – Lapurdi – Baiona

Baiona (Lapurdi) – Historia – Iturriak

Baionako Kostumak (1514)

b.2. Lapurdiko foruari buruzkoak, gorago zehaztu den bezala, hots:

Foruak – Lapurdi

Foruak – Lapurdi – Legeria

Lapurdiko Kostumak (1514)

8.6.2. Foruen eta Zuzenbide Zibilen arteko muga lausoa duten dokumentuak

Oro har, esan dezakegu Foruei buruz jardutean antolakuntza politiko berezi bat sortzeko gaitasuna zuten legeei buruz ari garela, eta Euskal Herriko Zuzenbide Zibilari buruz ari garenean, berriz, zuzenbide pribatuaren esparruan murriztuta gelditu diren lege berezi batzuei buruz. Baina liburu askotan ez da erraza bereiztea Foruei buruz ari diren, ala soilik Zuzenbide Zibilari buruz. Alde batetik, Foruen atal bat Zuzenbide Zibilaren esparrukoa denez gero, hura delarik neurri batean edo bestean iraun duena, zaila da bati buruz hitz egitea bestea tratatu gabe. Bestalde, eta gorago esan dugun bezala, argi badago ere 1841 eta 1876tik aurrera Foruak suntsituta gelditzen direla, zenbait legelarik (Jaime Ignacio del Burgo edo Miguel Herrero de Miñón, adibidez), ez du etenik ikusten bi data horien aurreko eta osteko egoeraren artean, Foruen jarraitkortasuna azpimarratzen dutelarik (sarritan *eskubide historikoak* terminoa erabiliz). Estekadura hau bereziki errepikatzen da Nafarroako legeei edota antolaketa politikoari buruzko liburuetan.

Hori dela eta, zalantzazko kasuetan bi sarrera egingo dira, alegia:

Foruak – Nafarroa

Zuzenbide Zibila – Nafarroa

Foruak – Euskadi (Autonomia Erkidegoa) – Legeria

Zuzenbide Zibila – Euskadi (Autonomia Erkidegoa) – Legeria

8.6.3. Azken hamarkadetako zenbait lege

Azken hamarkadetan onartu diren zenbait legek arazoak sor diezaiokete katalogatzaileari. Aro Garaikideko legeak direnez gero, sarrera nagusi gisa bakoitzari dagokion lurraldea erabiliko da, baina komenigarria izan daiteke zein izenburu hautatu izango duten zehaztea. Adibidez, Nafarroan 1973an eta 1975ean onartu ziren legeen izenburu hautatua honela egingo da:

Nafarroa. Foru Berria (1973)

Nafarroa. Emakume ezkonduari buruzko lege-dekretua (1975)

Orobat, Nafarroako azken foru hobekuntzak honelako izenburu hautatua izango du:

Nafarroa. Foru Hobekuntza (1982)

X: Nafarroa. Nafarroako foru eraentza birrezarri eta hobetzeari buruzko lege organikoa (1982)

X: Nafarroa. Birrezarri eta hobeagotzeko legea (1982)

X: Nafarroa. Forua birrezarri eta hobeagotzeko legea (1982)

X: Nafarroa. Ley orgánica de reintegración y amejoramiento del régimen foral de Navarra (1982)

X: Nafarroa. Amejoramiento del Fuero (1982)

Halaber, mota honetako legeen izenburu hautatua nola egin behar den zehaztu beharrekoa izan daiteke:

Euskadi (Autonomia Erkidegoa). Foru Zuzenbide Zibilari buruzko legea (1992)

8.7. EUSKAL HERRIAZ LANDAKO FORUAK

Euskal Herriaz landa, *foruak* Espainiako Erresumako zenbait erkidegotako lege bereziak dira. Jakina denez, inon ez dute izan Euskal Herrian besteko jarraipen eta garrantzi historikorik eta, ondorioz, badirudi beraiei buruzko dokumentuen katalogazioak ez dakarrela arazo berezirik. Hori dela eta, ohiko azpisarrerara geografikoen bidez katalogatuko dira, aparteko zehaztapen gabe.

Foruak – Espainia

Foruak – Espainia – Aragoi – Legeria

Foruak – Galizia

Foruak – Andorra

Foruak – Katalunia – Legeria

Foruak – Espainia – Valentzia

Era berean, kontuan har bedi Erdi Aroan fundatutako hiriei erregeak emandako hiri-gutunei buruzko liburuak, gorago zehaztu bezala katalogatuko direla.

Orobat, badira Erdi Aroko eta geroagoko zenbait lege *fuero* izenarekin ezagutzen direnak. Horrelakoak izen arruntaren bidez katalogatuko dira, adibidez:

Fuero Juzgo

Fuero Viejo de Castilla

Fuero Real

9. GAZTELANIA ALA ESPAINIERA?

9.1. ERREGELA HONEN ZERGATIEZ

Euskaltzaindiaren *Hiztegi batuaren* arabera, euskaraz bi hitz horiek sinonimoak dira. Beraz, ABKri dagokionez hautatu beharrean gaude, bata ala bestea, biblioteka-katalogo baten helburu nagusietako bat sinonimoak saihestea baita. Baina azpimarratzekoa da euskaraz biak direla zuzenak.

9.2. ARGIBIDE OROKORRAK

Lehenengo eta behin, esan dezagun gaztelaniaz ere berdin gertatzen dela, hots, biak (*castellano* eta *español*) sinonimoak direla. Baina hizkuntza horretan bata edo bestea erabiltzeko egon daitezkeen argudio filologikoez landara (esanahirik gabeak euskararentzat), beharbada kontuan hartzekoa da Espainiako Konstituzioak (1978) hautu garbi bat egiten duela: *castellano* (ikus 3.1 atala).

Euskarazko tradizio idatziari dagokionez, berriz, *Orotariko Euskal Hiztegi*an kontsultatuz gero garbi gelditzen da *gaztelaniaren* erabateko nagusitasuna: 99 aldiz dokumentatzen da (*gaztelania/gaztelera*) eta *espainiera*, berriz, 8 aldiz (*españera/espainera/espainiera*) (kasu biotan I. Saratsolaren *Gaurko euskara idatziaren maiztasun-hiztegia*-tik jasotako datua). Garbi dago literatur-tradizioak *gaztelaniaren* alde egiten duela.

Gaur egungo erabilerari dagokionez, *XX. mendeko euskararen corpus estatistikoan* kontsultatuz gero, *gaztelania* berriz ere nagusitzen da: 394 aldiz dokumentatzen da, eta *espainiera*, berriz, 59 aldiz besterik ez. Horretaz gain, argi eta garbi ikusten da 1990etik aurrera *espainiera* gero eta gutxiago erabiltzen dela (1969-1990 bitartean, agerpen guztien %69,5; 1991-1999 bitartean, agerpenen %18,6 baino ez). Beraz, euskara batuan ere *gaztelania* askoz ere erabiliagoa da *espainiera* baino eta, gainera, joera hori bereziki indartu da azken hamarkadan.

Datu horietaz gain, autoritate bibliografiko edota euskal idazle ereduzko batzuen erabilera argitze aldera, *euskara-gaztelania* hiztegiak arakatu ditugu. Kasu honetan emaitza ez da homogenea, zenbait aldiz hiztegiak dakarren informazioa euskaraz baino gaztelaniaz dagoelako, baina joera nagusia oso garbi dago, eta baieztatu besterik ez du egiten orain arte esandakoa. Alegia, benetan gutxi dira *espainiera/español* darabilten idazleak: Aizkibel (*Diccionario basco-español*, 1883), Azkue (*Diccionario vasco-español-francés*, 1905), Lopez Mendizabal (*Diccionario vasco-español*, 1962tik aurrera), Kintana (*Euskal hiztegi moderno*, 1977, *Hiztegia 80*, 1980, etab.) eta L. M. Muxika (*Diccionario general y técnico breve*, 1984). Dena den, bost horietatik gutxienez azken hirurek *gaztelania* erabali izan dute beste hiztegi batzuetan (Lopez Mendizabal: *La lengua vasca: gramática, conversación, diccionario*

vasco-castellano, 1943; Kintana: *Sukalde eta ostalaritzako hiztegia*, 1984; L. M. Muxika: *Diccionario general y técnico*, 1977). Aldiz, *gaztelania/castellano* darabilten egileen edo liburuen zerrenda benetan luzea da: Astigarraga (1877), Arrese Beitia (1884), Novia de Salcedo (1902), Roman Berakoa (1916), Buenaventura Oieregikoa (1929), Zamarripa (1933), Montiano (1972), Gereño (1977), Kerexeta (1977), P. Muxika (1981), Arriaga (1984), P. Altuna (1992), Legarra (1995), Saratsola (1997)... eta baita ere lan kolektiboak: Sopenaren *Mi primer Sopena vasco* (1981), Sendoaren *Hiztegia euskara-castellano* (1982), AEKren *Oinarrizko hiztegia* (1986), Lur-en *Diccionario mini-hiztegia* (1995), *Elhuyar Hiztegia* (1996) edota *Hiztegi 3000* (1996). Garbi dago, beraz, euskal lexikografoen artean *gaztelania* dela gehien-gehienetan erabiltzen den terminoa.

9.3. ERREGELA

Hizkuntzaz ari garelarik **Gaztelania** erabiliko da gai-sarrera gisa. *Españiera* terminoa sarrera ez-onartu bezala agertuko da. Orobat, oharretan berau edo beronen eratorriak (gaztelaniaz, gaztelaniazko, etab.) erabiliko dira.

10. LITERATURARI BURUZ

10.1. ERREGELA HONEN ZERGATIEZ

Literaturari buruzko dokumentuak katalogatzeko hainbat gora-behera sortzen da. Nabarmenena, *euskal literatura* terminoarekin edota, bestela esanda, erdaraz idatzi duten Euskal Herriko idazleei buruzko lanak katalogatzerakoan erabili beharko litzatekeen terminoarekin. Baina, arazo hori, finean, kontu zabalago baten erpina baino ez da, alegia, munduko literaturak sailkatzeko segitu behar diren irizpideena.

Hori dela eta, gure azalpena bost zatitan banatuko dugu: lehenengo eta behin, argibide orokor batzuk eskainiko ditugu munduko literaturak sailkatzeko irizpideei buruz (2. atala); ondoren, *euskal literatura* terminoaren eta berearekin lotutakoen erabilerari buruzko argibideak emango ditugu (3. atala); jarraian, irizpide nagusi horretatik landara suertatzen diren salbuespenei buruzko argibideak erantsiko ditugu (4. atala); gero, Euskal Herriko dokumentuak katalogatzeko erregelak zehaztuko ditugu (5. atala); eta bukatzeko, munduko gaitetiko literaturari buruzko liburuak katalogatzeko sarrearak egiteko irizpideak zehaztuko ditugu, hainbat adibide gehituz (6. atala).

10.2. ARGIBIDE OROKORRAK

Azkue Bibliotekak darabilen terminologia sisteman (Laval Unibertsitateko zerrenda) ez dago irizpide argi eta zehatz bat munduko literaturak sailkatzeko. Praktikan, sailkapena *literatura* terminoari eranstean zaion izenondo baten bidez egiten da. Izenondo hori, gehienetan, nolabaiteko nortasuna adierazten duen jende-izen bat da. Baina jende-izen horiek ez dira inola ere koherenteak; hots, adierazten diguten nortasun hori irizpide desberdinen arabera gorpuzten da: batzuetan batasun geografikoa da, beste batzuetan kulturala, beste batzuetan hizkuntzazkoa, inoiz erlijiosoa. Baina frankotan nortasun hori zehazgabe xamarra da, eta oso aldakorra kasu batetik bestera.

Bereziki azpimarratzekoa da sarritan zehazgabetasun nabarmenak ditugula: adibidez, aipatzen delarik *Literatura norteamericana* / *Litterature americaine* / *American literature*, terminoan bertan ez dago hizkuntzari buruzko erreferentzia espliziturik. Praktikan, badakigu idazle estatubatuarrei buruz idatzitakoaz ari garela eta, ia-ia ziur, de facto, ingelesez idatzitako literatura baino ez dela kontuan hartuko. Baina arlo horretako adituen erabilera arruntak ematen dizkigu zehaztapen horiek, ez terminoak berak, zeren, teoriarik bederen, posible da baita ingelesez ez dauden literatur-lanei buruzko liburuak ere termino horren bidez katalogatzea.

Orobat, azpimarratu behar dugu Laval Unibertsitateko termino-zerrendan literaturak sailkatzeko erabiltzen diren jende-izenek askotan ez dutela esplizituki hizkuntzaren arabera nortasuna adierazten: irakurlea da, ikerleen komunitate zientifikoaren ohiko erabileraren arabera, literatura eta hizkuntzaren arteko harremana zehaztu behar duena. Zalantzaren bat dagoenean, termino arruntari bestelakoren bat eranstean zaio, zehazgabetasuna mugatu aldera. Baina ez beti.

Zehazgabetasun horren adibide garbi bat honako hau da:

Literatura judía / Litterature juive / Jewish literature

Literatura hebrea / Litterature hebraïque / Hebrew literature

Literatura judeo-española / Litterature judeo-espagnole / Ladino literature

Ziurtasun osoz jakiterik ez badago ere zer den termino bakoitzaren azpian katalogatzen dena, ikerleen erabilera arruntaren arabera atera dezakegu *Literatura judía / Litterature juive / Jewish literature* juduek idatzitako literatura dela, edozein hizkuntza erabiltzen dutelarik; *Literatura hebrea / Litterature hebraïque / Hebrew literature*-ren azpian, berriz, badirudi hebreeraz idatzitakoa baino ez genukeela jarri behar, egilearen herritartasuna edo erlijioa kontuan hartu gabe; eta *Literatura judeo-española / Litterature judeo-espagnole / Ladino literature*, bestalde, nahasgarria izan daiteke, ezen hizkuntzaren irizpidea esplizitua ez badago ere (ingeleseaz salbu), diziplina akademiko horretako ikerleen artean hizkuntza izan ohi da irizpide nagusia. Bestalde, aipatu baino ez dugu egingo XX. mendeko palestinarrek idatzitako literaturari buruzko liburuak batez ere (geuk ikusi dugunagatik) *arabiar literatura* terminoaren bidez katalogatzen badira ere, ez dela arraroa *palestinar literatura* ikustea edo aipatua izatea, hots, hizkuntzari barik herritartasunari erreferentzia eginez. Erran nahi baita, Jerusalemen jaio eta gaur egun han bizi den idazle baten lanari buruzko liburuak gutxienez arestian aipatu ditugun bost termino horietako baten bidez kataloga daitezke: bere hizkuntza, herritartasuna edo erlijioaren arabera.

Zehazgabetasunaren beste kasu nabarmen bat *Literatura española / Litterature espagnole / Spanish literature*-rena da. Komunzki, termino horren bidez katalogatzen dira idazle espainiarrek gaztelaniaz idatzitakoari buruzko liburuak, baina posible da baita idazle hegoamerikarrek gaztelaniaz idatzitakoari buruzko atalak ere aurkitzea (adibidez, *Historia de la literatura española* bezalako izenburudun liburuetan), atal horiek beti bigarren mailakoak badira ere, ezen, bestela, *Literatura hispanoamericana / Litterature hispano-américaine / Latin American literature* edo beste antzeko termino baten bidez katalogatuta ikusiko genituzke. Horretaz gain, era horretako liburuetan litekeena da katalanez edo galizieraz (eta inoiz euskaraz) idatzitako literaturari buruzko atalak aurkitzea, beti bigarren mailakoak izaten badira ere.

Litterature française / Literatura francesa / French literature terminoari buruz, berriz, badirudi nagusiki idazle frantziarrek frantsesez idatzitakoari buruzko liburuak hartzen dituela. Hala ere, neurri batean termino zehazgabea da, posible baita frantziar herritartasuna ez duten egileei buruzko liburuak edota atalak aurkitzea (adibidez, frantsesez idazten duten idazle belgiar, marokoar edo txekiarrei buruzko liburuak edo atalak).

Azken kasu bat aipatuko dugu: *Literatura africana / Litterature africaine / African literature*. Termino hori oso arrunta da hala lan akademiko nola biblioteka-katalogoetan eta, nabarmena denez, esanahi geografiko hutsa adierazten du, zehaztapen kultural, nazional, linguistiko, erlijioso edo dena dela-koetatik haratago.

Oharrak laburbilduz, esan daiteke Laval Unibertsitateko zerrendan literaturen sailkapenerako batez ere jende-izenak erabiltzen direla, eta horiek adierazten duten nortasuna irizpide desberdinen arabera eraikia izan daitekeela (herritartasuna, hizkuntza, erlijioa, geografia, etab.). Horretaz gain, sarritan terminoen zehazgabetasuna aipagarria da.

Beraz, badirudi azken finean literatura-ikerleean erabilera arrunta dela munduko literaturak sailkatzeko irizpidea eta, ikusi dugunez, erabilera hori ez da batere homogeneoa edota irizpide bakar baten arabera sortutakoa: ikerleek termino konbentzionalak erabiltzen dituzte eta konbentzio horien edukia kasuan kasukoa da.

Ildo honetan, Entziklopedia Britanikoan egindako azterketa batek oso emaitza argiak eman ditu: jende-izenak erabiltzen dira literaturak sailkatzeko, horiek adierazten duten nortasuna irizpide desberdinen arabera eraiki daitekeelarik. Bereziki azpimarratu behar da batzuetan jende-izenak hizkuntza bat adierazten duela espresuki, baina beste askotan ez, eta ematen zaizkigun definizioetan era denetako irizpideak aurki daitezkeela. Orobat, esan dezakegu erabiltzen diren jende-izenak gehienetan irizpide geografikoaren adierazleak direla, eta horren arabera sarritan literatura batean multzo desberdinak egiten direla hizkuntzaren arabera, beste batzuetan hizkuntza bakarrean idatzitakoa literatura desberdinetan kokatzen delarik. Ikus dezagun.

Adibidez, *English literature* soilik Uharte Britanikoetan idatzitakoari dagokio; Estatu Batuetan idatzitakoari *American literature* deritzo, Canadian egindakoari *Canadian literature*, Australian egindakoari *Literature of Australia and New Zeland*. Beste adibide bat: *Spanish literature* Espainian idatzitakoari deritzo, eta Amerikan idatzitakoari *Latin-American literature*. Baina *Spanish literature*-ren barruan hiru hizkuntzatan idatzitakoa agertzen da (gaztelania, galiziera eta katalana; euskara ez da aipatu ere egiten), hurrenez hurren horrela deitzen zaielarik: *Castilian literature*, *Galician literature* eta *Catalan literature*; bitartean, *Latin-American* literaturaren barruan espainieraz, portugesez eta indioen hizkuntzetan idatzitakoa agertzen da (baina soilik Amerikan idatzitakoa; frantsesez edo ingelesez Amerikan idatzitakoa ez dago ho-

rren barruan; portugesez idatzitakoa baina Amerikatik kanpo, ez dago horren barruan; etab.). Alegia, bai *Spanish* bai *English* literaturaren kasuan geografia hizkuntza baino askoz ere irizpide garrantzitsuagoa da, nahiz eta kasu bakoitzean zein hizkuntza sartzen diren banan-banan zehazten den definizioetan.

Erraz ikus dezakegu hizkuntza irizpide nagusitzat hartzen duen edozein sailkapenetarako arestian egindako banaketa (Entziklopedia Britanikoarena) erabat absurdua dela, baina hori da hain zuzen ere, itxura guztien arabera, ikerlari anglofonoen artean ez dela oso ohikoa, *Spanish literature*-ri dagokionez bederen. Adibidez, Espasa Entziklopedian ez da *Literatura española* terminoa agertzen. Horren ordeztu, 21. Tomoan (*España*) agertzen dena da *Literatura en general*, eta horren barruan lau atal (*Literatura castellana*, *Literatura vascongada*, *Literatura gallega*, *Literatura catalana*) eta eranskin bat (*Poesía hispanoarábica e hispanohebraica en la Edad Media*). Tomo hau 1923an argitaratua da, eta egungo erabilera erabat bestelakoa bada ere, ez dator bat Entziklopedia Britanikoarekin.

Halaber, azpimarratzekoa da *Literatura castellana* zein *Literatura vascongada* terminoak gaztelaniaz zaharkituztat jo behar badugu ere (gaur egun ia inork ez ditu erabiltzen), ez dela ebidentea beren euskarazko ordain estriktioak (*Gaztelaniazko literatura* eta *Euskal literatura*) modaz pasatuta daudenik. Beraz, terminoaren egokitasuna hizkuntza batetik bestera alda daiteke.

Adibide gehiago jar daiteke. Horrela, Entziklopedia Britanikoan *Irish literature* bitan banatzen da: ingelesez idatzitakoa eta Irlandako gaelikoz idatzitakoa; baina ingelesez idazten duten irlandesak *English* literaturaren barruan agertzen badira ere (edo ager daitezke), gaelikoz idazten duten irlandesak ez dira *English* literaturaren barruan sartzen; hori dela eta, ingelesez idazten duten idazleak bi literatura desberdinen partaidetzat hartuak dira (*Irish* eta *English*) edo, batzuetan *Anglo-Irish* literaturaren etiketapean ere agertzen dira. Baina gaelikoz idazten duten irlandesak ere bi literaturen partaide dira: alde batetik *Irish literature* dago, eta bestetik *Celtic literature*, zeinaren barruan sartzen diren sei hizkuntza desberdinetan idatzitako liburuak (*Irish Gaelic*, *Scottish Gaelic*, *Manx*, *Welsh*, *Cornish* eta *Breton*). Alegia, sistema horren arabera oso posible da idazle bat bi multzo desberdinen barruan sartzea, batean bere herritartasunaren arabera eta bestean darabilen hizkuntzaren arabera. Eta ez hori bakarrik: multzo bakoitzean azpimultzoak egon daitezke (geografia azpimultzoak edo hizkuntza azpimultzoak, edo biak nahastuta).

Laburbilduz, jende-izenen erabileran oinarritutako irizpideak aldagarriak eta kontrajarriak izan ohi dira, ezinezkoa delarik anbiguitate eta gurutzaketa guztiak ezabatzea. Finean, ikerleen usadio arrunta da literatura baten definizioa zedarrizten duena, eta, jakina, literatura baten definizioa historian zehar alda daiteke, edo bat baino gehiago egonaldi berean, guztiz kontrajarrita batzuetan.

10.3. EUSKAL LITERATURARI BURUZ

Ikusi dugun bezala, komunzki literaturak jende-izenen arabera sailkatzen direnez, ez da erraza munduko literaturak irizpide bakar baten arabera sailkatzea. Era berean, literatura bakoitzaren definizioa ikerleen ohiko erabileran oinarritzen denez, sailkapena berez da zehazgabea, aldakorra eta kontraesankorra. Hori dela eta, atal honetan saiatuko gara argitzen zein den ikerleen artean Euskal Herriko literaturarekin zerikusia duten terminoen erabilera.

Euskal Herriko literaturari dagokionez, gure proposamena honako irizpide honen gainean oinarrituko da: literatura-ikerle gehienek eta ospetsuenek erabilitako terminoak erabiliko ditugu, beraiek erabilitako zentzuan. Hortaz, bi faktu hauetatik abiatzen gara:

- a) *Literatura vasca / Littérature basque* jatorriz euskaraz idatzitako testuen bilduma da, edota itzultzaile euskaldunek eginiko zenbait lanena (Leizarragaren Testamentu Berria, Duvoisinin Biblia, eta abar); Mitxelenaren hitzetan esateko, *el término castellano castizo y preciso para designar la literatura en lengua vasca es el de literatura vascongada. Se ha derrochado, sin embargo, tanto celo por hacer inutilizable esta palabra cargándola de acepciones banderizas que no he podido decidirme a usarla* (*Historia de la literatura vasca*, 1960); P. Lhandek, berriz, suharki aldeztu zuen hizkuntza eta literaturaren arteko lotura: *Il y a une littérature basque; et non pas seulement une littérature de folk-lore (proverbes, devinettes, contes, berceuses, etc.), mais une littérature proprement dite: l'expression hautement littéraire du génie lyrique ou esthétique d'un peuple, d'une race, d'une langue* [enfasia berea da] (*Le pays basque et sa littérature* [Tolosako Unibertsitatean emandako hitzaldia] 1921). Beraz, *Literatura vasca / Littérature basque*-k ez du erdaraz idatzitako testurik biltzen, salbuespen gisa ez bada. Puntu honetan bat datoz gaztelaniaz edo frantsesez euskal literaturaz idatzi diren liburu ia guztiak: salbuespenak bakanak dira, eta batzuetan (Lafitte litzateke horren adibide bat) zailantziak edo testuinguru zehatzei lotuak. Dena dela, salbuespenen arazoa beherago tratatuko da xeheki.
- b) *Euskal literatura* jatorriz euskaraz idatzitako testuen bilduma da, edota itzultzaile euskaldunek eginiko zenbait lanena (Leizarragaren Testamentu Berria, Duvoisinin Biblia, eta abar); Mitxelenaren hitzetan esateko, *euskaraz idatzi den guztia (eta esan edo kantatu den franko) euskal literaturan sartzen dugu* («Liburu sorta zaharberritu baten atarian» [Klasikoak bildumari eginiko sarrera], 1986). Ez du erdaraz idatzitako testurik biltzen, salbuespen gisa ez bada. Puntu honetan bat datoz euskaraz idatzi diren liburu guztiak: ahaleginak egin arren, ez dugu aurkitu axioma horren salbuespenik. Ez hori bakarrik; era honetako kontuetan autoritate nabarmena duen K. Mitxelenak espresuki defen-

datu zuen definizio hori, edozein zalantza argi eta garbi zokoraturaz (ikus, bereziki, «Euskal literaturaren bereizgarri orokorrak» (1981), in *Koldo Mitxelena gure artean*, Alberdania, 2001, 53-86).

Jakina, termino horren (bere hiru bertsioen) bitartez ez dugu Euskal Herriko literatura guztiaren esparrua betetzen. P. Lafitten arabera, historian zehar euskaldunek osotara hamalau hizkuntza desberdin erabili dituzte literaturan (*Les courants de pensée dans la littérature basque contemporaine*, 1969). Eza-guna denez, horietatik hiru erabat gailentzen dira beste guztien gainetik: euskara, gaztelania eta frantsesa. Baina *Euskal literatura* / *Literatura vasca* / *Littérature basque* / *Basque literature* aipatzen delarik, ikerleek euskaraz idatzirikoa baino ez ohi dute kontuan izaten. Beste bi hizkuntzetan idatzitako literaturari buruzko liburuak *Literatura española* / *Littérature espagnole* / *Spanish literature* eta *Literatura francesa* / *Littérature française* / *French literature* barruan kokatu ohi dira, gehien-gehienetan. Horrela, Unamuno, Baroja edo Margarita Nafarroakoari buruzko liburuak, komunzki, *Literatura española* edo *Littérature française* terminopean agertzen dira, eta ez *Literatura vasca*, *Littérature basque* edo *Euskal literatura* etiketapean. Hau ez da iritzi bat, faktu hutsa baizik.

Errepika dezagun: faktu horren oinarrian ikerleen ohiko erabilera dago. *Literatura vasca* terminoari gaztelaniaz eman zaion zentzua, komunzki, hori besterik ez da, M. Lekuonak, K. Mitxelenak, L. Villasantek, J.M. Corellak, J. San Martinek, I. Sarasolak, J.M. Torrealdaik, J.M. Lasagabasterrek, J. Juaristik, J. Kortazarrek, S. Callejak, P. Urkizuk, M. Ugaldek eta abarrek gaztelaniaz idatzitako liburuetan ikus daitekeen bezala. Beste horrenbeste gertatzen da *Littérature basque* terminoarekin, P. Lhandek, R. Lafonek, P. Lafittek (gehienetan), J. Haritzelharrek, J.B. Orpustanek eta abarrek frantsesez idatzitako liburuetan ikus daitekeenez. Euskaraz idatzitako liburuetan, berriz, *Euskal literatura* aipatzen delarik euskarazkoa baino ez da kontuan izaten, egile guztiak horretan bat datozelarik, salbuespenik gabe.

Ikerleen hautu horrek aski naturala dirudi, ziur aski *Literatura española* eta *Littérature française* terminoei komunzki ematen zaion zentzuak eragindakoa. Adibidez, Guillermo Díaz-Plajak dioskunez, historian zehar espainiarrek nagusiki zazpi hizkuntza erabili dituzte literaturan: latina, hebreera, arabea, gaztelania, euskara, katalana eta galiziera (*Tesoro breve de las letras hispánicas*, 1972); hala eta guztiz ere, eta salbuespenak aurkitzea posible bada ere, *Literatura española* aipatzean, gaur egungo ikerle espainiarren artean, komunzki, gaztelaniaz idatzitakoa baino ez ohi da kontuan izaten (*Literatura castellana* terminoa aski zaharkitua da, gure irudiko, eta *Literatura vasca*, *Literatura catalana* eta *Literatura gallega* kontzeptu autonomotzat hartzen dira, ez *Literatura española*-ren menpeko gisa). Areago, *Literatura española*-ko testuliburuetan gehienetan ez dira aipatu ere egiten Hego Amerikako idazleak, salbuespen gisa ez bada (adibidez, Rubén Darío). Antzeko kontsiderazioak

egin daitezke frantziarrek erabilitako literatur-hizkuntzekin eta *Littérature française* terminoarekin.

10.4. SALBUESPENAK

Dena den, nabarmena da agertzen direla han hemenka, ia beti gaztelaniaz, arestian ezarri dugun irizpidea betetzen ez duten idazlanak, eta ugariak ez badira ere, nahikoa dira erregela honen hasieran aipatu dugun zalantza sortzeko. Baina azpimarra dezagun ugariak ez izan arren, irizpide nagusitik aldentzen diren idazlan horiek ez dutela *corpus* koherente bat osatzen, zenbait azpimultzo aski desberdin baizik. Azter ditzagun, bada.

Lehenengo eta behin, gaztelaniaz idatzi arren arruntean Espainiako Literaturaren historietan agertzen ez diren idazleei buruzko lanak ditugu, frankotan euskarazko edota frantsesezko idazleekin nahasian. Hots, Unamuno edo Baroja *Literatura española*-ko historia guztietan aipatzen diren bezala, ez da arrunta izaten Arturo Campión, Antonio Trueba edo Ramón Bastera aipatzea, eta ia ezinezkoa da beste hamaika egileren izenak ikustea, monografia edo artikulatu espezializatuetan ez bada. Jon Juaristiren *El linaje de Aitor* (1987) izan daiteke adibide egoki bat, hain zuzen ere egile horrek berberak *Literatura vasca* terminoa komunzki euskarazko literatura izendatzeko erabiltzen duelako (ikus bere *Literatura vasca* (1987) edota *Euskal baladen lorea=Flor de baladas vascas* (1989) monografiak). Esan nahi dugu guztiz bateragarria dela *Literatura vasca* terminoa euskarazko literaturarentzat gordetzea eta, era berean, Euskal Herriko egileei buruzko lanak idaztea, hizkuntza desberdinetakoak batera tratatuz. Bigarren multzo horretan arazoa da termino egoki bat aurkitzea, garbi baitago orain arte aipatu ditugunak (*Euskal literatura*, *Literatura española*, *Littérature française*, eta beraien baliokideak) ezin direla besterik gabe erabili; agian, Juaristi beraren bidetik, naturalago dirudi gaztelaniaz *escritores vascos* terminoa erabiltzea, edota horren euskarazko ordaina: *Euskal Herriko idazleak* (ezen *euskal idazleak* nahasgarria litzateke).

Bigarren multzo batean *Literatura navarra* terminoarekin lotutako liburuak ditugu. Ildo honetan Jose María Corellaren *Historia de la literatura navarra* (1973) da funtsezko erreferentzia, nahiz eta bai terminoa bai kontzeptua lehenago asmatuak izan. Corellak berak aitortzen du zaila dela kontzeptua zedarritzea, baina funtsean bi ezaugarri aipatzen ditu espresuki: liburu horretan *Literatura navarra* deituko dio gaur egungo Nafarroako muga geografikoetan jaio edo bizi izandako idazleek landutakoari, euskaraz idatzitakoa salbu. Ondorioz, gaztelaniaz gain, latinez, arabieraz, hebreeraz eta okzitanieraz idatzi zuten egileak aipatzen ditu, nahasian. Terminoak neurri bateko arrakasta izan du, batez ere Espainian autonomien estatua sortu zen unetik, ordura arte marginalak edo guztiz ezezagunak ziren kontzeptuak indartu baitziren, eta horrela *Literatura navarra* erabili izan da inoiz edo beste, *Literatura andalu-*

za edo *Literatura murciana* azken hamarkadetan sortu eta erabili diren neurri eta zentzu bertsuan; argitu beharra dago zentzu horretan euskarazko nafar idazleak ere tratatzen direla, baina modu marginalean. Halaber, azpimarratzekoa da inoiz ez dugula ikusi *Literatura vasca* zentzu horretan erabilita, hots, Euskal Autonomia Erkidegoan jaio edo bizi izandako idazleen batuketa gisa, beren hizkuntza edozein delarik ere; orobat, *Literatura castellana* ere ez da inoiz erabili zentzu horretan (Gaztela-Leoiko Erkidegoan jaio edo bizi izandako egileak). Beraz, erabilera urriko termino baten aurrean gaude (inoiz edo beste ikusten den *Literatura alavesa* eta enparauetan bezala) eta badirudi, aurreko multzoan bezala, naturalagoak eta erabiliagoak direla *escritores navarros*, *autores alaveses*, *poetas bilbaínos*... eta horien euskal ordainak.

Bi multzo horietaz gain, bada hirugarren bat *Literatura vasca* terminoa erabiltzen duena Hego Euskal Herrian jaio edo bizi izandako egileen batuketa adierazteko; zenbait izen aipatzearen, Raúl Guerra Garrido, Félix Marañá, Juan José Lanz, eta abar. Bi ohar egin daitezke hemen: alde batetik, ia beti gaur eguneko egileei buruzko gaiak erabiltzen dituztela (eta ondorioz, gaztelaniaz edo euskaraz idatzi duten idazleak baino ez dituztela aipagai) eta, bestetik, oro har bi hizkuntzen arteko tratamendua aurreko multzokoa baino orekatuagoa izan ohi dela, gehienetan gaztelaniaren aldera makurtzen bada ere. Dena dela, multzo honetan ere *Literatura vasca* bezain sarri, edo sarriago agian, ikusten dira *escritores vascos*, *autores vascos*, edo antzeko esakerak.

Izan daiteke (izango da) hiru multzo horietako batean bete-betean sartzen ez den libururik, baina ausaz aski da ondorio orokor honetara heltzeko: *Literatura vasca* (zentzu elebidunean), *Literatura navarra* (hainbat hizkuntzatakkoa), *Literatura vasco-navarra* (Becerro de Bengoak erabilitako terminoa), *Literatura alavesa* (inoiz edo beste ikusten da) edo antzeko terminoen ondoan, badira beste batzuk haiek baino erabiliagoak eta, ziur aski, naturalagoak: *autores vascos*, *escritores navarros*, eta antzekoak.

Bestalde, euskarazko testuetan nekez aurkitzen da arazo horien islarik Aurkitu dugun erreferentzia bakan horietako bat nahiko esanguratsua da: Bilboko udalak antolatutako erakusketa baten katalogoa da, izenburuan hauxe irakurri zitekeelarik: *Literatura vasca en Bilbao*=*Euskal Literatura Bilbaon* [sic]; *Literatura vasca en castellano en Bilbao*=*Gaztelerazko Euskal Literatura Bilbaon* [sic]. Euskarazko bertsioa gaztelaniazkoaren itzulpena da. Garbi dago *Literatura vasca*=*Euskal literatura* euskaraz idatzitakoa baino ez dela; gaztelaniaz idatzitakoa perifrasi baten bidez izendatzen da: *Literatura vasca en castellano en Bilbao*=*Gaztelerazko Euskal Literatura Bilbaon*. Perifrasi astuna gaztelaniaz, eta xeble xamarra euskaraz. Badirudi errazagoa eta naturalagoa litzatekeela *escritores bilbaínos/bilbotar idazleak* aipatzea, inor minduta edo gutxietsia sentitzeko arriskurik gabe.

10.5. ERREGELAREN OINARRIZKO IRIZPIDEA

Aurreko ataletan egindako ohar guztiak laburbilduz, ondokoa esan deza-kegu: bilaketa bibliografikoak errazteko beharrezkoa dela munduko literaturak oinarrizko irizpide baten arabera katalogatzea. Beharrizan hori nabaria da Euskal Herriko kasuan, baina ez da inola ere salbuespen; aitzitik, oso arrunta da munduko toki ugarietan.

Oinarrizko irizpide hori ABKn hizkuntza izango da. Alegia, literaturak hizkuntzaren arabera sailkatuko dira eta, beharrezkoa denean, izen geografiko bat gehituko zaie azpisarrerara gisa.

Mota horretako irtenbidea oso arrunta da munduko katalogo askotan, baina nahasian ageri ohi da bestelako batzuekin. ABK saiatuko da hizkuntzaren irizpidea ahal den neurrian orokortzen, uste baitu biziki lagungarria gertatuko dela bilaketa bibliografikoak egiteko.

Ondoko ataletan zehaztuko dira irizpide horien zenbait aplikazio.

10.6. EUSKAL HERRIKO LITERATUREI BURUZKO DOKUMENTUAK KATALOGATZEKO ERREGELAK

Gorago aipatu ditugun terminoen ohiko esanahia eta ikerle guztiz gehien erabilera garbi badaude ere, badirudi euskal kulturaren ikuspuntutik komenigarria dela Euskal Herriko literaturaren esparrua osorik betetzea, alegia, ez soilik euskal idazleak, baizik eta gaztelaniaz edo frantsesez idatzi duten euskal egileak ere (edota arabieraz, hebreeraz edo beste hizkuntzaren batean idatzi zutenak) gure katalogoetan aldez edo moldez nabarmenaraztea. Bi oinarri proposatuko ditugu horretarako:

- a) Dena delako liburu edo dokumentuaren gaia Euskal Herrian hizkuntza bakar batean idatzitako literatura bada, literatura horren izenaren bidez katalogatzea, beharrezkoa den kasuetan *Euskal Herria* azpisarrerara erantsiz.
- b) Dena delako liburu edo dokumentuan Euskal Herriko hainbat idazle aipatzen badira, hizkuntza desberdinetan idazten dutelarik, *Euskal Herria* sarrera eta *Literaturak* azpisarreraren bidez katalogatzea. Hori da, bide batez esanda, Jesus Maria Lasagabasterrek iradokitzen digun bidea (*Las literaturas de los vascos*, 2002).

Beraz, hauek dira katalogazio-erregela zehatzak:

1. **Euskal literatura** erabiliko da *Literatura vasca / Littérature basque / Basque literature* terminoen pareko gisa, alegia, euskaraz idatzitako literaturari buruzko liburuak katalogatzeko, gorago zehazten den zen-

tzuan. Ez du *Euskal Herria* azpisarreraren beharrik, munduan ez baita beste inon euskaraz idazten, salbuespen gisa ez bada.

2. Euskal Herrian gaztelaniaz idatzitako literaturari buruzko liburuak katalogatzeko, ondoko sarrera erabiliko da:

Gaztelaniazko literatura – Euskal Herria

3. Euskal Herrian frantsesez idatzitako literaturari buruzko liburuak katalogatzeko.

Frantsesezko literatura – Euskal Herria

4. Bide horretatik sarrera gehiago sor daiteke, beharrezkoa izatekotan, adibidez:

Latinezko literatura – Euskal Herria

Hebreerazko literatura – Euskal Herria

5. Euskal Herriko literaturei buruzko liburuak, alegia, bere baitan hizkuntza batean baino gehiagotan ari diren idazle edo literatur lanei buruz diharduten liburuak katalogatzeko, Laval Unibertsitateko usadio arruntari segituz, honako terminoa erabiliko da:

Euskal Herria – Literaturak

6. Ez dira onartzen gaztelaniazko *Literatura navarra / Literatura alavesa / Literatura vasco-navarra* eta enparauen euskal ordainak, beraien orde z goiko erregelen arabera dagokien sarrera erabiliko delarik. Adibidez:

- X: Nafar literatura
- X: Arabar literatura
- X: Gipuzkoar literatura
- X: Bizkaitar literatura

10.7. MUNDUKO GAINETIKO LITERATUREI BURUZKO DOKUMENTUAK KATALOGATZEKO ERREGELAK

Zerrenda exhaustibo bat egitea ezinezkoa denez gero, ondoren zerrendatzen ditugu hainbat sarrera. Irizpide nagusia beti hizkuntzari lehentasuna ematea denez gero, –zko atzizkiakz baliatuko gara, zenbait kasutan salbuespena egin arren.

Afrika – Literaturak

- X: Afrikako literatura
- X: Afrikar literatura

Alemanezko literatura

X: Aleman literatura

Alemanezko literatura – Austria

X: Austriako literatura

X: Austriar literatura

Alemanezko literatura – Suitza

X: Suitzako literatura

Arabierazko literatura

X: Arabiar literatura

Arabierazko literatura – Aljeria

X: Aljeriar literatura

Errusierazko literatura

X: Errusiar literatura

X: Errusiako literatura

Gaztelaniazko literatura

X: Espainiar literatura

X: Gaztelaniazko literatura – Espainia

Gaztelaniazko literatura – Euskal Herria**Gaztelaniazko literatura – Galizia****Gaztelaniazko literatura – Katalunia****Gaztelaniazko literatura – Latin Amerika**

X: Latin amerikar literatura

X: Espainiar literatura – Latin Amerika

Gaztelaniazko literatura – Mexiko

X: Mexikar literatura

X: Mexikoko literatura

Gaztelaniazko literatura – Txile

X: Txileko literatura

X: Txiletar literatura

Europa – Literaturak

X: Europako literatura

X: Europar literatura

Frantsesezko literatura

X: Frantses literatura

X: Frantziar literatura

Frantsesezko literatura – Aljeria**Frantsesezko literatura – Belgika****Galizierazko literatura**

X: Galiziar literatura

Grezierazko literatura

X: Literatura grekoa

X: Grekozko literatura

Hebreerazko literatura**Ingelesezko literatura**

X: Ingeles literatura

Ingelesezko literatura – Australia

X: Australiar literatura

X: Australiako literatura

Ingelesezko literatura – Irlanda

X: Irlandar literatura

Ingelesezko literatura – Estatu Batuak

X: Amerikar literatura

X: Ipar amerikar literatura

Italierazko literatura

X: Italiar literatura

Japonierazko literatura

X: Japoniar literatura

Katalanezko literatura

X: Katalan literatura

X: Kataluniar literatura

X: Valentziar literatura

X: Balear Uhartetako literatura

Latinezko literatura

X: Latin literatura

Literatura erromanikoa

Mozarabiar literatura

Okzitanierazko literatura

Portugesezko literatura

X: Portuges literatura

Portugesezko literatura – Brasil

X: Brasildar literatura

Norvegierazko literatura

X: Norvegiar literatura

Sefardierazko literatura

Suedierazko literatura

X: Suediar literatura

Literatura erotikoa

Literatura barrokoa

Artea eta literatura

Haur eta gazte literatura

Zenbait azpisarrera:

Bibliografia

Biobibliografia

Biografiak

Emakume idazleak

Historia eta kritika

Hiztegiak

Ikasketa eta irakaskuntza

Lehiaketak

Testu iruzkinak

11. MUNDUKO HIZUNTZEI BURUZ

11.1. ERREGELA HONEN ZERGATIEZ

Erregela honen helburua hizkuntzekin edo hizkuntzaren batekin zerikusirik duten dokumentuak katalogatzeko irizpideak zehaztea da. Gure arreta nagusia euskarari buruzko liburuei bideratua badago ere, sistema oso baten baitan txertatu behar ditugu, hizkuntza guztietarako balioko duena, alegia. Orobat, kontuan hartu behar da ikuspegi oso desberdinetatik idatzitako liburuak izaten ditugula: Hizkuntzalaritza, Soziolinguistika, Psikolinguistika, Zuzenbidea, eta abar. Horiek guztiak sistema bakar batean integratu behar dira, bilaketak errazteko.

11.2. ARGIBIDE OROKORRAK

Euskarari buruzko dokumentuak funtsean beste edozein hizkuntzari buruzkoak bezala katalogatu behar dira. Baina kontuan hartu behar dugu euskarari buruzko ikerketetan gai jakin batzuk pisu handia dutela eta, ondorioz, sailkapenean beharrezko moldaketak egin behar direla gertakari hori barneratzeke.

Sailkapen arruntean hizkuntzaren izenaren atzean gaikako azpisarrerak edo azpisarrera geografikoak (edo bien konbinazioak) erabiltzen dira. Azkue Bibliotekaren kasuan bi moldaketa nagusi egin behar ditugu:

- a) Bereziki euskarari buruzko dokumentuetan, gaia ahal denik eta gehien zehaztu behar da, horretarako azpisarrerak erabiliz.
- b) Ikerketa dialektalei dagokionez, euskararen kasuan azpisarrera geografikoen ordezkalkien izenak erabili behar dira, dokumentu guttiz gehienek horrela jotzen dutelako eta, berez, euskalkien banaketa ez datorrelako bat herrialdeen banaketarekin.

Ondoko ataletan hainbat kasu eta azpisarrera banan-banan zehazten saiatuko gara, euskararen kasuan erabiliko ditugun moldaketak xeheki aztertuz. Dena den, azpimarra dezagun arau honek funtsean edozein hizkuntzarentzat balio duela, hemen euskarari buruzkoetan gehiago luzatuko bagara ere.

11.3. HIZKUNTZEN IZENAK

Hizkuntzen izenak Euskaltzaindiaren 47. (*Hizkuntza hilak eta klasikoak*), 53. (*Munduko estatuetako hizkuntza ofizialak*) eta ondoren etor daitezkeen Arauetan zehaztutakoak izango dira. Arau horietan agertzen ez diren hizkuntzen izenak Azkue Biblioteka batzordeak erabakitakoak izango dira, Euskaltzaindiak besterik erabakitzen ez duen bitartean.

Orobat, *Hizkuntza* edo *Dialektoa* ezaugarritzaileak (katalogo askotan usu erabiltzen direnak) soilik oso zalantza-koak diren kasuetan erabiliko dira, adibidez, **Bahasa Indonesia (Hizkuntza)** edo **Zinbriera (Hizkuntza)** bezalakoe-tan. Beraz, ez da hizkuntza eta dialektoaren arteko bereizketarik egingo, zein bere izenaren bidez adieraziko delarik. Gai-sarrera hizkuntza multzo bat dene-an, *Hizkuntza* gehi [*multzoa ezaugarritzen duen izenondoq*] erabiliko da, euskararen zuzentasunak besterik eskatzen ez duen bitartean. Horrela, **Hizkuntza germanikoak**, **Hizkuntza erromanikoak**, **Bantu hizkuntzak**, eta abar.

11.4. HIZKUNTZALARITZA ARLOKO AZPISARRERAK

Hizkuntza edo dialekto izenaren ostean azpisarrerera ugari ezar daitezke, erabilienak ondoko zerrendan agertzen direlarik. Kontuan har bedi hizkuntza bakoitzaren ezaugarriak direla eta, azpisarrerok ezin zaizkiola besterik gabe edozein hizkuntzari ezarri. Beraz, ondoko zerrenda ez da exhaustiboa eta ez du hizkuntza guzti-guztientzat balio, baina funtsean hori da erabili beharrekoa.

- Euskara – Adberbioa
- Euskara – Aditza
- Euskara – Adjektiboa
- Euskara – Ahoskera
- Euskara – Atzizkiak, aurrizkiak eta artizkiak
- Euskara – Azterketak
- Euskara – Batasuna
- Euskara – Bibliografia
- Euskara – Deklinabidea
- Euskara – Esaerak
- Euskara – Gaztelaniaren gaineko [Frantsesaren gaineko...] eragina
- Euskara – Estilistika
- Euskara – Etimologia
- Euskara – Eztabaida idazlanak
- Euskara – Fonetika
- Euskara – Gramatika
- Euskara – Gramatika historikoa
- Euskara – Gramatika konparatua
- Euskara – Gramatika konparatua – Etruskoa [Latina, Hizkuntza erromanikoak...]
- Euskara – Historia
- Euskara – Historia – Iturriak
- Euskara – Hiztegiak
- Euskara – Hiztegiak – Hiztegi poliglotak
- Euskara – Hiztegiak – Bibliografia
- Euskara – Hiztegiak – Gaztelania [Frantsesa, Latina...]
- Euskara – Hiztegiñoak eta elkarrizkera eskuliburuak

Euskara – Hiztegiñoak eta elkarrizketa eskuliburuak – Gaztelania [Frantsesa...]
Euskara – Idazketa eta ariketak
Euskara – Ikasketa eta irakaskuntza
Euskara – Ikerketa
Euskara – Intonazioa (Fonetika)
Euskara – Irakurgaiak eta zati hautatuak
Euskara – Izen sintagma
Euskara – Joskera
Euskara – Kategoria gramatikalak
Euskara – Lexikografia
Euskara – Lexikologia
Euskara – Maileguak
Euskara – Mapak
Euskara – Morfologia
Euskara – Neurtzigintza
Euskara – Normalizazioa
Euskara – Ortografia
Euskara – Pedagogia metodoak
Euskara – Semantika
Euskara – Sinonimoak eta antonimoak
Euskara – Zuzenbidea

11.5. AZPISARRERA GEOGRAFIKOAK

Posible da gai-sarrera geografiko baten ostean **Hizkuntzak** azpisarrera ezartzea (adibidez, **Euskal Herria – Hizkuntzak**, **Belgika – Hizkuntzak**, **Er-dialdeko Amerika – Hizkuntzak**, eta abar). Kasu batzuetan, hizkuntza aski urruna denean edo, bereziki, bere izena ez oso ezaguna, hizkuntzaren izenarekin egiten denaz gain, bigarren gai-sarrera bat egingo da mintzatzen den inguru geografikoarekin, **Hizkuntzak** azpisarrera erantsiz. Horrela, magindanaoerari buruzko liburu batek bi gai-sarrera izango ditu, lehena **Magindanaoera** eta bigarrena **Filipinak – Hizkuntzak**, edo katioerari buruzko batek ondoko bi hauek: **Katioera** eta **Hego Amerika – Hizkuntzak**.

Orobat, hizkuntza edo dialekto izenaren ostean, azpisarrera geografikoak erabil daitezke. Baliabide hau batez ere hedadura handiko hizkuntzekin erabiliko da, dialektoen kasuan salbuespen gisa baino ezarriko ez delarik. Horrela, **Frantsesa – Frantzia – Ekialdeko Pirinioak**, **Frantsesa – Quebec**, **Gaztelania – Espainia – Kantabria**, **Gaztelania – Mexiko**, eta abar.

Euskararen kasuan, jarraian zehaztuko denari segituz, ikerketa dialekta-len kasuan azpisarrera geografikoaren ordez euskalkia ezarriko da. Baina dokumentuen gaia oso orokorra denean, edo beherago zehaztuko diren beste ka-

tegoria batzuetan (hizkuntzen soziologia, hizkuntza politika edo euskararen historia) sartzen ez denean, ondoko sarrerak bezalakoak erabil daitezke:

Euskara – Araba
Euskara – Bizkaia
Euskara – Gipuzkoa
Euskara – Lapurdi
Euskara – Nafarroa
Euskara – Nafarroa Beherea
Euskara – Zuberoa
Euskara – Espainia – Errioxa
Euskara – Estatu Batuak

11.6. EUSKALKIAK

Euskarari buruzko dokumentuen kasuan ikerketa dialektala baldin bada, gai-sarreratzat euskalkiaren izena erabiliko da. Azpimarra dezagun soilik ikerketa dialektalei buruz ari garela. Euskalki bakoitzaren hedadura finkatzeko Pedro Irizarren irizpideari segituko zaio (Ikus Irizar, Pedro: *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Donostia 1981, I tomoa, 39-45 or., eta beziziki 40. orriaren ostean ageri den 1go mapa). Sailkapen horri ondoko zuzenketak egin zaizkio:

- a) *Ipar goi nafarrera* eta *Hego goi nafarrera* bat egin dira, **Goi nafarrera** terminoan.
- b) *Mendebal behe nafarrera* eta *Eki behe nafarrera* bat egin dira, **Behe nafarrera** terminoan.
- c) **Erronkaria** euskalki autonomotzat jo da, **Zuberera**-tik bereiziz.

Sarrerak larregi ez ugaritu alde, euskalkien izenak baino ez dira onartzen, azpieuskalkienak edo aldakienak zuzenean erabiltzea debekatzen delarik. Beraz, hauxe da, onartutako gai-sareren zerrenda:

Behe nafarrera
Bizkaiera
Erronkaria
Gipuzkera
Goi nafarrera
Lapurtera
Zuberera

Hauek dira onartzen ez diren hainbat sarrera:

- X: Mendebaldeko euskara *e.* **Bizkaiera**
 X: Nafarrera *e.* **Goi nafarrera** ala **Behe nafarrera**

X: Nafar-lapurtera *e.* **Behe nafarrera** eta **Lapurtera**

X: Ekialdeko nafarrera *e.* **Behe nafarrera** eta **Erronkariera**

X: Arabako euskara *e.* **Bizkaiera**

X: Zuberoako euskara *e.* **Zuberera**

X: Iparraldeko euskara *e.* **Lapurtera, Behe nafarrera** eta **Zuberera**

X: Erdialdeko euskara *e.* **Gipuzkera** eta **Goi nafarrera**

Orobat, gorago aipatu diren hizkuntzalaritza arloko azpisarrerak (ikus 2.2. atala) beti **Euskara** sarrerari lotuko zaizkio, baina beste sarrera bat erantsiko da euskalkiaren izenarekin eta azpisarrera berdinarekin. Adibidez:

Goi nafarreraren fonetikari buruzko dokumentu batek bi sarrera hauek izango ditu:

Euskara – Fonetika eta

Goi nafarrera – Fonetika

Lapurteraren gramatikari buruzko dokumentu batek bi sarrera hauek izango ditu:

Euskara – Gramatika eta

Lapurtera – Gramatika

Azpieuskalkiak edo aldakiak katalogatzeko, berriz, euskalkiaren izenaren atzean azpisarrera geografikoak erabiliko dira, lehenengo herrialdearen izena eta ondoren eskualdea edo herria. Adibidez:

X: Aezkera *e.* **Behe nafarrera – Nafarroa – Aezkoa**

X: Zaraitzuera *e.* **Behe nafarrera – Nafarroa – Zaraitzu**

X: Arratiera *e.* **Bizkaiera – Bizkaia – Arratia**

X: Baztango euskara *e.* **Goi nafarrera – Nafarroa – Baztan**

X: Bermeoko euskara *e.* **Bizkaiera – Bizkaia – Bermeo**

X: Burundako euskara *e.* **Gipuzkera – Nafarroa – Burunda ibarra**

X: Goierriko euskara *e.* **Gipuzkera – Gipuzkoa – Goierri**

X: Oñatiko euskara *e.* **Bizkaiera – Gipuzkoa – Oñati**

X: Euskara – Sara *e.* **Lapurtera – Lapurdi – Sara**

X: Euskara – Leioa *e.* **Bizkaiera – Bizkaia – Leioa**

Orobat, dokumentu berean hiru euskalki, edo hiru baino gehiago, aipatzen badira, **Euskara – Euskalkiak** gaia erabiliko da, beharrezkoa bada azpisarrera geografiko bat gehituz. Adibidez:

Euskara – Euskalkiak

Euskara – Euskalkiak – Nafarroa

11.7. SOZIOLINGUISTIKA ARLOKO AZPISARRERAK

Hizkuntza baten egoera sozialari buruzko liburuak **Gizarte ikuspuntua** azpisarreraren bitartez katalogatuko dira, ondoren azpisarrera geografiko bat erantsiz. Era honetako gai-sarrerak erabiliko dira:

- Euskara – Gizarte ikuspuntua – Euskal Herria**
- Euskara – Gizarte ikuspuntua – Ipar Euskal Herria**
- Euskara – Gizarte ikuspuntua – Gipuzkoa**
- Gaztelania – Gizarte ikuspuntua – Euskal Herria**
- Gaztelania – Gizarte ikuspuntua – Araba**
- Gaztelania – Gizarte ikuspuntua – Estatu Batuak**
- Frantsesa – Gizarte ikuspuntua – Afrika**
- Frantsesa – Gizarte ikuspuntua – Kanada**
- Arabiera – Gizarte ikuspuntua – Aljeria**

Bereziki azpimarratu behar da ez dela onartzen herrialdea baino beheragoko azpisarrera geografikorik zuzenean ematea. Adibidez:

- X: Euskara – Gizarte ikuspuntua – Arrasate *e.* **Euskara – Gizarte ikuspuntua – Gipuzkoa – Arrasate**
- X: Euskara – Gizarte ikuspuntua – Baztan *e.* **Euskara – Gizarte ikuspuntua – Nafarroa – Baztan**
- X: Euskara – Gizarte ikuspuntua – Bilbo *e.* **Euskara – Gizarte ikuspuntua – Bizkaia – Bilbo**

Soziologiari buruzko liburuak, alegia, diziplina akademiko horri buruzkoak, **Soziolinguistika** terminoan katalogatuko dira, zilegi delarik azpisarrera geografikoak eranstea. Aldiz, hizkuntza jakin bati buruzko sarrerak, honela egingo dira:

- X: Soziolinguistika – Euskal Herria *e.* **Euskara – Gizarte ikuspuntua – Euskal Herria** (*Euskararen gizarte egoerari buruzko liburu bat katalogatzeko*)
- X: Soziolinguistika – Gipuzkoa *e.* **Euskara – Gizarte ikuspuntua – Gipuzkoa** (*Euskararen gizarte egoerari buruzko liburu bat katalogatzeko*)
- X: Soziolinguistika – Ipar Euskal Herria *e.* **Euskara – Gizarte ikuspuntua – Ipar Euskal Herria** (*Euskararen gizarte egoerari buruzko liburu bat katalogatzeko*)

11.8. HIZKUNTZA POLITIKA ETA ELEBITASUNA

Hizkuntza bat edo batzuren erabilera arautzeko herri aginteek egiten dutenari buruzko liburuak **Hizkuntza politika** terminoan katalogatuko dira, azpisarrera geografiko bat erantsiz. Adibidez:

Hizkuntza politika – Espainia
Hizkuntza politika – Frantzia
Hizkuntza politika – Katalunia
Hizkuntza politika – Valentzia
Hizkuntza politika – Euskadi (Autonomia Erkidegoa)
Hizkuntza politika – Nafarroa
Hizkuntza politika – Gipuzkoa
Hizkuntza politika – Kanada
Hizkuntza politika – Aljeria

Bereziki azpimarratu behar da **Hizkuntza politika** gai-sarrerera, herri aginteek egiten dutenari buruzko liburuak katalogatzeko balio duen heinean, ezin dela erabili nortasun administratiborik gabeko lurraldeekin. Adibidez:

X: Hizkuntza politika – Euskal Herria *e.* **Hizkuntza politika – Euskadi, Hizkuntza politika – Nafarroa eta Hizkuntza politika – Frantzia**

(Euskarari dagokionez, kontuan hartzekoa da ere une honetan Frantziako Errepublikan Parisko Gobernuak baino ez duela hizkuntza politika arautzeko boterea.)

Elebitasunari buruzko liburuak **Elebitasuna** gai-sarreraren bitartez katalogatuko dira, zilegi delarik azpisarrera geografikoak eranstea. Adibidez:

Elebitasuna
Elebitasuna – Euskal Herria
Elebitasuna – Gipuzkoa
Elebitasuna – Espainia
Elebitasuna – Mexiko
Elebitasuna – Holanda

Hizkuntza bi baino gehiago denean, **Eleaniztasuna** sarrera erabiliko da. Adibidez:

Eleaniztasuna
Eleaniztasuna – Euskal Herria
Eleaniztasuna – Afrika

Ez da onartzen **Elehirutasuna* edo **Elelautasuna* bezalako sarrerarik.

11.9. HIZKUNTZEN HISTORIA

Hizkuntza baten historiari buruzko liburuak, **Historia** azpisarreraren bidez katalogatuko dira. Euskararen kasuan, komenigarria da sarrera orokorraz gain (**Euskara-Historia**), beste sarrera bat egitea dagokion azpisarrera geografikoarekin, adibidez:

Frantsesa – Historia

Euskara – Historia

Euskara – Araba

Euskara – Historia

Euskara – Nafarroa – Estellerria

12. ETNOLOGIA ETA ANTROPOLOGIARI BURUZ

12.1. ERREGELA HONEN ZERGATIEZ

Gai hauei buruzko liburuak katalogatzerakoan zalantza sortzen da, batez ere euskal gaiei buruz direnean. Izan ere, Azkue Bibliotekan munduko beste edozein lekuri buruz ditugun materialak oro har nahiko mugatuak dira eta, ondorioz, salbuespenak salbuespen, erreza da Etnologia edota Antropologiari buruzko liburuak eta literatura edo musika lanak sailkatzea. Baina euskal gaiei dagokien dokumentuen ugaritasunak zaildu egiten du muga garbi bat finkatzea. Era berean, *Etnologia*, *Etnografia* eta *Folklore*a terminoak sarri antzeko liburuak deskribatzeko erabili ohi dira, muga zehatzik gabe. Bestalde, *Antropologia* terminoaren esanahia finkatzea ere, oso beharrezkoa da, ez baita gauza bera, ezta antzekoa ere, XIX. eta XX. mende hastapeneko Antropologia fisikoa eta XX. mendeko Antropologia kulturala.

12.2. ARGIBIDE OROKORRAK

Beldur handirik gabe esan daiteke gaur egun *Antropologia* dela gure inguruko hizkuntzetan nagusitu den terminoa, beste guztien kaltetan. Termino polisemikoa da hasiera-hasieratik eta gaur egun ere mota desberdinetako ikerketak izendatzeko erabiltzen da, frankotan zerikusi gutxi dutenak elkarren artean. Hori dela eta, sarritan *Antropologia Fisikoa* eta *Antropologia Kulturala* bereizten dira, lehenari zentzu biologikoa lotuz (gizakien edo gizaki-multzoen ezaugarri fisikoen ikerketa), bigarrenari biologikoak ez diren ezaugarrien ikerketa esleituz. Baina bereizketa hori, frankotan egokia eta egin erraza, beste batzuetan ez da hain garbia; izan ere, liburu askotan aurkituko dugu ezaugarri fisiko eta kulturalen arteko konbinazio bat ikerketa bakar batean. Baina hala ere *Antropologia* da gure inguruan entzuten eta erabiltzen den terminoa, ñabardurak ñabardura.

Ondorioz, ABKn lehentasuna *Antropologia* terminoari emango zaio, hori baita gehien-gehien erabiltzen dena, ñabardurak eta zehaztapenak soilik beharrezkoa denean eginez.

12.3. ERREGELAK

Ondoko erregelak ezartzen dira:

1. **Antropologia** terminoa hobetsiko da *Etnologia*, *Etnografia* eta *Folklore*a terminoen ordeztu. Beraz, azken hirurak ez-onartu gisa agertuko dira ABKn, lehenengora igorritu.

2. **Antropologia** terminoa zentzurik zabalenean erabiliko da, alegia, tradizionalki antropologoen, etnologoen, etnografoen eta folkloristek landu izan duten gai guztiekin (baserria, sineskerak, ohiturak, janzkera, lanbideak, heriotza, jaiak, eta abar). Dena den, azpimarratzeko da batez ere testu teorikoentzat erabiliko dela.
3. Tokian tokiko ikerketa antropologiko deskriptiboak era honetako sarreren bidez katalogatuko dira:

Balmaseda (Bizkaia) – Ohiturak eta ekanduak
Nafarroa – Ohiturak eta ekanduak

4. Liburu edo dokumentuaren gaia Biologiaren esparrukoa denean (hots, gizakien ezaugarri fisikoen azterketa: arraza, buruhezurraren neurriak, odol-taldeak...) **Antropologia Fisikoa** sarreraren bidez katalogatuko da. Baina ezaugarri fisikoen azterketa beste hainbat ezaugarri kulturalen azterketarekin batera agertzen denean (hizkuntza, ohiturak, lantresnak...), **Antropologia** sarrera erabiliko da.
5. **Antropologia** sarrerari beharrezko azpisarrera geografikoak egin ahal izango zaizkio. Euskal Herriaren kasuan, lehentasuna beti **Euskal Herria** azpisarrerari emango zaio, lurralde historikoen azpisarreak batez ere udalerrria aipatu behar denean erabiliko diralarik. Adibidez:

Antropologia – Euskal Herria
Antropologia – Gipuzkoa – Oñati
Antropologia – Nafarroa – Zangozako Merindadea

6. Bestalde, herri-literaturekin edo herri-musikarekin zerikusirik duten liburuek, sarri, harreman estua dute etnologia, etnografia edo folkloarekin. Hala ere, ez dirudi komenigarria **Antropologia** terminoaren bidez deskribatzea, beste askotan harreman hori franko zalantzarria delako eta, ondorioz, katalogoaren osotasun eta koherentzia apurtzen delako. Beraz, 13. erregelari zehazten denaren arabera deskribatuko dira.
7. Halaber, Antropologiako dokumentuek sarritan bi gai-sarrera izango dituzte: lehena **Antropologia** edo **Ohiturak eta ekanduak** azpisarreraren bidez, eta bigarrena berez dagokion gaia, azpisarrera geografikorekin edo gabe: **Iñauteriak**, **Baserria**, eta antzekoak. Hauexek dira zenbait gai-sarrera posible Antropologiazko liburuak deskribatzeko:

Aste Santua
Baserria
Egutegia
Ehiza
Elikadura ohiturak
Euskal mitologia
Familia

Eguberria
Heriotza
Inauteriak
Jaiak
Janzkera
Jolasak
Lanbideak
Lehen erlijioa
Matriarkatua
Ogia
Sineskeriak
Sorginkeria

13. JENTILIZIOEN ERABILERAREKIN LOTUTAKO ZENBAIT ARAZORI BURUZ

13.1. ERREGELA HONEN ZERGATIEZ

Gure inguruko hizkuntzetan oso arrunta da kultur- eta kirol-agerpenei buruzko dokumentuak katalogatzeko jentiliziotara jotzea. Horrela, literaturan ezezik, oso arrunta da *italiar pinturaz*, *aleman musikaz*, *hungariar dantzez*, *espainiar futbolaz* edo *euskal sukaldaritzaz* hitz egitea. Eta horrela formulaturiko kontzeptuek berez zehazgabetasun-maila handi xamarra izaten duten arren, horiek dira gure inguruko hizkuntzetan arrunki erabiltzen diren terminoak. Beraz, badirudi euskaraz ere zilegi eta, areago, beharrezkoa izan behariko litza-tekeela horrelako jentilizioez baliatzea, gutxienez kultur kontzeptuez ari gare-larik.

Baina nabarmena da euskararen kasuan bi zailtasun nagusi ditugula. Lehenengo eta behin, oraingoz ez da batera arrunta euskaraz *italiar pintura* bezalakoak erabiltzea; horiek entzutea edo irakurtzea gero eta normalagoa bada ere, arruntagoak eta naturalagoak egiten zaizkigu *Italiako pintura* bezalakoak. Ez dago guztiz garbi termino biek esanahi berbera ote duten, hots, *italiar pintura* esatean soil-soilik erreferentzia geografiko batez ari garen, edo bestelako ezaugarri batzuen bitartez kontzeptua murrizten ote dugun, baina, euskara arruntean, oraingoz, arrotza egiten zaigu *italiar pintura* entzutea. Bestalde, badirudi errazagoa dela ikustea *aleman musika* eta *Alemaniano musika* bi gauza desberdin direla (edo izan daitezkeela; adibidez, Vienako konpositoreak *aleman musika*-n sartu ohi dira, baina ez dira *Alemanianoak*), baina, berriz diogu, euskarari oraingoz arrotz egiten zaizkio *aleman musika* bezalakoak.

Bigarren zailtasuna *euskal* jentilizioa da. Euskaraz zentzu murriztaile bategan erabiltzen da arrunki, alegia, gehien-gehienetan hizkuntzari (euskarari) lotuta agertu ohi da, eta ez Euskal Herri osoari, hots, barruti geografikoari. Honela, adibidez, *euskal literatura* euskarazko literatura den bezala, *euskal kanta*-tzat hartzen dira soilik euskarazko letra duten kantak, eta *euskal pintura* edo *euskal futbola* bezalako terminoak oraingoz arrotz zaizkio euskarari, ez baitute hizkuntza-erreferentziarik. Poliki-poliki *euskal sukaldaritzaz* bezalako batzuk normaltasunez agertzen hasi dira, baina salbuespenak dira oraingoz.

Zailtasun horiei aurre egiteko beharrezkoa da jentilizioen erabilerari buruzko argibide batzuk ematea. Izan ere, kasu askotan hautazkoa izan daiteke jentilizioa eta azpisarrera geografikoaren artean bat erabakitzea. Beste batzuetan, berriz, badirudi erabilera ezin dela hautazkoa izan, kontzeptu desberdinak sartzen direlako jokoan. Dena den, jentilizioen bidez sortutako kontzeptuekin gehiegikeriak egin daitezke, edo beharrezkoak ez diren gai-sarrerak ontzat eman.

Ildo horretan zenbait alor desberdin jorratuko ditugu. Ez dira sor daitezkeen guztiak baina bai, gure ustez, sarrien suertatzen direnak. Oraingoz ez gara ausartzen irizpen orokor bat idaztera eta, beraz, sor daitezkeen zalantzak bere momentuan erabakiko dira.

13.2. MUSIKA ETA KANTAK

Musikako dokumentuak euskaraz katalogatzeko zenbait arazo ditugu. Izan ere, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, bi modu desberdinetan deskribatzen dira musikarekin zerikusia duten liburuak:

- a) *Musika* edo *Dantza* terminoen bidez deskribatzen direnek, eskuarki, etorkia adierazteko azpisarrera geografiko bat izan ohi dute. Eta horrela ditugu, adibidez:

Musica – Italia, Musique – Italie eta *Music – Italy*
Danza – Italia, Danse – Italie eta *Dancing – Italy*

- b) *Kantak* terminoaren edo antzeko baten bidez deskribatzen direnek, eskuarki, etorkia adierazteko jentilizio bat izan ohi dute. Eta horrela ditugu, adibidez:

Canciones españolas, Chansons espagnols eta *Spanish songs*
Canciones folklóricas húngaras, Chansons folkloriques hongroises eta
Hungarian folk-songs

Euskaraz katalogatzeko lehenengo bidea da hobetsi behar dena, baita kan-
te buruz ari garenean. Adibidez:

Musika – Espainia

Musika – Europa

Musika – Euskal Herria

Musika – Bizkaia – Bilbo

X: Musika – Bilbo

Dantza

Dantza folklorikoak – Lapurdi

Dantza folklorikoak – Euskal Herria

Dantza folklorikoak – Gipuzkoa – Oñati

X: Dantza folklorikoak – Oñati

Kantak – Frantzia

Kantak – Euskal Herria**Kantak – Gales****Kanta folklorikoak – Frantzia****Kanta folklorikoak – Euskal Herria****Kanta folklorikoak – Bizkaia – Ondarroa**

X: Kanta folklorikoak – Ondarroa

Eguberri kantak – Alemania**Eguberri kantak – Euskal Herria****Eguberri kantak – Bizkaia – Gernika-Lumo**

X: Eguberri kantak – Gernika

Dena den, beharrezkoa den kasuetan posible da salbuespenak egitea eta azpisarrera geografikoen ordeztelako baliabide batzuk erabiltzea (jentilizioak edo bestelakoak). Adibidez, kanta erlijiosoen kasuan honelako gaiak jarriko dira:

Kantikak

X: Kanta erlijiosoak

Kantikak euskaraz**Kantikak gaztelaniaz****Kantikak frantsesez****Kantikak latinez**

Bestalako beharrik agertuko balitz, bere momentuan aztertuko da.

SHUri dagokionetan, liburuari dagokion zenbakiaren arabera sailkatuko da (alegia, 78... edo 79...), eta ondoren zenbaki laguntzaile geografikoa erantsiko zaio. Kanten kasuan, hizkuntza adierazten duen zenbaki laguntzailea erantsiko da. Hauetxek dira adibide batzuk:

784.4(466EH)	Euskal Herriko kanten bilduma bat, hizkuntza batean baino gehiagotan.
784.4(466EH)=916.9	Euskal Herriko kanten bilduma bat (euskarazkoak)
784.4(466EH)=60	Euskal Herriko kanten bilduma bat (gaztelaniazkoak)
784.4(466EH)=40	Euskal Herriko kanten bilduma bat (frantsesezkoak)
784.4(460.15)=60	Bizkaiko kanten bilduma bat (gaztelaniazkoak)
784.4(460.15)=916.9	Bizkaiko kanten bilduma bat (euskarazkoak)
784.4(460.15)	Bizkaiko kanten bilduma bat (gaztelaniazkoak eta euskarazkoak)

784.4(447LAPURDI)=916.9

Lapurdiko kanten bilduma bat (euskarazkoak)

784.4(447LAPURDI)=40

Lapurdiko kanten bilduma bat (frantsesezkoak)

13.3. HERRI LITERATURA

Herri-literaturari buruzko liburuak katalogatzeko ere zenbait arazo ditugu. Izan ere, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, bi modutara kataloga daitezke:

a) *Herri literatura* – (*osagarri geografikoa*), adibidez:

Literatura popular – Francia / Litterature populaire – France / Folk literature – France

b) (*jentilizioa*) *herri literatura*, adibidez:

Literatura popular francesa / Litterature populaire française / Folk literature, french

Euskaraz katalogatzeko lehenengo bidea da hobetsi behar dena. Bi arrazoi daude horretarako:

1. Hori da musika eta dantzari buruzko liburuak katalogatzeko hobetsi den bidea.
2. Euskal Herriko herri-literaturari dagokioenez, zailtasun bereziak daude bai alde terminologikoan zein kontzeptualean.

Alegia, alde batetik *Euskal herri literatura* terminoa bereziki iluna eta hasgarria gertatzen da euskaraz: bizpahiru aldiz irakurri behar da zer esan nahi duen ondo ulertzeko (hots, ez dela *Euskal Herriko literatura* baizik eta *euskarazko herri-literatura*).

Bestetik, herri literaturaren kasuan kontuan hartu behar dira zenbait azpigenero: elezaharrak, ipuin zaharrak, pastoralak, atsotitzak... Kasuren batzutan egokia bada ere, ez dirudi komenigarria azpigenero horiek guztiak hizkuntzaren arabera sailkatzea, sarritan edizio hizkuntza bateko baino gehiagotako testuak izaten ditugulako eskuartean. Alegia, *Euskal elezaharrak*, *Euskal ipuinak* edo *Euskal atsotitzak* bezalako sarrerak baino, egokiagoa dirudi **Euskal Herria** azpisarreraz baliatzea. Baina, Zuberoako pastoralen eta antzekoen kasuan hizkuntzaren erreferentzia askoz ere tinkoagoa da.

Beraz, mota honetako sarrerak hobesten dira:

Herri literatura

X: Herri poesia

X: Herri antzerkia

Herri literatura – Euskal Herria

X: Euskal herri literatura

Herri literatura – Zuberoa

Herri literatura – Espainia

Herri literatura – Frantzia

Euskal antzerkia – Zuberoa

X: Herri antzerkia –Zuberoa

X: Pastoralak

X: Maskaradak

Elezaharrak

X: Kondairak

X: Legendak

Elezaharrak – Euskal Herria

X: Euskal elezaharrak

Elezaharrak – Nafarroa

Elezaharrak – Gipuzkoa – Ataun

X: Elezaharrak – Ataun

Elezaharrak – Espainia

Elezaharrak – Frantzia

Herri ipuinak

Herri ipuinak – Euskal Herria

X: Euskal ipuinak

Herri ipuinak – Espainia

Herri ipuinak – Frantzia

Atsotitzak

X: Errefrauak

X: Esaera zaharrak

Atsotitzak – Euskal Herria

X: Euskal atsotitzak

Atsotitzak – Gipuzkoa

Atsotitzak – Espainia**Atsotitzak – Frantzia**

Kontuan izanik gure katalogoan gai hauek interes berezia dutela, arreta berezia jarriko da gai-sarrerak esleitzeko. Horrela, adibidez, gai-sarrera bat egingo zaio bai Azkueren *Euskalerrriaren Yakintzari*, bai beraren gaineko ikerketa-liburu bati.

SHU zenbakiari dagokionez, hauexek erabiliko dira:

- a) Euskarazko herri literaturazko edo horri buruzko liburu bat baldin bada, 891.69-91 erabiliko da. Euskal Herrian, baina gaztelaniazko edo frantsesezko herri literaturazko edo horri buruzko liburu bat baldin bada, 860-91 edo 840-91 erabiliko da. Liburuan hizkuntza bateko baino gehiagoko literatura agertzen bada, sarrera bat baino gehiago egingo da (bat hizkuntza bakoitzeko). Era berean, .09, (0822.2) eta antzeko zenbaki osagarriak erabiliko dira.
- b) Elezaharren eta ipuin zaharren kasuan, 891.69-34, 860-34 eta 840-34 zenbakiak erabiliko dira.
- c) Atsotitzen kasuan, 891.69-84, 860-84 eta 840-84 zenbakiak erabiliko dira.

Horrela, zenbait adibide:

- a) Grimm anaien ipuin bilduma literatura barruan kokatuko dugu, eta ondorioz ez du gai-sarrerarik izango. Baina Azkueren *Euskalerrriaren Yakintza* horrela katalogatuko dugu: **Herri literatura – Euskal Herria** eta 891.69-91 SHU zenbakia emango diogu.
- b) Menéndez Pidalen *Flor nueva de viejos romances* literatura barruan kokatuko dugu, eta ondorioz ez du gai-sarrerarik izango. Baina A. Zavalaren *Euskal erromantzeak* horrela katalogatuko dugu: **Herri literatura – Euskal Herria** eta 891.69-91 SHU zenbakia emango diogu.

13.4. KIROLAK

Laval unibertsitatearen zerrendan kirolak ez dira jentilizioen bidez katalogatzen, azpisarrera geografikoen bidez baizik. Baina Euskal Herriko zenbait kirol berezitan, berriz, *euskal* jentilizioa erabiltzeak nahasketak sor ditzake (adibidez, *euskal pilota*). Horregatik beharrezkoa da kirolak oro har, eta Euskal Herrikoak bereziki, nola katalogatuko diren zehaztea.

Kiroleko liburuak katalogatzeko mota honetako sarrerak erabiliko dira:

Kirolak – Euskal Herria

X: Euskal kirola

Kirolak – Araba**Alpinismoa****Alpinismoa – Euskal Herria**

X: Euskal alpinismoa

Alpinismoa – Gipuzkoa**Futbola****Futbola – Euskal Herria**

X: Euskal futbola

Futbola – Bizkaia**Saskibaloia**

Euskal Herriko kirol bereziei dagokienez, ez dirudi oso praktikoa kirol-mota bakoitzari gai-sarrera berezi bat esleitzea, ez baitago aski dokumentu horretarako. Beraz, soilik hiru sarrera hauek erabiliko dira: **Herri kirolak** (harrijasotzea, aizkol jokua, palanka, txinga eroatea, idi demak eta enparauak barne), **Pilota** (eskuz, palaz, txisteraz eta enparauak barne) eta **Estropadak** (soilik traineru, traineru txiki, batel eta enparauak, alegia, Euskal Herriak berezkoak dituenak; gainetiko guztiak zein bere izen arruntaren bidez katalogatuko da). Adibidez:

Herri kirolak**Herri kirolak – Euskal Herria**

X: Harrijasotzea

X: Aizkol jokua

X: Idi demak

Herri kirolak – Bizkaia**Pilota**

X: Euskal pilota

X: Esku pilota

X: Pala

X: Erremontea

Pilota – Euskal Herria**Pilota – Araba****Pilota – Amerika**

Pilota – Kuba**Estropadak**

X: Traineruak

X: Batelak

Estropadak – Euskal Herria**Estropadak – Gipuzkoa – Orio**

X: Estropadak – Orio

13.5. SUKALDARITZA

Sukaldaritzari buruzko liburuak sail berezi bat osatzen dute, Euskal Herrian bederen, eta badirudi jentilizioen bidez sailkatu beharko lirатеkeela. Izan ere, adibidez, garbi dago ez dela gauza bera *Txinar sukaldaritza* eta *Txinako sukaldaritza*: lehena mundu osoan hedaturik dagoen sukaldaritza-mota jakin bat da, konbentzionalki izen hori hartu duena, eta bigarrena lurralde jakin batean praktikatzen den askotariko sukaldaritza(k), sarri aurrekoarekin zerikusi txikia duena. Berdin esan daiteke munduko beste sukaldaritza askorentzat.

Hortaz gain, badirudi kasu honetan *euskal* jentilizioak ez duela aparteko arazorik sortzen, kontzeptu berezi eta beregain bati aplikatzen zaion neurrian, hots, ez du beste ezein kontzepturekin nahasketarik edo interferentziarik sortzen eta gaur egungo euskarari aski zabaldua da.

Beraz, mota honetako gai-sarrerak erabiliko dira:

Sukaldaritza**Euskal sukaldaritza****Euskal sukaldaritza – Araba****Euskal sukaldaritza – Gipuzkoa – Donostia****Txinar sukaldaritza****13.6. JAIK**

Garbi dago jaiari buruzko liburuak azpisarrera geografikoen bidez katalogatu behar direla, adibidez, honela:

Jaiak**Jaiak – Euskal Herria**

Jaiak – Nafarroa – Iruñea**Jaiak – Espainia**

Baina badago jai mota berezi bat, ezaugarri berezi batzuk dituen, *euskal jai* gisa ezagutzen dena, hots, gaztelaniaz *Fiestas Euskaras* edo *Juegos Florales Euskaros* eta euskaraz *Euskal Jaiak*, *Euskal Festak* edo *Euskal Itz-Jostaldiak* gisa ezagutzen direnak. Alegia, mota horietako jaiak ez dira nahasten Euskal Herrian ospatzen diren gaitetiko jaiekin, kontzeptu berezi eta beregain bat osatzen dutelarik. Beraz, mota horreko jaien gai-sarrera honela egingo da:

Euskal jaiak**Euskal jaiak – Lapurdi****Euskal jaiak – Gipuzkoa – Bergara**

14. SARRERA ETA AZPISARRERA GEOGRAFIKOEI BURUZ

14.1. ERREGELA HONEN ZERGATIEZ

Azkue Biblioteka euskal gaietan espezializatua dago. Horrek esan nahi du bertan zaintzen diren dokumentuetako askok eta askok zerikusi zuzena dutela Euskal Herriarekin edota Euskal Herriko herri, eskualde edo lurraldeekin. Aldiz, munduko beste hainbat bazterrekiko erreferentzia askoz ere lausoagoa da.

Ondorioz, hurbiltasunarena kontuan hartzeko irizpidea da ABKren sarre-ra geografikoak erabakitzeko orduan: lurralde guztiek ez dute garrantzi berdina gure katalogoan eta hori nolabait islatu behar da.

Bestalde, soil-soilik unitate administratiboetan oinarritutako sailkapen bat sarritan ez da oso praktikoa suertatzen. Ez bakarrik Euskal Herriaren beraren kasuan, baizik eta izaera administratiborik ez duten bestelako lurralde batzuetan (adibidez, Palestina, Tibet, Britainia, etab.) edota beste mota bateko unitate geografiko-kulturaletan (adibidez, Ekialde Hurbila, Pirinioak, Ebroko ibarra, Korsika, etab.).

Ondoko erregela arazo horiek guztiak kontuan hartuz idatzi da.

14.2. ARGIBIDE OROKORRAK

Munduko edozein lekutako izena eta ortografia zuzena zein den erabakitzeko aintzat hartuko den autoritate bakarra Euskaltzaindia da. Ondorioz, leku izenak Euskaltzaindiak erabakitako moduan idatziko dira, izen ofiziala edozein delarik ere. Arau honek berdin balio du Euskal Herriko toponimoentzat zein kanpokoentzat. Adibidez:

Iruñea (*Euskaltzaindiak erabakitako euskarazko forma*)

X: Iruña (*Euskarazko forma ofiziala*)

Bilbo (*Euskaltzaindiak erabakitako euskarazko forma*)

X: Bilbao (*Forma ofizial bakarra*)

Rivabellosa (*Euskaltzaindiak erabakitako euskarazko forma eta forma ofizial bakarra*)

Baiona (*Euskaltzaindiak erabakitako euskarazko forma*)

X: Bayonne (*Forma ofizial bakarra*)

Korsika (*Euskaltzaindiak erabakitako euskarazko forma*)

X: Corse (*Forma ofizial bakarra*)

Alemania (*Euskaltzaindiak erabakitako euskarazko forma*)

X: Deutschland (*Forma ofizial bakarra*)

Orobat, bi izen ofizial dituzten lekuek, bat euskarazkoa eta bestea gaztelaniazkoa, edota izen ofizialean euskarazko eta gaztelaniazko formak batzen direnean, aintzat hartuko den autoritate bakarra Euskaltzaindia da. Adibidez:

Gasteiz (*Euskaltzaindiak erabakitako euskarazko forma*)

X: Vitoria-Gasteiz (*Forma ofizial bakarra*)

Donostia (*Euskaltzaindiak erabakitako euskarazko forma eta euskarazko forma ofizial bakarra*)

X: Donostia –San Sebastián (*Forma ofizial bakarra*)

X: Donosti (*Euskarazko forma okerra*)

14.3. ERREGELA OROKORRAK

Sarrera eta azpisarrera geografikoak ipintzeko orduan, hauexek dira ABKk erabiliko dituen erregelak:

1. Orohar, eta beherago zehaztuko diren salbuespenak salbu, munduko estaturen izenak erabiliko dira, Euskaltzaindiaren 38. arauan agertzen diren bezala, baina *Errepublika*, *Herri-Erepublika*, *Estatua*, *Erresuma*, eta antzekoak ezabatuz. Horrela, Alemaniako Errepublika Federala **Alemania** terminoaren bitartez adieraziko da, edo Espainiako Erresuma **Espainia** terminoaren bitartez. Izen bikoiztasunen bat dagoenean, terminorik arruntena erabiliko da, behean zehaztuko denaren arabera. Adibidez:

Espainia – Deskribapenak eta bidaiak

Frantzia – Hizkuntzak

Argentina – Genealogia

Iberiar inskripzioak – Espainia

Gazteluak – Frantzia

Hezkuntza – Alemania

2. Oro har, zilegi da herri, herrialde, erkidego autonomo, eskualde, probintzi, departamendu edo udalen izenak erabiltzea, sarrera edo azpisarrera geografiko gisa, behean zehaztuko denaren arabera. Horretarako Euskaltzaindiaren 32, 36, 92, 99, 108, 122, 128, 133, 140, 141, 142 eta ondoren etor daitezkeen arauetan zehazten den bezala erabiliko dira.

Kantabria (Espainia) – Erljio historia

Errioxa (Espainia) – Hiztegiak eta entziklopediak

Atsotitzak – Espainia – Andaluzia

Euskara – Espainia – Errioxa
Onomastika – Frantzia – Akitania
Geografia izenak – Frantzia – Dordonia
Geografia izenak – Espainia – Leon
Bilbo (Bizkaia) – Deskribapenak
Baiona (Lapurdi) – Historia
Gasteiz (Araba) – Izena
Goierry (Gipuzkoa) – Biztanleria
Hirigintza – Nafarroa – Iruñea
Artea – Bizkaia – Bilbo

3. Zilegi da bestelako izen geografiko batzuk ere erabiltzea, hala nola kontinenteak, mendiak, ibaiak, aintzirak, itsasoak eta abar. Horretarako Euskaltzaindiaren 51, 52, 59, 60, 70 eta ondoren etor daitezkeen arauetan agertzen diren bezala idatziko dira.

Ekialde Hurbila – Deskribapenak eta bidaiak
Europa – Hizkuntzak
Elebitasuna – Europa
Antropologia – Pirinioak
Arkeologia – Ebroko Ibarra
Katalana – Sardinia

4. Zilegi da nazionalitate historikoen izenak ere erabiltzea, hala nola **Es-kozia, Britainia, Palestina, Tibet** eta abar.

Tibet – Historia
Palestina – Egoera politikoa
Nazionalismoa – Gales
Gaelikoa – Eskozia
Pertsona izenak – Britainia
Erromesak eta erromesaldiak – Palestina

5. Zilegi da suntsitu edo desagertutako estatu independenteen izenak ere erabiltzea, hala nola **Jugoslavia, Txekoslovakia** eta abar. Adibidez:

Alemana – Txekoslovakia

14.4. ZENBAIT ZEHAZTAPEN

Erregela horien osagarriak dira ondorengo zehaztapenak:

1. **Euskal Herria** da Euskal Herri osoa izendatzeko erabiliko den terminoa (ikus 3. erregela). Adibidez:

Euskal Herria – Mapak
Euskal Herria – Literaturak

**Euskal Herria – Giro intelektual
Irakaskuntza elebiduna – Euskal Herria
Nazionalismoa – Euskal Herria**

2. Zazpi euskal herriek sarrera zuzena izango dute katalogoan. Hauek dira euskal herrialdeen izenak: **Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa, Nafarroa Beherea** eta **Zuberoa**. Aldiz, *Nafarroa Garaia* eta *Baxenabarre* terminoak ez dira erabiliko. Adibidez:

Araba – Estatistikak
Bizkaia – Egoera ekonomikoa
Gipuzkoa – Biografiak
Nafarroa – Ohiturak eta ekanduak
Nafarroa Beherea – Deskribapenak eta bidaiak
Lapurdi – Historia
Zuberoa – Bibliografia
Jaiak – Araba
Ontzigintza – Bizkaia
Lanbide heziketa – Gipuzkoa
Arkitektura erromanikoa – Nafarroa
Artzaintza – Nafarroa Beherea
Pertsona izenak – Lapurdi
Indusketak (Arkeologia) – Zuberoa

3. Orobat, Historiako liburuetan izan ezik (ikus 7. erregela), beharrezkoa denean zilegi da **Ipar Euskal Herria** erabiltzea Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoaren batuketara izendatzeko. Aldiz, *Iparraldea*, *Hegoaldea* eta *Hego Euskal Herria* terminoak ez dira erabiliko.

Ipar Euskal Herria – Biltzarrak
Hauteskundeak – Ipar Euskal Herria
Geografia izenak – Ipar Euskal Herria

4. Euskal Herriko barrendegiek sarrera zuzena izango dute katalogoan, **Barrendegia** terminoa parentesi artean gehituz. Orobat, gai-sarrera orokorrik izatekotan, **Euskal Herria** azpisarrera geografikoaren bidez katalogatuko dira.

Trebiñuko toponimia eta hizkuntzari buruzko liburu batek, gutxienez bi gai-sarrera izango ditu:

Geografia izenak – Euskal Herria
Trebiñuko Konderrria (Araba: Barrendegia)

Villaverde Turtziozko historiari buruzko liburu batek gutxienez bi gai-sarrera izango ditu:

Villaverde Turtzioz (Bizkaia: Barrendegia)
Euskal Herria – Historia – [dagokion aroa]

5. *Euskadi* azpisarrera geografiko gisa erabil daiteke, baina soilik *Euskal Autonomia Erkidegoa*-ren sinonimo gisa. Ikus 3. erregela.

Euskadi (Autonomia Erkidegoa) – Egoera ekonomikoa
Euskadi (Autonomia Erkidegoa) – Politika eta gobernu – 1979-
Hirigintza – Euskadi (Autonomia Erkidegoa)
Langabezia – Euskadi (Autonomia Erkidegoa)

6. Espainiako Erresumari dagokionez, nazionalitate historikoek sarrera zuzena izango dute katalogoan, hots, **Katalunia**-k eta **Galizia**-k. Orobat, **Herrialde Katalanak** beharrezko kasuetan erabiliko da. Adibidez:

Katalunia – Hizkuntzak
Galizia – Gizarte egoera
Irakaskuntza elebiduna – Katalunia
Nazionalismoa – Galizia
Inprimategia – Herrialde Katalanak

7. Frantziako Errepublikari dagokionez, zenbait izen historikok sarrera zuzena izan dezakete, bereziki zentzu historiko-kulturalean, hala nola **Bretainia**, **Biarno**, **Gaskonia** edo **Korsika**. Adibidez:

Nazionalismoa – Bretainia
Atsotitzak – Gaskonia
Biarno – Historia

8. Britania Handiko Erresuma Batuari dagokionez, **Erresuma Batua** azpisarrera erabiliko da, eta horren maila berean zilegi da honako nazionalitate historikoen izenak erabiltzea: **Gales**, **Eskozia** eta **Inglaterra**. *Britania Handia* terminoa ez da erabiliko. Adibidez:

Pintura modernoa – Erresuma Batua
Historiografia – Ingalaterra
Nazionalismoa – Eskozia
Gales – Historia

9. Irlandari dagokionez, **Irlanda** terminoa erabiliko da. *Ipar Irlanda*, *Hego Irlanda* eta *Eire* ez dira erabiliko.

Gaelikoa – Irlanda
Irlanda – Egoera politikoa

10. Italiako Errepublikari dagokionez, zenbait izen historikok sarrera zuzena izan dezakete, bereziki zentzu historiko-kulturalean, hala nola **Sardinia**, **Sizilia**, **Aosta harana**, eta abar. Adibidez:

Nazionalismoa – Aosta harana
Sizilia – Historiaurrea

11. Ameriketako Estatu Batuei dagokienez, **Estatu Batuak** terminoa erabiliko da.

Euskaldunak – Estatu Batuak

X: Ameriketako Estatu Batuak

X: AEB

12. Finlandiari dagokionez, **Finlandia** terminoa erabiliko da. *Soumi* terminoa ez da erabiliko.

Artea – Finlandia

13. Herbeherei dagokionez, **Holanda** terminoa erabiliko da gaur egun Herbehereetako Erresuma dena izendatzeko. **Herbehereak** terminoa, aldiz, zentzu historikoan erabiliko da, alegia, gutxi gorabehera egungo Herbeheretako Erresuma, Belgikako Erresuma eta Luxemburgoko Dukerri Haundia hartzen duen lurraldea izendatzeko. Adibidez:

Elebitasuna – Herbehereak

14. Koreari dagokionez, zilegi da termino hauek erabiltzea: **Korea**, **Ipar Korea** eta **Hego Korea**.
15. Malaysiari dagokionez, **Malaysia** terminoa erabiliko da. *Malasia* terminoa ez da erabiliko.
16. Txekiari dagokionez, **Txekia** terminoa erabiliko da. *Txekiar Errepublik*a terminoa ez da erabiliko.
17. Vatikanoko Hiriko Estatuari dagokionez, **Vatikanoko Hiria** terminoa erabiliko da. *Vatikanoa* terminoa ez da erabiliko.

Zehaztapen hauek ez dira exhaustiboak. Zilegi da berorietan aipatu gabe geratu diren terminoak erabiltzea, beti ere gorago aipatzen diren erregela eta irizpideetan sarrera izan dezaketean neurrian.

Era berean, mugak nabarmenki aldatu gabe izen ofiziala soilik aldatzen diren kasuak (Kanputxea/Kanbodia, Zaire/Kongo, etab.) banan-banan aztertuko dira.

AURKIBIDEA

SARRERA

EGILEAK

1. Banako egileen sarrea nagusia

- 1.1. Erregela honen zergatiaz
- 1.2. Argibide orokorrak
- 1.3. Erregela orokorra
- 1.4. Zenbait zehaztapen
- 1.5. Erregelaren salbuespenak eta kasu bereziak
 - 1.5.1. Pseudonimoak eta izen artistikoak
 - 1.5.2. Grafia fosilduak
- 1.6. Banako egileen bigarren deiturari buruz
- 1.7. Tiletaren erabilerari buruz
- 1.8. Sarrera nagusien etengabeko zuzenketa eta eguneratzea

2. Egile korporatiboen sarrera nagusia

- 2.1. Erregela honen zergatiaz
- 2.2. Argibide orokorrak
- 2.3. Erregela orokorra
- 2.4. Euskal Herriko egile korporatiboak
- 2.5. Euskal Herritik kanpoko egile korporatiboak
- 2.6. Zenbait adibide
 - 2.6.1. Elkartek
 - 2.6.2. Udalak
 - 2.6.3. Gobernuak
 - 2.6.4. Akademiak
 - 2.6.5. Alderdi politiko, sindikatuak, etab.
 - 2.6.6. Elizak, erlijio-korporazioak, etab.
 - 2.6.7. Unibertsitateak
 - 2.6.8. Kultur elkarteak
 - 2.6.9. Eskolak
 - 2.6.10. Artxiboak
 - 2.6.11. Museok
 - 2.6.12. Komunikabideak

- 2.6.13. Banketxeak
- 2.6.14. Kofradiak
- 2.6.15. Lanbide elkargoak

3. Euskal Herria eta Euskadi terminoen erabilerari buruz

- 3.1. Erregela honen zergatiaz
- 3.2. Argibide orokorrak
- 3.3. Erregela orokorra
- 3.4. Zenbait zehaztapan
- 3.5. Euskadiko erakundeen sarrerak

4. Diputazio eta Batzar Nagusien sarrera nagusiak

- 4.1. Erregela honen zergatiaz
- 4.2. Argibide orokorrak
- 4.3. Erregela
 - 4.3.1. Araba
 - 4.3.2. Bizkaia
 - 4.3.3. Gipuzkoa
 - 4.3.4. Nafarroa

4.4. Laburpena

5. Printze subiranoen eta antzekoen sarrera nagusiak

- 5.1. Erregela honen zergatiaz
- 5.2. Erregela orokorra
- 5.3. Erregela zehatzak
 - 5.3.1. Nafarroako errege-erreginak
 - 5.3.2. Frantziako errege-erreginak: zenbait adibide
 - 5.3.3. Espainiako errege-erreginak: zenbait adibide
 - 5.3.3.1. Erdi Aroa
 - 5.3.3.2. Aro Berria eta Garaikidea
 - 5.3.4. Europako errege-erreginak: zenbait adibide
 - 5.3.5. Beste zenbait adibide

6. Zenbait banako egile bereziren sarrera nagusiak

- 6.1. Erregela honen zergatiaz
- 6.2. Latin eta greziar pertsona-izenak
- 6.3. Santuak eta santak
- 6.4. Banako egileen erlijio-izenak
 - 6.4.1. Kaputxinoak eta antzeko ordenak
 - 6.4.2. Banako egileen adokazio erlijiosoa

- 6.5. Noblezia tituluak eta antzekoak
- 6.6. Aita santu, apezpiku eta antzekoak
- 6.7. Egilea esaldi baten bidez adierazten denean

GAIAK

7. Euskal Herriko Historiari buruz

- 7.1. Erregela honen zergatiaz
- 7.2. Argibide orokorrak
- 7.3. *Euskal Herria* sarrera dutenak
 - 7.3.1. Historiaurrea
 - 7.3.2. Erromatar Aroa
 - 7.3.3. Erdi Aroa
 - 7.3.4. Aro Berria
 - 7.3.5. Foru Erregimenaren Krisialdia
 - 7.3.6. Aro Garaikidea
 - 7.3.7. 1979az geroztikako aroa
 - 7.3.8. *Euskal Herria*: laburpena
- 7.4. Euskal herrialdeak
 - 7.4.1. *Araba*
 - 7.4.2. *Bizkaia*
 - 7.4.3. *Gipuzkoa*
 - 7.4.4. *Nafarroa*
 - 7.4.5. *Nafarroa Beherea*
 - 7.4.6. *Lapurdi*
 - 7.4.7. *Zuberoa*
- 7.5. Hiri eta eskualdeak
- 7.6. SHUri dagokionez
- 7.7. Azpiburuak

8. Foruei buruz

- 8.1. Erregela honen zergatiaz
- 8.2. Argibide orokorrak
- 8.3. Hiri-gutunak
 - 8.3.1. Hiri-gutunei buruz diharduten liburuak
 - 8.3.2. Liburuaren mamia hiri-gutunaren beraren testua denean
 - 8.3.3. Hiri-gutunen izen espezifikoak
- 8.4. Euskal Herriko foruak
 - 8.4.1. Euskal herrialde bateko foruei buruz diharduten dokumentuak

- 8.4.2. Bi euskal herrialde edo gehiagoren foruei buruz diharduten dokumentuak
- 8.4.3. Eskualde edo ibar bateko foruei buruz diharduten dokumentuak
- 8.4.4. Dokumentuaren mamia foruaren beraren testua denean
- 8.4.5. Foruen izen espezifikoak
- 8.5. Euskal Herriko Zuzenbide Zibila
 - 8.5.1. Euskal herrialde bati buruz diharduten dokumentuak
 - 8.5.2. Bi euskal herrialde edo gehiagori buruz diharduten dokumentuak
 - 8.5.3. Euskal Autonomia Erkidegoari buruz diharduten dokumentuak
 - 8.5.4. Dokumentuaren mamia legearen beraren testua denean
- 8.6. Zenbait kasu berezi
 - 8.6.1. Baiona
 - 8.6.2. Foruen eta Zuzenbide Zibilen arteko muga lausoa duten dokumentuak
 - 8.6.3. Azken hamarkadako zenbait lege
- 8.7. Euskal Herriaz landako foruak

9. Gaztelania ala espainiera?

- 9.1. Erregela honen zergatiaz
- 9.2. Argibide orokorrak
- 9.3. Erregela

10. Literaturari buruz

- 10.1. Erregela honen zergatiaz
- 10.2. Argibide orokorrak
- 10.3. Euskal literaturari buruz
- 10.4. Salbuespenak
- 10.5. Erregelaren oinarrizko irizpidea
- 10.6. Euskal Herriko literaturari buruzko dokumentuak katalogatzeko erregelak
- 10.7. Munduko gaineretiko literaturei buruzko dokumentuak katalogatzeko erregelak

11. Munduko hizkuntzei buruz

- 11.1. Erregela honen zergatiaz
- 11.2. Argibide orokorrak
- 11.3. Hizkuntzen izenak
- 11.4. Hizkuntzalaritza arloko azpisarrerak

- 11.5. Azpisarrera geografikoak
- 11.6. Euskalkiak
- 11.7. Soziolinguistika arloko azpisarrerak
- 11.8. Hizkuntza politika eta elebitasuna
- 11.9. Hizkuntzen historia

12. Etnologia eta Antropologiari buruz

- 12.1. Erregela honen zergatiaz
- 12.2. Argibide orokorrak
- 12.3. Erregelak

13. Jentilizioen erabilerarekin lotutako zenbait arazori buruz

- 13.1. Erregela honen zergatiaz
- 13.2. Musika eta kantak
- 13.3. Herri literatura
- 13.4. Kirolak
- 13.5. Sukaldaritza
- 13.6. Jaiak

14. Sarrera eta azpisarrera geografikoei buruz

- 14.1. Erregela honen zergatiaz
- 14.2. Argibide orokorrak
- 14.3. Erregela orokorrak
- 14.4. Zenbait zehaztapen

**HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA
IPARRALDEAN**

**D-MAILAKO HIZKUNTZA
GAITASUN AGIRIA**

D-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA

Euskal Gaitasun Agiria (EGA) hasieran Euskaltzaindiak berak 7 Euskal Herrietan eskaintzen zuen. Gero Gasteizko Jaurlaritzak eta Nafarroako Foru Diputazioak hartu zuten bere gain bakoitzak bere euskualdean.

Iparraldean ordea Euskaltzaindiak ez dio uko egin bere eginkizunari eta urtero bi aldiz Baionako bulegoan antolatzen da udan eta udazkenean ohiko azterketa, hemen doazen emaitzekin.

Azterketa horretaz bi ohar egin genitzake:

1) «Irakasle titulua» marka izan bazuen ere EGAK lehen, gaur egun ez darama berak horrelako aipamenik. «Irakasle titulua»k gaur egun, bestalde, antolatzen direlako Iparraldean ere.

2) Iparraldeko herritarrentzat da antolatzen Euskaltzaindiaren azterketa.

Salbuespenak onartu ditugu bakarrik, Nafarroako edo beste hiru euskal probintzietako seme-alabentzat, Iparraldean jaiok, edo ikasle, langile etxekotuak, edo espetxeratuak direlarik aurkezten direnak.

Baiona, 2006.eko uztaila

Piarres Xarriton

D-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA

Emate-eguna: Bilbo, 2006-VII-20

- 6.920 – Leire AGUERRE
- 6.921 – Ibai AGUIRREBARRENA
- 6.922 – Eneko ALDANA
- 6.923 – Elorri AMESTOY IDIEDER
- 6.924 – Ganix AMESTOY
- 6.925 – Pettan ANDUEZA GOYETCHE
- 6.926 – Añeta ARREGUI
- 6.927 – Maika BARON
- 6.928 – Titto BETBEDER
- 6.929 – Xan BEYRIE CHEMERO
- 6.930 – Miren BORGEAIS ITHURRY
- 6.931 – Charlotte CHORHY
- 6.932 – Battitt CROUSPEYRE
- 6.933 – Miren Itxaso CUEVAS MARTINEZ
- 6.934 – Ainara DAVRIL
- 6.935 – Charlotte DE OREGUY
- 6.936 – Hegoa DESTRIBATS YAÑEZ
- 6.937 – Txomin DHERS DE LOPETEGUY
- 6.938 – Joana DUHALDE
- 6.939 – Laetitia EIZMENDI AGUERRE
- 6.940 – Aña ELICEITS
- 6.941 – Ixabel ERREMUNDEGUY
- 6.942 – Joseba Extebe ERREMUNDEGUY
- 6.943 – Mikel ESCLAMADON
- 6.944 – Elorri ESPIL
- 6.945 – Kattalin ETCHEBERRY LOYATHO
- 6.946 – Eneko ETCHEGARAY
- 6.947 – Elorri FALXA
- 6.948 – Miguel Angel GIMENEZ SANCHEZ
- 6.949 – Haize GOÑI
- 6.950 – Joana GUERENDIAIN
- 6.951 – Charline GUIJARRO
- 6.952 – Niko Txomin GUIRESSE
- 6.953 – Aloña HUERTA

- 6.954 – Laida IRUNGARAY
- 6.955 – Ibai ITURRINO
- 6.956 – Audrey LACROIX ETXEBERRIA
- 6.957 – Ximun LACROIX
- 6.958 – Maika LAJAUNIE
- 6.959 – Iban LAMARQUE
- 6.960 – Beñat LASKANO
- 6.961 – Fanny LASCUBE
- 6.962 – Laurent LAXAGUE
- 6.963 – Xavier LAXAGUE
- 6.964 – Esme LOPEZ MANGAS
- 6.965 – Xan LUKU OIHAGARAI
- 6.966 – Elena OILLARBURU
- 6.967 – Patxi OILLARBURU
- 6.968 – Xabi OILLARBURU
- 6.969 – Xan ONDICOLA ORONOZ
- 6.970 – Jenofa OURET
- 6.971 – Ana OVEJERO ACOSTA
- 6.972 – Anne PAGOLA
- 6.973 – Joana PAROT
- 6.974 – Maialen PEBET
- 6.975 – Julen PEREZ
- 6.976 – Elorri PIMIENTA CHEMBERO
- 6.977 – Idoia RODRIGUEZ MONDRAGON
- 6.978 – Jone ROUSSILLON
- 6.979 – Elena SAINT-PAUL JORAJURIA
- 6.980 – Gana SALLABERRY-MOLLE
- 6.981 – Ana UNHASSOBISCAY

D-MAILAKO HIZKUNTZA GAITASUN AGIRIA

Emate-eguna: Bilbo, 2006-XII-22

- 6.982 – Ibai ARREGUI JORAJURIA
- 6.983 – Aña ARREGUY
- 6.984 – Joseba Iñaki ARTANO ERRAZQUIN
- 6.985 – Ximun BERGOUIGNAN
- 6.986 – Iban DUBERNET AGUERRE
- 6.987 – Ekhi ERREMUNDEGUY
- 6.988 – Agustin FIGAL ARRANZ
- 6.989 – Maika HEREDIA IRIGOYEN
- 6.990 – Ximun IRIGOYEN
- 6.991 – Patrizia LEIZA ARRAZTOA
- 6.992 – Maiatza LOUESSARD
- 6.993 – Joana MAILHARRANCIN
- 6.994 – Bittori MARTINON

BERRIAK

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa - Euskaltzaindia
Literatura sariak

Bilbo, egoitza, 2006-VII-04

Uztailaren 4an, 2005. urtean saritutako literatura-lanen argitalpenak aurkeztu ziren, Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatu zuten ekitaldian. Ondoko hauek dira 2005eko deialdian saritu ziren idazleak eta literatur lanak:

- Toribio Altzaga antzerki-saria: Aizpea Goenaga Mendiola. Lana: *Santxa*.
- Mikel Zarate saio-saria: Joseba Azkarraga Etxegibel. Lana: *Mendebaldearen mintzo mindua*.

2005eko deialdian, *Txomin Agirre* eleberrri-saria eta *Felipe Arrese Beitia* olerki-saria eman gabe geratu ziren.

Ekitaldiaren amaieran, Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxak, bi erakundeok aspaldidanik antolatzen duten literatur lehiaketaren deialdi berria kaleratu zuten.

SANTXA KONDESA ANTZEZLANA

Bilbon, 2006ko uztailearen 4an

Aizpea Goenaga

1082. urtean gertatzen da antzezlan hau, Nafarroan. Eta Santxa Konde-sak bere anaiarekin batera eliza beren boterearen pean mantentzeko egingo duen ahalegina da abiapuntua.

Santxa Kondeza, ezkonduta dago eta bi semeren ama da.

Hala ere, abade izaten eskarmentua badu. Eta horrexegatik, honen anaia erregek, konfiantza osoko pertsona baten laguntza behar duenean arrebak kuttunarengana joko du. Erregek Elizak duen aberastasun eta botere guztia bere kontrolpean mantendu nahi du, eta traizioak eguneroko kontua diren garai honetan, anaiak aginte handiko pertsona behar du, argia eta hutsik egingo ez diona.

Garai honetan, Santiago bidea sortu zen, eta 1000. urtea, munduaren azken zela uste izan zuen jendeak, horregatik Elizak donazio asko eta asko jaso zituen. Eliza oso da aberatsa. Baina era berean, aldaketa handiak jasango ditu; neurri batean, aberastasun hauek beregain mantentzeagatik gainera. Honela bada, Erromako Aita Santuak, kostata baina San Agustinen doktrina ezarri nahiko du.

Urte korapilotsu hauetan, Santxa Kondeza, Iruñeko elizaren buru izendatuko du Santxo Ramirez erregek. Kargu hau onartu eta ondoren mantentzeko izango duen borroka da antzezlanean kontatzen dena. Bai, bere beste anaiarekin, Jaka eta Iruñeko gotzain den Gartziarekin, bere amarekin, elizako buruekin, eta jakina, elizetako eta monasterioetako elizgizonekin ez du bide erraza izango.

Santxa Kondezak urte batzuetan gobernu hau eraman ondoren, bere lana utzi egin beharko du; presioei jaramon eginez, Aita Santuaren presioei batez ere, erregek bere kargutik kentzeko agindua emango baitu. Santxak gogoz kontra utziko ditu Iruñeko artzapezpikutza eta baita Monjardin Monasterioko gobernu ere. Injustizia izugarri honi aurre egiteaz gain, ez du etsiko eta bere karguan geratzeko borrokatuko da. Ia bakarrik geratuko bada ere, ez du amore emango, eta Erromara joango da Aita Santuarekin berarekin hitz egitera.

Azken ekitaldian, Erromatik bueltan, ikusi eta bizi izan duenak berarengan sekulako eragina izango du. Aita Santuak bere hiru laguntzailerekin egin baitzion Santxari harrera, etengabe jan eta edaten zuten artean, eta bizio guztiak lotsarik gabe erakusten zituen bitartean, Elizaren zuzentasun beharraz, kastitate eta pobrezia botuen beharraz hitz egingo dio Santxari. Honek sekulako eztabaida dialektikoa izango du, Aita Santuarekin, eta sekulakoak bota omen zizkion. Hala ere, ez du bere asmoa lortzerik izango.

Santxa erabat gogaituta itzuliko da ostera etxera. Munduari, anaiari eta ingurukoei han ikusi eta bizi izandakoa kontatu nahi izango die. Baina interesek, justiziak baino indar handiagoa du. Eta ez du ezer lortuko, edo lortuko duen barkarra ingurukoengandik baztertuta izatea izango da. Santxak bi aukera izango ditu: amore eman edo burua tente borrokan jarraitu, *bere* ustea, asmoa, egia zabalduz. Eta azken aukera honen erabaki sendoa hartuz amaituko da antzezlan.

Emakume honen bizitzaren zati bat hartu, eta duela mende bat gertatutako zerbait erabili da, gaur egun oraindik ere bizi-bizirik dagoen gizarte antolakuntza bat, eta isilean dagoen gatazka bat kontatzeko. Hau da, *boterearen jabetza*.

Gure gizarte honek, boterea, duela mende asko, gizonen esku jarri zuen, eta honen aurrean emakumeak ezin izan du gauza handirik egin. Eta inoiz edo behin, emakumeak botere leku txikiarik hartzeko aukera izan duenean, jasan behar izan dituen presioak izugarriak izan dira. Eta gizonek sortutako antolakuntzan sartu behar izan dute, beraiekin lehia bizian arituz.

Ia beti gainera, emakumeak berak izaten dira, emakumeen etsairik sutsuenak. Kasu honetan beraren amaren oposizioa oso gogorra izango da, eta eragin handikoa gainera. Aldiz, ahizparen babesari esker aurrera egiteko gai izango da.

Eta Santxa Kondesak, emakume gehienek bezala bi aukera izango ditu, segi edo etsi. Hau da, bere asmoekin aurrera egin eta karguan jarraitzeko ahalgina egin eta saiatu, edo emakumeei memoria historikoak eman dion jokabidea hartu, eta mendetasunez isilik geratu eta etsi.

Santxa aurrera segitzearen aldekoa izango da. Nahiz eta erabaki honek buru-hauste bat baino gehiago sorrarazi, historian gizonek idatzitako historia liburuetan, bere anaia erregeren ondoan, lerro pare bat behintzat izango ditu.

Azken batean, historian zehar hainbat eta hainbat emakumeren bizipena da. Historian atzera egiteak, distantzia oso aproposa eta baliagarria ematen dio kontakizunari, batez ere hain egunerokoak diren kontuak jorratzean.

Anai-arreben arteko maitasuna eta lotura, gizartean banatzen diren papearak, eta norberak hartzen dituenak, heziketa, boterea, agintea, sinismenetik at Elizak duen botere eta indarra, gizon eta emakumeen arteko muga ezarri eta inposatuak, ideien aldeko borroka... Hauek denak «ikusteko» historian atzera egitea oso komenigarria da. Bertan gertatutakoa, gure gizartean gertatzen denaren ispilu dela ikusteko distantzia ematen baitu.

MENDEBALDEAREN MINTZO MINDUA

Aurkezpena

Bilbon, 2006ko uztailearen 4an

Joseba Azkarraga

Liburuak gaurko paisaia sozial eta historikoa ezagutzeko zenbait pista, zenbait tresna analitiko eman nahi ditu. Ezin baitugu geure bidaia biografikoa ulertu, paisaia sozio-historikoa kontuan izan barik. Geure barruak hobeto kartzeko eta ulertzeko beharrezkoa da ikuspegi hori. Min indibidualetako asko min kolektiboak direla ikus dezakegu horrela, edo jatorri sozialeko minak behinik behin.

Minak ertz asko ditu eta izen askok ematen diote izana. Izen horietako batzuk ageri dira liburuan, minen inbentario bat bailitzan: kapitalismoa, holokaustoa, jainkoaren heriotza, anomia, indibidualkeria, aldaketa klimatikoa, narzisismoa, neoliberalismoa, depresioa eta ondoeza psikologikoa...

Idatziak, beraz, izaera kritikoa du, kultura eta gizarte modernoaren ertz mingarriak ditu hizpide eta. Zentzu horretan, ikuspegi mugatua da, partziala, zuloez gain Mendebaldean badagoelako besterik.

Baina, funtsean, Mendebaldeko zibilizazio-patroiak ustiapenean eta suntsipenean hartzen du oin. Suntsipenerako aparteko gaitasun horrek hiruki forma du:

- Bestea suntsitzeko gaitasun berezia agertu du. Kapitalismoa –are gehiago bere fase global ultraliberalean– Bestearen ustiapenak definitzen du. Nahikotasunaren nozioa galdu duen paradigma ekonomiko, sozial eta teknologikoa bizi dugu. Eta Mendebaldea, zibilizazio militarista izaki, Holokaustoa bezalako heriotzaren produkzio masibo, hotz eta sistematikoa espezialdu da.
- Bestetik, ingurumenaren ustiatze basatian ari gara buru-belarri, eta destino titanikorantz gerturatzen.
- Eta azkenik, norberaren ustiapena dugu, perfekzioaren idealak esaterako, gure barru indibidualak hartuta baititu. Nahikotasunaren nozioa galdu duen sistemak bizi gaitu.

Ustiapena heriotzaren seme txikia da. Horregatik dago Mendebaldea Thanatosi lotuegi. Bere burua homizida, etnozida, ekozida, biozida eta suizida gisa agertzen du. Diabolikoa da bere agerpen askotan. Eta, gainera, gaurko sistematik ez du bere barruan beharrezko kategoriarik, balorerik edo kompetentziarik, horri buelta emateko, alternatibak eskaintzeko. Ezintasun aparta du zeregin horretarako.

Hori dela eta, ordua heldu behar litzaioke exortzismo ariketa egin eta joera (auto)suntsitzaileok iraultzeko. Zentzu horretan, idatziak eraldaketa du ipar. Eraldaketaren aldeko ekintzaileei tresna analitikoak eskaini nahi lizkieke, errealitatea eraldatu eta minak baretzeko zenbait pista inperfektu jaurti. Kritika osagaiez janzteko beharra baitauekagu, eta gaurko gaitz endemikoa den konformismoari aurre egin. Kontzientzia eta noranzko berriak marrazteko gai izan behar dugu.

Bide horretatik bakarrik lortuko dugu bizi ditugun mehatxuen pareko erantzukizun kolektiboa.


**Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa - Euskaltzaindia:
R. M^a Azkue sariak:**

NARRAZIOAK ETA OLERKIAK 2005

liburukiaren aurkezpena

Bilbo, egoitza, 2006-XI-28

Azaroaren 28an, Resurreccion Maria Azkue Literatur sarien edizio berriaren oinarriak aurkeztu ziren, Akademiaren egoitzan. Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak antolatzen dituzten sari hauek, idazle gazteak literatura mundura erakartzeko asmoz sortuak dira.



Ekitaldian, Andres Urrutia euskaltzainburuak, Gorka Martinez BBK-ren Fundazioko buruak, Joserra Bilbao BBK-ren Elebitasun Zerbitzuburuak eta Jabier Kaltzakorta sariketa honetako epaimahaikide eta liburuaren prestatzaileak parte hartu zuten. Eurek azaldu bezala, sariek bi lan mota onartzen dituzte euren baitan, narrazioa eta olerkia. Adinari begira, bi maila dira: A maila, 11 eta 14 urte bitarteko gazteentzat; eta B maila, 15 eta 17 urte bitartekoentzat.

Bestalde, ekitaldi berean, *Narrazioak eta olerkiak 2005* izeneko liburua ere aurkeztu zen. 2005eko Azkue sarietan irabazle izandako narrazioak eta olerkiak biltzen dira liburu horretan.

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa - Euskaltzaindia 2006. urteko Literatur sariak

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak urtero antolatzen dituzte elkarrekin eleberrri, antzerki, olerki eta saiakera sariak. 2006. urteari dagozkion irabazleen izenak jakinarazi dira gaur, abenduaren 18an, egin den prentsaurrekoan. Sari-ematea Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilbon, egin da.

Honako hauek dira aurtengo deialdiko irabazleak, eta epaimahaikideak:

Txomin Agirre eleberrri-saria:
Txema Garcia-Viana. Lana: *Arkitektoa*.

Epaimahaikideak: Maria Jose Olaziregi, Ur Apalategi eta Iratxe Retolaza.

Toribio Altzaga antzerki-saria:
Alaitz Olaizola. Lana: *Joanes. Itxaropenaren semea*.

Epaimahaikideak: Eugenio Arozeña, Daniel Landart eta Patri Urkizu.

Felipe Arrese Beitia olerki-saria:
Aintzane Galardi. Lana: *Zirrikituak*.
Epaimahaikideak: Jon Kortazar, Mikel Lasa eta Lourdes Otaegi.

Mikel Zarate saio-saria: Sebastian Gartzia Trujillo. Lana: *Herri maittea, Herri dorpea*.

Epaimahaikideak: Adolfo Arejita, Antton Aranburu eta Iñaki Aldekoa.



LITERATUR SARIAK • 2006

Txomin Agirre Saria
Eleberrria
Toribio Altzaga Saria
Antzerkia
Felipe Arrese Beitia Saria
Olerkia
Mikel Zarate Saria
Saioa

TXEMA GARCIA-VIANA
TXOMIN AGIRRE SARIA. ELEBERRIA

ARKITEKTOA

XIII. mendean gaude. Gaztelako erresumara bildu berri diren Donostia-ko agintari gaskoiek, mandatu zehatza ematen diote Gonzalo de Montilla arkitekto gaztelauari: beren mailari dagokion eliza, hots, *inoiz egin den erakuntza handiosena* eraikitzea, hain zuzen ere.

Hala ere, laster gertatuko da ustekabea: orubeko oinarri zaharrak birrintze lanetan ari direla, neska noble baten gorpua azaltzen da horma artean sartua. Agerpen misterioitsu honek, euskaldunen eta gaskoien artean aspaldidanik lehertzeaz zegoen gatazka odoltsu baten atarian jarriko du Donostia.

Txema Garcia-Viana

Donostian sortua, 1963an.

Lanbidez garraiolaria. Idazle bezala, gehienbat misterio kutsuko narrazioak idatzi ohi izan ditu. Literatura kritikak ere eginak ditu hainbat aldizkarian. Literatura sarien alorrean berriz, 1996an Pasaia-ko ipuin lehiaketa irabazi zuenetik beste sei sari jaso ditu, azkena Urrietako narrazio lehiaketa delarik (artean Antonio Maria Labaien gazteentzako narrazio saria bi aldiz irabaziz).

Argitaratutako liburuak:

- *Ihesi* poesia liburua (Susa, 1986).
- *Triangelu hautsia* haur eta gazte literatura (Alberdania, 1998).
- *Bi ipuin harrigarri* narrazioa (Elkar, 1999).
- *Balatz*a, *Tximistaren alaba* haur eta gazte literatura (Alberdania, 2000).
- *Sei lore* nobela (Susa, 2001).

ALAITZ OLAIZOLA
TORIBIO ALTZAGA SARIA. ANTZERKIA

JOANES. ITXAROPENAREN SEMEA

Antzerki lan honetan, Joanesen bizitzari buruzkoak azaltzen zaizkigu. Joanes, fikziozko pertsonaia bat baino ez da, edo, beste modu batera esanda, guztiok gara Joanes.

Joanesez, txiki-txikitatik, mundua ikusi, sentitu eta bizitzeko modu desberdina zeukan. Desberdina izateagatik, garesti ordaintzea tokatu zitzaion, bere helburu bakarra, zoriontsu eta itxaropentsu bizitzea baino izan ez bazen ere.

Bizitza min eman zion Joanesi, arauak eta legeak ez betetzeagatik, ez eza-gutzeagatik. Joanes ezagutu zutenek, barre nahikoa egin zuten denbora luzez; malko garratzez betetako barrea ezagutu zuten.

Bizitzak ematen zion mina arintze aldera, Joanesez, bizitza eta eternitateari buruzko bere teoria propioa eratu zuen: «Oraingoan ez bada, hurrengoan izango da.» Gizakiaren izate infinituaren aldeko apustua eginez jaio zen, errepikatuz biziko ginela benetan sinistuz.

Joanesez, itxaropena zeukan, itxaropen amaigabea. Gizaki ororen nahia ez al litzateke izango itxaropentsu bizitzea? Gainontzeko guztion ezkutuko nahi eta pentsamenduen bozeramailea izan zen Joanes, ala, eroa baino ez?

Alaitz Olaizola

Azpeitian (Gipuzkoa) sortua, 1975ean. Haur hezkuntzan diplomatua.

Azpeitiako *Ikasberri* ikastolako *Lakrikun* antzerki taldeko partaide azken 10 urteotan. Antzerkia idatzi eta egiteaz gain, antzerki lantegiak ematen ditu herrian bertan.

Argitaratutako lanak:

- *Zereko zera zertzen delako zereko zerarekin*. Toribio Alzaga saria, 2001.
- *Clitemnestra-ren itzulera*. Donostia Hiria, 2004.

Antzoki txikia sailean:

- *Non biziko gara?* 2005, Erein.
- *Txiukue*. 2005, Erein.
- *Autobusaren zain*. 2005, Erein.
- *Denboraren makina*. 2006, Erein.

AINTZANE GALARDI PORTU
FELIPE ARRESE BEITIA SARIA. OLERKIA

ZIRRIKITUAK

Badira betikotzen diren zirrikituak, haustezinak, ametsezkoak, zirrikitu bidaideak, ilunpetik bestaldera garraiatzen gaituztenak...

Zirrikituak izeneko poemario honetan, lau zirrikitu betikotu dira.

Lehenak Olinporantz garamatza, aukeratuen erreinura.

Bigarrenak sentikortasunera.

Badira zirrikitu hurbilagoak ere, geure baitarikoak, hego odolduei darienak.

Azkenak Ekialde Urrunera garamatza, Shanghaiko bizikleta eta zira koloretsuen zipriztinetara, Lichiang ibaiko arrantzalearengana, hots, Li-Tai-Peren mintzo liluragarrira.

Aintzane Galardi

Oiartzunen (Gipuzkoa) sortua. Euskal Filologia Lizentziatura eta Kultura Baliabideen Kudeaketa espezializazioa Deustuko Unibertsitatean eskuratu zituen.

1996az geroztik, Nafarroan dihardu lanean.

Itoti urdinaren azpian liburuak Felipe Arrese Beitia saria lortu zuen, 2004an.

SEBASTIAN GARTZIA TRUJILLO
MIKEL ZARATE SARIA. SAIAKERA

HERRI MAITEA, HERRI DORPEA

Saiakera honetan Bitoriano Gandiagaren *Hiru gizon bakarka* (1974) olerki liburua aztertu, sakondu eta azaltzen da. Gandiagaren iritziz, euskal kulturaren gaurko egoera hil ala bizikoa da, nahia eta ezina. Olerkaria, gizarte olerkigintza eta profeta literaturaren errekurtsoez baliaturik, Euskal Herriko egoera latz horretaz ohar gaitezen saiatzen da, baita egoera horretan nondik ibiltzeko bidexkak seinalatzen ere. Gizarte literatura da, beraz, baina sinbolo eta lirikaz betea.

Saiatze horretan, olerkariak ez ditu herri literaturaren markak bazterrean uzten. Alderantziz. Oso poesia landua idazten du, baina herri janzkeraz. Euskal tradizioa errebendikatzen du, baina ez tradizio hutsean geratzeko asmoz, handik, etendurarik gabe, gaurko modernitatera eta abangoardiara irits gaitezten baizik. Oteizak basoko harria irudi abangoardista bihurtu zuen bezala, Bitoriano Gandiagak euskal mitologia salmo bihurtzen du.

Nahia eta ezina, beraz, tradizioa eta abangoardia. Tentsio horretan aritzea da Bitoriano Gandiagak proposatzen diguna. Modu ezin ederragoan eta jatorragoan.

Sebastian Gartzia Trujillo

1944an jaioa, Lutxana-Barakaldon (Bizkaia).

Ekonomia Zientzietan lizentziatua eta Euskal Filologian doktorea. Finantza enpresa batean lan egin du, Ikerketa Departamentuan. Gaur egun aurrejubilatua da eta Bizkaiko Eliz Barrutiko Teologia eta Pastoral Institutuan kolaboratzaile da. Euskaltzain urgazlea.

El País egunkarian eta zenbait aldizkaritan kolaboratu du, urteetan, Ekonomia arloko artikulatuak idatziz. Ekonomia arloko argitalpenetan, honako hauek ditugu aipatzekoak: «Nuevo marco de las relaciones económicas» (Desclée de Brouwer); «Globalizar la solidaridad»; «Aproximación crítica al Tratado de la Unión Europea»; «Más Europa, menos solidaria»...

Euskal kultura arloko zenbait argitalpen eta aldizkaritan ere (*Idatz & Mintz, Zurgai...*) liburu eta artikuluak argitaratu ditu. Aipatzekoak: *La novela costumbrista de Domingo de Aguirre* (1993, Tesi doktora); *Ohiturazko euskal literatura* (1995); *Euskarazko Bibliak* (1999); *Leiho-oihalen mugetan* (1997, J. Kortazar eta A. Iturbiderekin elkar-lana). Bestalde, Domingo de Agirrerren *Ipuiak* (1990); *Olerkiak* (1995) eta *Sermoiak* (2000) liburuen argitalpena prestatu du. Bitoriano Gandiagaren *Poesia argitaragabeak* (2005) liburuan ere hautaketa, prestakuntza eta argitalpen lanetan parte hartu du.

EUSKALTZAIN URGAZLE BERRIEI DIPLOMAK EMAN DIZKIE EUSKALTZAINDIAK

Uztailaren 13an, bilkura berezia egin du Euskaltzaindiak, egoitzan, euskaltzain urgazle berriei diplomak emateko. Ezaguna denez, 35 euskaltzain urgazle berri izendatu zituen Akademiak, maiatzaren 26an, Elantxoben eginiko osoko bilkuran. Hona hemen zerrenda:

Hona hemen Euskaltzaindiko osoko bilkurak izendatutako euskaltzain urgazleak:

- | | |
|---|------------------------------|
| 1. Alberdi, Dorleta | 18. Gorrotxategi, Joakin |
| 2. Aleman, Sagrario | 19. Ibisate, Angel |
| 3. Apalategi, Ur | 20. Iturbe, Jazinto |
| 4. Aranbarri, Iñigo | 21. Iturralde, Joxemari |
| 5. Aranberri, Luis Alberto
«Amatiño» | 22. Jorajuria, Peio |
| 6. Artola, Xabier | 23. Juaristi, Felipe |
| 7. Bijueska, Josu Koldobika | 24. Kasares, Paula |
| 8. Bujanda, Mikel | 25. Kruzeta, Odile |
| 9. Coyos, Jean-Baptiste | 26. Laka, Itziar |
| 10. Dufau, Agnès | 27. Meabe, Miren Agur |
| 11. Egaña, Andoni | 28. Mintegi, Laura |
| 12. Epaltza, Aingeru | 29. Mujika, Alfontso |
| 13. Erdozia, Jose Luis | 30. Oregi, Eneko |
| 14. Etxebarria, Jose Ramon | 31. Perez Gaztelu, Elixabete |
| 15. Galé, Patxi | 32. Sarraillet, Jakes |
| 16. Gartzia, Pruden | 33. Soulé, Bernadette |
| 17. Gómez, Ricardo | 34. Zabaleta, Josu |
| | 35. Zubiri, Juan Jose |

Xabier Kintana idazkariak eman dio hasiera gaurko ekitaldiari, izendapen-agiria irakurriz. Bestalde, gaurkoaren garrantzia azpimarratu du: «Bere 88 urteko ibilbide luzean –esan du– sarritan banatu ditu Euskaltzaindiak sariak, dominak edo eta agiriak, baina inoiz ere ez horretarako beren beregi antolatutako ageriko bilkura berezi batean. Horregatik, euskaltzain berriei agiriak banatzeko, gaur hemen egiten ari garen ekitaldi hau berezia izateaz gain historikoa ere gertatuko da».

Ondoren, Andres Urrutia euskaltzainburuak hitza hartu eta Akademiak, urgazle berrien aldeko apustua egiten duela azpimarratu du, lanerako apustua

hain zuzen ere: «konpromisoa dugu barrukook zuen parte-hartze zabala gauzatzeko. Konpromisoa hartzen duzue zuek Euskaltzaindiari laguntzeko».

«Euskaltzaindiak –esan du Andres Urrutiak– behar du jakin eta ezagutu euskararen jorratze lanetan ari diren hainbeste eragileren berri. Euskaltzaindiak bere ateak ireki behar dizkio euskararen arloan egunotan bizien eta behinen dabilzan sektoreei. Hor ari zarete zuek ere, andrazko zein gizonezko, idazletzan, kazetaritzan, zientzian, teknika, administrazioan, irakaskuntzan, ikerketan... eta bestelakoetan. Hortxe nahi zaituzte Euskaltzaindiak, euskara eguneratu baten eskakizun eta premiei erantzun egokia emanaz».

Euskaltzaindiko Zuzendaritzak ez ezik, euskaltzain guztiek ere, Akademia erakargarri egin nahi dutela azpimarratu du Euskaltzainburuak, «batik bat, euskalgintzaren belaunaldi berrientzat, jakinik, hori bai, garai berriek irtenbide berriak eta desberdinak eskatzen dituztela euskararen aitzindaritz eta zabalakunderako».



EUSKALGINTZAREN KEZKAK

Hori dela eta, hona hemen euskaltzainen -osoen zein urgazleen-eginkizunik behinena: «guztion artean Akademiaren barruan osterantzeko bideak irekitzea, batzordeen lana osatzeko eta gehitzeko, aldian aldiko lan eta ikerketen bidez, edota jendaurrean lan egiten duzuenon artean, bestelako erakutsiak eta agerikoan bidez. Etxekoak nahi zaituztegu eta aldi berean, bitartekari eta ararteko, Euskaltzaindiak zuen bidez jaso ditzan euskalgintzaren kezak, bide beretik bereak ere adierazten dituela euskal eragileen artean».

«Euskal Herriko leku eta herrialde desberdinetatik zatozte –esan die euskaltzain urgazle berriei–. Lanbideak ere eite diferentetakoak dituzue. Zuen inguruko euskararen egoera ez beti-beti erraza eta eroso. Horren jakitun gara Akademian. Horrexegatik, hain zuzen ere, behar dugu zuen esperientzia eta eskarmentua, euskarak bere batasunean ahots, kolore, doinu eta hiztun desberdinak dituelako».

* * *

Azkenean, diplomak banatu dira. Luis Alberto Aranberri, Jose Ramon Etxebarria, Ricardo Gómez, Joakin Gorrotxategi, Angel Ibisate, Felipe Juaristi eta Juan Jose Zubiri ez dira gaurko ekitaldian izan. Beste guztiek jaso dute diploma.

* * *

Diploma guztiak banatu ostean, izendatu berri guztien izenean, Andoni Egañak bertso bi bota ditu (1).

* * *

Eta ekitaldian zehar eta amaiera, Maria Zubikarai eta Alfonso Rodriguez biolontxelo eta biolin joleek, musika pieza batzuk eskaini dituzte.

(1) Ikus *Euskera* zenbaki honetako 1295. or.

EUSKALTZAIN URGAZLE BERRIAK

*Andres Urrutia,
euskaltzainburua*

Euskaltzainkide guztiok, arratsalde on!

Euskaltzaindiak deituta, hemen zaituztegu gaur, Akademiaren egoitzan, euskaltzainkide zaretela erakusten duten agiriak jasotzera etorrira. Zorionak zuei, eta zuen etxekoei eta hur-hurrekoei, lehenik eta behin, zuen izentazioa-rengatik.

Zorionak, eta, aldi berean, gogoeta batzuk egiteko tenorea eta garaia ere bai. Xabier Kintana idazkari jaunak laster irakurriko ditu zuen izenak, eta, agiria jaso ondoren, ekitaldia bukatu eta zuen etxeetara itzultzen zaretenean, agiriaren letra hotzak baino, hemendik zerbait gehiago eramatea nahiko nuke nik.

Paperean euskaltzaintasuna aitortzen zaizue. Euskaltzaintasuna diot, eta ez euskaltzaletasuna, hori ondo adierazia eta frogatua baituzue aspalditik, agiriak dioenez. Horrexegatik, hain zuzen ere, egin du Euskaltzaindiak zuen aldeko apustua.

Askoren ustez, gaurkoa ohorerako gonbit hutsa da, halako geldiune laburra zuen ohiko zereginetan, Euskararen Akademiak egiten dizuen aitortza jasotzeko.

Euskaltzaindiarentzat, haatik, hori baino gehiago ere bada. Nire sermoi-txo honekin aski izango duzuela uste duzuenok, beraz, bazter ezazue hori zuen pentsamenduetatik.

Izan ere, halakoxea da Akademiaren asmoa, eta halaxe ere hartu du orain-go Zuzendaritzak urgazleen egiteko hori. Hitz gutxitan esateko, Akademia era-kargarri egin nahi dugu, batik bat, euskalgintzaren belaunaldi berrientzat, ja-kinik, hori bai, garai berriek irtenbide berri eta desberdinak eskatzen dituztela euskararen aitzindaritzza eta zabalkunderako.

Ohorerako baino, lanerako deia duzue, ondorenez, honako hau. Sarreran banatu zaizuen agiritxoan daukazue urgazleen zereginak, azken aldaketak barne. Arauak eta lege-testuak, maiz-sarri, arimarik gabeko zerrendak izaten dira, legegilea errealitate osoa esamolde batzuen barruan hartzeko gauza izan-

go balitz bezalaxe. Ondotxo dakit nik ezinezkoa dela hori. Horra, bestalde, letra larri horien espiritua azaldu beharra, artez eta zuzen har dezazuen Akademiaren mezua.

Espirituak espiritu, espiritu horrek dio, era ezin argiago batez, Euskaltzaindiak behar duela jakin eta ezagutu euskararen jorratze-lanetan ari diren eragileetatik hainbaten berri. Espiritu horrek dio, orobat, Euskaltzaindiak bere ateak ireki behar dizkiela euskararen arloan egunotan bizien eta behinen dabilzan sektoreei. Hor ari zarete zuek ere, andrazko zein gizonezko, idazletzan, kazetaritzan, zientzian, teknikan, administrazioan, irakaskuntzan, ikerketan eta bestelakoetan. Hortxe nahi zaituzte Euskaltzaindiak, euskara eguneratu baten eskakizun eta premiei erantzun egokia emanez.

Espirituaren kalterako, estatutuen letrak mugatzen du, damurik, askoren partaidetza Akademiaren barruan. Ildo beretik joanda, jakin badaki Akademiak badirela zuekin batera ahalegin horretan dihardutenak, badirela euskararen mesederako sekulako lana egiten dutenak, eta egun zuen artean ez direnak. Horiek ere erakarri eta barruratu behar ditu Euskaltzaindiak, behar-beharrezkoak baitira horiek euskararen normalizatzeko eta zabaltzeko bidean. Horretan ere jardungo du hurrengo urteetan, letrarena bete eta letra bera goza dezagun espiritu euskaltzalearen bidez.

NON ZUEN EGITEKO HORI?

Zernahi gisaz, motz eta urri geratuko ginateke, esan dudan legez, prediketik harago joango ez bagina. Hartara, printzipioetan azaltzen dena, praktikan ere erakutsi behar da. Sarritan teoriak berak ere lagungarri izaten ditu praktika eta pragmatismo-ukitua. Horren izenean dihardut nik neuk ere, zuen ekarriak barruratzeko eta euskaltzaindiratzeko pausoak asmatu beharra dauka-gulako.

Dagoeneko baten batek galde dezake ea betiko bidetik ez ote naizen joango, eta euskaltzain urgazle berrien gogo eta asmoak zapuztuko, Euskaltzaindiaren moduko instituzio batek izan dezakeen zama eta geldotasunean itota.

Bego hori. Ez dizuet ukatuko zuetako askok egiten duzuen lan eskerga, gure batzorde eta bestelakoetan, hori baita Akademiaren ohiko ibilbidea. Ukatu ere ez dut egingo noizbehinka saltzen zaigun irudia, Euskaltzaindiaren egitura astun eta bultza ezina izango balitz legez. Ez da hori Akademiaren Zuzendaritzak duen xedea. Aitzitik, gurea beste nonbaitetik dator, zuzen-zuzenean zuen eta gainerako euskaltzain guztiekin lotura sendoak dituen batetik, hain justu ere. Hasteko, hona hemen gure eginkizunik behinena: guztion artean Akademiaren barruan osterantzeko bideak irekitzea, batzordeen lana osatzeko eta gehitzeko, aldiari aldiko lan eta ikerketen bidez, edota jendaurrean lan egiten duzuenon artean, bestelako erakutsien eta agerikoen bidez. Etxeko

nahi zaituztegu, eta, aldi berean, bitartekari eta ararteko, Euskaltzaindiak zuen bidez jaso ditzan euskalgintzaren kezak, bide beretik bereak ere adierazten dituela euskal eragileen artean.

Euskaltzaindiak euskaltzain urgazleak aintzat hartu, lanean jarri eta baliatu behar ditu. Lehen ere hala egin du, eta hurrengoetan ere hala egin behar du, bere egitekoa ondo bete nahi baldin badu. Beharrezkoak dira baliabide eta tresna berriak. Era berean, ohiko batzordeetan egiten den lana ere ondo sustatu behar da, proiektu zehatzen bidez.

Lanean jartze horrek, ondo ulertu, ez dauka zer ikusirik, borondatezko kontu soilarekin. Ukaezina da, oraingoz bederen, euskalgintzak behar duen borondate-maila. Begi-bistakoa, alabaina, zuek etxe honetara dakarzuena profesionaltasuna, euskararen profesionaltasuna, euskaraz diharduzuelako zuen egunerokotasunean, euskara bera daukazuelako tresna eta lanabes. Hori ere modu profesionalan saritu behar du Euskaltzaindiak, lanari dagokion saria gure artean, salbuespenekoa baino, ohiko eta arrunt izan behar baitugu.

Profesionaltasuna da biderik seguruenak Euskaltzaindiak esku artean duen demari aurre egiteko, alegia, euskara estandar hori egiten duen bitartean, euskara estandar horren aplikazio eremuetan ere estandar hori trebatu, doitu, sustatu eta nagusitu, estandarra izan dadin gure baliabide duina egungo gizartearen barruan.

Bi atal nagusi ditu Akademiak: *Iker* eta *Jagon*. Hala izatea ere, ezinbestekoa, euskararen egoera ikusita. Bata nahiz bestea izango dira zuentzat kokaleku, bien arteko esparruak gero eta ugariagoak direla alboratu gabe. Diziplina desberdinen artekoa aldarrikatu behar du Euskaltzaindiak behin eta berriro, egun ez baita beste modurik hizkuntza baten kontuak euren osotasunean hartzeko.

Euskal Herriko leku eta herrialde desberdinetatik zatozte. Lanbideak ere eite diferenteetakoak dituzue. Zuen inguruko euskararen egoera ez beti-beti erraz eta eroso. Horren jakitun gara Akademian. Horrexegatik, hain zuzen ere, behar dugu zuen esperientzia eta eskarmentua, euskarak bere batasunean ahots, kolore, doinu eta hiztun desberdinak dituelako.

Bada, bestalde, aurrekoaren osagarri dena. Izatez, euskaltzainok, orain arte bederen, hiru motatakoak izan ohi gara. Ohorezko, oso eta urgazle. Zuek, urgazleok, Euskaltzaindiaren sustraiak eta erroak zarete, etorkizunaren berme-emaileak. Hor dauka egungo Zuzendaritzak eta Akademiak benetako erronka, luze baino lehen, lanean ez ezik, erabakimenean ere zuei bidea emateko. Horrexetan ditugu asmoa eta gogoia, eta horretarako ildoak aurki jorratu behar duzue.

Entzun duzuenetz, gaur ospakizun dugu zuen izentazioa. Esan dezadan beste behin ere: ohore eta aipamen egiten dizuegu; lanerako deia ere bai. Kon-

promisoa dugu barrukook zuen parte-hartze zabala gauzatzeko. Konpromisoa hartzen duzue zuek Euskaltzaindiari laguntzeko. Esan ere, halaxe dio orain jasoko duzuen agiriak, egin dituzuenak aintzakotzat hartuz eta egingo dituzuenen agiantzak aldarrikatuz.

Badakigu, bestalde, euskaltzain urgazle berriok gogotsu zatoztela. Halaxe izatea ere, eskertzeko modukoa da gure aldetik. Zuen gogo hori bideratzeko, beharrezkoa da estekadura indartsua, hemen garenon eta orain barruratzen zaretenon artean. Baita guztion asmamena eta adorea ere, guztion artean zinezko aurrerakuntza erdiets dezagun euskararentzat eta Akademiarentzat.

Esan dut.

EUSKALTZAIN URGAZLE BERRIEI DIPLOMAK BANATZEA

Andoni Egañaren bertsoak

Zer ohorea pentsatzen gendun
honuntza gentozenean
nik bederen baita aitortzen dut
modu zintzo ozenean
nahiz ta Andresek gero lanera
bultza gaitun zuzenean
eskerrik asko neroni eta
beste denen izenean.

Bertsolaria maiz joaten da
bizkor zuritik zirira
izendapena onartu du
errazena hori, tira
Euskaltzaindia lasai jar leike
etorkizunari begira
27tik 3 edo 4
finak aterako dira.

EUSKALTZAINDIA SALÓ DEL LLIBRE DE BARCELONA 2006

2006ko abenduaren 26an

Jon Artza,
argitalpen banaketa arduraduna

Ricardo Badiola,
argitalpen eragilea

2006ko azaroaren 21etik 26ra, *II. Saló del Llibre de Barcelona* ospatu da bertako erakustazokan. Antolatzaileak Kataluniako Editoreen Elkarte, Barzelona eta Katalunia Liburutegien Elkarte eta *Fundación del Llibre* izan dira.

Institut d'Estudis Catalans-ek gonbita luzatu zion bai Euskaltzaindiari, eta bai *Consello de Cultura Galega*-ri ere, Liburu Azoka honetan parte har zezaten. Gonbitea ontzat hartu, eta bertan izan dira Euskaltzaindiko argitalpenak salgai eta webgunea ikusgai. Horretaz gain, Euskaltzaindiko argitalpen zerbitzuko kide diren Ricardo Badiola eta Jon Artza bertan izan dira azaroaren 21 eta 22an.

Euskaltzaindiak, bere katalogoaz gain, 65 argitalpen inguru izan ditu salgai, alegia, azken nobedadeak aurkezteaz gain, *Neologismos en la obra de Sabino Arana*, Iker 18; Mendaur I.: *Satrustegi: ereile eta lekuko*; Mendaur II: *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*; baita beste hainbat argitalpen ere: *Euskal Izendegia, Hiztegi Batua*, literatura klasikoaren bildumakoak, literatura sariketakoak, EGLU bildumakoak, Onomasticon Vasconiae, Iker, Euskarenen Lekukoak.... Orotara 8 liburu saldu dira. Nahiz eta salmentak ugariak ez izan, hala ere jende askok agertu du gure erakundearekiko interesa, eta ondorioz –*Argitalpenen Katalogoa* deritzon liburua bisitarietara ematen zitzaien– Era-kundearen irudia zabaltzeko baliagarria izanik.

Orotara 250 argitaletxe inguruk hartu dute parte aipatu Liburu Azokan. Euskal Herritik ere baziren zenbaitzuk, hots, Alberdania, Euskal Herriko Editoreen Elkarte, Elkarlanean, Sua edizioak, Ttartatlo, Txalaparta... Astean zehar jende asko ibili ez bada ere, aitzitik asteburuan bisitari ugari izan dira. Liburuak begiratzeaz gain hara jo dutenek Azokan bertan izan diren hainbat aurkezpen, mahainguru eta ekitaldiz gozatzeko aukera izan dute eta argitaletxeen katalogoaz jabetzeko era.

Honetaz aparte, Azoka honek IEC (*Institut...*) eta Euskaltzaindiaren artean diren harreman bikainekin jarraitzeko parada eman du. Standean IEC-eko hainbat langile izan dira: Francesc Albar, Sandra Rigall, Ramón Martínez eta Jordi Pedrola... Antolakuntzaren ardura nagusia, Manuel Pascual, Institut-eko argitalpenen banaketa arduradunak izan du. Hauetaz gain Joan Martí IEC-ko Filologia saileko buruaren bisita izan genuen. Hauek guztiek oso harrera ona egin eta Euskaltzaindiarekin elkarlanean jarraitzeko nahia erakutsi dute. Aurten ere iaz esan zigutena berretsi dute, alegia, komeniko litzatekeela, urtean zehar, elkarren arteko topaldi moduko batzuk antolatzea. *Saló del Llibre*-z bali gintezke, edo baita Durangoko Liburu Azokaz ere. Aurten ere IEC-ren liburuak Durangoko 41. edizioan izango ditugu ikusgai. Iaz ez bezala Manuel Pascual, argitalpenen banaketa-arduraduna, ezin izan da hurbildu, baina jarraiko urteetan etortzeko asmoa adierazi du.

PILI ARTZARI ZILARREZKO DOMINA

2006.eko azaroaren 24an, Euskaltzaindiaren egoitzan egin zen osoko bazarrean, Andres Urrutia euskaltzainburuak Akademiaren zilarrezko domina eman zion Pilar Artza Euskaltzaindikoko langileari, Euskaltzaindiak 25 urte lanean aritu diren langileekin egin izan duen bezala.



DURANGOKO 41. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

2006ko abenduaren 6,7,8,9 eta 10ean

2006eko abenduaren 20an

Durangoko Liburu eta Disko Azoka, 2006.urteko abenduaren 6tik 10ra bitartean egin da *Landakosolo* lur eremuan kokaturik dagoen askotariko erabilerako Erakustazokan.

Euskaltzaindiak argitalpen-salmentarako stand bi alokatu zituen irailaren 18an.

Bestalde *Gerediaga Elkarteak*, duela urte batzuk hasitako digitalizazio prozesuarekin jarraikiz, bere webgunean argialetxe desberdinetako produktuak ditu ikusgai. Euron artean, Euskaltzaindikoak.

Argialetxeek, Azoka aurreko egunak aprobeztatzen dituzte, euren nobedadeak, liburu-denda zein areto desberdinetan aurkezteko. Horretaz gain, hainbat idazle eta musikaririk, Erakustazoka ondoan dauden *Plateruena Kafe Antzokian* eta Elkartegian aurkeztu dituzte beren lan berriak.

Euskaltzaindiak, arrunki, argitalpena kaleratu ahala egiten du aurkezpena, Azokari itxaron gabe. Dena den, argitalpen batzuk promozionatu nahian eta egoera ekonomikoak uzten duen neurrian, *Gerediaga Elkarteko* agerkarian publizitatea jarri da.

Euskaltzaindiko Prentsa Zerbitzuak, Erakundeak Durangoko Azokan aurkeztu duenaren informazioa helarazi die komunikabide desberdinei. Horretaz gain Euskaltzaindiaren sorrera, bilakaera eta gaur egungo egoera azaltzen dituen diptikoa batatu dute standean aritu direnek. Diptikoarekin batera Erakundearekiko egutegia ere eskaini dute. Biotan Euskaltzaindiaren zenbait argitalpen-azal ageri dira eta baita argibide zenbaitzuk ere.

Euskaltzaindiak *Institut d'Estudis Catalans*-ekin (IEC) daukan elkarkidetzaren harremana dela eta Erakunde honek presentzia izan du Durangoko Azokan. Euskaltzaindiaren standean, IEC-k bere espazio propioa izan du: beraien katalogoak, urteko nobedadeen zerrendak, mendeurrenaren informazio liburuak, eta IECren berri eskaintzen duen diptikoa ikusgai izan dira. Eta interesa azaldu duten bisitariei Erakunde horren Argitalpen Banaketa Arduraduna den Manuel Pascual jaunaren bisita-txartela ere eskaini-banatu zaie.

Aurtengo edizio honetan, Euskaltzaindiak aurkeztu dituen argitalpen berririk:

- *Euskera 2005,1* eta *Euskera 2005,2*.
- *Euskera eta Eliza: Jagon Jardunaldietako txostenak*.
- *Antzuolako Toponimia*, Onomasticon Vasconiae, 24.
- *Euskaltzaindiaren Adierazpenak: (1976-2006)*.
- *Santxa Kondesa*. Toribio Alzaga antzerki saria, 2005.
- *Mendebaldearen mintzo mindua*. Mikel Zarate saiakera saria, 2005.
- *Narrazioak eta olerkiak 2005*.
- Mendaur I: *Satrustegi, ereile eta lekuko*.
- Mendaur II: *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*.

Guztira Euskaltzaindiko 75 argitalpen desberdin eraman dira Azokara. Argitalpenen hautaketa eta kopurua, aurreko urteetako salmentak kontuan hartuz egin da.

Balorazio ofiziala nahiko baikorra izan bada ere, Euskaltzaindiak salmenta aldetik beherakada izan du. Aurtengo nobedadeak kalitatezkoak bai, baina akaso irakurleko orokorarentzat ez dira erakargarriak izan. Ohi bezala, *Euskal Izendegia* eta *Hiztegi Batua* izan dira argitalpenik salduenak, hala ere aurreko urteetan baino askoz ale gutxiago saldu dira. Badira zenbait urte argitalpen hauek argitaratu zirela eta hori nabaritu egiten da, alegia, eguneratzea eskatzen du.

Salmenta arloa albo batera utzi gabe, irudia ere kontuan izan behar denez, aurtengo ere saiatu gara stand-eko irudia hobetzen eta horren bitartez Euskaltzaindiaren irudia zabaltzen. Horretarako berriztutako lau poster handi argitaratu eta standeko hormetan itsatsiak izan dira, Euskaltzaindiaren egitasmo, lan eta argitalpenak islatu dituelarik. Honekin batera eta arestian aipatu bezala Euskaltzaindiaren egutegia eta argibide-diptikoa kaleratu eta eskaini-banatu dute standean aritu izan direnek.

Oro har jende ugari hurbildu da Azokara, batik bat lehenengo hiru egunetan. Larunbatean eta igandean dezentez bisitari gutxiago izan da.

Aurtengo *Argizaiola* saria *Jakin* aldizkariari eman zaio. Saria aipatu aldizkariko zuzendaria eta euskaltzain urgazlea den Joan Mari Torrealdai jaso zuen.

Bestalde Durangoko Azokaren egitarauaren barne izan diren ekitaldietan Miren Agur Meabe, Xabier Amuriza eta Jose Mari Iriondo euskaltzain urgazleak hartu dute parte, besteak beste.

Ricardo Badiola Uriarte,
argitalpen eragilea

Jon Artza Bikandi,
argitalpen banaketa arduraduna

INSTITUT D'ESTUDIS CATALANS

Euskaltzaindia: els treballs sobre la codificació lingüística de l'èuscar

Barcelona, divendres 15 de desembre de 2006

*Henrike Knörr,
Director de Recerca de la Reial Acadèmia de la Llengua Basca-
Intervenció a l'Institut d'Estudis Catalans*

1. L'Acadèmia de la Llengua Basca va ser fundada el 1918 per les quatre Diputacions (Àlaba, Biscaia, Guipúscoa i Navarra). El seu nom en basc i que tothom fa servir és *Euskaltzaindia* (< *euskara* + *zain* «guardià» + sufix locatiu *-di* ' + *-a* article determinat), nom aprovat per majoria (amb l'oposició d'Azkue i altres, que preferien *Euskaltzaingoa* (*-go* és un sufix més apropiat, que significa «entitat, institució»). Es va posar a treballar l'any següent, sota la presidència de Resurrección Maria Azkue (1865-1951). Des del seu naixement, Euskaltzaindia va tenir dues seccions: la *Secció de Recerca* i la *Secció Tutelar*. Totes dues tenen un director; fa anys que tots dos són membres del Consell Executiu, juntament amb el President, el secretari i el tresorer. A les reunions del Consell Executiu (que es reuneix quinzenalment) hi assisteixen també el gerent i el vicesecretari.

2. Euskaltzaindia va tenir una vida molt activa fins a la guerra civil. Es van prendre decisions sobre l'alfabet; es va cercar un consens sobre la llengua literària unificada, qüestió que no es va començar a resoldre fins al congrés d'Arantzazu de 1968; es van publicar abundants materials científics, la majoria a la revista *Euskera* (1919-), i la institució va assolir el reconeixement de dels bascos (curiosament, els viatges amb tren per assistir a les sessions eren gratuïts), etc. El franquisme no va prohibir-la (sens dubte pel prestigi d'Azkue i de Julio de Urquijo, aquest darrer fundador de la *Revista Internacional de Estudios Vascos* el 1907). Van ser, però, anys semicatacumbaris, amb molts membres a l'exili. Podem dir que fins els anys seixanta no arribà la normalitat, o la seminormalitat. Finalment, va ser reconeguda oficialment per un Reial Decret de febrer de 1976 (Decret signat pel rei Joan Carles a Barcelona). També hi figura a l'Estatut de la Comunitat Autònoma del País Basc (1979 i al de Navarra (1982). Els Estatuts de la nostra Acadè-

mia mencionen la realitat lingüística de les set províncies, les quatre d'Es-panya i les tres de França, on l'Acadèmia no està oficialment reconeguda: so-lament hi ha una Associació d'interés públic, composta pels membres d'aque-lla part. Tanmateix, les nostres relacions amb les autoritats del departament (Pirineus Atlàntics), la regió (Aquitània) i els municipis són normals; mai no es fa menció de l'Associació, sinó d'Euskaltzaindia.

3. Euskaltzaindia té la seu a Bilbao. Hi a delegacions a Vitòria, Pam-plona, Donostia i Baiona. Celebra onze sessions mensuals (no a l'agost), habi-tualment el darrer divendres. El model és aquest: quatre a Bilbao, quatre a Do-nostia i la resta a Baiona, Pamplona i Vitòria. Aquest esquema es trenca quan hi a sessions públiques per commemoracions especials o per l'acte d'ingrés de nous acadèmics. Al mes de setembre, per exemple, hem tingut l'ingrés de Pa-txi Salaberri al seu poble natal, Uxue (Navarra); en aquesta ocasió vam tenir la reunió interna la vetlla, dijous 28, i la sessió pública el divendres 29. Ara mateix pensem que fóra millor celebrar la sessió pública els dissabtes, per tal de facilitar l'assistència de la gent; probablement serà Bernardo Atxaga, amb qui primer ho farem així, al seu poble natal, Asteasu (Guipúscoa).

4. Euskaltzaindia ha tingut fins ara 24 membres amb dret de vot. Però una reforma aprobada enguany ha introduït la figura de l'emèrit i ha elevat el nombre d'acadèmics. Precisament la propera setmana tindrem l'elecció per co-brir dues places de «jubilats» (el màxim permès anualment). Tenim, també, uns 25 membres honoraris, una part dels quals són estrangers, i més d'un centenar de membres corresponents (dels quals també alguns són estrangers).

5. Els treballs d'Euskaltzaindia es fan a les sessions plenàries i a les com-issions. Aquestes són (amb les subcomissions):

I. *Secció de recerca:*

– Lexicografia:

- a) Diccionari de l'Acadèmia.
- b) Hiztegi Batua, és a dir, Lèxic Unificat (sens definicions, com el *Diccionari ortogràfic* de l'Institut, de 1937).

Gramàtica.

Dialectologia.

Onomàstica.

Exonomàstica (grup de treball).

– Literatura:

- a) Literatura popular.
- b) Recerca de literatura.

II. *Secció tutelar:*

- Comissió de Corpus.
- Comissió de Dialectes.
- Comissió de Foment.

III. *Comissions estructurals:*

- Publicacions.
- Biblioteca.
- Comissió legal.
- Comissió econòmica.

Les comissions es reuneixen normalment una o dues vegades al mes, a Bilbao o a Donòstia o de vegades en un altres lloc.

6. Pel que fa a la lexicografia, en 2005 va publicar-se el volum XVI del diccionari històric d'Euskaltzaindia: *Orotariko Euskal Hiztegia / Diccionario General Vasco*, que va engagar-se sota la direcció de Koldo Mitxelena en 1984 fins a la seva mort el 1987, i va continuar tenint com a responsable Ibon Sarasola. Un treball ingent, seguint la petja de Joan Coromines als eus dos grans diccionaris. Ha estat finançat pel Govern Basc, el Govern Navarrès i les Diputacions d'Àlaba, Biscaia i Guipúscoa. En aquest moment no sabem si, com és desitjable, farem un volum *d'addenda et corrigenda*.

Això sí és segur: han començat els treballs previs del diccionari d'Euskaltzaindia, que hem batejat així: *Euskaltzaindiaren Hiztegia*. Serà un diccionari basc-basc, com el diccionari de l'Institut d'Estudis Catalans, per exemple. Aquest diccionari té com a base el *Orotariko Euskal Hiztegia*, d'una part, i el *Hiztegi Batua* (Lèxic Unificat), de l'altra.

Aquest Lèxic Unificat ens ha ocupat anys i ha estat i és la feina més important de les sessions plenàries d'Euskaltzaindia. L'any 2000 es va publicar la primera edició, amb 22.000 paraules. Ara es treballa en un vocabulari d'unes 45.000 paraules. Hi ha un grup de treball, compost de membres numeraris i corresponents, que prepara les llistes per a la discussió a les sessions plenàries. No cal dir-ho, en aquest moment disposem d'unes dades lexicogràfiques i documentals que abans no teniem. Totes les decisions van immediatament a la web d'Euskaltzaindia i a la revista *Euskera*, òrgan de la nostra Acadèmia. Les decisions acadèmiques s'han publicat també en uns quaderns especials, de molt èxit, *Arauak* («Normes»), des del 1994, uns fascicles adquirits per subscripció. L'extensió d'Internet, però, planteja la necessitat de finalitzar l'edició de les decisions en paper, tret de la revista.

7. La comissió de Gramàtica ha publicat diversos volums des de la seva creació, el 1980. Aquests volums portan el títol general d'*Euskal gramatika: lehen urratsak* («Gramàtica basca: primeres passes»), tret d'un volum, que és el compendi de la major part dels anteriors: *Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna* («Gramàtica basca breu: l'oració simple»). La feina continua i es prepara un volum més sobre les oracions subordinades. A més, s'ha engegat una obra que portarà per títol *Euskal Gramatika Orotarikoa* («Gramàtica general basca»), treball connectat amb aquesta comissió. Cal mencionar, també, la resposta a un munt de consultes fetes a l'Acadèmia principalment per Internet (vegeu infra el servei *Jagonet*).

8. La comissió de Dialectologia continua amb la seva tasca de l'edició de l'atles lingüístic del País Basc, aties del qual solament s'ha publicat una petita mostra. El primer volum ha trigat massa temps a publicar-se, però confiem que enguany podrem oferir-ne els dos primers. Mentrestant, s'ha recollit una quantitat enorme d'informació, que ara, mercès a la Diputació de Biscaia, es troba segura en CDs.

9. La comissió d'Onomàstica va ser creada el 1984. Durant aquests 22 anys ha fet una important tasca de recerca, que podem resumir així: 25 volums de la col·lecció *Onomasticon Vasconiae*; noms del País (*Euskal Herria*, el 2004), les províncies basques, gentilicis i dialectes; noms de les províncies i comunitats d'Espanya i dels departaments i regions de França; noms dels Estats del món i llurs gentilicis; noms de continents, mars, illes, muntanyes, etc; noms de les llengües del món, vives o no; noms de sants (i també l'ús de *san, santa*, d'una banda, i de les formes antigues *done, dona*, cf. *Done Bikendi* «San Vicenç», de l'altra); noms de personatges històrics i mitològics del món clàssic; el llibre de noms de fonts, publicat l'any 2001; el diccionari de cognoms, publicat en 1997 amb el suport del Ministeri de Justícia i el Departament de Justícia i Treball del Govern Basc (es tracta de deu mil cognoms bascos, amb la forma gràfica castellana i francesa i, a la dreta, la grafia corresponent a la llengua basca, un dret de canvi de grafia que no es pot negar al ciutadà; el fonament d'aquest diccionari és una recerca acurada i llarga que ha aportat aproximadament 50.000 cognoms bascos de tot el país i de l'estranger). A més, hem d'esment les consultes d'institucions i particulars (una part de les reunions de la comissió es consumeix en aquest capítol). Hi ha, igualment, convenis amb la Radiotelevisió Basca i la Federació de Municipis per tal d'assessorar en qüestions com ara pronúncia i grafia, noms de carrers, etc; és molt jove el Projecte ECO (*Euskal Corpus Onomastikoa*, «Corpus Onomàstic Basc»), una base de dades de noms de persona i de lloc que ja té prop de 80.000 entrades. És interessant, així mateix, el projecte de toponímia del municipi de Vitòria (la ciutat i 64 pobles), finançat per l'Ajuntament, que ha aplegat prop de mig milió de registres.

10. Dedicarem un petit apartat a la comissió de Literatura, amb les dues subcomissions, la de Literatura Popular i la de Recerca Literària. El 2007

la comissió projecta enllestir un diccionari de termes literaris, que va iniciar fa six anys. I dins la comissió es fan estudis d'autors i s'organitzen simposis sobre temes diversos.

11. Pel que fa a la *Secció Tutelar*, es divideix en dues comissions: Corpus i Foment. A la primera és destacable el servei de consultes *Jagonet* (jagon vol dir «protegir»). Son milers les consultes que es fan a aquest servei; totes les respostes son arxivades, per tal d'oferir-les al públic, i penjades al lloc web de l'Acadèmia. També podem mencionar treballs fets per la subcomissió, per exemple, sobre qüestions d'organització de textos, coherència, comunicació, etc. La comissió ha revisat aquest 2006 moltes hores de la ràdio i televisió públiques, per tal de corregir-ne errors freqüents. Per la seva banda, la subcomissió de Dialectes investiga en aquest moment un projecte intitulat «Dels dialectes a la llengua estàndar» i analitza les possibles contribucions lèxiques dels dialectes. I la comissió de Foment intervé sovint per tal de defensar els drets de la llengua en qualsevol dels tres àmbits administratius on viu la nostra llengua: la Comunitat Autònoma del País Basc, Navarra i l'Estat francès. Podríem mencionar, entre d'altres mesures, les declaracions sobre l'única ràdio bascofona de Pamplona, *Euskal Herria Irratia*, que, encara que té diverses sentències favorables, no ha obtingut un estatus legal (!). El nostre delegat a Navarra, Andres Iñigo, va ser cridat al Parlament navarrès fa tres anys, quan es va constituir una comissió per proposar-hi un nou Estatut; la seva intervenció va assolir un gran ressò. En aquest mateix context, fa uns dies hem publicat un llibre que recull la majoria de les declaracions que ha fet Euskaltzaindia en defensa de l'èuscar als darrers vint anys.

12. No podem oblidar la tasca de la Biblioteca, per exemple, catalogatzió d'arxius propis i aliens; el projecte de digitalització de l'arxiu del romanista i bascòleg Jean Saroïhandy (1867-1932), que es troba a Bordeus, etc. A més, podem dir que Euskaltzaindia ha elaborat unes normes de catalogació en basc, normes que són acceptades per moltes biblioteques del nostre país.

SUGGERIMENTS BIBLIOGRÀFICS

CAMPIÓN, ARTURO, I PIERRE BROUSSAIN: «Informe de los señores académicos A. Campión y P. Broussain a la Academia de la Lengua Vasca sobre unificación del euskera». *Euskera* 3:1, 1922,4-17.

KNÖRR, HENRIKE: «Acerca de la normativización de la lengua vasca». Rafael Alemany (ed.): *Els processos de normalització a l'Estat Espanyol*. Universitat d'Alacant-Ajuntament de Benidorm, Alacant 1988, 37-61.

Del meu article n'hi ha una tirada a part, edició de l'autor, Alcoi 1989.

- «L'obra de codificació de l'*euskara batua*». Joan A. Argenter (ed.): *Simpòsi Pompeu Fabra*. Institut d'Estudis Catalans, Barcelona 2000, 295-299.
- «Unitat i diversitat a l'espai lingüístic basc». Antoni Ferrando i Miquel Nicolàs (eds.): *La configuració social de la norma lingüística a l'Europa llatina*. Institut Interuniversitari de Filologia Valenciana, Alacant 2006, 343-351.
- MITXELENA, KOLDO (LUIS): «Arantzazutik Bergarara» («D' Arantzazu a Bergara»). *Euskera* 23:2, 1978, 467-477. L'article es pot veure en el recull d'articles de Mitxelena, *Sobre historia de la lengua vasca*. Donostia 1988, II, 984-990.
- «La normalización de la forma escrita de una lengua: el caso vasco». *Revista de Occidente* 10-11 (extraordinari II), 1982, 55-75, recullit al volum *Lengua e historia*. Paraninfo, Madrid 1985, 213-228.
- ZUAZO, KOLDO: «Vingt ans de standardisation de la langue basque». *Lengas* 26, 1989, 25-44.

HIL BERRIAK

FEDERICO BARRENGOA ARBERAS (1916-2005)

Federico Barrenengoa Arberas euskaltzain ohorezkoa Bilboko bere etxean itzali zen 2005eko abenduaren 30ean, 89 urterekin, senideek inguratua, bakez, eta errotik zuen fedeak une latz hartan lasaitua. Angel Ibisate euskaltzain urgazleari abenduaren 7an idatzi zion gutunean, hobeki esan, M^a Jesus alabak aitaren hitzak jaso eta papere-ratu orrian, bizitza honetatik joatean agur egiteko, hau irakurtzen da, besteak beste:

«Así es que esto ya no tiene remedio y quiero despedirme de ti como un buen amigo que he tenido. Estoy muy tranquilo y sereno ante el final último y no tengo ningún miedo porque, como siempre he creído en Dios, me da una confianza terrible (1)».

Eguna harrigarriro igarri zuen: Gasteizko bi adiskidek, Federico Verástegui eta Juan Antonio Zárate foru diputatuek (eta pentsatzekoa da familiak eta beste adiskide batzuek ere) hartu zituzten gutunetan eta entzun zituzten solasetan garbi aipatu zuen abenduaren 30eko data.

Amurrion sortu zen Barrenengoa, 1916ko urriaren 18an, lau haurrideetan zaharrena. Hiru arreba izan zituen ondoren. Aita, Ramón Barrenengoa, Arespalditzakoa, hargina zen, eta ama, María Arberas, Saratxokoa, dendaria.

Hamahiru urte bete hurrean sartu zen Gasteizko apaizgaitegi zaharrean, hau da, katedralaren aurreko Agirre apaizgaitegian 1929ko urrian. Eta bigarren mailatik aurrera apaizgaitegi berrira aldatu zen beste guztiekin. Zabaltze-ekitaldi hots handikoan Federico Barrenengoa izan zen olerki-esaletariko bat; orduan ere ikasle saiatu zela seinale:

«Ya en segundo de latín, me escogieron a mí para recitar unos versos ante el Nuncio y muchos obispos y otras autoridades en la inauguración del Seminario Nuevo»

kontatu zuen, harrotasun puntta batekin (2). Notek hori salatzen dute: zinez onak eskuratu zituen: irakasgai guztien ondoan *M* (= «Meritissimus»), *B* (= «Benemeritus») edo *m* (= «meritus») ageri da argi, ezein irakasgai irailerako utzi gabe. Laugarren mailan, 1932-1933 ikastaroan, ikusten dugu lehenbizikoz euskara irakasgaietan: «Gramática Vasca», eta aldamenean *M*. Gerra piztu ondoko bi ikastaroetan han jarraitu zuen Barrenengoak, baina 1935-1936ko eta 1937-1938ko ikastaroetan ez da euskal gramatikaren aztarrenik. Noren eta zeren aurkako gerra zen hura itsuak ere ikus dezake (3).

(1) Angel Ibisatek erakutsi dit gutun hau, berari idatzia, 2003ko urriaren 28koa.

(2) Angel Ibisateri egindako beste gutun batean irakurri dut hori; 2003ko abenduaren 29koa da bigarren hau. Lapitzez Ibisateren oharra: «Poesía compuesta por el conocido Ramiro de Zabala».

(3) Nota-orriak Angel Ibisateri esker lortu ditut.

Gerrara joatetik nola libratu zen bitxia da, tragedia hartan *bitxi* hitzak tokirik badu: Bilbora deitu zuten, mediku-azterketa egiteko, eta bere begiez ikusi zuen hiriaren gainera bonbak jaisten. Ikuskizun haren eraginez, takikardia bat izan zuen, eta ezgai utzi zuten. Amurrion, ordea, norbaitek salatu zuen, eta Urduñara eraman zuten, han zen kontzentrazio-zelaira, eta ondoren beste batzuetara, Palenciara, Sigüenzara, Sotodoso-*sera* eta Riba de Saelices-*era* (azken hiru herri hauek Guadalajara probintzian dira). Lubbaki-urratzaile lan neketsua sarri zerabilen oroimenean. Gutun batean hala dio:

«Este curso lo seguí desde primeros de enero de 1939, cuando pude hacerlo al salir del Batallón de Trabajadores en que estuve cuatro meses en Guadalajara haciendo trincheras (4).»

1939. urtearen hastean Bergarara joan zen, Filosofiaren azken urtea egitera (5). Ongi gogoan zituen Barrenengoak urte haiek, irakasleak –Barandiaran, Lekuona eta beste–, eta irakaslekideak –Koldo Larrea, Bilboko apezpikua izango zena (6), Lamberto Echevarría (7), Víctor Garaigordobil, Los Ríosko apezpikua urteen buruan, Ignacio Oñatibia berriki hila, haien artean–. Eta ohoretzat zeukan amurriarrak Gasteizko apaizgaitegian ikasle izana. Atseginez mintzatzen ohi zen garai haietaz, zoritxarreko gerrak moztu zituen garaiez. Zalantzarik gabe, Barrenengoaren euskaltzaletasuna, jakinmina eta jakitea han piztu eta zabaldu ziren; ez zen, ez, nolana hikoia han ematen zen jakite-hazkurria.

Gerra bukatuak, Valladoliden eskuratu zuen 1940an Batxillergoa, eta hurrengo urtean, Bilboko Eskola Normalean, maisu titulua. Ezin, ordea, leku publikoetan irakatsi: 1941eko fitxa zuen erabateko debekua:

«Ideología: simpatizante del Partido Nacionalista Vasco».

Ondorioz, eskola partikularrak eman behar izan zituen urteetan.

Baina oztopo guztien gainetik zutik zirauen Barrenengoaren ikas-minak, bai eta oro har Euskal Herriaren eta Amurrioren historia aztertzeo grinak. Giro ilun hartan José de Madinabeitia apaizarengan aurkitu zuen laguntzaile eta maisu ona. Madinabeitiak 1933an argitaratu zuen *El libro de Amurrio* ezaguna, Mateo Múgicaren hitzaurrea zekarren lan interesgarria, eta hori izan zen Barrenengoarentzat akuilu. Bere bizitza luzean Amurrio eta Aiara osoa hartu zituen ikergai, historia, giza eta leku izenak eta ohiturak aztertzeo. Lanen zerrendak ezin argiago erakusten du norainoko kemena zuen Barrenengoak. Kemena eta iraupena.

Onomastikaren baratze joria zuen, zalantzarik gabe, gogokoen eta maiteen. *Onomástica de la Tierra de Ayala* (hiru liburuki, 1968-1990) dugu horren adibiderik hobereena. Aiarako 34 herrietako leku izenak eta deiturak biltzen jardun zuen egileak mende laurden batez, udal eta auzo artxiboak miatuz, eliza-liburuak arakatuz, jendeari galdetuz, han-hemenka datuen bila eta bila, asteburuez baliatuz, euri izan, eguzki izan. Hotza, gehienbat, elizetan pairatu behar izaten zuen:

«... hubo ocasiones en que tuve que estar con tres jerseys y el anorak puestos mientras trabajaba»,

(4) Adiskide bati egin gutuna, 1994koa. M. Jesus Barrenengoak niri utzitakoa.

(5) Lehen aipatu gutunean «el tercero y último año de Filosofía» dio, baina laugarrena da, jakina.

(6) Barrenengoaren oharra, gutun horretan: «pero ya Luis María».

(7) «Que se distinguió en altas instancias eclesiales de Madrid» dio, baina ez du aipatzen arabar hau Salamancako Elizaren Unibertsitatean izan zela irakasle.

zioen gutun batean, 1993an (8). Hiru liburu haiengatik Eusko Jaurlaritzaren lan baterako deitu zuten gero, hots, Deiker Institutuak prestatu behar zuen lanerako. Gogotik ekin zion eginkizunari, 1991ko udatik 1992ko udara bitartean.

Egia da batzuetan Barrenengoak ez duela iturririk zehazten. Egia da orobat nahiak bultzatu eta hertsatu bezala aritzen zela. Eta egia da etimologietan murgiltzean huts egiten zuela maiz. Gogoan eduki behar dugu, halaz guztiz, Barrenengoak ez zela filologoa, eta urrutixko ibili zela beti esparru horretatik. Baina inork ez du ukatuko haren ekarriaren merezimendua.



Beste zerbait nabarmendu behar da Federico Barrenengoarengan: Amurrio eta Aiarako historiarako jaidura, eta irakaspen horiek orotara hedatzeko kezka bizia. Horra, esaterako, René Obaldia frantses idazlearen omenezko ekitaldia. Madaria herrixkan zituen erroak idazleak. Nork ezagutzen zuen hori, ordea? Barrenengoak beste inork ez, dirudienez. Eta zer egin eta eragin zuen gure adiskideak? Omenaldi bat antolatzea, 1997an izan zena. Hong-Kong-en 1918an sortua zen idazlea Panamako kontsularen semea zen, eta atsegin handiz etorri zen Aiarara. Frantziako Akademian sartu baino lehen gertatu zen hori. Izan ere, René Obaldia 1999ko ekainean hautatu zuten kide, Julien Green-en jarlekuan, eta urtebete geroago sartu zen ofizialki Akademian. Zalantzarik gabe, ospakizun arrakastatsu hark bultzaturik, Barrenengoak herrialde batzuetako Obaldiatarren festa antolatu zuen 2002an. Herri-maitale, benetan, eta oroitzapen-pitzaile.

Astegunetan zertara dedikatzen zen Barrenengoak? Bada Firestone fabrikari lan egiten zuen, lanpostu batean edo bestean, 1972an liburuzain izendatu zuten arte. Eta zahar-saritze egunak aurkitu zuen langile zintzoa eta lagunakoa.

Liburuzain ez, baina Euskaltzaindiaren liburutegi batzordekide izan zen urte anietan. Lan ederra burutu zuen batzordean, beti aholku onak emanaz.

Lan eskerga hauek oro aitortzeko, Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen 1979an, eta ohorezko 2004an. Langile nekagaitza eredu eta jarraibidea da Aiarako eta edonongo gazte jendearentzat.

Irriñoa beti ezpainetan, entzutera emanago mintzatzera baino, ez zaigu inoiz ahanzik gizon leiala eta xaloa.

Betiko bakean gerta dadila Federico Barrenengoak adiskide ona eta langile porrokatua.

Henrike Knörr

(8) Bruselako koinatuai egindako gutuna. Alaba Maria Jesusek niri pasaturiko gutuna da.

GAIZKA BARANDIARAN

(1916-03-03/2006-07-20)

Gaizka Barandiaran Balanzategi 1916ko martxoaren 3an jaio zen Oñatin eta 2006ko uztailaren 20an hil zen Loiolan. Bi data horien tartean bizitza luze eta oparoa garatu zuen. Euskalgintzaren XX. mendeko alerik azpimarragarrienetakoa dugu Gaizka eta hurrengo lerroetan zertzelada batzuk eskainiko ditut, bederen ekitaldi honetan testigantza txikia gera dadin, izan ere Barandiaranen gaineko bizitza, lanen deskribapena eta bibliografia, berarekin batera prestatu nuen biografian aurki daiteke, aurtan hamar urte direla argitaratutako liburuxkan, hain zuzen.

Gaizka Barandiaranek iragan uztailean utzi gintuen, berak ohi zuen estilo apal berdinsuarekin. Zaratarik gabe, isil-isilik, heriotzari Gaizkak hainbeste maite zuen greziar tragediaren epikotasuna kendu nahi izan balio bezala, hirugarren parka soberako jantziez birluztu gura izan bailuen. Baina ezin naiz isildu eta Gaizka bere gogoz kontrako erbesteratze moralean hil zela salatu behar dut, logika gutxirekin eta anaitasunaren, kristautasunaren eta esker oneko izatearen oinarritzko printzipioak ahaztuta, hartutako deliberamendu tristetak zokoratua. Agian, horixe bera izan da, Konpainiako arau eta gezurrezko mistikari itsusuan ez eusteagatik Gaizka Barandiarani erreserbatutako amaiera mingotsa. Batek daki!

Gaizka Barandiaran Oñatin jaio arren, Arrasaten eman zituen ia-ia haur urrats guztiak, bi urte zituela aldatu baitzen sendia sarrailgintzako herrira. Julian eta Dorotea ziren gurasoak eta bikoteak sei seme-alaba hazi zituen: Jose Mari, Julio, Bixente, Carmen, Salvador «Gaizka» eta Maria Luisa. *Mentu* baserrian ekin zioten arrasatear abenturari baina handik gutxira, 1922an, *Marko Etxeberri* etxea jaso zuten eta huraxe izan da gaur egunera arte sendiaren habia. Gaizkak ederto oroitzen zituen ume zeneko egun haiek, zentzu eta sentimendu osoz bizi izandakoak. Berak ziotan:

Aita goizetik abiatzen zen basalde hartara eta eguerdiko bazkaria neronek eramaten nion. Bost bat urte izango nituen... Zoli zegoen aita basoko isiltasunean eta bazkaltzen zuen bitartean hango bazterrak behatzen nituen. Bitartean zizazeren bat hango muinoetan idoroten ote nuen nengilen...

Gaizkak bat egiten du naturarekin. Bertatik bertara ezagutzen du izadia eta horren sekretuak ez dira horrenbeste mutikoarentzat.

Noxien bein, ontzak Loroko txaran oyu eiteauen, gabaz lorik eztau eiten-ta... Zer eiten dok, ba, euzkixa Oñati aldetik jagi ta Muru mendi ostien sartuten dan bitartien?... Lais-ter, ba, izkutatuten bai-az lurpien udazkeneko euzkixak indarrrik etxaukakenien eta Udalatz gañetik ipar axe otzak joten jokenien (1)...

(1) «Lurreko piztien ekiketak» (Arrasate'ko-Mundrau'ko euzkelgiz) (*Euzko Gogo*a 1955eko Urtarrila-Otsaila).

Zalantzarik gabe, herrikideak ziren arren –hamar urteko aldearekin– Gaizka eta Iokin Zaitegiren arteko desberdintasunik sakonena bata eta bestearen bizitza moduan eraikitako heziketan zetzan, Gaizkak baserritar iturrietatik edaten zuen bitartean Zaitegi «señorito» bat zen, hitzaren adierazpenik borobilenean.

Mesedeetako mojekin urtebete bat eman ostean udal eskolara igaro zen Gaizka sei urterekin. Eta laster lehen jaunartzea egitea egokitu zitzaion, Arrasateko parrokiara, garaiko abaderik estimatuenak Jose Joakin Arin erretorea eta Jose Markiegi (2) izan zituelarik. Jaunartzea burututa, Markiegirekin ekin zion eliz mutil lanari eta haren eragina handia izan zen herriko neska- mutikoak euskal kulturaren ildotik zuzentzeko orduan. Adibidez, 1927ko irailean Arrasaten ospatutako Euskal Eguna edo Euskararen Eguna izan zen, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia eta Euskeltzaleak erakundeekin antolatua. Gaizka Barandiaranek esku hartu zuen, hamaika urterekin, eta Markiegik hautatutako irakurgaiak publikoaren aurrean esan zituen. Hirurogeita hamar urte beranduago Gaizkak oroitzen zuen:

Bukatu zen Azokako jaia eta bazen hantxe jende gazte pilotxo bat eta oso gartsua zidudien, haien txalokada halakoxea zen eta. Gazte haietako batzuek amen batean aupaka jaso ninduten.

Eta Jose Markiegi bera izan zen Gaizka jesuiten bidetik abiarazteko lehen saioa egin zuena, herriko apaizak eraman baitzuen mutikotxoa Durangora. Eta Antonino Atutxa zeanuritararekin elkarriketatu ondoren komentuan onartu zuten Gaizka, 12 urterekin. Lau eman zituen Durangon eta Bigarren Errepublikaren sorrera bertatik bizi izan zuen. Nolabaiteko inflexio puntutzat jotzen zuen Gaizkak une hura, abertzaleekin lerrotu baitzen. Eta jarrera hori ez zuen bizitza osoan aldatuko. Euskaltzale izateari aberztaletasunetik eustea eta elikatzea erabaki zuen, eta baita deliberamendua praktikara eraman ere. Euskararekin ez ezik, dantzak ikasteari heldu zitzaion.

Batxilergoa amaituta Belgikako Tournaira aldatu zen eta nobiziagoko bi urteez gain Gizabidea, Hizkuntzak eta Zientziak ere ikasi zituen. Hizkuntza klasikoen ikasbidean esfortzu ugari eman zituen... baina, berak sarritan esan ohi zuen moduan, garai hartako ahalegin guztiak ongi inbertitutzat zeuzkan, euskararekin lan egiteko aukera ezin hobea ikusi baitzuen:

Gerkerazko ikasketak barruaz samintzen ninduen eta asuna bezain bizerregarria gertatzen zitzaidan. Beti nengoen pentsatzen euskaraz larre-hizkuntza izatetik kultura-hizkuntza izatera pasatu ahalko genuen

dio bere biografian.

Homeroren *Iliadaren* itzulpena testuinguru horretan kokatu behar da, maila horretako lanak bere bizkar hartu beharrean zegoela uste baitzuen Gaizkak. Hogei urte zituela ekin zion Homerorena euskaratzen. 1936-37ko ikasturtean *Iliadaren* zazpi kanta itzuli zituen. Garai hartakoa da Gaizkaren adiskidantza Aita Estefaniarekin. Bien artean itzuli zituzten frantsesera Lizardi eta Orixeren zenbait poema, josulagunek Parisen argitaratzen zuten «Etudes» aldizkarian atera zirenak. Izena egiten ari zen Gaizka euskaltzaleen artean eta horrek ere Aita Jose Agirre-Zeziagarenganako aukera ahalbidetu zion Tournain bertan.

(2) Aipatu bi abade horiek eta Leonardo Guridi fusilatua izan ziren 1936an.

Musikan ere aurrera egiteko parada eskaini zion Belgikako egonaldi hark. Hiri hartan Azkueren hamar euskal kantaren koadernoak aurkitu zituen eta handik aurrera egunero saiitzen zen melodia haietaz zein hitzen esanguraz jabetzen. Euskal dantzetan ere aurrera pausoak eman zituen, poliki-poliki apunteak hartuz ziholarik, urte batzuen buruan hain obra garrantzitsua izango zenari abiapuntua ipiniz.

Eta Tournain ezagutu zuen pertsonalki Iokin Zaitegi herrikidea ere, garai hartan –Venezuelatik bueltan– Marneffen teologiako ikasketak burutzen ari zena. Eta bi nortasun ausart haien uztarketatik emaitza aberatsa sortu zen, bien arteko lankidetzaz zintzoa elkarri agindu ziotelarik. Tournairaino heltzen zen Marneffeko euskal taldearen oihartzuna, eta gazteagoek zin egin zioten Zaitegik, Agirre-Zeziagak eta gainerakoek adierazten zuten izpirituarekin bat zetozela.

Baina espainiar gerrak haustura ekarri zuen, nola gainera!, gazte sutsu haientzat. Haietako askok, beldurrak eraginda, bertan behera utzi zuten euren asmoa eta Konpainiaren uneko tronpetaren martxara egokitu ziren, buru makur. Gaizkak, ordea, aurrera egitea erabaki zuen, zuhurtasunez, hori bai, izan ere itsumustuan jotzeak betiko galera adieraz zezakeen. Une itzel haietan ezagutarazi zion Aita Estefaniak Arrasateko Arin, Markiegi eta Guridi abadeak fusilatu zituztela. Albiste gogorra, bere lanaren birtartez Ad Maiorem Dei Gloriam ez ezik baita Euskal Herriaren eta horren kulturaren aintzaz saiitzen ari zen gaztearentzat.

Hurrengo ikasturtea Marneffera joan zen Gaizka filosofiako ikasketak egiteko baina urtebete bat bakarrik egin zuen han, Konpainiak Espainiara bidali baitzuen, Oñara. 1938an soldadutzara joan behar izan zuen, Bartzelonara. Gerra amaituta osteraz itzuli



zen Oñara. Filosofiako ikasketak amaituta Xabierrea bidali zuten, maisutza egiteko. Nafarroako egonaldi hura primeran etorri zitzaion Gaizkari, alemana ongi ikasteaz gain txistuaren sekretuetan barrena egin baitzuen. Folkloreari helduta ere, nafar dantzak jasotzen saiatu zen. Noski, euskalgintzako lehengo betebeharrak ez zituen ahaztu eta *Iliadaren* itzulpenekin jarraitu zuen.

Xabierretik Oñara bidali zuten Gaizka 1944an, Teologia egin zezan. Hala egin zuen eta bitartean Salas de Bureba herriko erretoreak eskatu zion bertako eta inguruko dantzen bilduma gauzatzea. Baita horrela egin ere.

Oñako San Salvador elizan apaiztu zen Gaizka, 1947ko uztailaren 27, 28 eta 30ean burutu ospakizunen barruan, Zenon Aranburu gotzainak eskuak jarri zizkiolarik. Hilabete bat geroago, abuztuaren 24an, meza berria eman zuen Arrasateko parrokian.

Ikasketa guztiak amaituta Tuteran izan zuen Gaizkak lehen lantokia. Ordurako Konpainiaren barne txostenen arabera Barandiaran «regionalista exagerado» bide zen. Eta Tuterako ikastetxean mutilen begirale ipini zuten, lan gris batean hain zuzen, nolabaiteko zigor gisa. Gaizkarekin, ordea, ez zihoan bat etsipena ezta amore ematea ere eta Tuteratik sekulako lana irradiatu zuen Erriberako herrietara: Murtxante, Kaskante, Milagro, Kortés eta abar luze bateko folklorea jasotzen ahalegindu zen hamalau urtetan zehar.

Tuteran filosofia irakasten zuen eta lan horrek ateak ireki zizkion itzulpengintzan segitzeko. Kant, Aristoteles, Sokrates, Seneka, Heidegger, Scheler eta beste filosofo askoren obra ikertu ahal izan zuen, geroko lanetarako gaia emango ziona. Eta iturri originaletatik irakurri ahal izateko hizkuntzak sakon ikasi behar izan zituen. Euskara, gaztelania, frantsesa, ingeles, aleman, hebreera, greziera, latina, errusiera eta katalanaz irakurtzeko eta hitz egiteko gai zen. Ez zen makala, ez alajaina, Marko Etxeberriko babesetik mundura atera zen gizon haren formazioa!

Homeroren *Iliasena* guztiz itzuli zuenean –gogoratu Tournain bukatu zituela aurreneko zazpi kantzak– liburu gisa argitaratzea otu zitzaion baina ez zuen laguntzarik lortu. Hori horrela, bere kabuz egitea erabaki zuen. Rafael Moneo ikasle ohiari eskatu zion liburua bere irudi eta marrazkiz apaintzea eta 1956ko maiatzean kaleratu zen liburu hura:

Azkenik irten zan nire adimeneko lehen semea. *Iliasena*, merezi zuen, bada, Home-
rek eta euskarak

idatzi zidan behin. Eta liburuaren hitzaurrean honela irakur daiteke:

Gaur, erabat, euzkera'k apaingarri berria jantzi du ta zeñen ederki dagokion, gero!
Euzkera, ba, gerkerba bezañ zarra, gerkerba bezañ agurgarria duzu. Ta euzkera ta biyek aldi
antxiñakoak diranez askotan asmo bateko ta gogo berdiñeko ageri dira.

«*Iliasena*»-ren agerpenak euskal zirkuituetan denetariko kritikak ekarri zituen, kolore desberdinetakoak. Orixe-k, adibidez, eginiko itzulpena laudatzen zuen bitartean, Mitxelena jipoi ederra eman zion. Honela zioen errenteriarrek:

Ollarrak goizegi jo digu, eguna argitu baiño leen. ..Iliada inork itzuli nahi badu aur-
kituko du laguntza Aita Barandiaran'ek egin duen lan izugarrian. Baiña oraindik itzultzeko
daukagu (3).

(3) Michelena, L. *Egan* 1956 (3-4 zenbakiak) 102-105. orr.

Baina Gaizka ez zen kikildu Mitxelenaren iritzi eta isekarekin:

Nire aierua zera da, ausaz, aurrea hartu niola Mitxelenari ustekabeko lan horrekin

esan zidan bere biografian. Egia da, nolana ere, lehen Zaitegiren Platon, Sofokles, Euripides eta beste klasiko batzuen itzulpenekin gertatu bezala, euskal gizartea ez zegoela Homeroren irakurgaietarako. Barandiaranek, ordea, horretan ere Zaitegiren kas-ta gogorrekoa, azken hatsa eman arte –eta mende erdi bat igaro zen Iliasena kaleratu eta Gaizkaren heriotza gertatu arte– bere itzulpenekin eta greziar zein erromatar filosofoen obren ikerketarekin jarraitu zuen, «merkatuak» zer eskatzen zuen eta bere eskaintzari zer jaramon egiten zion ezagutzeak bost axola ziolarik.

«*Iliasena*»-k, berriz, kanporako atea ireki zizkion Gaizkari, Alemaniako gonbi-ta jaso baitzuen 1964an eta Mainzen egon zen denboralditxo batez. Israeli buruzko ikerketak egiteko aprobetxatu zuen. Horretaz lan egiten jarraitu nahi zuela eta Konpai-niari egin zion eskabidea Alemanian geratzeko baina ezetza jaso zuen. Temati bere jar-reran, Innsbruckera aldatzeko lizentzia eskatu zuen eta, haren buru gogortasunaz jabe-tuta nonbait, Ignazioren armadako buruzagiek amore eman zuten. Innsbrucken hiru urtez aritu zen Gaizka, besteak beste, hebreera eta akadierazko (4) gramatikak ikasten.

«*Iliasena*»-k irekitako ildotik Gaizka Barandiaranek bereganatutako ospea dela eta Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1961eko abuztuaren 25ean. Ponte-ko izenaz gain, Aitzarte, Aranargi eta Bertze izenordeak erabili zituen Gaizkak bere lan-etan. Horiék, gehien bat, ASJU, Arbor, RSBAP boletina, Cuadernos de Etnologia y Etnografía de Navarra, Dantzari, Dantzariak, Egan, Euskonews & Media, Euzko Go-goá, Fontes Linguae Vasconum, Goiz Argi, Gipuzkoa, Journal of the International Folk Music Council, Principe de Viana, RIEV, Txistulari eta Zeruko Argia aldizkarietan ar-gitaratu zituen.

Euskal Herrirako bidea hartu zuen 1967an. Irakaskuntza zuen helburu berria, Do-nostiako jesuiten ikastetxean. Euskararekin segitzeko aukera handiagotu zitzaion bai-na, gehien bat, dantza munduko lanari heldu zion, gogoz. Euskal Dantzarien Bil-tzarra bihurtu zen bere bigarren aterpe-lekua, bertatik irradiatu baitzuen indarra, euskal dantzen gaineko teorizazioan. Benetan lan mardul eta bikaina burutu zuena.

Iztuetaren obra ikertu zuen maisuki eta haren jarraitzailerik zintzoentzat zeukan bere burua Barandiaranek:

Gure tradizio koreografikoari utsi behar diogu, desagertzeko zorian egon daitezkeen dantzak zainduz, Iztuetaren denboretatik asko galdu dira eta

zioen bere biografian. Folkloreari eskainitako esfortzuak nolabaiteko errekonozimenduak ekarri zizkion Gaizkari, euskal esparrukoak ez ezik europar mailakoak ere bere-ganatu zituen-eta. IFMC (International Folk Music Council) deritzan erakundeak, adi-bidez, formalki gonbidatu zuen Gaizka kide bezala sartzera. Eta baita berak onartu ere. Hortik etorri zitzaion Euskal Herriko folklorea Mac Millan argitaletxeak argitaratzen zuen munduko bilduman sartzeko enkargua: idazlana burutu zuen Gaizkak.

«Basque Music» izenburupean, azalpen orokor bat egin zuen Barandiaranek Mac Millan argitaletxearen *The new Grove Dictionary of music and musicians* izeneko li-

(4) Akadiera kontzeptuan, babiloniera, asiriera eta abar sartzen dira.

buruan: ezaugarri nagusiak, dantzak eta instrumentuak. Euskal Herriko herrialde desberdinetatik egindako ikerketak euskal musikari buruzko ideia orokorra ematen dio irakurleari. Bestalde, Estatu Batuetako Indianako Bloomingtongo Unibertsitatetik jaso zuen gonbita bertako «member» izateko, musika eta folkloreaken arloan. Orduan hasi zen *Ethnomusicology* deritzan aldizkariarekin lankidetzan. «English Folk Music Society»-k ere Gaizkaren lankidetzara eskuratu nahi izan zuen... baina kasu horretan alferrik gertatu zen Konpainia berriz ere oztopoak jartzen hasi baitzen, eta Donostiako Ikasketexeko irakasleari obedientziaren zina gogorarazi zioten... Eta donostiar gazteentzako grezierako irakasle on bat irabazten zen bitartean nazioarteko folkloreaki buruzko goi irakurleari eta aditu bat sakrifikatzen zuten jesuitek. Zenbat halako gure Konpainiaren historian!

Ordurako Gaizkak hiru liburu argitaratu zituen Añamendi bilduman: *Danzas de Euskalerra I, II eta III* tomoak, 1963 eta 1969. urteetan kaleratuta. 1980an, titulu berdinarekin tomo berri bat atera zuen. Hiru hizkuntzatan idatzia, bakoitzari zati berezia ematen dio. Liburua, aurrekoak bezala, bere osotasunean Markiegi Olazabal sendiari eskaini zion, hau da, umetan euskalgintzarako garra piztu zion abadearen senitartekoei. Liburu berri horren lehen atala, ordea, Arrasaten fusilatutako hiru apaizei eskaini zien. «Folklore Vasco: su meta» titulupean honela idatzi zuen:

Nuestra meta es simplemente que el Pueblo y Nacion Vasca mantengan en vigor su herencia popular. Euskalerra debe perfeccionar su identidad y su personalidad ante los demás pueblos, como éstos deben asimismo por imperativo de la naturaleza misma llegar al cénit de su personalidad propia...

«*Oinekin ere egiten da aberria*» esan zidan behin, dantzak ikasten, ulertzen, interpretatzen eta irakasten zergatik ziharduen galdetu nionean. Durangoko urteetatik bere baitan bizirik zirauen zaletasunean ehundu zuen Gaizkak bere teorizatorik funtsezkoena, egiazko autoritate bat bihurtuta folklore gaietan. Beraren ustez –ziostan argi eta garbi– aberriaren gaineko ezagupideak naturatik, historiatik, filosofiatik, ohituretatik eta gizarte arazoak aztertzeke diren pentsamolde desberdinetatik datoz. Baina baita –azpimarratzen zuen– dantzaren urratsetatik ere eta –*pede libero pulsanda tellus*– hau da, oinak gogoz lur gaina zapaltzen, behetik bihotzera eta adimenera igotzen da pertsonen hatsa. Honela idatzi zuen Gaizkak dantzen gaineko ikerketa lan baten amaieran:

Dantza! Dantza Herria!
Dantza Euskalerra.

Bizkaia, Gipuzkoa
Araba, Nafarroa,
Laburdi, Zuberoa,
Dantza! Herri osoa.

Anboto eta Haizkorri
Gorbea ta Txindoki
Aralar, Orimendi
Dantza! Orain da beti!

Azken urteotako bere ekoizpen berezia, lehen aipatu dudan erbesteratze moraletik gauzatua, Gaizkaren kultura ibilaldiaren islapen adierazgarria dugu. Klasikoan gaineko ikerkuntzatik hasita, grezierazko zein latinezko testuetan oinarritua, filosofiaren alorrean hain murrizta den euskarazko eremua aberastuz. Aristoteles izan zuen, batez

ere, Gaizkak ardatza: «*Aristotel'en Adierazkuntzaz*» Gaur eguneko filosofoei buruzko kritika zentratuan ere aritu zen, luze aritu gainera, *Filosofika* eta *Gauzaki Izaki Gizaki* (5) liburuki marduletan egiazta daitekeen moduan: Heidegger, Kiekegaard, Jaspers, Sartre eta beste filosofo handiekin. Zer esan, berriz, Israelgo mitologiak eta izaeraz eza-gutzen zuenari buruz? Maitemindua zegoen, zeharo, hebraieraz eta Israelgo kulturaz. Horra hor, adibide gisa,

Yahweren Irazkuntza ta heberkel Mitologia» «Ezker-eskumia: Israel'en Kultur Oinarrria edota «*Zuhaitz gurgarriak Israelen*» bere lan interesgarriak.

Horiezaz gain, Gaizkak bere iturburuetara itzuli nahi izan zuen bere azken hila-beteotako langintzan eta «*Saski Naski*» titulatu zuen bildumako hiru tomoak prestatu zituen. Dantzak, hizkuntza, artea eta musikari eskaini zizkion ordu ugari, xehetasun bikaina erabiliz. Eta, azkenik, niri helarazten zizkidan bere idazki enkuadernatuetatik nire gustuko gaiengatik gehien hurbiltzen zaizkidan beste bi aipatu behar ditut, derrigorrez: «*Tres mitos vascos*» (euskaraz eta gazteleraz) eta «*Folklore eta gizartea*»

Jarraian irakurriko ditudan esaerak Karmele Barandiarani zor dizkiogu, Gaizka-ren lobari, hain zuzen. Bere osabaren karta astrala egin ondoren idatzi zituen, artean Gaizka bizi zela. Zuzen-zuzenean noa mamira, aditzaren denborak aldatuz iragana adierazteko:

Dantza eta musikarako Gaizkaren zaletasuna intuizio, irudimen, ontasun eta sentsibilitatez zegoen apaindua eta komunikatzaile bezala lehen mailakoa gertatu zen.

Bere izaera apartak erlijio, mistizismo eta filosofiarekiko gaitasun bereziak eta horiek agertzeko behar inperatiboa eman zizkion. Herria ere bereziki eta sutsu maite izan zuen. Herriarekiko sentimenduak ozenki eta aho betez adierazteko premia sentitzen zuen.

Mentalki zabala, aurrerakoia zen Gaizka, teknologia berri eta zientzi ikerketen hartzaile ona; ideia edo esangura ziztu bizian harrapatzen duten horietako gauen. Bere burua beti erne edukitzen zuen. Pentsalari originala, berezia, librea, inolako loturarik gabeta eta horren kontrakoa, analista kritiko eta sakona. Komunikatzaile ona genuen, hizlari nekaezina, eta argudioduna izateaz gain kementsu eta indartsu adierazten zuen berea. Idazteko gaitasun berezia eskaini zion naturak.

Afektiboki askea zen eta askatasun hori babesteko mugak jartzen bazekien. Afektibitate osoa lanerako eta entusiasmoz sartzen zen horretan; zertxobait geratzen bazitzaion eskaintzeko naturari eta animaliei egiten zien (6). Beste maila batean humanista bezala liberraten zuen arimaren behar afektiboa.

Gure barneko gozamen adierazgarri bezala hartzen den Venus planetaren antzera, Gaizkak ere bide luze eta bakartia egin behar izan zuen. Helburu argia jarrita, mailaka-mailaka, kostata eta aurrean aurkitu zituen haizeen kontra, muga guztien aurka joan behar izan zuen bere barneko deiarri erantzuna emateko (7).

(5) Ikerketa lan honekin *Andima Ibiñagabetia* Saria irabazi zuen. Mensajero, 1989.

(6) Tournain, espainierazko literaturako klase batean «La mosca» gaia hartuta testu bat idatzi behar izan zuen. Irakasleak honako oharra jarri zuen idazkiaren amaieran: «Está bien. Es Vd. observador. Yo creo que vale para naturalista. Observaciones como éstas las tenía, preciosísimas, nuestro Granada. ¡Por algo se empieza! ¡A ver si alcanza con el tiempo al ilustre Fray Luis!».

(7) *Gaizka Barandiaran. Bere bizitza eta lanak* 1997. Josemari Velez de Mendizabal. 79-81 orr.

Nik uste dut bikain islatzen digutela aurreko hitz horiek Gaizka Barandiaranen nortasuna. Nik, Karmeleren eta bere sendiaren baimenarekin, sendiko beste nolakotasun pare bat gehituko nioke hain deskribapen zehatzari: apaltasuna eta eskuzabaltasuna. Gaizkari 2005eko maiatzaren 15ean Gipuzkoako Diputazioaren Jauregian omenaldi bero bat eskaini zioten Euskal Herriko Txistularien Elkarteak eta Euskal Dantzarien Biltzarrek. Bertan hitzaldiño bat egokitu zitzaidan ematea eta nire orduko hitzetan, batez ere, apaltasuna eta eskuzabaltasuna azpimarratu nituen, horiexek izan baitziren gure adiskidearen zehazkizunik nabarienak. Seguru nago, sendiko ikurra dela.

Amaitu behar dut gaurko hitzalditxo hau. Ene ustez, Gaizkarekin estilo aurrerakoi, kulture, euskaldun, berritzaile eta sentikorra gozatu genuen, berak jorrotutako esparru guztietan. Hortxe daude bere testuak frogatzeko. Ez dut gaurko mintzaldi hau lanen zerrenda bat bihurtu nahi izan. Horretarako daude bibliografiak. Barandiaran maite izan nuen eta berak ere sentimendu berberarekin ordaindu zidan. Sarritan komentatu dudana bezala, sekulako ohorea izan da niretzat Iokin Zaitetik eta Gaizka Barandiaranek ni euren laguntzat hartzea. Bizitzak eskainitako oparirik ederrenetakoa izan da hori.

Horregatik gaurkoari azken puntua ipini aurretik, zilegi bekit Iokinek Gaizkari eskainitako «Omer'i» olerkiaren zati bat gogoratzea:

Barandiaran Xalbador S.J «Ilia'rena» euskeratu digun euskal idazle bikainari biotzez (8) hitzak nire egiten ditudalarik. Gaur, Gaizka, lehen apalarekin geratzen naiz. Edukiko dugu beta gainerakoetaz elkarrekin hausnartzeko:

Oleri ederraren guraso iatorra,
biotzondo andidun irakasle, agur!
Biotz begietan zaut, agure bizkorra
ereinotz-burestunez bekokia makur.

Egun handira arte Gaizka!

Josemari Velez de Mendizabal

(8) «Berriz ere goldaketan» 1962. 53. or.

JOSE MARIA ETXABURU ETXABURU (1913-2006)

Jaun-andre euskaltzainok,
Jose Mari Etxaburu zenduaren senide eta adiskideok,
agur t'erdi guztioi.

1. SARRERA

Ondarroako semea izanik eta ondarroar euskaltzain bakarra naizenez, niri egokitu zait oraintsu zendu den Jose Mari Etxaburu herritarrari omenezko hilberri-txosten hau eskaintzea eta zuen aurrean azaltzea. Euskaltzaindiak azken agur hau egiterakoan «Kamiñazpi»ri, harekin duen zorra kitatzera datorkigu, euskararen alde egin zuen lan isil, neketsu eta oparoa eskertuz. Ondo merezia du gaurko omenaldia, 1966ko azaroaren 25ean euskaltzain urgazle izendatuz, euskarari hainbat mesede egin dion idazle honek. Atseginez jaso nuen Euskaltzaindiko deia eta eskariari ezin nion ezezkorik eman; beraz, poz handiz emango dizkizuet nire herritarraren bizitzako berririk nagusienak; hala ere gauza pare bat baino ez dut agertuko haren omenez. Arrapaladan eta ia itsumustuan prestatutako hitzalditxo honek ez du balio handirik izango baina ohore handia da niretzat guztion erakundearen izenean eta Bilboko egoitzan azken agurra egitea ondarroar zintzo honi.

Esan beharrik ez dago pozik azalduko ditudala haren gomuta batzuk nire haurtzaro eta gaztarokoak baitira biok koruko abeslariak izan ginen, ni triple bakarlaria eta bera bigarren tenorra, eta urte batzuk beranduago elkarrekin «korda» horretako partaideak. Zenbat aldiz ez ote genituen abestu gure parrokiari Bixente Goikoetxea, arabar musikagilearen 3 ahotsentzako eginiko Meza, eta Lorenzo Perosiren lehen eta bigarren «Pontifical» eder haiek.

65 urte joan dira elkar ezagutu genuenetik; hots, 1942an ikusi nuen lehenengoz gure Joxe Mari «Belero» eta urte batzuk beranduago ezagutza sakonagoa egin ondoren, konturatu nintzen itsastarron artean sarritan nabarmentzen ez den apaltasanaren bertutearen jabea zela. Ez zen Jose Mari, txalo, ohore, ospe eta botere bila ibiltzen zen horietakoa; bai, ordea, gizon umila eta isila; pertsona ona eta adiskide leiala; kristau zintzoa eta bakezalea: «*sekula ez naz izan tiro, matxinada edo guda zale*», dio bere liburuan, *Neure lau urteko ibillerak* (21or.); gurasoengatik haurtzaroan ikasitako erlijioak eta Antiguako Ama Birjinarekiko maitasunak haren bihotzean bizitza guztian iraun zuten; abertzale fina eta euskaltzale amorratua, halaber hizkuntzarekin batera bi-ziro maite zuen euskal kultura zalea; langile porrokatua eta zehatza; berriro esango du: «*sekula ez naz izan lanari iges egitekoa*» (ibid.27or.); lagun zentzuduna eta zuzena; xaloea eta inolako tolesturarik gabea; bereari eusten zekiena baina ez inolaz ere setatia

eta egoskorra; indarkeriarik eta hilketarik inoiz onartu ez zuen abertzalea; musikarako oso trebea eta kanturako ahots gutxikoa baina belarri guztiz onekoa; gizartean herri-gizon eta etxean bere familiari erruz atxikia; labor bilduz: artisau lanak zehazki egiten zituzten Erdi Aroko lekaideen antzekoa. Bere apaltasunean gizarteak urri ematen dituen gizaki eredu-garri horietako bat.

2.1. Bizitzako zertzeladak

Jose Mari Etxaburu Ondarroan jaio zen 1913ko irailaren 23an eta Hondarribian zendu zaigu 2006ko abenduaren 28an; beraz, 93 urte eman ditu mundu honetan: 49 Ondarroan, 4 erbeste eta Francoren espetxeetan eta azken 40ak Hondarribian, Juanita Igiñiz bere emaztearen herrian. Ondarroa bere jaioterrria inoiz ahaztu ez bazitzaion ere Hondarribian egin zuen azken habia. Haren gurasoak, Ezekieli eta Prudentzia, ondarrorarrak izan ziren eta era berean Jose Mari eta Juanitaren bost seme-alabak. Sei nebarreben artean gazteena izan zen eta mutil bakarra. Aita, arrantzalea eta belagilea zen; arrantzan eta itsasontzien oihalak konpontzen ematen zituen epe luzeak; hortik dator kio gure idazleari «belero» familiako ezizena. Haurtzaroko lehen ikasketak Gurutzeko Alaben kongregazioko eskolan, Sor Luzia lekaiarekin egin zituen Augustin Zubikarai eta Andoni Basterretxea (gaur egun oraindik bizi den apaiza) ikaskide zituela. Ikastetxe honetan etxeko euskara lantzen hasi zen *Kristau Ikasbidea* liburuxkaren bidez, baina beranduago eskola publikora Leibar maisuarengana aldatu zenean, ez zuen horretarako betarik izan, dena gazteleraz irakasten baitzen Monarkia garai hartan. 1922an, euskara, euskaraz mintzatzea eta euskal kantak abestea galarazita zeuden ondarror irakatsle honen eskolan; aitzitik, haurrek honelako kantak abesten zituzten:

*Salve bandera de mi patria. Edo
Soldado soy de España,
y estoy en el cuartel,
contento y orgulloso,
de haber entrado en él.*

(Ondarroa'ko Kontuak: 12)

Hamar urte bete zituenean solfeoa ikasten hasi zen, eta bi urte beranduago eskola utzi eta Bartolomeo Scola italiarraren arrain kontserba-fabrikari hasi zen lanean. Hamalau urterekin herriko bandan sartu eta saxofoi altua ikasten jardun zuen, Juan Izeta elgoibartarraren zuzendaritzapean, eta urteak joan ahala bandako partaiderik onenatarikoa izatera iritsi zen.

Euskararenganako atxikimendua gero eta sakonago egin zitzaion eta aurrerapen handiak egin zituen Euskal Herriko familietan eten gabe irakurtzen zuten, eta euskal kazetaritzan aitzindari izan zen *Argia* donostiar astekariaren bidez. Jose Mari autodidakta izan genuen eta urte luzeetako jardunari esker, ekinaren ekinez, oso gazterik (hogei urte bete baino lehen) *Ekin* Zornotzako astekarian bere lantxoak argitaratzen hasi zen Errepublika garaian, «Iturriondo» izenordearekin. Herri euskararen aldeko apustu garbia egin zuen hasiera-hasieratik eta, zer esanik ez, Ama-Lurraren hizkuntzaren militantea izan zen hil arte. Biziro maite zituen herri xumearen kultur adierazpen xeheak, batez ere itsasertz girokoak.



2.2. Guda zibila (1936-1939) eta Atzerria

23 urteko mutil gazte honen bizitza goitik behera aldatu zen F. Francoren matxinadarekin. Osasun arazoak zirela-eta ez zen anaiarteko gudara joan, baina Euskal Herriko Iparraldera itsasoz ihes eginbeharra izan zuen bizia salbatuko bazuen eta atzerrira abiatu zen senide batzuekin. Bereak eta bost jasan behar izan zituen, batez ere Landetan, urtebetean: gosea, neguko hotzak, lan gogorrak, eskasia, herrimina eta abar. Hona hemen haren *Neure lau urteko ibillerak* liburutik jasotako argibide interesgarri batzuk:

«Baïña zelako bizimodua gurea! Prantzia'n ez geunkan bizia aurrera ataraterik; Espaiña'ko gudeak ez eban amaitzeko itxurarik, eta beste guda andiagoren baten bildur zan jendea. Sekula biurtuko ete giñan gero etxera?» (74 or.). «Aldi txarretan jaio giñala esaten genduan, munduan gudarik gogorrenak ziran denporetan» (109 or.). «Ango jendeak ez ginduzan ondo ikusten» (104 or.). «Abarketa narrua jateko aiñako gosegaz jagiten giñan maitik» (67 or.). «Europa'n ez egon gauza onik eta gertu jarri nintzan Atlantiko itxaso andiko urak igaroteko» (88 or.).

Erbestean ia 4 urte eman behar izan zituen, harik eta Hego Euskal Herrira itzuli arte.

Donibane Lohitzunen eta Ziburun igarotako urteak oso gogorrak eta kaltegarriak izan ziren haren osasunerako; are gehiago, Landetan eman zuen denboraldi luzea pinu mozketan. Arestian aipatu dugun liburuan, «Piñuetan» izenburupean agertzen den atal luze eta interesgarrian, ikus ditzakegu nolako neke, atsekabe eta oinazeak jasan behar izan zituen. Barealdi gozo eta hunkigarri batzuk ere izan zituen, adibidez: Iñaki Eizmendi «Basarri» bertsolaria, Pedro Mari Otañoren bertsoak kantatzen entzutea eta Tomas Garbizu musikari ospetsuaren ezagutza egitea.

2.3. Espetxeak eta lan behartuak. (1939-1940)

Muga igaro bezain pronto atxilotua izan zen eta hainbat kartzelatan espetxeratua (Burgos, San Pedro de Cardeña, Miranda de Ebro; geroago «Trabajadorietan» lan behartuen zerrendan, zubiak, tunelak eta metrailadoreen habiak eraikitzen, Gaintxurizketa, Aritxulegi (Gipuzkoa) eta Baztango Arizkun eta Errazu herritxoetan jardun zuen. Hemen ere ez zen egonean egon, ez zekielako alferkerian egoten. Honela mintzo da Jose Mari:

Trabajadorietan be, al neban guztia egiten neban, eguneko alogera errialtxo bat bakarrik izan arren (ibid. 77or.).

3. ONDARROARAKO BIDEAN

Zortzi hilabete «Trabajadorietan» eman ondoren, heldu zitzaion askatasun eguna Jose Mariri ere, Victoriano Fernández, Infanteriako Komandantea eta 87. Batailoiko buruaren agindu baten bidez: «Certifico que José María Echaburu Echaburu...marcha libertado en virtud de Orden número 19.267...Y para que conste, expido en Rentería a 23 de Octubre de 1940» (ibid. 171).

Sorterrira heldu baino lehen egonalditxo bat egin zuen, Donostiako Okendo kalean bizi zen bere arreba Mertzedes ikusi, eta bidenabar han ezkutatuta utzi zituen liburuak jasotzeko, ez baitziren nolanhiko bizilekua eta liburuak: hots, arrebaren ugazaba Ramon Serra Gipuzkoako Gobernadorearen etxea, eta Sabino Aranaren: *Bizkaya por su Independencia*; «Aitzol»-en: *La democracia en Euzkadi*; Elías Gallastegiren: *Por la libertad vasca*; eta antzeko liburuak.

4. EUSKALGINTZA JAIOTERRIAN

4.1. Euskal Alfabetatzearen aitzindari

Gerra osteko 40ko hamarkadan Ondarroa herri euskaldunean euskara debekatuta eta gutxietsita aurkitzen zen. Zapaldurik eta zigorturik zegoen hizkuntzari irtenbide bat ematen ahalegindu zen Jose Mari. 50ko hamarkadan, frankismoaren ekaitz gogor eta bortitz hori, apurtxo bat leuntzen eta baretzen hasi zen; beraz, 1957an «*Kamiñazpi*»k, bere familia bizi zen auzoaren izena izengoitizat hartuta, *Zeruko Argian* idazten jardun zuen. Haren lan zabal eta zehatzen aztarnen lekuko honako aldizkari, astekari eta egunkari hauek ere badituzue: *Agur*, *Anaitasuna*, *Ekin*, *El Bidasoa*, *El Diario Vasco*, *Euzkadi*, *Euzko Deya*, *Goiñ Argi*, *Jakin*, *Karmel*, etab. 60ko hamarkadan eten gabe eta buru-belarri aritu zen euskerazko lanetan; hazia ereiten hasi zen: euskal ikastaroak antolatzen, eskolak ematen eta horrez gainera, eskola horietarako material didaktikoa prestatzen; euskararekiko konpromiso sendoa hartu, euskara irakasteaz arduratu eta euskararen aldeko lan isil bezain astunaren aukera egin zuen. 1960ko hamarkadaren hasieran ez zegoen ikastolarik Ondarroan, lehena 1967an ireki baitzen. 1960an Euskaltzaindiaren izenean Alfonso Irigoienek 10 eta 13 urte bitarteko haur euskaldunentzat

lehen sariketa antolatu zuen Bilbon helburu batekin: euskal irakurketa eta idazkeraren hobekuntza lortzea.

Hurrengo urtean, 1961ean, Euskaltzaindiak Bilboko esperientzia Artibai eskualdera zabaldu zuen Ondarroan herriko 20 umerentzat azterketa bat antolatuz. Esperientzia arrakastatsua izan zen eta horren berri M.A. Astiz kazetari nafarrak dakarkigu Bilboko *La Gaceta del Norte* egunkarian:

«Era una delicia ver a aquellos niños y aquellas niñas rezar y cantar y charlar con el tribunal en un vascuence puro y popular a la vez, y leer correctamente trozos de la obra del ondarrés Aguirre “Kresala”, libres ya del analfabetismo del vascuence. ...Se debe felicitar al señor Echaburu que ha preparado a la casi totalidad de los niños presentados a este concurso...»

(I. Oruamazaga Ondarroa 2002: 107-108, 110).

Kazetariaren esaldi eder honi erantsi behar zaio haur guztiak «Kamiñazpi»k presatatu zituela lehiaketarako.

Baina euskararen suspertzaile sutsu hau ez zen geldirik geratu, aurreko urteetako arrakastaz gozatzen. 1964an, Txomin Agirrerren jaiotza urtearen lehen mendea ospatzen zela-eta, gau eskolaz antolatu zituen, José Santos Reiriz, «Celedonio Arriola» eskola nazionalerako zuzendariaren baitzenaz baliatuz. Hura izan zen zinez euskararen sorospidean Ondarroako herriak Francoren garaian ezagutu zuen bikoterik bereziena: ondarroar euskaltzale porrokatua eta galiziar falangista amorratua euskararen alde elkarlanean ikustea. Gauza bitxiagorik ikus al daiteke? Harrigarria ere bada 12 urterekin eskola utzi, eta 18rekin gramatikako artikulua zer zen ez zekien pertsona batek, euskal ikastaroen arduraz jabetuta, material didaktiko gisa euskaraz idatzitako 94 orrialdeko *Apunteak* (1963) prestatzea; eta hurrengo urtean 40 orrialdeko *Apuntes de Gramática Vasca* (1964) plazaratzea. Etenik gabe jarraitu zuen euskarari buruzko lana musu truk eskaintzen. Euskara zehatza, irakurterraza, jatorra, bizia, aberatsa, argia eta txukuna zuen gogoko. Zenbat ordu ez ote zuen eman ondarroar haurren esaldi traketsak (adibidez: *goazen gatxin, ikusi tzut* eta holakoak) zuzentzen! Haren metodologiaren zutaberik nagusia ikasleari euskara gustagarri egitea zen. Baina «Kamiñazpi»ren ekarpena ez zen horretan agortzen; beste era batera ere lan egin zuen euskararen alde. Oiartzungo Lekuonatarrek hainbat aldiz aipaturiko ahozko transmisioaz baliatuz, arrain-kontserba fabriketako emakumeentzat, *Ondarru'ko bertso eta abestiak* (1981) liburua prestatu zuen; alegia, 184 orrialdeko lan interesgarria zinez, euskal tradizio zaharrak gordetzeko tresna zoragarria. Lan hauen guztien ondorioz, 1966ko azaroaren 25ean euskaltzain urgazle izendatu zuen Euskaltzaindiak, berari zegokion agiria emanez. Ondo merezitako lan eskergaren ordaina!

4.2. Literatur lanak

Euskara bakarrik ez zuen landu «Kamiñazpi»k; beraz, beste alderdi bat aipatu gabe ezin dugu bukatutzat eman lantxo hau. Bazuen Jose Marik beste ezaugarri bat, behar bezainbat azpimarratu ez dena. Egia da gramatika gaiak jorratzea maite zuela batak bat, baina artikulua ugari eta liburu batzuk ere idatzi zituen. Euskal literatura biziki maite zuen eta Irungo lehen literatur lehiaketako sari nagusia jaso zuen «Errijaiaik eta San Martzialgo Alardea» lanagatik. Haren literatur zerrendan bost liburu nabarmentzen

dira. 1. *Ondarroa'ko Kontuak* (1995). Egileak bere herrian izan zituen oroitzapenak kontatzen dizkigu «Auspoa» (226 zb.) bilduman agertzen zaigun liburu honetan. Bere ohiko apaltasunaz honela mintzo da:

...nik egin dodan idazlan au ezin artu daiteke kondaira liburutzat». A. Zavala, ordea, ez da iritzi berdinekoa eta hau dio: «Liburu onek bide berri bat zabaldu dezake... gure kondairaren eta hizkuntzaren mesederako».

2. *Neure lau urteko ibillerak* (1989) Etor argitaletxeak Auspoa (199 zb.) bilduman plazaratu zuen eta anaiarteko gerra garaiko oroitzapenen kontaketa da. 3. *Neure idazlan bilduma* (1991, *Itxaropena*); 119 orrialdeko liburu honetan, 1960ko eta 1970eko hamarkadetan lehen aipatutako euskal aldizkarien zerrendan idatzitako artikulua aurki ditzakezue. Beraien artean *Goiz Argi* eta *Agur* azpimarratuko nituzke kopuruaren arabera, baina inolaz ere baztertu gabe *Anaitasuna* eta *Zeruko argia*. 4. *Ondarribiako Kondaira* (1986, *Itxaropena*). 1966an seme bati tokiz aldatzea komeni zitzaioela-eta, emaztearen herrian jarri zuten bizilekua. Baina han ere ez zen geldirik egon eta liburu hau argitaratu zuen, herri polit honen historia, monumentuak eta inguruak txukun aztertuz. 5. *Txolintxu* (1972, *Edili*); 58 ipuin laburrekin osatutako liburuxka polit honen berri honela ematen digu egileak:

Ipui abek geienak erritarrak dira... geienok, PAN PIN'go bizkaitar orrian argitaratu nituan Euskal ikastoletako umeentzat irakurgai geiegirik ez dala ta, guziak bildu ta, liburu-txu bat egitea bururatu zait.

Horra hor gure Jose Mari gizon apal eta euskaltzale finaren testamentua: haurrak, euskara eta Euskal Herria.

88 urte zituela 2001eko abenduan Hondarribiko Udaletxeak eskainitako omenaldi hunkigarrian, bere etxeko eta lagunez inguratutik, herriko eta Ondarroako alkateen opariak jaso zituen. Har itzazu, Joxe Mari, gaur omenaldi bero honetan ere gure zorionik beroenak Euskaltzaindiaren izenean, eta familiak onar ditzala gure doluminik sentituenak.

Agur lagun! Egun handira ae!

Gorka Aulestia Txakartegi

AKATS-ZERRENDA/FE DE ERRATAS

OHARRA

«**ELIZA ETA EUSKARA. *Jagon jardunaldietako txostenak***» izeneko separata eta, horren jatorrietako bat den *Euskera*, 2004, 2 dela eta, azalpen hau eman nahi du Euskaltzaindiak: «Gasteizko apaiztegia eta euskara gerra aurretik / El seminario de Vitoria y el euskera antes de la guerra civil» izenburuaren barruan ageri diren *Mateo Múgica Urrestarazu (1870-1968)* eta *José Miguel Barandiaran (1889-1991)* lanak ez dira Andres Ibañez-enak, Gorka Aulestia Txakartegi euskaltzain urgazlearenak baizik, «Hamaika Bide elkarte»rentzat egin zituenak, argitaratzeko edo interneten jartzeko.

Euskaltzaindiak barkamena eskatzen die lan horien egileari eta irakurleei, lanen egiletasuna argi eta garbi utziz.

Euskaltzaindia
Bilbo, 2006ko urria

* * *

NOTA

En relación con la separata «**ELIZA ETA EUSKARA. *Jagon jardunaldietako txostenak***», y la revista *Euskera*, 2004, 2, de donde se reprodujeron los artículos en ella incluidos, Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca hace constar que bajo el título «Gasteizko apaiztegia eta euskara gerra aurretik / El seminario de Vitoria y el euskera antes de la guerra civil», aparecen dos trabajos denominados *Mateo Múgica Urrestarazu (1870-1968)* y *José Miguel Barandiaran (1889-1991)*, cuyo autor no es D. Andrés Ibañez sino D. Gorka Aulestia Txakartegi, académico correspondiente de esta Institución, que los realizó para el grupo «Hamaika Bide elkarte» para ser publicados o reproducidos en internet.

Euskaltzaindia presenta sus disculpas por este error tanto al autor de los textos como a sus lectores y deja aclarados los extremos pertinentes a su autoría.

Euskaltzaindia
Bilbao, octubre de 2006

Euskera 2006,1

Dio/dice:	Esan behar du/debe decir:
I. 125. or. 31. lerroan: W (ohm), MW (megaohm)	Ω (ohm), M Ω (megaohm)
II. 127. or. 32. lerroan: 7:00 am	7 A

AURKIBIDEA / ÍNDICE / INDEX
2006

AURKIBIDEA / ÍNDICE / INDEX

2006

ABRIL, Jon:	
– <i>Nafarroa Oinez</i> 2006. Ongietorria	727
AGIRREBALTZATEGI, Paulo:	
– Eujenio Agirretxe Azpillaga. Euskal sermolaria eta euskararen predikaria (1920-2005)	563
AIERBE, Patxi:	
– Frantzisko Ignazio Lardizabalen II. mendeurrena	67
ANDIAZABAL, P.:	
– Pierre Lafitten gutundegia	199
ARANBURU, Pedro:	
– R. M. Azkue/ <i>Lauro</i> Ikastola 40. urtemuga	781
ARBURUA, Patri:	
– Bortzirietako euskararen bilakaera eta egungo egoera	737
ARTZA, Jon:	
– Euskaltzaindia <i>Saló del Llibre de Barcelona 2006</i>	1297
– Durangoko 41. Euskal Liburu eta Disko Azoka	1301
ATXAGA, Bernardo:	
– Andimaren liburu bat eskuan	45
AULESTIA TXAKARTEGI, Gorka:	
– Jose Maria Etxaburu Etxaburu (1913-2006)	1323
AZKARATE, Miren:	
– Patxi Altuna: jesuita, euskaltzalea, irakaslea eta euskaltzaina (1928-2006)	591
AZKARRAGA, Joseba:	
– <i>Mendebaldearen mintzo mindua</i> . Aurkezpena	1275

BADIOLA, Ricardo:	
– Euskaltzaindia <i>Saló del Llibre de Barcelona 2006</i>	1297
– Durangoko 41. Euskal Liburu eta Disko Azoka	1301
BATTITTU COYOS, Jean-Baptiste:	
– Europar Batasuna eta euskararen aldeko hizkuntza politika Ipar Euskal Herrian	985
BAXOK, Erramun:	
– Eremu urriko hizkuntzak Europa Batuan	919
EGAÑA, Andoni:	
– Euskaltzain urgazle berriei diplomak banatzea	1295
EIGUREN, Amaia:	
– Andima, Imanol eta Gorgonio elantxobetarrei omenaldia	33
ETXEBARRIA, Igone:	
– Gorgonio Renteria idazle	59
ETXEBARRIA, Jose Ramon:	
– Neurri-izenak eta neurri-esamoldeak euskaraz	123
ETXEBERRIA, Ignacio:	
– <i>Lauro</i> Ikastola	779
EUSKALTZAINDIA / Real Academia de la Lengua Vasca:	
– Donostian, 2006ko urtarrilaren 27an	361
– Bilbon, 2006ko otsailaren 24an	367
– Gasteizen, 2006ko martxoaren 31n	370
– Ageriko bilkura, 2006-IV-27	373
– Urnietan, 2006ko apirilaren 27an	375
– Ageriko bilkura, 2006ko maiatzaren 26an	377
– Elantxoben, 2006ko maiatzaren 26an	380
– Euskaltzain urgazle izendatuak, 2006-V-26	383
– Ageriko bilkura, 2006ko ekainaren 29an	384
– Zaldibian, 2006ko ekainaren 30ean	386
– Ageriko bilkura	388
– Euskaltzaindiaren ARAUAK:	
• 36. Frantziako Errepublikako eskualde-, departamendu- eta hiri-buru-izenak	393
• 148. Araua: <i>e-ezuste</i>	410

• 32. Espainiako Erresumako autonomia-erkidegoen, probintzien eta probintzia-hiriburuen izenak. (Arau zuzendua eta eguneratua)	1081
• 149. Euskal Herri inguruko exonimoak	1095
• 150. Arabako Herri Izendegia	1099
– Euskaltzaindiaren 2006ko batzar-egutegia	483
– Ageriko bilkura	1053
– Antzuolan, 2006ko uztailaren 20an	1057
– Ageriko bilkura	1061
– Uxuen, 2006ko irailaren 28an	1063
– Ageriko bilkura	1067
– Bilbon, 2006ko urriaren 27an	1069
– Ageriko bilkura	1071
– Bilbon, 2006ko azaroaren 24an	1073
– Donostian, 2006ko abenduaren 22an	1075
GOENAGA, Aizpea:	
– <i>Santxa Kondesa</i> antzezlanak	1273
GORROTXATEGI NIETO, Mikel:	
– Irizpenak	165
– Irizpenak	819
IRIONDO UNANUE, Joxemari:	
– J.M. Aranalde Olaondo	549
IÑIGO ARIZTEGI, Andres:	
– <i>Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko</i> . Mendaurre I. Aurkezpena ..	515
– <i>Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko</i> . Mendaurre I. Presentación ..	519
– Patxi Ondarra Erdozia: bizitza eta lanak (1925-2005)	535
– Hamahirugarrena Uxuekoa, Erriberriko Merindadekoa (Patxi Salaberri Zaratiegi, Euskaltzaindian sartzea)	713
– <i>Bera / Vera</i> de Bidasoa herri izenaz	731
– Europar Batasuna eta euskararen aldeko hizkuntza politika: Nafarroa	999
JUARISTI, Patxi:	
– Hizkuntza aniztasuna Europar Batasunean	893
KINTANA, Xabier:	
– Imanol Berriatua, euskal etorkizunaren ereile	51

– Euskaltzaindiaren Barne-Historiaz	197
– Gaubea , udal izenaz	823
– Euskaltzaindiaren Barne-Historiaz	1045
KNÖRR, Henrike:	
– Biografía de Francisco J. Oroz Arizcuren	241
– Basque fishermen in Iceland. Bilingual vocabularies in the 17 th and 18 th centuries	491
– <i>Berantevilla</i> eta <i>Soportilla</i> izenen inguruan	843
– En torno a <i>Berantevilla</i> y <i>Soportilla</i>	845
– Institut d’Estudis Catalans. Euskaltzaindia: els treballs sobre la codificació lingüística de l’èuscar	1303
– Federico Barrenegoa Arberas (1916-2005)	1311
LARRAZABAL, Santiago:	
– Eremu urriko hizkuntzak Europar Batasunean: ikuspegi juridikoa Hego Euskal Herritik	969
LIZUNDIA, Jose Luis:	
– Juan San Martin Ortiz Zaratekoa, euskaltzain osoa	525
– Eremu urriko hizkuntzak European Euskal Autonomia Erkidegoko egoera jorratuz	1009
MARTINEZ, Jaime:	
– Euskaltzaindia eta <i>Lauro</i> Ikastola: euskararen aldeko 50 urteko kidetasun ibilbidea	785
MORVAY, Karoly:	
– La noticia de <i>Nemzeti Hírlap</i> . La correspondencia del Pr. Luciano Bonaparte con un científico húngaro	879
MUJICA, Jose Antonio:	
– Zertzelada batzuk Plazido Muxikaren bizitzaz	15
OIZ, Joxan:	
– <i>Labiagak Laruni</i> itzala egin zionekoa, edo «gerla eder eta miragarri hura» hasi zenekoa	771
OROZ, Francisco J.:	
– Jirones de una vida abigarrada (de la gambella a la cátedra)	241

OSA, Erramun:	
– Europar Batasuneko hizkuntza aniztasuna eta euskararen hizkuntza politikak. Sarrera	891
OYHARÇABAL, Beñat:	
– Lardizabalen gramatikaren iturri, ezaugarri eta helburuak	105
PEILLEN, Txomin:	
– Andima adiskidea	39
SALABERRI ZARATIEGI, Patxi:	
– <i>Uxueko</i> izenak mintzagai	673
– Sobre los nombres de <i>Ujué</i>	693
SUSTAPEN BATZORDEA:	
– Hizkuntza politika aitzinproiektua «hiztun osoak helburu, haur eta gazteak lehentasun»	1029
TOLEDO LEZETA, Ana Maria:	
– Juan Mari Lekuona: ... eta hitza lanabes bihurtu zuen (1927-2005)	583
– Musen arnasatik goi-arnasara, euskal letretan barrena	629
– Euskararen iraupena, atzo eta gaur (2006-2007 ikasturteko irekiera-hitzaldia). Deustuko Unibertsitatea	1019
URKIZU, Patri:	
– Augustin Zubikarai (1914-2004) & Euskalteatroa	871
URRUTIA, Andres:	
– Plazido Muxika Berrondoren mendeurrena	13
– Andima, Imanol eta Gorgonio idazleei omenaldia	35
– Lardizabalen 200. urteurrena	69
– <i>Plazaberri</i> agerkari digitala	489
– Juan M ^a Lekuona eta Patxi Altunaren omenez	581
– Ana Maria Toledo Lezeta, Euskaltzaindian sartzea. Agurra	625
– Patxi Salaberri Zaratiegi, Euskaltzaindian sartzea. Agurra	669
– <i>Nafarroa Oinez</i> 2006. Agurra	729
– R. M. Azkue/ <i>Lauro</i> Ikastola 40. urteurrena. Ongi etorriak!	777
– Juan San Martin Eibarko <i>seme kutun</i>	813
– Agur hitzak (Ondarroan, Herri-hizkera Jardunaldia)	869
– X. <i>Jagon</i> Jardunaldiak. Aurkezpena	889
– Euskaltzain urgazle berriak	1291

URRUTIA, Jose Felix:

- Joan Perez Lazarraga (1550-1605) idazlearen IV. mendeurrena:
1605-2005. Ongietorria/Bienvenida 723

VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari:

- Gaizka Barandiaran (1916-03-03/2006-07-20) 1315

XARRITTON, Piarres:

- Pierre Lafitten gutundegia: IX. emanaldia 199
- Euskaltzaindiaren Barne-Historia: X. emanaldia 1047
- D-mailako hizkuntza gaitasun agiria 1263

ZABALO, Jose Angel:

- Ana Maria Toledo Lezeta, Euskaltzaindian sartzea. Ongietorri! .. 623

ZALBIDE, Mikel:

- Lardizabalen gramatika, bere gizarte-giroan 71

ZOROZA, María Jesús:

- Patxi Salaberri 667

ZUBIMENDI, Joxe Ramon:

- *Jagoneteko* 2006ko datuak 1041